


**ETXERIK GABE ETA  
BAZTERKERIA LARRIAN  
DAUDEN PERTSONEN PREMIEI  
EMANDAKO ERANTZUNA**







# ETXERIK GABE ETA BAZTERKERIA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN PREMIEI EMANDAKO ERANTZUNA

Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia

**Arartekoaren aldetik:**

Iñigo Lamarca, Julia Hernández, Faustino López de Foronda, Valentín Martínez-Acha, Fermín Barceló, Itziar Barrenkua, María Luisa Aguirreche, Iñaki Mendieta, Josune Oiarbide, Idoia Llano, Nieves Oca, Amaia Pagola, Myriam González.

**Biker, S.L.L. (Soziologi Kabinete) aldetik:**

Iratxe Herrero, Zaloa Pérez.

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Azaleko irudia: EPS, S.L.

Itzulpena: Hori-hori

Paper ekologikoa.

L.G: VI-217/06



ETXERIK GABE ETA  
BAZTERKERIA LARRIAN  
DAUDEN PERTSONEN PREMIEI  
EMANDAKO ERANTZUNA



**AURKIBIDEA**





<b>Koadro eta grafikoen aurkibidea .....</b>	<b>13</b>
<b>Aurkezpena .....</b>	<b>17</b>
<b>1. Sarrera: txostenaren testuingurua, ikuspuntua, xedea, helburuak eta egitura .....</b>	<b>23</b>
<b>2. Metodologia .....</b>	<b>33</b>
2.1. Iturri dokumentalen azterketa .....	34
2.2. Bizitza kontakizunak .....	35
2.3. Informatzaile nagusiei elkarriketa .....	38
2.4. Lan talde egonkorak.....	39
2.5. Delphi teknika.....	42
2.6. AMIA analisia .....	44
2.7. Txostenaren mugak.....	44
<b>3. Gizarte bazterkeriaren esparru arau emailea.....</b>	<b>47</b>
3.1. Ongizate Estatua .....	49
3.2. Gizarte eskubideek nazioartean eta Espainiako ordenamendu juridikoan duten isla.....	51
3.2.1. Gizarte eskubideen izaera giza eskubide diren aldetik.....	51
3.2.2. Gizarte eskubideak Espainiako eta nazioarteko ordenamendu juridikoan.....	52
3.2.3. Baztertutako gizarte eskubide bat: etxebizitzarako eskubidea ....	55
3.2.4. Gizarte eskubideen garapena eta eskubideok betetzeko dauden zailtasunak .....	56
3.3. Ongizate Estatuaren erronkak.....	57
3.3.1. Gizarte arrisku berriak .....	57
3.3.2. Herritartasun inklusiboa.....	58
3.4. Gizarte politikak eta gizarte bazterkeria .....	59
3.4.1. Gizarte politiken bilakaera .....	59
3.4.2. Gizarte politiken esparru juridikoa .....	62
3.4.2.1. Administrazioaren planifikazio jarduera .....	70
3.4.3. Instituzioen eta eskumenen esparrua.....	72
3.4.3.1. Eskumenen banaketa: Europar Batasuna, Batasuneko Estatuak, Euskal Autonomia Erkidegoa, aldundiak eta udalak.....	72

3.4.3.2.	Gizarte zerbitzuak eskuratzea eta gizarte zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen eta hango profesionalen erregimen juridikoa .....	78
3.4.3.3.	Pertsonen babesean esku hartzen duten beste eragile batzuk: hirugarren sektorea eta gizarte sareak eta familiakoak .....	79
3.5.	Esparru arau emailearen ahuleziak eta indarrak: galdetu zaien pertsonen iritzia .....	81
<b>4.</b>	<b>Bazterkeria larria testuinguruan jartzea</b> .....	<b>87</b>
4.1.	Bazterkeria larria: zertaz ari gara? .....	91
4.2.	Etixerik gabeko pertsonak eta gizarte bazterkeria larrian daudenak .....	97
4.2.1.	Etixerik gabeko pertsonak ikuspegi soziologiko batetik .....	98
4.2.1.1.	Kontzeptuaren bilakaera eta tipologiak .....	98
4.2.1.2.	Etixerik gabeko pertsonen profil zaharrak eta berriak .....	101
4.2.2.	EAEko etxerik gabeko pertsonen profilerak hurbiltzea .....	112
4.2.3.	Etorkizuneko joerak: aukerak eta mehatxuak .....	114
4.3.	Etixerik gabeko pertsonak gizarteratzea .....	116
4.3.1.	Etixerik gabeko pertsonekin esku hartzeko prozesua: printzipioak eta faseak .....	116
4.3.2.	Gizarteratzeko ibilbideak .....	120
4.3.3.	Etixerik gabeko pertsonekin esku hartzeko prozesuen aukerak eta mugak .....	122
4.4.	Idea nagusien laburpena .....	125
<b>5.</b>	<b>EAEko etxerik gabe eta gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen beharrezaneko eskaintako laguntza</b> .....	<b>129</b>
5.1.	Etixerik ez duten pertsonen beharrezaneko emandako erantzuna .....	131
5.1.1.	Erakunde publikoen erantzuna .....	131
5.1.2.	Erakunde pribatuen erantzuna .....	133
5.1.3.	Herritarren erantzuna .....	133
5.2.	EAEko etxerik gabe bizi diren pertsonen oinarritzko beharrezaneko erantzuna emateko sistemaren diagnostikoa .....	137
5.2.1.	Laguntza ibilbideetara egindako hurbilketa .....	140
5.2.1.1.	Laguntza ibilbideak Gasteizen .....	141
5.2.1.2.	Laguntza ibilbideak Bilbon .....	146
5.2.1.3.	Laguntza ibilbideak Donostian .....	154
5.2.2.	Gaueko babesa .....	157
5.2.2.1.	Larrialdiko eta egonaldi laburreko gaueko babesa .....	164
5.2.2.2.	Egonaldi ertaineko eta luzeko gaueko babesa .....	175
5.2.2.3.	Etxebizitza autonomorako laguntza .....	183
5.2.3.	Eguneko babesa .....	184
5.2.3.1.	Oinarritzko zerbitzuak elikaduran, jantzetan eta dutxetan .....	185
5.2.3.2.	Gizarteratze zentroak .....	189
5.2.3.3.	Gizarte eta osasun zerbitzuak .....	197
5.2.3.4.	Hurbiltasunik handieneko zerbitzuak .....	199

5.2.3.4.1.	Inguru irekiko esku-hartzea .....	200
5.2.3.4.2.	Gizarte larrialdiko zerbitzua .....	202
5.2.3.4.3.	Harrera programak .....	206
5.2.3.5.	Okupazioko eta laneratu aurreko tailerrak .....	208
5.2.4.	Etixerik gabeko pertsonen emandako laguntza EAEn: irismena eta mugak .....	214
5.2.4.1.	Ahuleziak .....	214
5.2.4.2.	Laguntza egokirik ez duten beharrianak: gogoetak ..	221
5.2.4.3.	Indarrak: sendotu beharreko alderdiak .....	226
5.3.	Idea nagusien laburpena .....	228
5.3.1.	Etixerik gabeko pertsonen beharrianen emandako erantzuna ..	228
5.3.2.	Laguntza sistemaren diagnostikoa .....	229
<b>6.</b>	<b>Arreta alorreko beste esperientzia batzuk: aipagarrietan zehar</b>	<b>231</b>
6.1.	EAEtik kanpoko arreta zuzeneko esperientziak .....	234
6.1.1.	Espainiar estatua .....	236
6.1.2.	Nazioarteko esparrua .....	239
6.1.3.	Esperientziatik eginbide onetara: zein elementu bereizten dituzte? .....	246
6.2.	Etixerik gabeko pertsonekin zeharka jarduteko beste modu batzuk: errealitatea analizatu eta bistaratzea .....	248
6.2.1.	Estatistikak eta txostenak: errealitatea kuantifikatzen .....	248
6.2.2.	Sareak eta topaketa foroak: esperientziak partekatzen .....	250
<b>7.</b>	<b>Etixerik gabeko pertsonak: bizitza kontakizunak</b> .....	<b>253</b>
7.1.	Iragana: etxegabetasunerako bide desberdinak .....	259
7.2.	Oraina: etxerik gabeko bizitza .....	262
7.3.	Geroa: itzaropena eta etsipena .....	281
7.4.	Idea nagusien laburpena .....	284
<b>8.</b>	<b>Gomendioak</b> .....	<b>287</b>
<b>9.</b>	<b>Bibliografia</b> .....	<b>315</b>
<b>Eranskinak:</b>		
I.	eranskina: Euskadin gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko dauden baliabideak azaltzen dituen koadroa .....	331
II.	eranskina: Lurralde historiko eta herri bakoitzeko egonaldi laburreko eta luzeko ostatu zerbitzuak .....	332
III.	eranskina: EAEn etxebizitzarik gabeko eta gizarte bazterkeria egoera larriar dauden pertsonen laguntza ematen dieten erakunde pribatuaren direktorioa. 2005 .....	337
IV.	eranskina: Elkarriketaren gidoia .....	340
V.	eranskina: Bizitza kontakizun baten gidoia .....	342
VI.	eranskina: Delphi galdeketa gidoi eta emaitzak .....	343



# **KOADRO ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA**



**KOADROEN AURKIBIDEA**

<b>2.1. koadroa:</b>	Bizitza kontakizunak egiteko elkarrizketatu diren etxerik gabeko pertsonen ezaugarriak.....	37
<b>2.2. koadroa:</b>	Informatzaile nagusien zerrenda .....	38
<b>2.3. koadroa:</b>	Lan taldeek egin zituzten batzarrak eta batzarrak egin ziren lekuak.....	40
<b>2.4. koadroa:</b>	Lan taldeetan eztabaidatutako gaiak.....	41
<b>2.5. koadroa:</b>	Lan taldeetan parte hartu duten erakundeak.....	41
<b>2.6. koadroa:</b>	Delphi kontsultan parte hartu zuten pertsonak.....	43
<b>4.1. koadroa:</b>	Bazterkeria: mailak, aldagaiak eta graduak .....	94
<b>4.2. koadroa:</b>	Ingurune sozial eta ekonomiko orokorreko aukerak.....	115
<b>4.3. koadroa:</b>	Ingurune sozial eta ekonomiko orokorreko mehatxuak .....	116
<b>4.4. koadroa:</b>	Gizarte eremuak .....	120
<b>4.5. koadroa:</b>	Etxerik gabeko pertsonak gizarteratzeko ibilbideetako faseak, helburuak eta beharrezko baliabideak.....	121
<b>5.1. koadroa:</b>	Gaueko babesa Gasteizen .....	142
<b>5.2. koadroa:</b>	Eguneko babesa Gasteizen.....	144
<b>5.3. koadroa:</b>	Gaueko babesa Bilbon.....	147
<b>5.4. koadroa:</b>	Eguneko babesa Bilbon .....	150
<b>5.5. koadroa:</b>	Gaueko babesa Donostian .....	155
<b>5.6. koadroa:</b>	Eguneko babesa Donostian.....	156
<b>5.7. koadroa:</b>	Gaueko eta ostatuko zentrozen banaketa, biztanle kopurua kontuan hartuta, Lurralde Historikoaren arabera. 2005.....	159
<b>5.8. koadroa:</b>	Ostatuko plaza kopurua eta gaueko zentrozen kopurua etxerik gabe bizi diren pertsonentzat, baliabidearen egonaldia aintzat hartuta, Lurralde Historikoaren arabera. 2005.....	160
<b>5.9. koadroa:</b>	Plaza bakoitzeko pertsona kopurua eta laguntzaren ehunekoa, Lurralde Historiko bakoitzean. 2005.....	161
<b>5.10. koadroa:</b>	Ostatuko plazen eta gaueko zentrozen kopurua, etxerik gabeko pertsonentzat, sarbide motaren arabera, Lurralde Historiko bakoitzean. 2005.....	162

<b>5.11. koadroa:</b> Ostatuko plazen eta gaueko zentroen kopurua, etxerik gabeko pertsonentzat, lagundutako pertsonaren profilaren arabera, Lurralde Historiko bakoitzean. 2005.....	163
<b>5.12. koadroa:</b> Egonaldi laburreko ostatu zerbitzuak eta gaueko zentroak. 2005 .....	165
<b>5.13. koadroa:</b> Larrialdiko ostatu zerbitzuen laguntza, Bizkaian eta Gipuzkoan 20.000 biztanle baino gehiago duten udalerrietan (hiriburuetan izan ezik). 2005 .....	172
<b>5.14. koadroa:</b> Larrialdiko jarduketa protokoloak etxerik gabe bizi diren pertsonentzat, Bizkaian eta Gipuzkoan 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan (hiriburuak izan ezik). 2005 .....	174
<b>5.15. koadroa:</b> Egonaldi ertaineko eta luzeko ostatu plazak hiriburuetan, Lurralde Historiko bakoitzean. 2005.....	178
<b>5.16. koadroa:</b> Egonaldi ertaineko eta luzeko ostatu plazen kopurua, lagundutako pertsonaren arabera, Lurralde Historiko bakoitzean. 2005.....	179
<b>5.17. koadroa:</b> Elikadura zerbitzuak EAEko hiriburuetan. 2005 .....	187
<b>5.18. koadroa:</b> Gizarteratze Zentroak Bilbon, Donostian eta Gasteizen. 2005 .....	190
<b>5.19. koadroa:</b> Gizarteratze Zentroetako plazak, eskakizun mailaren arabera, Lurralde Historiko bakoitzean. 2005.....	195
<b>5.20. koadroa:</b> Gizarteratze Zentroetako plazak lagundutako profilaren arabera, Lurralde Historiko bakoitzean. 2005.....	196

## GRAFIKOEN AURKIBIDEA

<b>4.1. grafikoa:</b> Bazterkeria prozesua .....	97
<b>4.2. grafikoa:</b> Etxerik gabeko pertsonaren profilaren bilakaera.....	102
<b>4.3. grafikoa:</b> Arreta emateko zerbitzuetan atentzioa jasotzen duten pertsonen profilak.....	103
<b>4.4. grafikoa:</b> Gizarte diagnostiko bat egiteko prozesua.....	118
<b>5.1. grafikoa:</b> Etxerik gabeko pertsonen laguntzarako ibilbideak Gasteizen..	146
<b>5.2. grafikoa:</b> Bilboko baliabide mapa etxerik gabeko pertsonentzat .....	153
<b>5.3. grafikoa:</b> Donostiako baliabide mapa etxerik gabeko pertsonentzat.....	157
<b>7.1. grafikoa:</b> Bitzita kontakizunen gai blokeak .....	257



# AURKEZPENA



Orri hauetan aurkezten dugun txostenean, gure Erkidegoan etxerik gabe eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen oinarritzko premiei ematen zaien erantzuna aztertu nahi da. Etxerik gabeko pertsonak dira, baliabide gutxirekin eta lotura afektiborik edo senideen laguntzarik gabe daudenak. Gehienetan, hainbat gorabehera bizi eta gero heldu dira deserrotze egoera horretara.

Arartekoak pertsona horien egoera sakon aztertzeko erabakia hartu du, ahulezia egoera berezia bizi duten pertsonen lehentasunezko laguntza eskaini nahi dielako. Bazterkeria larria, zalantzarik gabe, egoera horietako bat da.

Etxerik gabeko pertsonen kolokan jartzen dute sistema, agerian uzten dutelako sistemak ez duela gaitasunik pertsona horiek gizarteratzeko. Horren ondorioz, sarritan, arazoari ez zaio behar besteko garrantzirik ematen gure gizartean: arazoa saihestezina da, beraz, onartu beharra dago.

Azken urteotan, ugaritu egin dira horren gaineko ikerlanak eta argitalpenak, eta hitzaldiak eta jardunaldiak antolatu izan dira. Gizarte ekimenak eginkizun garrantzitsua du gizartearen sensibilizazioan, eta sareak sortu dira estatu eta nazioarte mailan, pobrezia aurre egiteko. Txosten honek pobrezia eta marjinazioari aurre egiteko ematen ari diren konponbideak aztertu ditu. Gainera, aspaldion egin diren beste ikerketa eta jardunbide batzuek bezala, bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen premiei eta zailtasunei buruz sensibilizatu nahi du, euren arazoa azaleratuz. Izan ere, egoera horretan dauden pertsonak isolatuta eta gizarte antolakunde eta erakundeen ordezkaritza baliabideetatik urrun bizi dira.

Gure herrietan dagoen pobrezia eta marjinazioak enbarazu egiten digute, deseroso sentiarazten gaituzte. Horregatik, gizartea ohartarazi nahi dugu, pertsona horiek gure auzoetatik urruntzea edo bizi duten egoera euren leporatzea bezalako erantzunak baztertu daitezken; ez dezagun pentsa egoera horiek nagikeria, parasitismo edo fede txarrez jokatzen dutelako direnik, sistemak edo erakundeek marjinazio prozesuak saihestu edo geldiarazteko mugak dituztela pentsatu beharrean.

Gehiago jakin behar dugu bazterkeria sortzen duten prozesuei buruz, konponbideak eta politika publikoak egokitzen laguntzeko. Horregatik, garrantzi handia du gizarteratzeari, gabeziei edo jardunbideen kalitateari buruzko ikerketa bultzatzea, egoera hobetu ahal izateko. Egindako ikerketak agerian utzi du gure gizartean irauten duten pobrezia eta gizarte bazterkeria egoerari buruzko informazioa sistematizatu eta ebaluatu, eta horren jarraipena egin beharra dagoela.

Sistema ekonomikoak dituen zailtasunei, gaur egun, gizarte haustura berriak gehitu behar zaizkie, produkzio sisteman parte hartzea baino harago doazenak, eta, normalean, familiak eta gizarte sareek eskaintzen duten gizarte eta komunitate integrazioa kaltetzen dutenak. Esperientziak diosku garatzen joan diren laguntza osagarriek eta birbanaketek (gizarte segurantzak, zerga politika progresiboa, oinarrizko errenta bezalako laguntza ekonomikoak...) ez digutela balio, ez direla nahikoa bazterkeria egoera batzuk gainditu ahal izateko. Bestalde, txostenak erakusten du gizarte sarerik ezak pertsona horien gizarteratzea zailtzen duela. Horrek gizarteratze prozesuetan gizartearen inplikazio handiagoaren beharra dakar, gizarteratze hori arrakastatsua izan dadin. Beraz, konponbideak bilatu behar dizkiogu sortu diren egoera berriei; eta txostenak horretan lagundu nahi du.

Azterketa egin ondoren, antzeman diren arazo nagusiak zein izan diren esan dezakegu. Era berean, arazo horiek gainditu beharreko erronkak dira, erantzun hobea eman nahi badugu eta bazterkeria desagerrarazi nahi badugu.

Horrela, hurrengo arazo hauek nabarmenduko ditugu:

- Hutsuneak, batetik, legeriari dagokionez, eta, bestetik, eskumen banaketari dagokionez (nork egin behar dien arreta pertsona horiei).
- Baliabideen arteko koordinaziorik eza, jarduteko irizpide bateraturik eza, baliabide batetik bestera bideratzeko protokolorik eza, sarean egindako lanik eza...
- Premia jakin batzuei erantzuteko zailtasuna, baldintza batzuen arabera: esate baterako, lekua (ia baliabide guztiak hiriburuetan kokatzen dira); ordutegia (sarritan ez da zerbitzurik eskaintzen asteburuetan eta jaiegunetan); baliabideak eskuratu ahal izateko exigentziak (irigarritasuna), edo artatu beharreko profil berriak (familiak, etorkinak, patologia dualeko pertsonak...).
- Gizartearen, zerbitzuen edo programa arrunten inplikazio eskasa pertsona horiei eman beharreko erantzunean, batez ere, etxebizitza eta osasun arloetan: etxebizitza eta enplegu politikak, osasun zerbitzuak, prebentzio programak...
- Orain arte izandako esperientzia gutxi aprobetxatu izana, programa eta baliabideen ebaluazio sistematikorik eza eta plangintza parte-hartzailearik eza.
- Pertsona horienganako gizarte sentsibilizazioari eta irudiari buruzko arazoak. Kasu batzuetan, horren ondorioz, baliabide batzuen aurkako jarrera egoten da, hurbileko inguruan eta inguru normalizatu batean kokatu nahi direnean behintzat.
- Programek aurrera egingo dutela bermatzeko dauden arazoak, bai eta behar besteko laguntza ekonomikoak edo zerbitzuetako profesionalen lan baldintza onak lortzeko dauden arazoak.
- Baliabide jakin batzuen saturazioa...

Txostenak gomendio batzuk ematen ditu (30 guztira) eta horien bidez aipatutako arazoei aurre egin nahi zaie. Gomendio zehatzak dira eta zerbitzuen arauketa, plangintza edo

koordinazioa hobetu nahi dituzte. Horrez gain, erakundeen lidergoa sustatu, erantzuteko gaitasuna handitu, eta premia eta profil berrietara egokitu nahi dira, eta lan egiteko eretan hobekuntzak bultzatu...

Baina, proposamen zehatz horien azpian, eusten, hari bat dago, oinarrizko erronka, proposamen horien guztien oinarri dena: onartezina da pobrezia eta bazterkeria larriko egoerarik egotea; hazkunde ekonomiko iraunkorreko testuinguru batean, gizarte eredu solidarioa bultzatu behar da, gizarte kohesioaren elementu garrantzitsuena baita; eredu horrek gure ekonomietan eta gizarteetan etengabe gertatzen diren egiturazko aldaketei aurre egiten lagunduko digu, zatiketa handirik eta marjinaziorik gabe.

Txostenak arrisku bat antzeman du, hain zuzen ere, bazterkeriaren ondoriozko muturreko pobrezia egoerak ez ote diren areagotuko. Horrek, pentsarazi egin behar digu, batetik, zein gizarte eredurantz goazen, eta, bestetik, ahalik eta pertsona gehien integratu behar dela normalizatutako gizarte eta lan sareetan.

Bazterkeriaren zergatiak eta zein gizarte eredu nahi dugun aztertu eta hausnartu behar dugu. Izan ere, beharbada, zuzenketa batzuk eginda, pertsonen gizarteratzea ahalbidetuko litzateke, bestela, kanpoan geratuko lirakeenak.

Arartekoa naizen aldetik, sistematik kanpo dauden pertsona kopurua hazteak arduratzen nau (etxerik gabe, lanik gabe, gizartean parte hartu gabe daudenak...), bai eta gizarte dualizazioak gora egiteak. Hori gertatu ez dadin alderdi askoren ahalegina behar da, ez bakarrik gizarte zerbitzuena eta erabiltzaileena, baizik eta eragile ekonomikoena eta sozialena eta erakundeena, horiek baitira gizartearen motoreak. Txosten honetan jasotako ahulezia egoerek gizarte kohesioari lagunduko dioten elkartasun jarrerak eta jardunbideak eragin behar dituzte, horixe baita gai publikoen kudeaketaren helburu garrantzitsuenetakoa.

Aurkezpen hau bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiet txostena egin eta egiten lagundu dutenei: Biker Soziologi Kabineteko kideei, oinarrizko azterketa egiteagatik; administrazioen eta gizarte erakundeen arduradun eta profesionalei, euren datuak eta ikuspuntua eskaintzeagatik; etxerik gabeko pertsoneri, euren bizipenak eskaintzeagatik; Ararteko erakundeko langileei, lana koordinatzen edo argitaratzen parte hartzeagatik...

Uste dut lan hau baliagarria izango zaiela sektore honetan lan egiten duten pertsoneri, eta etxerik gabe eta bazterkeria egoera larrian bizi diren pertsonen bizi baldintzak hobetzen lagunduko duela; pertsona horiek, ez dezagun ahaztu, gure gizartearen parte dira.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko maiatzaren 5a

**ARARTEKOA**  
*Iñigo Lamarca Iturbe*



# **SARRERA**

**TXOSTENAREN TESTUINGURUA,  
IKUSPUNTUA, XEDEA, HELBURUAK  
ETA EGITURA**





## 1. SARRERA: TXOSTENAREN TESTUINGURUA, IKUSPUNTUA, XEDEA, HELBURUAK ETA EGITURA

- **Bazterkeria egoera larrian** dauden pertsonen gizarteratzea erronka handia da oraindik gure gizartean. Gure Ongizate Estatuan gaur egun oraindik pertsona batzuk ezin dira eskubide osoko herritar izaeraz benetan baliatu. Pertsona horiek gizarte dinamiketarik kanpo bizi dira eta, horien aurrean, gainerako herritarrak baino ahulagoak dira.

Azken urteotan, bazterkeria larriena jasaten duten pertsonenganako ardura hedatu eta areagotu egin da. Horri dagokionez, Nazio Batuen Biltzar Nagusiak Etxerik Gabeko Pertsonak Babesteko Nazioarteko Urtea adierazi zuen 1987a. Eta oraintsu, 2005eko ekainean, Etxerik Gabeko Pertsonen Europako VIII. Biltzarra egin da Pragan, Buruko Osasun eta Gizarte Bazterkeria Taldeak antolatuta.

Hala ere, ondo zehaztu gabeko errealitatea da, kuantifikatzeko zaila; izan ere, horri buruzko datuak ematerakoan, oso kopuru desberdinekin egiten dugu topo. Horrela, esate baterako, FEANTSAREN arabera (etxerik gabeko pertsonekin lan egiten duten Erakundeen Europar Federazioa), 2005ean milioi bat lagun baino gehiago bizi zen Europar etxerik gabe. EUROSTATen arabera, aldiz, 18 milioi ziren gizarte bazterkeria egoeran bizi zirenak 2004. urtean, Europar Batasuneko 15 estatuetan; horietatik, 2,5 milioi etxerik gabe (kalean edo egonaldi mugatuko aterpetxeetan bizi direnak).

Espanian, hainbat azterketek kalkuluak eta estimazioak egin dituzte, eta 16.000 eta 200.000 pertsona arteko kopuruak eman dituzte. EAEn Deustuko Unibertsitateak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarentzat egindako *“Etxerik gabeko pertsonak. Ostatu proposamenei buruzko irizpena”* txostenaren arabera, 420 pertsona ziren kalean lo egiten zutenak...

Oraintsu aurkeztu den azken lanaren arabera, *“Etxerik gabeko pertsonen buruzko inkesta (2005)”* (Estatistikako Institutu Nazionalak egindakoa, eta gure erkidegoan, EUSTATEk), zentroetan artatutako etxerik gabeko pertsonak 21.900 dira Estatu osoan eta 1.800 EAEn. Azken kopuru hori gure txostenean atera ditugun ondorioetatik hurbil dago. Hala ere, txosten honen helburua ez da pertsona kopurua zenbatzea, baina bai, ordea, baliabideetan dagoen plaza kopurua jakitea (1.135 plaza, esate baterako, gaueko zerbitzua eskaintzen dutenak).

Ikusi daitekeenez, kasu askotan kopuruak oso desberdinak dira, baina sarritan zifrak ez dagozkio kontzeptu berberari. Argi dagoenez, ez da gauza bera gizarte bazterkeria

egoeran dagoen pertsona kopurua eta etxerik gabe daudenen kopurua zenbatzea (azken horiek bazterkeria larrian daudenen zati bat baitira), edo kalean lo egiten duen pertsona kopurua zenbatzea (etxerik gabe daudenen zati bat baitira).

Horrela, nahiz eta gizartean gero eta eragin handiagoa izan eta eskaintzen zaien arreta ere gero eta zabalagoa eta osatuagoa izan, adostu beharreko gai garrantzitsuak eta bete beharreko premiak daude. Horrela, azterketa honi ekiterakoan, zailtasun handietako bat arretan esku-hartzen duten eragileen adostasun falta izan da, etxerik gabeko pertsona eta gizarte bazterkeria egoera larrian dagoen pertsona definitzerakoan. Horrek inplikazio handia izan dezake pertsona horien premiei arreta eskaintzerakoan. Gai horren gainean egindako ikerketek eta azterketek hainbat definizio eman dituzte, aztergaia zehaztu ahal izateko.

Gure Autonomia Erkidegoaren esparru geografikoan etxerik gabe eta gizarte bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen eskaintzen zaien arretak garrantzi handia hartu du, bai Lurralde Historiko bakoitzean dauden zerbitzu eta baliabideei dagokionez, bai artatutako pertsonen egoeren ugaritasun eta aniztasunari dagokionez. Era berean, azken urteotan aldaketak gertatu dira gizarte egitura eta dinamiketan. Horien ondorioz, "bazterkerian bizitzeko" era berriak sortu dira eta, horregatik, aldatu egin dira pertsonen ezaugarriak eta artatutako premiak. Hara-hona etxerik gabe dabilen pertsonaren profil tradizionala, hau da, gizonezkoa, adinduna, nolabaiteko buru-nahasteaz eta alkoholaren kontsumitzaile aktiboa, aldatzen ari da, eta orain gazteagoak, emakumeak, etorkinak, familiak, buruko gaixotasunak dituztenak... dira. Horren ondorioz, erakundeek eta instituzioek etengabe egokitzen ibili behar dute, aldatzen ari diren egoera eta premiei ondo erantzun ahal izateko.

Etxerik gabeko pertsonen profilean eta premietan izandako aldaketen ondorioz, behintzat zati batean, pertsona horiei arreta egiteko sarea zabaldu eta espezializatu egin da; hala ere, baliabideak eta sektorearen arauketa ez dira beti behar bestekoak izan, edo egitura ez da egokia izan.

Tradizioz, etxerik gabeko pertsonen eskaintako arreta oinarri-oinarrizkotzat jo izan diren premiak betertzerazuzendu izan da: ostatu ematea, jaten ematea eta janzteak. Hala ere, azken urteotan nabarmen gehitu dira gizarteratzearekin zerikusia duten gaiak lantzen dituzten baliabideak, programak eta zerbitzuak.

Egoera horrek diagnostiko bat egin beharra eskatzen zuen, fenomeno horren alderdi garrantzitsuenak identifikatzeko, ezaugarriak deskribatuz. Horrela, batetik, ahulguneak antzeman nahi dira, hobetzeko behar diren proposamenak egiteko, eta, bestetik, indarguneak, horiek sendotzen jarraitzeko. Era berean, uste dugu diagnostikoa egin behar dela lehen, eta, gero, behar diren jarduera guztiak garatu behar direla, batetik, sektorea hobeto antolatu ahal izateko, eta, bestetik, plangintza estrategiko bat lortzeko, eraginkortasun handiagoa lor dadin oinarri-oinarrizko premiei arreta eskaintzerakoan.

Errealitatea hobeto ezagutzea, hausnarketa eta hobekuntza bultzatzeko; helburu horrekin sortu da ikerlan hau. Horri dagokionez, azterketa honetan hurrengo gai hauek aztertu ditugu, besteak beste:

- Kontzeptuak zehazteko zailtasuna dago: guretzat zer da bazterkeria larria? Zein pertsona edo kolektibo sartzen dugu etxerik gabeko pertsonen kontzeptupean?
  - Egoera horretan erortzeko arrazoiak asko eta konplexuak dira.
  - Etxerik gabe eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen arreta beharrianak. Zein beharrian dagoen beteta, nola betetzen diren eta zein ez dagoen beteta.
  - Pertsona horiek bizi dituzten egoerak oso anitzak dira.
  - Etxerik gabe eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen ezaugarriak ugariak dira, bai eta horien premiak.
  - Zerbitzuek eta baliabideek dituzten bolumena eta konplexutasuna, eta horien koordinazio maila...
- Bazterkeria larria egoera konplexua eta alderdi askotakoa denez, gure ustez, horren azterketak premisa horiek berberak izan behar ditu. Horregatik, gertaera horri eman behar zaion **ikuspegiak** hainbat esparru eta hainbat eragile izan behar ditu kontuan. Azterketari begira, zer esan nahi du horrek?

Lehenengo eta behin, bazterkeria aztertzerakoan, hainbat esparru eta eragile izan behar dela kontuan. Horrela, alderdi hauek aztertu nahi dira:

- Bazterkeria larriko egoera desberdinak daude, eta pertsonen premiak kontuan izanik aztertuko dira, premia horien arabera bideratu behar delako pertsona horiei eskaini beharreko arreta.
- Erantzun desberdinak: araudi, erakunde publiko, gizarte eragile eta herritarren aldetik.
- Arreta eta baliabideen esparru desberdinak: esparru ekonomikoa, etxebizitza, oinarrizko premiak betetzea, osasunaren esparrua...

Hainbat eragile kontuan hartzen dituen ikuspegiak esan nahi du hainbat profesional kontsultatu behar direla, diziplina ugariko arretaren eta arreta koordinatuaren ideari jarraituta. Gure ustez, horrela jokatu behar dute gizarte arretarako politikek. Lan honekin, erakunde publiko eta pribatuetakoa hainbat profesional kontsultatu da era sistematiko eta koordinatuan.

Era berean, ikuspegi hori garatu nahi izan da, jakinda bazterkeria egoera ez dela pertsoneri datzekien ezaugarria; bestela, alderdi asko dituen prozesua eta erantzun soziala da: bazterkeria badago, gizarte baztertzailak daudelako da.

- Hauek dira ikerlan honen **xedea**, eta **helburu orokorrak** eta **espezifikoak**:

**XEDEA:**

Etxerik gabe eta gizarte bazterkeria egoera larrian dauden pertsoneri EAeko hiru lurralde historikoetako erakunde eta gizarte eragileen aldetik ematen ari zaien erantzuna zein den jakitea.

**HELBURU OROKORRAK:**

1. Erakunde eta gizarte eragileen aldetik etxerik gabe eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen oinarrizko premiei ematen ari zaien erantzunak aztertzea.

2. Etxerik gabe eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen egoera hobetzen laguntzea.

#### HELBURU ESPEZIFIKOAK:

1. Eskumen banaketa eta gizarte bazterkeria larriari ematen zaion erantzun soziala arautzen duen legeria aztertzea.
  2. Pertsona horiei zuzendutako edo horiek erabiltzen dituzten baliabide eta zerbitzuen egungo sarea ezagutzea, deskribatzea eta aztertzea.
  3. Dauden baliabideak beharizanetara egokitzen diren baloratzea, inplikaturako pertsona guztien ikuspuntutik eta aldagai desberdinen arabera: adina, generoa, jatorria, adimen urritasuna edo buru gaixotasuna, besteak beste.
  4. Analisi metodo baliagarria aplikatzea, lurraldeen arabera dauden errealitate desberdinak ordenatzeko, alderatzeko eta horien jarraipena egin ahal izateko.
  5. Eskainitako arreta baldintzatzen duten eta hobetu beharrean dauden alderdiei buruzko puntu garrantzitsuak nabarmentzea, administrazioari dagozkion eginkizunak azpimarratuz.
  6. Erantzunetan egon daitezkeen gabeziak antzematea, besteak beste: existitzen ez diren baliabideak, arretarik gabeko sektoreak edo bete gabeko premiak.
  7. Jarduteko ildoak proposatzea, erantzuna hobetzeko eta baliabideak optimizatze-ko.
- **Txostenaren egitura** dela-eta:
    - Sarrera honen eta erabilitako metodologia azaltzen duen atalaren ostean, 3. kapitulu-  
tulan gizarte bazterkeriari buruzko lege eta eskumen esparrua aztertu da: Europar  
batasuna, erakunde erkideak, aldundiak, udalak... Kapitulu honetan Ongizate  
Estatuaren eta gizarte eskubideek Ongizate Estatuan duten garrantziaren azterketa  
izan da abiapuntua. Amaitzeko, kontsultatutako pertsonen arabera, lege esparruak  
dituen ahulguneak eta indarguneak aztertu dira.
    - Aurrerago, 4. kapitulu-  
tulan, gai teorikoagoak aztertu dira: gure ustez, zer den baz-  
terkeria larria eta etxerik gabeko pertsona, horren bilakaera, profil berriak eta  
etorkizuneko joerak, inguru sozialak eskaintzen dituen aukeren eta mehatxuen  
ikuspuntutik.
    - 5. kapitulu-  
tulan, luzeenean, arretaren diagnostikoa egin dugu, hau da, gertaera horri  
ematen zaion erantzunaren "argazkia". Bereizi egin ditugu instituzioen erantzuna,  
erakunde pribatuena eta herritarrena. Arreta ereduak ere aztertu ditugu, eguneko  
eta gaueko zerbitzua, arreta sistemaren nondik norakoak eta mugak, bai eta gi-  
zarteratze prozesuak, dituen ahulgune eta indarguneekin.

- Txostenak kapitulu bat eskaintzen dio (6.a) EAetik kanpo hainbat arlotan izandako jardunbide egokiei eta koordinazioari buruzko esperientziei, beste toki batzuetan zer egiten ari diren jakin dezagun. Eta beste kapitulu bat (7.a), etxerik gabeko pertsonen ahotsa eta bizipenak jasotzeari.
- Egindako diagnostikoa oinarri hartuta, txostenaren 8. kapituluan, Arartekoak erakundeei egindako 30 gomendio jaso dira.
- Bukatzeko, eta txostena osatzeko, azken zatian, erabilitako bibliografia eta informazio iturriak jaso dira, bai eta eranskin osagarri batzuk (erakundeen direktorioa, erabilitako gidoiak...).



# **METODOLOGIA**





## 2. METODOLOGIA

Ikerketa honetan erabili den metodologiak teknika kuantitatiboak eta, batez ere, kualitatiboak elkartzen ditu, aztertu den gaiagatik beragatik eta kontsultatu beharreko iturriengatik.

Metodologia kualitatiboarekin helburu bi lortu nahi dira: soziografikoa eta soziologikoa. Soziografia egitea errealitatea deskribatzea da. Alderdi hori garrantzitsua da ikerketa honetan, eta proposatutako teknika kuantitatiboen eta kualitatiboen bitartez lortzen da. Baina deskribatzeaz gain, beharrezkoa da aztertzea. Kasu horretan, soziologia da egiten ari garena: Gizarte bazterkeriaren eta gizarte erantzunaren esanahiak ezagutzen ari gara, eta hainbat errealiteren azalpenak, baita aldagaien eta esku hartzen duten faktoreen arteko harremanak ere; azken buruan, emandako erantzunen azpian dauden prozesuak ezagutzen ari gara.

Gainera, metodologia honek genero-ikuspegia du azterketa osoan modu zeharkakoan. Azterketa egiterakoan ikusi denez, emakumeen kopurua gizonetzkoena baino askoz txikiagoa da oraindik, baina gorantz egiten ari den profiletako bat da.

Azterketak ikuspegi multidiziplinarra eta multieragilea du; hori kontuan hartuta, honako iturriei galdetu zaie:

- Iturri dokumentalak: arautegia, planak, programak, jardute onen esperientziak, memoriak, baliabideen gidak, arlo horretan egindako ikerketak eta datu estatistikoak.
- Informatzaile nagusiak:
  - etxerik gabeko pertsonak eta Gizarte bazterkeria larriko egoeran daudenak;
  - udaletako, aldundiko eta erkidegoko erakunde publikoetako profesionalak;
  - erakunde pribatuetao eta elkarteetako profesionalak;
  - ikerketaren esparruko profesionalak;
  - bazterkeriaren esparruan adituak diren pertsonak, EAE barruan eta kanpoan.

Eskuratu den informazioa triangelatuta egin da ahal izan den guztietan, hau da, hainbat iturritan galdetu da eta hainbeste informatzailerekin kontrastatu da, informazioa osatzeko, egiaztatzeko eta, horrela egokitu denean, gai berari buruz dauden iritzi ezberdinak ikusteko.

## 2.1. ITURRI DOKUMENTALEN AZTERKETA

Bazterkeria larriarekin lotuta dagoen **dokumentazio arau-emailea** aztertu dugu: arlo horretako orientabideak eta arauak ezagutzeko legeria, arautegia, planak eta programak. Azterketa hori sakonagoa izan da EAeri buruz, ikerketa honek aztertu nahi duena horixe delako, eta orokorragoa izan da gainerako lurralde-esparruei buruz, hau da, estatuari eta nazioarteari buruz.

Erakunde pribatuek eta instituzio publikoek utzi dizkiguten **memoriak**, jarduteko protokoloak, aktak eta dokumentazio teknikoak ere begiratu ditugu, ematen dituzten baliabide eta zerbitzuei buruzko informazioa ezagutzeko, baita bazterkeria egoeran dauden pertsonen laguntzeko erabiltzen dituzten metodo eta mekanismoak zein diren jakiteko ere. Lortu den informazioa osatu eta egiaztatu egin da erakunde eta instituzio horiei egin zaizkien telefono bidezko galderen bitartez.

**Kontsulta** horren barruan sartzen dugu **20.000 biztanletik gora dituzten udalerr** guztiei egindakoa, etxerik gabeko pertsonen arreta emateari buruz indarrean dagoen arautegia zein neurritan betetzen duten jakiteko. Honakoak dira udalerr horiek:

- Araban: Gasteiz;
- Bizkaian: Barakaldo, Basauri, Bilbo, Ermua, Galdakao, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi eta Sestao;
- Gipuzkoan: Arrasate, Donostia, Eibar, Errenteria, Irun eta Zarautz.

Udaleko profesionalekin egindako elkarrizketen bitartez eskuratu zen hiru hiriburuei buruzko informazioa; teknika hori dagokion atalean azalduko dugu. Telefono bidez jarri ginen harremanetan lehen aldiz gainerako udalerriekin eta, geroago, idatziz osatu genuen informazioa, posta elektronikoz zein posta arruntez. Egindako galderetan, udalerrriak ondokoaren gainean egin duen jarduera publikoari buruzko datuak eskatu genizkien:

- etxerik gabeko pertsonen zuzendutako programak, bai eta programotan sartzeko baldintzak, bideratutako baliabideak eta programek duten plaza-kopurua ere;
- baliabide horietan arreta jasotzen duten pertsonen profila edo profilak;
- larrialdi egoeran dauden etxerik gabeko pertsonen arduratzeko sortu den protokoloa.

Erantzunak ematerakoan udalerr guztiek ez dute izan parte-hartze eta lankidetzeta-maila bera. Interes publikoa duen informazioa bada ere, leku batzuetan web-orrietan agertzen da, eta beste batzuetan lan gehiago eskatzen du informazio hori lortzeko, eskaera egokiak eginda ere.

**Instituzioetako estatistikak** izan dira gutxien begiratu diren iturriak, aurreko iturri biek alderatuz gero:

- Etxerik gabeko pertsonen buruzko datuen kasuan, ikerketa amaitu baino lehen ez zegoelako argitaratuta ezaugarri soziodemografikoak batzen dituen erregistro estatistikorik.

→ Zentroen, baliabideen eta zerbitzuen kasuan, oraingoan ere datu estatistiko oso eta espezifikoak falta zirelako; EUSTAT-Euskal Estatistika Erakundeak egindako “Gizarte Zerbitzuen Estatistika: Entitateak eta Zentroak” azterlanak ez du jasotzen, berariaz, etxerik gabeko pertsonen zuzendutako baliabiderik; egindako galdera zehatzek oinarriko gizarte zerbitzuak izan dituzte ardatz. INE-Estatistikako Institutu Nazionalak egindako “Etxerik gabeko pertsonen buruzko inkesta. Zentroak” azterlanak pertsona horientzako baliabideei buruzko datu espezifikoak jasotzen ditu. Hala ere, EAEn erantzun urria eskuratu zen INEk egindako kontsultatik; 34 zentrotako informazioa baino ez zen batu. Arrazoi hori dela-eta, lehenago aipatutako memoriatik eta antzeko dokumentuetatik lortu dira EAEn buruzko datuak.

Dispositiboek eta baliabideek ematen duten **erantzunari** buruzko informazio estatistikoa batzeko, bazterkeria eta ahultasun sozialeko egoerei aurre egiten dieten zerbitzuei begiratu diegu. Beraz, etxerik ez duten pertsonen eta bazterkeria egoera larrian daudenei, berariaz, arreta ematen dieten baliabideen eta zerbitzuen aukeraketa bat egin da. Aukeratzeko irizpideak honakoak izan dira:

- **Etxerik gabeko pertsonaren definizioa:** lankidetzat taldeekin adostuta ezarri genituen “etxerik gabekoak” definitzeko hiru ezaugarriak, eta aukeratu egin ditugu ezaugarri horiek betetzen dituzten pertsonen arreta emateko baliabide eta zerbitzuak. Hauek dira hiru ezaugarriak: etxerik ez izatea, baliabide ekonomikorik ez izatea eta laguntza pertsonalik eta sozialik ez izatea.
- **Baliabide horiek betetzen duten premia:** baliabideak aukeratu dira betetzen duten premiaren arabera eta informazioa batu da oinarriko premiak betetzeaz arduratzen direnengandik, esate baterako, ostalua, mantenua eta arropa-zerbitzua ematea.

Alde horretatik, zerbitzuak ematen dituzten erakundeei galdetu zaie, dispositiboek ematen duten zerbitzua noraino heltzen den ezartzeko, zein pertsona-motari zuzenduta dauden jakiteko, zein premia betetzen dituzten, zein ezaugarri dituzten, besteak beste, jakiteko ea baliabideen ezaugarriak eta erabiltzen dituzten pertsonen profila bat datozen lehenago ezarritako irizpideekin identifikatzen zirenekin. Hortaz, beste baliabide batzuk azterketatik kanpo utzi dira, esate baterako, genero-indarkeriaren biktimaren emakumeei, komunitate terapeutikoei eta pertsona errefuxiatuei edo babes politikoa dutenei zuzendutakoak, betiere dispositiboak kudeatzen duen erakundeak ez badu pentsatu etxerik gabeko pertsonaren definizioa bat datorrela zerbitzu horiek erabiltzen dituzten pertsonekin.

## 2.2. BIZITZA KONTAKIZUNAK

Bizitza kontakizuna elkarrizketa biografikoa da, pertsonen bizitzako esperientziak jakiteko egiten dena; kasu honetan, etxerik gabeko pertsonen eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen esperientziak jakiteko egin dugu. Teknika hori erabili da azterlanaren protagonistak diren pertsonen ahotza emateko. Azterketa norbanako bakoitzaren bilakaerari eta ibilbide pertsonalari buruzkoa izan da, besteak beste, honakoak identifikatzeko:

- arreta emateko ibilbideak;

- dispositiboen zirkuituko fluxuak eta fluktuazioak: sarrerak, irteerak eta motibazioak;
- sentitutako eta adierazitako premiak, bete ez diren premiak;
- lehentasunen eskema;
- arreta emateko sarearen ezagutza eta erabilera, erabiltzeko segida barne;
- jasotako arretaren balioespena;
- gizarte elkarrekintzak;
- etorkizuneko aukerak.

Aukeratutako pertsonekin harremanetan jartzeko, pertsona horiek erabiltzen dituzten baliabide eta zerbitzuak kudeatzen dituzten erakunde pribatuak eta instituzio publikoak erabili ditugu, eta elkarriketak ere bertan egin dira. Bizitza kontakizuna egin baino lehen, etxerik gabeko pertsonarekin harremanetan jarri gintuen erakunde edo instituzioko profesionalari galdetu diogu pertsonaren gainean, kasu bakoitzari buruz eskura dagoen informazioa ezagutzeko. Azterketa-fasean, informazio hori egiaztatu eta osatu egin da bizitza kontakizunetan lortu denarekin eta kontsultak elkarriketa egin duenari sortu dion irudiarekin. Elkarrizketa egin duenak ez du edukia bakarrik aztertu; forma, testuingurua, ahoskoa ez den hizkuntza, isiluneak, emozioak ere aztertu ditu, azken batean, protagonisten eta baliabideetako profesionalen ekarpenak aberasten dituen edozein elementuri begiratu dio.

Aukeratutako profilak sektoreko profesionalekin adostutako aldagai batzuen arabera definitu dira, etxerik ez duten pertsona-mota adierazgarrienak ordezkatzeko dituzten pertsonen galdetzeko helburuarekin. Honakoak izan dira profilak definitzeko adostu diren aldagaiak:

- Generoa.
- Adina.
- Substantziaren baten menpekoa izatea edo ez izatea.
- Etxe egonkorrik gabe daraman denbora.
- Ezgaitasun fisikoren edo buru-gaixotasunen bat izatea edo ez izatea.
- Zein den bere erreferentziako lekua edo nongoa den.
- Gizarteratzeko prozesuaren zein unetan dagoen. Erabiltzen duen baliabide-mota. Bizitzeko baliabideren bat erabiltzen badu, egonaldi labur, ertain eta luzearen artean bereizi da.

Egindako bederatzi bizitza kontakizun berrietatik, lau Bizkaian bizi direnei egin zaizkie, hiru Gipuzkoan bizi direnei eta bi Araban bizi direnei. 2005eko maiatzaren 25aren eta 31ren artean egin ziren bizitza kontakizunak, eta ordezkaturata egon ziren baliabide-mota eta exijentzia-maila guztiak: jantokiak, eguneko zentroak, ostatu emateko baliabideak, gaueko zentroak, aterpetxeak, pisuak eta familia eta pertsona etorkinentzako baliabide espezifikoak.

Bizitza kontakizuna eginez ikerketa honetan parte hartu duten pertsonen profilak deskribatzen dira hurrengo koadroan. Datuak isilpekoak direnez, datuen emaila edo haren bizilekua den lurraldea inolaz ere aipatu gabe aurkeztu behar dira. Elkarrizketa egin dieten pertsonen ondorioak ere ez dira publikoak egingo txostenean, ezta kontsultatutako pertsonen erabiltzen dituzten baliabideetan lan egiten duten profesionalei egindako kontsulta ere.

## 2.1. KOADROA: BIZITZA KONTAKIZUNAK EGITEKO ELKARRIKETATU DIREN ETXERIK GABEKO PERTSONEN EZAUGARRIAK

SEXUA	ADINA	KALEAN DARAMAN DENBORA	HONDATZE MAILA <sup>(1)</sup>	KONTSUMOAK	EZGAITASUNA ETA/EDO BURUKO GAIXOTASUNA	GIZARTERATZEKO PROZESUAREN UNEA	FAMILIAREKIN DUEN HARREMANA
<b>Gizona</b>	44 urte	14 urte	Fisikoki oso hondatuta. Psikologikoki gogor	Metadona-tratamendua	%75eko ezgaitasuna (GIB)	Gizarteratze-prozesu bat hasi du	Harremana berreskuratzen ari da familiarekin
<b>Gizona</b>	31 urte	10 urte	Handia	Kontsumo aktiboak	Tratatzen ari den eskizofrenia	Ez du erakusten interesik aldatzeko prozesuak hasteko	Harreman gatazkatuak familiarekin
<b>Gizona</b>	35 urte	1a 20 urte	Handia	Opiazoen kontsumo aktiboak	Diagnostikatu gabeko buruko gaixotasuna. Patologia duala	Aldatzeko prozesu bat hasteko interesa erakutsi du	Batere
<b>Gizona</b>	61 urte	Eixerik gabe 2004ko ekainetik, baina etxe ezezagonkor asko izan ditu (lagunak, familiakoak)	Ertaina	Batere	Batere	Arazo gehigamirik ez duen pertsona da	Familia-erreferenterik gabe
<b>Emakumea</b>	38 urte	14 urte	Handia	Metadona-programa	Batere	Gizarteratze-prozesu baten hasieran dago	Harremanik gabe eta familia-erreferenterik gabe
<b>Emakumea</b>	39 urte	10 urte	Ertaina	Batere	Buruko patologia: pertsonalitatearen egokitze-nahastea	Esku-hartze prozesu bat du antolatuta eta betetzen ari den helburuak jarri dizkio bere buruari	Harreman gatazkatuak familiarekin; harremana berreskuratzen ari da
<b>Gizona</b>	40 urte	10 urte (une honetan, logela batean bizi da eta sukaldaria erabiltzeko eskubidea du)	Ertaina	Alkoholaren kontsumitzaile aktiboak	Onartutako ezgaitasuna eta tratamendu psikiatrikoan	Prozesuaren hasieran dago, enplegu babestu bat lortzeko itxaroten. Alkoholarekin menpekotasuna uzteko fasean	Banandua eta familia-erreferenterik gabe
<b>Emakumea</b>	30-35 urte (g.g.b.)	10 hilabete furgoneta batean bitzitzen. Geroago, aldizka, ostatu emateko hainbat baliabideetan	Batere	Batere	Batere	Gizarteratze prozesuaren amateran dago	Harremana izaten jarraitzen du familiarekin jatorrizko herrialdean
<b>Gizona</b>	20 urte	5 urte (hainbat baliabideetan, ez da zehazki kalean bizi izan)	Batere	Batere	Batere	Gizarteratzea, enpleguaren bilaketa aktiboarekin	Urtero joaten da familia ikustera jatorrizko herrialdean, urtean zehar telefono bidezko harremana izaten du

(1) Bizitza kontakizun bakoitzean kontsultatutako profesionalak eta elkarrizketatzaileek egindako balioespeneraren emaitza da informazio hori

## 2.3. INFORMATZAILE NAGUSIEI ELKARRIZKETA

Erdizka egituratutako banakako elkarrizketen bitartez galdetu genien informatzaile nagusiei. Teknika horri esker, elkarrizketa profesionalaren bidez informazioa lortu daiteke gaian aditua den pertsona baten eskutik, ikerketako azterlan analitiko baterako edo diagnostiko edota tratamendu sozialetan laguntzeko.

17 elkarrizketa egin dizkiegu profesional hauei 2005eko otsailaren 8aren eta maiatzaren 11ren artean:

### 2.2. KOADROA: INFORMATZAILE NAGUSIEN ZERRENDA

ERAKUNDEA	PERTSONA - KARGUA
<b>Autonomia-esparrua</b>	
Eusko Jaurlaritza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila Gizarteratze Sailburuordetza Gizarteratze Zuzendaritza	Montserrat Rejado – Gizarteratze zuzendaria José Manuel Muñoz – Saileko teknikaria
Eusko Jaurlaritza. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Gizarte Gaietako Sailburuordetza. Gizarte Ongizateko Zuzendaritza	L. Fernando Consuegra -- Gizarte Ongizate zuzendaria Angel Elias -- Gizarte Gaietako sailburuordea Xabier Zipitria – Sailburuordetzako aholkularia
Osakidetza. Asistentzia Psikiatrikoa Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako buruko osasuneko zerbitzu nagusiak eta lurralde-zuzendaritzak	Álvaro Iruin – Buruko Osasuneko Zerbitzu Nagusien arduraduna eta Gipuzkoako Buruko Osasuneko arduraduna Jesús Muñoz – Arabako Buruko Osasuneko arduraduna Martín Zurimendi – Bizkaiko Buruko Osasuneko arduraduna
<b>Foru-esparrua</b>	
Arabako Foru Aldundia. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea. Gizarte Esku-hartzeko Zuzendaritza	Amparo Maiztegui – Gizarte Esku-hartzeko zuzendariordea
Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila Gizarteratzearen Atala	Miren Teresa García – Ataleko burua
Gipuzkoako Foru Aldundia Giza Eskubideetako eta Gizarte Ongizateko Departamentua	Eugenio Peñas – Departamentuko teknikaria
<b>Udal-esparrua</b>	
Gasteizko udala Gizartegintza Saila Gizarteratze Burutza	M <sup>a</sup> José Lecertua – Gizareratze zuzendaria
Bilboko udala. Gizarte Ekintzako Atala	Txema Duque – Gizarte Ekintza zuzendariordea
Bilboko udala. Aterpetxeen Negoziatua	Rosa Rodrigo – Negoziatuko burua
Donostiako udala Gizarte Ongizateko Saila Gizarteratzeko Atala	Iñigo Estomba – Gizarteratze zuzendaria
Barakaldoko udala. Gizarte Ekintzako Atala	Iñaki Rodríguez – Ataleko koordinatzailea
Getxoko udala. Gizarte Ongizateko Saila	Arantza Laka – Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen koordinatzailea

Pasaiaiko udala. Gizarte Ongizateko Saila	M <sup>a</sup> Jesús Karrera – Gizarte Zerbitzuen Arloko arduraduna
Irungo udala. Gizarte Ongizateko Arloa	Milagros Holgado – Lehen Mailako Arreta Zerbitzuen arduraduna
Gasteizko Udaltzaingoa	José Antonio Ferreiro – Polizia-ofiziala
Bilboko Udaltzaingoa	Alfonso de la Calle – Sarjentua Tomás del Hierro – Udaltzaingoko eta Herritarren Segurtasuneko Zuzendaria
Donostiako Udaltzaingoa	Joxe Anta – Komisariordea

Lurraldeen hiru hiriburuak alde batera utzita, udalerrien aukeraketa 20.000 biztanletik gora dituztenen lagin adierazgarria hartuta egin da edo, biztanle kopurua txikia izan denean, etxerik gabeko pertsoneri arreta emateko baliabide nabariak dituztenak aukeratu dira. Laginketaren bidez egindako udalerrien aukeraketa hori kontsulta zehatz honetarako bakarrik egin da. Izan ere, 20.000 biztanletik gora dituzten udalerrri guzti-guztietan egin dizkiegu galderak, pertsona horiei zuzendutako baliabideei buruzko datuak ezagutzeko, iturri dokumentalen azterketaren gaineko atalean azaltzen den moduan.

Elkarrizketak egin eta gero, kontaketa guztiak itzuli zitzaizkien elkarrizketa erantzun zuten pertsoneri, helburu bikoitzarekin:

- Edukia aztertu zezatela eta beharrezkoak ikusten zituzten ekarpenak egin zitzatela.
- Beste kontsulta batean parte hartu zezatela: alde batetik, ekarpenen emaitza den AMIA analisi bat betetzeko eta, bestetik, elkarrizketaren ostean handitu edo zehaztu behar ziren galdera berriei erantzuteko.

## 2.4. LAN TALDE EGONKORRAK

Ikerketan zehar hausnarketa-, elkarrekintza- eta adostasun prozesuak garatzeko foroak izateko proposatu dira talde horiek. Taldeko kideen arteko informazio-trukaketa modu naturalean eta jarraituan egin da, komunikazio-bide biren bitartez: talde-bilerak eta batzarren arteko komunikazioak. Izan ere, batzar bakoitza izan baino lehen, parte hartuko zuen erakunde bakoitzari bidaltzen zitzaion landuko zen dokumentazioa eta, batzarraren ostean, aktak bidaltzen zitzaizkion, geroago, landutako gaiak zehaztu edo handitu ahal izateko.

Hiru lan talde egonkor ezarri dira, lurralde bakoitzean bat, erakunde pribatuekin eta instituzio publikoekin. Gonbitea jaso zuten erakunde eta instituzio guztiek ez zuten parte hartu lan taldeetan, hainbat arrazoiengatik. Hala ere, parte-hartzea poztekoa izan da, oro har, kopuruaren eta inplikazio-mailaren aldetik. Lurralde bakoitzaren errealitatea dela-eta, talde guztietan ez da egon parte-hartzaile kopuru bera. Bizkaiak izan ditu parte-hartzaile gehien, eta Arabak gutxien.

Batzar kopuruari dagokionez, hasiera batean talde bakoitzeko batzar bi proposatu ziren, ordu eta erdikoak gutxi gorabehera, baina, azkenean, taldeen dinamikagatik beragatik

eta landu behar ziren gaien sakontasunagatik, hiru batzar egin behar izan dira talde bakoitzeko, eta askok ordu eta erdi baino gehiago iraun dute. Bederatzi batzar egin dira guztira.

Gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen arreta zuzena ematen dieten profesionalak izan dira talde horietan egon diren pertsonak, eta instituzio publikoetan eta erakunde pribatuetan egiten dute lan.

Lurralde bakoitzean etxerik gabeko pertsonen ematen zaizkien erantzun mota guztiak ordezkaturik egongo zirela bermatuko zuten irizpideen arabera aukeratu dira erakundeak eta instituzioak, hau da, erantzun hori zerbitzu zein baliabide moduan hartzen dutenak sartu dira azterlanean; horrenbestez, zein premiari erantzuten dioten izan da aukeratzeko aldagai erabakigarria: elikagaia, ostatua, arropa, higiena.

Beste irizpide batzuen arabera erabakitzeak, esate baterako, zein kolektibo motari ematen dioten arreta, zailtasun bat zuten, hain zuzen ere, hasieran zehaztu behar zen zein kolektibo diren oso baztertuta daudenak, eta horren aurrean honako galderak sortu ziren: pertsona toxikomano bat bazterkeria egoera larrian dago toxikomania bat izateagatik bakarrik?, pertsona etorkin bat bazterkeria egoera larrian dago etxerik ez izateagatik? Hortaz, zailtasun horren aurrean, metodologiaren aldetik egokiago ikusi da parte hartuko duten erakundeek atenditzen dituzten premien arabera aukeratzeko; horrek ez du eragotzi aukeratu diren erakundeak bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen arreta ematen dietenak izatea batez ere.

Jarraian aurkezten dira **laneko batzarrek**, landutako gaiak eta parte hartu zuten pertsonak.

### 2.3. KOADROA: LAN TALDEEK EGIN ZITUZTEN BATZARRAK ETA BATZARRAK EGIN ZIREN LEKUAK

TALDEA	BATZARREN EGUNAK	LEKUA
Araba	2005eko martxoaren 22a, apirilaren 21a eta irailaren 7a	Arartekoaren instituzioa Prado kalea, 9 Gasteiz
Bizkaia	2005eko otsailaren 23a, apirilaren 22a eta irailaren 8a	Biker Soziologia Bulegoa Fanderia kalea 1. zk, 1. 112 bulegoa Barakaldo
Gipuzkoa	2005eko martxoaren 16a, apirilaren 20a eta irailaren 6a	Arartekoaren instituzioa Askatasun bidea 26, 4 Donostia



## 2.4. KOADROA: LAN TALDEETAN EZTABAIDATUTAKO GAIK

BATZARRA	GAIK
1	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bazterkeria larriaren kontzeptualizazioa.</li> <li>- Bazterkeria egoera larrian dauden etxerik gabeko pertsonak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxerik gabeko pertsonen premiak.</li> <li>- Arretan dauden hutsuneak.</li> </ul> </li> </ul>
2	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Etxerik gabeko pertsonak eta gizarte bazterkeria egoera larrian daudenak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Aurretiazko zenbait auzi.</li> </ul> </li> <li>- Gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen arreta emateko fluxuak edo ibilbideak.</li> <li>- Etxerik gabeko pertsonentzako programak, baliabideak eta zerbitzuak:               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Zerbitzu-moten alde txarrak eta onak.</li> </ul> </li> </ul>
3	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte Arretako Sarearen diagnostikoaren aurkezpena (Laneko dokumentua).</li> <li>- Gizarteratze prozesuko faseak.</li> <li>- Kontsulta prozesuaren ebaluazioa.</li> </ul>

## 2.5. KOADROA: LAN TALDEETAN PARTE HARTU DUTEN ERAKUNDEAK

## ARABA

PARTE HARTU DUTENAK	ERAKUNDEAREN ORDEZKARIA	KARGUA
Bertako Afroamerikarren elkarte	Filomena Abrantes Mónica Vidondo	Lehendakaria Gizarte langilea
Gizarterako elkarte	Chelo Ordejón	Lehendakaria
Servirecord elkarte	Nuria Hueso	Aterpe zentroko gizarte hezitzailea
Comedor de los Desamparados jantokia	José Otxoa	Arduraduna / hezitzailea
Arabako ihesaren kontrako batzordea. SIDÁLAVA	María Antonia Sojo	Etxe Irekia zerbitzuko gizarte langilea
Gurutze Gorria	María Goretti López Ana Sáenz	Gizarte esku-hartzeko arduraduna Gizarte langilea

## BIZKAIA

PARTE HARTU DUTENAK	ERAKUNDEAREN ORDEZKARIA	KARGUA
Agiantza elkarte	Bernart Baltza	Koordinatzaile nagusia
Askabide elkarte	Arantza Hormaetxea	Harrera-pisu baten koordinatzailea
Bizitegi elkarte	Jon Garmendia	Hezitzailea
Elkarbanatuz elkarte	Asier Pardo	Harrera-pisuaren koordinatzailea
Izangai elkarte	Juan Carlos González	Programen koordinatzailea
Zubietxe elkarte	Loli Velasco	Zuzendaria
Bilboko Cáritas	Joseba Gaya	Etxerik Gabeko Pertsonen programaren arduraduna
Bizkaiko ihesaren kontrako batzordea	Nerea Garaizar Marta Pastor	Lehendakaria Hezitzailea

Emaús Gizarte Fundazioa	Agurtzane Etxezarraga Natalia Oseguera	Bitartean programaren koordina- tzailea Bitartean programaren koordina- tzailea
Adsis Fundazioa	Javier Muñoz	Hezitzailea/Koordinatzailea
Lagun Artean	Enrique Ordiales	Lehendakaria
Gizartean eta Lanean Integratzen Laguntzeko Sarea (RAIS)	Mikel Barturen	Bizkaia eta Gipuzkoako koordina- tzailea

## GIPUZKOA

PARTE HARTU DUTENAK	ERAKUNDEAREN ORDEZKARIA	KARGUA
Loiolaetxea elkarte	Martín Iriberrí Marta Silvano	Loiolaetxea proiektuaren koordina- tzailea Gizarte hezitzailea
Arrats elkarte	Jose M <sup>a</sup> Larrañaga	Lehendakaria
Donostiako udala	Antton Arka	Gizarteratze ataleko teknikaria
Gipuzkoako Caritas	José Antonio Lizarralde	Aterpe zentroko arduraduna
Gipuzkoako ihesaren kontrako batzordea. ACASGI	Maite Brandariz	Harrera-pisu bateko hezitzailea
Gurutze Gorria	Ana Iribarren Elena Luquin	Gizarte esku-hartzeko zuzendaria Immigrazio Saileko gizarte esku-har- tze arduraduna
Emaús Gizarte Fundazioa	Nerea Kortajarena	Gizarte ataleko arduraduna
Ametzagaña Fundazioa	José Novoa	Fundazioaren psikologoa
Larratxo Fundazioa	Yolanda Jiménez	Gizarte laguntzailea
Gizartean eta Lanean Integratzen Laguntzeko Sarea (RAIS)	Nieves Piñeiro	Donostiako egoitzaren koordina- tzailea

## 2.5. DELPHI TEKNIKA

Delphi teknika hau da: gai zehatz batean adituak diren pertsoneri elkarrekin egon gabe egiten zaien kontsulta. Kasu honetan, gizarte bazterkeria larriaren esparruan ibilbide eta informazio garrantzitsua duten pertsoneri buruz ari gara.

Gizarte bazterkeria larriarekin lotutako gai nagusietan dauden adostasunak eta desadostasunak jakin nahi izan dira, baita arreta emateko orduan dauden joeren gainekoak ere, erantzun duten pertsonen izandako esperientzietatik abiatuta. Esperientzia eta joera horiek zona batzuetatik besteetara estrapolatu daitezkeenez, eta alderatzeko eta orientatzeko balio dezaketenez, pentsatu dugu kontsulta hori EAE barruko zein kanpoko profesionaleri egin behar geniola.

Kontsulta norberak betetzeko galdera-sorta baten bitartez egin zen; profesional bakoitzak eman zitzaion esaldiarekin zuen adostasun- edo desadostasun-maila erakutsi zuen 1etik 10erako eskala erabilita. Galderako esaldiari zehaztapenak eta ekarpenak egiteko aukera

ere eskaini zen. Teknika horretako argotean, parte hartzen duten profesionalak panelista esaten zaie, kontsulta-panel baten eran egiten delako: denboran ondoz ondokoak diren kontsultak egiten zaizkie lehenagoko kontsultan parte hartu duten pertsonari. Hortaz, pertsona horien ibilbidea eta erantzunean egun daitezkeen aldaketak ezagutzen dira.

Panelistak aukeratzeko, “elur-bola” izeneko laginak aukeratzeko teknika erabili zen. Teknika horren arabera, elur-bola baten efektua jarraituz, profesional aukeratuen talde batetik abiatu ginen (lan taldeetako kideak, erakundeetakoak, elkarrizketatutako pertsonak), eta horiei beste profesional batzuen berri eskatu zitzaie, haiei ere kontsulta egiteko; pertsona horiekin harremanetan jarri bezain laster, horiei ere panelista izan zitezkeen pertsonen berri emateko eskatu zitzaie, eta horixe egin zen hasierako 27 panelista lortu ziren arte.

Galdera-sorta bi aldiz bidali zen, lehenengokoan 12 panelistak erantzun zuten, eta bigarren aldian ere kopuru berak erantzun zuten. Kontsultak 2005eko maiatzaren 9aren eta uztailaren 15aren artean egin ziren, egun horretan jaso baitzen azken galdera-sorta.

Kontsultan parte hartu duten profesionalak hurrengo koadroan ageri dira.

## 2.6. KOADROA: DELPHI KONTSULTAN PARTE HARTU ZUTEN PERTSONAK

IZENA	KARGUA/LANBIDEA	ERAKUNDEA/INSTITUZIOA
Bernart Baltza Arana	Koordinatzaile Nagusia	Agiantza Elkartea (Bizkaia)
EAPN-Euskadi	-	European Anti Poverty Network
Esther Raya Díez	Soziologiako Doktorea. Gizarte Laneko Eskolako irakaslea (Soziologia I Saila)	EHUko Gizarte Laneko Eskola
Jon Leonardo Aurtenetxe	Soziologiako katedraduna	Deustuko Unibertsitatea (Bizkaia)
José Antonio Aguirre Elustondo	Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseiluko Koordinatzailea	Eusko Jaurlaritza
José Manuel Caballo	Idazkari Nagusia	RAIS Fundazioa (Madril)
Kepa Iñaki Eguskiza Ibabe	Etixerik gabeko pertsonentzako GILTZA Programako Gizarte Langilea	Bilboko Cáritas Diocesana
M <sup>a</sup> Rosario Sánchez Morales	Soziologiako irakasle tutelarra. Gizarte Joerei buruz Aztertze Taldeko kidea	UNED (Madril)
Paqui Mancebo Muñoz	“Etixerik gabeko pertsonentzako sarbidea eta laguntza” programaren kudeatzailea	RAIS Fundazioa (Madril)
Pedro Meca	Administratzailea	“Les Compagnons de la Nuit-La Moquette” (Paris-Frantzia)
Ramón Noró	Komunikazio Saileko Zuzendaria	Arrels Fundació (Bartzelona)
Susana Tezanos Vázquez	Madrilgo Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Gizarte Langilea UNEDeko Gizarte Joerak Aztertze Taldearen laguntzailea	Madrilgo Udala

## 2.6. AMIA ANALISIA

Hainbat teknikaren bitartez eskuratu den informazioa besteak beste AMIA teknika aplikatuta aztertu da. Normalean planifikazio estrategikoan erabili izan ohi den tresna da, enpresaren mundura aplikatuta. Kasu honetan, tresnaren aplikazioa egokitu da, ikerketa hau egiteko. Izan ere, hainbat iturriren bidez eskuratu den informazioa sistematizatzeko erabilgarria dela ikusi da; barruko ikuspegitik nahiz ingurutik hausnarketa sustatuta eta, kasu bietan, alde onak eta hobetu daitezkeenak balioetsita.

AMIAk gizarte bazterkeria larriari arreta ematen dion sektoreari begiratu dio, eta aztertu egin ditu inguruak eskaintzen dituen aukerak eta mehatxuak, bai eta sektore barruko ahuleziak eta indarrak ere. Azterketa hori Lurralde Historikoaren arabera egin da, lurralde bakoitzaren alderdi espezifikoetarako buruzko informazioa lortzeko, eta eskuratu den informazioa bateratzea da helburua, analisi konparatibo batean erabiltzeko.

AMIA bat egin da Lurralde Historiko bakoitzeko, kontsultatu diren pertsonen emandako informazioa sistematizatzeko helburuarekin, baita lurralde bakoitzean egin diren lan taldeak sistematizatzeko helburuarekin ere. Horren ondorioz, EAEko lurraldeen arteko analisi konparatiboa egin ahal izan dugu.

Halaber, EAE osoko AMIA orokorra egin da, eta hor lurralde guztietan agertzen diren elementuak aztertu dira, eta etxerik gabeko pertsonen arreta ematen dien sektorean dauden ahuleziak ezarri dira. Horren helburua Lurralde Historiko bakoitzeko lan taldeen batzarretan ahulezia horiek adostea izan da.

Diagnostikoan ageri dira AMIA analisi orokorrean ateratako ondorioak eta Lurralde Historiko bakoitzaren barruari begira egin genuen analisiaren ondorioak. Hain zuzen ere, aurkitu ditugun ahuleziei eta indarrei buruzko ataletan ageri dira, hau da, txosten honetako kapitulu nagusietan dauden ataletan. Gainera, laugarren kapituluan, hau da, etorkizuneko joerei buruzko ataletan, teknika horren bitartez egindako kanpoko analisia kontsultatutako pertsonen adierazitako aukerak eta mehatxuak batu dira, eta horrek EAE osorako balio du.

## 2.7. TXOSTENAREN MUGAK

Etxerik gabeko pertsonen arretaz arduratzea berria da, eta orain txostenak eta azterketak egiten ari dira horren gainean, baina gaiari buruzko interesa duela gutxikoa da. Azterlanaren berritasunari batu zaio datuak eskuratzeko zailtasuna, sektorearen ezaugarriak direla-eta. Baliabideetako asko premia urgenteak arintzeko sortu dira, planifikazio egokirik gabe, eta horrek informazioa era sistematikoan lortzea eragotzi du. Horrez gain, txostena antolatzeke irizpideak egiteko beharra ekarri du. Ez dago irizpide estandarizaturik, homogeneotasun falta dago hiru lurralde historikoetan, eta horrek erakusten du gizarte bazterkeria larriari arreta emateko ekimenen aberastasuna, baina, aldi berean, zailagoa egiten du sektorea ezagutzea eta erantzun osoa egotea.

Betetzen dituzten premiak eta lehendik dauden arreta-ibilbideak kontuan hartzea izan da baliabideak, programak eta zerbitzuak aukeratzeko erabili den irizpidea. Horren ondorioz,

kolektibo horrek dituen premiak hurbiletik jakin dira, bai eta txostenaren gomendioek oinarri hartu dituzten erantzunen gabeziak ere.

Txostenean garrantzi berezia eman zaio zeuden plazak mugatzeari. Egon den zailtasuna izan da une jakin batean zeuden benetako plazen, hau da, memorieta agertzen direnen, eta hurrengo hilabetean erabili direnen arteko aldaketa. Arrazoi bikoitza da; alde batetik, urteko aurrekontuetan eta programetan zaila da aurreikustea zein premiari egin beharko zaien aurre, eta, bestetik, programak finantzatzeko moduak eragin du, batez ere diru-laguntzen eta administrazio publikoekin egindako hitzarmenen bitartez finantzatzen baitira. Beraz, sektorearen inprebisibilitatea eta finantziario-sistemaren zorrotasuna daude kontrajarrita. Izan ere, finantziario-sistemak urteroko justifikazioak eta memoriak eskatzen ditu eta ez du bermatzen proiektuak jarraituko duenik. Horrek zaila egiten die antolatzaileei baliabideak kudeatzea. Dena dela, lan zorrotza egin da, dauden plazak zehaztasun handienarekin jakiteko. Datuak 2004 eta 2005. urteei buruzkoak dira, zehazki 2005eko irailera artekoak dira, egun horretan utzi zitzaion-eta txostenerako datuak jasotzeki. Datu horietan agertzen dira plazak, programak eta, azken batean, bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen arreta emateko dauden baliabideak.



**GIZARTE BAZTERKERIAREN  
ESPARRU ARAU EMAILEA**





### 3. GIZARTE BAZTERKERIAREN ESPARRU ARAU EMAILEA

Atal honen helburua gizarte babesari buruz dagoen arautegia adieraztea da, baita gizarte esku-hartzearekin lotutako gaietan administrazioek hartutako konpromisoak ere. Horretarako, estatuaren bilakaera eta funtzioak begiratu dira, gizarte eskubideen onarpenean eta eskubide horiek erabiltzeko baldintzen garapenean funtsezko eginkizuna duen antolakunde politikoa delako. Begirada horretan garrantzi berezia emango zaie gizarte eskubideei, eskubide horien izaerari buruzko eztabaidari eta eskubideak osorik betetzeko dauden zailtasunei. Gizarte eskubideak Ongizate Estatuarekin lotuta daude, eta estatu hori garai berrietara egokitzen joan behar da, baita gizarte postindustrialak sortzen dituen erronketara ere.

Ongizate Estatuak babes-sistemak garatu ditu, eta sistema horiek bilakatuz joan dira, eta gehienbat premia-egoerei lotutako beste babes-sistema batzuk sartzen hasi da zerga-ereduan, batez ere enpleguarekin lotuta. Autonomia Erkidegoak dira batez ere programa horiek kudeatzen ari direnak, gizarte zerbitzuak garatuta. Hortaz, atal hau babes-politika publikoak barnean hartzen dituen esparru orokorrari buruzkoa da: Ongizate Estatu, gizarte zerbitzuak... eta, zehatzago, bazterkeriaren aurka borrokatzeko arautegia eta programak eta gizarte bazterkeriako egoera larrian dauden pertsonen arreta emateko eskumena duten organoak.

#### 3.1. ONGIZATE ESTATUA

Estatua Aro Modernoaren hasieran sortu zen Europan, era politikoan antolatzeko modu gisa. Estatu horri zuzenbidezko estatu deitu zitzaion, beraren boterea zuzenbideak mugatu zuenean. Zuzenbidezko Estatuaren lehen ereduak 1789ko Frantziako iraultzarekin sortu zen, eta lehen mundu gerraraino heldu zen; Estatu Liberala izan zen, eta haren helburua absolutismoaren eta botere kontzentrazioaren kontra borrokatzea zen. Funtsean, haren ezaugarriak legezketasunaren printzipioa eta botereen banaketa ziren, eta eskubide indibidualak estatuaren eskubideen aurretik defendatzea. Eskubide horiei eskubide zibilak esaten zitzaion: bizitza, integritate fisikoa, pentsatzeko, kontzientzia izateko eta adierazteko askatasuna, intimitatea, legearen aurreko berdintasuna eta berme prozesalak.

Estatu Liberalean merkatua bere kabuz erregulatzen den espaziotzat hartzen da, librea eta inpartziala, elkarrekintza espontaneokoa, eta hortik esleitzen ziren ondasunak eta zerbitzuak, eta haren justizia ezin ziren zalantzan jarri. Merkatuaren ikuspegi horrek eragin handia du oraindik. Estatu horretan gizarteko berdintasun eza naturaltzat jotzen zen.

Gizarte industrialak kapitalaren metaketa prozesua ekarri zuen, eta horrek desberdintasun eta gizarte injustizia handiak sortu zituen. Azken horiek tentsio, gizarte borroka eta matxinada asko eragin zituzten hainbat lekutan, baita gizarte iraultzak ere, esate baterako, 1848an Frantzia egin zena. Horren guztiaren ondorioz, beste eskubide batzuk onartzen joan ziren. Hasiera batean, pertsona guztien arteko berdintasun formal onartu zen, eta eskubideen titularren kopurua handitu zen. Eskubide politikoak, sufragio unibertsala, elkartzeko eskubidea, solidaritate-printzipioa eman ziren, eta langileen alderdiak parlamentuetara sartu ziren, burgesek zituzten interesen bestelako interesak defendatuko zituztenak.

Berdintasun formal hori bazegoen ere, gizartea ez zen berdintasunezkoa, eta berdintasun materiala lortzeko hainbat eredu proposatu ziren: Proletalgoaren Estatuua eta Gizarte eta Zuzenbidezko Estatuua. Gizarte Estatuua<sup>(1)</sup> sistema ekonomikoak aberastasunaren banaketan sortutako berdintasun eza zuzentzeko esku hartzen duen estatuua da. “Ongizate Estatuua” izeneko estatu-eredu hau Zuzenbidezko Estatuaren bilakaera da. Zuzenbideak eta botere publikoek aberastasuna berriro banatzeko funtzioa izango dute, eta berdintasun handiagoa duen gizartea egiteko eta pertsona ahulenak babesteko funtzioa ere.

Bonneko Lege Nagusia (1949) izan zen abiapuntu formalak. Gizarte industrialaren sistema ekonomikoak sortzen zituen desberdintasunei emandako erantzuna izan zen, eta pobrezia kontzeptu-aldaketa bati ere, izaera indibiduala izateko arrazoi sozial eta ekonomikoetara lotuta egotera pasatu zen-eta. Pobrezia zer zen pentsatzeko eraren bilakaera batetik abiatu zen, indibiduala baino ez zela uste zuen ikuspegi batetik, pertsona pobreaken jokabide errudun baten ondorioz sortutakoa, egiturazko arazotzat jotzera pasatu zen, sistemaren beraren garapenaren ondorioz sortutakoa. Hori dela-eta, estatuak desberdintasunei aurre egiteko beharra bere gain hartu zuen. Lehenago esan den bezala, ideia da estatuak garapen ekonomiko eta sozial kapitalistaren eragin disfuntzionalak indargabetu behar dituela. Estatuari eskatzen zaio sistema ekonomikoaren ondorioak geratzeko, berdintasuna lortu ahal izateko, eta pertsonen garapenerako baldintzak jarri ahal izateko. Beraz, gastu soziala Estatu Modernoaren zilegitasunaren oinarrietako bat izango da.

Ongizate Estatuaren lorpenak dira errentaren beste banaketa bat bultzatu izana, eta horrela diru gutxien duten sektore ekonomikoaren egoera hobetu izana, eta gorabehera ekonomikoak arindu izana produkzioaren eta enpleguaren aldetik, transferentzien (gastu soziala) eta zuzeneko zergen bitartez, hau da, arrisku ekonomikoak gutxitzearen bitartez.

Ongizate Estatuaren edo Gizarte eta Zuzenbidezko Estatuaren ezaugarriak:

- Errentaren eta soberakinen banaketa, sistema fiskal progresibo baten eta gastu publikoa handitzearen bitartez.
- Gutxieneko ongizate baten bermea, oinarritzko premiak betetzea eta gizarte babesa. Gutxieneko errenta bat bermatzen du, segurtasun eza minimizatzen du herritarrak

<sup>1</sup> Pentsamendu marxistak, sozialistak eta anarkistak ez zuten bat egiten eredu horrekin, ordena eraldatzeko egitura sozioekonomikoaren sustraira joan behar zela uste zutelako. Defendatzen zutenaren arabera, Gizarte Estatuak ezin zezakeen lortu ez berdintasuna ezta gizarte justizia ere.

eta familiak babestuta gizarte arrisku batzuen aurrean, esate baterako, gaixotasuna, langabezia edo zahartzaroa. Gainera, zerbitzu hitzartu batzuk ematen ditu, eta herritar guztiek dute erabiltzeko eskubide bera.

- Sistema ekonomiko kapitalistarekin bateragarria da.
- Estatuak esku hartzen du esparru sozialean, lanekoan eta ekonomikoan.
- Gizarte indarren arteko adostasuna, elkarriketa eta negoziazioa.
- Gizarte eskubideak onartzea.

### **3.2. GIZARTE ESKUBIDEEK NAZIOARTEAN ETA ESPAINIAKO ORDENAMENDU JURIDIKOAN DUTEN ISLA**

Gizarte eskubideak konstituzioetan sartzeak eskubide horiek onartzea eta positibizatzea ekarri zuen. Ongizate Estatuaren ereduaren arabera izango da eskubide horien onarpen-maila.

Gizarte eskubideak lotuta daude helburuokin: gizarte justizia, aberastasuna berriro banatzea, norberaren garapena eta errealizazioa, eta ahulak babestea. Hori lortzeak berdintasun handiagoa duten gizarteak egitea dakar.

Hauxe da justifikazio horren oinarria:

- 1) Erantzukizuna onartzea pertsonen zailtasun eta premien aurrean, gutxienez oinarritzko zailtasun eta premien aurrean. Oinarritzko premiak dira betetzen ez badira bizitzeko baldintza penagarriak sortzen dituzten premiak, gizarte batek duintzat hartzen dituen mugak baino beherago daudenak.
- 2) Ziur egotea oinarritzko premiak betetzea aurretiazko baldintza dela norberaren pautuaren gainean erabakitzeko gaitasuna edukitzeko.

Eskubide horiek onartzearen oinarria da ez dagoela askatasunik, ez bizitza duinik, ez norberaren gaineko errespeturik gaitasun naturalen bilakaera eta garapena ahalbidetuko dutenik oinarritzko premiak ez badira betetzen.

Bestalde, gizarte eskubideak lotuta daude pertsonen premiei erantzuna ematen dieten prestazioekin: lanerako, osasunerako, hezkuntzarako, diru-sarrera duinetarako eskubidea, babesik ez izatearen aurreko babesa, etxebizitza egokia izateko edo pertsonen kultura-identitatea errespetatzeko eskubidea.

Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak ere esaten zaie, NBEren Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituneko (1966) terminologian.

#### **3.2.1. GIZARTE ESKUBIDEEN IZAERA GIZA ESKUBIDE DIREN ALDETIK**

Gizarte eskubideek gauzatzeko duten zailtasunik handienetako bat da eskubide zibil eta politikoei ematen zaien tratua bestelako tratua ematen zaiela. Izaera programatikoa

ematen zaie eta, beraz, betetzen ez badira, ezin zaizkio estatuari exijitu. Hala ere, gero eta hedatuagoa dago funtsezko ezberdintasunik ez dagoelako ustea: eskubide guztien ezaugarria da estatua konprometitzen duten “egiteko” eta “ez egiteko” betebeharrak multzoa izatea.

Eskubide guztiek, zibilek zein politikoez, instituzioen jardueraren bat eskatzen dute: sufragiorako eskubideak estatuko hauteskunde-azpiegitura antolatzea eskatzen du, ezkontzeko eskubideak eta elkarteak sortzeko eskubideak erregistro publikoak egotea eskatzen dute, tutoretza judizial efektiborako eskubideak aurrekontu publikoek eutsitako egitura judiziala eskatzen du, iritzi-eskubideak eskubide hori erabili ahal izateko aldeko egoera eskatzen du, eta alderantziz: gizarte eskubide batzuek ez dute inolako laguntzarik edo jarduerarik eskatzen, esate baterako, irazpen librea debekatzeko edo hezkuntzarako sarbidean diskriminatzea debekatzeko, lanaldia mugatzeak, oporrak izateko eskubideak, besteak beste.

Eskubide batzuen eta besteen arteko ezberdintasuna justifikatzeko erabili den beste argudio bat izan da gizarte eskubideak ez direla justiziagarriak, hau da, ezin direla exijitu epaitegien jardunaren bitartez. Benetan, diskriminazio-jarduerak (lanetik bidaltzea diskriminazioagatik...) edo Administrazioaren funtzionamendu ez normala (esate baterako, osasungintzan) alde batera utzita, zaila da epaitegiek era klasikoan jardutea, beste eskubide zibil edo politiko batzuk ez badaude eraginpean. Gainera, gehienak lausotasunez eta anbiguotasunez daude idatzita eta, hortaz, zaila da jakitea zein diren erreklamazioa egin ahal izateko tarte zehatzak. Eta oraindik ez daudenez epaitegien jardura asko, tarte horiek mugatzen lagundu dezakeen interpretazio judizialik ere ez dago. Hala ere, gero eta adibide gehiago daude estatuko zein nazioarteko jurisprudentzian, eskubide horiek exijitu daitezkeela diotenak, estatuak jardun behar izan zuen egoeretan ez zuenean jardun ere bai, eta, beraz, eskubide horiek betetzea eskatu daiteke. Eskubide zibilek eta politikoez luzaroago izan dute babesten dituen berme-sistema, eta jurisprudentziaren aldetik garapen handiagoa izan dute, baina horrek ez du esan nahi gizarte eskubideak ezin dituztenik garatu modu berean.

Gizarte eskubideak eta eskubide zibil edo politikoak bereizteko ahaleginak egin badira ere, ez dago tratamendu ezberdina justifikatzen duen ezberdintasun garrantzitsurik eta, gainera, gero eta gehiago onartzen da giza eskubide guztiak bata bestearen menpe daudela eta ezin daitezkeela banatu, unibertsalak direla, eta haiek exijitzeko modu edo bideren bat egon behar dela (lehendik daudenen antzekotasun handiagorekin edo txikiagorekin).

### **3.2.2. GIZARTE ESKUBIDEAK ESPAINIAKO ETA NAZIOARTEKO ORDENAMENDU JURIDIKOAN**

Espainiako ordenamendu juridikoan eta, zehatzago, Espainiako Konstituzioan eskubide zibil, politiko eta sozialen arteko ezberdintasuna agertzen da. Gizarte eskubideak “politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarriak” dira; eskubide zibil eta politikoei buruz, berriz, honakoa dio: “oinarriko eskubideak eta askatasun publikoak” dira.

Konstituzioan idatzita dagoenaren arabera, gizarte eskubideak ezin zaizkio exijitu jurisdikzioari irizpide interpretatiboengatik ez bada. Auzitegi Konstituzionalak egiten

dituen arauen fiskalizazioan konstituzionaltasun-parametro gisa funtzionatzen dute. Anbiguotasunez eta lausotasunez idatzita daude, eta zaila da haren muga zehatzak zein diren jakitea. Hala ere, Konstituzioari buruzko jurisprudentziak (AKE 26/1987, o.j.4; AKE 76/1988, o.j.4; AKE 37/1994, o.j.3) adierazi du “gizarte eskubideak ezagutzeko modukoak egiten dituen muin ukiezina babesteko beharra” edo honakoaren garrantzia: “gizarte politikaren arauak legegilearen konfigurazio-askatasunaren aurrean” edo “onargarritasun eza botere publikoen gelditasun osoaren aurrean edo zerbitzuak gutxituz aldatzearen aurrean edo haien eraginkortasuna gutxitzearen aurrean”.

Gainera, gizarte eskubideek arauen garapena dute (osasun publikoari buruzko arautegia, nahitaezko hezkuntzaren gainekoa, lan-harremanei buruzkoa...), eta garapen horrek botere publikoak lotesten ditu, eta, batez ere, oinarritzko beste eskubide batzuei lotuta daude. Beraz, gero eta gehiago aipatzen dira liskar judizialelan.

Bestalde, gizarte eskubide horiek legezko oinarria dute Espainiako Konstituzioaren (EK) 9.2. artikuluan, hau da, Atariko Tituluan dagoen artikuluan. Arautegi horrek berdintasun materialaren printzipioa ezartzen du: ondasun eta egoera ekonomikoak eta sozialak parekatzen eta orekatzen saiatzera behartzen dute; legezko aurreikuspen hori Euskal Autonomia Estatutuak ere jasotzen du: *“Botere publikoei dagokie inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eragingarriak izan daitezen; oztopoak kentzea, horiek haien osotasuna eragotzi edo zailtzen badute; eta herritar guztien parte-hartzea erraztea, bai bizitza politikoan, baita ekonomia-, kultura- eta gizarte bizitzan ere”*, edo EKko 14. artikuluan (1. Titulua “Oinarritzko eskubide eta eginbeharrak”), berdintasun formalaren printzipioa jasotzen baitu: *“ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta”*.

Horrenbestez, barruko ordenamendu juridikoan aurreikusi egiten da estatuak esku hartzeko duen betebeharra, pertsona guztiei bizitzeko gutxieneko batzuk emateko, bereizketarik gabe, eta gizarte arriskuko egoerak konpentsatzeko.

Alde horretatik, funtsezkoa da estatuak hartu dituen nazioarteko konpromisoak aipatzea. “Eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen nazioarteko ituna” nabarmentzen da konpromiso horien artean. Itun hori, “Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna” eta “Nazio Batuen Giza Eskubideen Adierazpena” dira giza eskubideekin lotuta nazioartean dauden oinarritzko tresnak.

Eskubide zibil, politiko eta sozialak jasotzeko bi itun egoteak indartu egin du eskubide batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak daudelako ustea. Ezberdintasun hori egiten lagundu du doktrina-garapen batek, luzaroan eman dielako garrantzia eskubide batzuek besteen aurrean dituzten bermeei eta prozedurei, eta babes-maila ezberdinak eman dizkie batzuei eta besteei.

Baina garapen bat egon da 1966. urtean itun biak hitzartu zirenetik. 80ko hamarkadatik Nazio Batuek jarrera aldatu dute, eskubide-kategoria biak bata bestearen menpekoak eta elkarri lotutakoak direla defendatzeko. Gaur egun, erakunde horrek honakoa defendatzen du: “gizarte eskubideak gauzatu gabe ezin da egon norbanakoaren askatasunik, ezta

eskubide zibil eta politikoen erabilera zuzenik ere, eta askatasunen demokraziarik eta sistematik gabe, ongizate materialak zentzuaren zati handi bat galtzen du”. 1985. urtetik aurrera erakunde bat sortu zen NBE: “Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordea”. Ohar orokorren bitartez, erakunde horrek lagundu egin du estatuek itunarekin lotuta dituzten betebeharrak nagusiak zehaztasun handiagoz definitzen eta eskubide zibil eta politikoen dutenarekin alderatu daitezkeen eduki arau-emaileak zehazten<sup>2</sup>.

Horren ondorioz, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak bilakaera izan du, eta edukiz bete du apurka-apurka gizarte eskubideek hasieran zuten lausotasuna, eta exijentzia gero eta handiagoa ere lortu du.

Gero eta gehiago onartzen da eskubide guztien arteko lotura dagoela, eta honakoa erakusten duen ikuspegia dago: eskubide baten edukiari, irismenari eta neurriari buruzko planteamenduak esparru zabalagoan kokatzea dakarrela. Hain zuzen ere, horixe egongo dira txertatuta eskubide guztiak. Nazio Batuek modu oso argian jaso dute hori, eta ez dute zalantzarako lekuri utzi: *“Oinarrizko giza eskubide eta askatasun guztiak banaezinak dira eta bata bestearen menpe daude; atentzio bera eta arreta urgentea eman behar zaio eskubide zibil, politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak aplikatzeari, sustatzeari eta babesteari”* (1986. urteko abenduaren 4an Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak onartutako “Garapenerako eskubideari buruzko adierazpena”-ko 6. artikulua) *“eskubide guztiak dira unibertsalak, banaezinak eta bata bestearen menpekoak eta elkarrenganako lotura dute”* (Vienako Adierazpena eta Jarduteko Programa, Nazio Batuek 1993ko ekainaren 25ean egindako giza eskubideen nazioarteko konferentzian onartutakoa).

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioari egozten zaion gabeziaren bat da ez dagoela nazioarteko auzitegirik estatuak behartuko dituztenak hitzarmenak berretsita bere gain hartutako konpromisoak betetzera. Hala ere, beharrezkoa da adieraztea gure ordenamendu juridikoaren parte direla eta Konstituzioan onartuta dauden eskubide eta askatasunen gida hermeneutikoak izateko balio dutela. Beraz, barruko auzitegietan eta kontrolleko beste erakunde batzuetan aipatu daitezke, esate baterako, Herriaren Defendatzaileak edo Arartekoak aipatu ditzake.

Bestalde, banaezintasuna eta elkarren menpeko izatea oihartzuna izaten ari dira Giza Eskubideen Europako Auzitegian eta, giza eskubideen Europako Hitzarmena (1950) funtsean eskubide zibil eta politikoei buruz ari bada ere, gizarte eskubideak urratzea, Hitzarmenean onartutako eskubideen urraketatzat jotzen da, Nazio Batuen irizpide bera jarraituta, esate baterako, 8. artikuluan: etxebizitza eta bizitza pribatua eta familia-bizitza errespetatzea<sup>3</sup>.

<sup>2</sup> Gainera, gida bat ere badago: *“Limburg Principles on the Implementation of the International Covenant on Economic, Social and Cultural Rights”* (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna ezartzeari buruzko Limburgoko printzipioak), 1986, NBE. Estatuak itunekin hartu dituzten betebeharrak juridikoak ulertzen laguntzen du gida horrek. Horrez gain, NBEk hainbat txosten eskatu zizkion kontalari berezi bati (Turk jn.), eskubide horiek munduan eraginor egiteko arazoei, politikei eta neurri mailakatuei buruzkoa hain zuzen. Horiatar jo dugu, interesgarriak direlako.

<sup>3</sup> 1994ko López Ostra kasua Espainiaren kontra; Txipre kasua Turkiaren kontra.

### 3.2.3. **BAZTERTUTAKO GIZARTE ESKUBIDE BAT: ETXEBIZITZARAKO ESKUBIDEA**

Etxebizitzarako eskubidea funtsezko eskubidea da pertsonen bizitza duina bermatzeko. Gainera, eskubide horren unibertsalizazioan aurrerapausoak eman beharrean atzerapausoak eman dira; atzerapauso hori jasan duen gizarte eskubideetako bat da. Beste alde batetik, etxebizitza egokirik ez izateak zaila egiten du lana, hezkuntza eta trebakuntza profesionala eskuratzea, gizarteratzeko aukera mugatzen du, norberaren garapena eragozten du eta inolako etxebizitzarik ez izateak osasun fisikoaren zein burukoaren hondatze oso bizkorra eragiten du, hau da, gainerako gizarte eskubideak betetzearengan eragina du. Beraz, gizarte ongizatearen mailaren adierazlea da estatu batean etxebizitzak duen egoera.

Elikatzearekin eta janztearekin batera, etxebizitza izatea gizakiaren funtsezko premietako bat da. Bizitzeko leku segurua edukitzea oso garrantzitsua da gizakiaren duintasunarentzat, osasun fisikoarentzat eta burukoarentzat eta, oro har, gutxieneko bizikaltatea izateko. Gaur egungo egoeran zaila da bazterkeria egoeran dauden pertsonak era autonomoan etxebizitzaren premia betetzea, prezio handiagatik, talde etniko jakin batzuei alokatzea eragozten duten gizarteko aurreiritziengatik, erosteko edo erabiltzeko abalak eta bermeak eskatzen direlako...

Etxebizitzarako eskubidea funtsezko eskubidea da nazioarteko zuzenbide humanitarioan 1948tik, hau da, Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpenean onartu zenetik eta, geroago, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Itunean onartu zenetik: *“Itun honetako Alderdiak diren Estatuak onartzen dute pertsona guztiek dutela berentzako eta familiarentzako bizitza-maila egokia izateko eskubidea; elikagai, arropa eta etxebizitza egokiak izateko eskubidea ere, eta izatearen baldintzak etengabe hobetzeko. Alderdiak diren Estatuak neurri egokiak hartuko dituzte eskubide horren eraginkortasuna bermatzeko, eta horretarako onartu egingo dute adostasun askean oinarritutako nazioarteko lankidetzaren funtsezko garrantzia”* (Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Ituneko 11.1 artikulua).

4. zk.dun ohar orokorrean, NBEko Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordeak edukiz bete du eskubide hau: *“etxebizitza izateko eskubidea ez da interpretatu behar zentzu murriztailean, buruaren gainean teiltatu bat izate hutsak dakarren aterpe gisa... etxebizitza izateko eskubidea nonbaiten segurtasunean, bakean eta duintasunean bizitzeko eskubidea da”*<sup>4</sup>.

Espainiako Konstituzioak ere jasotzen du eskubide hori: etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea, eta betebeharrak ezartzen dizkie botere publikoei –lurraren erabilera

<sup>4</sup> Horren irismena eta munduan duen egoera hainbat txostenek eta biltzarrek jorratu dute, bai etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitzaren nazioarteko urtean (1987) edo giza kokalekuei buruzko Nazio Batuen biltzarrean (1996), edo etxebizitzaren nazioarteko estrategia dela-eta, edo, azkenean, Milurtekoaren Adierazpenean (2000). NBEen erakunde bat dago, HABITAT, etxebizitza egoki baterako eskubidea sustatzeko lan egiten ari dena.

interes orokorraren arabera arautzea, espekulazioa desagerraraztea, gizarteari erakunde publikoen hirigintza jarduerak sortzen dituen gainbalioetan parte hartzeko aukera ematea– (“Politika sozial eta ekonomikoaren gida-oinarriak” I. Tituluko III. Kapituluako 47. artikulua).

Hala ere, etxebizitza ez da jotzen ez gizartean ezta instituzioetan ere giza eskubidetzat, baizik eta ondasuntzat. Iritzi horren arabera, merkantzia bat da, merkatuaren logikak arautzen duena, eta merkatuaren helburua irabazi pribatuaren aldea etengabe handitzea da. Beraz, pertsona askorentzat eskuraezina da. Horren ondorioz, etxerik ez duten pertsonen kopuruak gora egin du, txosten honetan ikusi daitekeenez. Gizarte politikak eta etxebizitzaren politika publikoak egiten ari diren arren, etxerik gabekoen kopurua gorantz doa, eta muturreko bazterkeria egoerak sortzen ditu, esate baterako, txosten honetan aztertzen direnak.

### **3.2.4. GIZARTE ESKUBIDEEN GARAPENA ETA ESKUBIDEOK BETETZEKO DAUDEN ZAILTASUNAK**

Gizarte eskubideen garapenaren jatorria agintari publikoek hartutako konpromisoetan dago, eta administrazioek honakoetan duten jardueraren menpe dago: planifikazioa, aurrekontu-aurreikuspena eta abian jartze eraginkorra. Beraz, gizarte politiketan eta ongizate orokorrean gauzatzen da, eta geroago aztertuko ditugu.

Gizarte eskubideak betetzeak duen zailtasuna honakoekin dago lotuta: kostu handia, gabeziak eta burokratizazio handiagoa dakarten arazoak, estatuak egin behar dituen funtzioak handitzen direlako, baliabideen aurrekontuen arteko beste banaketa baten beharra eta gastu publikoaren kudeaketa propioa, hobetu behar diren gabeziak dituelako.

Gizarte eskubideak kritikatzeko dituztenek Ongizate Estatuaren eraginkortasuna eta zentzua zalantzan jartzen dute. Ikuspegi liberalak Gizarte eta Zuzenbidezko Estatuak kritikatzeko du burokratizazioagatik, herritarren eskaeren gorakada amaiezina ekarriko lukeela uste dutelako, euren iritziz estatua berez ez baita eraginkorra zerbitzuen kudeaketan. Horrez gain, beren ustez, arduratzeko modukoa da estatuaren boterea handitzea pertsonen boterearen aurrean. Kritika horiek oihartzun handia izan dute 90eko hamarkadako politika publikoetan, eta planteamendu politiko kontserbadoreen oinarrian daude gaur egun.

Ezkerreko ikuspegiak hauexek kritikatzeko dituzte: botere publikoek elite teknokratekin duten harremana, gizarte politika jakin batzuen joera paternalistak eta ezgaitasunak, herritarren borondateatik urrun dagoen programazio burokrata... Jarrera horiek ondasunen banaketa berri baten beharra adierazten dute, eta mekanismo deszentralizatuak, parte-hartzaileak eta komunitarioak ezartzeko beharra, gizarte eskubideak kudeatzeko.

Ikuspegi batek edo besteak hitza hartzearen arabera, ateratzen den estatu eredua oso ezberdina da, eta gauza bera gertatzen da sustatzen diren politika publikoekin.



### 3.3. ONGIZATE ESTATUAREN ERRONKAK

#### 3.3.1. GIZARTE ARRISKU BERRIAK

Ongizate Estatu asko aldatu den nazioarteko testuinguru ekonomikoan jaio zen. Aldaketa handienetako bat lan-merkatuaren egonkortasunarekin lotutakoa da. Aurrerapen teknologikoek, globalizazioak, lehiakortasunak lana antolatzeke beste modu bat ekarri dute, lanaren malgutasun handiagoa, baina lan-baldintzen prekarizazioa ere ekarri dute eta langileek eskuratutako eskubideak gutxitu egin dira. Familiako bizitza ere aldatu egin da, emakumea lan-merkatura sartu delako, seme-alaben kopurua gutxitu delako eta bizikidetzaren eredu berriak daudelako; beraz, familia-eredu bat apurtu egin da, eta egonkorra izateari utzi dio.

Herrialdeen hazkuntza ekonomikoak baldintzatu egin du Ongizate Estatuaren eta gizarte politiken garapena, orain arte gizarte eskubideen garapenari baliabide ekonomikoak bideratzea ahalbidetu bazuen ere. Garapen hori demokrazian sakontzearekin ere lotuta dago eta herritarrek parte hartzeko modu berrieke, une honetan bultzatzen ari dira-eta, batez ere gizarte arloan eta udal- eta lurralde-agintaritzetan.

Testuinguru horretan, Ongizate Estatuak “beste gizarte arrisku batzuei” egin behar die aurre:

- o Gizarte arrisku berri horiek aldaketa demografikoekin batera gertatu dira, esate baterako, biztanleria zahartzea. Besteak beste, biztanle nagusi gehiago egotearen ondorioz, honakoekin arteko aurreikuspenak aldatu dira: diru-sarrerak publikoak (gizarte segurantzako kotizazioak, zergak, besteak beste) eta gastu publikoak (erretiro-pentsioen hartzaileen gorakada, sanitate publikoko gastuarena, inoren laguntza behar duten pertsona nagusien gorakada, besteak beste).
- o Emakumeak lanean hasteak handitu egin ditu inoren laguntza behar duten pertsonen laguntzeko eta zaintzeko zerbitzu publikoen eskaerak, eta horrek sekulako garrantzia izan du gastu publikoan. Gainera, babes-sistemen ikuspegia aldatu dute familiako bizikidetzaren moduen aniztasunak eta pertsona bakarrak osatutako familien gorakadak, eta sistema horiek sortu berri diren errealitateei aurre egin behar diete.
- o Izan duen eragin ekonomikoa dela-eta, sortu berri den beste gizarte arrisku bat gizarte postindustrial baterako aldaketa izan da. Horrek enplegua ezabatu du industria-ekoizpenean eta langabezia ekarri du egokitzeko baldintzarik ez duten biztanleriaren sektoreetara. Gainera, lanaren arauketa eta babesaren ere desagerrarazi ditu. Horren ondorioz, lan-baldintzek okerrera egin dute, eta gastuak handitu dira langabezia-sarrietan eta subsidioetan edo bestelako gizarte laguntzetan.
- o Gastu publikoak organizazio burokratikoak mantentzea dakar eta hura zalantzan jartzea. Horrek zerbitzu pribatuen hedapena ekarri du, baita prestazio eta zerbitzu publikoen desarauketa ere, antolatzeke beste modu batzuekin alderatuta duen eraginkortasun handiagoagatik edo txikiagoagatik; eta ondorio oso handiak izan ditu jarduera publikoa ulertzeke moduan.

- o Globalizazioaren eta, zehatzago, esparru ekonomiko handiagoak kontuan hartzearen ondorioz (Europar Batasuna), kanpoko faktoreek eragina dute estatuko ekonomian, eta hori ez dator barruko arazoen ezagutza, ardura edo erantzukizunarekin batera. Horren ondorioz, ekonomiako oreka galdu daiteke. Gainera, kapitalen mugimendu askeak murriztu egin du merkatua zuzentzeko politikak hartzeko estatuek zuten aukera.
- o Pertsonen leku-aldaketak egon dira eta egoera juridiko eta administratibo irregularrean dauden pertsona atzerritarren gorakada ere bai. Solidaritate eta kohesio sozialeko erronkak sortzen ditu gizarte berrietako dibertsitate etniko eta kulturalak, eta dibertsitate hori zaindu beharreko balio gisa onartu izanak.
- o Pilaka kontratatzeak (kontsumitzaileen eskubideak) babes-esparru berriak eskatzen ditu, eta bizi-kalitatearekin batera (ingurumeneko eskubideak) ardura sortzen ari da, gero eta gehiago.
- o Azterlan honek aztertzen dituen egiturazko bazterkeria egoerak sortu dira, babes-sistema berria ekarri dutenak, aurrerago ikusiko dugunez.

Azken buruan, Ongizate Estatuak lotuta dago honakoa justifikatzen duen herritartasun-printzipioarekin: esku-hartze publiko baten beharra, hain zuzen ere, merkatuak pertsona guztiei bizitza duin bat emateko eta euren oinarritzko premiei aurre egiteko duen gaitasun ezari erantzungo diona.

Gizarte Estatuak baliabide ekonomikoak behar ditu. Beraz, gastu publikoaren eraginkortasuna hobetzearen eta gizartean onartuta dagoen aurrekontuen arteko banaketa berriaren menpe egongo da estatu hori finkatzea. Era berean, beharrezkoa da ongizate-erregimen horrek eskatzen duen ahaleginari buruz gizartea jakitun jartzea, eta gastu publikoaren zentzua eta beharra handitzea. Estatu hori hazkuntza ekonomikoko garaiekin lotu da batez ere; beraz, geldialdi-egoeretan edo atzerapen ekonomikoko garaietan izan dezakeen bilakaerari eta garapenari buruzko zalantzak daude.

### 3.3.2. **HERRITARTASUN INKLUSIBOA**

Herritarraren estatutuak dakar eskubide eta betebeharrak onartzea, komunitate bateko kide izatea, eta gizarte, ekonomia eta politikako bizitzan parte hartzea. Herritartasun inklusiboak<sup>5</sup>, beste urrats bat egiten du: pertsona guztiei eskubideak berdintasunean onartzea dakar. Aipatutakoa lotuta dago pertsonaren garapen osoa lortzen saiatzearekin, oinarritzko baliabideak izatearekin eta talde guztiek erabakietan parte hartzearekin; hortaz, demokrazian sakontzea eskatzen du.

Planteamendu horrek defendatzen duenez, pertsona denei eskubide guztiak onartzea (gizarte eskubideak barne) aurretiaz eman behar den beharrezko pausoa da, Gizarte bazterkeria saihesteko.

---

<sup>5</sup> Thomas Henry Marshall: "...herritartasunaren gizarte eskubideen helburua klase-egitura aldatzea da eta gizarte berdintasuna lortzea".

Une honetan gizartearen dualizazioa egon da, eta herritarren talde bi daude, bata bestearen ezberdina:

- Enplegu egonkorra duten langileak, integratuak, prestazio publiko eta pribatuak jasotzen dituztenak.
- Lanik ez duten herritarrak edo lan ezegonkorra dutenak, hau da, gutxieneko gizarte laguntza publikoak onartuta dituztenak. Horrek pertsona horiek gizartetik desintegratzea ekiditen du, baita desintegrazioak izan ditzakeen ondorio txarrak ere: delinkuentzia, kriminalitatea, miseria-poltsak. Herritarretatik kanpo geratzen diren pertsonak dira, zailtasunak dituztelako lan-merkatuan era normalizatuan parte hartzeko, eta ezin dituzte eduki eskubide guztiak, hau da, eskubide zibilak zein politikoa eta sozialak: familiaren marjinalitate egoera heredatu duten adin txikikoak eta gazteak, partekatuta ez dauden familia-zamak dituzten emakumeak edo indarkeria egoerak bizi izan dituztenak, irregulartasuneko egoeran dauden gutxiengo etnikoak eta etorkinak, ezkutuko lanekin, gizarte babes urria duten pentsiodunak, langabezian denbora asko daramaten pertsonak, babesik ez duten adineko pertsonak, gaixoak, epailearen erabakiaren zain dauden gazteak, lan eze-gonkorrak dituzten aldi baterako langileak... Txosten honek herritar horiei buruz hitz egiten du, pertsona horiek direlako Gizarte bazterkeria larria deitu izan den egoeran amaitzen dutenak.

### 3.4. GIZARTE POLITIKAK ETA GIZARTE BAZTERKERIA

Atal honetan gizarte politikak aztertuko dira, haien garapena eta EAEko esparru zehatzean gaur egun duten forma. Bilakaera horrek eragina izan du ordenamendu juridikoan. Gizarteko aldaketen ondorioz, babes publikoko hasierako sistemak egokitu dira, eta familiarekin eta ongintzarekin lotuta egon diren babesteko modu tradizionalak hainbat aldaketa izan dituzte.

#### 3.4.1. GIZARTE POLITIKEN BILAKAERA

Gizarte politiken helburua baliabideak orekatzen saiatzea da, eta pertsona guztien aukera-berdintasuna erraztea. Hauxe lortzea da helburua: pertsona guztiek eskubide eta aukera berdinak izatea bizitzako potentzialitateak garatzeko, klase, adin, arraza edo generorekin lotutako ezberdintasunak alde batera utzita. Ez dira babes-politikak bakarrik, pertsonen heziketa eta hezkuntza hobetzen saiatzen diren politikez ari gara edo osasuna sustatzen duten politikez edo etxebizitza eskuratzea errazteaz arduratzen diren politikez, besteak beste.

Gizarte aseguruetatik sortu zen gizarte politika eta Gizarte Estatuaren hasiera. Aseguru horiek lehenengo babes-sistema izan ziren. Izan ere, gizarte industrialean ez ziren nahikoa babes-sistema tradizionalak, ongintza eta familia. Lehen gizarte politika 1883 eta 1889ko Bismarck legeena izan zen, gaixotasunari, ezgaitasunari eta zahartzaroari aurre egiteko aseguruia ezarri baitzuten. Sistema horren garapenaren ondorioz, Gizarte Segurantzako sistemak sortu ziren Europan.

Espanian, 1960 eta 1978 urteen artean, gizarte segurantzako sistemaren unibertsalizazioa hasi zen, eta horrek ondorioak zekartzan gaixotasunek eta pentsio-sistemek sortutako gastuen aldetik. Garai horretan osasungintza eta hezkuntzako gastuak ere handitu ziren.

Espainiako Konstituzioan<sup>6</sup> (1978) jaso zen agintaritzza publikoek honako politikak egiteko zuten betebeharrak: enplegu osoa, osasuna –guztiek osasun-laguntza izatea–, hezkuntza –nahitaezko hezkuntza hedatzea–, erretiroko pentsioak edo ezgaitasunekoak, langabezia-sariak... Konstituzioak gizarte gastuak zabaltzea ere ekarri zuen eta errentak sistema fiskalaren bitartez banatzea, zuzeneko zerga gehikorrekin.

1992tik aurrera mugak egon ziren gizarte prestazioetan, langabeziaren gorakadaren ondorioz. Gastu publikoa eta gizarte gastua moderatzeko neurriak hartu ziren eta, ordutik, zeharkako zergak handitu dira. Hortaz, aberastasunaren birbanatzea gizarte prestazioen bitartez etorri da batez ere: hezkuntza, osasungintza, ordaindutakoaren araberakoak ez diren prestazioak eta, azkenaldian, laguntzako prestazioen edo ordaindutakoaren arabera diren prestazioen bidez.

Ongizate Estatuak harreman handia izan du enplegu osoarekin eta hazkuntza ekonomikoarekin. Langileak beren lanpostuetan egoten ziren denbora-epe luzeetan. Kotizazioek aurre egiten zieten laneko arriskuei. Langabeziak gora egiteak, aurretiaz erretiratzekak, biztanleak zahartzekak, bizi-itxaropena igotzekak, besteak beste, gastuak handitzen dituzte (laguntza eta pentsioen gorakada) eta diru-sarrerak gutxitzen dituzte (sisteman kotizatzen duten pertsonen proportzioa gutxitzen da).

Azken hamarkadetan defendatu diren politika publikoen ezaugarria izan da gastu publikoa kontrolatzea, batez ere azken urteetan, euroa sartu zenetik. Honakoetan oinarritutako politika ekonomikoa izateko konpromisoa hartu zuten Europar Batasuneko herrialdeek: zor publiko nazional mugatua, zergarik gabeko finantza publikoan, inflazio-tasa txikia mantentzea eta gizarte segurantzako sistemak finantzatzeko gizarte kotizazioen maila egonkortzea. Politika horiek nahitaez izan dute eragina pertsonen ongizatean, gizarte gastuak mugatzea ekarri dutelako. Espainiak politika ekonomiko hori hartzeko konpromisoa hartu zuen, baina beste herrialde batzuk ez bezala, esaterako Frantzia, gizarte gastuaren garapen txikiagotik abiatu zen.

Funtsean lan-merkatuari lotuta egon ziren ordura arte Espainian garatu ziren gizarte babeseko politika publikoak (langabezia-saria, ezgaitasun-saria...). Kontribuzio-printzipioa izan da gizarte babeseko programetan gailendu dena. Gaur egun, ordea, arazorik larrienak lan merkatuan sartu ezin diren pertsonak dituzte edo modu oso prekarioan sartzen diren pertsonak. 80ko hamarkadaren amaieran eta 90eko hamarkadan guztientzako gizarte politikak jarri ziren abian era partzial eta koordinazio gabekoan, Gizarte Segurantzarik ez duten herritarrei zuzenduta: ordaindutakoaren araberakoak diren erretiro- eta ezgaitasun-pentsioak, laguntza seme-alaben ardura izateagatik, langabezia-sariak. Transferentzia horien guztien zatirik handiena zergen bitartez finantzatzen da eta errenta-maila txikiak dituztenei zuzenduta daude.

<sup>6</sup> Espainiak zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa eratzen du, eta, beraren antolamendu juridikoaren balio nagusi bezala, askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa aldarrikatzen ditu.

Estatuak gizarte politikan izan duen esku-hartzea ezberdina izan da ongizate-erregimenaren<sup>7</sup> arabera, eta eragin oso garrantzitsuak ditu gizarteko eta familiako bizitzan. Duela gutxira arte ez da egon Espainian familiari emandako laguntzen garapen handirik (umeak, adinekoak eta ezgaitasunak dituztenak zaintzeko zerbitzu gutxi, eta familientzako bestelako zerbitzu gutxi, esate baterako, haurtzaindegia, eguneko zentroak, egoitzak...), familiak, zehatzago esanda, emakumeak zaintzen zituelako umeak, gaixoak eta adineko pertsonak. Familiaren egituran egon diren aldaketek laguntza berriak ekarri ditu, familia ez delako beti laguntza bat izango premia horiei erantzuteko orduan.

Horrenbestez, azken urteetan abian jarri diren gizarte politikek ezin izan dute geldiarazi herriarren haustura gero eta handiagoa, bitarteko gutxi erabili direlako, neurriak ez direlako integralak izan edo bultzatu diren neurriak ez direlako eraginkorrak izan (esate baterako, etxebizitzaren arloan gertatzen da hori, ez baita espekulazioa geratu ezta merkatu pribatua konpentsatu ere). Haustura horren ondorioz, gizarte eskubideetatik kanpo geratzen diren pertsonak daude, etxerik ez duten pertsonak, familiarik ez dutenak, gizarte sarerik ez dutenak, hezkuntzarik ez dutenak, lanik ez dutenak, osasunik ez dutenak, azken batean, itxaropenik ez dutenak, gizarte eskubideak edukitzeko aukeratik oso urrun daudelako. Beraz, gizarteko gertaera horrek ez du soilik garrantzi ekonomikoa; aitzitik, etxebizitzarik ez izatearekin, trebakuntza eta prestakuntza urriarekin, osasun hondatuarekin, gizartetik bakartzearekin edo familiaren sakabanatzearekin ere lotuta dago. Laneko prekarietatea, hau da, enplegu duinik ez izatea da bazterkeria eta marjinazioko egoeretara heltzeko egiten den lehen urratsa. Prekarietateak baldintza onak eskaintzen dituen lanik ez izatea esan nahi du, eta txosten honetan deskribatzen ditugun bazterkeria egoera larri batzuk sortzen ditu. Bazterkeria hori sortzen laguntzen dute etxebizitza-arazoez, osasunarekin lotutakoek, familiaren sakabanatzeak sortutakoek eta gizarte arazoez, eta aldi baterako egoera hori arinduko duten gizarte babeseko sistema egokirik ez egoteak.

Bazterkeriak bakartze prozesua larriagotzea dakar, eta eskubideak erabiltzearen ga-bezia.

Gure gizarteak ez du lortzen gero eta aberatsagoa den gizarte baten irabaziaz banatzea. Bultzatzen diren jarduerak ez dira nahikoa; izan ere, bake eta gizarte kohesio erlatiboa lortzen duten arren, ez dute lortzen gizartean justizia eta berdintasun handiagorik egotea; pobrezia handitu egiten da edo bere horretan jarraitzen du:

- Luzaro irauten duen langabezia handitu da.
- Zailtasunak dituzten guraso bakarreko familien kopurua handitu da.
- Hirietan ghettoak sortzen ari dira, eta ghetto horietan biztanle pobreak daude batuta batez ere.
- Pertsona batzuk laguntza-mekanismoen menpe daude.

Ikusi da ekonomiaren hazkuntza hutsa ez dela gai izan desberdintasunak gutxitzeko edo pobrezia eta bazterkeriako egoerak ezabatzeko.

<sup>7</sup> Esping-Andersen-ek hainbat eredu ezartzen ditu –eskandinaviarra, anglosaxoia, kontinental–. Eredu horiek gizarte politika ezberdinak zehazten dituzte, familia-ereduarekin oso lotutakoak, azken urteetan herrialdeen gastu-mailak berdindu diren arren. Ongizate-erregimenen gainean duen ikuspegiak eragin handia izan du kontzeptuen eta metodologiaren gaineko eztabaidan.

### 3.4.2. GIZARTE POLITIKEN ESPARRU JURIDIKOA

Agintaritzaren publikoek bultzatutako neurriek ez dute soilik kontuan hartu baliabide materialen falta, baizik eta baliabide kultural eta sozialen falta ere bai, batez ere 80ko hamarkadatik aurrera. Gizarte babeseko sistema berriro pentsatu behar izan zen, bestelako neurri integralagoak ere sartzeko.

1984ko abenduan EEEko Ministroen Kontseiluak horrela definitu zituen pertsona pobre, pobrezia-aren kontra borrokatzeko bigarren programaren barruan: *“bizi diren Erkidegoko Estatuan onartu daitezkeen gutxieneko bizitza-estiloetatik kanpo geratzen diren gizabanakoak, beren baliabide materialak, kulturalak eta sozialak oso urriak direlako”*. Europako Erkidegoetako, hau da, gaur egungo Europar Batasuneko esparru juridiko-politikoan kokatu zen gizarte bazterkeriaren kontrako borroka. Harentzako gizarte eskubideak onartzeak pertsonen baldintza duinak izateko zuten eskubidea onartzea zekarren, bai eta agintaritzaren publikoek honakoak edukitzea guztiei ahalbideratzera bideratutako jarduerak egiteko betebeharrak zutela onartzea ere: hezkuntza, oinarrizko jakintzak era eraginkorrean jasotzearen bitartez, trebakuntza, enplegua, etxebizitza, gizarte zerbitzuak eta osasun arreta<sup>8</sup>.

Europako Erkidegoan pobrezia-aren kontra borrokatzen diren programek onartzen dute baliabideak eta laguntzak bultzatzeko beharra dagoela, gizarte bazterkeriari aurre egiteko: bermatutako baliabide eta laguntza nahikoen, egonkorren eta erregularren beharra, eta osasunaren, etxebizitzaren, trebakuntzaren eta enplegurako sarbidearen arloko neurrien beharra. Esparru horretan, dokumentu nagusia ekainaren 24ko Kontseiluaren 92/441/CEE Gomendioa da, gizarte politikako neurriak bultzatzeko balio izan zuena. Gomendio horren aurrekaria da 1988ko irailaren 16ko Europako Parlamentuaren ebazpena, pobrezia-aren aurka borrokatzeari buruzkoa. Ebazpen horretan Europarako gutxieneko errenta bermatu bat ezartzeko premiatzen zen, erkidegoko herritar pobreenen gizarteratzea errazteko. Etxerik gabeko pertsonekin lotuta, garrantzitsua da aipatzea *“etxerik gabekoen eta etxebizitzaren arazoa”*<sup>9</sup> gaiari buruz Eskualdeetako lantaldeak eman zuten Irizpena.

Lisboako Europako Kontseiluan (2000) Batasuneko estatuak haxe onartu zuten: *“gizarte marjinazioa gure ekonomiak eta gure gizarteek aurre egin behar duten erronka nagusietako bat da”*. Ondorioak hauek izan ziren, besteak beste: *“Onartezina da pobrezia-aren mailatik behera eta gizartetik baztertuta Batasunean bizi diren pertsonen kopurua”* edo *“erronka ez da soilik baztertutako pertsonen emandako laguntza hobetzea, edo baztertuak izateko arriskuan daudenei emandakoa hobetzea, baizik eta gizarteratzea zailtzen duten egiturazko oztopoak ezabatze lan egitea, eta, horrela, gizarte marjinazioko kasuak gutxitzea”*.

<sup>8</sup> 1989ko irailaren 29ko Kontseiluaren ebazpena, Gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeari buruzkoa, Europako Erkidegoen Kontseiluaren uztailaren 18ko 89/457 erabakia, epe ertainean ekonomiaren eta gizartearen aldetik baztertuen dauden pertsonen integrazio ekonomikorako eta sozialerako neurriak hartzeko programa bat ezartzeari buruzkoa.

<sup>9</sup> 1999/C293/07.

Azken buruan, Europako gizarte politiken helburuetako bat gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzea da, hain zuzen ere, gero eta sektore handiagoei eragiten dien prozesua, eta prekariedade gero eta handiagoan gauzatzen dena, lanaren, etxebizitzaren eta ekonomiaren aldetik. Horri aurre egiteko beharrezkoak diren jarduerak nahitaz daude lotuta eskubide zibil, politiko eta sozialak mantendu eta errespetatzearekin.

Jarraian gizarte eskubideen arloko arau garrantzitsuenak jasoko ditugu, nazioartekoak zein estatukoak, bai eta EAEn gizarte bazterkeriaren arloan dauden arauak ere. Hala ere, errepikatzen dugu gizarte eskubide guztiak banaezinak eta elkarren menpekoak direla. Amaitzeko, EAEn honakoetarako garatzen ari diren jarduera-plan nagusiak aipatuko ditugu: gizarte bazterkeria borrokatzeko eta gizarte bazterkeria larriko egoerak gehien jasaten dituzten kolektiboei laguntzeko.

Giza eskubideen arloan, hasierako erreferentzia **Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala** da. Adierazpen hori 1948ko abenduaren 10ean onartu eta aldarrikatu zuten Nazio Batuen Batzar Nagusiak.

*“Pertsona orok du bizimodu egokia izateko eskubidea, bai berari eta bai bere familiari osasuna eta ongi izatea bermatuko diena, eta batez ere janaria, jantziak, biziak, mediku sorospena eta gizarte zerbitzuak; eta baita lanik eza, gaixotasuna, elbarritasuna, alarguntasuna, zahartzaroa edo bizibidea nahi gabe galtzeko beste kasuren bat gertatzen denerako aseguruia izateko eskubidea ere”.* (25. artikulua)

1966ko abenduaren 16an onartutako **Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna** da nazioartean gizarte eskubideen garapena eta hori betetzeko estatuen konpromisoa jaso duen tresna.

*“Itun honetako Alderdiak diren Estatuak onartzen dute pertsona guztiak dutela berentzako eta familiarentzako bizitza-maila egokia izateko eskubidea; elikagai, arropa eta etxebizitza egokiak izateko eskubidea ere, eta izatearen baldintzak etengabe hobetzeko. Alderdiak diren Estatuak neurri egokiak hartuko dituzte eskubide horren eraginkortasuna bermatzeko, eta horretarako onartu egingo dute adostasun askean oinarritutako nazioarteko lankidetzaren funtsezko garrantzia”.* (11. artikulua)

**Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Batzordearen Ohar Nagusiak**, ituna osatzen dutenak. 1985. urtean organo hori sortu zen NBEren barruan. Organo horrek estatuak dituzten betebeharrak nagusiak zehatzago definitzen lagundu du, hain zuzen ere, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen itunarekin lotuta dituzten betebeharrak hobeto zehaztu ditu. Horrez gain, eskubide zibil eta politikoen itunarekin alderatu daitekeen eduki arau-emileari bide ematen lagundu du<sup>10</sup>.

<sup>10</sup> Linburgoko eta Maastrichteko Printzipioak ere aipatu behar dira. 1986. urtean, Maastrichten, Herbeheretan, Nazioarteko Zuzenbidean aditua zen talde bat batu zen. Batzarraren helburua Itunaren Alderdi ziren Estatuak eskubideen eta nazioarteko lankidetzaren gainean zituzten betebeharren izaeraren eta irismenaren gainean pentsatzea zen. 10 urte geroago, aditu-talde bat batu zen berriro ere, Linburgoko printzipioen ulerpena handitzeko helburuarekin, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalak urratzearen izaera eta irismenari dagokionez, eta horientzako erantzun eta baliabiderik egokienak pentsatzeko helburuarekin.

Europako eskualdeei eragiten dieten arauen artean, Europako Kontseiluaren Europako Gizarte Gutuna dugu, 1961ekoa.

Europar Batasuna eraikitzeko prozesuan, gizarte eskubideei lekua egiten joan zaie Maastrichteko Itunean, Amsterdamgoan (1997) eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean (Niza, 2000). Europako Konstituzioak (2004) testu bakarrean jasotzen ditu oinarrizko eskubideak. Europar Batasunean eskubideak bermatzeko ahaleginei dagokienez, garrantzitsua da aipatzea diskriminazioaren kontrako arautegia, diskriminaziozko jardueri eta haren ondorioei eskaintzen dien eduki zabalagatik. Amsterdamgo Itunaren 13. artikulutik datoz (Nizan aldatutakoa). Artikulu horrek ezartzen du Europar Batasunak duen eskumena diskriminazioaren kontra borrokatzeko. Kontseiluaren 2000/43/CE Zuzentaraua da bat, pertsoneri tratu bera emateko printzipioa aplikatzeari buruzkoa, arraza edo etniaren jatorria zeinahi izanik ere. Bestea Kontseiluaren 2000/78/CE Zuzentaraua da, enpleguan tratu bera jasotzeko esparru orokorra ezartzeari buruzkoa. Zuzentarau horiek jaso egin dira Batasuneko estatuen legerian eta, zehazki, Espainian abenduaren 30eko 62/2003 Legearen bitartez, hau da, neurri fiskal, administratibo eta gizarte ordenakoei buruzko legearen bitartez. Bestalde, komeni da adieraztea Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak behin eta berriro esan duela Batasuneko estatuek izenpetutako nazioarteko tresnetatik eratorritako oinarrizko giza eskubideak eskubide komunitarioaren oinarrizko printzipioen parte direla.

Estatuan, **Espainiako Konstituzioak** (1978) ezberdindu egiten ditu alde batetik oinarrizko eskubideak eta, bestetik, herritarren eskubideak eta politika sozial eta ekonomikoaren ardatzak diren printzipioak, eta, esan dugun bezala, berme-sistema ezberdinak esleitzen dizkie. Lehenago aipatutako 9.2 eta 14. artikulua oinarrizkoak dira gizarte eskubideen arloan, eta gizarte esku-hartzea artikulua horietan oinarritzen da. 10.2. artikulua bitartez, nazioarteko eskubide humanitarioa sartuta dago ordenamendu juridikoan.

Eskubide eta betebeharrak horiek berberak dira Euskal Autonomia Erkidegoan. **Autonomia Estatutuko** 9. artikuluan jasotzen da Konstituzioan ezarritako eskubide eta betebeharrak EAEn duten aplikazioa, eta agintaritzak publikoek esku hartu behar dutela horiek bermatzeko eta sustatzeko: 2. atalean ezartzen du: *“Euskal herri-aginteek, beren eskumenen esparruan,*

- a) Herritarren oinarrizko eskubide eta betebeharren erabilera egokia zaindu eta bermatuko dute.*
- b) Bizi- eta lan-baldintzen hobekuntzaren aldeko politika bultzatuko dute bereziki.*
- c) Enplegua gehitzea eta ekonomiaren oreka sustatzeko neurri lagungarriak hartuko dituzte.*
- d) Gizakien eta gizataldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetako izan daitezen baldintzak eragitera eta oztopoak desagerraraztera bideratutako neurri oro hartuko dute.*
- e) Euskal Herriko politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte alorretako bizitzan herritar guztien partaidetza bideratuko dute.*

Gizarte eskubideak onartzea hezkuntzaren, osasunaren, enpleguaren, etxebizitzaren arloko arau eta neurriekin batera dator. Arau eta neurri horiek komunitate osoari era-



giten diote, eta beren helburua aukera-berdintasuna eta biztanleen osasuna sustatzea da; hau da, garapen pertsonalerako eta bizi-kalitaterako beharrezkoak diren baliabide batzuetarako sarbidea bermatzea. Hala ere, ez dira biztanle guztiengana heltzen; zenbait kasutan, esate baterako, etxebizitzaren kasuan, haien eraginak eztabaidatuak eta partzialak dira, eta onuradunak oso gutxi dira. Gizarte bazterkeriaren ezaugarria diren pobrezia-modu berriek babeseko gizarte politika espezifikoak behar izan dituzte, babes-sistema berria, XX. mendean garatu zenaren paraleloa. Horren xedea, bizirik irauteko baliabide ekonomikoak besterentzeaz gain, gizarte postmoderno batetik eratorritako arazo berriei aurre egitea da, pertsona lan-merkatutik kanpo bidaltzeaz gain, gizarte eta familiako inguruetik kanpo bidaltzen duen gizarte postmodernoari, hain zuzen ere.

Babes-sistema paralelo horrek hasierako bultzada izan zuen **Pobrezia Aurrerako Plan Integrala** (1989) abiarazi zenean. Helburu nagusia laguntza ekonomikoen sistema bat ezartzea izan zen, pobrezia aurrerako lan egitea ahalbidetuko zuena. Izan ere, 80ko hamarkadaren erdialdean eta amaieran pobrezia euskal gizartearen barneratzen ari zela zirudien; beraz, gizarteak eta ekonomiak okerrera egiteko prozesua saihestu nahi zen. EAE izan zen gutxienezko errenten programa bat abian jarri zuen lehenengoa. Industri birmoldaketaren prozesuaren ondorioz, pertsonen egoerak okerrera egin zuen langabeziagatik eta eremu askoren eta auzoen degradazioarengatik; hortik sortu ziren pobre berriak. Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak egindako txosten batek agerian jarri zuen euskal gizartearen zati batek bizi zuen gero eta prekaritate handiagoa, eta kontzientziatzeko eta pobrezia kontrako neurriak bultzatzeko balio izan zuen. 1987ko maiatzaren 8an, legekoa ez den proposamen bat onartu zuen Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak. Proposamen horretan gobernuari eskatu zitzaion pobrezia buruzko programa espezifiko bat abian jartzeko, eta horretarako batzordea sortu zen. Pobrezia aurrerako egiteko sektoreko neurriak aplikatzea aurreikusten zuen pobrezia kontrako plan integralak, diru-sarrerarik ez zutenei eta gizarte larrialdiko egoeran zeudenei arreta ematea aurreikustez gain.

Maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak, hau da, gizarte bazterkeriaren aurrerakoak<sup>11</sup>, aurreko esperientziak jaso zituen, eta aipatutako planaren ondorioz garatutako jarduerak finkatu zituen. Jarduteko esparru bat ezarri zuen; esparru horren ezaugarria zen gizarteratzeari lehentasuna ematen ziola, eta laguntza ekonomikoen planteamendu kritikoa egiten zuela, beste gizarteratze-neurri batzuekin batera ez bazihazten. Gizarte bitartekoak eta laguntza ekonomikoak elkartzen dituen dispositibo globala ezartzen saiatzen da, gizarteratze bitartekoak laguntza ekonomikoen menpe jarri gabe.

Gizarte bazterkeriako egoera honela definitzen du: gizarte eskubideak erabiltzeko aukerarik edo gaitasunik ez izatea, esate baterako, lanerako, hezkuntzarako, trebakuntzarako, kulturarako, osasunerako, etxebizitza duinerako edo gizarte babeserako eskubidea. Beraz, beharrezkoa da administrazioek langabeziari aurre egiteko ekimenak garatzea, trebakuntza-maila eta trebakuntza-mota lan-merkatuaren beharretara egokituko duen trebakuntza profesionala sustatzeko politikak, etxebizitza sozialen

---

<sup>11</sup> Lege hori era partzialean aldatu zuten azaroaren 10eko 8/2000 eta 9/2000 legeek.

kopurua handitzeko politikak, eskolan integratzeko jarduerak, berdintasun-politikak, osasuna guztien esku egotea. Gainera, gizarte babeseko prestazio ekonomikoek laguntzen dute.

Oinarrizko errenta, lanean hasteko pizgarriak eta gizarte larrialdietarako laguntzak dira prestazio ekonomiko horiek<sup>12</sup>. Horien helburua oinarrizko premiak betetzea da, bai eta lan egin arren soldata oso txikia duten pertsonen ongizate-maila handiagoa ematea ere.

Gizarte esku-hartzea udaletako gizarte zerbitzuetatik egiten da, horiek dira-eta bazterkeria egoeran dauden edo egoteko arriskuan dauden pertsonak detektatzeko erantzukizuna dutenak, haien premiak zein diren ikusteko erantzukizuna dutenak, baita pertsona horiek gizarteratzeko beharrezkoak diren neurriak proposatzeko ere.

Dituzten baliabideak gizarte bazterkeriaren aurkako legearen ondorioz sortutakoak dira<sup>13</sup> (oinarrizko errenta, larrialdietarako laguntzak eta lanean hasteko pizgarriak), eta udalak berak ezarritakoak. Gainera, instituzio publikoen, esaterako, aldundien, zein erakunde pribatuen, fundazioen eta elkarten baliabideei buruzko informazioa ematen dute, eta horietara bidaltzen dituzte pertsonak.

Gizarteratze-hitzarmenek<sup>14</sup> osatzen dute legeak proposatzen duen esku hartzeko tresna nagusia. Dokumentu horietan esku hartzeko banakako programa ezartzen da, eta programa horren barruan egon daitezke laguntza psikologikoa eta hezkuntzako, etxebizitzarako laguntza, osasun-orientabidea, trebakuntza, oinarrizko errenta, gizarte larrialdietarako laguntzak... Dokumentu-programa horietan jasotzen dira berariazko jarduera sozialak, hain zuzen ere, norberaren integratzera, gizarteratzera eta laneko integratzera zuzendutakoak, edo bazterkeria-arriskua saihestera zuzenduak. Parte hartzen duten alderdiak udalak eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonak dira. Udalei dagokie gizarteratzeko hitzarmena betetzetik datozen jarduera guztiak antolatzea, jakinaraztea, garatzea eta egitea. Horren eragina ez da beti berbera izaten, azken urteetan izenpetutako hitzarmenen kopurua handitu bada ere, batez ere laguntza jasotzen denbora gehien daramaten pertsonen dagokienez.

Esku-hartzearen helburua, gizarte bazterkeriaren aurkako legeak proposatzen duen sistema, lan-merkatuan sartzen laguntzea da. Pertsona horiek lan-merkatuan sartzea

<sup>12</sup> Diru-sarrera otsailaren 28ko 39/1989 Dekretuaren bitartez ezarri zen. Maiatzaren 3ko 2/1990 Legeak aldatu zuen, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzkoa, eta maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak, gizarte bazterkeriaren kontrakoa, apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuak, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzkoa eta abenduaren 27ko 10/2000 Legeak, gizarte eskubideen gutunari buruzkoa. Gizarte larrialdiko egoerarako laguntza ekonomikoak arautu zituzten martxoaren 21eko 64/1989 Dekretuak eta 178/1990, 26/1993, 199/1999 Dekretuak eta 9/2000 Legeak. Lanean hasteko pizgarriak 2001eko otsailaren 14an Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuak emandako Aginduan daude araututa. Agindu horretan, Oinarrizko Errentaren titularrentzako eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzen onuradunentzako lanean hasteko pizgarriak daude ezarrita.

<sup>13</sup> Gizarte bazterkeriako egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko Euskadin dauden baliabideak azaltzen dituen koadro bat dago I. eranskinean. Gizarteratze plana 2003-2005. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila.

<sup>14</sup> Gizarteratzeko Hitzarmenak arautzen dituen urtarilaren 11ko 1/2000 Dekretua.

lortu behar dute ezarri diren neurriek. Horretarako, hainbat programa bultzatu dira<sup>15</sup>, pertsona bakoitzaren egoeraren arabera, esate baterako, oinarrizko gizarte trebeziak eskuratzeko programak, zailtasun handienak dituzten pertsonentzat, edo enplegurako orientabide pertsonalizatuko zerbitzuak, arazo gutxien dituztenentzat.

Gizarte bazterkeriari aurre egiteko dispositiboa babes-sistema bat da, segurtasun-sareena edo azken sareena ere deitzen dutena. Lan-harremanetik sortutako babesik (gizarte segurantzak) edo familiaren babesik ez dagoenerako da sistema hori; babes subsidiarioa da, laguntza ekonomikoko eta sozialeko azken sarea.

Gizarte zerbitzuek kudeatzen dituzten gizarte laguntza emateko programek osatzen dituzte batez ere segurtasun-sare horiek. Sareok bizi-kalitate nahikoa bermatu nahi diete premia egoeran dauden pertsonen, eta baliabideen falta frogatzean oinarrituta daude. Honakoak dira ezaugarriak:

- Haien erreferentziatzko unitatea familia- edo bizikidetzak-unitatea da. EAEn hainbat aldaketa egin dira antzeko egoerei lekua egiteko edo adin txikiak dituzten eta bakarrik dauden pertsonen edo ezgaitasunen bat duten pertsonen ardurak dutenei. Aurrerapenak badira ere, oraindik urrun gaude gutxiengo errenta bermatua izateko norbanakoaren eskubidea ezartzetik.
- Sare horietan sartzeko frogatu egin behar da bizikidetzak-unitateak dituen diru-sarreraren maila muga jakin bat baino txikiagoa dela.
- Lurraldean epe batez bizi izana exijitzen da. EAEn urte betekoa da epe hori, baina salbuespenak daude.
- Epe baterako ematen da. EAEn ez dago denborazko mugarik.
- Laguntza ekonomikoa gizarteratzeko jarduerekin lotuta dago.
- Adinaren arabera mugak daude. EAEn ez dago mugarik baliabide nahikorik ez duten 65 urtetik gorako pertsonentzako, baina bai 25 urtetik beherakoentzako. Pertsona horiek bakarrik sartzen dira laguntzetan pertsonaren baten ardurak badute edo aitarik eta amarik ez badute.

Oinarrizko errenta (horrela deitzen da orain) apirilaren 20ko 198/1999 Dekretuan arautzen da batez ere. Dekretu hori gizarteratzeko gutxiengo diru-sarrerari buruzkoa da, eta era xehatua azaltzen ditu zein prozedura-tramite egin behar diren laguntza hori eskuratzeko. Bazterkeria egoeran dauden pertsonak herritarren bizitzako ingurune normalizatuetan integratzea lortu nahi da iraupen zehaztugabeko aldizkako laguntza ekonomikoko emanda (oinarrizko errenta bermatu baterako eskubidea). Laguntza hori elikagaien bidez ematen da bizikidetzak-unitateko kide gutzientzat.

Gizarte larrialdietarako laguntzak apirilaren 20ko 199/1999 Dekretuan arautzen dira batez ere. Laguntza ekonomikoko horiek oinarrizko errentaren osagarriak dira, eta gastu

---

<sup>15</sup> Besteak beste, Auzolan programa, bazterkeriako egoeran dauden edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonak lanean integratzeko. Programaren helburua gizarteratzeko erabilgarria izango den enplegu-aukera bat ematea da, trebakuntza-prozesu bati lotutako aldi baterako eta lanaldi partzialeko lan-kontratuaren bitartez. Kontratuak erakunde publikoek edo pribatuek sustatu ditzakete (irailaren 19ko 182/2000 Dekretua).

espezifikoei aurre egiteko ematen dira (etxebizitza eskuratzeko eta edukitzen jarraitzeko gastuak ordaintzen ditu, etxebizitzan ekipamendu eta instalazio egokiak izateko gastuak, baita egiturazko gabeziak ere, bizitzako egoera orokorrarekin lotutakoak). Helburuari loturik daude, hau da, sortu diren helbururako bakarrik erabili daitezke. Laguntzen kopurua gutxitu egin daiteke aurrekontuak ematen duen diruaren arabera eta oinarrizko gizarte zerbitzuek egiten duten balioespenaren arabera<sup>16</sup>.

Oinarrizko errenta 505,73 € (2005. urtea) da gaur egun, (549,01 € 2006. urtea); lanbide arteko gutxieneko soldata baino kopuru txikiagoa da. Familiako kideen arabera osatzen da kopuru hori. Kopurua ezartzeko orduan eragina du lan-merkatu sartzeko gogo kentzeko beldurrak.

Gaur egun eztabaida bat dago, gutxieneko errentari beste eduki bat ematen diona<sup>17</sup>; enpleguaren eta gutxieneko diru-sarreraren artean bereiztetik abiatzen da eztabaida. Ikuspegi horren arabera, gutxieneko errenta laguntza nahikoa izango litzateke bizitzako oinarrizko premiei erantzuteko, eta gizarte kide bakoitzari banaka ordaindu beharko litzaioke bere eskubidea litzatekeelako, batez ere zergen bidez finantzatuta; baldintza bakarra bertako herritarra izatea edo bertan bizitzea litzateke. Beraz, errenta eskuratzeko beste iturri batzuk ez ziren kontuan hartu beharko, ez zen kontuan hartuko jasoko duenak lan egiten badu eta norekin bizi den. Errenta horren defendatzaileek diote horrela desmerkantilizazio osoa lortuko zela. Izan ere, laguntza jasotzea laneko jardura ordaindutik banatuta egongo zen eta borondatezko, etxeko edo familia zaintzeko lana ordainduko zen, hau da, une honetan ordaintzen ez diren lanak ordainduko ziren.

EAEn herritarren lege-ekimen bat abian jarri zen, gizarte bazterkeriaren eta pobrezia-aren arloan lan egiten duten erakundeek egindako gizarte mobilizazio baten ondorioz. Ekimen hori 1996ko uztailan aurkeztu zen Eusko Legebiltzarreko mahaiari, gizarte gutun bat onartzeko. 1997tik 2000. urtera Eusko Legebiltzarrean tramitatzen egon zen Gizarte Eskubideen Gutuna deituko zena. Azkenean onartu zen dokumentua, hau da, Gizarte Eskubideen Gutunari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legea, ez zen jatorrizko berbera izan eta ez zuen aldaketa handirik ekarri aurreko sistemarekin alde-ratuta. Izan ere, diru-sarrerak familiarentzat (bizikidetzaren unitatea) izaten jarraitu zuen, eta ez norbanakoarentzat, eskatu zen gisan; gainera, ematen zen laguntzaren kopurua handitu bazen ere, ez zen lortu lanbide arteko gutxieneko soldataren beste ordaintzea, eta hori zen eskatu zena. Lege horretatik aurrera gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrerari oinarrizko errenta deitu zitzaion.

Hala ere, Gutun horrek EAEn gizarte eskubideak onartzea ekarri zuen, eta EAEko agintari publikoek eskubide horiek errespetatu eta sustatzeko betebeharra ere. Gutu-

<sup>16</sup> Lanean hasteko pizgarriak ere aipatu behar dira. 2001eko otsailaren 14ko Aginduak arautu zituen, hau da, 2000ko otsailaren 3koa ordezkatu zuen aginduak, eta soldata txikiak dituzten enplegudun pertsoniei ematen zaien sari osagarria dira.

<sup>17</sup> Gai hau ikertzen eta garatzen ari dira EAEko zenbait autore, esaterako, Imanol Zubero edo Luis Sanzo, eta Katalunian Daniel Raventós ere nabarmenak da. Arartekoaren P Francisco de Vitoria Giza Eskubideen Sailan argitaratutako "Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto" liburua gai hori jorratzen du modu espezifikoa.

nean honako oinarrizko gizarte eskubideak onartzen dira: gizarte babes nahikoa izateko eskubidea, osasuna babestuta izateko eskubidea, osasun arretoa eta laguntza egokiak izateko eskubidea, kalitatezko hezkuntza izateko eskubidea, etxebizitza duina izateko eskubidea eta ingurumen babestua izateko eskubidea (3. artikulua).

Gizarte bazterkeriaren kontrako legean bezala, Gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonak lan-merkatuan sartzeari garrantzi berezia ematen zaio, eta enplegua sustatzeko neurriak aurreikusten dira. Neurri horiek garapen ekonomiko orokorrera zuzendutako politika orokorrak osatzeko edo zuzentzeko dira.

Babes-sistema hori ezartzeak EAEn izan duen eragina pobrezia-adierazleen bitartez neurtzen da. Adierazle horiek Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak egiten duen pobrezia- eta gizarte desberdintasunei buruzko inkestan daude jasota.

2004. urteko inkestaren arabera, pobrezia-arriskua handiagoa da bakarrik dauden pertsonen ardurapean dauden familietan, batez ere seme-alaben ardurapean badute eta emakumeak badira, ikasketarik gabeko pertsonetan, 45 urte baino gutxiago dituzten pertsonetan, langabezian dauden edo lan egonkorrik ez duten pertsonetan, edo Europar Batasunaz kanpoko herrialdeetatik etorritako etorkinetan. Faktore horiek eta talde bakoitzaren garrantzi demografikoa konbinatzeak zehazten dute EAEko pobrezia-eraren osaketa.

Hainbat pobrezia- eta prekaritate-egoera ezberdintzen ditu, eta bereizi egiten du eta kalkulak egiten ditu arrisku-adierazleak kontuan hartuta:

- a) Gure gizarteko batez bestekoen azpitik argi eta garbi dauden bizi-baldintzekin lotutako pilaketa-pobrezia-egoerak. Aipatutako batez bestekoak epe luzera bizitza-maila egokia izateko beharrezkoak diren kontsumo-ondasunak lortzeko aukerarekin daude lotuta.  
46.177 dira egoera horretan dauden pertsonak, biztanle guztien %2,2 (13.366 familia, %1,8).
- b) Pobrezia-arriskua duten egoerak (iraupeneko pobrezia): era potentzialean zenbait premiari erantzuteko nahikoa ez diren diru-sarrera ekonomikoak eskura izatea da pobrezia mota horren ezaugarria, hain zuzen ere, diru sarrera horiek ez dira nahikoa premia oinarrizkoenei erantzuteko, bereziki, elikagaien, etxebizitzaren, jantzien eta oinetakoen gastu erregularrei erantzuteko.  
73.718 dira egoera horretan dauden pertsonak, biztanle guztien %3,5 (36.428 familia, %4,9).
- c) Ongizate ezagatik sortutako arrisku-egoerak; era potentzialean zenbait premiari erantzuteko nahikoa ez diren diru-sarrerak eskura izatearekin dago lotuta. Oinarrizko premiari erantzutea baino gehiago, gutxieneko ongizate-maila izateko eta gizarte jakin batean espero den erosotasuna izateko beharrezkoak diren gastuei erantzuteko nahikoa diru-sarrera da ez dutena.  
412.963 dira egoera horretan dauden pertsonak, biztanle guztien %19,8 (175.390 familia, %23,6).

Pobrezia larriko egoeran dago euskal biztanleen %0,5 eta arrisku egoeran dauden pertsonen %9,9. Pobrezia larriaren barruan sartzen dira aipatutako gabezia guztiak. Inkestak erakusten du bazterkeria eta pobrezia prozesu larrik ez dagoela.

Arrisku-adierazlearen balioespenez gain –oinarrizko premiei ez zaiela nahikoa erantzuten erakusten dute horiek–, benetako pobrezia buruzko adierazle objektiboagoak daude. Adierazle horrek benetako pobrezia eraginaren kalkulua egin du, eta EAEko biztanleen %3,4-3,5ek bizi duela dio. Ehuneko hori beren burua pobretzat edo oso pobretzat duten pertsonen familien %3,2tik hurbil dago.

### *3.4.2.1. ADMINISTRAZIOAREN PLANIFIKAZIO JARDUERA*

Administrazioa jarduera-planak egiten ari da, jarduera koordinatuak eta zeharkakoak eskatzen dituzten gizarte esparruetan duen esku-hartzea antolatzeko eta sistematizatzeko. Jarduera-plan horietan esku-hartzearen ildoak eta arauak agertuko dira. Plan horietan jasota daude garatuko dituzten neurriak, neurriak betearaztearen ardura duten organo eta erakundeak, aurrekontua eta plana balioztatze beharrezkoak diren egiaztatze adierazleak.

Gizarteratzearen arloan, gizarte bazterkeriaren kontrako legeak berak ezartzen du beharrezkoa dela gizarteratze-plan bat egitea, eta 2003-2005 eperako egin zen. Gizarteratze-planaren helburua gizarteratze sistema hobetzea da, oinarrizko gizarte zerbitzuekin lotutako neurrien bitartez, baita laguntza ekonomiko eta sozialen, eta laguntzeko, trebatzeko eta enplegua lortzeko programen bidez ere. Gainera, neurriak ezartzen ditu beste arlo batzuetan: etxebizitza, hezkuntza, lanerako trebakuntza eta enplegua; horrela, erantzun hobea ematen zaie bazterkeria egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonen premiei.

Plan horrek eta jarraian aipatuko diren beste batzuek agerian uzten dute sailen eta administrazioen arteko lankidetzaren beharrezkoa dela arreta integralak lortzeko.

Gipuzkoan ere gizarteratze-plana egin da. Plan horrek lurraldean dagoen gizarte zerbitzuen sarea antolatu nahi du, eta gizartean baztertuta egoteko arriskuan dauden kolektiboaren egoera hobetzeko beharrezkoak diren neurri eta jarduerak ere antolatu nahi ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Sailak plan estrategiko bat egin du Bizkaiko (2004-2007), eta plan horrek jarduerak aurreikusten ditu honakoetarako: gizarte premiak ezagutzeko, inoren beharra duten adineko pertsonen, emakumeen edo familiaren arloko programak abian jartzeko, ezgaitasunen bat duten pertsonentzako, gizarteratze, babesik ez duten adin txikikoentzako. Horrez gain, koordinatzeko jarduerak aurreikusten ditu eragile publiko eta sozialekin, eta Bizkaiko gizarte zerbitzuen garapena ere aurreikusten du.

Osasunaren arloan ere aurreikusi dira gizartean baztertuta egoteko arriskuan dauden biztanleei arreta emateko jarduerak. Alde horretatik, premia nagusietako bat arreta soziosanitarioa da.

Arreta soziosanitarioaren premia duten pertsonen arazoak konpontzean inplikaturik daude zenbait instituzio zuzenean edo zeharka. Instituzio horiek eskumen autonomoak dituzte (Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, aldundiak, udalak); hortaz, beharrezkoa da instituzioen arteko koordinazioa.

2003ko urtarrilaren 30ean izenpetu zen Eusko Jaurlaritzaren, foru aldundien eta Euskadiko udalen elkartearen (Eudel) arteko lankidetzaz hitzarmena. Hitzarmen hori arreta soziosanitarioa garatzeko da, eta antolakuntza-egitura bat sortu zuen (Arreta Soziosanitarioko Euskal Kontseilua). Horrez gain, zehaztu egin zituen esparru soziosanitario bat eta arreta-eredu bat antolatzeko eginkizuna zuten organoen funtzioak. Halaber, finantziario-eredua ezarri zuen, eta esparru soziosanitarioak osatzerakoan lortuko diren akordio sektorial eta teknikoetan kontuan hartu beharrezko jardueren printzipioak ere ezarri zituen. Gipuzkoako Lurralde Historikoan egin diren jardueren artean, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte-kintza Departamentuak 2003ko uztailaren 2an egindako hitzarmena dago. Horren bitartez bermatu egin da Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen dituen, haren tutoretzapean dauden edo itunpean dauden egoitza soziosanitarioetan zerbitzu soziosanitarioak emango direla.

Horrez gain, duela gutxi egindako plan estrategikoa ere aipatu behar da, hain zuzen ere, EAEn arreta soziosanitarioa emateko plan estrategikoa (2005-2008). Plan hori Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseiluak egin du, eta eremu soziosanitarioaren esparru kontzeptuala ezartzen du. Bi sare mantentzen ditu: sanitarioa eta soziala. Arreta soziosanitarioko ereduak garatzeko jarraitu behar diren helburuak, estrategiak eta ekimenak zehazten ditu plan horrek.

Etxebizitzari dagokionez, 2002-2005erako etxebizitzaren plan zuzentzaileak ere aurreikusten du baztertutako kolektiboekin jardutea –plana Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarena da–. Proposatzen dituen jarduera-ildoetako batzuk dira alokatzeko etxebizitza sozialen kopurua handitzea, etxebizitzak erreserbatzea eta zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat berariazko programak ezartzea.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarena da 2003-2005 eperako immigrazioaren euskal plana. Plan horrek helburu batzuk ezartzen ditu eta helburu horiek kontuan hartzen dituzte biztanle etorkinek hainbat arlotan (gizarteratzea eta gizarte baliabideak, lana, hezkuntza, etxebizitza, osasuna...) dituzten behar espezifikoak, bai eta gizarte bazterkeriako egoerak saihesten saiatzen diren neurriak ere, eta bere zehaztasunak gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzeko dispositibora sartzen saiatzen direnak. EAeko zenbait udalek (Irun, Donostia, Barakaldo, Gasteiz...) ere immigrazioko plan lokalak egin dituzte, biztanle etorkinei zuzendutako jarduerekin eta, beste arlo batzuen artean, udaletako gizarte zerbitzuei eragiten diete jarduera horiek.

Badaude beste plan batzuk, esaterako, gazteriarena, edo berdintasun-planak. Plan horien helburua bazterkeria-arriskuko egoerak prebenitzeko eta eraginpean dauden pertsonen arreta emateko neurriak hartzea da.

Plan horien egitura antzekoa da helburuen eta neurrien sistematizazioaren aldetik, baita ardura duten organoen determinazioaren eta planak betetzeko epeen aldetik ere.

Aurrekontu-konpromisoak ezberdinak dira batzuetan eta besteetan, eta zein mailatan betetzen diren ere. Plan horiek balioestea zaila bada ere, gutxienez aukera ematen dute horiek egiteaz arduratzen diren administrazioen jarduera-ildo edo joerak zein diren jakiteko, eta jaso eta aurreikusi egiten dute administrazioen artean eta administrazio barruan komunikatzeko eta lankidetzan aritzeko bideak ezartzeko beharra, guztiek aurreikusten dituzten neurriak integralak direlako.

### 3.4.3. **INSTITUZIOEN ETA ESKUMENEN ESPARRUA**

Jarraian aipatuko ditugu txosten honetan aztertzen diren pertsoneri ematen zaien arretan esku hartzen duten eragile publiko eta sozialak.

#### 3.4.3.1. **ESKUMENEN BANAKETA: EUROPAR BATASUNA, BATASUNEKO ESTATUAK, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA, ALDUNDIAK ETA UDALAK**

**Europar Batasunak** eginkizun osagarria eta laguntzazkoa du Batasuneko estatuek garatzen dituzten ekimenetarako, horiek baitira gizarte gaitan eskumena dutenak. Erkidegoko gizarte politikaren arloa subsidiariorotasun-printzipioak gobernatzeko eta, hortaz, Europar Batasunak bakarrik esku hartuko du helburuek hala eskatzen dutenean, egin nahi zen jardueraren dimentsioagatik edo erkidegoan izango dituen eraginengatik.

Amsterdamgo Itunaren osteko Europar Batasuneko Itunean, Erkidegoaren helburuen artean sartu zen “ekonomiaren eta gizartearen aurrerapena eta enplegu-maila handia sustatzea, eta garapen orekatu eta iraunkorra lortzea” (EBI, 2. artikulua)<sup>18</sup>. Honakoa aurreikusten du: “Batasuneko estatuen artean lankidetzak sustatzeko neurriak hartu ahal izango ditu, jakintza hobetzeko, informazioa eta jokaera onak elkarren artean trukatzeko, berrikuntza formulak sustatzeko eta elkarren eskarmentua balioesteko ekimenak bultzatuz, Gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzeko helburuarekin” (EBI, 137.3.2 artikulua).

Horrela koordinazio-metodo irekia erabiltzen da, jokabide egokiak zabaltzeko egiten den jarduera-multzoa dituen, EBko helburu nagusien inguruko adostasun handiagoa lortzeko.

Gizarte bazterkeriari aurre egiteaz arduratzen den arloan oso garrantzitsua izan zen Lisboako Kontseilua (2000), Gizarte bazterkeriaren aurka egiteko oinarriak jarri zituelako Europar Batasunean. Agerian jarri zuen Gizarte bazterkeriaren aurkako borroka kontuan hartu behar zela hurrengo hamarkadan Europa honakoa izatea nahi bazen: “*munduko jakintzaren ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena, hazkuntza ekonomiko etengabea enplegu gehiago eta hoberekin eta gizarte kohesio handiagoarekin edukitzeko*

<sup>18</sup> Europako Konstituzioaren Ituneko 2. artikulua berriaz adierazita dago honakoa Erkidegoaren eginkizuna dela: “...gai hauek sustatzea: (...) enplegua eta babes soziala, maila handian...”.



*gai zena*". Hazkuntza ekonomikoa eta bazterkeriaren kontrako borroka lotu zituen: "*gizarte kohesio handiagoa eta bazterkeria txikiagoa duen gizarteak ekonomia hobea finkatzen du*". Lisboako Kontseiluan Erkidegoko kideak diren estatuei eta Batzordeari eskatu zitzaien pobrezia erazten eragin erabakigarria izango duten neurriak hartzeko gehienez 2010. urterako, onartezina iruditzen zaiolako pobreziaren eta bazterkeriaren mailaren azpitik Europar bizi diren pertsonen kopurua.

Lisboan hartutako konpromisoa 2000ko abenduan Nizan egin zen Europako Kontseiluaren ardatz bihurtu zen. Kontseilu horretan helburu batzuk onartu ziren pobreziaren eta Gizarte bazterkeriaren kontra egiteko, eta estatuei eskatu zitzaien Jarduera Plan Nazionalak aurkezteko eta egiaztatzeko adierazleak eta prozedurak zehazteko, egindako aurrerapenak ikusi ahal izateko. Laeken-go Europako Kontseiluan (2001) pobrezia neurtzeko eta egindako ahaleginen eraginkortasuna balioztatzeko 18 adierazle onartu ziren. Gainera, estatuetako ekimenak Europako helburuekin duten bat-etortzea errazteko egin diren jardueren gainean hausnartzeko esparrua izan zen.

Orain arte gizarteratzearen alde jarduteko hiru plan nazional egin dira: 2001-2003, 2003-2005 eta 2005-2006. Plan horiek egitura bera izan behar zuten azterketa konparatiboa eta ikaskuntza bateratukoa errazteko, eta hainbat helburu zituen.

Estatu guztiek ez zuten egitura hori aukeratu, baina Espainiak gomendatu zen egitura jarraitu zuen<sup>19</sup>. Hurrengo urteetarako, plan horiek gizarte babes kontuan hartzen duen txosten bategatik aldatzea aurreikusitako da, hau da, osasunari eta pentsioei buruzko neurriak jasotzen dituen txosten bategatik, gizarteratzeko neurriak edukitzeaz gain. Txosten integratuan estatuek estrategiak azalduko lituzkete guztiek dituzten helburuak lortzeko. Txosten hori 2006an aurkeztu behar da eta hurrengo urteetan egin diren aurrerapenak aztertu beharko dira.

Espainiak gizarteratzearen alde jarduteko III. plan nazionala (2005-2006)<sup>20</sup> izango zena aurkeztu du dagoeneko. Plan hori egiteko eskumena duen organoa Lan eta Gizarte Gaietako Saila da. Autonomia Erkidegoek planaren segimendua eta ebaluazioa egiteko batzorde berezi baten bitartez parte hartzen dute. Batzorde hori gizarte gaien konfidentzia sektorialaren barruan osatu zen. Munduan, udalek FEMPen barruko (Udalerrri eta Probintzien Espainiako Federazioa) gizarte zerbitzuen batzordearen bitartez parte hartzen dute, eta Hirugarren Sektoreak gizarte ekintzako GKEen estatuko kontseiluaren bitartez parte hartzen dute.

<sup>19</sup> Espainiak aurkeztutako planak (2001-2003 eta 2003-2005) balioztatzerakoan, Batzordeak adierazi du orokorrekiak direla eta desiragarria litzatekeela pobreziaren eta bazterkeriaren kontra borrokatzearekin zuzenean lotutako jarduerak argiago identifikatzea, eta horiekin lotutako aurrekontuak gehiago zehaztea.

<sup>20</sup> Ildo estrategikoetan, besteak beste, pertsona ahulenen aldeko jarduerak aurreikusten ditu eta honakoa jasotzen du: kalean gizarte arreta emateko baliabideak eta ekipamendu diziplinantzak handitzea eta hobetzea, erkidegoen arteko baliabideen sarea bultzatzea, etxerik gabeko pertsonentzako ostatuak eta dispositiboak, 50.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, eskean aritzea prebenitzeko eta saihesteko programa integralak antolatzea, GKEekin lankidetzan, hotz-boladen aurrean etxerik gabeko pertsonak hartzeko laguntza-kanpainekin jarraitzea eta etxerik gabeko pertsonentzako exijentzia txikiko baliabideen sorrera bultzatzea, kaleko proiektuen bitartez, laguntza soziala duten eguneko zentron bidez, GKEekin lankidetzan...

Estatuen artean koordinatzeko beharra honakoan dago jasota: gizarte bazterkeriaren kontra borrokatzerakoan Batasuneko estatuen arteko lankidetzaz sustatzeko jardueraren programa komunitarioaren onarpenean (2002-2006)<sup>21</sup>.

Estatu barruan, gizarte bazterkeriaren kontrako borroka eta gutxieneko errenten programak bere gain hartu dituzte gizarte laguntzaren arloan eskumenak dituzten autonomia erkidegoek (Europako Konstituzioaren, EK, 148.20. artikulua). Hala ere, Europar Batasunarekin duten harremana **estatuan** zentratuta dago, estatua delako nazioarteko harremanetarako eskumena duen bakarra. Eskumena duten bakarrak Autonomia Erkidegoak direnean bezala, beharrezkoa da komunikatzeko eta koordinatzeko bitartekoak ezartzea estatuarekin eta Europar Batasunarekin, programak eraginkorrak izango direla bermatzeko.

Lehenago esan den bezala, gizarte laguntzaren gaineko eskumena **Autonomia Erkidegoek** baino ez dute (EKko 148.1.20. artikulua), baina babes-sistema osoa ez da Autonomia Erkidegoen eskumena. Esaterako, gizarte segurantzako eskumena, oinarritzko legeria eta gizarte segurantzako sistemaren erregimen ekonomikoa estatuarenak dira. Autonomia Erkidegoek betearazteko eskumena erabili ahal izango dute eurei besterendu ahal zaizkien gizarte segurantzako zergen programak kudeatzeko. (149.1.17 artikulua, EK). Hortaz, babes-sistema paralelo bi daude: estatuarena, hau da, legeak egin, planifikatu eta kudeatzen duena, eta batez ere zergekin lotura duena; bestetik, gizarte zerbitzuen sistema dago, laguntza ematekoa dena. Sistema horretan Autonomia Erkidegoek legeak egin, planifikatu eta kudeatzen dute.

Autonomia Estatutuek eskumenak hartu dituzte gizarte laguntzako eta gizarte zerbitzuetako gaietan. Euskal Autonomia Erkidegoko 10. artikuluan gizarte gaien arloko eskumena jasotzen da. Eskumen hori betearaztea foru-organoen esku utzi zen, EAEko instituzio komunek egin zezaketen jardueraz zuzenarengan eraginik izan gabe, hain zuzen, azaroaren 25eko 27/1983 Legean, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen arteko harremanari buruzkoa (7. artikulua).

Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen Legeak gizarte zerbitzuak ematea eta sustatzea eta gizarteratzea sartzan ditu udalerriek bete behar dituzten eskumenen artean (TEOAL, 25 eta 26. artikulua).

Horrenbestez, instituzio komunek, Legebiltzarrak eta Eusko Jaurlaritzak zein foru aldundiek eta udalek eskumenak dituzte gizarte gaietan. Eskumenen antolaketa Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legearen bitartez egin da. Hauxe da lege horren helburu nagusia: *“herri-erantzukizuneko sistema bat oinarri dela, eskubide bat antolatu, egituratu, sustatu eta bermatu nahi da, herritarrek gizarte zerbitzuak jasotzeko duten eskubidea hain zuzen”*. Uztailaren 30eko 155/2001 Dekretuaren bitartez ere egin da. Dekretu horrek gizarte zerbitzuen arloko funtzioak zehazten ditu

<sup>21</sup> Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 50/2002/CE zk.dun Erabakia, 2001eko abenduaren 7koa. Erabaki horren bitartez, jardueraren komunitarioaren programa bat onartu zen, Batasuneko estatuen arteko lankidetzaz sustatzeko gizarte bazterkeriaren aurkako borrokan.

(155/2001 Dekretua) eta zerbitzuak eta prestazioak esleitzen dizkie administrazioei: Eusko Jaurlaritzari, aldundiei eta udalei.

Arautegi horren arabera, **Eusko Legebiltzarra** da gizarte zerbitzuen arloko legeak egitearen arduraduna (Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, 9. artikulua). **Eusko Jaurlaritzak** eskumena du arauen garapenean (Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, 10. artikulua). Funtzio hauek ditu: plangintza, eskumena duten administrazioen eta ekimen pribatuaren koordinazioa, gizarte zerbitzuak antolatzea, zentroak eta zerbitzuak irekitzeko, aldatzeko, funtzionatzeko eta ixteko baldintzak arautzearen bitartez, langileen gaikuntza eta baimenak emateko, hitzarmenak egiteko, homologatzeko eta ikuskatzeko arauak ezartzea<sup>22</sup>, estatistika, gizarte zerbitzuen erregistro orokorra, fundazioen tutoretza eta ongintza eta laguntzako beste elkarte batzuekin administrazio-harremanak, gizarte arazoak aztertzea eta ikertzea eta programak, zentroak eta zerbitzuak betearaztea, interes orokorra dutenez edo baldintza ekonomiko eta sozial espezifikoak dituztenez Euskal Autonomia Erkidego osoan era bateratuan eskaini behar direlako. Oinarrizko errenta eta gizarte larrialdietarako laguntzak ematea ere berari dagokio, baita bizitza independente bat izateko baliabide nahikorik ez duten pertsonen integrazio pertsonalean, gizarteratzean eta laneko integrazioan laguntzeko beharrezkoak diren gizarte tresnak ematea ere (155/2001 Dekretuko 2. artikulua). Gizarte gaietako eskumena Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritzak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren Gizarteratze Zuzendaritzak partekatzen dute gaur egun. Azken horrek eskumena du oinarrizko errentako prestazioen eta gizarte larrialdietarako laguntzen gainean eta gizarteratzean ere. Bizitza independente bat izateko baliabide nahikorik ez duten pertsonen integrazio pertsonalean, gizarteratzean eta laneko integrazioan laguntzeko beharrezkoak diren tresnak garatzen ditu.

**Aldundiek** beren gizarte zerbitzuetako araudiaren eta programazioaren gaineko eskumena dute. Honakoen gaineko eskumena ere badute: gizarte zerbitzu espezializatuak sortu, mantendu eta kudeatzea, bere titulartasuna duten programak, zentroak eta zerbitzuak ikuskatu eta kontrolatzea, gizarte zerbitzu erkidetuak sustatu eta bultzatzea, zerbitzu eta zentro pribatuak baimendu eta homologatzea, gizarte zerbitzuen foru-erregistroa sortu eta mantentzea, estatistika...<sup>23</sup> (Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea, 11. art.). Foru aldundiek oinarrizko errenta onartzeko edo ukatzeko eskumena dute. Beraz, ebazpena ematen dutenak dira. Hala ere, udalak izango dira jarraitu beharreko prozedura eta tramite guztiak egingo dituztenak, eta eskaera egin duen pertsonak baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatuko dutenak.

---

<sup>22</sup> Eskumen hori betearazteko arautegi hau egin da: martxoaren 10eko 40/1998 dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikuskapena arautzen duena. Dekretu horren helburu nagusia honakoa ezartzea da: *“Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte zerbitzuetan parte hartzen duten”* ekimen publiko eta pribatuko *“erakunde, zerbitzu eta zentroyen antolaketarako arauak”*. Gizarte zerbitzuetako zerbitzu eta zentro guztiak bete beharko dituzten baldintza batzuk ezarri dira. Horretarako, kontuan hartu eta zaindu egin beharko da zerbitzuak eta zerbitzuen zentroak dauden eraikinen egoera arkitektonikoekin lotutako alderdiak, higiene- eta osasun-baldintzekin lotutakoak, segurtasunarekin lotutakoak. Horrez gain, zerbitzuak eta zentroak erabiltzen dituzten pertsonen egokikitutako ekipamenduak eduki beharko dituzte, baita barruko funtzionamendurako araudia eta arreta jaso duten pertsonen erregistro-liburua ere.

<sup>23</sup> Bizkaiko Lurralde Historikoko gizarte zerbitzuen foru-erregistroa sortu zuen martxoaren 26ko 62/2002 Foru Dekretuak, eta erregistro hori antolatzeko eta haren funtzionamendurako arauak erregulatu ziren.

Gizarte zerbitzu espezializatuak emateko eskumenari dagokionez, foru aldundiek bermatu egin behar dute kolektibo espezifikoei zuzendutako zentroak eta zerbitzuak daudela:

1. Adineko pertsonentzako zentro eta zerbitzuak (inoren laguntza behar duten adineko pertsonentzako astialdirako programak, eguneko zentroak,aldi baterako egonaldiak, egoitzak, harrerak...).
2. Ezgaitasunen bat duten pertsonentzako zentroak eta zerbitzuak (mugikortasunari laguntzeko programa, astialdirako programak, zentro okupazionalak, familiek hartzea...).
3. Babesik gabe dauden umeentzako zentroak eta zerbitzuak (familia esku-hartzean espezializatutako programak, familiek hartzeko programak, bizitzeko zentroetan hartzea, adopzioa...).
4. Ahultasun egoeran dauden beste kolektibo batzuentzako zentroak eta zerbitzuak: (tratu txarren eta sexu-erasoen biktimei arreta psikologikoa eta aholkularitza juridikoa emateko programak, toxikomanoak gizarteratzeko programak, HIESa duten gaixoentzako programak).

Gizartean baztertuta egoteko arriskuan dauden biztanleei ostatu komunitarioa eskaintzeko programa ere aurreikusita dago. Hainbat motatakoa izan daiteke:

- a) Gizarteratze-zentroak, marjinazio egoeran dauden pertsonen arreta ematera zuzenduak. Ostaturako eta mantenuko oinarrizko zerbitzuak eskaintzen dituzte, baita euren ohiko inguruneaz bestelakoa den bizikidetzagiroa ere. Zentro horien helburua integrazioa sustatzea da. Horretarako konpentsazioko trebakuntza-programa pertsonalak eta profesionalak aplikatzen ditu, eta lanean hasten laguntzeko programak ere: pertsonak zentroan bertan dauden lantegietan lanean jarrita, autoenpleguko formulak sustatuta, edo beste baten agindupean egiten den lanpostu bat eskuratzen lagunduta.
- b) Gazteak hartzeko zentroak. Haien helburua ostatua, mantenua eta ohikoa duten inguruneaz bestelako bizikidetzagiroa eskaintzea da, etxerik ez duten eta familiaren inolako laguntzarik ez duten pertsona gazteei. Zentro horien helburua gizarte babes zabala ematea da gutxika-gutxika bizimodu normalizatuagoa izan dezaten. Zentroan hartzen diren pertsonen hainbat zerbitzu eta baliabide dituzte eskura, banaka egiten zaien plan baten barruan. Zerbitzu eta baliabide horiek hezkuntzaren, osasunaren eta lanaren sarekoak dira, eta errehabilitatzeko, trebatzeko eta gizarteratzen laguntzeko eskaintzen zaizkie.

Gainera, ingurune fisikora egokitzeko laguntza teknikoak kudeatzen ditu, eta gizarteratzeko laguntza ekonomikoak, esate baterako, mugikortasunerako eta garraiorako laguntzak, familiek adin txikikoak hartzeko laguntzak, adinez nagusiak diren gazteei laguntzak, oinarrizko errenta eta pentsio eta subsidioak jasotzen dituztenentzako bestelako laguntza osagarriak jasotzeko baldintzak betetzen ez dituztenentzako laguntzak, familian esku hartzeko programei laguntzak...

Laguntza eta zerbitzu horiek guztiak 155/2001 Dekretuko 3. artikuluan daude aurreikusita. Foru aldundiek beste modu batean garatu dituzte funtzio horiek. Halaber, lurralde historiko guztietan ez du eskema bera foru aldundian gizarte ekintzaz arduratzen diren sailen egitura organikoak eta funtzionalak. Bizkaia eta Arabaren kasuan, egitura hori

Gizarte Urgazpenerako eta Ongizaterako Foru Erakundeekin osatzen da, hurrenez hurren. Erakunde autonomoak dira, eta Foru Aldundien eskumenekoak diren gizarte zerbitzuak kudeatu eta ematen dituzte.

Arabako Foru Aldundian, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea da etxerik gabeko pertsonen arreta ematearekin berriazko lotura duten jarduera guztiak garatu eta kudeatzeko arduraduna. Bizkaian, Gizarteratzearen eta Adinekoren Zuzendaritza Nagusiak du arduraria; Gizartekintza Sailaren atal bat da, eta Bazterkeriaren aurkako Zerbitzua du barruan. Gipuzkoan Gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen gizarteratzearekin lotura duten funtzioen arduraduna Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Saila da.

**Udalek** berek edo eurekin lan egiten dutenek oinarrizko gizarte zerbitzuak eman beharko dituzte, eta 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietan larrialdietan pertsonak hartzeko zerbitzuak aurreikusten dira, oinarrizko gizarte zerbitzuez gain. Pertsonak hartzeko zerbitzu horietan ostaturik ez izateagatik edo bizikidetzaz gatazka larriengatik sortutako egoera kritikoez arduratuko dira. Horrez gain, herritarren arteko gizarte bizikidetzaz eta solidaritatea bultzatuko duten zentroak ere izango dituzte, Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 12. artikulua. Aurreikuspen hori askotan aipatuko da txostenean, garrantzia duelako eta txostenak aztertzen duen gaiarekin lotura duelako, horren garapena aztertzen baita.

Udalek inoren laguntzarik behar ez duten adinekoei ematen diete arreta edo ezgaitasunen bat duten 0 eta 59 urte bitarteko pertsonen, inoren laguntzarik ez badute behar. Beste kasu batzuetan, aldundiak dira, ikusi dugunez.

155/2001 Dekretuko 4. artikulua oinarrizko gizarte zerbitzuen edukiak arautzen ditu. Oinarrizko gizarte zerbitzuen informazioa ematen dute, eta biztanle guztien balioespena eta orientabidea egiten dute, eskura dauden gizarte eskubideen eta -baliabideen aldetik. Gizarteratzearen premiak eta arazoak zein diren ikusten dute, horiei aurre egiteko. Horrez gain, bizikidetzaz-zerbitzuak edo -programak ematen dituzte, interesa duen pertsonaren etxebizitzan bertan ematen den laguntzaren bitartez, eta esku hartzeko programak garatzen dituzte, pertsonen, familien eta taldeen integrazioa erraztuko duten baliabide eta bitartekoak emateko. Lehenetsuna du marjinazioa prebenitzeak. Ostatu alternatiboek arduratzen dira. Leku horietan ostatu-zerbitzua ematen zaie inoren laguntzarik behar ez duten adinekoei, bai beste familia-unitate bateko etxebizitzetan edo tutoretzapean dauden apartamentuen bitartez edo etxebizitzaz komunitarioen bidez. Era berean, sentibilizatzeko kanpainak egiten dituzte, gizartean dauden premiei buruz eta herritarren bizitzaren garapenean gizarteko parte-hartzea sustatzeko kanpainak ere egiten dituzte. Bestalde, haien funtzio nagusietakoa gizarte larrialdietarako eta urgentziako laguntzak kudeatzea eta erabakitzea da, gizarte arriskuan dauden pertsona eta familientzat. Gauza bera egiten dute udalek gizarte zerbitzuen arloan ematen duten beste edozein laguntzarekin. Gainera, aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren bestelako laguntza ekonomikoaren espedienteak hasten dituzte, esate baterako, oinarrizko errentarena.

Urgentziako harrera-zerbitzuari dagokionez, lehenago esanenez nahitaezkoa da 20.000 biztanletik gora dituzten udalerrietan. Zerbitzu hori ostatu-faltaren ondorioz sortutako egoera kritikoez arduratzen da, esate baterako, etxebizitzan ezbeharrak gertatu denean, gizarte eta ekonomiako gabeziak dituztenean, pertsonen arteko bizikidetzaz gatazka larriak

daudenean, pertsonen segurtasun fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen badute eta pertsona horiek zerbitzuak esku hartzea eskatzen badute. Beraz, aldi baterako zerbitzua da, eta kasua gizarte zerbitzuei jakinarazten diote, horiek izan daitezten, txostena egin, balioetsi eta orientabidea emango dutenak. Arautegiak aurreikusten du ostatua emango zaiela bizi diren herriko hoteletan, horretarako sortutako harrera-pisuetan edo etxebizitza finkorik ez duten pertsonentzako aterpetxeetan (155/2001 Dekretuko 4. artikulua).

Eskumena duten administrazioen arteko koordinazioa (Eusko Jaurjaritza, aldundiak eta udalak) instituzioen arteko gizarteratzeko Batzordearen bitartez egiten da era formalean (gizarte bazterkeriaren kontrako maiatzaren 22ko 12/1998 Legearen 12 eta 13. artikulua) eta gizarte gaietan eskumenak dituzten Eusko Jaurjaritzako sailei dagokienez, instituzioen arteko gizarteratzeko Batzordearen bitartez (aurreko legeko 14. artikulua).

Gizarte zerbitzuen garapenak eta gizarte gaietako eskumena hiru instantzien artean banatzeak sortu dute aurreko arautegia, eta horren helburua erantzukizunak argitzea eta gizarte zerbitzuen arloko funtzioak garatzea da. Beste arautegi bat beharrezkoa da oraindik ere, gizarte zerbitzuen sistema antolatzeako zailtasunagatik eta sistemaren etengabeko bilakaera eta garapenagatik.

Azken batean, gizarte bazterkeriako egoerei aurre egiteko oinarritzko, oinarritzko gizarte zerbitzuen sareak sortu dituzte instituzio publikoek, bai eta gizarte laguntza emateko programak ere. Horrez gain, laguntza-programak sortu dira, gizarte larrialdiko egoerei aurre egiteko; laguntza ekonomiko garrantzitsuena oinarritzko errenta da.

### *3.4.3.2. GIZARTE ZERBITZUAK ESKURATZEA ETA GIZARTE ZERBITZUAK ERABILTZEN DITUZTEN PERTSONEN ETA HANGO PROFESIONALEN ERREGIMEN JURIDIKOA*

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen arabera, EAEn gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea dute Europar Batasuneko herritartasuna duten pertsona guztiek, EAEn bizi direnak zein bertatik pasatzen ari direnak edo aldi baterako daudenak, nazioarteko itunek horri buruz agintzen dutenaren arabera; ezer ez badiote elkarrekikotasun-printzipioa jarraitzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi direla egiaztatze beharrezkoa da erroldatze-agiria. Udalerri bateko erroldan izena emanda egotea funtsezko baldintza bihurtu da gizarte zerbitzuak erabiltzeko aukera izateko eta, beraz, gizarteratzeko laguntzak eta programak erabili ahal izateko. Laguntza eta programa horiek hainbat administrazioi kudeatzen dituzte, batez ere udalek, erroldan izena emanez gero, udalerriko herritar bihurtzen delako pertsona. Udal erroldan izena ematea arautzen duen arautegia Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legea da (TAOL), hain zuzen ere 15-18. artikulua, baita 1690/1986 Errege Dekretuaren bidez onartutako Toki-erakundee-tako Biztanleriaren eta Lurralde Mugapenaren Araudia ere. Halaber, garrantzitsua da aipatzea 1997ko uztailaren 4ko ebazpena, udalei udal errolda eguneratzeari buruzko argibide teknikoak ematen dizkiena. Azken arautegi hori oso garrantzitsua da, argitu egiten duelako erroldan izena ematea ez duela mugatzen etxebizitza izateak edo ez izateak.

Bestalde, Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege organikoaren eta aurreko arautegiaren arabera, Espainian bizi diren pertsona atzerritarrak Espainian erroldatu daitezke, beren egoera juridikoa zeinahi izanik ere. Arautegi horrek erroldaren helburuarekin eta izaerarekin zerikusia du. Erroldaren helburua udalerrri batean bizi diren biztanleak jasotzea da. Beraz, erroldan sartuta egon behar dira udalerrri batean bizi diren pertsona guztiak, atzerritarrak zein bertakoak, eta atzerritarrak badira, egoera juridiko administratiboa legeztatuta dutenak nahiz ez dutenak. Hala ere, txostenean azertu denez, udal guztiek ez dute modu berean interpretatzen; interpretazio murriztaileak daude eta erroldan izena emateko zailtasunak ere, indarrean dagoen pasaportetik aurkeztu ezin dutelako, bizilekurik ez dutelako, etxebizitzetan pila-tuta daudelako, bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsonen diru-sarreraren artean lortura dagoelako, besteak beste. Lehenago esan den bezala, erroldatzea oso garrantzitsua da eskubideak erabili ahal izateko, bai politikoak, hortik abiatuta eratzen delako hauteskunde-errolda, zein bestelakoak: inguruko eta zein gizarteko parte-hartzea, hezkuntza, osasuna, gizarte programak, gizarteratze-programak... Arautegiak aurreikusten duenez, bizilekutzat onartu behar da pertsonaren bizilekua den edozein leku eta, pertsona horrek etxerik ez badu, udalerrian bizi bada eta gizarte zerbitzuek ezagutzen badute, helbide faltsu batean erroldatu daiteke, hain zuzen ere, gizarte zerbitzuen helbidean, udal aterpetxean edo lo egiten duen lekuaren helbidean. Gizarte zerbitzuek hartuko dute administrazio publikotik jasotako edozein jakinarazpen pertsona interesatuari aditzera ematen saiatzeko konpromisoa. Udalerrian bizi diren pertsona guztiak jasotzen dituen erregistro bat (errolda) sortzea eta eguneratzea bultzatzen du arautegiak. Hala ere, pertsona horiek erroldan sartzea zailago bihurtzen dute etxebizitzarik ez izateak, mugikortasunak, etxerik ez duten pertsonen deserrotzeak, eta udaleko kudeatzaileen interpretazio oso formalistak eta batzuetan murriztaileak.

Gizarte zerbitzuekin harremana duten eta haiekin lan egiten duten pertsonen erregimen juridikoari dagokionez, apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak jasotzen ditu gizarte zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen eta han lan egiten duten profesionalen eskubideak eta betebeharrak. Arautegi horren arabera, duintasunerako, pribatutasunerako eta isilpekotasunerako eskubidea dute gizarte zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonak, baita autonomiarako, informaziorako, premiak ebaluatzeko, etab. eskubidea ere. Profesionalen eskubideak ere jasotzen dira arautegi horretan (duintasunerako, trebakuntzarako, parte hartzeko, kalitatezko zerbitzua emateko eskubidea, besteak beste), eta betebeharrak ere bai. Prozedura bat dago ezarrita iradokizunak eta kexak aurkeztu, tramitatu eta ebazteko.

### *3.4.3.3. PERTSONEN BABESEAN ESKU HARTZEN DUTEN BESTE ERAGILE BATZUK: HIRUGARREN SEKTOREA ETA GIZARTE SAREAK ETA FAMILIAKOAK*

Gizarte zerbitzuen arloan funtzioak garatzeko orduan, hirugarren sektoreak ezinbesteko lana egiten du. Hirugarren sektorearen barruan daude antolatutako altruismoa edo gizarte boluntarioak eta laguntza emateko sektore pribatua. Sektorea gero eta profesionalizatuagoa dago. Hala ere, harreman zuzena du pertsonen premiekin: askotan inoren laguntza behar duten pertsonak dira edo autonomiarik ez duten pertsonak, besteak beste, ezgaitasunaren, adinaren, toxikomaniaren ondorioz. Lan humanitarioa eta gizartea sensibilizatzeko lan oso garrantzitsua egiten dute.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak instituzionalizatu egin zuen herritarrek gizarte zerbitzuetan demokratikoki parte hartzea, Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua eratu zuenean (15. artikulua). Kontseilu hori Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta udalek osatzen dute, alderdi publikoan, eta erakunde sindikalek, erabiltzen duten pertsonak, gizarte boluntarioek eta gizarte zerbitzuen arloan lan egiten duten profesionalek, gizarte ekimenaren alderdian. Hauek dira Kontseiluaren funtzioak, besteak beste: informazioa ematea arautegiari, gizarte zerbitzuentzako aurrekontuari, programei, laguntza eta subentzioei, gizarte zerbitzuen egoerari buruz, eta proposamenak egitea, aholkuak ematea... Azken buruan, gizarte zerbitzuen arloko parte-hartze organoa da, EAEkoa; lurralde historikoetan eta udaletan ere aurreikusita daude gizarte zerbitzuen arloko parte-hartze organoak. Organo guztiek ez dute garapen bera, baina agenda politikoetan gero eta gehiago aipatzen dira, eta maila informalean sarriago. Izan ere, batzarrak egiten dira sektore publikoaren eta pribatuaren artean, koordinazioa, informazioa eta aholkularitza sustatzeko helburuarekin.

Amaitzeko, beharrezkoa da familiako alderdi guztiak aipatzea, ahaideak eta, orain, talde etnikoak barne (lankidetzan aritzen diren ingurune bereko pertsona etorkinak), segurtasun-sarearen parte direlako eurek ere. Emakumeen eginkizuna ere azpimarratu behar dugu; aldatzeko prozesuan badaude ere, gizarte laguntza eta -zerbitzuak ematerakoan funtsezkoak izaten jarraitzen baitute.

Pertsonen babesean esku hartzen duten eragileak asko dira: administrazioa eta haren menpe dauden erakundeak, familia, komunitatea, erakunde pribatuak eta ongintza tradizionaleko instituzioak. Iraupen materialeko eta bakartze sozialeko egoerak konpontzeko esku hartzen dute horiek guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan. Horietakoren bat edo guztiak ez izatea edo baten bat mugatuta izatea da bazterkeria-egoeren ezaugarria, eta larria edo muturrekoa deitzen dugun bazterkeria sortzen dute, hau da, txosten honek aztertzen duen bazterkeria.

Egoera oso konplexua da, gizarte zerbitzuen arloan esku hartzen duten eragileak asko eta askotarikoak direlako, eta arautegia ez dagoelako ez zehaztuta ezta mugatuta ere. Horrek zerikusia du pertsona bat baliabide batera edo bestera bidaltzeko zailtasunarekin, pertsona berberak hainbat premia, ezaugarri eta egoera dituelako; esate baterako, adina, gaixotasuna, gutxiengo etniko batekoa izatea, etxebizitzarik ez izatea. Beraz, asko dira eskumenen bat duten administrazioak. Hori zailagoa bihurtzen da, administrazio guztiek ez dituztelako eskumenak maila berean garatzen, eta, horren ondorioz, baliabidearen kalitatearen edo baliabidean lekua egotearen arabera joaten dira batera edo bestera.

Txosten honek bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak dihardu. Pertsona horien premia oinarrizkoenak arindu edo premia horiei erantzuna bilatzeaz arduratzen diren baliabideak aztertzen dira. Hala ere, atal honetan gizarte politikarekin lotutako arau eta instituzioen esparru orokorra azaltzen saiatu gara, uste dugulako horrela errazago ulertuko direla sektoreari arreta emateko dauden zailtasunak. Gainera, gure iritziz, sektorea eta Ongizate Estatua indartzen jarraitzeko lehen urratsa da.



### 3.5. ESPARRU ARAU EMAILEAREN AHULEZIAK ETA INDARRAK: GALDETU ZAIEN PERTSONEN IRITZIA

Zentzu zabalean esparru arau-emailea egoteak (legeak, dekretuak, planak eta bestelako edozein arau) ez du esan nahi arau horien edukia araututa dagoen eran betetzen denik, ezta araututa egon beharko liratekeen gauza guztiak araututa daudenik ere. Arrazoi horiek direla-eta, egokitzat jo dugu ikerketa honetan kontsultatu ditugun profesionalak duten iritzia jakitea, hain zuzen ere, etxerik gabeko pertsonen gainean indarrean dagoen arautegiaren aplikazio praktikoari buruz duten iritzia jakitea. Hezkuntzaren eta ikerketaren arlokoak eta administrazio publikoaren eta zuzeneko arretaren arlokoak dira profesional horiek, eta galdera hauek egin zaizkie:

- Sektoreari zuzenean aplikatzekoa den indarrean dagoen arautegiari buruz: bete-arazpena, eraginkortasuna, hutsuneak eta hobetzeko aukerak, sektorea arautzea, banaketa eta eskumenak benetan bere gain hartzea.
- Arautu behar diren gaiak buruz: zein diren eta zein aldaketa diren beharrezkoak era egokian araututa geratu daitezten.

Kontsulta honetako azterketa indarretan edo alderdi positiboetan oinarrituta egituratu dugu, eta ahulezietan edo hobetu beharreko aldeetan. Hainbat gairi buruz egin diren ekarpenak sailkatu ditugu talde horietako bakoitzaren barruan, eta bakoitzak sortzen dituen adostasunak edo desadostasunak aipatu ditugu.

Jaso ditugun ekarpenen artean, sakoneko gai biren gaineko adostasuna dago:

- Alde batetik, etxerik gabeko pertsonen kalitatezko arreta duina jasotzea beren eskubidea dela uste dute, gizarteko biztanleak direlako.
- Bestetik, etxerik gabeko pertsona horiei arreta emango zaiela bermatzeko arautegi nahikoa dagoela uste dute, baita arreta hori gutxienezko kalitatearekin emango zaiela bermatzeko ere. Dena dela, onartu egin dute honakoak beharrezkoa direla: alde batetik, arau horiek guztiak modu efektiboan aplikatzen direla bermatzea, esate baterako, kontrolatzeko neurriak erabilita; bestetik, hobekuntzak egiten jarraitzea, esaterako, oraindik arauetatik kanpo geratzen diren alderdiak arautu daitezten lortzea, eta arauok ondo aplikatzeko beharrezkoak diren baliabideak ematea.

Gai horiek hurrengo ahulezietan eta mehatxuetan zehazten dira.

#### AHULEZIAK

Etxerik ez duten pertsonen arreta emateko dauden zailtasunak hainbat ahuleziaren ondorioz gertatzen dira, galderei erantzun dieten profesionalen iritziz. Esparru arau-emailearen barruan, honakoak dira ahulezia horiek:

**1. Gaur egungo eredia, eskumenak hainbat administrazio publikoren artean banatzen dituena:** erkidegokoak, aldundietakoak eta udaletakoak, bereziki azken biak, etxerik gabeko pertsonen arreta emateko orduan parte-hartze handiagoa dutelako.

Lehenengo eta behin, beharrezkoa da esatea hiru lurralde historikoetan ez dutela etxerik gabeko pertsoneri arreta emateko planteamendu bera ezta eredu bera ere, maila teorikoan zein esku-hartzearen arlo praktikoan, eskumenei buruzko esparru-akordioa dagoen arren. Kontsultatu diren pertsona batzuen iritziz, zeharkako ikuspegia falta da, ikuspegi bakarra, hiru lurralde historikoek dituzten esku hartzeko ereduetan dauden ezberdintasunak gaitutuko dituen, baina iritzi hori ez dute profesional guztiak adostu.

Hainbeste instituzio publiko daude, eta bakoitzak egitura bat eta eskumen batzuk ditu, eta batzuetan ez daude oso koordinatuta. Horrek ere eskumen horiek hartu eta banatzeko orduan dauden distorsioak eragiten ditu eta, beraz, arretaren antolaketa ez da izan beharko litzatekeena bezain eraginkorra. Erantzun duten pertsona batzuek beste arrazoi bi aipatu dituzte: etxerik gabeko pertsonen egoerak ez duela sentsibilitaterik sortzen eta kostu ekonomikoen banaketa.

Gainera, erakundeek eta Administrazio Publikoak arreta emateko irizpide eta eredu askotarikoak dituzte. Horrek zailagoa egiten du praktikan arreta ematea, eta arretak norabide bakarra ez izatea egiten du.

Legeak ezberdindu egiten ditu aldundiaren eta udalen eskumenak etxerik gabeko pertsonekin egiten den esku-hartzean, baina ez du zehazten zelan gauzatzen den eskumen bakoitza. Horrek zenbait galdera sortzen ditu, eta instituzioek interpretatzen dituzte galdera horien erantzunak, esate baterako: zenbat irauten du gizarte urgentziako egoera batek?, zein oinarritzko premiari erantzun behar zaio?, non hasten da gizarteratzeko prozesu bat?, zenbat irauten du? edo zein baliabide behar dira?

Erantzun duten pertsonen ustez, gai horiei gehitzen zaie ikuskatzeko eta kontrolatzeko mekanismo nahikorik ez dagoela. Hortaz, ezin da bermatu etxerik gabeko pertsoneri arreta emateko eskumenak eta funtzioak betetzen direla.

Onartu ez diren funtzio horien artean, agian nabarmenena urgentziako arretari buruzkoa da. Izan ere, 155/2001 Dekretuaren irakurketa murriztaileak egiten dira. Alde horretatik, udalerrri gehienetan ez dago jarduera-protokolorik etxerik gabeko pertsoneri eta urgentziako egoeretan daudenei erantzuteko, eta Udaltzaingoarekin ere gauza bera gertatzen da.

Halaber, erantzun duten pertsonen iritziz, ahulezia batzuk identifikatu dira gizarte zerbitzuen eguneroko lanean:

- Batez ere gizarte zerbitzuetan zuzeneko arreta ematen duten profesionalen artean, begi bistakoa da udalaz gaitutako esparru arau-emaile bat beharrezkoa dela, EAE barruan etxerik gabeko pertsonentzako arreta eta zerbitzuak arautuko dituen.
- Gizarte zerbitzuek funtzioak hartu dituzte apurka-apurka, baina hori funtzio horiek garatzeko bitarteko nahikoak eta giza baliabide eta baliabide material nahikoak eskuratu gabe gertatu da.
- Zerbitzua erabiltzen duen pertsonarekin dagoen harreman ekonomikoa gizarte zerbitzuen sailak darama, eta sailaren funtzioak pilotzen ditu. Horren ondorioz, zailagoa da sail horrek denbora izatea gizartean gertatzen dena neurtzeko eta gizartean esku hartzeko.

2. Etxerik gabeko pertsoneri **arreta ematen dieten esparruen artean koordinazio gutxi** dago, batez ere gizarte arloko esparruaren eta osasunaren arloko esparruaren artean. Argi geratu da jarduera-esparruen artean koordinaziorako jarrera ona eta borondatea dagoela, gutxienez alderdi teorikoan eta arau-emailean. Gizartearen, osasunaren eta etxebizitzaren arloan diharduten Administrazio publikoko profesionalai egin zaizkien galderetan ere gauza bera ikusi da, eta arautegiak eta planek ere jasotzen dute.

Hala ere, errealitatean, koordinazio falta dago, batez ere gizartearen eta osasunaren esparruen artean. Horren ondorioz, batak bestearen lana kritikatzeko du. Erantzun duten gizarte esparruko pertsonak jarrera kritikoa dute osasun-sistemaren inplikazio urriarekin, batez ere buruko gaixotasunari ematen zaion arretan. Alde horretatik, horiek eta beste profesional batzuk ados daude, eta adierazi dute osasun-sistema zorrotzegia dela pertsona horiei ematen dien arretan. Gainera, esan dute ez duela egiten ahalegin nahikorik “medikoak” ez diren beste aldagai batzuk kontuan hartzeko, esate baterako, gizarteko eta familiako egoera, eta malgutasun gutxi du kasu jakin batzuei arreta ematerakoan; izan ere, beharbada kasu horiek laguntza eta jarraipen sanitario handiagoa eskatzen zuten, gaur egungoak bezain protokolo zorrotzak jarraitu gabe. Hala ere, osasunaren arloan, galderak erantzun dituzten pertsonak uste dute etxerik gabeko pertsoneri osasun arreta ona ematen zaiela, eta gainerako biztanleekin egiten den modu berean egiten dela, laguntza eskatzen dutenetik alta ematen zaien arte. Alta eman ostean, pertsona horiek osasunarekin lotu gabe dituzten premiak erantzukizun soziala dira haien ustez, beren gabeziak sozialak direlako, esate baterako, etxebizitzarik ez izatea edo familiarik ez izatea.

Errealitatean oso zaila egiten da esparru bien arteko koordinazioa eta lankidetzak, eta horren arrazoia azaltzerakoan ere ez daude ados galderei erantzun dieten profesionalak. Izan ere, teorian behintzat, alderdi biek dute koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko gogoak. Hainbat arrazoi eman dira, baina arrazoi batekin ere ez da egon adostasun orokorrik:

- Sistema bietan, sozialean eta osasungintzakoan, borondate politiko eta profesionalik ez egotea.
- Lankidetzarako beharrezkoak diren egiturei eutsiko dieten baliabide ekonomikorik ez egotea.
- Arretari buruzko ikuspegi ezberdinak izatea, bateraezinak edo, behintzat, oraingoz integratzeko zailak. Osasungintzako pertsona “gaixoa- ez gaixoa” egoeran oinarritzen da; soziala, berriz, “gizarteratzea-baztertzea” prozesuetan oinarritzen da. Azalpen horren gainean dago adostasun gutxien, batez ere zuzeneko arretaz arduratzen diren profesionalen artean.

Kontsultatu diren pertsona gehienak ados daude, eta beren iritziz aipatu diren hiru arrazoiak baino konplexuagoa den arrazoi bategatik gertatzen da koordinazio falta; horiez gain, beste arrazoi posible batzuk daude, esate baterako, eskumenen banaketaren eredia eta koordinazioa bermatzeko autoritate eta kontrol falta.

Koordinazio falta argi horri irtenbide posibleak bilatzeko orduan, proposamenetako batek dio esparru soziosanitarioko profesional espezifikokoak dituen egitura garatu behar dela, eremu komun eta espezifikoa izateko, eta horrela sistema biak koordinatzeko beharra

saihesteko. Hala ere, proposamen horrek ez du adostasun nahikoa sortu kontsultatutako pertsonen artean.

Esparru soziosanitarioa ez garatzeari dagokionez, kontsultatu diren profesionalek uste dute hainbat arrazoiengatik izan daitekeela:

- Antolakuntza zehatzetan lan egiteko eta aurrekontuen beharrezko doikuntzak egiteko borondate falta.
- Lurraldeen arteko ezberdintasunak: historikoak, garapen ekonomikoarekin lotutakoak edo gizarte errealitatekoak, besteak beste.

Gizarte eta osasun-arlokoen arteko lankidetzaren beharrezkoa den bezala, oso garrantzitsua da gizarte zerbitzuen eta polizia agintari lokalen arteko lankidetzaren. Azken horiek jardutea beharrezkoa da herritarrek etxerik gabeko pertsonekin lotuta egiten dituzten eskaerei erantzuteko, eta etxerik gabekoekin zuzenean jarduteko, hau da, baliabideak dituztela informatzeko eta baliabide horietara eramateko. Etxerik gabeko pertsonaren batek agian ez du joan nahi izango baliabide batera, hori egin behar duela gomendatzen duten elementu objektiboak egon arren, esate baterako, arreta medikoa jasotzeko begi bistako beharra. Hori gertatuz gero, kontsultatutako pertsona batzuen artean erabaki jakin batzuk hartzeko ezintasuna sortzen da, esate baterako, etxerik gabeko pertsona osasun-etxe batera eramatea. Hori ere sistemaren ahulezia bat izan daiteke.

Beste batzuetan, beren jarduerak arautegiarekin bat datozen arren, herritarren segurtasunerako sistemaren ahuleziatzat hartzen du gizarteak, agian legeak ematen duen jarduteko tartea ez dutelako ezagutzen. Horren adibide bat da poliziek esku hartzeko eskatzen denean etxerik gabeko pertsonak leku publikoren batean daudelako, esate baterako, plazetan edo lorategietan, deserosoa egiten zaielako. Horrelakoetan, indarrean dagoen legeriaren ondorioz, Udaltzaingoak ezin du eragotzi pertsona batek eremu publiko bat era librean erabiltzea, pertsona horrek etxea izan edo ez izan, egiten dutena arau-hauste administratiboa edo penala ez bada.

Etxebizitza-politikarekin eta laguntza osagarriekin lotuta, uste da ez diotela erantzun nahikoa ematen zailtasun ekonomikoko uneak dituzten zenbait pertsonaren gizarte ahultasuneko egoerari.

Oro har, administrazioen artean, bai eta erakundeen artean ere, dagoen koordinazio falta hori ahulezia bat da, eta gertatu egiten da lankidetzarako hainbat eremu eta tresna badaude ere, esate baterako, lan-mahaiak, behatokiak edo planak. Izan ere, batzuetan foro horiek ondorioz gabekoak eta korapilatsuak izan ohi dira. Etxerik gabeko pertsonen arreta ematen dieten eragile publiko eta pribatu guztien artean era formalean koordinatzeko egiturak falta dira eta, lehendik dauden egituren kasuan, horietako zenbait ez dira eraginkorrak etxerik gabeko pertsonen erantzun egokia emateko.

3. Araututako zenbait auziren **zehaztapen falta** eta beste batzuen **arautze falta**. Arlo honetako zenbait auzi nagusi ezarri eta argituko dituen arautegia falta da; esate baterako auzi hauek:

- Kontzeptuak definitzea, batez ere hiru: zer jotzen dugu etxerik gabeko pertsonatzat, urgentziako harreratzat eta gizarteratzeko prozesutzat.
- Sektore horretako baliabide batek bete behar dituen alderdi eta baldintzak; ez dispositiboek ezta esku-hartzeak ere ez dituzte irizpide komunak arloan lan egiten duten erakundeetan eta instituzio publikoetan. Horrenbestez, hainbat auzi sortzen dira, besteak beste: zer da etxerik gabeko pertsonentzako eguneko zentro bat?, barne azpiegitura eta antolakuntzako zein ezaugarri izan behar ditu?, edo, zenbat pertsonarentzako lekua izan behar du metro koadroko?
- Eraikitze irizpideekin eta ingurumen-baldintzekin lotutako auziak, etxerik gabeko pertsonen sektorearentzat, esate baterako, hirugarren adineko pertsonentzako egoitzentzat dagoenaren antzekoa.
- Terminoak eta irizpideak ez daudenez zehaztuta eta argituta, eguneroko lanean ezin da ezarri gutxieneko kalitaterik ematen den arretan, esate baterako, irizpideen batasunik eta arreta emateko protokolorik ez dagoelako.
- Sektoreko profesionalen lan-baldintzak arautuko dituen hitzarmen kolektiboa, bereziki baldintza horiek euren laneko osasunean duten eraginari dagokionez, esate baterako, segurtasun fisikorik gabeko egoerak, estres-arazoak edo baliabide batzuetan eta egoera jakin batzuetan duten kutsatzeko arriskua.
- Zehazki, 5/1996 Legearekin eta 155/2001 Dekretuarekin lotuta:
  - Etxerik gabeko pertsonen arreta emateko erantzukizunari buruzko irakurketa murriztaileak aldeztu zituzte. Hori dela-eta, esate baterako, 20.000 biztanletik gora zituzten zenbait udalerrik arau horien interpretazio libre eta murriztailea egiten du urgentziako harrerari dagokionez.
  - Arautegiak ez du zigorrik ezartzen eskumena osorik edo haren zati bat ez bete-tzeagatik.
  - Esleitutako eskumenak garatzeko aurrekontuko zuzkidura nahikoa ere ez du ematen.

## INDARRAK

Lehenago aurkeztu ditugu ahuleziak. Hala ere, arauen eta eskumenen arloan indarrak edo alderdi positiboak ere identifikatu dira auzi hauekin lotuta:

1. Etxerik gabeko pertsonen arreta egokia ematea errazten dute Administrazio Publikoaren **jarduerek** eta hainbat administrazioen artean dagoen **lankidetzak**, baita administrazioen eta erakundeen artean dagoenak ere. Besteak beste, honakoa azpimarratu dute kontsultatutako pertsonak:

- Administrazio Publikoaren eta zerbitzuak ematen dituzten erakundeen artean izenpetutako hitzarmenak aurrerapen bat dira lankidetzan aritzeko beste modu batzuekin alderatuta, eta lagundu egin dute erakunde horiek profesionalizatzen eta beren jardueraren kalitatea hobetzen.
- Administrazioaile batzuek duten gogoia funtzio arautzailea bere gain hartzeko eta sektorea planifikatzeko prozesuak hasteko, zerbitzuak ematen dituzten erakundeen lankidetzarekin, zentroen kalitatea neurtu eta bermatzeko gutxieneko irizpideak eta baldintzak ezarrita.
- Zenbait udalen eta Foru Administrazioaren arteko lankidetzaren esperientzia onak. Horien artean azpimarratzekoak dira honetarako egindakoak:

- Instituzio bakoitzaren eskumenak arautzea, esate baterako, duela gutxi Bilboko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak egin dute hori.
- Jarduteko programak eta neurriak garatzea Lurraldeko udalerrri multzoari babesa emateko, esate baterako, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Larrialdietako Foru Zerbitzuak egin du hori.
- Etxerik gabeko pertsonen ematen zaien arretaren buru izatea, ez bakarrik finantziazioan, baizik eta ibilbideen eta baliabideen eta beren kudeaketaren kontrol zuzenean ere bai; horren adibide bat Gasteiz izan daiteke.
- Badaude etxerik gabeko pertsonen arreta bere gain hartzen duten 20.000 biztanlelik beherako udalerrriak, esate baterako, Gipuzkoako Pasaia udalerrria, urgentziako ostatua eta bestelako baliabideak eskaintzeko betebeharra ez duten arren.
- Gizarte zerbitzuen inplikazio handiagoa dago etorkinen premiei arreta emateko orduan, orain arte ez zeuden baliabide eta zerbitzu espezifikoak eskaintzeko, esate baterako, immigrazio-teknikaria sortu da edo immigrazioaren arloan esku hartzen duten jarduerak dituzten plan lokalak garatu dira.

2. Arautegiak **aukerak** ematen ditu zenbait auziri buruz, esate baterako, erroldatzeko ematen den lekuen aukera zabalari dagokionez. Leku horiek “teilaturik gabeko” lekuak izan daitezke edo helbide faltsua. Eskubidea izateaz gain, etxerik gabeko pertsonentzako aukera bat da hori, gizarte laguntza jaso ahal izateko.

3. Etxerik gabeko pertsonen arreta emateko sistemen artean **koordinatzeko saiakerak**, bereziki osasun- eta gizarte arloarenak. Arreta Soziosanitariorako Euskal Kontseilua sortu da eta, esparru-akordio batean oinarrituta, eremu soziosanitarioa garatzen ari da. Arlo horien bien arreta koordinatuak erraztu egingo du, teoriarik behintzat, etxerik gabeko pertsonen arreta integrala, gizarteko eskubide osoko kideak direlako.

4. Bazterkeriaren arloko hainbat profesionalak **esperientzia** metatu dute etxerik gabeko pertsonen **arreta ematen**, eta horren ondorioz, sektorea oso ondo ezagutzen dute. Ezagutza hori legegileen esku jarri daiteke, gaur egun dauden zenbait hutsune gainditu ahal izateko.

**BAZTERKERIA LARRIA  
TESTUINGURUAN JARTZEA**





#### 4. BAZTERKERIA LARRIA TESTUINGURUAN JARTZEA

Bazterkeria XX. mendearen azken hamarkadan hasi zen aztertzen gizarteko arazo gisa eta, horrelakoetan gertatu ohi denez, fenomeno horri gizarteak eman dion erantzuna azterketaren beharra baino lehenago etorri da.

Bazterkeria terminoa<sup>24</sup> hirurogeita hamarreko hamarkadan hasi zen erabiltzen arlo politikoan. Gizarte Segurantzaren babesak ez zuten pertsonen buruz hitz egiteko erabiltzen zen berba hori, eta kolektibo oso heterogeneoari egiten zion erreferentzia: ezgaitasun fisiko edo mentalen bat zuten pertsonak, pertsona toxikomanoak, gaizkileak, guraso bakarreko familietako kideak eta abusuak edo tratatu txarrak jasan zituzten pertsonak, besteak beste.

Gaur egun terminoaren ikuskera sozialagoa dago, eta bazterkeria dimentsio askoren eta askotarikoen elkarrekintzaren ondorioz sortzen den egoeratzat jotzen da, eta garrantzian eta aurrerapenean gizarte desberdintasun larriak sortzen dituen gizarte eredu baten ondorioz hartzen da. Beraz, sistema sozialaren “ezaugarri” bat da bazterkeria, eta gizarte postindustrialen ezaugarriak diren egiturazko elementuek osatzen dute, baita azken hamarkadetan gertatu diren gizarte aldaketek ere.

Alde horretatik, azken urteetan euskal gizarteak aldaketa sozial eta ekonomikoak izan ditu, eta horrek bere gizarte egitura eragin du: industria-birmoldaketa, langabeziaren gorakada eta emakumeek eta gazteek lanean hasteko dituzten zailtasunak, besteak beste. Horrek gero eta desberdintasun handiagoak sortu ditu talde sozialen artean, sisteman integratuta daudenen eta sisteman baztertuta daudenen artean hain zuzen.

Gainera, azken hamarkadetan gizarteak bilakatu egin da familia-eredu nuklearretara eta laguntzako gizarte eta familia-sarea bereizteko prozesuetara, eta horrek benetako deserrotze egoerak sortu ditu familia eta gizartean. Orain arte premia- eta ahultasun egoerak ez dira ikusi gizartean, familiak eta laguntzako gizarte sareek horretarako esku hartu dutelako, eta egoera orekatu dutelako. Hala ere, gaur egun prekaritate eta ahultasun horiek bazterkeria egoera bihurtzen dira erraztasun handiagok. Izan ere, lotura afektibo eta laguntza gutxiago dago premia- eta gero eta nabarmenagoa

---

<sup>24</sup> R. Lenoir-ek sortu zuen terminoa, Gizarte Ekintzako Estatu Idazkaria izan zenean, Jacques Chirac-en gobernu frantsesean.

da muturreko pobrezian bizi diren emakume eta gizonak daudela, lotura familiar edo afektiborik gabe eta hainbat premia eta mendekotasunekin.

Beraz, gizarte bazterkeria **fenomeno konplexua** da, eta egoera oso askotarikoak ditu, eta horren ondorioz zehaztu gabe dago. Horri buruzko gauza asko esan dira, eta esandakoek hainbat alderdi azpimarratu dituzte; horietako batzuk dira gizarte loturarekin dagoen haustura, gizarte zerbitzuen gabezia eta desberdintasuna. Definizio instituzionalago batzuek bazterkeria eta pobrezia kontzeptuak lotzen dituzte lan iraunkorra ez edukitzearekin, hezkuntza-maila txikiarekin eta gizarte eta osasun babes nahikoa ez izatearekin.

Dena dela, badirudi argi dagoela gizarte bazterkeriaren kontzeptuak bi kontzeptu gainditzen dituela: pobrezia buruz ari den kontzeptu tradizionala, hau da, arrazoï ekonomikoekin lotutakoa, eta marjinazioarena, arauak haustearekin lotutakoa. Eta, bestalde, parte-hartze falta baten ondorioz gertatutako **gizarte loturaren hausturarekin** dago harremanetan. Beraz, bazterkeriaren kontzeptua herritartasunaren kontzeptuari lotzen zaio, biztanlearen estatus horrek eskubide zibil, politiko eta sozialak izatea ahalbidetzen duen neurrian eta pertsona gizarteko kideztat parte-hartze eta berdintasun terminoetan onartzen duten betebeharrak batzuk ematen dituen neurrian. Horrela, pertsona batek bizi den gizartearekin duen desberdintasunak determinatzen du bazterkeria egoera, eta hori gizarte eskubide batzuk eskuratzeko gabezien ondorioz gertatzen da, beraz; *“bazterkeriaren genesisia ez da horrenbeste pertsonaren borondatea, baizik eta parte hartzeko baldintzen prekrarietatea”*.<sup>25</sup>

Alde horretatik, maiatzaren 22ko 12/1998 Legeak, hau da, EAeko gizarte bazterkeriaren aurkako legeak honela definitzen du bazterkeria: *“gizarte eskubideak gauzatzeko ezintasuna edo gaitasunik eza da, batez ere lan egiteko eskubideaz baliatzeko ezintasuna, baina baita ere hezkuntza eta prestakuntza jasotzeko eskubidea, kultura, osasuna, etxebizitza duina izateko eskubidea edo gizarte babesa jasotzeko eskubidea”*.

EAeko Gizarteratze Plana zein Gipuzkoako Gizarteratze Plana pobrezia ikuskera erlatiboan oinarritzen dira, gizarte osoaren baliabideen arabera bakarrik ulertzen delako pobrezia. Hala ere, gizarte bazterkeriaren definizioa ez dute mugatzen muturreko pobrezia ekonomikora. Aitzik, hauxe diote: *“gizarte bazterkeria hesi-metaketa bat dela, eta hesi horiek guztiek gehiengoaren gizarte bizitzan parte hartzetik kanpo uzten dituztela bazterkeria pairatzen dutenak; are gehiago, baliabide ekonomikoetan eskasia izateak beste gabezia batzuk eragiten ditu enpleguaren arloan, gizarte harremanetan, jarrera pertsonaletan, hezkuntza, osasun eta etxebizitzan”*.<sup>26</sup>

Hortaz, bilakaera bat egon da bazterkeria arazo estatikotzat eta soilik alderdi materialekin lotutakotzat jotzen zuten definizioetatik zailtasun askoren eta askotarikoen metaketatzat

<sup>25</sup> Raya, Esther. “Estudio de la exclusión social desde una perspectiva subjetiva”, Inguruak, 32. zk., 2002ko apirila, 108. orr.

<sup>26</sup> Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoako Gizarteratze Plana 2003.

hartzten duten kontzeptu dinamikoagoetara. Aurreko atalean ikusi dugunez, horrek laguntza emateko alderdia gaindituz joan diren esku hartzeko ereduak ekarri ditu, gizarteratzea hezitzailea den prozesutzat hartzen duen gizarteratzean sakontzeko.

Hala ere, bazterkeriari buruzko definizio asko eman badira ere, hainbat galdera sortzen zaizkigu bazterkeria larritzat jotzen dugunaren definizioa egiteko saiakera honetan: nori buruz ari gara?, kolektibo homogeneoa da?, gizarte arazoak dira edo egoeraren araberrako arazoak dira eta, beraz, aldatzeko aukerak daude?, edo, era larrian baztertuta dauden pertsonak bakarrik parte hartzen dute prozesuan edo gizarte gainerako kideek ere parte hartzen dute? Horiek dira galderak, besteak beste.

Gure ikuspuntutik, gizarte bazterkeria larria hainbat aldagaik zehazten dute, eta aldagai horiek prekaritate ekonomiko hutsa edo arauen eta gizarte balioen haustea gainditzeko dituzte. Egoera horretan dauden pertsonak ez dira talde homogeneoa, premia ezberdinak dituztelako eta egoera ezberdinak eta askotarikoak bizi dituztelako. Bazterkeria hori ez da egoera horien ezaugarri bat, baizik eta ahultasun handiagoko egoeran dauden pertsonekin grinatzen den oztopo eta zailtasun multzoa, pertsona horiengan era guztietako gabeziak metatzen direlako. Gainera, pentsatzen badugu bazterkeriara “heldu egiten garela” hainbat gabezia eta zailtasunen ondorioz, egoera horretatik “irten ere egin gaitetzke”.

Kapitulu hau hausnarketa prozesu baten emaitza da. Prozesuan parte hartu dute errealitate horretan zuzenean esku hartzen duten hainbat profesionalak eta alderdiotako baten gainean teorizatu dutenak. Badakigu kontzeptuaren definizioak sortzen dituen galdera guztiei erantzutea zaila dela, baina funtsezkoa iruditzen zaigu gure ikuspegi teorikoaren arabera gizarte bazterkeria larriaren kontzeptua eraikitzerakoan kontuan hartu behar diren ardatz nagusien zirriborroa egitea.

#### 4.1. BAZTERKERIA LARRIA: ZERTAZ ARI GARA?

Gure iritziz, “bazterkeria larria” kontzeptuak honakoari egiten dio erreferentzia: bazterkeria egoeran dauden pertsonetatik premia larrienak dituzten pertsonak bizi duten prozesua, eta gizartean bizitzeko modu berria erakusten du, gizartean parte hartu gabe, prekaritateetatik edo harreman sozial eta afektiborik ez dutelako.

“Bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak” kontzeptuarekin bazterkeriaren periferian dauden pertsonak buruz ari gara, hau da, pertsona baztertuen multzoan ere baztertuta dauden pertsonak buruz; beraz, gizarte arretako sare normalizatuetatik deskonektatuta dauden pertsonak buruz. Batzuetan, lotura falta hori norberaren ezgaitasun edo zailtasunen baten emaitza da eta, beste batzuetan, sistemak horrelako egoeretara egokitzen ez jakitearen ondorioa da.

Hasteko, **inolako etxerik ez duten pertsonak** dira edo beren etxeko egonkortasun eza da euren ezaugarria. Pertsona horietako batzuek, era autonomoan bizirik irauteko baliabide egonkorrik ez dutenez, iraupen-ekonomiaren tresnak eta trebetasunak garatzen dituzte, esate baterako, diru-sarrerak eskuratzeko modu marjinalak, delituzko jardueren, eskean aritzearen edo prostituzioaren bitartez.

Hala ere, baliabide ekonomikoen gabezia argia badute ere edo baliabide horiek kudeatzeko zailtasuna badute ere, ez dirudi bazterkeriaren larritasuna premia oinarrizkoenak beteta ez edukitzearen ondorioz sortzen denik, baizik eta **lotura afektiboen eta familia-harremanen faltaren** ondorioz, hau da: deserrotzeagatik, ez direlako leku batekoak eta ez dutelako erreferentziatzeko leku bat, laguntza faltagatik, gizartearekin apurtu dutelako, gizartean ezarritako mugetatik kanpo bizitzeagatik, saretik deskonektatutako pertsonak izateagatik eta ahanzturara eta ostrazismora kondenatuak egoteagatik.

Bigarrenik, bazterkeria larriak **hainbat egoera eta zailtasunen metaketaren** emaitza dirudi, etengabeko ahultasunaren ondorioz gertatutakoak, aldatzeko eta norberaren bizitza kudeatzeko ezintasun pertsonala sortzen duten bizitako istorioen ondorioz. Egoera eta zailtasun horietako asko gizarte sistemak berak sortutakoak dira.

Azken batean, gizartean eraikitako kontzeptua da, eta gizarte eragile guztiek emandako erantzunarekin lotuta dago, herritartasun-kontzeptuarekin oso lotuta dagoena, hainbat maila dituen eta hainbat faktore eta dimentsioko prozesu bati dagokiona.

a) **Gizarte bazterkeria larria gizartean eraikitako kontzeptua da** eta, beraz, testuinguru eta errealtate zehatz bati lotuta dago. Duela gutxi arte, gehienetan, bazterkeriari buruzko azterketek uste zuten horri aurre egiteko modu bakarra pertsonekin esku hartzea zela. Izan ere, gizartea aldatu ezin zitekeen ingurunetaz hartzen zuten, eta gizartearen gainean ezin zela esku hartu uste zuten, edo ez zela esku hartu behar.

Ikusmolde horren arabera, gizarteratzea bazterkeria egoeran zeuden pertsonak gizartera bueltatzea zen, pertsona horiek sistemara egokitu ostean, baina ez zegoen aukerarik sistemari pertsona horietara egokitzeko.

Ikuspegi horren arabera, gizartea ezin daiteke aldatu eta iragazgaitza da. Gure iritziz, ikusmolde horrek zaildu egiten du bazterkeriari gizarte erantzuna ematea, ez duelako kontuan hartzen, alde batetik, bazterkeria prozesuan gizarteak duen erantzukizuna eta, bestetik, bazterkeriaren kontzeptuak eta sortzen duten arazoak azaltzen dituzten paradigmek zehazten dituztela leku eta une zehatz batean hartuko diren esku hartzeko ereduak.

Gizarte guztietan daude norbanakoaren eta guztien jokabideak arautzen dituzten gizarte arauak. Bazterkeria gertatzen da pertsonak arau horietatik urruntzen direnean edo pertsonen jokabidea ez datorrenean bat gehienek dituzten ohiturekin. Baina kontuan hartu behar dugu pertsona guztiek ez dituztela trebezia berak ezta aukera berberak ere hain aldakorrek diren gizartearen dinamiketara ondo egokitzeko.

Hortaz, esku-hartzea bazterkeria egoeran dagoen pertsonen bakarrik arduratu behar dela uste badugu, proposatuko diren esku hartzeko ereduak porrot egingo dute segurua, ez dutelako kontuan hartzen prozesu hauetan esku-hartzen duen elementurik garrantzitsuenetako bat: gizartea. Horrenbestez, bazterkeria egoeran dauden pertsonak badaude **gizarte baztertzailak** daudelako da.

## b) Herritartasun-kontzeptuarekin lotuta dago.

Bazterkeriaren kontzeptua herritartasun-kontzeptuarekin lotuta dago eta biek *“dute gainerakoekin harremana izatearen ideia, eskubide jakin batzuetan oinarrituta ezartzen dena”*<sup>27</sup>. Herritartasunak norbait gizarte bateko kide izatea onartzen du edo ez, eta gainerako pertsonak dituztenen eskubide eta betebeharrak ematen ditu. Errealitatean, bazterkeriak **gizarte desberdintasuna eta eskubideen gabezia** erakusten du.

Alde horretatik, herritartasunaren kontzeptu horrekin lotuta definitzen du bazterkeria EAEko gizarte bazterkeria eta Gizarteratze Prozesuen Behatokiak, eta honakoa adierazten du: *“pentsatu daiteke kanpoan geratzen direla, neurri handiagoan edo txikiagoan, norbanakoari herritartasun-estatusa ematen dion eskubideren bat edo batzuk erabiltzeko gai ez diren edo galarazita duten pertsona guztiak, hau da, eskubide horiek erabiltzeko baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko nahikorik ez duten pertsona guztiak”*<sup>28</sup>.

Idea hori EAEko gizarte bazterkeriaren aurkako 12/1998 Legean ere jasota dago, lehenago aipatutako bazterkeriaren definizioan ikusi daitekeenez.

Bazterkeria egoeran dauden pertsonak, eta are gutxiago maila larrietan daudenak, ez dira antolatzen, ez dituzte beren eskubideak publikoki eskatzen, ez dute iritzirik ematen eta ez dira mobilizatzen. Beren ahotsa ez da gizartean entzuten, ez bada gizarte eragileen eta instituzio publikoen bitartez. Beraz, horiek dira bermatu behar dutenak gizartearen erantzuna benetakoa eta premietara egokitutakoa dela.

## c) Hainbat maila ditu.

Esan dugunez, pertsona bat hainbat esparrutan, modutan eta mailatan egon daiteke baztertua, pobrezia-egoerek maila ezberdinak izaten dituztelako oro har: ongizate faltatik muturreko pobrezia-egoeretara, eta horren barruan bazterkeria egoeran dauden pertsonak ditugu. Halaber, bazterkeriaren barruan ere hainbat maila aintzat hartu ohi dira: arina, ertaina eta larria.

Maila bakoitzaren mugak ez dira beti izaten ezartzeko errazak. Nola zehaztu daitezke bazterkeriaren mailak azpian dauden faktoreak hain askotarikoak direnean, pertsonen esperientzia eta premia ezberdinak dituztenean?

gizarte bazterkeria eta Gizarteratze Prozesuen Behatokiak<sup>29</sup> zenbait aldagai eta adierazle proposatzen ditu, gizarteratze- eta bazterkeria prozesuen bizitza-esparru

<sup>27</sup> Raya, Esther. Op. cit. 108. orr.

<sup>28</sup> Zubero, Imanol eta Pineda, Silvia. “Gizarteratzearen ibilbideetako ardatzak: 2005eko 3. txostena” hitzaldia, Sartuk antolatutako jardunaldi honetan: “Gizarteratzea partehartzetik. Hausnarketa estrategikoa”, gizarte bazterkeria eta gizarteratze prozesuen behatokiarena, 2005eko urtarrilaren 27a.

<sup>29</sup> Behatokia ikerketarako eta hausnarketarako tresna da, hain zuzen ere, EAEn baztertuak izateko arriskuan dauden edo baztertuak dauden pertsonak gizarteratzeko prozesuei buruzkoa, eta nazioarteko antzeko proiektuekin harremana du. *Sarturen* hasierako proiektuan murgilduz joan diren erakundeek parte hartzen dute: Agiantza, Peñascal Fundazioa, BBK Gaztelanbidean eta Cáritas Euskadi.

garrantzitsuekin bat datozenak, eta bazterkeria arin, ertain edo larriaren mailari buruz orientatzen dutenak. Horren ondorioz, “gizarte posizioa” izeneko adierazlea sortu da. Aipatutako aldagai eta adierazleak hurrengo koadroan daude jasota<sup>30</sup>.

- Lehenengo mailan aldagai hauek daude: enplegua, egoera ekonomikoa, etxebizitza eta hezkuntza.
- Bigarren mailan, berriz, osasuna, gizarteratzea eta familiako integrazioa eta gizarte harremanak dira aldagaiak.

Geure ikuspegitik, beharrezkoa ikusten dugu aldagai horiek zabaltzea norbanako bakoitzaren dimentsio subjektiboarekin eta pertsonalarekin lotutako beste aldagai batzuekin, funtsezko aukia baita hori etxerik gabeko pertsonen egoeran.

#### 4.1. KOADROA: BAZTERKERIA: MAILAK, ALDAGAIK ETA GRADUAK

MAILAK	ALDAGAIK	BAZTERKERIA-GRADUAK		
		LARRIA	MODERATUA	ARINA
LEHEN MAILA	ENPLEGUA	Lan merkatutik baztertuta egotea	Sarbide prekarioa	Enplegu egonkorretik baztertuta
	EGOERA EKONOMIKOA	Gabezia oinarriko gastuetan	Zailtasunak oinarriko gastuetan	Zailtasunak beste gastu batzuekin
	ETXEBIZITZA	Etxebizitza esku-ratzetik baztertuta egotea	Prekariatatea eta gehiegizko gastua etxebizitzan	Oinarriko ekipamenduak ez edukitzea
	HEZKUNTZA	Eskolatzeko eza	Sarbide mugatua	Prestakuntza eskasa
BIGARREN MAILA	OSASUNA	Osasuna eskuratzetik baztertuta egotea	Prekariatatea osasunagatik	Kronizitatea, gizarte sarerik ez izateagatik
	GIZARATERATZEA ETA FAMILIAKO INTEGRAZIOA	Oinarriko harremanik ez izatea edo harreman gatazkatsuek edukitzea	Laguntza-sarearen gabezia, edo gatazkatsua izatea	Horieta baten gabezia, edo gatazkatsua izatea
	GIZARTE HARREMANA	Delituzko jokabideak edo gizar-teaz kanpokoak eta familia-gatazka	Gizar-teaz kanpoko jokabideak eta familia-gatazka	Iraganean delituzko jokabideak edo gizar-teaz kanpokoak eta familia-gatazka eduki izana

Iturria: “Gizarteratzearen ibilbideetako ardatzak: 2003ko txostenaren aurrerapena” hitzaldia. “Gizarteratzearen erronka” jardunaldia. gizarte bazterkeria eta gizarteratze prozesuen behatokia. Sartu Federazioa. Bilbo, 2003ko abenduaren 4a.

<sup>30</sup> “Gizarteratzearen erronka” jardunaldietan aurkeztu ziren moduan. Jardunaldi horiek Sartu Federazioak antolatuta zituen eta 2003ko abenduaren 4an egin ziren.

#### d) Prozesu bat da.

Kontzeptua eraikitzeko ardatz nagusietako bat da gizarte bazterkeria prozesutzat hartzea, eta ez pertsona batzuk bizi duten egoera edo une zehatz bat balitz bezala.

Kontzeptura ikuspegi dinamiko batetik hurbilduz gero, baztertuta egotea/gizartean egotea prozesua “continuum” gisa ulertuko dugu, eta continuum horretan pertsonak daude, une zehatz batean bizi duten egoeraren arabera.

Robert Castel-ek<sup>31</sup> dio baztertuta egotea/gizartean egotearen prozesuak bi faktore-ardatzen emaitza direla: lanean integratzea-ez integratzearen ardatza eta ingurune sozialean integratzea-ez integratzearen ardatza. Alde horretatik, Castelek integratzeatik bazterkeriara daraman continuum horren hiru eremu bereizten ditu:

- **Integrazioa:** lan egonkorra eta gizarte eta familia sare sendoa duten pertsonak dauden eremua.
- **Ahultasuna:** bere ezaugarria ezegonkortasuna da. Egoera horretan dauden pertsonak lan prekarioa dute, edo ez jarraitua edo langabezia daude; hauskortasuna da beren harremanen ezaugarria.
- **Bazterkeria eta marjinalitatea:** lanik ez izatea eta gizartean bakartuta egotea da bere ezaugarria.

Eremu horiek Castelek proposatutako bektore bien gurutzaketatik sortu dira eta ez dira interpretatu behar kategoría hermetiko edo estatiko gisa, baizik eta alderantziz: hiru gizarte esparru horien artean partekatutako eremuak daude, zeharkatzen zailak ez diren muga lausoak. Ohikoena izaten da bazterkeria sortzen duten faktoreak pertsona baztertuta egon baino lehen jarduten egotea.

Beste autore batzuk, zehazki Laparra, Gaviria eta Aguilar<sup>32</sup>, Castel-en definizioaren antzeko definizio batetik abiatzen dira, baina lau eremu aipatzen dituzte: integrazioa, prekariedade, bazterkeria eta marjinazioa. Beren iritziz, prekariedade, adibidez, soldata txikiak eta aldi baterako lanak dira, hau da, premia handiagoko egoeretara igarotzea zaila egiten ez duen ahultasun maila bat. gizarte bazterkeria, prekarizazioa ez bezala, honela dago definituta: “soldata-harreman normalizaturako eta ekoizpen-sistemarako sarbiderik ez izatea, eta pobrezia osoarekin, larriarekin edo muturrekoarekin lotu daiteke”. Amaitzeko, marjinezioaren kontzeptuak erreferentzia egiten dio pobrezia egoera osoarekin edo oso larriarekin agertzen den espazioaren banaketari.

#### e) Hainbat faktore eta dimentsio ditu.

Bazterkeria hainbat faktorek azaltzen dute eta faktore horiek bata bestearen menpekoak dira askotan. Faktore horiek pertsonaren bizitzako alderdiekin lotzen dira:

<sup>31</sup> Castel, R. “La metamorfosis de la cuestión social”. Paidós, Estado y sociedad. 1997.

<sup>32</sup> Laparra, M eta beste batzuk “Peculiaridades de la exclusión en España: propuesta metodológica y principales hipótesis a partir del caso de Aragón”, In “Pobreza, necesidad y discriminación II. Simposio sobre Igualdad y Distribución de la Renta y la Riqueza”. Bilduma: Igualdad nº 5, Madril, Argentario Fundazioa, Visor. Madril, 1996.

enplegua, egoera ekonomikoa, etxebizitza, hezkuntza, osasuna, gizarteratzea eta familiako integrazioa eta gizarte harremana.

Gizarte esku-hartzean adituak diren pertsona batzuen iritziz, esate baterako, Iñigo Estombaren iritziz<sup>33</sup>, bazterkeriaren osagai batzuk daude eta bazterkeriara daramaten faktoreak. Honakoak dira osagaiak: errenta-maila, etxebizitza, administrazio egoera, laguntza “naturalik” ez izatea eta baliabideetara eta parte-hartzera fisikoki sartzeko ezintasuna. Honakoak dira faktoreak: enplegua, generoa, gutxiengo etniko batekoa izatea eta babes-sistematik ez egotea.

Azterlan batzuetan<sup>34</sup> hauexek aipatzen dira bazterkeria-faktore nagusi gisa: langabeziak jarraitzea, industria-aldaketak, familia-egiturak ahultzea, gizarte egituretan egon diren aldaketak, kohesio-balioak eta solidaritate-modu tradizionalak hondoratzea, gizarte zatiketarako joera eta migrazioaren bilakaera.

Castelen ikuspegiaren arabera, bazterkeria ez dago lehenagoko paragrafoetan aipatu dugun bektore ekonomikoaren menpe bakarrik; horrez gain, autoreak “gizarte desafiliazioeko prozesua” deitzen duena dakar, eta horra gizartean eta ekoizpen-sisteman bakartuta egotearen ondorioz heldu dira.

Alde horretatik, eta kapitulu honetan dagoeneko nabarmendu dugunez, bazterkeria pobrezia-aren kontzeptuarekin lotzen bada ere, fenomeno ezberdin bi dira. Izan ere, bazterkeria larriagotzen duena ez dirudi oinarriko premiak bete ezin izatea denik, baizik eta “deserrotzea” deituko duguna. Termino horrekin adierazi nahi dugu gizarte laguntzarik ez izatea, leku batekoa ez izatea edo erreferentziatzko lekurik ez edukitzea, lotura afektibo egonkorrik ez izatea.


Castelek proposatutako ereduari jarraituz, hau da, hurrengo grafikoan aurkezten den ereduari jarraituz, etxerik gabeko pertsonak proposatutako bektore bien hausturaren adierazpen zehatzena dira, hau da, laneko integrazioaren ardatzaren eta gizarteratzearen ardatzaren hausturarena. Hortaz, gizarte bazterkeriako prozesuen muga muturrekoena osatzen dute.

<sup>33</sup> Estomba, Iñigo. Donostiako Udaleko Gizarteratze Zuzendaria. “Gizarte zerbitzuetako sistema gizarteratze erronkaren aurrean” hitzaldia. Sartuk antolatutako jardunaldi honetan: “Gizarteratzearen erronka”, gizarte bazterkeria eta gizarteratze prozesuen behatokiarena. Bilbo, 2003ko abenduaren 4a.

<sup>34</sup> Muñoz, M. Vázquez, C. eta Vázquez, J.J. “Los límites de la exclusión: Estudio sobre los factores psicosociales y de salud que afectan a las personas “sin hogar” en Madrid”. Ediciones Témpera. Madril, 2003. 13. orr.



## 4.1. GRAFIKOA: BAZTERKERIA PROZESUA (R. CASTEL)



Jaume Funes-en hitzetan<sup>35</sup> bazterkeria larria eta etxerik gabe egotea: *“ez dago lotuta muturreko pobreziarekin bakarrik, arras pobreekin bakarrik. Kanpoan egotearekin zerikusia du, hormen kanpoalde berrietan, urrun, periferia berrietan, gizartetik deskonektatuta, haustura egoeran, gizarte konplexu baten parte izateko zailtasunekin, saretik deskonektatuta, bizi duten bazterkeria egoera aldatzeko palankarik gabe”*.

Gainera, ezin dugu ahaztu gizarte bazterkeriak oztopo-metaketa dakarrela, ahultasun handiengan dauden pertsonekin grinatzen diren hainbat zailtasun dakartzala. Pertsona horiengan hainbat gabezia pilatzen dira: ekonomikoak, lanekoak, hezkuntzakoak edo osasunekoak, besteak beste. “Arazo egoera” horien metaketak pertsonen autonomiaren gaineko eragin zuzena du eta gizarteko bizitzan parte hartzea eragozten du.

## 4.2. ETXERIK GABEKO PERTSONAK ETA gizarte bazterkeria LARRIAN DAUDENAK

gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonak premia eta egoera ezberdinak eta askotarikoak dituzte, ez dituzte ezaugarri homogeenak, beraz, pertsonen buruz hitz egingo dugu eta ez talde edo kolektibo bati buruz.

<sup>35</sup> Funes, Jaume. Kataluniako Sindic de Greuges-en ondokoa (Kataluniako pertsonen Defendatzailearen ondokoa).

Halaber, etxerik gabeko pertsona terminoa erabiltzea erabaki dugu, uste dugulako pertsonak gizarte bazterkeria larrian badaude gizarte loturarik ez dutelako dela, eta lotura galtzeko prozesuengatik eta gizarte hausturarengatik, bizitzeko leku bat ez izateagatik baino gehiago.

Gainera, ez dago etxerik gabe pertsonatzat nor jotzen den dioen arauzko definiziorik, eta horrek eragina du pertsona horien premiei ematen zaien arretan. Alde horretatik, azken urteetan egin diren ikerketek eta azterlanek hainbat definizio aukeratu dituzte. Normalean aztertuko zutena zehazteko eman dituzte definizio horiek.

#### 4.2.1. **ETXERIK GABEKO PERTSONAK IKUSPEGI SOZIOLOGIKO BATETIK**

##### 4.2.1.1. *KONTZEPTUAREN BILAKAERA ETA TIPOLOGIAK*

Historikoki hainbat termino erabili izan dira kalean bizi diren pertsonen errealitatea identifikatzeko. Hirurogeita hamarreko hamarkadara arte, pertsona horiek deskribatzeko “arrote” terminoa erabiltzen zen. Geroago, termino hori zalantzan jarri zen, terminoak karga iraingarri handia zuelako.

Horren ostean, “oinezko” terminoa sortu zen leku batetik bestera oinez ibiliz eta epe laburrera bizirik irauteko filosofiarekin bizi ziren pertsonak definitzeko. Hala ere, industria-birmoldaketarekin lotutako aldaketa sozial eta ekonomikoak egon dira azkenaldian, langabezia handitu da, gizarte eta familia sarea bereizi dira eta familia-eredu gero eta nuklearragoetarako joera dago. Horiek guztiek familiaren benetako deserrotzea ekarri dute eta gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen profil berria sortu dute.

Horrela, etxerik gabeko pertsonaren kontzeptua hiri-esparruekin dago lotuta gehienbat, gizarte industrializatuetan egoten dira eta kalean bizi dira, baina, oinezko pertsonak ez bezala, era iraunkorrean bizi dira leku berean.

Definizio gehienak era egonkorrean bizitzeko ostatu edo etxerik ez izateari buruzkoak izan dira. Europako esparruan zabalduen dagoen definizioa etxerik gabeko pertsonen alde lan egiten duten Federazio Nazionalen Elkarteak proposatutakoa da: *“etxerik gabeko pertsonatzat hartzen da ostatu pertsonal eta egokia lortzeko eta edukitzeko gai ez den edozein pertsona, bere bitartekoen bidez edo Gizarte Zerbitzuen laguntzarekin, baita instituzioetan (ospitaleak, kartzelak, etab.) bizi diren pertsonak ere, irteterakoan ostatu pertsonalik ez dutenean bertara joan ahal izateko, eta egoera penagarrian dauden ostatuetan edo pilatuta bizi diren pertsonak”*.

Hala ere, lehenago adierazi dugunez, ez dirudi egoera hori larria egiten duena bizitzeko leku bat ez izatea denik, baizik eta familiarekin loturarik ez edukitzea eta familia-sarerik ez izatea. Horrek etengabeko ahultasunean jartzen ditu pertsonok eta zaildu egiten du gizarteratzeko duten aukera.

Ez da pertsona-multzo homoginoa, baina azpimarratu egin ditzakegu etxerik gabeko pertsonak eta gizarte bazterkeria larrian daudenak gehien **identifikatzen dituzten alderdiak**:

- **Etixerik gabeko** pertsonak dira, hau da, ez dute ostatu egonkorrik ezta etxebizitzarik ere.
- **Baliabide ekonomikorik gabeko** pertsonak dira edo baliabide horiek modu egokian kudeatzeko zailtasunak dituzte, eta iraupeneko ekonomiaren estrategiak erabiltzen dituzte.
- Baina, batez ere, familia-gunerik gabeko pertsonak dira, familiarekin harremanik ez dutenak eta **gizartean eta familian erabat deserrotuta** daudenak. Familiarekin inolako loturarik ez duten pertsonak dira, eta lotura afektibo edo sozialik ere ez dute, ez dute laguntza pertsonalik ez sozialik, gizarteaz eta bere dinamikez kanpo bizi dira, eta gainerako herritarrak baino ahulagoak dira dinamika horien aurrean.

Jaume Funes gizarte bazterkerian aditua den psikologoa da, eta hainbat ñabardura aipatu ditu zailtasunak nola sortu diren jakin dezagun:

- Batzuetan bazterkeria prozesu luzeak izaten dira.
- Ezgaitasun fisiko edo psikiko garrantzitsuek baldintzatzen dituzte pertsona batzuk.
- Sektore bat babesa eman dion Administrazioak izandako porrotetik dator, ez dago jatorrizko familiarik.
- Buruko osasunean bi edo hiru egoera hartu ditzakegu kontuan: zenbait kasutan nahaste larri kronikoa izaten dute. Beste batzuetan, arazoak eman dituzten drogen erabileren eta arazoen arteko nahasketak dituzte; askotan zailtasun afektibo larriak dituzte.
- Kasu askotan pertsonak aldatzeko prozesuak hasi dituzte, baina egoera oso ahulean daude, bizitzeko etxerik ez dutelako.
- Nahiko handia da heroinagatik eta tratamenduengatik degradazio-historia luzea duten pertsonen taldea; kasu batzuetan pertsonak ez du arrakastarik izan eta, beste batzuetan, baliabideek ez diete arreta egokia eman.
- Heroinak sortzen duen bazterkeriaren modu ezberdinean, pertsona baztertu batzuek egoera hori bizi dute jokoaren edo kokainaren moduko substantzien menpe epe luzeak egin dituztelako.
- Bazterkeria larriari arreta emateko baliabideetan atentzioa jasotzen duten pertsona atzeritarren artean zailtasun hauek dituztenak bereizi behar dira: ezin dutenak lan egin, administrazioaren baimenik ez dutenak, bizitzeko lekurik ez dutenak, eta laguntzarik ez dutenak.

Gogoratuko dugu baztertuta edo gizartearen barruan egotea, besteak beste, pertsona bakoitzaren gaitasunen menpe dagoela, eta berak bere buruaz eta hobetzeko dituen aukerez duen irudiaren menpe, eta horrela aukera zabala ezarri ahal izango dugu: egoera hori bizitzeko modu gisa hartzen dutenak daude, eta pertsona horiek bizimoduz aldatzeko aukera gutxi daude; bestetik, gizartean egotea eta baztertuta egotea txandakatzen duten pertsonak daude.

Esaterako, hainbat ikerketatan ahaleginak egin dira etxerik gabeko pertsonen eta gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen tipologiak eta profilak ezartzeko. Tipologia edo profil horien barruan aukera guztiak sartzen dira: bazterkeriaren “nukleo gogortzat” har ditzakegunak eta ahultasunean edo arriskuan daudenak.

Azterlan horietan ez dira saiatu kategoria hermetikoak ezartzen; ostera, bazterkeria larriko egoerak zehazten dituzten dimentsio edo aldagaiak ezartzeko hainbat saiakera egin dira, hau da, etxerik gabeko pertsonen tipologi orokorrak ezartzen dituzten dimentsio edo aldagaiak zehazteko.

M<sup>a</sup> Rosario Sánchezek, Espainiako etxerik gabeko pertsonen gaineko azterketan<sup>36</sup>, aztertzeke lau esparru zehaztu ditu, arrisku eta ahultasuneko egoera zehaztatetik kronizitate handieneko egoeretara doazenak.

Aztartzeko lau esparru horiek mugatzeko oinarrizko lau aldagai erabili ditu: lan egoera, familia-harremanak, osasunaren egoera eta bazterkeria-larriari erantzuten dion laguntza-sarearekin harremana. Hainbat deserrotze-maila dakartzan “continuum” gisa ulertzen da aldagai horiek elkartuta sortzen den tipologia. Hauek dira atera diren kategoriak:

- **Arrisku** egoeran dauden pertsonak: familia-harremanak izaten jarraitzen dutenak, nahiz eta ahulak izan, noizbehinkako lan jarduera prekarioak dituztenak eta arazo psikologikorik ez dutenak.
- **Hasierako deserrotze** maila bat edo deserrotze arina duten etxerik gabeko pertsonak: harreman oso ahulak dituzte familiakoekin edo laguntza emateko gizarte sarearekin, lan marjinalak eta ezegonkortasun handikoak egiten dituzte, eta batzuetan eskean aritzen dira, pertsonalitate-arazoen sintomak dituzte eta sintoma horiek ihesbideko jarreraren bitartez azaleratu daitezke (alkohola eta drogak kontsumitzearen bitartez). Halaber, beren ingurune sozialetik urruntzen dira eta bazterkeria larriari arreta emateko sarera joaten dira noizbehinka.
- **Deserrotzeko fase aurreratuan** dauden etxerik gabeko pertsonak: pertsona horiek oinarrizko gizarte loturak apurtu dituzte, familiarekin harreman gutxi dute, lanaren mundutik kanpo daude, horrelakoetan orokortu egiten da eskean aritzea, arazo psikologikoak eta pertsonalitate-arazoak dituzte, autoestimua galtzeko prozesuak bizi dituzte eta sarritan erabiltzen dituzte bazterkeria larriari arreta emateko zerbitzuak. Gizarte deserrotze handiko egoeran daude eta arazo gehiago izan ditzakete, esate baterako, alkoholismoa edo drogazaletasuna, eta osasuna oso hondatuta dute.
- **“Nukleo gogorra”**: normalean edozein arretari eta instituzioen edozein laguntzari uko egiten diote, buruko gaixotasunen bat dutelako, edo zerbitzu asko ez direlako gai pertsona horien ezaugarrietara egokitzeko. Ez dute sare pertsonalik ezta familia-harremanik ere, aktibitatearik gabeko pertsonak dira, iraupeneko ekonomia garatzen dutenak, eta erregulartasunez ibiltzen dira eskean, arazo psikologiko edo pertsonalitate-arazo larriak dituzte, kalean edo harrera-zentroetan bizi dira, erabat deserrotuta daude, ez dute motibaziorik eta beren bizitza epe laburrean irautera bideratzen dute.

<sup>36</sup> Sánchez Morales, M.R. “La población sin techo en España: Un caso extremo de exclusión social”. Madrid, 2001.

Tipologia hori bazterkeria-mailaren arabera ezartzen da edo ikusita pertsona zein mailatan dagoen hondatuta. Hori funtsezkoa da esku-hartzea planifikatzeko orduan. Hasierako mailatan dauden profilen edo baztertuta egoteko arriskuan daudenen kasuan, egiten den esku-hartzea prebentzioa eta lagun egitea da. Hondatze pertsonal eta sozialeko maila handiagoak dituztenean, ordea, prebentzio-neurriak ez dira eraginkorrak, eta maila aurreratuetan daudenen kasuan, beharrezkoa da esku hartzeko, laguntzeko, errehabilitatzeko eta gizarteratzeko mekanismoak proposatzea. Bazterkeriako nukleo gogorra izenarekin definitu ditugun pertsonekin, esku-hartzea eustera bideratzen da, baita fisikoa eta burua hondatu dadin saihestera zuzendutako kalteak gutxitzeko programetara ere.

Madrilgo Unibertsitate Konplutenseko Psikologia irakasle Manuel Muñozek eta beste autore batzuek<sup>37</sup> etxerik ez izatearen arrazoi nagusi bi identifikatu dituzte:

- Faktore sozialak eta ekonomikoak: langabezia-tasa handiak, etxebizitza-politikarik ez egotea eta migrazio prozesuak.
- Norberaren ahultasunarekin lotutako faktoreak: estresa sortzen duten gertaera kateatuak, gertaera kritikoak errepikatzea edo buruko gaixotasunak.

Halaber, azterlan hori irakurrita ondorioztatzen da pertsona batek hiru eta lau egoera kritikoren artean izaten dituela bizitzan. Egoera horiek zenbait gertaerarekin lotuta egoten dira, esate baterako, lana galtzea edo lanean arazo larriak edukitzea, familiakoren bat hiltzea, maitasun-desengainuren bat izatea edo autoestimua galtzea, besteak beste. Hala ere, etxerik gabeko pertsona batek estresa sortzen duten zortzi eta hamar gertaera artean izaten ditu kateatuta.

Kontsultatu diren pertsona batzuen ustez, azken urteetan etxerik gabeko pertsonen kopuruak gora egin du pixkanaka, gizarte desberdintasuna handitu delako eta etorkinak era masiboan heldu direlako. Horrek erakutsi du, alde batetik, ostatu emateko baliabideak eta gizarte babesa ez direla nahikoa egoera berriari aurre egiteko eta, bestetik, dauden baliabideak ez daudela ondo egokituta arazo eta egoera berrietara.

#### *4.2.1.2. ETXERIK GABEKO PERTSONEN PROFIL ZAHARRAK ETA BERRIAK*

Orain dela gutxi arte etxerik gabeko pertsonaren eredu "arketipikoa" erabiltzen zen. Hauxe zen: adin ertaineko gizon bakartia, zirtzila eta zaputza, bere ondasunekin joaten zena leku bestetik bestera eta arazo psikologikoak edukitzaren seinale argiak zituena. Era berean, etxerik gabeko pertsonaren profil hori beste egoera batzuekin identifikatzen zen, esaterako, gizartearen eta ekonomiaren aldetik erdeinatuta dagoen esparru batetik etortzea, trebakuntza-maila garatzeko aukerarik gabe, eta alkohola neurritz kanpo edatea.

Hala ere, txosten batzuek<sup>38</sup> nabarmendu dute profil hori hiri-eremuetan bizi diren etxerik gabeko pertsonen %5 baino gutxiagorekin bat datorrela. Gaur egun, Espainiako estatuan, pertsona horien %45 etorkina da, emakumeak %24 dira, toxikomania duten

<sup>37</sup> Muñoz, M. Vázquez, C. Vázquez, J.J: Op. cit.

<sup>38</sup> Gonzalo, A. Agencia de Información Solidaria (AIS) "Personas Sin Hogar: Con la dignidad a cuestas".


pertsonen ehuneko handia dago, langabeziaren biktima diren familia osoak daude eta unibertitate-ikasketak dituztenak %15 dira. Bestalde, kalkulatu da pertsona horien %25ek gutxi gorabehera buruko patologiaren bat duela.

Etixerik gabeko pertsonak ingurune “normalizatueta” edo ez hain normalizatueta bizi izan diren pertsonak dira, gero eta gehiago; baina ezin dugu alde batera utzi beren bizitzetan gertaera traumatikoak egon direla. Batzuetan, bazterkeria larriko egoerak zailtasunen metaketa hutsaren ondorioz gertatzen direla ematen du, hain zuzen ere, azkenean edozein motatako arazo bihurtzen diren zailtasunen ondorioz. Jaime Funesez dioenez<sup>39</sup>, zalantza hau dago oraindik: “ea historia pertsonal horiek sortu bazuten bazterkeria edo ea baztertuak direla ikusteko modu bakarra zoratuz eta hondatuz bada”.

Alde horretatik, galdera hau egin diezaiokegu geure buruari: zein segmentu edo sektoretatik datozen pertsonak amaitzen dute gaur egun gizartean larriki baztertuta? Galdera horri erantzuteko, hainbat profesional ditugu informazio-iturri izateko: pertsona adituak eta ikertzaileak, etxerik gabeko pertsonen arreta zuzena ematen lan egiten dutenak edo administrazioan edo erabakiak hartzen lan egiten dutenak.

Esate baterako, M<sup>a</sup> Rosario Sánchezi jarraituz<sup>40</sup>, eskema honekin laburbilduko dugu profil aldaketa hori:

#### 4.2. GRAFIKOA: ETXERIK GABEKO PERTSONAREN PROFILAREN BILAKAERA




Beraz, **beste profil batzuk** ere badaude orain: pertsona gero eta gazteagoak, emakumeak, etorkinak eta buruko gaixotasunak dituzten pertsonak.

<sup>39</sup> Bilboko Udala-Datlan. "Estudio diagnóstico: Plan estratégico y operativo sobre la Alta Exclusión". Bilboko Udaleko Gizarte Ekintzako Atala, 2003.

<sup>40</sup> Sánchez Morales, M.R. Op. cit.

Bestalde, Bilboko Udaleko etxerik gabeko pertsoneri arreta emateko dispositiboetan lan egiten duten pertsonak aurre egin behar dituzten egoera ohikoenak aipatzen ditu bazterkeria larriko egoeretarako Inter-Áreas lan taldeak egindako lan-dokumentu batek<sup>41</sup>. Honako grafikoa aurkeztuko dugu:

#### 4.3. GRAFIKOA: ARRETA EMATEKO ZERBITZUETAN ATENTZIOA JASOTZEN DUTEN PERTSONEN PROFILAK



Alde horretatik, ikerketa honetan lankidetzan aritu gara lan egonkorreko taldeekin, eta talde horiek identifikatu dutenez, profil berriak ezberdin egiten dituzten ezaugarri batzuk bat datoz ikerketaren arloko pertsona adituek adierazitako joerekin.

Etxerik gabeko pertsonen profilaren bilakaerak, eta premia gehiago eta askotarikoak ugaritzeak, eragin garrantzitsua izan du etxerik gabeko pertsoneri arreta ematen dien zirkuituan. Gaur egun, arreta emateko baliabideak eta zerbitzuak definituta dauden eran, arreta desegokia jasotzen ari diren premiak daude eta arretarik jasotzen ez duten beste batzuk, txosten honetako seigarren kapituluan adierazten dugunez. Lankidetzat-talde egonkorrek eta kontsultatutako pertsonak identifikatu egin dituzte gero eta zabalduagoak dauden profilak, eta jarraian azalduko ditugu.

#### GERO ETA ZABALDUAGOAK DAUDEN PROFILEN EZAUGARRIAK

Oinarrizko premiei arreta emateko baliabideetan nabarmena da gero eta gazte gehiago daudela, adin txikikoen ardura duten familia-taldeak, bakarrik “mugitzen” diren emakumeak, toxikomania-arazoak dituzten emakumeak, buruko arazoak dituzten pertsonak, bazterkeria prozesuak hasten ari diren etorkinak eta etxebizitza galdu duten pertsonak edo ahultasun handiko egoeran daudenak.

Bestalde, pertsonak arreta emateko sarera doazenean duten **hondatze-maila** asko handitu dela ikusi da; pertsona “gero eta apurtuagoak” dira, droga eta alkohol gehiago kontsumitzen dutenak; eta askok buruko gaixotasunak dituzte.

<sup>41</sup> Inter-Áreas lan taldea: “Propuestas de actuación con personas sin techo en el municipio de Bilbao”. Bilboko Udaleko Gizarte Ekintzako Atala, 2004ko maiatza.

Arretaren ikuspegitik, pertsona horiei ematen zaien **arretarengan eragin handia dute** profilaren aldaketak eta profil berriekin lotutako premiek. Alde horretatik, gero eta zabaldagoak dauden profil horiei eta premia berriei arreta ematerakoan dagoen zailtasunik handiena hauxe da: gaur egun zehaztuta dauden eran, dispositiboek ezin diete erantzun egokirik eman egoera horietako batzuei. Gainera, ez dago sortzen ari diren profil horiei arreta emateko baliabide espezifikorik, eta, horren ondorioz, batzuetan beren premiei ez zaie erantzuten edo ez zaie erantzun egokirik ematen, ezin zaielako arretarik eman horretarako sortutako dispositibo espezifikoetan.

## A) BIZTANLE ETORKINEN KOPURUAK GORA EGIN DU

Immigrazioa gure gizartean hazten ari den fenomeno da. Hasiera batean, ez datoz bat “etxerik gabeko pertsonaren” profilarekin, ikerketa honetan eman diegun definizioaren arabera. Izan ere, gehienetan, beren arazoak berehala behar dituzten premia materialekin daude lotuta, bai eta beren egoera arautzeko zailtasunekin ere. Hala ere, etxerik gabeko pertsonentzako dispositiboek sarean sartzen dira azkenean, ezin dituztelako erabili baliabide normalizatuak. Beraz, batzuetan, administrazio egoerak baztertu egiten ditu eta, gainera, bizirik irauteko modu ez oso “normalizatuak” erabiltzen dituztenez, estigmatizatu egiten dira.

Alde horretatik, immigrazioa duela gutxi sartu da etxerik gabeko pertsonen dispositiboetara, eta fenomeno honen gainean berriro pentsatzea eskatzen du, prebentziorako mekanismoak egokitzea, gizarte bazterkeria larriko egoerak saihesteko, eta biztanle etorkinentzako baliabide espezifikoak berriro doitzea.

Asko eta askotarikoak dira une jakin batean muturreko bazterkeria prozesuak hastea erraztu edo oztopatu dezaketen faktoreak. Hori erakusteko, egiturazko, familiako edo harremanekin lotutako zenbait faktore adieraziko ditugu, faktore horiek laguntzen baitute immigrazio ekonomikoa etxerik gabeko immigrazio bihurtzen:

→ **Administrazio egoera irregularra:** *“Epe luzeetan gizartean ikusezina izanda bizitzaren ondorioz, edozein bermetik kanpo moldatzen dira eta, beraz, ez dute gizarte zerbitzurik eskuratzen, prekarietate handiko egoeran lan egiten dute eta kalitate oso txarrekoak diren espazioetan bizi dira, pilaketa eta bizigarritasun- eta bizikidetzak baldintzak direla-eta”<sup>42</sup>*. Legez kanpoko administrazio egoeran daudenez, ezin dute lan-merkatuan parte hartu, eta, horren ondorioz, zailagoa egiten zaie etxebizitza lortzea eta baliabide propioak eskuratzea. Horrelakoetan dagoen premia egoera dela-eta, bazterkeria larriari arreta emateko baliabideak erabiltzen dira. Horrek baliabide horiek betetzea dakar, baita bizikidetzak-tentsioak eta lehiakortasun egoerak ere, baliabide gutxi daudelako eta partekatu egin behar direlako.

Arreta-egituran sortzen diren zailtasun horiez gain, badago beste bat: hasiera batean zailtasun gehigarriak ez zuten pertsonak baztertuta bizitzen auzitea eta

<sup>42</sup> Sánchez Morales, M<sup>a</sup> R. Tezanos Vázquez, S. “Los inmigrantes” sin hogar” en España: un caso extremo de exclusión social”. Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren aldizkaria. 55. zk. 49. orr.



muturreko bazterkeriako prozesuetara eramango dituzten portaerazko jarraibideak hartzen bukatzea, batez ere, etsipenez eta era marjinallean bizirik iraunez bizi badira.

- **Etxebizitza:** egia da etxebizitza eskuratzeko zailtasunak gizarteko beste sektore batzuei ere eragiten diela, baina, biztanle etorkinen kasuan, zailtasun horiek nabarmen larriagotu daitezke, beren administrazio egoeraren ondorioz. Izan ere, egoera horrek eragotzi egiten die, esaterako, soldata-orri bat abal gisa aurkeztea (batzuetan ezinbesteko baldintza da etxebizitza bat alokatu ahal izateko). Gaur egun nazionalitate jakin batzuei buruz gizartean dauden aurreiritzien ondorioz ere larriagotu daiteke egoera.
- **Norberaren gaitasunak eta trebeziak eta laguntza eta solidaritatea eskaintzeko sare informalak** egotea edo ez egotea: biztanle etorkinen artean badaude pertsona batzuk legez kanpoko administrazio egoeran dauden arren baliabide familiarak, pertsonalak eta gaitasunak dituztenak, eta, horri esker, beren egoera legez tatu dezakete apurka-apurka eta bazterkeria larriko prozesuetan ez sartzea lortu dezakete. Beste batzuek, berriz, ez dute horrelako baliabiderik eta, hortaz, beren egoera are ahulagoa da, ez dutelako etxebizitarik ezta familia- edo komunitate-baliabiderik ere, eta ez dute baliabide normalizatuak eskuratzeko aukerarik. Ahultasuna handiagoa da emigrazio-ehuneko txikia duten herrialdeetatik datozen pertsonengan, oraindik ez dutelako garatuta laguntza emateko sare informalik (esate baterako, Afrikako herrialde gehienekin gertatzen da hori).
- **Gizarte gaitzespena:** aurreiritziek eta instantzia politikoek eta komunikabideek igorritako mezuek, hau da, immigrazioa eta kriminalitatea lotzen dituzten mezuek, bai eta etxerik gabeko gero eta etorkin gehiago kalean egoteak, kolektibo horrenganako gizarte gaitzespena sortu du, eta zaila egiten du pertsona horiek “normaltasunez” gizarteratzeko aukera.

Ez da erraza une honetan bazterkeria larriari zuzendutako baliabideetan arreta jasotzen ari diren pertsona etorkinen kopurua kalkulatzeko. Ez dago partekatutako informazio-sistemarik ezta erregistro izendunik ere eta, beraz, pertsona berari hainbat baliabidek eman diezaizkete arreta eta pertsona hori hainbat aldiz kontatu dezakete.

Hala ere, ikerketa honetan lagundu duten erakundeen memoriak aztertu ditugu, eta adierazi dezakegu azken urteetan asko handitu dela horrelako baliabideetan dauden pertsona etorkinen ehunekoak. Laurogeita hamarrekoko hamarkadaren erdialdetik aurrera, hau da, immigrazioaren fenomenoak gizartean garrantzi handiagoa izaten hasi zuenetik, biztanle etorkinen kopuruak gora egin du gutxika-gutxika. Gaur egun, kalkulatu da EAEko gizarte harrerako zentroak eta gaueko zentroak erabiltzen dituztenen %50 baino gehiago etorkina dela<sup>43</sup>. Dispositibo batzuetan, pertsona etorkinen kopurua %80a iritsi da<sup>44</sup> eta, horren ondorioz, dispositiboak egoera berri horretara egokitu behar izan dira.

<sup>43</sup> EAEko udaletako gizarte harrerako zentroen 2004ko memoriak.

<sup>44</sup> Bilboko Lagun-Artean gaueko zentroa. 2004ko datuak.

Bazterkeria larriari arreta emateko baliabideetan dauden biztanle atzerritarrek talde oso heterogeneoa osatzen dute, beren jatorrizko herrialdearen aldetik. Gehienak Magrebetik eta Sahara azpiko Afrikatik etorritakoak dira eta, horien ostean, Europako ekialdeko herrialdeetatik heldutakoak daude, eta, neurri txikiagoan, jatorri hegoamerikarra dutenak.

## B) GERO ETA PERTSONA GAZTEAGOAK

Gero eta pertsona gazteagoak daude kalean eta hondatze-maila altua eta kontsumo aktibo handiak dituzte. Egoera horrek sektoreko eragileak aztoratu ditu, eta hausnarketa-epe bat ezarri behar dela uste dute, jarduteko ildo egokienak zein diren zehazteko.

Etixerik gabeko pertsona gaztearen profila askotarikoa da; toxikomaniaren, buruko gaixotasunen bat edo gauza biak dituzten gizon-emakumeak, familia-gatazka larriak eta gizarte deserrotzeko egoerak bizi dituzten gazteak edo gazte atzerritarrak dira. Ikerketa honetan egin diren galderetan hiru profil identifikatu dira batez ere:

- **Gazte ibiltariaren profila:** 30-40 urte inguruko pertsonak dira, mendekotasun edo nahasterik ez dutenak, baina bizimodu hori hautatzera eraman dituen gertaera traumatiko pertsonalen batek markatuta daudenak.
- **Buruko gaixotasunen bat edo jokabide-arazoren bat duten gazteak:** 18 eta 25 urte bitarteko gazteak dira, substantzien kontsumo handi baten ondorioz psikikoki eta fisikoki oso hondatuta daudenak. Pertsona oso gazteak dira; batzuetan, etxerik gabeko pertsonak baino gehiago, kaleetan “alderrai dabiltzan” gazteak dira, etxea izan arren, azken aukera denean joaten direnak bertara. Hiri handietan horrelako gazteen kopuru egonkorra dago. Berehalako premia- ren bat konpontzeko joaten dira baliabideen sarera. Batzuetan, izaera bortitza dute, batez ere kontsumo-maila handiak dituztelako. Horren ondorioz, gatazkak sortzen dituzte pertsona horiei arreta ematen dieten baliabideetan eta bertatik kanporatzen dituzte, talde profesionali ezinezkoa egiten zaielako eusteko lana egitea.
- **Gazte atzerritarrak:** jatorri marokoarra izan ohi duten gazteak dira, adin txikikoei babes emateko zentroetatik datozenak. Adin nagusitasuna bete eta gero, ez dute lan egiteko baimenik izaten ezta gizarteratzeko prozesua jarraitzea ahalbidetuko dien baldintzarik ere. Utzikeriazko bizitza izan dute eta hainbat babes-zentrotatik ihes egin dute. Adin nagusitasunera heldu direnean, inor ez da gazte horietaz arduratu eta kalean geratu dira. Gazte horietako batzuek gure inguruan oso normalak ez diren substantziak kontsumitzen dituzte, esate baterako disolbatzaileak. Substantzia horiek jokabide bortitzak sortzen dituzte, eta hain zabalduta ez dauden prozesuak beharrezkoak dira kontsumitzeko ohitura galtzeko eta desintoxikatze-ko.

EAEko ostatu emateko baliabideen eta gaueko zentroen memoriak aztertuta honako ondorioa ateratzen da: 30 urte baino gutxiago dituzten pertsona asko daude; zenbait baliabideetan %60tik gorakoa da ehunekoa<sup>45</sup>.

### C) BURUKO GAIXOTASUNA ETA KONTSUMO AKTIBOAK GEHIAGO NAGUSITZEN DIRA

Manuel Manuel Muñozek eta beste autore batzuek<sup>46</sup> Madrilen egindako ikerketa batean adierazi dutenez, eskizofreniaren gisako nahasteen prebalentzia %4 eta 28ren artean dago etxerik gabeko pertsonetan, eta depresio-tasak %15 eta 20 artean daude. Prebalentzia-indize horiek oso handiak dira etxea duten biztanleek dituzten indizeekin alderatuz gero. Halaber, nabarmendu dute buruko gaixotasuna eta etxerik ez izatea lotu zituzten lehenengo ikerketek erakutsi zutela biztanle horiek buruko arazo asko dituztela. Ikerketa horiek Estatu Batuetan egin ziren 1991n. Datu fidakorrenetako batzuen arabera, etxerik gabeko pertsonen %25-35 bitartean dira buruko osasunarekin arazo larriak dituztenak.

Buruko gaixotasuna hondatuta izateari buruzko indize handiago horiek adierazten dute, alde batetik, hondatze horrek zein eragin duen etxerik ez izatearen arrazoietan eta egoera horrek jarraitzean eta, bestetik, eta batez ere, zelako eragin txarra izan dezakeen egoera horretan daudenen buruko osasunean etxerik ez izatearen egoerak eta estresa sortzen duten bizitako gertaerek.

Hala ere, Manuel Muñozen eta bere lankideen iritziz, azpimarragarriena alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoaren, gehiegizko erabileraren eta mendekotasunaren gaineko indizea da. Esaterako, Madrilen etxerik ez duten pertsonen ia %50i eragiten dio horrek.

EAEn, lan taldeek adierazi dute buruko arazoren bat duten etxerik gabeko pertsonak direla gizarte eta osasun arretaren eskaintzatik kanpo geratzen diren profil nagusietako bat. Batzuetan, pertsona horiek ez dutelako hurbildu nahi eskura dituzten baliabideetara; beste batzuetan, zerbitzuak eta baliabideak ez direlako gai eta ez direlako egokiak pertsona horien berezitasun eta ezaugarrietara egokitzeko, eta, beraz, hondatze- eta marjinazio prozesuak betikotu egiten dira.

Hortaz, pertsona horiek ez dute soilik ostatu hartzeko, mantenerako eta harremanetarako beharra, baizik eta osasun arreta, errehabilitazioa eta, askotan, tutoretza juridikoa eta instituzionala ere behar dituzte. Horrenbestez, premia konplexuak dituzten pertsonak dira, eta beharrezkoa da premia horiei erantzun integrala eta koordinatua ematea.

Alde horretatik, lan talde horiek ardura handia erakutsi dute **patologia duala** duten pertsonen kopurua handitu delako: buruko arazoak eta kontsumo aktiboak dituzten pertsonak. Batzuetan, horrelako arazoak dituzten pertsonak bizikidetzagatazka sortzen dituzte, psikiatrikoki egonkor ez daudenean. Gatazka horiek gizarte baliabi-

---

<sup>45</sup> Egonaldi laburreko eta ertaineko baliabideetan Emaus-en Donostiako tutoretzapeko pisu batek du 30 urtetik beherako pertsonen ehunekorik txikiena (%8). Adin horretako pertsonen ehunekorik handiena, berriz, Elkarbanatuz elkartearen Ondoan proiektuak du (%65). 2004ko datuak.

<sup>46</sup> Askoren artean "Los límites de la exclusión: Estudio sobre los factores psicosociales y de salud que afectan a las personas sin hogar en Madrid". Ediciones Témpera S.A. Madril, 2003. 29. orr.

de baten gaitasunak ere gaintitzen dituzte. Hori dela-eta, askotan pertsona horiek kanporatu egiten dira; beraz, arreta jasotzetik kanpo geratzen dira eta oinarritzko premiei arreta emateko sarean sartzeko aukera gutxiarekin. Gainera, kontsumo-maila handiak dituzten pertsona batzuek jokabide-arazoak dituzte, eta horrek bortizkeria egoerak sortzen ditu.

Hortaz, zaila da pertsona horiei arreta ematea, ez dagoelako patologia dualtara egokitutako ekipamendurik, osasun- eta gizarte arloaren arteko koordinaziorik ez dagoelako eta pertsona horiek etengabe daudelako buruko osasunarekin lotutako baliabideetan "sartzen eta irteten".

Etixerik gabeko pertsonak dituzten buruko arazo batzuekin ez da beharrezkoa zentro psikiatriko batean sartzea; medikazioarekin eta jarraipen egokia eginda posible izango litzateke pertsona horiek gizarteratu daitezten lortzeko lan egitea. Hala ere, kaleko bizitzaren egonkortasun ezak ez du errazten pertsona horiei segimendua egitea ezta tratamenduak jarraituak izatea ere.

Gizarte arreta emateko saretik kanpo geratzen den beste profil bat da **diagnostikatu gabeko edo tratatu gabeko buruko gaixotasunen** bat duten pertsonak osatzen dutena. Egoera horrek asko zailtzen du erakundeek gizarteratzeko prozesuak hasteko egiten duten lana. Izan ere, ezinezkoa da alderdi sozialak eta harremanekin lotutakoak lantzea psikiatrikoki konpentsatuta ez dagoen pertsona batekin eta, beraz, beren lana kalteak gutxitzera eta pertsonaren euskarri izatera bideratuta dago.

## D) EMAKUME GEHIAGO EGOTEA

Etixerik gabeko pertsonen artean gero eta emakume gehiago dago. Halaber, badakigu emakumeen egoera ez dela gizonezkoen egoeraren berdina, ezta etixerik gabeko pertsona izatera heltzeko bidea ere, ezberdintasun batzuk ditu.

Emakumeak orain dela gutxitik daudenez talde horren barruan, oraindik ez dago fenomenoaren dimentsioa ezartzeko azterlanik<sup>47</sup>; tradizionalki emakume gutxiago egon dira egoera horretan eta orain gora egiten ari da kopurua, baina horren arrazoiak azaltzen duen iritzi adosturik ere ez dago, ezta beren hondatzea gizonezkoena baino handiagoa izan ohi den ala ez ikertu duen azterlanik ere. Azterlanik ez badago ere, galdera horietako zenbaiti erantzuten saiatuko gara jarraian.

Fenomenoaren dimentsiotik hasita, gorakada horretarako eman diren arrazoen inguruan ez dago adostasunik. Alde batetik, emakumeek prekarietatearen mugak gaintitu dituzte etixerik gabeko pertsonak izandako profil aldaketarekin, eta bazterkeria muturrekoenean daude, parte-hartze handigoa dutelako etxebizitza eta gizarte loturak galtzeko prozesuetan.

<sup>47</sup> Ikerketa hau egiteko unean, Euskal Estatistika Erakundea-EUSTAT, Estatuan dagoen maila bereko erakundeekin (Estatistikako Institutu Nazionala-INE) lankidetzan, azterketa kuantitatibo bat egiten ari zen, gure erkidegoan zeuden etixerik gabeko pertsonen kopurua ezartzeko eta pertsona horien oinarritzko profila zehazteko.

Bestalde, etxerik gabeko emakumeentzat eskura dauden baliabide eta zerbitzuen kopurua handitu denez, egoera horretan bizi den emakumerik ez dagoelako ustea gutxitu da eta, beraz, gorakada euskal administrazioak hartutako neurriekin lotzen da batez ere, hau da, gizonak eta emakumeak baliabideetara berdintasunean sartu daitezen errazteko hartu dituen neurriekin.

EAEko memorien<sup>48</sup> azterketatik ateratako kopuru batzuk ditugu eta Espainiako estatu egindako azterlan batzuetan eskuratutako zenbait erreferentzia. Azterlan horiek erakunde publiko eta pribatuek egin dituzte edo tokiko administrazioek<sup>49</sup>. Datu horiek partzialak eta mugatuak dira, baina gertatzen denaren nolabaiteko ikuspegi globala eskaini diezagukete.

EAEEn, %4ko gutxieneko ehunekoa<sup>50</sup> eta %34ko gehienekoa<sup>51</sup> kalkulatu da egoitza-baliabideetan. Ohikoena da ostatu egonkorra edo ez hain egonkorra eskaintzen duten dispositiboetan emakumeak %20 inguru izatea, eta hondatuen dauden biztanle-mailtan gizonezkoak baino gutxiago izan ohi dira. Estatu espainiarrean, emakumeek etxerik gabeko pertsonen %15-16 osatzen dute gaur egun, baina aurreko paragrafoetan adierazi dugunez, azterlan batzuek diote %24 direla<sup>52</sup>.

Horrelako esparruetan emakume gutxiago egon izanaren arrazoiari dagokionez, beharrezkoa da adieraztea emakumeek bazterkeriako prozesu opakuagoak bizi dituztela. Gainera, emakumeak kalean egotea ez da gizonekin gertatzen den bezain bistakoa, baina horrek ez du esan nahi baztertuta ez daudenik. Horren azalpenetako bat generoaren arabera gizartean egin den eginkizunen esleipen tradizionala izan daiteke. Banaketa horrek familiako kideak zaintzeko erantzukizuna eman die emakumei historian. Izan duten eginkizunaren ondorioz, bizitzeko eta gizarte eta familia harremanak izateko lekua eduki dute, gizonezkoek baino gehiago, lekua egokiena izan ez denean eta harremanak ez direnean izan gogobeteta egoteko modukoak ere. Bestalde, badaude opakuagoak diren diru-sarrerak lortzeko moduak eta bazterkeria prozesuak, esate baterako prostituzioa; eta emakumeak gizonezkoak baino askoz gehiago dira horrelakoetan.

Hori dela-eta, aztertzen ari garenaren definiziotik bertatik, gizarte bazterkeria larrian bizi diren emakumeak antzemateko aukerak mugatuta daude bi arrazoiengatik:

---

<sup>48</sup> Lan talde egonkorren bitartez azterlan hau egiten lagundu duten erakundeek 2004. urteko memoriak.

<sup>49</sup> Estatu espainiarrean etxerik gabeko pertsonen buruz egin diren azterlanen artean, Caritasek 1985ean egin zuen txostena nabarmendu dezakegu eta 1991n Gizarte Gaietako Ministerioak egin zuena. Hala ere, azken horrek aterpetxeak erabiltzen dituzten pertsonak baino ez ditu aipatzen. Maila lokalean, José Cabrerak 1995ean egin zuen txostena azpimarratzen dugu, Madrilgo etxerik gabeko pertsonen buruz. Informazio hori honako artikuluan agertzen da: artículo "Personas sin hogar: con la dignidad auestas." Aldizkaria: "En Portada: Solidarios" Autorea: Ángel Gonzalo, Agencia de Información Solidariakoa (AIS).

<sup>50</sup> Bilbon Lagun-Arteanek kudeatzen duen gaueko zentro iraunkorrean dauden emakumeen ehunekoa. 2004ko datuak.

<sup>51</sup> Gasteizen Arabako hiesaren kontrako batzordeak kudeatutako "Besarkada Etxea"-n dauden emakumeen ehunekoa. 2004ko datuak.

<sup>52</sup> Gonzalo, A. Agencia de Información Solidaria (AIS) "Personas sin hogar: Con la dignidad auestas".

- Ez dira kalean bizi diren pertsonak, baizik eta ostatu prekarioetan eta infraetxebizitzetan bizi ohi dira.
- Beren egoera definitzen duen aldagai nagusia ez da deserrotuta egotea, batzuetan dituzten familia- edo bikote-harremanak harremanik ez izatea baino kaltegarriagoak izan badaitezke ere.

Etixerik gabeko emakume horien profila askotarikoa da oso, esate baterako. kontsumo aktiboekin lotutako edo lotu gabeko buruko patologia dituzten emakumeak, emakume toxikomanoak, familia-zamak dituzten emakumeak... Oro har, etxerik gabeko pertsonentzako baliabideetara bikotearekin joan ohi dira; orain arte ez da ohikoa izan “bakarrik dagoen emakume oinezkorik” aurkitzea.

Paradigmatikoa da emakumeek gizonak baino gehiago parte hartzea pobrezia eta gizarte bazterkeriako prozesuetan eta, hala ere, etxerik gabeko pertsonen arreta emateko baliabideak gizonak baino nahiko gutxiago erabiltzea. Alde horretatik, kontsultatutako pertsonen gaiaren gainean adierazitako zenbait hipotesi aipatu ditzakegu:

- **Eskatu beharreko baliabide edo prestazio mota:** prestazioa edo zerbitzua substantzien mendekotasuna edo etxerik gabe egotea bezain gauza estigmatizagarriekin lotzen denean, emakumeen irudi sozialak gehiago egiten du okerrera, eta euren artean lotsa sentimendua handiagoa da, egoera hori gizartean “txarrago ikusita” dagoelako. Emakumeen kopurua gizonena baino nahiko handiagoa da eskatu behar den baliabidea edo zerbitzua hain estigmatizagarriak ez diren prestazio ekonomikoekin edo laguntzakoekin lotuta dagoenean, esate baterako, oinarrizko errenta edo gizarte larrialdietarako laguntzak eskatu behar dituztenean.
- **Gizonentzat antolatutako baliabideak:** etxerik gabeko pertsonen profila tradizionala dela-eta, etxerik gabeko pertsonen oinarrizko premiei erantzuna ematen dieten baliabideak eta zerbitzuak gizonentzat antolatuta zeuden eta, arrazoi beragatik, emakumeentzat berariaz antolatutako baliabide gehienak familian dituzten erantzukizunengatik edo tratu txarrak bizi izan dituztelako sortu dira. Baliabide mistoak deitzen direnak emakumei erabiltzea uzten zaien gizonentzako baliabideak dira benetan. Alde horretatik, emakumeek ere erabiltzen dituztenez, zenbait espazio eta jarduera berriro antolatu behar izan dira. Horrez gain, profesionalen taldeek baliabideak eta estrategiak garatu behar izan dituzte, emakume horiei arreta emateko, ez dituztelako gizonen premia eta inplikazio emozional berberak.
- **Sozializazio prozesua:** emakumeak autonomia handiagoa izateko eta beren intimitatea gehiago kontrolatzeko sozializatu dituzte, eta horrek “itzalean” eta bakarrik egindako hondatze prozesua ekarri du. Bestalde, pertsona horren familia aktiboagoa izaten da eta sarriago esku hartzen du emakumeek muturreko bazterkeria-prozesuetan jarraitu dezaten saihesteko.

## E) ETXEBIZITZARIK GABEKO FAMILIAK

EAEn dauden etxebizitzarik gabeko familien kopuruak ez du banaketa homogenea Lurralde Historiko guztietan. Esaterako, Bizkaian eta Gipuzkoan kontsultatu diren

pertsonak ez dute profil horren gorakada handirik igarri azken urteetan; Araban, eta zehatzago Gasteizen, berriz, etxerik gabeko pertsonen kopuruak gora egin du gutxika-gutxika azken urteetan. Alde horretatik, profil horri arreta emateko baliabide espezifikoak sortzeak “dei efektua” sortu du agian, eta etxerik gabeko pertsonak udalerrri horretan batu daitezela lagundu du.

Normalean **jatorri atzerritarra** duten familiak dira, gehienak Europako ekialdeko herrialdeetatik etorritakoak, jatorrizko herrialdean zuten bizitza baino hobea edukitzeko itxaropenez etorri direnak. Oro har, bizimodu nomada duten familiak dira eta hirien kanpoaldeetan kokalekuak egin ohi dituzte. Antzeman ziren lehenengo kokalekuak familia-talde handienak ziren eta ibiltariak ziren, hau da, ez zuten hirian bizitzen geratzeko asmorik. Gizarte baliabideak erabiltzen zituzten, baina egonaldi laburrerako zentroetan baino ez, epe mugatu batean.

Ezaugarri nagusietako bat da familia zabalak direla, hau da, hainbat belaunaldik osatutako familiak dira eta adin txikikoen ardura dute. Hortaz, gizarte zerbitzuak erabiltzen hasten direnean eta adin txikikoak daudela ikusten denean, ostatu hartzeko baliabide egokietara bidaltzen dituzte, hori egiteko aukera egonez gero. Adin txikikoak dituzten familia-taldeek dakarten zailtasunik handienetako bat da baliabideak ez daudela antolatuta familiei arreta emateko.

**Nomadak** direnez, zaila da gizarte zerbitzuen sare normalizatuan sartzea. Gainera, erroldatzeko zailtasunak izaten dituzte. Familia horietako batzuek aldi bat baino ez dute egiten kokalekuetan edo gizarte harrerako udal zentroetan. Hori dela-eta, euskarri-lana egin ohi da (oinarrizko premiak betetzea) inguruan dauden dehoran.

## **F) ARRISKUAN ETA AHULTASUN EGOERAN DAUDEN PERTSONAK, ETXEBIZITZA GALDU DUTELAKO**

Gure definizio metodologikoa kontuan hartuz gero, ez dira espezifikoak etxerik gabeko pertsonak. Dena dela, komenigarria iruditu zaigu gizarte arrisku larriko prozesuak hasteko benetako arriskua duten profilen artean, beren ohiko bizilekua izan den etxebizitza galdu dutelako.

Arreta emateko baliabideek arazo ekonomiko larriak dituzten familien kasu asko antzematen ari dira; arazo horiek dituztenez, etxebizitza galtzen dute. Adin txikikoak dituzten familiak dira; baliabide ekonomiko nahikorik ez duten eta familia-ardurak dituzten emakumeak, ezkutuko ekonomiako enpleguekin bizi direnak; bakarrik dauden gizonak, familia-banaketatik datozenak; eta familia-laguntzako sarerik ez duten adineko pertsonak, pentsio oso txikiekin eta egoera prekarioan bizi direnak. Pertsona horiek Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eskatzera joaten dira laguntza-sarera eta gizarte ahultasun handiko egoeran daude.

Azpimarratu behar da gure Autonomia Erkidegoan adineko pertsonentzako egoitzen sarea garatu egin dela, eta, horri esker, etxerik gabeko adineko pertsonen kopurua nahiko gutxitu da, duela hogeit hamar urte ohikoa bazen ere etxerik gabeko adinekoak egotea.

#### 4.2.2. **EAEko ETXERIK GABEKO PERTSONEN PROFILERA HURBILTZEA**<sup>53</sup>

Aipatu dugu etxerik gabeko pertsonen talde heterogeneoa eta askotarikoa osatzen dutela; egoera asko eta askotarikoetan bizi dira eta premiak ere horrelakoak dituzte. Hala ere, maila handiagoan edo txikiagoan pertsona horietako guztiek dituzten zenbait faktore aipatuko ditugu:

- **Faktore ekonomikoa:** etxerik gabeko pertsonak baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak dira eta, oro har, eskasia ekonomiko kronikoa dute, eta eskasia hori ez da konpontzen oinarriko premiak betetzearekin soilik. Gainera, pertsona batzuek arazo handiak dituzte beren baliabide ekonomikoak kudeatzeko.
- **Harremanen faktorea:** familiaren babesik ez duten pertsonak dira, hurbileko pertsonekin harreman guztiak apurtu dituztenak. Gizarte loturarekin hautsi dutenez eta leku batekoa izatearen eta errotuta egotearen zentzua galdu dutenez, afektibitate- eta -harreman-gabeziak dituzte. Hain bakartuta daude gizartean beren inguruetik urrundu egiten direla. Oro har, gabezia horiek gertaera pertsonal traumatikoen ondorioz etorri dira, eta etengabeko bakardadean egotera kondenatu ditu, eta beren lotura sozial guztiak urratu ditu.
- **Egoeraren faktorea:** etxebizitza galtzea edo trebakuntzan, kulturen eta lanean gabeziak izatea hasierako uneetan agertzen diren arazoak dira eta ez dira konpontzen, batez ere, pertsona horiek duten bizimoduagatik. Gizarteratze prozesuen ondorioz, epe batzuetan lanean egon daitezke, baina une zehatzak izan ohi dira. Ostera, osasun-arazoei, hondatze fisikoari eta psikikoari egin behar diote aurre egunero, eta okerrera egiten dute.

Ez dugu egin nahi EAEko etxerik gabeko pertsona guztiei aplikatu ahal zaien profil estatistikorik. Egin nahi duguna argazki bat da, gaur egun duten profila, premiak eta zailtasunak deskribatuko dituena. Ez da lagin adierazgarria egin nahi, pertsona horiek erraztasunez joaten direlako baliabide batetik bestera, eta premia eta zailtasun oso askotarikoak dituzte, baina bistakoa da premia eta zailtasun horietako zenbait egoera horretan dauden pertsona guztiek dituztela.

EAEko etxerik gabeko pertsonen oinarriko ezaugarri soziodemografikoak eskuratzeko, informazioa hartu dugu ostatu emateko baliabideen memorietatik eta epe laburrerako gaez erabiltzeko diren zentroen memorietatik. Arrazoi bi izan ditugu horretarako:

- Mugikortasun handiko baliabideak dira eta, normalean, gizarte bazterkeria larriari arreta ematen dieten baliabideetan egingo den denboraren lehenengo urratsa izan ohi dira.
- Pentsatu dugulako horrelako zerbitzuak eskuratzen dituzten pertsonen profila askotarikoagoa dela. Izan ere, oro har, gizarteratzeko egoitzazko baliabideak eta

<sup>53</sup> EAEko hiru hiriburuetak aterpetxeetako 2004ko memorietan erregistratutako ehunekoaren batez bestekoa dira aurkeztutako datuak, hain zuzen ere, aterpetxe horietako egonaldi laburrerako moduluetako, gaueko zentroetako eta gizarteratzeko zentroetako ehunekoak dira.



epe luzeagoko egonaldietarako baliabideak premia zehatz batzuen profilari arreta ematean egoten dira espezializatuta.

Egoera zibilari eta trebakuntza-mailari buruz aurkeztu diren datuak hainbat ikastarotan jaso den informaziotik atera dira, hain zuzen ere, EAEko gizarteratzeko zentroetan egiten diren ikastaroetatik, ez baita ohikoa epe laburreko egonaldietarako egoitzazko baliabideetan eta gaueko zentroetan horrelako informazioa batzea.

## A) SEXUA

Epe laburrerako baliabideak erabiltzen dituzten pertsonen %80 gizonetzkoa da. Emakumeak %20 dira, baina lehenago esan dugunez, profil hori gero eta ohikoagoa da, ez bakarrik familietako amengatik, baizik eta toxikomaniak izanik bakarrik dauden emakumeengatik ere.

Ezin dugu esan joera orokorra denik, baina sektoreko eragile batzuek adierazi dute epe laburreko zentroak erabiltzen dituzten emakumeen artean gehiago direla emakume atzerritarrak, hainbeste gaixotasunekin lotutako hondatze fisiko larriak dituztenak, gehienetan sexu bidez kutsatu direlako. Toxikomaniak edo prostituzioak beste zama bat dute, gizartean estigmatizatuta daudelako eta lotsa sentiarazten dielako. Horregatik, denbora gehiago behar izaten dute laguntza eskatzeko eta gizarte zerbitzuetan sartzen direnean, batzuetan, egoera fisiko eta psikologo oso txarrean egoten dira.

## B) ADINA

Etixerik gabeko pertsonak 30 eta 45 urte bitartean izan ohi dituzte, adin tarte horretan daudenak %60 dira, baina nabarmena da 30 urte baino gutxiago dituzten pertsonen kopuruak gora egin duela epe laburreko egonaldietarako baliabideetan; batez ere 18 eta 25 urte bitartean dituen gazte atzerritarraren profila igo da.

Bestalde, 45 urte baino gehiago dituzten etxerik gabeko pertsonak gutxi dira epe laburreko egonaldietarako baliabideetan. Normalean, talde hori da fisikoki eta psikikoki hondatuena dagoena, pertsona horietako batzuek denbora asko daramatelako kalean eta bakarrik bizitzen, eta gizarte babesaren emateko sarerik ez izateak gehiago handitzen du pertsona horien hondatze pertsonala.

45 urte baino gehiago dituzten pertsona gutxi badaude mota horretako baliabideetan honegatik da, neurri batean: pertsona horiek baliabide egonkorragoetara igorri ohi direlako, esate baterako, egoitzetara edo gizarte pentsioetara. Horren bitartez, beren hondatze fisiko eta soziala gutxitu eta kontrolatu nahi da. Lanean hasteko aukera mugatuak dituen adin-taldea da eta, askotan, osasunean gabezia handiak dituzte.

## C) EGOERA ZIBILA EDO BIZIKIDETZA EGOERA

Aipagarria da batez ere bakarrik dauden pertsonak direla, babesik gabe; alde horretatik, bakardadeak eta bikote-hausturak oso ohikoak dira. Gizarteratzeko zentroak erabiltzen dituzten pertsonen %60 inguru ezkongabea da, eta ehuneko hori %90era heltzen da bananduta, dibortziatuta edo alargun dauden pertsonen kopurua gehitzen

badugu. Adierazgarria da horrelako baliabideak erabiltzen dituzten pertsonen %10 ezkontuta dagoela, baina familiarekin ez duela inolako harremanik. Hala ere, kasu batzuetan, bigarren belaunaldienganako hurbiltze afektiboak egiten ari dira gizarte-ratzeko prozesuren bat hasi duten pertsonak.

Etixerik gabeko pertsonen ezaugarrietako bat da gertaera traumatikoak bizi izan dituztela. Gehienetan gertaera horiek ezkontza hausturen edo familia-arazoen ondorioz sortu dira, eta horrek gizarte inguruetik bakartzera eramán ditu pertsonok.

## D) TREBAKUNTZA-MAILA ETA LAN JARDUERA

Oro har, etxerik gabeko pertsonak trebakuntza-maila txikia dute, eta hori larriagotu egiten da batez ere kalean bizi direlako eta pertsona horiek guztiak gizartean bakartuta daudelako. Alde horretatik, datuek erakusten dute pertsona horietako gehienek lehen mailako trebakuntza dutela, eta lan egiteko gabeziak dituztela. Halaber, gutxiago dira lanean trebatzeko moduluak egin dituzten pertsonak.

Amaitzeko, goi mailako titulazioen bat duten pertsonen kopurua txikia da (%10 inguru), baina gero eta gehiago hurbiltzen dira horrelako dispositiboetara unibertsitate-ikasketak egin dituzten pertsonak.

Pertsona horietako gehienek beren bizitzako unerén batean lan egin dute, baina gehienak langabezia denbora asko daramaten pertsonak dira eta, beraz, gero eta zailagoa da pertsona horiek lan-merkatu arruntean sartzea.

## E) JATORRIA

Baliabideak eskuratzen dituzten pertsonen jatorria askotarikoa da oso. %50 baino gehiago etorkina da, eta EAeko gaueko zentro batzuetan ehuneko hori ia %80ra heltzen da. Biztanle etorkin gehienak Sahara azpiko Afrikako eta Magrebeko herrialdeetatik etorritako pertsonak dira, bai eta Europako ekialdeko herrialdeetatik etorritakoak ere.

### 4.2.3. ETORKIZUNEN JOERAK: AUKERAK ETA MEHATXUAK

Arlo honetan adituak diren pertsonen aurreikuspenak ez dira oso optimistak “etxerik ez izatearen” fenomenoak gure hurbileko ingurunean izango duen bilakaerari buruz.

Kontsultatu diren pertsona gehienek esan dute fenomeno aurrera egiten ari dela. Izan ere, ez dirudi egoera asko hobetuko denik, gutxienez epe laburrera edo ez hain laburrera, kontuan hartzen baditugu fenomenoan eragina duten aldagaietan ikusten diren joerak, esate baterako, etxebizitza-politika, gizarte ahultasunaren gorakada eta familia zatitzeko prozesuak, besteak beste.

Zerbitzuak ematen dituzten erakundeek, erabakiak hartzen dituztenek eta arreta emateko baliabideak erabiltzen dituzten pertsonak esaten dutenetik abiatuta, aukeren eta mehatxuen azterketa egin dugu. Politika publikoen aldaketarekin eta ingurune sozioekonomiko orokorrek daude lotuta aukera eta mehatxu horiek, eta etxerik gabeko

pertsoneri eta gizarte bazterkeria larriko egoeran daudenei arreta emateko sarearekin daude harremanetan, modu zuzenean edo ez hain zuzenean.

**Politika publikoen esparruan**, kontsultatu diren pertsonen adierazi dute imitatu beharreko ereduak daudela, esaterako, Erkidegoko osasungintzaren eredu edo hezkuntzaren eredu, eta hori aukera bat dela gizarte zerbitzuen sistema egituratzeko eta, zehazkiago, gizarte bazterkeria larriari arreta emateko sektorea egituratzeko. Bestalde, honakoak dira mehatxu nagusiak, pertsona horien iritziak:

- Atzerritarren araudia eta immigrazio-politika murriztailea, estatuan legez kanpo sartu ziren pertsoneri lan-kontratu duina izatea eragozten dielako. Alternatibarik ez dagoenez, pertsona horiek bazterkeria-larriari arreta emateko sarean sartzen dira, nahiz eta beren premiak alderdi materialekin baino ez egon lotuta. Bestalde, administrazioaren aldetik legez kanpo egoteak mugatu egiten ditu beren premiari arreta emateko baliabide espezifikoak sortzeko aukerak.
- Irismen mugatuko etxebizitzako politika publikoa.
- Administrazio prozesuak konplexuak eta motelak dira oinarritzotzat jotzen diren premia batzuei arreta emateko. Oinarritzekoak direnez, berehalako erantzun integrala eskatzen dute.

**Ingurune sozial eta ekonomiko** orokorrean dauden aukerak eta mehatxuak zabalagoak dira, eta laburbilduta aurkeztuko ditugu 4.2 eta 4.3 koadroetan.

#### 4.2. KOADROA: INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKO OROKORREKO AUKERAK

##### 1. Larrialdietarako arreta medikoa **denen esku jartzea**.

2. **Oinarritzko Errenta** eta **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak** egotea, eta gizarte eskubidetzat hartzea. Horrek EAEn bizi diren pertsonen iraupenerako premiari arreta emateko borondate politiko argia erakusten du, eta erreferentzia ezartzen du gutxieneko eskubideak bermatzen dituelako.

3. **Komunikabideek** arreta handiagoa jartzen dute etxerik gabeko pertsonen egoerarengan. Hala ere, arreta hori "*bi ahoko arma*" gisa ikusten da. Izan ere, aukera bat izan daiteke bazterkeria muturrekoen bizi diren pertsonen egoera aditzera emateko, baina kalte egin dezake komunikabideek egoeraren alderdirik negatiboan nabarmentzen badituzte eta gizarte alarma sortzen badute edo, are gehiago, gizartearen gaitzespena sortzen badute pertsona horien gainean eta eurretaz arduratzen diren dispositibo eta baliabideen gainean. Halaber, etxerik gabeko pertsonen egoerari butuz hitz egiteko askotan erabiltzen den hizkuntzak estigmatizatu egiten du.

4. Sektorearentzat aukera bat da etxerik gabeko pertsonen egoerarekin sentsibilizatzen den **ekimen pribatua egotea** eta ekimen hori beren premiari arreta emateaz arduratzea. Izan ere, ekimen pribatuak baliabidez hornitu du sektorea eta erantzun malguagoak ematen ditu. Gainera, erantzun horiek gizarte dinamikien etengabeko aldatetarako egokitu egoten dira.

5. Urte honetan hainbat **ikerketa** eta **azterlan** egin dira etxerik gabeko pertsoneri buruz, eta horrek erakusten du administrazioak errealitatearen diagnostiko zehatzak nahi dituela. Gainera, batzordeak eta espazioak sortzeko aukera ematen dute, arretan esku hartzen duten eragileek honakoei buruz hausnartzeko: alternatiba posiblei buruz eta aurkitutako hutsuneak eta gabeziak gainditzeko proposamenei buruz.

6. Zenbait udalek pertsona etorkinei arreta emateko egin duten lana, berariaz sortutako profil profesionalekin, esaterako, **immigrazio**-teknikariak.

7. **IKTak** (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) erabiltzen hasi dira esku-hartzeko taldeen lan profesionalen, eta horrek programen eta zerbitzuen arteko koordinazioa bultzatu du, eta tresna erabilgarriak ematen ditu gizarte bazterkeria larriari arreta ematen parte hartzen duten erakundeen sarean lan egiteko.

8. Nazioartean, Espainiako estatuan eta EAEn **jokabide onen erreferenteak** egotea aukera bat da ekimen horietako batzuk errealitate zehatz bakoitzari egokitzeko.

#### 4.3. KOADROA: INGURUNE SOZIAL ETA EKONOMIKO OROKORREKO MEHATXUAK

1. Garapenean eta aurrerapenean gizarte desberdintasunak sortzen dituen **eredu ekonomiko soziala** egotea.
2. **Biztanleek** gero eta **oztopo** gehiago **jartzea** etxerik gabeko pertsoneri eta muturreko gizarte bazterkerian daudenei arreta emateko dispositiboak eta baliabideak zabaltzeari. Horren arrazoiak, besteak beste, hauxe da: gizarteak gero eta gehiago galdu du lotura premia horiei arreta ematearekin, horrela gauzatu direlako gizarte jokabidearen joerak. Testuinguru horretan, dinamika horiek bultzatu egiten dute pertsona batzuek zenbait eskubide ez izatea onartzen duen gizarte ereduaren sortzea.
3. **Herritarren segurtasun** ezaren irudipenak gora egin du.
4. Handitu egin da giza balio indibidualisten transmisioa, eta horrek zaildu egiten du “gizarte eskubideak” aldarrikatzea eta premia horiei arreta emateko plangintza solidarioa egitea. Gero eta zabalduago dago pertsona bakoitza bere ongizatearen erantzulea delako ustea, eta politika publikoak bere buruari laguntza ematen dionari laguntza ematera bideratu behar direla dioen ustea. Ideia horiek zaila egiten dute solidaritatea instituzionalizatzea.
5. Biztanleria **zahartzen** ari da gutxika-gutxika eta horrek, beste fenomeno batzuekin batera, gizarte zerbitzuak jasotzeko eskaerak handitu egiten ditu kolektibo zehatz bati arreta emateko. Hortaz, aurrekontuaren zati handi bat horrelakoetara bideratzen da, eta, horren ondorioz, laguntza gutxiago ematen zaie presioa egiteko gaitasun gutxiago duten beste gizarte talde batzuen premiei.
6. **Dinamika sozial eta ekonomikoen** ondorioz, gizarte ahultasuneko mailetan dauden pertsona asko daude eta, edozein atzeraldi ekonomiko egonez gero, ezingo diete aurre egin bizirik irauteko oinarritzko gastuei, eta muturreko bazterkeriaren dinamiketan sartu daitezke.
7. **Gizartearen eta familiaren zatikitze** prozesuen ondorioz, familiaren eta gizartearen babesa gutxitzen ari da, eta horrek benetako deserrotze- eta ahultasun prozesuak sortzen ditu premia-egoeren aurrean. Izan ere, horrelako egoeretan familia eta babesa emateko sare naturalak ziren lehen euskarri-lana egiten zutenak.
8. **Administrazioaren aldetik legez kanpo dauden etorkinen** kopurua gora egiten ari da gutxika-gutxika, eta gizarte bazterkeria larriari arreta emateko dispositiboak erabiltzen dituzte. Horren ondorioz, oinarritzko premiei arreta emateko baliabideak bete egiten dira, eta horrek beste arrisku bat dakar: hasieran berehalako premia materialak zirenak gizarte bazterkeria larriko arazo eta zailtasun bihurtu daitezke.

### 4.3. ETXERIK GABEKO PERTSONAK GIZARTERATZEA

Pertsona horiekin esku hartzen da gizarteratu daitezkeen lortzeko helburuarekin. Hala ere, gizarteratzeko prozesu eta ibilbide hauek zailtasunak dituzte. Batzuetan, dispositiboek ez dutelako esku-hartzea modurik egokienean pentsatzen, eta, bestetan, pertsonak ez daudelako momenturik “onenean” esku-hartzearan parte hartzeko.

Prozesu horiek ikuspegi bikoitzetik jorratuko ditugu jarraian: alde batetik, profesionalak antolatu eta garatu dituzten esku hartzeko prozesuen oinarrian dauden printzipioak eta faseak aurkeztuko ditugu; bestetik, ibilbide horiek jorratuko ditugu, ibilbidea egiten duen pertsonaren ikuspegitik. Amaitzeko, prozesuetan identifikatu diren aukerak eta mugak azalduko ditugu ikuspuntu teknikitik eta prozesuak egiten dituenaren ikuspegitik, hau da, baliabideak erabiltzen dituzten pertsonen ikuspegitik.

#### 4.3.1. ETXERIK GABEKO PERTSONEKIN ESKU HARTZEKO PROZESUA: PRINTZIOAK ETA FASEAK

Etxerik gabeko pertsonekin esku hartzeko prozesuek ez dute beti antzeko eskema jarraitzen. Esku hartzeko dagoen talde bakoitzak esku-hartzearen ardura duen erakundeak

hartutako arreta-ereduaren arabera egiten du lan. Hala ere, badaude oro har esku-hartze hori orientatzen duten **printzipio batzuk**:

- **Autonomia**: esku hartzerakoan autonomia eta norberak erabakitze gaitasuna izan behar dira nagusi; jarduera paternalistak saihestu behar dira eta laguntzarako arreta gainditu behar da. Esku-hartzea tutoretzakoa izango da ezinbestez, eta lagun egitea erabiliko da garapen pertsonaleko prozesuak sustatzeko tresna gisa.
- **Integrazioa eta normaltasuna**: pertsonak gizarte eta familia-babeseko beren sare naturalekin harremanetan jartzeko, gizarteratu daitezen saiaturaz. Era berean, zerbitzuak jasotzen dituzten pertsonen laguntzazko marjinazioa saihestuko da eta, ahal den neurrian, zerbitzu publiko guztien jarduera-multzo normalizatuan sartuko dira.
- **Gizartean parte hartzea**: arreta jasotzen duten pertsonak gizartearen esparru guztietan parte hartu dezaten sustatuko da, eta helburuak ezartzea bultzatuko da, zerbitzua erabiltzen duten pertsonekin adostasunean. Horrela, beren gizarteratze prozesuan parte hartuko dute.
- **Koordinazioa eta lankidetzatza**: arretan esku hartzen duten administrazio eta erakundeen artean. Bakoitzari esleitutako eskumenak errespetatu beharko dira, eta informazioa arduraz erabiliko dela bermatuko da.
- **Integralitatea**: esku-hartzea pertsonen premiei arreta integrala emateko ikuspegiarekin egin beharko da. Berehalako erantzuna eman behar zaie premia urgenteenei, bikoiztasunik ez hutsik gabe, eta jarduera zatikatuak saihestuta.
- **Profesionalizazioa, diziplina artekotasuna eta taldean lan egitea**: bermatu egin behar da esku hartzeko lan taldeak osatzen dituzten pertsonen profesionalizaziotik eskainiko dela arreta. gizarte bazterkeria larriko prozesuetan arrazoi eta dimentsio askok esku hartzen dute. Hori kontuan hartuta, hainbat diziplinetatik datozen pertsonak osatuko dituzte lan taldeak, etxerik gabeko pertsonen premiei arreta integrala emango zaiela bermatzeko. Jarduera osagarrietan parte hartuko da, bai premien diagnostikoarekin eta balioztatzearekin lotuta zein ardura duen profesionalak egindako esku hartzeko planekin lotuta.
- **Banakako arreta**: zerbitzua erabiltzen duten pertsonen beharretara egokitutakoa. Tresna nagusiak banakako diagnostikoak eta esku-hartze planak izango dira, arreta jasotzen ari den pertsonaren egoerak dituen berezitasunak kontuan hartuta.

Esku hartzea egituratzeko faseak oso ezberdinak dira esku hartzeko taldeek hartutako ikuspegiaren eta arreta-ereduaren arabera. Hala ere, oro har, etxerik gabeko pertsonekin esku hartzerakoan taldeek egiten duten prozesuan, **fase** hauek ezarri ditzakegu: harrera, jarduera eta mantentzea. Horietako bakoitzean, esku-hartzeko lan taldeek erabiltzen dituzten jarduera eta tresna hauek ezartzen dira:

## A) HARRERA

Lehen fase honetan izaten da lehenengo harremana pertsonarekin; funtsezkoa da harrera egitea ikuspuntu teknikitik zein giza ikuspegitik. Esku-hartzearen lehenengo fase honetako helburua hiru norabidetara bideratuta egon ohi da:

- Egoeraren eta adierazitako premien hasierako diagnostikoa egitea, eta ezkutuan dauden premienak ere. Horrez gain, baliabide horrek eskaini diezazkiokeen auke-ri buruzko informazioa emango zaio pertsonari, baita dauden beste alternatibei buruzko informazioa ere.
- Oinarrizko premiei berehala erantzutea.
- Arreta jasoko duen pertsonaren eta bere ardura izango duen profesionalaren arteko lotura sortzea.


Fase hau funtsezko unea da, baina harrera egite hutsa gainditzen duen prozesutzat ere hartzen da. Garrantzitsuena lotura sortzea da, eta pertsona ondo hartua sentitzea egin dituen eskaeretan eta dituen premietan.

Elkarrizketa da esku hartzeko prozesuaren fase honetako funtsezko tresna profesionala. Elkarrizketaren bitartez oinarrizko informazioa lortu nahi da, profesionalen taldeari pertsonaren egoerari buruzko diagnostikoa ezartzen laguntzeko.

Hasierako diagnostiko hori eta premien balioztatzea ezartzeko, beharrezkoa da zenbait adierazle sozialen gaineko informazioa batzea. Adierazle horiek gurutzatuta, pertsonaren egoera zein den jakingo dugu eta egitura eta testuinguru sozialarekiko duen jarrera ikusiko dugu.

Diagnostikoak, premiak bezala, ez dira estatikoak; aldatu egiten dira pertsonak gizarte ingurunearekin elkarrekintzak dituenean, beraz, diagnostikoa hurrengo faseetan berrikusi eta osatuko da. Gizarte diagnostiko bat egiteko prozesua eskema honekin laburbildu dezakegu:

### 4.4. GRAFIKOA: GIZARTE DIAGNOSTIKO BAT EGITEKO PROZESUA



Diagnostikoa definitu ahal izateko, gizarte adierazleen txantilo bat erabiliko da. Horren bitartez, profesionalen taldeak pertsona edo bizikidetz-unitatea zein egoera globalean dagoen jakin nahi du, hau da, oinarrizko zein premia dituzten. Adierazle horiek era mailakatuan neurtuko dira, egoera egokitik egoera oso defizitariora, gabezia edo premia jakin bat zein intentsitatekin duten ezartzeko.

Gizarte adierazle horietako batzuk lotuta daude osasun egoerarekin, gizarte prestazioekin, familia-loturekin, eta aipatutakoak zein mailatan betetzen diren ere adierazle horiekin lotuta dago. Horrez gain, profesionalen taldea pertsonaren egoeraren ebaluazioa egitera bideratuko duen bestelako edozein informazioekin ere lotuta daude adierazleak. Ebaluazioa egin duen eskaeraren arabera egingo da.

## B) JARDUERA

Egin den gizarte diagnostikotik abiatuta, jarduera-plan bat antolatzen da, aurkitu diren premien eta egoera defizitarioen arabera. Pertsonak etorkizun hurbilerako dituen itxaropenak islatu behar dituen banakako plana da, eta parte hartuko duten eragile hauen erantzukizunak ere agertuko dira plan horretan: arreta jasoko duen pertsona, profesionalen taldea, babeseko sare naturalak, baliabideak eta dispositiboak.

Lan bateratuko hitzarmen, itun edo planak izan ohi dira, eta pertsonaren parte-hartzea funtsezkoa izan behar da plana egiterakoan zein antolatu den ibilbidean. Halaber, beren premietara gehiago egokitzen diren dispositiboak eta baliabideak sartu behar dira. Honakoak dira jarduera-planaren alderdi nagusiak:

- Xede eta helburu errealak jartzea eta helburu horiek lortzeko garatu behar diren jarduerak ezartzea.
- Bizitzako arlo edo dimentsio ezberdinak kontuan hartzeko beharra. Horretarako, pertsonaren ikuspegi integrala eta globala hartu behar da sortzen zaizkion egoera eta arazoaren aurrean.

Plana abian jartzeak pertsonarekin erabaki bateratuak hartzea dakar. Gainera, antolatu zaion ibilbidearen arabera, pertsona hori igorri egin behar da dispositibo egokira, jarduerak egitera edo pertsonaren premiei erantzuten dieten programetara.

Fase honetan jarduera-planaren segimendua egingo da. Arreta jasoko duen pertsonak eta profesionalen taldeak elkarrekin balioetsi beharko dituzte jarritako helburuak eta jomugak lortzeko orduan egin diren aurrerapenak, egindako jarduerak edo beharrezkoa bada jarduteko beste ildo batzuk pentsatzea.

Batzuetan, zaila da ezartzea esku hartzeko zein estrategia aplikatu behar den; pertsonak bizi duen unearen eta bere hondatze-mailaren menpe egongo da. Zenbaitetan, eusteko eta motibatze lana egitea izaten da jarduteko ildoak, eta pertsonarekin lotura galtzea saihestea. Horren helburu nagusia lotura bat edukitzea da, pertsonak aldatzeko prozesu bat hasi nahi duela erabakitzen duen arte.

## C) MANTENTZEA

Prozesuaren azken fase honetan, esku-hartzeko taldeak unean uneko laguntza, aholkularitza eta orientabidea ematen du. Arreta jaso duen pertsonak gizarteratze prozesua amaitu eta bizitza autonomora igarotzeko trantsizioa hasiko du, eta taldeak pertsonaren segimendua egingo du eta bere bilakaera balioetsiko du. Uneoro, pertsonak erabiltzen dituen beste baliabide edo jarduera batzuekin koordinatuta egon beharko dira. Fase hau izan ohi da kritikoena, hemen gertatzen direlako atzeranzko prozesu gehienak.

### 4.3.2. GIZARTERATZEKO IBILBIDEAK

Castelek proposatutako eredu jarraituz gero<sup>54</sup>, *gabezia*, *menpekotasun* eta *deserrotzeko* egoera da etxerik gabeko pertsonen bazterkeriaren ezaugarria, eta, beraz, haustura dakar geure egoera integrazio- eta bazterkeria-mailekiko definitzen duten hiru bektoreekin.

Castelek definitutako hiru zona horiek ez dira “zona iragazgaitzak”, haien mugak lausoak dira, eta ez da oso zaila ahultasun egoeratik bazterkeriaren eremura igarotzea. Integrazio-maila egokietan irautea eremu horiek erakusten duten sendotasunaren arabera izango da, baita horietako baten ahultasun egoerak irauten duen denboraren arabera ere. 4.4. koadroa.

#### 4.4. KOADROA: GIZARTE EREMUAK

	INTEGRAZIO-ERE-MUA	AHULTASUN-ERE-MUA	BAZTERKERIA-ERE-MUA
EKONOMIA	Diru-sarrera egonkorak	Prekarietatea	Iraupeneko ekonomia
HARREMANAK	Sendo exogamikoak	Sendo endogamikoak	Ahul endogamikoak
BIZITZAREN ZENTZUA	Gogor finkatuak	Ahul ezegonkorak	Ezerezkeria

ITURRIA: Castel, R. “La inserción y los nuevos retos de las intervenciones sociales” In “Marginación y Exclusión”, Endymion, Madril 1992.

Muturreko bazterkeria definitzen duten faktoreak honakoak izango liriteke: gabezia, lotura galtzea eta bizitzaren zentzua galtzea. Horrenbestez, hiru alderdi horiei eman behar die garrantzia bazterkeria larrian dauden pertsonekin egiten den gizarteratze prozesuak. Esperanza Linaresek dioenari jarraituz<sup>55</sup>, helburu hauek dira horrelako prozesuekin lortu behar direnak:

- **gabeziaren aurrean, babesa**: gizarte eskubideak edukitzea eta erabiltzea;
- **mendekotasunaren aurrean, sustapena**: ahalik eta autonomiarik handiena eskuratzea;

<sup>54</sup> Castel, R. “La inserción y los nuevos retos de las intervenciones sociales”, In “Marginación y Exclusión”, Endymion. Madril, 1992.

<sup>55</sup> Linares, E. “Personas sin hogar: de la exclusión a la inserción” In Gizarte Laneko Diplomadunen Eskola Ofiziala eta Madrilgo Gizarte Gaiak “Trabajo Social y Personas sin Hogar”. “Trabajo Social Hoy” aldizkarian, bigarren sei hilekoko monografikoan, 2001. 53-62 orr.



→ **lotura galtzearen aurrean, parte-hartzea:** gizarte sareak berreskuratzea.

Hiru helburu horiek lortzeko beste hiru hauekin lan egin behar da:

- Administrazioarekin: gizarte zerbitzuen bermatzailea delako;
- pertsonarekin: autonomia berreskuratzen laguntzeko;
- gizartearekin: parte-hartzea bermatzeko.

Talde profesionalaren lana pertsonari bere ibilbidean laguntzea izan behar da. Horretarako, prozesuan behar dituen bitartekoak eta tresnak eman beharko dizkio. Ezinbestekoa izango da gizarteratze prozesua hasiko duenaren erritmo pertsonalak eta pertsonak bizi duen unea errespetatzea. Gainera, ibilbide hori pertsona bakoitzari egokituta egon beharko da, muturreko bazterkeriara daramaten arrazoiak ere pertsonalak eta askotarikoak direlako.

Alde horretatik, gizarteratzeko ibilbide horiek garatzeko beharrezkoak diren faseak, lehenetsuneko helburuak, baliabideak eta dispositiboak ezarri ditu Esperanza Linaresek. Fase horiek nolabaiteko ordena logikoa dute, baina ez dira ulertu behar zentzu hertsian prozesu lineala izango balitz bezala. 4.5. koadroa.

#### 4.5. KOADROA: ETXERIK GABEKO PERTSONAK GIZARTERATZEKO IBILBIDEETAKO FASEAK, HELBURUAK ETA BEHARREZKO BALIABIDEAK

FASEA	LEHENTASUNeko HELBURUA	BALIABIDEAK
1. Lehen lotura izatea	Loturak sortzea	- Harrera-zerbitzuak - Larrialdi-zentroak - Kaleko lana - Exijentzia txikiko zentroak - Jantokiak - Higiene-zerbitzuak (dutxa, garbigailua, arropategia)
2. Berreskuratze pertsonala	Erreferentziako esparruak berriro ezartzea (fisikoak, psikologikoak, afektiboak, legalak, bizikidetzakoak, etab.)	- Aldi baterako harrera-zentroak - Eguneko zentroak - Ekoizpena zuzenduta ez dauden lantegi okupazionalak
3. Gaikuntza/Trebakuntza	Gaitasunak, ohiturak eta jakintzak eskuratzea	- Gizarteratze-zentroak - Lantegi profesionalak - Bestelako gizarte baliabideak (INEM, sindikatuak, etab.)
4. Gizarteratze ekonomikoa	Ordaindutako jarduera egonkorra edo pentsioren bat lortzea	- Laneko lantegi produktiboak - Gizarteratze-enpresak - Gizarte erabilgarritasuna duten jarduerak - Enplegurako orientabidea
5. Bizitza autonomoa	Bizitza independentea edukitzea	- Tutoretzapeko pisuak
6. Kaltea gutxitzea	Bizitzaren kalitatea hobetzea eta duintzea	- Exijentzia txikiko zentroak - Tutoretzapeko etxebizitzak

ITURRIA: Linares, E. "Personas sin hogar: de la exclusión a la inserción" In Gizarte Laneko Diplomadunen Eskola Ofiziala eta Madrilgo Gizarte Gaiak "Trabajo Social y Personas sin Hogar". "Trabajo Social Hoy" aldizkarian, bigarren seihilekoko monografikoan, 2001. 53-62 orr.

Gizarteratzeko prozesu edo ibilbiderik hasiko ez duten pertsonentzat aurreikusita dago seigarren fasea, hondatze-maila handia dutelako, lanean integratzeko aukera gutxi dutelako edo bizitza autonomoa hasteko aukera gutxi dutelako, edo bizi duten unea ez delako egokiena. Kasu horretan, helburuak bizitzaren kalitatea hobetzearekin eta sufrimendua gutxitzearekin lotuta daude, eta bitarteko espazioak eskaintzearekin, 45 eta 50 urte bitartean dituzten pertsonak han bizi ahal izateko modu egonkorrean, 65 urtetik gorako pertsonentzako egoitza-baliabideen sarera sartu ahal diren arte.

Bistakoa denez, ibilbide osoa egiteko ez dira erabili behar koadroan zerrendatu diren baliabide eta dispositibo guztiak. Egin behar den gauza bakarra ibilbide horien konplexutasuna honela jorratzea da: prozesua egiten ari den pertsonak dituen berezitasunen arabera beharko lirakekeen zerbitzu eta baliabideen osagarritasunetik.

#### 4.3.3. **ETXERIK GABEKO PERTSONEKIN ESKU HARTZEKO PROZESUEN AUKERAK ETA MUGAK**

Gizarteratzeko prozesuak eta ibilbideak ezin dira ulertu ikuspegi lineal zorrotzetik, fase batean hasi eta beste batean amaitzen den ibilbide baten gisan, edo beti gorantz doan prozesu baten gisan. Prozesu zirkularrekin edo espiralean garatzen den prozesuarekin lotzen da haren interpretazioa. Prozesuan dauden pertsonak etengabe ari dira faseetatik irteten eta sartzen, eta atzeranzko prozesuak egoten dira.

Hortaz, etxerik gabeko pertsonekin esku hartzea lau fase dituen **prozesu zirkularren** ikuspegitik pentsatu daiteke: lotura, motibazioa, hezkuntza-proiektua eta bere horretan mantentzea.

Interesatzen zaiguna da zergatik gertatzen diren atzeranzko prozesuak. Hau da, baliabideak eta dispositiboak sortzen dituzte administrazioak eta erakunde pribatuek oinarritzko premiak betetzeko, eta pertsonak gizarteratze prozesuak hasi ditzaten ahalbidetzeko. Premia materialari erantzuna ematen zaionean, pertsona horietako askok ez dute prozesu horietan aurrera egiten, beharbada ez direlako lantzen bazterkeriaren zati gisa definitu ditugun beste bi alderdiak. Bazterkeriaren zati direnez esku-hartzearen helburuak dira: pertsona eta gizartea.

Alde horretatik, kontsultatu diren pertsonak adierazi dutenez, **personaren** beraren menpe dago batez ere gizarteratzeko prozesua hasteko unea, beraren buruaz duen irudiaren menpe, beraren autoestimua menpe. Beraz, profesionalarekin eta berarekin harreman afektiboa dutenekin izan dezakeen lotura garrantzitsua bada ere, autoestimua-rekin lotutako alderdiak ez badira lantzen, prozesuak ez dira gauzatzen.

Bestalde, ez dira sortzen ulermenerako, entzuteko eremuak, ez dira sortzen pertsonak bizi duten egoerak eragiten dien “barruko amorrua” adierazteko aukerak. Kontsultatutako pertsonetako baten hitzekin laburbildu dezakegu ideia hori: *“gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonekin lan egiten duzunean, egokiagoa da gizarteratzeko helburuak ez proposatzea; beharrezkoa da hasieran motibatze lana egitea, eskaera handi-gaok egin baino lehen. Izan ere, batzuetan, exijentzia-maila horiek baztertu egiten*

*dute. Beharrezkoa da loturei, errotzeari aurre egitea, esku-hartzearen hasierako puntu gisa”.*

Etixerik gabeko pertsonekin esku hartzerakoan, profesionalen taldeek aipatu duten zailtasun nagusietako bat erabiltzaileen artean sortzen den “etsipena” da, aldatzeko prozesu bat hasten denean eta porrot egiten duenean, beste behin indartzen delako deserrotuta egotearen sentimendua: *“Porrot bat gehiago da, porroten historia batean. Une askotan eraginkortasun-printzipio bat proiektatzen da dispositiboaren barruan bertan, arrakastaren sindromea, eta, hain zuzen ere horregatik, zaila egiten da porrotaren ostean itzultzea”.*

Pentsaera hezitzaile batetik helburuak eta esku-hartzeak pentsatzen dira berehala. Dispositibo batzuetan sartzeko, beharrezkoa da ohituraren bat galtzeko edo gizarteratzeko prozesua hastea. Hala ere, bistakoa dela dirudi dispositibo bat erabiltzen duten pertsonak izan behar direla prozesua hasiko dutenak eta ez direla izan behar dispositibo bat edo profesionalen taldea prozesu hori hastea exijituko dutenak.

Beraz, prozesu osoaren hasierari eman behar zaio **garrantzia, pertsonarekin loturak sortzea** bultzatu behar da, eta ez dira berehala jarri behar bete beharreko jomugak edo helburuak, lehenago motibatuzko lana egin gabe, prozesua utzarazi ahal dien eskaera handiagoak egin baino lehen. Hortaz, garrantzitsua da pertsonak errotzeko, lotzeko leku gisa ikustea dispositibo bat, leku horren parte sentitzea eta, prozesuan zehar, utzi nahi duen horretara berriz erortzen bada. bertara itzuli daitekeela sentitzea. Nolanahi ere, funtsezkoa da pertsona **bere prozesuaren partaide izatea**, jarraituko diren ibilbideak antolatzerakoan zein ibilbide hori balioztatzerakoan.

Bestalde, kontsultatutako pertsonak ikusi dutenez, askotan, batez ere exijentzia-maila txikienetan, ez dira lantzen arreta ematen dion baliabide edo dispositiboarekin lotuta pertsonak dituen itxaropenak. Hau da, batzuetan, zenbait pertsona dispositiboetara bidaltzen dituzte inolako motibazio edo itxaropenik gabe: *“Non dago hutsunea?, zergatik ez dira landu baliabidearekin lotutako itxaropenak edo zergatik ez zaizkio aditzera eman bidaliko zaion lekuak ematen dituen aukerak?”* Zenbaitetan, baliabideak ez dira ezagutzen eta ez da lan egiten baliabide jakin batean dauden pertsonekin, eta baliabide horietara pertsonak bidaltzen dituzten profesionalak ez dituzte ezagutzen pertsona igorri duten baliabideak ematen dituen aukerak.

Ikuspegi sozialago batetik, kontuan hartu behar da gizarteratzearen gakoa, benetan gizarteratzen laguntzen duena, bizikidetzaren eremua dela. Espazio hori ez badago arreta emateko sarearen barruan, porrota gertatzen da ibilbidearen azken etapan, norbanakoaren ahalegin guztiari alderdirik gizatiarrena falta zaiolako, hau da, **harremanen esparrua**. Kontsultatutako pertsonak adierazi dutenez, bizikidetzaren eremu hori ez da integratu behar tarteko egitura balitz bezala; programa gisa integratu beharko litzateke gizarte bazterkeria larriari arreta ematen dioten dispositibo guztietan.

Alde horretatik, trantsizio prozesuen zailtasun handienetako bat izaten da prozesuaz arduratzen den erakundea bihurtzen dela pertsonaren erreferentzia bakarra. Horren ondorioz, pertsonak ibilbideko prozesuak gainditu eta bizitza autonomoa kudeatzea lortu arren, zailtasun larriak izango ditu bizikidetzako espazio propioa sortzeko, etxerik

gabeko pertsonen artean sortzen diren harremanak endogamikoak eta oso ahulak direlako.

Beraz, ezin dugu alde batera utzi etxerik gabeko pertsonak hasten dituzten gizarteratze-prozesuetan gizarateak duen erantzukizuna. Kontsultatutako pertsonetako baten hitzetan: *“Prozesu gehienek porrot egiten dute, gizartea ez delako gai alternatiba gehiago sortzeko, ibiltzeko bide gehiago sortzeko, eta ez delako gai pertsona horiek gizar-tearen egituretan txertatzeko”*. Bestalde, badago etxerik gabeko pertsonen beste profila bat, eta pertsona horiekin, oraingoz behintzat, ezin dugu gizarteratzeari buruz hitz egin, eta muturreko bazterkeria egoeran dagoen pertsonarengana gerturatzerara eta pertsona horri enpatia erakustera bideratu behar da antolamendua.

**Baliabideei eta esku-hartzearen antolamenduari** lotutako zailtasunak ere badaude. Alde horretatik, arreta emateko dispositiboak izan behar dira aipatu duguna egingo dutenak, hau da, etxerik gabeko pertsonen enpatia erakutsi eta haiengana hurbilduko direnak. Baliabideen sistematizazioari, kalitatea kontuan hartzeari balio asko eman diete kontsultatutako pertsonak. Hala ere, batzuetan, bazterkeria larriaren errealitateak urruntzen dituzte baliabideak: *“Izan ere, ez bada onartzen pertsona horien ahultasunaren zati bat geure gain hartu behar dugula, pertsona horiek dena bere gain hartu dezaten uzten badugu, prozesuak porrot mingarrira kondenatuta daude”*.

Alde horretatik, profesionaltasunaren mugei muzin egin gabe, beharrezkoa da prozesuen arrakastaren edo porrotaren erantzukizuna partekatzea: *“Ezin dena izan da pertsona horiek gero eta ahulagoak izatea eta gure baliabideak gero eta blindatuagoak egotea”*. Ikuspegi hori hartuz gero, onartu egin behar da banakako arretak behartu egiten duela iritzia hain zorrotzak ez izatera, hau da, barruko erregimeneko araudia malguagoa egitera behartzen du; uneren batean, dekalogo profesionala zalantzan jartzera behartzen du, azken batean, baliabideak egokitu ahal izatea eskatzen du.

Bestalde, beharrezkoa da talde teknikoaren esku-hartzea eta lan komunitarioa malgutzea, eta “bonifikazio” printzipio bat egon behar da, baliabideak erabiltzen dituen pertsona une jakin batean aldaketa prozesuak hastera lotzen duen elementua identifikatu behar da. Metodologia horri esker, ezarritako prozesuez bestelako prozesuak hasi ahal izango ziren, “prozesuak aukeran”. Gainera, adierazi da funtsezkoa dela “espazioak zabaltzea”, pertsona guztiek sareko dispositiboetako batera sartzeko aukera dutela bermatzea. Izan ere, egitura itxiak sortzen badira, beti egongo dira arreta jasotzetik kanpo geratzen diren pertsonak.

Beste alde batetik, kontsultatutako pertsonetako batzuek adierazi dutenez, aldatzeko prozesuak hasteko gogoak kendu diezaieke pertsona horiei foru aldundiek hartutako erabaki honek: gizarteratzeko egoitza-baliabideetan bizi diren pertsonen Oinarrizko Errenta ez emateko hartu duten erabakiak. Hala ere, ez dago ideia horren gaineko adostasunik. Pertsona batzuen iritziz, erabaki hori logikoa da, ulertzen badugu Oinarrizko Errenta oinarrizko premiei erantzuteko laguntza bat dela, eta premia horiek egoitza-baliabide batek betetzen baditu, ez dirudi koherentea denik horrelako laguntzak ematea.

Amaitzeko, zenbait gairi buruz ez da egon adostasunik, eta honakoak ebatzi gabe geratu dira: Pertsona horiek noraino hartzen dute parte gizarteratzeko prozesuetan? Gizartera-

tze prozesuak egoera horretan dauden pertsonak prozesuak egiteko beharra sentitzen dutelako egiten dira ala, agian, gizarteak erantzun bat eman behar diolako bazterkeria horri? Non daude arreta emateko baliabideen eta zerbitzuen mugak? Pertsonak zein zerbitzura bidali erabakitzen duten baliabide eta zerbitzuek noraino dute gaitasuna gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen itxaropenak eta baliabideak lantzeko? Zenbat denbora behar da gizarteratzeko prozesu bat egiteko?

#### 4.4. IDEIA NAGUSIEN LABURPENA

1. Honakoa jotzen dugu **bazterkeria larritzat**: gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsona gutzietatik premia larrienak dituzten pertsonak bizi duten egoera.
2. Gure ikuspegi teorikoaren arabera, bazterkeria larriak **ezaugarri** hauexek ditu:
  - kontzeptu eta erantzun soziala da. Horrenbestez, bazterkeria egoeran dauden pertsonak badaude gizarte baztertzailak daudelako da;
  - herritartasun-kontzeptuarekin lotuta dago;
  - hainbat maila ditu;
  - prozesu bat da eta, prozesu guztiak bezala, dinamikoa da;
  - hainbat faktore eta dimentsio ditu.
3. Ez da pertsona-multzo homogenea, baina azpimarratu egin ditzakegu gizarte bazterkeria larrian dauden pertsona gisa gehien identifikatzen dituzten **alderdiak**:
  - Etxerik gabeko pertsonak dira, hau da, ez dute ostatu egonkorrik ezta etxebizitzarik ere.
  - Baliabide ekonomikorik gabeko pertsonak dira edo baliabide horiek modu egokian kudeatzeko zailtasunak dituzte, eta iraupeneko ekonomiaren estrategiak erabiltzen dituzte.
  - Baina, batez ere, etxerik gabeko pertsonak dira; dagoeneko ez dute familia-harremarik eta gizartetik eta familiarik erabat deserrotuta bizi dira, laguntza pertsonal edo sozialik gabe. Gizartetik eta haren dinamiketatik kanpo bizi dira, eta gainerako herritarrak baino ahulagoak dira dinamika horien aurrean.
4. Etxerik gabeko pertsonaren **profila aldatu egin da**:
  - Orain dela gutxi arte, etxerik gabeko pertsonaren eredu “tipikoa” erabiltzen zen. Honakoa zen eredu hori: adin ertaineko gizon bakartia, zirtzila, zakarra eta zaputza, bere ondasunekin joaten zena leku bestetik bestera eta arazo psikologikoak edukitzearen seinale argiak zituen.
  - Gaur egun, etxerik gabeko pertsonaren kontzeptua hiri-esparruekin dago lotuta gehienbat, gizarte industrializatuetan egoten dira eta, oinezko pertsonak ez bezala, etxerik gabeko pertsonak gure kaleetan bizi dira era egonkorrean.
5. Bazterkeriaren arloan, **gero eta zabalduago dauden profilen** gorakada handia ikusi da:

- Biztanle etorkinak: hasiera batean, ez datoz bat etxerik gabeko pertsonaren profilarekin, baina bazterkeria larriari arreta ematen dieten dispositiboen sarera sartzen dira azkenean, ezin dituztelako erabili baliabide normalizatuak. Alde horretatik, EAeko etxerik gabeko pertsonentzako dispositiboetan arreta jaso duten pertsonen %50 gutxi gorabehera etorkina da.
  - Pertsona gero eta gazteagoak. Egonaldi laburrerako ostatu emateko baliabide batzuetan eta gaueko zentroetan, 30 urte baino gutxiago dituzten pertsonak %60 dira.
  - Buruko gaixotasunen bat eta kontsumo aktiboak dituzten pertsonen prebalentzia.
  - Emakumeak: EAEn ostatu ematen duten baliabideetan %20 izatera heltzen dira. Emakume gehiago daude exijentzia ertain eta handiko baliabideetan.
  - Etxerik gabeko familiak.
  - Etxebizitza arazo larriak dituzten pertsonak.
6. Hauxe azpimarratu dezakegu **EAEn** arreta emateko saretik pasatzen diren **etxerik gabeko pertsonen oinarrizko profilari** buruz:
- gehienak gizonetzkoak dira;
  - 30 eta 45 urte bitartean dituzte;
  - funtsean, bakarrik dauden pertsonak dira: pertsona horien %90 inguru ezkon-gabea, banandua, dibortziatua edo alarguna da;
  - oro har trebakuntza-maila txikia dute, unibertsitate-ikasketak dituzten etxerik gabeko pertsonen kopuruak gora egin duela ikusi bada ere;
  - gehienek unean uneko lan jardueraren bat egin dute, baina langabezia luzaroan egon diren pertsonak izan ohi dira;
  - arreta jasotzen duten pertsonen %50 baino gehiago atzerritarra da.
7. **Gorantz egiten ari den fenomeno** da, aldagaiak edukitzen ari diren bilakaera dela-eta. Hauexek dira aldagai horiek, besteak beste: etxebizitza-politika, gizarte ahultasunaren gorakada edo familia zatikatzeko prozesuak.
8. Honakoak dira etxerik gabeko pertsonekin egiten den esku-hartzea bideratzen duten **printzipio** orokorrak:
- autodeterminazioa eta autonomia;
  - integrazioa eta normaltasuna;
  - gizartean parte hartzea;
  - koordinazioa eta lankidetzeta;
  - integralitatea;
  - profesionalizazioa, diziplina artekotasuna eta taldean lan egitea;
  - banakako arreta.
9. **Fase** askotarikoetan egituratzen da arreta, eta fase horiek prozesuaz arduratzen diren erakundeek hartutako esku hartzeko eredu enpenpe daude. Hala ere, oro har hiru fase ezarri ditzakegu: harrera, jarduera eta mantentzea.

10. Gizarteratzeko prozesuak arrakastatsuak izateko, beharrezkoa da gizarte bazterkeria larriaren ezaugarriak diren **hiru faktoreetan** eragitea: gabezia, mendekotasuna eta deserrotzea. Beraz, helburua hirukoitza da:
- gabeziaren aurrean, babesa: gizarte eskubideak edukitzea eta erabiltzea;
  - mendekotasunaren aurrean, sustapena: ahalik eta autonomiarik handiena eskuratzea;
  - lotura galtzearen aurrean, parte-hartzea: gizarte sareak berreskuratzea.
11. Oro har, sei urrats daude ezarrita etxerik gabeko pertsonak **gizarteratzeko ibilbideetan**:
- lehen lotura izatea;
  - berreskuratze pertsonala;
  - gaikuntza-trebakuntza;
  - gizarteratze ekonomikoa;
  - bizitza autonomoa;
  - kaltea gutxitzea.
12. Gizarteratzeko prozesuak ezin dira ulertu zentzu lineal zorrotzean edo beti gorantz doan prozesu baten gisan. **Prozesu zirkularrarekin** edo espiralean garatzen den prozesuarekin lotu behar da haren interpretazioa. Prozesuan dauden pertsonak etengabe ari dira faseetatik irteten eta sartzen, eta atzeranzko prozesuak egoten dira.
13. Askotan, berehalako oinarrizko premiei erantzuna ematera bideratzen da esku-hartzea, eta ez dira lantzen esku-hartzea arrakastatsua izatea definitzen duten beste bi faktoreak, hau da, pertsona osotasunean eta gizartea.





**EAEN ETXERIK GABE ETA GIZARTE  
BAZTERKERIA LARRIAN DAUDEN  
PERTSONEN BEHARRIZANEI  
ESKAINITAKO LAGUNTZA**



## 5. EAEN ETXERIK GABE ETA GIZARTE BAZTERKERIA LARRIAN DAUDEN PERTSONEN BEHARRIZANEI ESKAINITAKO LAGUNTZA

EAEn etxerik gabe eta bazterkeria egoeran dauden pertsonen laguntzak dimentsio handia hartu du gure erkidegoan, bai zerbitzu nahiz baliabide kopurua eta bai lagundutako egoeren konplexutasuna zein aniztasuna kontuan hartuta.

Horri dagokionez, beharrizan horien erantzuna bertan parte hartzen duten eredu desberdinetatik aztertuko dugu: erakunde publikoak, erakunde pribatuak eta herritarrak eurak.

Lehenengo eta behin, parte hartzen duen eragile bakoitzak emandako erantzunaren ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu; bigarrenez, EAEn etxerik gabe dauden pertsonen oinarrizko beharrizanei erantzuna ematen laguntzeko sistemaren diagnostikoa egingo dugu. Azkenik, etxerik gabeko pertsonen egindako gizarteratze prozesuak eta ibilbideak aztertuko ditugu.

### 5.1. ETXERIK EZ DUTEN PERTSONEN BEHARRIZANEI EMANDAKO ERANTZUNA

Pertsona horiei emandako gizarte erantzunaren azterketa orokorrean egin behar da. Horrenbestez, gure iritziz, azterketa honen barruan erakunde publikoen erantzuna (gizarte eskubideak lortzeko bermatzailetzat) eta gizarte erakundeen erantzuna sartzen dira (baliabideak eta zerbitzuak modu eraginkorrean kudeatzen dituzten eragiletzat), baita herritarren erantzuna ere.

#### 5.1.1. ERAKUNDE PUBLIKOEN ERANTZUNA

Gizarte ezegonkortasuneko edo ahultasuneko egoera askotan ez dago esku-hartze publikorik, beharrizanak **laguntza sare informalak** betetzen baititu. Hala eta guztiz ere, pertsona batzuek, egoera oso ezegonkorrean bizitzeaz gain, ez dute gizarte laguntzako sare hori modu eraginkorrean jasotzen, ez dutelako gizarte edota familia mailako harremanik, edo horiek oso narriatuta daudelako edo arazotsuak direlako. Halako kasuetan, esku-hartze publikoa ezinbestekoa da, eta Administrazioaren gizarte erantzukizuna da.

Etixerik gabe eta gizarte bazterkeria larrian bizi diren pertsonen taldeari emandako laguntzaren ezaugarri nagusia oinarrizko beharrianak betetzea izan da, esate baterako, ostatua, elikadura, etab. Hala ere, aspaldion etxerik gabeko pertsonen laguntzak ageriko konplexutasun maila eta bolumena hartu du, Cáritasek<sup>56</sup> etxerik gabeko pertsoneri buruz egindako 2000ko txostenean agerian gelditu denez: *“Azken urteotan, laguntza zentroak nabarmen dibertsifikatu dira. Aterpetxea, jantokia eta jantzitegia ez ezik (betiko dispositiboak), beste zerbitzu batzuk ere sortu dira, eta gaur egun, sareak panorama nahiko anitzagoa dauka.”*

Gainera, orrialde hauetan azalduko dugunez, dagoeneko ez da pertsona mota bakarra lagundu behar, betiko oinezkoen kasuan bezala. Errealitateak argazki oso desberdina erakusten digu orain, bai **baliabidearen**, programen nahiz zerbitzuen **aniztasunari**, bai lagundutako pertsonen **profilen** aniztasunari dagokionez.

Etixerik gabeko pertsoneri laguntza emateko dispositibo sarearen **eginkizun** nagusia, izan ere, horien oinarrizko beharrianak betetzea da, horretarako eskubidea baitute, eta gainera, laguntza eredu hori publikoa izango da eta Administrazioak zuzenduko du.

Hala eta guztiz ere, beharrian horiek betetzea ez da erraza herri erakundeentzat; batzuetan administrazio tramiteen eta laguntzaren inguruko burokrazia handiaren eraginez, eta beste zenbaitetan, taldea laguntza orokorreko sarean bide normalizatuetatik ez sartzearen eraginez.

Laguntza horretarako beste zailtasun bat, bestalde, oraingo beharrian anitzei erantzuna emateko moduari lotuta dago. Baliabide bakoitzak kasuan kasuko taldearen ezaugarri oso zehatzen arabera zehaztuta ditu bere eskumenak, eta beraz, ezaugarri jakinarekin identifikatu ez eta laguntza beharrian desberdinak nahiz ugariak dituzten pertsonen kasuan sortzen da zailtasuna.

Halaber, etxerik gabeko eta bazterkeria egoera larriko pertsonen laguntzan parte hartzen duten herri administrazioen (adibidez, Eusko Jaurlaritzza, foru aldundiak, mankomunitateak eta udalak) barruko **eskumen banaketek** eta ekimen pribatuarekiko harremanek (askotan oso konplexuak) sarritan oztopatu egiten dute laguntza hori, eta horrela, partziala eta beti koordinatua ez den laguntza eskaintzen da kasu askotan.

Erakundeetatik kanpoko elkarteak eta gizarte eragileak malguagoak izan daitezke bidezko egokitzapenak egiteko, eta gainera, baliabide horiek hurbilago daude pertsona horiek bizi duten errealitateatik. Hori dela eta, horien eginkizuna funtsezkoa da halako pertsoneri emandako gizarte erantzuna aztertzeako orduan. Hala eta guztiz ere, laguntza prozesuaren buruzagiak erakunde publikoak izan behar dira, horiek herritar guztien eskubide zibilak, politikoak eta sozialak bermatu behar baitituzte.

---

<sup>56</sup> Cabrera, P.J “La acción social con personas ‘sin hogar’ en España”. Cáritas Española ed., Madril 2000. 192. or.

### 5.1.2. **ERAKUNDE PRIBATUEN ERANTZUNA**

Azken urteotan, laguntza dibertsifikatu egin da, agian etxerik gabe eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen profilak (laguntza sarean sartzen joan diren pertsonak) ugaritu egin direlako.

Bazterkeria egoerarik larrienei laguntza eskaintzeko baliabideen eta zerbitzuen dibertsifikatze hori, batik bat, gizarte eragileek sustatu dute; hain zuzen ere, “itxuraz” autonomia maila handiagoa lor dezaketen pertsonak gizarteratzeko prozesuak kontuan hartzen dituzten esku-hartzeak jarri dira martxan. Programa horietariko gehienak mendekotasunak edo arazo psikologikoak gainditzeko tratamenduak hasteari lotuta daude.

Gainera, gizarte eragileen esku-hartzeak gizarte sentsibilitate handiagoa sortu eta legitimatu egin du neurrien garapena nahiz zuzkidura ekonomikoa, etxerik gabe eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen laguntza eskaintzeko proiektuetarako.

Gizarte eragile horiek, bestalde, zerbitzu normalizatuak lortzen ez dituzten pertsonen profila zehaztu dute, eta gainera, laguntza publikoaren sarean sartzeko dispositiboak dira orain, neurri handian gizarte eragileok euren esku-hartzean duten dinamismo, malgutasun eta berrikuntza gaitasun handiaren eraginez.

EAEan orain dauden baliabideen, zerbitzuen edota programen bolumena eta dibertsifikazioa kontuan hartuta, laguntzaren diagnostikoa eta ebaluazioa egin behar da, sektorearen planifikazio estrategikoa egin baino lehen, emandako laguntza hobetzeko eta baliabideak optimizatzeko. Txosten honek lagungarria izan nahi du arlo horretan.

### 5.1.3. **HERRITARREN ERANTZUNA**

Ikuspegi hau sartzea, gure ustez, interesgarria da, herritar batzuek (baztertu gabeak) beste zenbaiti (baztertuak) emandako erantzuna baita, hau da, gizartearen oinarritik bertatik emandako erantzuna.

Ongizate ezari loturiko eta, orokorrean, pobrezia egoerei dagokienez, esan daiteke, hutsik egiteko beldur handirik gabe, gure gizarteak laguntzako sare informal desberdinetatik ematen duela erantzuna, batez ere familiarik eta lagunen nahiz auzotar hurbilen ingurutik: independizatu ezin duten eta gurasoen etxean jarraitzen duten seme-alabak edo egoera ekonomiko ezegonkorra duten pertsona nagusiak, besteak beste.

Pertsona horiek sare informaletik kanpoko laguntza jasotzeko duten eskubideari dagokionez, gizartetik bertatik begiratuta, herritartzat, uste dugu adostasuna ia erabatekoa dela; baina, zer gertatzen da gizartearen gainerako kideek emandako erantzunarekin, hau da, erakundeak eta gizarte eragileak ez diren pertsonen nahiz gizarte taldeek emandako erantzunarekin?, zein dira horien jarreraren eta erantzunaren ezaugarriak, geure jarreraren eta geure erantzunaren ezaugarriak? Izan ere, guztiok gizartearen barruan gaude eta erantzukizuna daukagu “gizarte erantzuna” deritzon horretan.

Erantzun hori, izan ere, halako pertsonen bideraturiko baliabideekiko (esate baterako, laguntza zuzeneko gelak) eguneroko bizikidetzara erabat onartzea izan daiteke, baita horien aurka gotea ere.

Horien kokapena planifikatzeko orduan, halako dispositiboak inguru periferikoetara edo herri txikietara eramaten dira; horiek ez dira gehiagoko barik aukeratzin: Administrazioak edo baliabidea kudeatzen duen erakundeak ikerketak egin ondoren, halako dispositiboak kokatzeko lekurik egokienak aukeratzin dira, baina iritzi hori beti ez dator bat herritarren iritziarekin.

Herritarrek, batzuetan, laguntza zuzeneko baliabideen aurka egoten dira, eta hori, berriz, zenbait faktoreren eraginezkoa izaten da; besteak beste:

- baliabide mota;
- baliabidearen kokalekua;
- inguruan biztanle jakinei zuzendutako halako baliabide gehiago egotea;
- komunitatearekiko aurretiazko lana garatzea;
- auzotarren mugimenduen deialdi ahalmena;
- dispositiboaren kokapenaren alde egiteko interes politikoa;
- komunikabideek emandako tratamendua;
- herritarrek duten informazioa eta gaiarekiko sentsibilitate maila;
- beste inguru batzuekiko diskriminazio sentsazioa;
- komunitatetik kanpoko pertsonen presentziak sortutako beldurra eta segurtasunik eza.

Horri dagokionez, azken urteotan indar handia hartu du “NIMBY sindromea”<sup>57</sup> deritzon talde-ekintzako modu batek, laurogeiko hamarkadan Amerikako Estatu Batuetan sortutakoak. Hasieran, hori ingurumen proiektuen aurkako jarrera komunitarioari lotuta egon zen; hala eta guztiz ere, denborarekin, gizarte laguntzaren arlora eta gizarte bazterkeriako prozesuetan murgildutako pertsonen inguruko beste egoera batzuetara hedatu da. Ez da fenomeno berria, baina azken hamarkadotan protagonismo handia hartu du.

**NIMBY sindromeak** gero eta indar handiagoa hartu du eta estu lotuta dago, autore batzuek diotenez, etxerik gabe eta gizarte bazterkeria larrian dauden pertsonen eta HIESa duten pertsonen hedapen sozialarekin nahiz espazialarekin. Horrenbestez, gero eta gehiago dira eztabaida sortzen duten gizarte zerbitzuen aurka egoteko tresnak aurkitzen dituzten komunitateak. Dirudienez, fenomeno hori gero eta ugariagoa izango da geure artean.

Fenomeno hori eragin duten faktore batzuk Jokin Alberdik, Alberto de la Peñak eta Pedro Ibarrek azaldu dituzte, Hontza<sup>58</sup> kasuari buruz INGURUAK aldizkarian argitaraturiko artikulu batean. Faktoreok honako hauek dira:

- abstentzioaren aldeko kultura, gizarte partaidetzari dagokionez;
- arlo politikoarekiko konfiantza gero eta txikiagoa;

<sup>57</sup> NIMBY: Not In My Back Yard adierazpidearen siglak; hitzez hitz, “Nire atzeko patioan ez”. Adierazpide horren bidez, herritarrok baliabide batzuei dagokienez sortzen dugun ukapen soziala adierazten da, horiek gure eguneroko eremu sozialetan eskaintzen direnean, eurekin eta euren jasotzaileekin batera bizi behar garenean.

<sup>58</sup> Alberdi, J.; de la Peña, A.; eta Ibarra, P. “Una reflexión sobre la acción colectiva NIMBY: el caso Hontza”. *Inguruak*, 33. zenb., 2002ko iraila. 59. or.

→ politikariek tokian tokiko arazoei arretarik ez eskaintzea, eta lehentasuna ematea maila altuko politikei eta eguneroko arazoetatik urruneko erreferentzia puntuak dituzten politikei.

Gizarte zerbitzuen arloan, autore horiek diotenez, *“oraintsuko joeretan, Estatuaren erantzukizunen eskuordetze handia ikusten da, Hirugarren Sektorea deritzonaren barruko erakundeen alde, eta hori faktore gehigarria izan daiteke NIMBYak egoitako: azpiegitura arazotsuren baten funtzionamenduaren protagonista GKE bat izatea (erakundeak eurak izan beharrea) ez da lagungarria horrekin bizi behar duen komunitateak hori interes orokorrekotzat hartzeko”*.

Halako fenomenoak gainditzeko proposamenetariko batzuen arabera, ezinbestekoa da gizartearen sentsibilizatzea eta arazoaz jabeaztea, eta gainera, komunitatearekin negoziatzeko formulak sortu behar dira, halako dispositiboak kokatzeari dagokionez.

Etixerik gabeko pertsonen laguntzeko baliabide normalizatu ahalik eta gehien erabiltzen dituzten proiektuak behar dira (horretan denok gaude ados), baina gainera, herritarrak **jabeazteko eta sentsibilizatze neurriak** ere ezinbestekoak dira, etxerik gabeko pertsonen egoerari dagokionez, eta ekintza hori gizarte osoaren erantzukizuneko da. Izan ere, nolabaiteko enpatia sortu behar da halako pertsonen beharrezanekiko, elbarritasuna duten pertsonen edo adineko pertsonen kasuan gertatzen den bezala.

Hala eta guztiz ere, ez dago adostasunik halako neurriak betearazi behar dituen eragilearen inguruan. Nork dauka gizartearen sentsibilizatze ardura? Nork eman behar du sarearen barruko baliabide mota desberdinei eta horiek egiten duten lanari buruzko informazioa? Horri dagokionez, bi jarrera identifikatu dira:

- Sentsibilizazio eta informazio lana zerbitzuak ematen dituzten erakundeek egitea, batez ere baliabide zehatza kudeatzearen ardura duten erakundeek.
- Administrazioak berak egitea, gizartearen erakunde publikoen laguntza ikusteko eta baliabide publikotzat hartzeko, horrek gizarte erabilgarritasun handia baitauka.

Kontuan hartu beharreko beste gauza bat, izan ere, etxerik gabeko pertsonen presio-taldea osatu ezin izatea da (maila sozioekonomikoan indartsuagoak diren beste talde batzuek, adibidez, elbarritasuna duten pertsonen edo adineko pertsonen, aldiz, presio-taldea osatzen dute), eta gainera, boto eskubiderik ere ez dute, pertsona atzeritarren kasuan bezala. Horri dagokionez, erakunde publikoek halako pertsonen ahotsa jakinarazi behar dute; izan ere, pertsona horien egoera desberdinak, estatusa eta abar kontuan hartuta, ez dute euren eskubideak errebindikatzeko gaitasunik.

Etixerik gabeko pertsonaren arabera gizarte erantzunari dagokionez, komunitatean ondo integraturiko baliabide batzuk egon arren, gizartearen ukapenik handiena jasotzen dutenak, agian, pertsona toxikomanoak eta atzeritarrak dira; alde batetik, horien presentzia “egoitza zonetan egokiena” ez omen delako, eta bestetik, talde horiek beldurri eta segurtasun ezari lotutako sentimendua sortzen dutelako (gehienetan, gizarteak mafiekin, kaleko biolentziarekin, bandalismoarekin eta lapurrekin identifikatzen ditu). Alderdi horretatik, gure artean oraintsuko esperientzia asko dago.

Horrela, esate baterako, **Araban** Gizarte Ongizateko Foru Institutuak proiektu bat garatu du, Langraiz Okako udal mugartean babesik gabeko gazte atzerritarren harrera zentro bat kokatzeko; hala ere, proiektua ez da gauzatu, auzotarrek (Udaletxearen laguntzarekin) proiektuari ezezko erantzuna eman diotelako.

Besteak beste, esan dute udalerraren inguruetan espetxe bat ere badagoela, baita lehergailu lantegia eta parke eolikoa ere; gainera, Arabako Foru Aldundiak informazio gutxi eman omen du, gazte atzerritarren harrera zentroa hiriburutik kanpo eramateari buruz.

**Bizkaian**, Bilbon 2001etik dagoen Hontza zentroak zailtasun handiak izan ditu martxan jartzeko. Hontza zentroa eskakizun maila baxuko zentroa da, toxikomanoentzat eta etxerik gabeko pertsonentzat; laguntzako ekimenez sortu zen, pertsona horien bizi baldintzei duintasuna emateko. Zentroa, hasieran, Zamakola auzoan kokaturik egon zen.

Arartekoak, sarritan, esku hartu du halako gatazketan. Esate baterako, Hontzaren kasuan, Zamakolako auzo-elkarteak aurkezturiko kexa baten eraginez, baita Cáritas-Bizkaiaeren esku-hartze eskabidearen kasuan eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko nahiz Zabala birgaitzeko Taldeen Koordinakundeak jakinarazitako kezkaren kasuan ere. Lehenengo kasuan, auzotarrek esaten zuten zentroak arazoak eta kalteak ekarriko zituela, eta berori ixteko eskabidea egiten zuten. Beste bi kasuetan, arartekoak bitartekaritza lana egin zuen, zentroak bere lana normaltasunez garatu ahal izateko.

Arartekoaren jarrera, kasu guztietan eta auzo-elkarteak planteaturiko kexa baino lehen, halako zerbitzuak defendatzearen eta horien sorrera sustatzearen aldekoa izan da. Gainera, legez kanpoko proposamen bat zegoen gaiari buruz, Eusko Legebiltzarrak 2000ko martxoaren 28an onetsitakoa.

Hain zuzen ere, udal arduradunekin bilkura batzuk egin ziren; auzotarrei, Cáritasi eta Bilbo Zaharra, San Frantzisko eta Zabala birgaitzeko Taldeen Koordinakundeari informazio idazkiak bidali zitzaizkien; gainera, zentroaren instalazioetarako bisitaldiak egin ziren eta jarrerak hurbiltzeko bileraren batean ere egon ginen; poliziaren jarduketan inguruko kudeaketak egin ziren; Bilboko Udalarri gomendio formalak eman zitzaizkion, zentroa irekitzeko lizentziari buruz, etab.

Kudeaketa askoren ostean, eta hasierako proiektuan aldaketa garrantzitsuak egindakoan, zerbitzua berriro hasi zen martxan, baina normaltasunik gabe, harik eta beste leku batera eraman arte.

**Gipuzkoan**, bertako hiriburuan dauden baliabide batzuen kasuan, adibidez, Cáritaseko gizarte jantokiaren edo Donostiako Udalak Hotzaren Araurako gaituriko lokalaren kasuan<sup>59</sup>, poliziaren presentzia behar izan da, baliabideen ateetan sorturiko biolentziako egoerei aurre egin ahal izateko. Izan ere, auzotarren taldeek euren kexak eta nolabaiteko haserrea adierazi dituzte, halako dispositiboak hiriguneetan kokatzeagatik, horien presentziak herritarren segurtasuna arriskuan jartzen duelakoan.

<sup>59</sup> Udalerri batzuek neguan garatzen duten jarduketa berezia.



## 5.2. EAEN ETXERIK GABE BIZI DIREN PERTSONEN OINARRIZKO BEHARRIZANEI ERANTZUNA EMATEKO SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA

Lehen esan dugunez, etxerik gabeko pertsonen laguntzaren ezaugarri nagusia, orain arte, **oinarrizko beharrizanak** betetzea izan da, hau da, ostatuari eta janariari loturiko beharrizanak betetzea. Hala eta guztiz ere, azken urteotan hazkunde nabaria izan dute gizarteratzeari loturiko alderdiak lantzen dituzten baliabideek, programek eta zerbitzuek, gizarteratzeko nahiz laneratzeko ibilbideak hasi dituzten pertsonen dagokienez.

**Dispositibo**en sareak lorturiko **konplexutasun** bolumenaren eta mailaren gorakadan zenbait alderdik izan dute eragina. Alde batetik, esan behar da azken bi hamarkada hauetan gizarteraren egitura aldatu egin dela, aldaketa sakon batzuen eraginez, eta horien ondorioz areagotu eta dibertsifikatu egin dira gizarte bazterkeria eta egoera horretan daudenen beharrizanak nahiz ezaugarriak. Aldaketa horiek zenbait fenomenotan gauzatu dira; adibidez, industria birmoldaketa, langabeziaren hazkundera edo emakumeak nahiz gazteak laneratzeko arazoak, besteak beste.

Bestalde, familia eredu nuklearretarako eta familia nahiz gizarte sarea desegiteko prozesuetarako bilakaerak familia eta gizarte mailako benetako deserrotzeari loturiko egoerak sortu ditu, gero eta lotura afektibo eta laguntza gutxiago baitago beharrizan egoeretan. Egoera horiek, orain arte, gizarteak ez ditu ikusi nahi izan, familiaren esku-hartzea orekarako elementu garrantzitsua izan baita.

Azaldu dugun egoera horretan, zein da gizarte baliabideen eta profesionalen eginkizuna, gizarte bazterkeria larriko egoerari amaiera edo irtenbidea emateko orduan? Lehen esan dugunez, egoera horiek ez dira beti kronikoak edo estrukturalak, eta horien soluzioan honako hauek dute eragina:

- Pertsona horiek bazterkeria gainditzeko aukeretan duten konfiantza.
- Profesionalek hobekuntza aukerei eta bazterkeria egoerak gainditzeko aukerei buruz duten pertzepzioa. Batzuetan, ezkortasuna edo etsipena sortzen da; hala eta guztiz ere, pertsona guztien egoera hobetzeko asmoarekin jardun behar da, bazterkeria larrian dauden pertsonak ere asmo horren barruan sartuta, esku-hartzea gizarteratzeko aukerarik gehien duten pertsonengana mugatu barik.

Bazterkeria larrian dauden pertsona horiei emandako laguntzak, bestalde, gizarte erantzuna zerbitzu berezietatik (euren beharrizan jakinei erantzunez) edo sare orokorretik egin behar izatearen inguruko zalantza planteatzen du. Pertsona horiei emandako laguntza bereziak aukera ematen du euren beharrizanak jakiteko eta erantzuna emateko, baina kalteak eta estigmak ere sor ditzake gizarteran; hori errazago gertatzen da laguntza gizarte zerbitzu orokorretatik ematen denean.

Etxerik gabe eta bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen beharrizanak betetzeko eta horiei laguntza emateko jarraibide garrantzitsu batzuk aipatuko ditugu:

- Laguntza baliabide berezietatik edo orokorretatik eman arren, pertsona horien gaineko banan-banako esku-hartze pertsonalizatua behar da, gizarteratze ibilbide pertsonalizatuetan ezarritakoaren arabera.
- Dena delakoagatik mendekotasunen edo zailtasunen bat gainditu nahi ez duten edo ezin duten pertsonen kasuan, gutxienekoak eta oinarrizkoak diren beharrianak beteko direla bermatu behar da.
- Ez da laguntzarik gabeko pertsonarik egon behar, baliabideak pertsona horien beharrianetara egokiturik ez egotearen ondorioz; halaber, ez da pertsona talde jakinik saretik kanpo utzi behar, adibidez, egoera irregularreko etorkinak, buruko arazo larriak dituzten pertsonak edo substantzia batzuekiko mendekotasun handia duten pertsonak.

Urte hauetan<sup>60</sup> esku-hartze irizpide gutxi egon dira; prestazioak, funtsean, ostatura eta janarira mugatu dira; gainera, ez da ekipamendu egokirik egon sektorerako eta lagundutako pertsonaren beharrianetarako; profesional gutxi egon da eta heziketa teknikorik gabeko boluntarioak egon dira. Horren guztiaren eraginez, gizarte bazterkeria “mantentzeko” eredia garatu da.

Hala eta guztiz ere, azken urte hauetan **laguntzako eredueta aldaketa** handia egon da, eta gainera, etxerik gabeko pertsonen bideraturiko zerbitzuak eta programak ere bilakatu egin dira: sektorearen profesionalizatzea, zerbitzuen azpiegituren hobekuntza, gizarteratzeko nahiz laneratzeko programen zein zerbitzuen dibertsifikatzea, administrazioek lagundutako finantziario formula berriak, eta elkarte eta erakunde publikoen arteko ulertze eta koordinazio handiagoa.

Sektorearen bilakaera bera ere lagungarria izan da etxerik gabeko pertsonen laguntzeko baliabideak, programak eta zerbitzuak dibertsifikatzeko; gaur egun, betiko dispositiboekin batera (ostatura, jantokia eta arropa), beste zenbait baliabide ere agertu dira, esate baterako, eguneko zentroak, eskakizun baxuko gaueko zentroak, kaleko esku-hartze taldeak, gizarte nahiz osasun zerbitzuak, unitate ibiltariak, okupazioko zein lanbide aurreko tailerrak eta laneratze enpresak<sup>61</sup>.

Baliabideen bilakaera eta dibertsifikatze hori EAEn ere egon da. Hemen aurkezten dugun diagnostikoak era askotako dispositiboen egitura baten argazkia eskaintzen du, bai baliabide, zerbitzu eta programa erabilgarrien kopuruari, bai lagundutako pertsona kopuruari eta egoera zein beharrian anitzei dagokienez.

Diagnostikoa egiteko erabili diren informazio iturri desberdinek agerian jarri dituzte dispositiboek Euskal Autonomia Erkidegoan izandako aldaketak eta bilakaera. Iturri horiek 2004ko memoriak dira, gaian eskumena duten administrazioek eta laguntzako

<sup>60</sup> Pérez, D. “Aspectos técnicos y organizacionales para el diseño de las estrategias de atención a personas sin hogar”. Etxerik gabeko Pertsonen buruzko Biltzar Nazionala. Valentzia, 1999.

<sup>61</sup> Cabrera, P.J. “La acción social con personas “sin hogar” en España”. Caritas Española ed. Madril, 2000. 192. or.

baliabideak, zerbitzuak nahiz programak kudeatzeko ardura duten erakundeek emandakoak. Gainera, 20.000 biztanletik gorako udal guztiei kontsulta egin diegu, 155/2001 Dekretuaren arabera horiek larrialdiko ostatuan eskumenak dituztelako.

Bestalde, EAEko lurralde historiko bakoitzean egindako elkarrizketek eta eraturiko lan taldeek osatu eta aberastu egin dute diagnostiko hau.

Hemen aurkezten dugun informazioa, bestalde, programak kudeatzen dituzten erakundeekin egiaztatu dugu, batez ere baliabideetako plaza kopuruari loturiko datu gaurkotuak eduki ahal izateko.

Diagnostiko hau egitean **zailtasunak** ere izan ditugu, batik bat baliabideen hautapenari eta laguntzako irizpideei dagokienez.

1. Lehenengo zailtasuna, izan ere, etxerik gabe eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen laguntza emateko baliabideak, zerbitzuak eta programak **aukeratzeko orduan** egon da. Horrenbestez, zenbait tresna erabili ditugu:

- 1.1. *Ikerketan parte hartu duten eragile guztiekiko definizio adostea, etxerik gabeko pertsona izateari buruz*: bizilekurik nahiz baliabide ekonomikorik ez duen edo horiek ondo eta ekonomiako estrategiekin kudeatzeko arazoak dituen pertsona; hala ere, batik bat, “deserrotuta” dauden eta laguntza pertsonalik nahiz sozialik gabeko pertsonak dira, gizartean eta horren dinamiketan parte hartu barik bizi dira, eta beraz, gainerako herritarrek baino ahultasun handiagoa dute.

Hortaz, gure azterketatik kanpo utzi ditugu honako hauetara orokorrean orientaturik dauden baliabide guztiak (batez ere, egoitzakoak): generoko biolentzia, komunitate terapeutikoak eta errefuxiatu politikoei laguntzeko baliabideak, baldin eta horiek kudeatzen dituen erakundeak esan ez badigu etxerik gabeko pertsonen buruz eman dugun definizioan halako baliabideen erabilzaileak ere identifikatzen direla.

- 1.2. *Baliabideak, programak eta zerbitzuak kasuan kasuko beharrezanaren arabera hautatzea*; izan ere, lagundutako pertsonaren profilaren araberrako hautapenak zailtasun bat zuen, hau da, zaila zen bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak ezartzea; esate baterako: toxikomano bat bazterkeria larriko egoeran dago?, “deserrotuta” dagoen pertsona da?, ez dauka gizarte nahiz familia loturarik toxikomania edukitzeagatik?

Horrenbestez, hautapena beharrezan larriko egoerak arintzera bideratzen direnetan oinarritu da; hala eta guztiz ere, gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak edukitzeko programak sortzeko azken joerak aintzat hartuta, beharrezkotzat hartu dugu etxerik gabe eta gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen laguntzeko sarearen barruan garatzen ari diren okupazio eta lanbide aurreko tailerren lagina sartzea.

2. Kapitulu hau lantzeko konpondu behar izan dugun beste zailtasun bat, izan ere, **laguntza irizpideak zehazteko elementuen batasunik eza** izan da, eta horrela, zailagoa izan da lurraldeen arteko konparazioak egitea:

2.1. *Ez dugu irizpide bateraturik* ikusi, egonaldiei, eskakizun maileri edo laguntzari dagozkion eskumenen gaineko interpretazioei buruz, besteak beste.

2.2. *Hiru lurralde historikoen arteko desberdintasunak*: gizarte laguntzako zerbitzu eta baliabide sarearen bilakaerak, baita jarduketa irizpideen eta laguntzako ereduaren arteko ageriko desberdintasunek ere, eragina izan dute lurralde bakoitzean dauden laguntzako dispositibo sarearen garapen eta ulermen desberdinean.

Dispositibo horien egitura errazago ulertzeko, baliabideak, zerbitzuak eta programak gaez eskaintzen dituztenak (hau da, gaueko eta ostatuko zentroak) eta egunez eskaintzen dituztenak bereizi ditugu.

Halaber, orokorrenetatik abiatu gara, hau da, EAEko datuetatik, eta gero, lurralde historiko bakoitzeko laguntza mailetarako hurbilketa egin dugu; laguntza maila hori zehaztea, lehen esan dugunez, zaila da, ez baita erraza etxerik gabeko eta gizarte bazterkeria larriko pertsonen eta gizarte bazterkerian nahiz ahultasunean dauden gainerako pertsonen arteko desberdintasun zehatza egitea.

### 5.2.1. LAGUNTZA IBILBIDEETARA EGINDAKO HURBILKETA

Kontsultaturiko pertsonen artean adostasun handia dago, etxerik gabeko pertsoneri laguntza ematen dien dispositibo sarearen **eginkizuna** beharizanak eskubideak balira bezala betetzeari buruz. Horrenbestez, etxerik gabeko pertsonen oinarriko beharrezaneki laguntzeko eredia publikoa izan behar da eta Administrazioak sustatu behar du.

Horri dagokionez, lurralde historiko bakoitzean eraturiko lan taldeek elementu komunak identifikatu dituzte etxerik gabeko pertsoneri emandako laguntzaren egituretan, eta horiek **eredu "idealak"** edo praktika egokien erreferenteak dira:

a) Laguntza zuzeneko zerbitzuen eta dispositiboaren **sare koordinatua**: beharrezaneki laguntza integrala eskaintzeko filosofiarekin eta erakunde mailako egonkortasun nahikoarekin, halako programen jarraipena bermatzeko. Sare koordinatu horren barruan honako elementu hauek egon beharko dira nahitaez:

- ostatu egonkorren zerbitzuak;
- harrera dispositibo zentralizatuak;
- eskakizun maila guztiak betetzeko baliabideak;
- aldi baterako egonaldiko udal etxebizitzaren sarea;
- ebaluazioaren adierazleak;
- partekaturiko informazio sistemak.

b) **Sentsibilizazioa eta kontzientziakzioa**: laguntza zuzen hori komunitatea kontzientziatzeko neurriekin osatu behar da; neurri horiek lagungarriak izango dira egoerarik txarrean bizi direnak errealitatera hurbiltzeko, gizarteratzean parte hartzen dutenak bazterturiko pertsona eta gizarte baztertzalea baitira.

c) **Udalerriz gairidiko** izaera: hiru lurralde historikoetako jarduketa irizpideetan eta printzipioetan nolabaiteko sintonia dago, gutxieneko laguntza bermatzeko, eta hori

oso konplexua da inplikaturiko eragile eta erakunde guztien arteko koordinazio organoa egon ezean.

Laguntza ereduak ikuspegi publikotik ulertzen badugu, harrera prozesua oinarrizko laguntzako udal unitateek egin behar dute (oinarrizko gizarte zerbitzuak), eta gainera, gizarte beharrianak betetzeko zerbitzuen, prestazioen eta baliabideen sarean sartzeko bidea osatu behar dute.

Hala eta guztiz ere, horretarako ezarrita dauden eskari mailak, laguntzako ordutegiak, hitzordua lortzeko itxaron behar den denbora luzea eta gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden biztanleen ezaugarriak kontuan hartuta, batzuetan eta, batik bat, hiri handietan horiek ez dira dispositiborik egokienak harrera prozesurako, eta beraz, beharrianetara ondoen egokitzen den baliabiderantz bideratzen dira.

Udalerrri batzuetan, egoera hori konpontzeko, gizarte larrialdiko udal zerbitzuak sortu edo larrialdiko jarduketara protokoloak garatu dira; halaber, ekimen pribatutik, harrera sistema paraleloak sortu dira; horren eraginez, batzuetan, sarean sartzeko puntuak asko eta oso anitzak dira. Bestalde, zailtasunak ikusi dira koordinazioan, eta ibilbide sistematikoen nahiz antolatuen diseinuan distortsioak detektatu dira.

Gizarte beharrianen ulermen integraletik begiratuta, pentsa daiteke laguntzako eredu ideal baten barruan gizarte eta osasun espazio baten sorrera sartu behar dela, kontuan hartuta etxerik gabeko pertsonen beharrianetarako laguntzak osasun eduki handia duela.

Azkenik, halako beharrianetarako laguntza emateko diseinatu diren planteamenduen eta ereduaren barruan, bazterkeria azaltzen duten paradigmak eta esku-hartze filosofia desberdinak daude, eta horiek eragin zuzena dute halako pertsonen laguntzan esku hartzen duten erakundeek egindako laguntza sarearen planteamenduan.

Horri dagokionez, laguntzako irizpideetan, babes mailetan eta planteamenduetan lurralde batetik bestera dauden desberdintasunak agerikoak izan dira informazioa biltzeko prozesu osoan. Ondoren, EAeko hiru hiriburuetan egiten diren laguntzako ibilbideak aztertuko ditugu; izan ere, laguntzako baliabiderik gehienak hiriburu horietan pilatzen dira eta eurek garatu behar izan dituzte laguntzako ibilbiderik konplexuenak.

Laguntzako sistema bakoitzaren barruko ideia nagusiei dagokienez, esan daiteke Gasteizen, maila teorikoan, ereduaren gauzapean publikoa eta ibilbide antolatuak nahiz sistematikoak daudela. Bilbon baliabideen mapa handiagoa eta dibertsifikatuagoa dago, baina ibilbideak beti ez daude antolatuta eta ez dira sistematikoak. Azkenik, Donostian etxerik gabeko pertsonen laguntzako sarea sare aringarritzat hartzen da, eta aldaketa prozesuak abiatzeko "eragileak" izateko gaitasuna duten baliabideak sortu behar ditu.

### *5.2.1.1. LAGUNTZA IBILBIDEAK GASTEIZEN*

Laguntza sistemaren ulermen publikoena Gasteizek dauka, bai sarbideari eta bai dispositiboak kudeatzeko formulei dagokienez. Etxerik gabeko pertsonen oinarrizko beha-

rrizanak betetzeko baliabide guztiak Udalaren Gizarte Esku-Hartze Saileko Gizarteratze Zerbitzura atxikita daude; zuzenean kudeatzen dira, baita zeharka ere, ekimen pribatuko erakundeekin egindako lankidetzak hitzarmenen edo sektoreko enpresekin zerbitzuak emateko egindako kontratu pribatu bidez.

Halaber, maila teorikoan, laguntzako ibilbiderik antolatuenak udalerrri honetan planteatzen dira; horri dagokionez, etxerik gabeko pertsonak laguntza sarean sartzeko hiru ate identifikatu ditugu:

- oinarrizko gizarte zerbitzuak, udalerrian erroldaturik dauden pertsonentzat;
- gizarte Larrialdiko Udal Zerbitzua, helbiderik ez duten pertsonentzat, Lurraldeko beste udalerrri batzuetan erroldaturik daudenentzat edo gizarte larrialdiko egoeran daudenentzat;
- Norabide zerbitzua, erroldatzeko baldintzak betetzen ez dituzten atzerritarrentzat, horiek ezin baitituzte jaso oinarrizko gizarte zerbitzuek eskaintako prestazio orokorrak.

Gainera, “kaleko taldeek” inguru irekian egindako esku-hartzea sarrerako eta kontaktua hartzeko beste bide bat da, etxerik gabe eta bazterkeria larriko egoeran bizi diren pertsonen dagokienez.

Ondoren, prozesua hasi ondoren eta modu orokorrean, ostatu oinarriko sarera igarotzen da: Aterpe zentroa, ibilgailuen ezarkuntzarako udal lursaila, Casa Abierta, Gizarte Harrerarako Udal Zentroa (CMAS), Casa Vitoria, etorkin familientzako bizileku babestuak eta gizarteratze prozesuan dauden pertsonentzako bizileku babestuak. Halaber, baliabide horiek modu sistematikoan orientatzen dituzte erabilzaileak, bai heziketa baliabideetara eta bai laneratze tailerretara, gizarteratze prozesu aurreratueta daudenean. Gasteizen gaueko eta eguneko babesa eskaintzen duten dispositiboaren egitura ulertzeko, hona hemen 5.1 eta 5.2 koadroak.

### 5.1. KOADROA: GAUEKO BABESA GASTEIZEN

EGONALDIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/ PROGRAMA	FINANTZIA- ZIOA	PLAZA KOPURUA
Laburra	EGP	Gasteizko Udala	Gizarte Harre- rako Udal Zentroa (CMAS): Egonaldi laburreko egoitza programa eta ate irekiko jardunaldia	Udalarena: Ku- deaketa zuzena	34 + 8 be- saulki ate irekiko jardu- naldirako <sup>(1)</sup>
			Gaueko zentroa: “Aterpe”	Udalarena (lizita- zioaren bidezko kontratazioa)	22 + 12 be- saulki + 2 besaulki ate irekiko jardu- naldirako
<b>EGONALDI LABURRA GUZTIRA</b>				<b>78</b>	<b>%27,0</b>

EGONALDIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/ PROGRAMA	FINANTZIA- ZIOA	PLAZA KOPURUA
Ertaina-Luzea	Familiak	Gasteizko Udala	Gizarte larrialdiko 7 bizileku	Gasteizko Udala: kudeaketa zuzena	35
	Atzerriko familiak	Egoiliar afro-amerikarrak	“Casa Vitoria” programa	Hitzarmena Gasteizko Udalarekin	18
		Partekatu	“Caminante” programa	Hitzarmena Gasteizko Udalarekin	10 <sup>(2)</sup>
	Inmigrazioa eta atzerriko familiak	Egoiliar afro-amerikarrak	2 bizileku babestu	Hitzarmena Gasteizko Udalarekin	12
		Partekatu	Bizileku babestu 1	Hitzarmena Gasteizko Udalarekin	6
	EGP	Gasteizko Udala	Gizarte Harre-rako Udal Zentroa (CMAS): Egonaldi ertaineko eta luzeko programa	Gasteizko Udala: enpresa pribatuari azpikontrataturik	35 <sup>(3)</sup>
	EGP (gazteak)	IRSE/EBI	Laguntzako bizileku 1	AFaren <sup>(5)</sup> eta Gasteizko Udalaren diru-laguntza	3
	HIES	Hiesaren aurk. batzordea	Besarkada Etxea	AFaren eta Gasteizko Udalaren diru-laguntza	14
	Baldintzapekoan dauden presoak	Hiesaren aurk. batzordea	Harrerako bizilekua	AFaren eta Gasteizko Udalaren diru-laguntza	12
Emakume presoak	Pres. emand. lag. (ADAP)	Laguntzako bizilekua	AFaren eta Gasteizko Udalaren diru-laguntza	9	
<b>EGONALDI ERTAINA GUZTIRA</b>				<b>211</b>	<b>%73,0</b>
<b>EGONALDI LABURRA ETA ERTAINA GUZTIRA</b>				<b>289</b>	<b>%100</b>

(1) Jardunaldi irekiko plazak Casa Abierta izeneko egonaldi ertaineko dispositiboarekin osatzen dira, eta horrek 6-8 milioi bideratzen ditu.

(2) 10 familia unitate.

(3) Programak ez dauka iraupen laburreko, ertaineko eta luzeko programen arabera plaza-banaketarik, eta beraz, plazen banaketa 2005eko ekainaren 15ean jasotako datuetan oinarrituz egin dugu.

(4) Jardunaldi irekietan beste 8 besaulki dituzte.

(5) Arabako Foru Aldundiaren siglak.

ITURRIA: Geuk landuta

## 5.2. KOADROA: EGUNEKO BABESA GASTEIZEN

GIZARTERATZE ZENTROAK				
ESKAKIZUNA ETA PROGRAMA	ERAKUNDEA ETA PROGRAMA	ZERBITZUAK	FINANTZIAZIOA	ERABILERA HOBEZINEKO PLAZA KOPURUA
Eskakizun baxua etxerik gabeko pertsonentzat	- Hiesaren aurkako batzordea. Estradaren eguneko zentroa	- Zona irekia: biltze-ko lekuak - Tailerren zona: okupaziokoak eta erdi produktzio-koak diren jarduerak - Eremu psikologikoa: laguntza emozionala eta hezkuntzakoak	Hitzarmena AFArekin <sup>(1)</sup> eta Gasteizko Udalarekin	30
JANTOKIAK				
JANTOKIA	ERAKUNDEA	ZERBITZUAK	FINANTZIAZIOA	EGUNEKO ZERBITZU KOPURUA
Babesik gabeko jantokia	Nuestra Madre de los Desamparados izeneko gizarte zentroa	- Bazkariak eta afariak	Gasteizko Udalaren diru-laguntza, Parrokiaren diru-laguntzak	220
EGUNEKO BABESEKO BESTE ZERBITZU BATZUK				
Oinarrizko 11 gizarte zerbitzu				
Harrera programa pribatuak				
Gizarte Larrialdiko Udal Zerbitzua				
Eremu irekiko esku-hartzea				
Norabide zerbitzua atzerritarrentzat				
Jantzien zerbitzua				
Okupazio tailerrak, hezkuntzakoak, psikosozialak eta lanekoak				
Laneratzeko enpresak				

(1) Arabako Foru Aldundiaren siglak.

ITURRIA: Geuk landuta.

Orokorrean, etxerik gabeko pertsonen jarraituriko ibilbidea eta bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen eskaintako laguntza orientatzen duen ibilbidea bereiztu egiten dira.

**Etxerik gabeko pertsonen** kasuan, jarraituriko ibilbidean, lehenengo eta behin, eskakizun baxuko zentroetan sartzen dira: Aterpe (gaueko zentroa) eta Estrada (eguneko zentroa). Gero, bigarren mailan, Gizarte Herrerako Udal Zentroan sartzen dira, egonaldi laburreko programan (hiru egun, hiru hilean behin), eta azkenik, egonaldi ertaineko eta luzeko programan: gehiengo okupazio modulua edo Casa Abierta deritzona.



Gizarteratze unitatearen balorazioa egin ondoren, gizarteratze prozesuko fase aurreratuetan dauden pertsonak gizarteratzeko egoitza baliabideak lortuko dituzte, gehienetan bizileku babestuak.

Bestalde, familientzako ibilbide berezia daukagu; Ibiltari Programa deritzona da. Gehienetan, familiak Errumaniako ijitoak izaten dira, euren ohiturak erdi nomadak izaten dira eta haurren presentzia handia izaten da.

Hasieran egiten den diagnostikoan bereizketa hau egiten da: alde batetik, hirian modu iraunkorrean finkatzeko asmorik ez duten familia nomadak, baliabide ekonomikoak lortzeko helburua dutenak; bestetik, udalerrian integratzeko eta modu iraunkorrean finkatzeko asmoa dutenak. Sailkapen hori abiapuntua da Esku-Hartze Planaren garapenerako.

Ezarkuntza iraunkorreko asmoa duten familientzat planteaturiko ibilbidea, harrerako hasierako unean, ibilgailuen ezarkuntzetarako Udal Lursailean oinarritzen da, eta gero, familiak Gizarte Harrerako Udal Zentrora bideratzen dira, Casa Vitoria izeneko baliabide berezia lortu arte (atzerriko familientzako baliabide berezia). Prozesuaren amaiera, berriz, gizarteratzeko egoitza baliabideetan edo bizileku babestuetan oinarritzen da.


Gasteizko edozein harrera dispositibotan sartzen diren pertsonak jarraitu beharreko ibilbideei buruzko azken erabakia, nolana ere, Udaleko Gizarte Esku-Hartze Sailaren eskumenekoa da.

Ondoren, 5.1 grafikoan, Gasteizen etxerik ez duten pertsonen laguntza eskaintzeko diseinaturik dagoen ibilbidea ikusten da.

Esan behar da dispositiboaren sarean baliabide nahikoa dagoela, beharrez guztiei erantzuna emateko, eta arazoak baliabide horien aprobetxamenduan identifikatzen dira. Horrela, maila teorikoan sarearen diseinua egokia izan arren, maila praktikokoan distortsioak daude, besteak beste, honako alderdi hauen ingurukoak:

- Kasu bakarrean parametro desberdinetatik esku hartzen duten profesionalen eta sailen kopuru handiegia; horren ondorioz, esku-hartzeak ez dauka norabide bakarra.
- Esku-hartzen duten eragile guztien arteko koordinaziorako zailtasunak.
- Sorospenera gehiegi bideraturiko laguntza. Ez dago mugarik dispositiboaren erabilera eta horrek agerian jartzen du erabakiak hartzean zailtasunak daudela.
- Oinarritzko gizarte zerbitzuek administrazio eta koordinazio lanak egitearen ondorioz, arazoak sortzen dira laneko aldiak egituratzeko orduan, eta horren eraginez, diagnostikoak eta bideratzeak ez dira ondo egiten. Zailtasun hori Bilbon eta Donostian ere ikusi da, baina Gasteizen garrantzi handia hartzen du, zerbitzu horiek benetako atea osatzen baitute etxerik gabeko pertsonak laguntza sarean sartzeko.

## 5.1. GRAFIKOA: ETXERIK GABEKO PERTSONEN LAGUNTZARAKO IBILBIDEA GASTEIZEN



## 5.2.1.2. LAGUNTZA IBILBIDEAK BILBON

EAEko udalerrien artean, baliabide maparik handiena eta dibertsifikatuena Bilbon dago. Horri dagokionez, ekimen pribatuak presentzia handia dauka etxerik gabeko pertsonen laguntza emateko dispositiboaren sorreran eta kudeaketan. Horrela, Administrazioak halako programak finantzatu arren (hitzarmenen edo dirulaguntzen bidez), ez dago ezarritako laguntza ibilbideen gaineko kontrol zuzenik; izan ere, sektoreak laguntzen bolumen handia lortu du, bai dispositiboaren nahiz baliabideen aniztasunari eta bai diseinaturiko ibilbideen konplexutasunari dagokionez.

Alderdi horretatik, Bilboko Udalak sektorearen planifikazio estrategikoa egin du; horren barruan, gehienekoen proposamena sartzan da eta hori, berriz, Inter-Áreas izeneko Lan Taldeak landutako agirian gauzatu da: *“Bilbon bizilekurik ez duten pertsonekin jarduteko proposamena”*.

Inter-Áreas Lan Taldearen helburua, izan ere, Udalak bazterkeria egoeran dauden pertsonen zuzendutako eskumenen eremuan garatzen dituen gizarte esku-hartzeak eta programak koordinatzea da. Lan talde hori honako hauek osatzen dute: udaleko arlo bazueta teknikariak (Emakumea eta Garapenerako Lankidetzeta, Herritarren Segurtasuna, Osasuna eta Kontsumoa eta Gizartekintza), menpeko enpresak (udal Etxebizitzak eta SURBISA) eta arlo honetan proiektuak garatzen dituzten erakundeetako ordezkariak.

Laburtzeko, 5.3 eta 5.4 koadroetan Bilbon gaueko eta eguneko babesa eskaintzen duten baliabideak ikusiko ditugu.

### 5.3. KOADROA: GAUEKO BABESA BILBON

EGONALDIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/PROGRAMA	FINANTZIAZIOA	PLAZA KOPUR.
Laburra	Toxikomania	Cáritas	Hontza: Gizarte eta osasun laguntzako gaueko zentroa	Eusko Jaur-laritzaren eta udalerrien diru-laguntzak	16
		Lagun-Artean	Harrera iraunkorreko zentroa: gaueko zerbitzua	Bilboko Udalaren, E. Jaur-laritzaren eta erak. prib. dirulaguntzak	30
	EGP	Bilboko <sup>(1)</sup> Udala	Elejabarriko aterpetxea: egonaldi laburreko egoitza programa	Udalarena: kudeaketa zuzena	36
			Mazarredoko aterpetxea: Gaueko harrerako neguko dispositiboa	Udalarena: zeharkako kudeaketa <sup>(1)</sup>	50 <sup>(2)</sup>
<b>EGONALDI LABURRA GUZTIRA</b>				<b>132</b>	<b>%26,3</b>

EGONALDIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/PROGRAMA	FINANTZIAZIOA	PLAZA KOPUR.
Ertaina-Luzea	EGP	San Vicente de Paul konfederazioa	Ozanan aterpetxea: Gaueko egoitza zentroa	Bilboko Udalaren dirulaguntza eta bertako fondoak	10
		Bilboko Udala	Elejabarriko aterpetxea: Egonaldi ertaineko egoitza programa	Bilboko Udala: kudeaketa zuzena	25
		Bilboko Udala: SMUS	2 bizileku babestu	Bilboko Udala: azpikontratataua	12
			Aize Onak baserria	Bertako fondoak	10
			Iruña bizilekua	Hitzarmena BFArekin <sup>(3)</sup>	7
		Lagun-Artean	Ramón y Cajal bizilekua	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza	3
			Harrera eta diagnostiko zentroa: "Luzarra Egoitza"	Hitzarmena BFArekin	9
			Giltza programa: 2 bizileku (Atxuri eta San Franzisko)	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta bertako fondoak	11
		Cáritas	Apostólicas: "Abegia" gizarte egoitza	Bertako fondoak eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza	26
			Lurberri Etxea egoitza	Hitzarmena Bilboko Udalarekin eta bertako fondoak	38
		Bizitegi	Programa dibertsifikatua: 14 bizileku babestu eta egoitza txikia	Hitzarmena Osasunarekin eta BFArekin. Bilboko Udalaren nahiz E. Jaurlaritzaren dirulaguntza eta bertako fondoak	52
		IFAS	Bi Etxeak: Egoitza baliabide babestua	Hitzarmena BFArekin	11
		Itaka-Escolapios	2 bizileku babestu	Hitzarmena BFArekin	8
		Religiosas Oblatas kongregazioa	"Lehio Zabalik" harrera bizilekua	Hitzarmena BFArekin	5
		Izangai	Gizarteratze programa: 2 bizileku	Hitzarmena BFArekin	17

EGONALDIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/PROGRAMA	FINANTZIAZIOA	PLAZA KOPUR.	
Ertaina-Luzea	Toxikomania	Siervas de Jesús de la Caridad kongregazioa	Beata M <sup>a</sup> Josefa zentroa	Hitzarmena BFArekin	13	
		Cáritas	Tratamenduetan laguntzeko 3 bizileku	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza eta bertako fondoak	18	
		Agiantza	Tratamenduetan laguntzeko 2 bizileku	Hitzarmena BFArekin	12	
		Zubietxe	Berrisar gizarteratze bizilekua	Hitzarmena BFArekin, E. Jaurlaritzaren nahiz Bilboko Udalaren diru-laguntza eta laguntza pribatua	4	
			Bizileku babestua: Arri-gorriaga	E. Jaurlaritzaren diru-laguntza	3	
		Bidesari	Aldatzen programa: gizarteratze bizileku 1	Hitzarmena BFArekin	6	
		Askabide	Bizileku babestu 1	E. Jaurlaritzaren diru-laguntza eta bertako fondoak	6	
			Askarri programa: bizileku babestua	Hitzarmena BFArekin	6	
		Bizitegi	Langarán bizilekua	Hitzarmena BFArekin	6	
			Peñascal bizilekua	Hitzarmena BFArekin	6	
		Lagun-Artean	Mendigane baserria: tratamenduak	Hitzarmena BFArekin	10	
			Miramar bizilekua	Hitzarmena BFArekin	5	
			Blas de Otero bizilekua	Hitzarmena BFArekin	6	
		Inmigrazioa	CEAR	Aldi baterako harrera programa: harrerako 3 bizileku	Hitzarmena IMSERSO-rekin eta BFArekin eta bertako fondoak	4
			Zubietxe	Hiritar programa: bizileku 1	Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza eta pribatua	6
			Lagun-Artean	"Hegaz" programa	Hitzarmena BFArekin eta bertako fondoak	4
		Etorkin gazteak	Elkarbanatuz	"Ondoan" proiektua: bizileku babestu 1	Hitzarmena BFArekin	7
		"Bidean" proiektua: bizileku erdi babestu 1	Hitzarmena BFArekin	4		
<b>EGONALDI ERTAINA GUZTIRA</b>				<b>370</b>	<b>%73,7</b>	
<b>EGONALDI LABURREKO ETA ERTAINEKO OSTUA GUZTIRA</b>				<b>502</b>	<b>%100,0</b>	

(1) 2004an Mazarredoko aterpetxearen kudeaketa zeharkakoa izan zen. Iturria: Bilboko Udaleko Gizartekintza Arloa.

(2) Mazarredoko aterpetxeak 50 plaza ditu; horietatik 36 ohikoak dira, baina hotzik handieneko egunetan beste gela bat prestatzen da, eta horrela, guztira 105 plaza egoten dira. Handitze hori 24 egunetan egin da.

(3) Bizkaiko Foru Aldundiaren siglak.

ITURRIA: Geuk landuta.

## 5.4. KOADROA: EGUNEKO BABESA BILBON

GIZARTERATZE ZENTROAK					
ESKAKIZUN MAILA	PROFILA	ERAKUNDEA ETA PROGRAMA	ZERBITZUAK	FINANTZIAZIOA	ERABILERA HOBEZINEKO PLAZA KOP. <sup>(1)</sup>
Baxua	Toxikomania	Bizitegi: "Onartu" eguneko zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Garbigailu-lehorgailua eta dutxa</li> <li>- Arlo soziokomunitarioa</li> <li>- Gizarte eta osasun arloa</li> <li>- Arlo psikologikoa</li> <li>- Okupazio arloa</li> </ul>	Eusko Jaurlaritzaren eta Bilboko Udalaren diru-laguntza	15
		Hiesaren aurkako batzordea: Gizarte eta osasun larrialdiko laguntza zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Oinarrizko janarien hornidura zerbitzua</li> <li>- Higiene eta garbiketa zerbitzua</li> <li>- Gizarte eta hezkuntza esku-hartzeak</li> <li>- Osasun laguntzako zerbitzua</li> <li>- Gizarte laguntzako zerbitzua</li> </ul>	E. Jaurlaritzaren, BFAren <sup>(2)</sup> eta Bilboko Udalaren dirulaguntza	20
	EGP	Agiantza: "Abegi Egoitza" eguneko zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jantokia, dutxak eta garbitegia</li> <li>- Tailerrak</li> <li>- Informazioa, orientazioa eta aholkularitza</li> <li>- Gizarte eta osasuneko oinarrizko zaintzak</li> </ul>	Hitzarmena BFA-rekin	25
		Lagun-Artean: "Julio Urquijo" eguneko zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jantoki zerbitzua: gosariak, kafeak eta askariak</li> <li>- Gorputzaren garbiketa, garbitegia eta jantzitegia</li> <li>- Animazio soziokulturaleko zerbitzua</li> <li>- Gizarte eta osasun laguntzako zerbitzua</li> <li>- Gizarte laguntzako zerbitzua</li> <li>- Laguntza juridikoko zerbitzua</li> </ul>	E. Jaurlaritzaren nahiz Bilboko Udalaren diru-laguntza eta diru-laguntza pribatuak	40
		Cáritas: "Apostólicas" eguneko zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jantoki zerbitzua: txartelen bidezko janariak</li> <li>- Garbiketa zerbitzua eta garbitegia</li> <li>- Animazio soziokulturaleko zerbitzua</li> </ul>	Hitzarmena BFA-rekin eta Bilboko Udalarekin. Dirulaguntza pribatuak	120 <sup>(3)</sup>

ESKAKIZUN MAILA	PROFILA	ERAKUNDEA ETA PROGRAMA	ZERBITZUAK	FINANTZIAZIOA	ERABILERA HOBEZINEKO PLAZA KOP. <sup>(1)</sup>
Ertaina-Altua	Toxikomania	Bizitegi: Kontsum. ez diren eta tox. izan diren pertsonentzat irekita	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arlo soziokomunitarioa</li> <li>- Arlo juridikoa</li> <li>- Gizarte eta osasun arloa</li> <li>- Arlo psikologikoa</li> <li>- Heziketa arloa</li> <li>- Okupazioko eta laneratu aurreko arloa</li> <li>- Esku-hartzeak espexetean</li> <li>- Laneratze tailerrak</li> <li>- Jarraipeneko gaueko zerbitzua</li> </ul>	Hitzarmena BFArekin eta E. Jaurlaritzaren diru-laguntzak	25
	EGP	Zubietxe: "Hatzkuntza" eguneko zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Tutoretzak eta gizarte lana</li> <li>- Aholkularitza juridikoa</li> <li>- Lan orientazioa</li> <li>- Sendagaiak</li> <li>- Espetxeko esku-hartzea</li> <li>- Jantokia, jantzitegia, dutxak eta garbitegia</li> <li>- Laguntzak</li> </ul>	Hitzarmena BFArekin. E. Jaurlaritzaren, Bil. Udalaren eta erak. pribatuen dirulaguntzak	35
		Izangai: Gizarteratze zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gizarte eta komunitate laguntzako arloa</li> <li>- Arlo juridikoa</li> <li>- Gizarte eta osasun arloa</li> <li>- Arlo psikologikoa eta hezkuntzako</li> <li>- Heziketa arloa</li> <li>- Okupazioko eta laneratu aurreko arloa</li> </ul>	Hitzarmena BFArekin	20
		Espetxea	ADSI: "Bestalde" eguneko zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Heziketa arloa: Laneko heziketa (heziketa aurreko tailerrak, okupazio heziketa, eskola laguntza) eta oinarrizko laguntza (eskola graduatua, kultura taldea eta okupazio tailerra)</li> <li>- Astialdiko taldea</li> <li>- Elkarrekiko laguntza taldeak</li> </ul>	Hitzarmena BFArekin 5 plazarako, eta BFAren eta E. Jaurlaritzaren dirulaguntza
Baxua-Ertaina-Altua	Toxikomania	T4 Batzordea: Konts. ez diren pertsonentzat	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arlo soziokomunitarioa</li> <li>- Arlo juridikoa</li> <li>- Gizarte eta osasun arloa</li> <li>- Arlo psikologikoa</li> <li>- Heziketa arloa</li> <li>- Okupazioko eta laneratu aurreko arloa</li> <li>- Arlo fisioterapeutikoa</li> <li>- Laneratze tailerrak</li> <li>- Gaueko jarraipen zerbitzua</li> </ul>	Eusko Jaurlaritzaren, Bilboko Udalaren eta BFAren dirulaguntza	15 egonkor eta aldi baterako 8 <sup>(4)</sup>

<b>JANTOKIAK<sup>(5)</sup></b>				
<b>JANTOKIA</b>	<b>ERAKUNDEA</b>	<b>ZERBITZUAK</b>	<b>FINANTZIAZIOA</b>	<b>EGUNEKO B. BESTEKO ZERBITZU KOP.</b>
Apostólicas	Cáritas eta Damas Apostólicas kongregazioa	- Bazkariak	Hitzarmena Bilboko Udalarekin eta generoko ekarpen pribatuak	148
San Antonio de Iralabarri	Frantziskotarren kongregazioa	- Bazkariak eta afa-riak	Hitzarmena Bilboko Udalarekin eta generoko ekarpen pribatuak	163
Conde Aresti	Conde Aresti fundazioa	- Bazkariak eta afa-riak	Hitzarmena Bilboko Udalarekin eta generoko ekarpen pribatuak	67
Beata M <sup>a</sup> Josefa	Siervas de Jesús kongregazioa	- Gosariak	Dirulaguntza pribatuak eta janarien bankua	70
<b>GUZTIRA</b>				<b>448</b>

<b>EGUNEKO BESTE LAGUNTZA ZERBITZU BATZUK</b>
Oinarrizko 11 gizarte zerbitzu
Harrera programa pribatuak
Gizarte larrialdiko udal zerbitzua
Eremu irekiko esku-hartzea
Jantzien zerbitzua
Dutxak
Okupazio tailerrak, hezkuntzakoak, psikosozialak eta lanekoak
Laneratze enpresak

(1) Lokal bera aldi berean erabiltzeko gutxi gorabeherako plaza kopurua.

(2) Bizkaiko Foru Aldundiaren siglak.

(3) Ez dago plaza kopuru hobeazirik ezarrita. Orokorrean, jantoki zerbitzuaren erabiltzaileen %80 instalazioetan kokaturiko eguneko zentroaren erabiltzaileak dira.

(4) Hiesaren aurkako borrokarako T4 Batzordeak Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartu nahi du baliabide hori, 2006tik aurrera. Aldi baterako plazak, berriz, tramite jakinak egiteko iristen diren pertsonen laguntza emateko erreserbatzen dira.

(5) Ez daude jasota ostatu dispositiboetan eta gizarteratze zentroetan ematen diren jantoki zerbitzuak.

ITURRIA: Geuk landuta.

Gaur egun, laguntza zirkuituaren sarrera edozein dispositiboren bidez egiten da. Batzuetan, pertsonak nahita ibiltzen dira laguntza dispositibo batetik bestera, eta, beste zenbaitetan, baliabide hauetan ezarritako arauen eta funtzionamendu sistemen ondorioz ibiltzen dira batetik bestera.

Horri dagokionez, nahasi egiten diren laguntza zirkuituen egitura trinkoa aurkituko dugu; horiek, batzuetan, gainjarri egiten dira eta, horrela, zailagoa da laguntza ibilbideen eskema argia diseinatzea.

Hasieran, bi laguntza zirkuitu daude; bata egoitza baliabideekin erlasionaturik dago eta bestea jarduera edo ekintza osagarriekin. Horri dagokionez, egoitza baliabideak eragin zuzena dauka jarraitzen den ibilbide motan; horrela, zuzen eskuratzen diren eta egonaldi mugatuagoak eskaintzen dituzten egoitza baliabideek antolaketa urriko ibilbideak sortzen dituzte, eta horrela, erabiltzaileak laguntza sarean ibiltzen dira aldizka eta jarraitasun barik.




Aldiz, egoitza baliabide egonkorragoak lortzen dituztenen ibilbidea sistematikoagoa eta antolatuagoa da, batik bat sarbidea baliabide espezializatuen bidez eta erreferenziako profesional taldearekin kontaktua izan ondoren egiten delako. Hala eta guztiz ere, ezin daiteke ahaztu, egonaldirik laburretan sortzen diren ibilbideetan oinarrituz, pertsona ehuneko handiak (alderdi kualitatibotik begiratuta) gizarteratze prozesuak hasten dituela eta pertsona horiek ibilbide sistematikoetan nahiz antolatuagoetan sartzen direla.

Harrera sistema paraleloen sorreran eta laguntzan esku hartzen duten eragile publikoen eta pribatuen aniztasuna aintzat hartuta, esku-hartzearen ibilbideak eta faseak guztiz desberdinak dira, eta horrela, ia ezinezkoa da laguntzako ibilbide eredugarriak ezartzea.

Bestalde, etxerik gabeko pertsona **toxikomanoei laguntzeko ibilbide berezia** ere identifikatu dugu; izan ere, biztanle horien beharrezanek laguntza eskaintzeko baliabideek eta zerbitzuek garapen handia izan dute Bizkaian, batez ere Bilbon. Horri dagokionez, Hontza izeneko gaueko zentrotik eta eskakizun baxuko eguneko zentroetatik egindako igarotze ziklikoa (pertsona toxikomanoentzat) zirkuitutzat har daiteke. Aldatzeko asmoa erakutsi duten pertsona toxikomanoentzat, orokorrean, laguntza zirkuitua egonaldi ertaineko egoitza baliabideekin, eskakizun ertaineko eguneko zentroekin eta laneratzeko heziketa programekin erlazionaturik dago.

Laburtzeko, Bilbon etxerik gabeko pertsonen oinarritzko beharrezanak betetzeko dauden baliabideen eta dispositiboen mapa duen grafikoa ikusiko dugu, 5.2. grafikoa.

## 5.2. GRAFIKOA: BILBOKO BALIABIDE MAPA ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAT



### 5.2.1.3. LAGUNTZA IBILBIDEAK DONOSTIAN

Gaur egun, larrialdiko edota balorazioko kasuetan, laguntza sarean sartzeko bide bat baino gehiago dago Gipuzkoan, etxerik gabeko pertsonentzat. Izan ere, sartzeko puntuak gehiegizkoak dira eta laguntza barreiatu egiten da.

Zailtasun handiak daude larrialdiko edota balorazioko laguntza dispositiboan sarrera bide bakarraren bidez biltzeko; izan ere, erakundeen inertziak, batzuetan, horren aurkako erresistentziak sortzen ditu, oinarrian dauden eta berehalako laguntzara bideratzen diren iritzi ideologikoen eraginez; horrela, koordinaziorik eza eta laguntzen bikoiztasuna sortzen dira. Horri dagokionez, beharrezkoa da, laguntza eredu jakina zehaztu aurreko pausotzat, hausnarketarako aldia irekitzea eta, bertan, Administrazioak bete beharreko “oinarri-oinarrizko” beharrianak argi zehaztea. Hasteko, beharrian horiek honako hauek dira:

- lo egiteko lekua; hala eta guztiz ere, ez dago argi hori urte osoan edo neguan soilik izan behar den, edo Hotzaren Araua aktibatzen denean soilik;
- elikadura;
- larrialdiko osasun prestazioak.

Gaur egun, lanerako erabiltzen den eredu zerbitzu sare aringarriaren eraketan oinarritzen dira, eta horren helburu nagusiak bi dira:

- Oinarrizko edo biziraupeneko beharrian estaltzeko prestazio zerbitzua izatea.
- Detekziorako gaitasuna edo dispositibo sarerako atea izateko gaitasuna edukitzea, aldaketa prozesua hasi ahal duten pertsoneri dagokienez.

Lehenengo helburuari dagokionez, Donostiako Udalaren ustez, ez da sortu behar helburu aringarria soilik duen baliabiderik; izan ere, aukera pertsonalak errespetatu egin behar diren arren, Administrazioak ez du bizi-estilo “marjinalik” sustatu behar. Bigarren helburuari dagokionez, baliabide guztiek gizarteratze prozesuak abiatzeko “eragileak” izateko gaitasuna eduki behar dutela jotzen da. Horri dagokionez, laguntza baliabide eta dispositiborik gehienak gizarteratze prozesuak hasten dituzten pertsonentzat diseinaturik eta pentsaturik daude, eta gainera, eskakizun baxuko zentroek garapen oso urria dute Gipuzkoan eta, hain zuzen ere, Donostian. Aldaketa prozesuak hasten ez dituzten pertsoneri emandako laguntza hutsune handia da; izan ere, egindako balorazioaren arabera, eskakizun baxua alde biko arma izan daiteke: epe laburrerako egoerak konpondu, baina egoera batzuk kroniko bihurtu ahal ditu, baldin eta inbertsio horri errentagarritasun soziala ematen dioten bitarteko baliabideak sortzen ez badira.

Gipuzkoan (Bizkaian edo Araban ez bezala), hiriburuan ez ezik beste udalerrri batzuetan ere etxerik gabeko pertsonentzako zentroak eta dispositiboak daude; udalerrri horietan, biztanle kopuruaren edo kokaleku geografikoaren eraginez, arazo horren presentzia handia dago.

5.5 eta 5.6 koadroetan, Donostian etxerik gabeko pertsoneri gaueko eta eguneko babes eskaintzen dieten baliabideak eta dispositiboak agertzen dira laburbilduta.

## 5.5. KOADROA: GAUEKO BABESA DONOSTIAN

EGONALDIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/ PROGRAMA	FINANTZIAZIOA	PLAZA KOPURUA
Laburra	EGP	Donostiako Udala	Gizarte harrerako udal zentroa	Udalarena: kudeaketa zuzena	20
		Donostiako Udala	Gau hotzetarako harrera zentroa	Udalarena: kudeaketa zuzena	20
		Emaús	“Emaús Valoración”	Hitzarmena GFArekin <sup>(1)</sup> eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntzak	12
		Cáritas	Gaueko zentroa: “Aterpe Noche”	GFAREN diru-laguntza eta bertako fondoak	16
<b>EGONALDI LABURRA GUZTIRA</b>				<b>68</b>	<b>%30,9</b>
Ertaina-Luzea	EGP	Emaús	2 bizileku kronikoentzat	Hitzarmena GFArekin	8
		F. Larratxo	Aterpetxea	Hitzarmena GFArekin	11
		Emaús	ISLA programa: Gizarteratze zentroa	Hitzarmena GFArekin eta E. Jaurlaritzaren diru-laguntza	24
		Donostiako Udala	Gizarte harrerako udal zentroa: egonaldi berezien programa	Donostiako Udala: kudeaketa zuzena	20 <sup>(2)</sup>
	Inmigrazioa	Cáritas	Larrialdiko 5 bizileku	GFAREN diru-laguntza eta bertako fondoak	25
	EGP (gazteak)	Gurutze Gorria	Emantzipazioko 3 bizileku	Hitzarmena GFArekin eta E. Jaurlaritzaren diru-laguntza	18
	Toxikomania	F. Izan	Urigain programa	Hitzarmena GFArekin	18 <sup>(3)</sup>
	HIESa	Acasgi	Harrerako bizileku 1	Hitzarmena GFArekin	10
Preso izandakoak	Loiola Etxea		Loiola Etxea	Hitzarmena GFArekin	12
			Trantsizioko 2 bizileku	Hitzarmena GFArekin	6
<b>EGONALDI ERTAINA GUZTIRA</b>				<b>152</b>	<b>%69,1</b>
<b>EGONALDI LABURREKO ETA ERTAINEKO OSTATUA GUZTIRA</b>				<b>220</b>	<b>%100,0</b>

(1) Gipuzkoako Foru Aldundiaren siglak.

(2) Egonaldi ertaineko programa hau egoera berezietan baino ez da erabiltzen. Ez dago denbora mugarik, baina gehienetan egonaldia hilabetekoa izaten da.

(3) 14 plaza gizonentzat eta 4 plaza emakumeentzat.

ITURRIA: Geuk landuta.

## 5.6. KOADROA: EGUNEKO BABESA DONOSTIAN

GIZARTERATZE ZENTROAK					
ESKAKIZUN MAILA	PROFILA	ERAKUNDEA ETA PROGRAMA	ZERBITZUAK	FINANTZIAZIOA	ERABILERA HOBEZINEKO PLAZA KOPUR.
Baxua	EGP	Cáritas: "Aterpe Día"	- Jantokia, dutxak, komuna eta jantzigia - Erizaintza eta podologia	GFAren dirulaguntza <sup>(1)</sup> eta bertako fondoak	48
		RAIS: "Topaleku"	- Tailerrak, egongela eta topalekua	Hitzarmena GFAren, E. Jaurlaritzaren dirulaguntza eta bertako fondoak	20
	Toxikomania/EGP	Izan fundazioa: Uli-Enea eguneko zentroa	- Egongela eta topalekua - Osasun laguntza - Laguntza psikologikoa	Hitzarmena GFAren eta E. Jaurlaritzaren dirulaguntza	30
<b>GUZTIRA</b>					<b>98</b>

JANTOKIAK<sup>(2)</sup>

JANTOKIA	ERAKUNDEA	ZERBITZUAK	FINANTZIAZIOA	EGUNEROKO ZERBITZU KOPURUA
Aterpe	Cáritas	- Bazkariak eta afariak	GFAren dirulaguntza, dirulaguntza pribatuak eta dohainak	160

## EGUNEKO LAGUNTZAKO BESTE ZERBITZU BATZUK

Oinarrizko 8 gizarte zerbitzu

Harrera programa pribatuak

Eremu irekiko esku-hartzea

"Gurutze Gorriaren ospitalea" gizarte eta osasun zentroa

Okupazioko tailerrak, hezkuntzakoak, psikosozialak eta lanekoak

Laneratze enpresak

(1) Gipuzkoako Foru Aldundiaren siglak


(2) Ez daude jasota ostatuko dispositiboetan eta gizarteratze zentroetan emandako jantoki zerbitzuak  
ITURRIA: Geuk landuta

Bilboren kasua aztertzean ikusi dugun bezala, Donostian ere ezin daiteke laguntza zirkuitu edo ibilbide argirik ezarri, gizarteratze prozesuak hasten dituzten pertsonen ibilbide antolatua egin arren. Hala eta guztiz ere, esku hartzen duten eragileen aniztasuna kontuan hartuta, ez dago batasunik diseinatzen diren ibilbideen artean, eta horiek, neurri handian, baliabidea, dispositibo edo programa kudeatzen duen erakundearen laguntza irizpideen eta filosofiaren arabera dira. Bestalde, aldaketa prozesurik egiten ez duten pertsonen kasuan, ez da horien ibilbidearen jarraipenik egiten, bai pertsona horien ezaugarrien eraginez edota bai baliabideak euren beharrianetara ez egokitzea-

ren ondorioz. Horri dagokionez, esan behar da Herri Administrazioak eta baliabideak nahiz dispositiboak kudeatzen dituzten erakunde pribatuek esfortzu handia egiten dutela deribazio protokoloak ezartzeko eta etxerik gabeko pertsonen laguntza saretik egindako ibilbideak sistematizatzeke.

Hurrengo grafikoan, laburpentzat, etxerik gabeko pertsonen oinarritzko beharrianak betetzeko Donostian dauden baliabideen mapa agertzen da.

### 5.3. GRAFIKOA: DONOSTIAKO BALIABIDE MAPA ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAT



#### 5.2.2. GAUEKO BABESA

Gaueko babesa, gaua igarotzeko aukera ematen duten baliabideen eta zerbitzuen multzotzat hartuta, bi motakoa izan daiteke funtsean:

- Gaua ohean igarotzeko aukera ematen duten **ostatu zerbitzuak**.
- Gauez biltzeko lekua eskaintzen duten **gaueko zentroak**; bertan, pertsonen hamakan edo etzalekuan atsedena hartzeko edo lo egiteko aukera dute.

Hala eta guztiz ere, batik bat ostatu zerbitzuen eskariak izandako gorakadaren ondorioz, gaueko zentroak praktikan ostatu babesa eskaintzeko sistemak dira, ezarrita dauden ostatu zerbitzuak dena delakoagatik eskuratu ezin dituzten pertsonentzat.

Horrenbestez, kapitulu honetan, bi dispositibo mota horiek ostatu zerbitzutzat hartuko ditugu, bi baliabide horietarikoren bat zehatz aztertzeo atalen kasuan izan ezik.

Gaueko babesa eskaintzen duten dispositiboen sarea errazago ulertzeko, horiek eskakizun mailaren eta egonaldiaren arabera sailkatu ditugu. **Eskakizun mailari dagokionez**, honako sailkapen hau egin daiteke:

- Eskakizun **baxuko** edo eskakizunik **gabeko** ostatuak: taldeko baliabide hauek premia ostatu beharizanak betetzeko diseinaturik daude. Egonaldi laburrekoak dira eta kalteak murrizteko lana egiten da. Eskakizun baxuko baliabide batzuek iraupen mugagabea dute, baina euren helburua ez da bertan dauden pertsonak gizarteratzea.
- Eskakizun **ertaineko** ostatuak: halako zentroetan gizarteratzeko eta laneratzeko lerroak lantzen dira, eta horrek iraupen aldagarria dauka denboran. Eskakizun ertaineko zentroek egoera “kronikoa” ez duten pertsonen berregituratzea ahalbidetzen dute, horiek aldatzeko borondatea edukiz gero.
- Eskakizun **altuko** ostatuak: pertsoneri ostatua eskaintzen dieten baliabideak, bizitza guztiz autonomorako trantsizioko baliabidetzat edo egonaldi mugagabeko baliabidetzat, etxebizitza normalizatu lortzeko eta mantentzeko arazoak dituzten pertsonentzat. Dispositibo sare hori lortzeko, baldintza edo eskakizun batzuk bete behar dira (errolatuta egotea, gizarteratze programa jakinetatik etortzea edo autonomia mailak gaindituta edukitzea, besteak beste).

**Egonaldiari** dagokionez, baliabideak ondoren adierazitakoaren arabera sailkatzen dira:

- Egonaldi **laburreko** ostatua: halako ostatuen helburua larrialdiko egoerei erantzuna ematea da. Doako ostatuak dira eta egonaldia hiru edo bost egunetik (gutxienekoa) hilabetera edo bi hilera (gehienekoa) bitartekoa izan daiteke. Gehienetan, egoeraren araberako beharizanen baten ondoriozko larrialdiei erantzuteko erabiltzen dira (tratu txarrak, uzteak, familia barruko arazoak, babesik eza edo kanporatzeak); horrek hartzen den pertsonaren diagnostikoa egiteko aukera ematen du, eta horrela, horrekiko deribazioa edo esku-hartzea planteatzen da. Egonaldi laburreko baliabideak lortzeko sistema aldagarria da, Lurralde Historikoaren arabera.
- Egonaldi **ertaineko** eta **luzeko** ostatua: halako ostatu baliabideetan, erabiltzaileek mantenamendurako laguntza ekonomikoa eman dezakete, euren aukeren arabera, baina doakoak ere izan daitezke. Halako baliabideetan egonaldi luzeagoak egiteko aukerari esker, gizarteratzeko ibilbideak planteatu ahal dira, esku-hartze programen helburuak bete ahal izateko. Kasu honetan, sartzeko sistema ere Lurralde Historikoaren araberakoa da, hau da, sarbidea udalerrietako edo baliabideak kudeatzen dituzten erakundeetako gizarte zerbitzuen deribazioaren bitartez egiten da. Egonaldi

ertaineko/luzeko ostatuaren iraupena **sei hiletik bi urtera** bitartekoa izan daiteke. Orokorrean, bi egonaldi horien arteko desberdintasuna hauxe da: egonaldi laburra gizarteratzeko prozesuak errazteko egiten da, bazterkeria edo marjinazio egoeran dauden pertsonentzat edo familientzat (kronikoa ez den desegituratze pertsonaleko arazoak); egonaldi luzea, berriz, kronikoa den gizarte arazoari erantzuna emateko egin daiteke, etxerik eta familia laguntzarik ez duten pertsonentzat, eta gainera, ezaugarri jakineko pertsoneri laguntza emateko baliabide espezializatuak izan daitezke (toxikomania edo espetxea, besteak beste). Bi kasutan ere jarraipen eta ikuskapen iraunkorra egiten da.

Orokorrean, eskakizun baxuko edo eskakizunik gabeko baliabideek egonaldi laburra dute, premiazko ostatu beharizana betetzeko erabiltzen direlako, eta eskakizun ertaineko eta altuko baliabideak, ostera, gizarteratze prozesuetara bideratzen dira eta euren iraupena ertaina eta altua izaten da.

Une honetan, EAEn etxerik ez duten pertsoneri gaueko babes eskaintzen dieten baliabideen eskaintza, batez ere, hiru hiriburuetan pilatzen da. Gipuzkoaren kasuan, beste udalerrri batzuetan halako dispositiboen presentzia handiagoa dago; izan ere, horien kokaleku geografikoaren (“igarotzeko” udalerrriak), halako beharizanen presentzia handiagoaren edo etxebizitzaren prezio merkeagoaren eraginez, udalerriotan halako baliabideak, zerbitzuak eta programak garatu dira.

EAEko laguntza sarearen lehenengo ezaugarri bereizgarria, izan ere, batik bat hirikoak diren dispositiboen eta baliabideen egitura izatea da. Hona hemen 5.7 koadroa.

#### 5.7. KOADROA: GAUEKO ETA OSTATUKO ZENTROEN BANAKETA<sup>(1)</sup>, BIZTANLE KOPURUA KONTUAN HARTUTA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2005

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Kop.	% <sup>(2)</sup>	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
5.000 biztanle baino gutxiago	-	-	1	1,5	-	-	1	0,8
5.001-20.000	-	-	-	-	11	28,9	11	8,3
20.001-50.000	-	-	1	1,5	2	5,3	3	2,3
50.000 baino gehiago	27	100,0	64	97,0	25	65,8	116	88,6
<b>GUZTIRA<sup>(3)</sup></b>	<b>27</b>	<b>20,6</b>	<b>66</b>	<b>50,4</b>	<b>38</b>	<b>29,0</b>	<b>131</b>	<b>100,0</b>

(1) Gaueko zentroko eta ostatuko baliabide hauek etxerik gabeko pertsoneri bideraturik daude. Azterturiko programa bakoitzaren baliabideak, bizilekuak edo zentroak zenbatu dira. Ez dira kontuan hartu 20.000 biztanletik beherako udalerrietan dauden balio anitzeko bizilekuak. Aintzat hartu dira Hotzaren Araurako sorturiko baliabideak.

(2) Ehuneko bertikalak dira, eta lurralde historiko bakoitzaren oinarri osoaren gainekoak dira.

(3) Ehuneko horizontalak dira, eta EAEko oinarri osoaren gainekoak dira.

ITURRIA: Geuk landuta, memorien azterketan eta zentroak nahiz programak kudeatzen dituzten erakundeetara egindako kontsultan oinarrituz.

EAEn kokaturiko hamar gaueko zentro edo ostatutik ia bederatzi 50.000 biztanletik gorako herrietan daude, eta 20.000 biztanletik gorako biztanleria eta premiazko harrerako eskumenak dituzten udalerrietan halako dispositiboen presentzia txikia dago.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetan ostatuko baliabide eta gaueko zentro guztietako 108 daude<sup>62</sup>, 50.000 biztanletik gorako herriei dagokienez, eta horrek halako baliabide guztien %93,1 adierazten du. Arabaren kasuan, biztanle kopuru hori duen udalerrri bakarra Gasteiz da, eta beraz, halako dispositiboen %100 bertan kokaturik daude. Bizkaiaren kasuan, halako udalerrietan kokaturiko baliabide horien %92,2 Bilbon daude, eta Gipuzkoan, azkenik, 50.000 biztanletik gorako herrietan kokaturiko gaueko babeseko dispositiboen %88 Donostian daude.

**Eskeinutako plazei** dagokienez, guztizkoa 1.135ekoa da, eta zifra hori aldagarria izan daiteke, baliabideen eskaintza handitzeko aukeraren arabera. Plaza guztietatik, %43,7 Bizkaiaren daude, %31,7 Gipuzkoan eta %24,6 Araban. Ikusi 5.8 koadroa.

**5.8. KOADROA: OSTATUKO PLAZA KOPURUA<sup>(1)</sup> ETA GAUEKO ZENTROEN KOPURUA ETXERIK GABE BIZI DIREN PERTSONENTZAT, BALIABIDEAREN EGONALDIA AINTZAT HARTUTA, LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. 2005**

EGONALDIA	ARABA		BIZKAIJA		GIPUZKOA		EAE	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Egonaldi laburra	68 <sup>(3)</sup>	24,4	82	16,5	75	20,8	225	19,8
Egonaldi ertaina-luzea	211	75,6	414	83,5	285	79,2	910	80,2
<b>GUZTIRA <sup>(2)</sup></b>	<b>279</b>	<b>24,6</b>	<b>496</b>	<b>43,7</b>	<b>360</b>	<b>31,7</b>	<b>1.135</b>	<b>100,0</b>

(1) Ez dira aintzat hartu neguko dispositiboetako eta ate irekiko jardunaldietako (Hotzaren Araua) plazak.

(2) Ehuneko horiek horizontalak dira, hau da, EAEko plaza guztietan oinarrituz kalkulatu dira.

(3) Banaketa egiteko oinarritzat, gizarte harrerako udal zentroko (CMAS) okupazio datuak hartu dira, 2005eko ekainaren 15ean bildutakoak, egonaldi laburreko eta ertain-luzeko plazen banaketa eskariaren arabera egiten baita.

ITURRIA: Geuk landuta, erakunde publikoetan nahiz pribatuetan eta agerietan egindako kontsultan oinarrituz.

Hala eta guztiz ere, ezin daiteke lortu babes mailak ezartzeko aukera ematen duten adierazle estatistikorik, eta beraz, arlo honetan ezinezkoa da lurralde batetik besterako konparazioak egitea. "Etxegabetasun" fenomenoaren opakutasuna kontuan hartuta, etxerik gabeko pertsonen oinarritzko beharrezaneiei eskaintzen zaien babes maila ebaluatzeari dagokionez, beharizan horiek betetzen dituztenen ekarpenak eta iritziak baino ez ditugu.

Bestalde, ostatuko dispositiboen egiturazte zehatzagoa ezartzeko (egonaldiari dagokienez) irizpide bat baino gehiago dagoenez, egonaldi ertainaren eta luzearen kategoriari bateratu egin ditugu. Horrela, EAEn egoitza baliabideetan urte osoan eskainitako plazen %80,2 egonaldi ertainerako eta luzerako dira, kasurik gehien-gehienetan aldi jakinerako (gehienez bi urte) eta lorturiko gizarteratze mailaren arabera.

<sup>62</sup> Etxerik gabeko pertsonen zuzendutako ostatu mailako baliabideak eta gaueko zentroak dira. Zenbatu egiten ditugu aztertutako programa bakoitzak dituen baliabideak, bizilekuak edo zentroak. Ez dira aintzat hartu 20.000 biztanletik beherako biztanleria duten udalerrietan kokaturiko balio anitzeko bizilekuak. Kontuan hartu dira Hotzaren Araurako sortu diren baliabideak. Gasteizen halako dispositiboen %100 dago. Bilbon Bizkaia osoko 66 dispositiboetatik 59 daude. Donostian Gipuzkoan kokaturiko 38 dispositiboetatik 22 daude.



Halaber, gaueko zentroak egonaldi laburreko dispositiboen artean sartu ditugu; izan ere, pertsona batentzako gehieneko egonaldia ezartzen ez den arren, gaua igarotzeko aukera baino ez da eskaintzen, eta gainera, sartzeko irizpideek, kasurik gehienetan, ez dute bermatzen pertsona berak baliabideok aldi jakinean erabili ahal izango dituenik.

Lurralde batetik besterako konparazioak egiteko zailtasunak lehen ere aipatu ditugu, baina esan behar da ehunekoen aldetik esfortzurik handiena egiten duen lurraldea Bizkaia dela, egonaldi ertaineko eta luzeko gaueko babesari dagokionez; Arabak, berriz, egonaldi laburreko ostatu dispositiboen ehunekorik handiena dauka.

Baliabide horien laguntza izan duen pertsona kopurua, bestalde, ezarritako plaza kopurua baino nahiko handiagoa da, dispositibo horiek zenbait pertsonak aldizka erabili ahal dituztelako, batik bat egonaldi laburreko baliabideen kasuan.

Dispositibo horiek txandakakoak direnez eta sarritan plaza nahikorik egoten ez denez, gaueko **babesa** eskaintzen duten baliabideetan ezarritakoa baino pertsona kopuru nahiko handiagoari ematen zaio laguntza, eta horrela, euren aukerak mugaraino behartzen dira.

Beste alde batetik, neguan egonaldi laburreko eskaintza osatu egiten da **Hotzaren Arauarekin**; horrela, laguntzako dispositibo batzuetan jardunaldi irekiak eratu, neguko dispositibo bereziak sortu eta plazak hitzartzen dira ostatueta eta pentsioetan, ohiko baliabideetan plaza nahikorik ez dagoenean.

Plaza erabilgarriak halako dispositiboetan laguntzeko moduko biztanle kopuruarekin konparatuz gero (18 eta 65 urte bitarteko biztanleak), dispositibo hauek eskainitako babes maila jakin daiteke, gutxi gorabehera. Hona hemen 5.9 koadroa.

#### 5.9. KOADROA: PLAZA BAKOITZEKO PERTSONA KOPURUA<sup>(1)</sup> ETA LAGUNTZAREN EHUNEKOA, LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. 2005

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Plazak <sup>(2)</sup>	279	496	360	1.135
Biztanleria (18-65) <sup>(3)</sup>	205.024	774.656	464.823	1.444.503
<b>Plaza bakoitzeko pertsona kopurua</b>	<b>734,85</b>	<b>1.561,80</b>	<b>1.291,17</b>	<b>1.272,69</b>
<b>Laguntzaren % <sup>(4)</sup></b>	<b>0,14</b>	<b>0,06</b>	<b>0,08</b>	<b>0,08</b>

(1) Ez dira aintzat hartu neguko dispositiboetako eta ate irekiko jardunaldietako (Hotzaren Araua) plazak.

(2) Iturria: Geuk landuta, erakunde publikoetan nahiz pribatueta eta agiritan egindako kontsultetan oinarrituz.

(3) Iturria: Estatistikaren Euskal Erakundea (EUSTAT). 2002ko abenduaren 31n gaurkoturiko biztanleria.

(4) Ehuneko hori, atera ere, plaza kopurua adin horien barruan dagoen biztanleria osoarekin erlazioan jarrita atera da.

ITURRIA: Geuk landuta.

Konparazio honek muga metodologikoak ditu, halako dispositiboen laguntza beharko duten biztanleen ehuneko zehatz jakiteko ezintasunari lotuta. Hala eta guztiz ere, eskaintzen dugun babes kalkulatzeak arazo metodologikoak eragin arren, interesgarria da horren inguruko hausnarketa egitea. Izan ere, horrek halako baliabideen gaitasunari buruzko ikuspegi orokorra edukitzeko aukera ematen du, gizarte bazterkeria larria duten biztanleen

beharrizanei erantzuna emateari dagokionez, eta gainera, jarduketa ratioak ezarri eta horiek zehaztu behar izatearen inguruko hipotesiak egiteko aukera ere ematen du.

Orokorrean, EAEn dauden gaueko babeseko plazen bidez, 18 eta 65 urte bitarteko biztanle guztien %0,08aren beharrizanak betetzen dira; edo, beste modu batera esateko, gaueko zentroetan edo ostatuetan plaza bat dago adin bitarte honetako 1.272 biztanlerentzat.

Hala eta guztiz ere, babesak zifra oso desberdinak erakusten ditu, lurralde historikoen arteko konparazioak egiten direnean. Horrela, babes ehunekorik handiena Arabak dauka (%0,14), eta bertan, adin bitarte horretan plaza bat dago 734 biztanlerentzat; zifra hori EAeko batez bestekoa baino apur bat altuagoa da. Aldiz, Bizkaian gaueko ostatuko plaza bat dago 1.561 biztanlerentzat, eta horrela, babes maila %0,06koa da, eta Gipuzkoan plaza bat dago 1.291 biztanlerentzat; horrenbestez, adin bitarte horretan dauden pertsonen %0,08aren ostatu beharrizanak betetzen dira.

Beste alde batetik, azterketa honetan kontuan hartu behar dira laguntzako dispositiboetarako **sarbidetarako**, berehalako beharrizaneko une batean baliabidean sartzeko aukerak horren arabera baitira. Bi sarbide mota daude:

- Sarbide zuzeneko plazak: beharrizana duen edozein pertsonak eskuratu ahal ditu, eskatzen diren baldintzak gutxienekoak direlako eta egonaldia oso mugatua delako.
- Zeharkako sarbideko plazak: aurretiazko kontaktua eduki behar da laguntza sareko beste erakunde batzuekin, profesional taldearen deribazioaren ostean.

Eskainitako plaza kopuru osotik (5.10 koadroa), sarbide zuzenekoak %12,8 baino ez dira, eta %87,2 zeharkako sarbidekoak dira. Urtean zehar zerbitzu horiek erabiltzen dituzten pertsonen kopurua askoz ere handiagoa da, ezarritako plaza kopurua baino; izan ere, txandakako zerbitzuak dira, baina batik bat sarbide zuzeneko baliabideetan, pertsona batzuek baliabide hori aldizka erabili ahal dutelako.

#### 5.10. KOADROA: OSTATUKO PLAZEN ETA GAUEKO ZENTROEN<sup>(1)</sup> KOPURUA, ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAT, SARBIDE MOTAREN ARABERA, LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. 2005

SARBIDE MOTA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Nº	%	Nº	%	Nº	%	Nº	%
Zuzena <sup>(2)</sup>	-	-	92	18,5	53	14,7	145	12,8
Zeharkakoa	279	100,0	404	81,5	307	85,3	990	87,2
<b>GUZTIRA <sup>(3)</sup></b>	<b>279</b>	<b>24,6</b>	<b>496</b>	<b>43,7</b>	<b>360</b>	<b>31,7</b>	<b>1.135</b>	<b>100,0</b>

(1) Ez dira aintzat hartu neguko dispositiboetako eta ate irekiko jardunaldietako (Hotzaren Araua) plazak.

(2) Sarbide zuzeneko plazetan honako hauek sartu ditugu: Bizkaian Hontza zentroa, Lagun Artean harrera iraunkorreko zentroa, Elejabarriko aterpetzeko egonaldi laburreko programa eta Ozanan aterpetzeko gaueko egoitza zentroa, guztiak Bilbon. Gipuzkoan Tolosako Abegi aterpetxea, Ermaús balorazio zentroa, Aterpe gaueko zentroa eta Donostiako Gizarte Harrerako Udal Zentroko egonaldi laburreko programa.

(3) Ehuneko horiek horizontalak dira, hau da, EAeko plaza guztietan oinarrituz kalkulatzen dira.

ITURRIA: Geuk landuta, erakunde publikoetan nahiz pribatuetan eta agiriaren egindako kontsultetan oinarrituz.

Aipagarria da Arabako egoera berezia; bertan, baliabideen %100 erabiltzeko, beharrezkoa da Oinarrizko Gizarte Zerbitzuekin edo Gizarte Larrialdiko Udal Zerbitzuarekin aurretiazko kontaktua edukitzea.

Horri dagokionez, badirudi egoitzako baliabide edo dispositibo motak eragina duela erabiltzaileek jarraituriko laguntza zirkuituan edo ibilbidean. Ibilbide hori sistematikoagoa eta zuzenduagoa da zeharkako sarbideko baliabideen kasuan, eta, kasurik gehienetan, horiek ematen dute egonkortasunik handiena. Egoera hori zentzuzkoa da, kontuan hartuta baliabide horiek eskuratzeko aurretiazko kontaktua eduki behar dela gizarte laneko profesional taldearekin; horiek beharizanen diagnostikoa egin eta laneko plana ezarriko dute. Aldiz, sarbide zuzeneko egoitza baliabideen kasuan, horien ezaugarri nagusienetarikoa bat aldizkako eta jarraitasunik gabeko erabilera da.

Bestalde, aipagarria da EAEko ostatuko eta gaueko zentroetako dispositiboaren %58 **profil espezifikoaren** laguntzarako espezializaturik ez egotea; izan ere, oinezkoen edo etxerik gabeko pertsonen profil tradizionalaren ostatu beharizanik oinarrizkoenak betetzen dituzte, eta era askotako beharizanetarako laguntza ematen dute. Hona hemen 5.11 koadroa.

**5.11. KOADROA: OSTATUKO PLAZEN<sup>(1)</sup> ETA GAUEKO ZENTROEN KOPURUA, ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAT, LAGUNDUTAKO PERTSONAREN PROFILAREN ARABERA, LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. 2005<sup>(1)</sup>**

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Toxikomania eta HIES	14	5,0	120	24,2	64	17,8	198	17,4
Immigrazioa eta familia atzerritarrak	81 <sup>(3)</sup>	29,0	54	10,9	67	18,6	202	17,8
Oinezkoak eta etxerik gabeko pertsonak	154	55,2	318	64,1	185	51,4	657	57,9
Beste batzuk <sup>(2)</sup>	30	10,8	4	0,8	44	12,2	78	6,9
<b>GUZTIRA<sup>(4)</sup></b>	<b>279</b>	<b>24,6</b>	<b>496</b>	<b>43,7</b>	<b>360</b>	<b>31,7</b>	<b>1.135</b>	<b>100,0</b>

(1) Ez dira aintzat hartu neguko dispositiboetako eta ate irekiko jardunaldietako (Hotzaren Araua) plazak.

(2) Epigrafe horren barruan, espetxean eta gazteentzako emantzipazio bizilekuetan dauden pertsonentzako baliabideak sartu dira.

(3) Plaza horietatik 35 atzerriko edo nazioi familiei zuzenduta daude.

(4) Ehuneko horiek horizontalak dira, hau da, EAEko plaza guztietan oinarrituz kalkulatu dira.

ITURRIA: Geuk landuta, erakunde publikoetan nahiz pribatuetan eta agerian egindako konsultetan oinarrituz.

Hala eta guztiz ere, lagundutako pertsona profilararen arabera plazen banaketa agerian jartzen duenez, lurralde historikoen arabera desberdintasun handiak daude. Esate baterako, Bizkaiak ostatuko eta gaueko zentroetako plaza kopururik handiena bideratzen du toxikomanietara, eta horrek agerian jartzen du drogen erabilera marjinalak Lurraldean gertatzen den gizarte bazterkeria larriaren eragina.

Beste alderdi aipagarri bat, izan ere, Araban plaza asko familien laguntza espezifikorako erabiltzea da; hain zuzen ere, etxerik gabe eta gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden

familiei laguntza emateko programa espezifikoak garatu duen lurralde bakarra da. Batik bat, Errumaniako ijito familia ibiltariak dira, eta horietan haur asko daude.

Bestalde, Arabaren kasuan, epigrafe honen barruan, baliabide ekonomiko urriko etorkinei zuzendutako ostatu baliabideak ez ezik, gazte atzerritarrei (familiarik gabeak eta adin nagusikoak) bideraturiko emantzipazio bizilekuak ere sartzen dira.

Bizkaian eta Gipuzkoan, gehienetan larrialdiko bizilekuak erabili edo ostatueta plazak hitzartzen dira, zailtasunak dituzten familiei laguntza emateko, horiek gizarteratzeko prozesua hasi dutenean. Hala ere, lurralde horietan etxerik ez duten familien gailentasuna, kontsultaturiko pertsonen esan dutenez, guztiz marjinala da. Kasurik gehienetan, gizarteratze prestazioak edo familiekiko lanerako egonkortasuna ematen dituzten ostatu baliabideak eskuratzeko, eroldaturik egon behar izaten da. Horrela, familia ibiltariak daudenez eta, jakina, horiek eroldaturik egoten ez direnez, garaturiko lana oinarritzko beharrezkoak betetzera bideratzen da.

Arabaren kasuan, fenomeno horren gailentasun handiagoa batez ere bi alderdik baldintzatzen dute:

- “Dei efektua”; horren eraginez, etxerik ez duten familia ibiltariei laguntza emateko baliabide eta dispositibo bereziak sortzen dira.
- Nekazaritzako eta sasoikako jardueren presentzia handiagoa, eta horrek pertsona etorkinen lan kontratazioa errazten du.

Arabian, “beste batzuk” kategoriaren barruan, preso izandako pertsonen edo kondenaren hirugarren gradua betetzen ari diren pertsonen ostatu beharrezkoak betetzera bideraturiko dispositiboak sartzen dira gehienbat.

Horrek guztiak lurralde mailako desberdintasun handiak adierazten ditu, bai laguntza ereduak ulertzeko moduari eta bai baliabideak, zerbitzuak nahiz programak kudeatzeko moduari dagokionez; horrenbestez, desberdintasun horiek sakonago aztertuko ditugu, egonaldi laburreko babesetik hasita.

### *5.2.2.1. LARRIALDIKO ETA EGONALDI LABURREKO GAUEKO BABESA*

Egonaldi laburreko baliabideak beharrezko jakineko egoeretan larrialdiko ostatua eskaintzera bideraturiko dispositiboak dira.

Larrialdiko harrera beharrezkoak betetzeko dauden baliabideen eta dispositiboen azterketak agerian jarri duenez, baliabideak EAeko hiru hiriburueta pilotuta daude. Premiazko harreraren eskumenak dituzten gainerako udalerriek, berriz, Dekretuak eskaintako lehenengo bi aukeren bidez betetzen dute beharrezko hori, eta udalerrian eroldaturik dauden pertsonen kasuan bakarrik.

Larrialdiko edo egonaldi laburreko plaza guztien %43,3 Bizkaian daude, %31,1 Gipuzkoan eta gainerako %25,6 Araban. Hona hemen 5.12 koadroa.

### 5.12 KOADROA: EGONALDI LABURREKO OSTATU ZERBITZUAK ETA GAUEKO ZENTROAK. 2005

UDALERRIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/PROGRAMA	FINANTZIAZIOA	PLAZA KOPURUA
Gasteiz	EGP	Gasteizko Udala	Gizarte harrerako udal zentroa (CMAS): Egonaldi laburreko egoitza programa eta ate irekiko jardunaldia	Udalarena: kudeaketa zuzena	34 + 8 besaulki ate irekiko jardunaldirako(1)
	EGP	Gasteizko Udala	Gaueko zentroa: "Aterpe"	Udalarena (lizitazioaren bidez kontratatua)	22 + 12 besaulki + 2 besaulki ate irekiko jardunaldirako
<b>ARABA GUZTIRA</b>				<b>78</b>	<b>%25,6</b>
Bilbo	Toxikomania	Cáritas	Hontza: Gizarte eta osasun laguntzako gaueko zentroa	E. Jaurilaritzaren eta Bilboko Udalaren dirulaguntzak	16
	EGP	Lagun-Artean	Harrera iraunkorreko zentroa: gaueko zerbitzua	Bilboko Ud., E. Jaurilaritzaren eta erak. pribatuen dirulaguntzak	30
	EGP	Bilboko Udala	Elejabarriko aterpetxea: Egonaldi laburreko egoitza programa	Udalarena: kudeaketa zuzena	36
	EGP	Bilboko Udala	Mazarredo aterpetxea: Gaueko harrerako neguko dispositiboa	Udalarena: kudeaketa zuzena <sup>(2)</sup>	50(3)
<b>BIZKAIA GUZTIRA</b>				<b>132</b>	<b>%43,3</b>
Tolosa	EGP	Abegi fundazioa	Oinezkoentzako aterpetxea	Foru eta udal dirulaguntza	11
Pasaia	EGP	Emaús	Itsas Etxea	Foru hitzarmena eta E. Jaurlaritz. dirulaguntza	16
Donostia	EGP	Emaús	"EMAUS Valoración"	Foru hitzarmena eta E. Jaurlaritz. dirulaguntza	12
		Cáritas	Gaueko zentroa: Aterpe Noche	Foru dirulaguntza eta bertakoa	16
	EGP	Donostiako Udala	Gizarte harrerako udal zentroa:	Udalarena: kudeaketa zuzena	20
	EGP	Donostiako Udala	Gau hotzetako harrera zentroa	Udalarena: kudeaketa zuzena	20
<b>GIPUZKOA GUZTIRA</b>				<b>95</b>	<b>%31,1</b>
<b>EAE GUZTIRA</b>				<b>305</b>	<b>%100,0</b>

(1) Jardunaldi irekiko plazak osatu egiten dira "Casa Abierta" egonaldi ertaineko dispositiboarekin, eta horrek 6-8 besaulki bideratzen ditu.

(2) 2004-2005ean, Mazarredoko aterpetxearen kudeaketa zeharkakoa izan zen. Iturria: Bilboko Udaleko Gizartekintza Saila

(3) Mazarredoko aterpetxean 50 plaza daude; horietatik 36 betikoentzat dira, baina egunik hotzenetan beste gela bat gaitzen da, eta horrela, bertako gehieneko plaza kopurua 105koa da. Handitze hori 24 egunetan egiten da.

ITURRIA: Geuk landuta, memorien azterketan eta erakundeei egindako kontsultetan oinarrituz.

Egonaldi laburreko gaueko babesa eskaintzen duten dispositiboaren sarbide motari dagokionez, Bizkaiaren %100 sarbide zuzenekoak dira; Araban, osteran, oinarritzko gizarte

zerbitzuekiko edo gizarte larrialdiko udal zerbitzuekiko aurretiazko kontaktua behar da, egonaldi laburreko ostatu baliabideen %100 eskuratzeko. Gipuzkoan, egonaldi laburreko plazen %70,5 sarbide zuzenekoak dira<sup>63</sup>.

Azterketa hori osatzeko, lehenengo eta behin, hiru hiriburuetakoko larrialdiko edo iraupen luzeko ostatu eskaintza aurkeztuko dugu; gero, arlo horretan eskumenak dituzten gainerako udalerriek emandako babesa aztertuko dugu.

### A) LARRIALDIKO ETA EGONALDI LABURREKO GAUEKO BABESA EUSKADIKO HIRIBURUETAN

Hiru hiriburuetakoko aterpetxeek larrialdiko edo iraupen laburreko programa dute eta horren irizpideak nahiko homogeenak dira kasu guztietan. Horrela, egonaldia hiru hileko hiru egunetan ezarrita dago; izan ere, dispositibo horiek oinezkoen profil ibiltariaren laguntzarako sortu dira; oinezko hori hiritik igarotzen ari da eta, gainera, egonaldi laburreko estaldura dauka gainerako hiriburuetakoko aterpetxeetan.

Orokorrean, ostatu, mantenu eta higieneko oinarrizko beharrianak betetzen dituzte, 18 eta 65 urte bitarteko pertsonen kasuan; izan ere, adin bitarte horretatik kanpo dauden pertsonen laguntza Foru Aldundien eskumenekoa da. Kasu batzuetan salbuespenak egin eta egonaldien epeak luzatu egiten dira, lan taldeak txosten egokia egin ondoren; hain zuzen ere, kasuan kasuko pertsona egoitzako beste baliabide bat edo etxebizitza autonomo bat eskuratzeko zain dagoenean edo lanen bat hasi eta lehenengo nomina jasotzeko zain dagoenean.

Udal handiek larrialdiko edo egonaldi laburreko harrera baliabide horien **finantziazioan** duten partaidetza ez da homogenea hiru lurralde historikoetan. Horrela, Bilbok eta Gasteizek nolabaiteko partaidetza dute hiriburuetan dauden larrialdiko edo iraupen laburreko plazen %100aren finantziazioan, bai baliabide horien kudeaketa zuzenaren nahiz zeharkakoaren bidez, bai beste finantziazio formula batzuen bitartez.

Aldiz, Donostiako Udalak zuzenean kudeatzen du Gizarte Harrerako Udal Zentroko eta gau hotzetarako harrera lokaleko egonaldi laburreko programa, eta ez du parterik hartzen udalerrian dauden egonaldi laburreko gainerako dispositiboen finantziazioan. Horri dagokionez, halako dispositiboak ez finantzatzeko aipatu diren arrazoiak dispositiboen lurralde izaerari lotuta daude; beraz, kontsultaturiko pertsonen iritziz, jarduketa Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumenekoa da; izan ere, erakunde horrekin eta Eusko Jaurlaritzak finantzatzen dituzte, gaur egun, Donostiako larrialdiko eta egonaldi laburreko gainerako plazak.

Egonaldi laburreko dispositiboetan, **okupazio indizea** %100ekoa da urte osoan, eta pertsona batzuk laguntza barik gelditzen dira. Emakumeen kasuan, salbuespeneko kasuetan izan ezik, behar beste plaza egoten da beti.

<sup>63</sup> Pasaiaiko Itsas Etxean sartzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren balorazioa eta deribazioa behar da, eta, "Emaús valoración" programan sartzeko, erakundeko lan sozialeko taldearekin aurretiazko kontaktua eduki behar da.

Zerbitzu horiek txandakakoak izatearen eta plaza nahikorik ez egotearen eraginez (eskaria eskaintza baino handiagoa beti), sarritan ostatuko zerbitzuetan hobezintzat ezarritakoa baino pertsona kopuru handiagoari ematen zaizkio zerbitzuak, kasu batzuetan zentroen mugak gainditzen dira. Egoera horiek, batez ere, sarbide zuzena duten baliabideetan gertatzen dira.

Bestalde, ez dago irizpide bateraturik dispositiboan **sistema eta funtzionamendua** zehazteko. Horrela, erakunde bakoitzak modu autonomoan kudeatzen ditu bere baliabideak, barne funtzionamenduko sistema berezia eta sartzeko irizpideak ezarritik.

Egoera hori gehienbat Bilbon eta Donostian gertatzen da; izan ere, Gasteizen egonaldi laburreko ostatu zerbitzuetarako sarbidea publikoa da oso-osorik, eta beraz, udal administrazioak ezartzen ditu halako baliabideak eskuratu nahi dituzten pertsonen egin beharreko ibilbideak eta bete beharreko baldintzak.

Batzuetan, halako dispositiboak erabiltzen dituzten pertsonen laguntza sarean duten txandaketa eta jariora euren ekimenez gertatzen da; bestalde, homogeenak ez diren irizpideek eta funtzionamenduko arauak (egonaldiak, zozketak edo jokabide akatsen eraginezko eskubide galerak, besteak beste) eragin zuzena dute pertsona horietariko batzuek jarraituriko ibilbideetan.

Eskakizun baxuko gaueko zentroen oinarritzko eskaintza, orokorrean, gaua igarotzeko aukerarekin erlazionatzen da, baina batzuetan beste **zerbitzu** batzuk ere eskaintzen dira:

- Laguntzakoak: adibidez, gosariak, bazkariak, afariak, higiena, garbitegia, jan-tzitegia edo zaindegia.
- Osasunekoak: esate baterako, erizaintzako kontsulta, osasun baliabide normalizatueterako deribazioa, osasun hezkuntzako tailerrak edo xiringen trukea.
- Gizartekoak: esaterako, gizarte zerbitzuen prestazioei buruzko informazioa, orientazioa, eta harrera, aholkularitza juridikoa, administrazio tramiteak egiteko laguntza edo animazio soziokulturala.

Bestalde, ohiko ostatu eskaintza ez denez, kasurik gehienetan zerriak, etzalekuak edota hamakak baino ez dira eskaintzen gaua igarotzeko, eta bertarako sarbidea gau kopuru oso txikira murriztuta egoten da.

Zentro horien ezaugarri bereizgarrietariko bat, izan ere, oinarritzko beharrianak betetzeko ohiko dispositiboak lortzen ez dituzten pertsonengana bideratuta egotea da, horiek ez baitituzte errespetatu nahi edo ezin baitituzte errespetatu eskakizun handiagoko beste dispositibo batzuetako arauak eta baldintzak.

Halako dispositiboak, batik bat, **ekimen pribatuak** garatu ditu, halako beharrianak betetzeko sorturiko baliabideak eskuratzen ez dituen pertsonen kopuru handia kontuan hartuta. Orokorrean, Administrazioaren dirulaguntza jasotzen dute eta horrekiko hitzarmenen bidez bideratzen dira.

Horri dagokionez, eskakizun baxuko gaueko babesa gehien garatu duen udalerrria Bilbo da; izan ere, neguan halako hiru zentro ditu<sup>64</sup>, eta horietan, gutxi gorabehera, 96 plaza daude. Donostian<sup>65</sup> gaueko zentro bat dago eta horrek, Hotzaren Arauan gaitzen den lokalarekin batera, 36 plaza eskaintzen ditu. Gasteizen<sup>66</sup> beste zentro bat dago eta horren gehieneko edukiera, neguan, 36 plazakoa da.

Une honetan, Bilbon eskakizun baxuko gaueko zentro bat dago, Mazarredoko aterpetxea, eta horrek zeharkako udal kudeaketa dauka; hala eta guztiz ere, zentro hori neguko harrera dispositibotzat sortu da eta urtean lau hilabetetan bakarrik egoten da irekita. Gasteizko Aterpe gaueko zentroak udal titularitatea dauka, baina enpresa pribatu batek kudeatzen du, lizitazio publikoaren bidezko kontratazioaren formula erabiliz. Donostian, Aterpe Noche gaueko zentroa erakunde pribatu baten ekimena da eta horren finantziazioa bertako fondoekin nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiaren dirulaguntzekin egiten da.

**Eskakizun txikiko baliabideen sorreraren inguruan sortu den eztabaidan** bi jarrera identifikatzen dira argi eta garbi:

- Alde batetik, eskakizun baxuak pertsona erabiltzailearen ohiturak (mendekotasunekoak edo akastunak) indartzen dituela diotenak daude; iritzi horren aldekoen ustez, hori ez da errentagarria gizartearen aldetik eta, gainera, kroniko bihurtu ahal dira bazterkeria larriko egoerak.
- Bestalde, eskakizun baxua erabiltzaileari hausnarketarako aukerak eskaintzen dizkion eremutzat hartzen da, baita profesional taldera bideratzeko eta behaketarako eremutzat ere. Hau da, eskakizun baxua esku-hartze filosofiatzat eta jarreratzat hartzen da, eta gizarteratze prozesuak hasteko behar den motibazioa eta lotura lantzeko aukera ematen duen tresnatzat ere bai.

Nolanahi ere, agerikoa da, iritzi teorikoak albo batera utzita, ezinbestekoa dela oinarriko beharrianak betetzea, euren ezaugarrien edo egoeraren eraginez edota euren bizi-unearen ondorioz gizarteratzeko prozesuak hasiko ez dituzten pertsonen kasuan, eta beraz, gutxieneko egonkortasuna eskaintzen duten ostatu baliabiderik gehienak eskuratu ezinik gelditzen diren pertsonen kasuan.

Une honetan, egonaldi laburreko ostatu baliabideak eta gaueko zentroak euren aukeren mugan daude. Kontsultaturiko pertsona eta erakunde guztiek diotenez, eskaria eskaintza baino askoz ere handiagoa da eta laguntzarik gabeko edo behar bezala lagundu gabeko pertsonak daude. Gainera, eskariaren gorakadarik handiena, antza denez, eskakizunaren beherengo mailetan gertatu da; horrenbestez, maila horietan eskaintzen den babes txikiagoa ere aintzat hartuta, halako laguntza dispositiboetan

<sup>64</sup> Bilbon eskakizun baxuko gaueko zentroak honako hauek dira: Hontza (gizarte eta osasun laguntzarako gaueko zentroa), Lagun Artean gaueko zentroa eta Mazarredoko aterpetxeko neguko harrerako dispositiboa.

<sup>65</sup> Aterpe Noche gaueko zentroa.

<sup>66</sup> Aterpe gaueko zentroa.



laguntza jasotzen duen pertsona kopurua, izatez ere, hobezintzat hartzen dena baino handiagoa da.

**Baliabideen asetzea**, batik bat, bi fenomeno hauekin erlazionaturik dago:

- Lurraldeko hiru hiriburuetan kokaturiko baliabideetan gertatzen den eskariaren xurgapena, ez baitago antzeko baliabiderik larrialdiko harreran eskumena duten udalerrietan.
- Migrazio prozesuetan dabiltzan pertsonak halako sareak erabiltzea; horien beharrian bakarra euren lege egoerari eta oinarrizko beharrianak betetzeari lotuta dago.

Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetakoko ostatu baliabideen eta gaueko zentroen jarduketeta, lurralde mailako dispositibotzat, agerian gelditu da Bilboko Mazarredon dagoen gaueko aterpetxea ireki denean. Baliabideen funtzionamenduari buruz egingdako ebaluazioan detektatu denez, lagundutako bizkaitar guztien %50 Nerbioiren ezker aldeko udalerrietarikoren batekoak ziren; halaber, euren herrietan halako dispositiboak egoteari buruz galdetu zaienean, %100ek baietz erantzun du.

Bestalde, dispositibo sare horrek laguntzen ez dituen pertsonak daude. **Lagundu gabeko eskaria**, berriz, honako honek azaltzen du:

- Plazen urritasuna.
- Pertsona askok ez dituzte betetzen sartzeko baldintzak; esate baterako, baliabideetatik kanporaturiko pertsonak, narriadura fisiko edo buruko narriadura handia dutenak, kontzientzia egoera aldatuetan daudenak edo krisialdietan daudenak (buruko patologiaren baten edo kontsumo aktiboen eraginez), besteak beste.
- Baliabide hauetan sartu nahi ez duten pertsonak, ezarrita dauden ordutegi mugen eta arauen ondorioz.
- Zozketen eta txartelen bidezko formula, besteak beste.

Gainera, pertsona batzuk baliabide normalizatuen bidez laguntzarik jaso ezin dutelako daude dispositibo hauetan. Migrazio prozesuak bizi izan dituzten eta hasieran bazterkeria larriaren barruan ez dauden pertsonen kasua da, pertsona horiek beste aukera batzuk baitituzte euren oinarri-oinarrizko beharrianak betetzeko.

Horri dagokionez, baliabide ia guztietan, laguntzarik gehienak etorkinek jasotzen dituzte. Etorkinen garrantziaren adibide bat, izan ere, inmigrazioaren laguntzak dispositibo batzuetan duen espezializazio egoera da (orain arte etxerik gabeko biztanleei zuzendutako dispositiboak). Horixe da Bizkaiko Lagun-Artean erakundeak kudeaturiko gaueko zentro iraunkorraren kasua.

Pertsona horiek, etxebizitza eskuratzeko neurririk ez dagoenez, halako baliabideak erabiltzen dituzte, eta horrela, baliabideok beteta daude. Bazterkeriarik larrienerako laguntza ematen duten dispositiboekin kontaktuan, azkenean, bazterturiko pertsonatzat "ikusten" dute euren burua. Baliabideen kokalekuaren, antolaketa-aren eta lanerako metodologiaren eraginez, halako egoerak kroniko bihurtzen dira batzuetan.

EAEko hiriburuek larrialdiko harrerarako erabiltzen dituzten beste dispositibo batzuk udal titularitateko bizilekuak dira. Horri dagokionez, hiriburu batzuetan ez da bermatzen erabiltzaileen txandaketa, halako bizilekuetan<sup>67</sup>. Kontsultaturiko pertsona batzuek esan dutenez, gizarte larrialdietarako bizilekuen sarean, halako bizilekuak sarritan “enkistaturik” gelditzen dira, batez ere bi zergatiren eraginez:

- Oinarrizko gizarte zerbitzuak gainezka egotea; horiek esfortzu handia egiten dute laguntza ematen eta dirulaguntzak tramitatzen, baina ez da kasuen jarraipen egokirik egiten.
- Ez da kontroleko mekanismorik zehaztu, halako egoerak saihesteko.

## JARDUKETA BEREZIA: HOTZAREN ARAUA

Egonaldi laburreko eskaintza handitu egiten da Hotzaren Arauak dirauen bitartean, neguko harrerako neurri batzuen bitartez. Hotzaren Arauak dirauen bitartean salbuespenezko jarduketak egiten dira, neguko egunik hotzenetan.

Horri dagokionez, aipagarria da **irizpideak ez daudela bateratuta**, salbuespenezko neurri horiek hasteko; horrela, neurri horiek martxan jartzeko tenperatura hiru eta sei gradu bitartekoa da, udalerraren arabera<sup>68</sup>. Salbuespenezko neurri horiek honako honetan oinarritzen dira:

- Ate irekiko jardunaldiak ohiko baliabideetan; horrela, erabilera hobezineko plaza kopurua handiagoa da, eta hori leku erabilgarriaren arabera izaten da.
- Gaueko harrerako neguko dispositiboen sorrera, adibidez, Bizkaiko Mazarredoko aterpetxea.
- Ostatueta hitzarturiko plazak, dispositiboan edukierak gainezka egiten duenean.

**Plaza kopuruaren handitzea** oso **desberdina** da udalerrri bakoitzean: neguko harrerako plaza kopururik handiena eskaintzen duen udalerrria Bilbo da, 50 plazarekin; Donostiak 20 plaza eskaintzen ditu eta Gasteizek 18 inguru.

Hiru hiriburuetan, ostatueta **plazak hitzartzeko** neurria erabiltzen da, salbuespenezko neurritzat, neguan plazen eskaria eskaintza erabilgarria baino askoz ere handiagoa izaten baita. Hala eta guztiz ere, neurri horrek neguko hasierako egoera larria konpondu arren, ez da neurririk egokiena profesional talde baten laguntza eta esku-hartzea behar duten pertsonen profiletarako.

<sup>67</sup> Ahultasun hori, batik bat, Donostiaren kasuan ikusten da. Bilboren kasuan, udal titularitateko etxebizitzak utzi zaizkie erakunde batzuei, horiek kudeatzeko, eta, lan taldeak dioenez, ez dauka larrialdiko aldi baterako harrerarako udal etxebizitzak egotearen berririk. Gasteizen, lan taldeak dio kasuen enkistamendua anekdotikoa dela.

<sup>68</sup> Bilboren eta Donostiaren kasuan, sei gradu ezartzen dira; Irunen hotzaren araua 3 gradutik gora hasten da, eta Gasteizen ez dago ate irekiko jardunaldia hasteko tenperatura jakinik, eta erabaki hori Gizarte Larrialdien Udal Zerbitzuak hartzen du.

Gasteizen, ate irekiko jardunaldien ezarkuntza Gizarte Larrialdiko Udal Zerbitzuak ezartzen du. Jarduketa protokoloak hiru dispositibo ezartzen ditu eta, horien bitartez, babesari eskaintzen du neguko gauetan, Gizarte Larrialdiko Udal Zerbitzuak ate irekiko jardunaldiarekin hasi behar dela erabakitzen duenean. Dispositiboak honako hauek dira:

- egonaldi laburreko bi baliabide: Aterpe gaueko zentroa eta Gizarte Harrerako Udal Zentroa;
- egonaldi ertaineko-luzeko dispositibo bat: Casa Abierta.

Donostian harrerako lokal bat gaitzen da gau hotzetan; Gizarte Harrerako Udal Zentroaren eraikinean bertan kokaturik dago, baina funtzionamendu independentea dauka, nolabait ere. Gizarte Larrialdien Udal Zerbitzurik ez dagoenez<sup>69</sup> (eguneroko 24 orduko funtzionamendua, urteko 365 egunetan), etxerik gabeko pertsonak Udaltzaingoko unitateek aurkitu eta eramaten dituzte zentrorra. Hala eta guztiz ere, zerbitzu hori gainezka dagoela eta talde arazotsuak daudela kontuan hartuta, erabiltzaileen harrerarako kontrolak ezarri dira, ate irekiko jardunaldietan.

Azkenik, 2002tik aurrera, Bilbon neguko harrerako dispositibo bat gaitu da, baina lehenago ere salbuespenezko jarduketak egiten ziren, Hotzaren Arauaren garaian. 2004ra arte, salbuespenezko jarduketa horien osagarritzat, Itxaropenaren Frontoia izeneko baliabidea zegoen Alde Zaharrean, eta horrek 100 plaza zituen. Negu honetan, horren ordez, Mazarredoko aterpetxea daukagu<sup>70</sup>; gutxi gorabehera, 50 plaza ditu eta horiek 105era iristen dira, neguko egunik hotzenetan.

## **B) LARRIALDIKO EDO IRAUPEN LABURREKO LAGUNTZA EUSKADIKO GAINERAKO UDALERRIETAN**

Ondoren, 5.13 koadroan, gainerako udalerrietan larrialdiko ostatu zerbitzuak betetzeko dauden baliabideak agertzen dira.

---

<sup>69</sup> Diagnostiko honetarako informazioa biltzeko unean ez zegoen gizarte larrialdiko zerbitzurik. 2005eko ekainaren 1etik aurrera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gizarte Larrialdiko Foru Zerbitzua gaitu du, eguneko babesari buruzko kapituluaren aipatu duguna (Hurbiltasunik Handieneko Zerbitzuei buruzko atalean).

<sup>70</sup> Mazarredoko aterpetxea irekita egon da 2004ko abenduaren 23tik 2005eko apirilaren 31ra.

**5.13. KOADROA: LARRIALDIKO OSTATU ZERBITZUEN LAGUNTZA,  
BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN 20.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGO DUTEN  
UDALERRIETAN (hiriburuetan izan ezik) <sup>(1)</sup>. 2005**

UDALE- RRIA	PROGRAMA	BALIABIDEA	PLAZA KOP.	LAGUNDUTAKO PERTSONAREN PROFILA	BALDINTZAK
Barakaldo	- Gizarte laguntza larrialdiko egoeretan	- Plaza erabilgarriak ostatueta	Eskariaren arabera	- Bizilekurik gabeko pertsonak, ezusteko egoeretan (hondamenak, kaleratzeak, etab.) - Tratu txarrak jasan dituzten emakumeak	- Erroldatzea
Basauri	- Generoko biolentziaren biktimak diren emakumeei laguntzeko programa	- Herrerako 2 bizileku	2	- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeak	- Erroldatzea
Ermua	- Emakumeentzako laguntza integrala	- Herrerako bizileku 1	6	- Tratu txarrak jasan dituzten emakumeak	- Premiazkoa denean, Udaltzaingoaren bidezko sarbidea, salaketa egin ondoren - Batik bat, udalerrian erroldaturiko emakumei bideratuta
Galdakao	- Generoko biolentziaren biktimak diren emakumeei laguntzeko programa	- Herrerako bizileku 1	8	- Babes eta ostatu beharrezkoak duten emakumeak (aldi baterakoa eta premiazkoa), etxean jasandako tratu txarren eraginez, baita 18 urtetik beherakoak diren eta %33tik gorako elbarritasuna duten seme-alabak ere	- Premiazkoa denean, Udaltzaingoaren bidezko sarbidea, salaketa egin ondoren - Batik bat, udalerrian erroldaturiko emakumei bideratuta
Getxo	- Gizarte laguntza larrialdiko egoeretan	- Akordioak pentsioekin edo ostatuekin, plazak erabiltzeko	Eskariaren arabera	- Edozein pertsonari eragindako erasoak edo tratu txarrak (emakumea, zaharra, adin txikikoa) - Laguntza eta baliabide pertsonalik edo familiarrik gabeko pertsonak bertan behera uztea - Bizileku edo etxebizitza arazoak, kanporatze egoerak, eraispenak - Osasunaren gizarte babesik ezari loturiko egoerak: familia laguntzarik gabeko, baliabide ekonomiko urriko eta autonomia pertsonalik gabeko pertsonen ospitalean emandako altak - Larrialdien edo hondamenen eraginezko gizarte edo familia babesik gabeko egoerak - Udalerrian dauden bizilekurik gabeko pertsonak edo oinezkoak	- Salbuespenezko kasuetan izan ezik, gutxienez 6 hilabete erroldaturik egotea
Leioa	- Larrialdiko ostatu programa	- Plazen erabilgarritasuna bilatzen da, udalerriko pentsioetan edo ostatueta	Eskariaren arabera	- Kanporatzeari, alokairu kontratuak amaitzeari, bahitzei eta abarri loturiko egoera larrietan dauden pertsonak edota familiak	- Urtebete erroldaturik - Egonaldirik luzeena 3 hilabete, aldi hori beharrezkoa baita bizilekua ordaintzeko dirulaguntza tramitatzeko

Portuga- lete	- Gizarte lagun- tza larrialdiko egoeretan	- Planen hitzarmena ostatueta eta pentsio- etan - Larrialdiko telefono zerbitzua	Eskariaren arabera	- Ezusteko egoeren eraginez bizile- kurik gabe gelditutako pertsonak, euren ohiko bizilekua balio gabe gelditzen denean hondamenen edo istripuen ondorioz - Familia gatazka larrien eraginez bizileku barik dauden gazteak - Tratu txarren biktimak diren emakumeak - Bizilekurik gabeko pertsonak, udalerritik igarotzean ostatua es- katzen duten oinezkoak edo gaua kalean igarotzen dutenak	- Lehenengo hiru pro- filetan, erroldaturik egotea beharrezkoa da baliabide hau lor- tzeko - Bizilekurik gabeko pertsonek kasuan erroldatzea ez da ezinbestekoa
Santurtzi	- Tratu txarra jasan duten emakumeen programa	- Harrerako bizileku 1	3	- Tratu txarren biktimak diren emakumeak	- Sartu osteko sar- bidea

Orokorrean, 20.000 biztanletik gorako udalerririk gehienek, hau da, larrialdiko harre-  
ran eskumenak dituzten udalerririk gehienek, udal titularitateko bizilekuak dituzte edo  
ostatueta plazak hitzartzeko mekanismoa erabiltzen dute, egoera kritiko batzuei aurre  
egiteko; esate baterako, etxebizitzan gertaturiko hondamenak edo pertsonaren osotasun  
fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duten bizikidetzak gatazkek.

Hala eta guztiz ere, balio anitzeko bizilekuen kasuan, dispositibo ia guztien laguntza  
generoko biolentziaren biktimak diren emakumeengana bideratzen da, eta ostatueta  
plazak hitzartzea, berriz, egoera jakineko ostatu arazoak konpontzeko erabiltzen da  
(kanporatzeak, bahiketak edo alokairuak ordaindu ezin izateari loturiko egoerak).

Horri dagokionez, ostatueta plazak hitzartzea larrialdiko harrera-neurritzat hartu arren,  
kontsultaturiko udalik gehienetan hitzartze hori ez dago modu esplizituan ezarrita, eta  
gertatzen diren egoerak ikusi ondoren aplikatzen da; izan ere, ez dago inolako akordiorik  
edo hitzarmenik udalerriko ostatuetaekin, eta horrela, beharrian egoera horien irtenbidea  
oheak egoteari eta negozio horien jabeen borondateari lotuta gelditzen da.

Beste alde batetik, udalerririk horietan ez dago udal titularitateko gizarte larrialdiko zerbi-  
tzurik<sup>71</sup>, gizarte larrialdiko egoeretan laneko orduetatik kanpo lagundu ahal izateko.

Adibidetzat, Bizkaiko Portugalete udalerrira aipa daiteke; bertan, larrialdiko telefono  
zerbitzua sortu da, eta horrela, larrialdiko osasun zerbitzuek edo udaltzaingoak ostatu  
premia handiko kasuren bat aurkitzen dutenean, zaintzan dagoen gizarte langileari deitu  
eta horrek plaza lortzen du ostatueta; zerbitzuari horren berri eman eta horrek bertara  
eramaten du egoera horretan dagoen pertsona. Gero, pertsona interesatuari dei egiten  
zaio, ezarritako jendaurreko orduetan gizarte zerbitzueta jateko.

<sup>71</sup> Gasteizen, Gizarte Larrialdien Zerbitzuak erantzuna ematen dio lurralde mailan dagoen eskariari; zerbitzu  
hori, berriz, hiriburua den udalak eta Foru Aldundiak finantzatzeko dute. Bilbon Gizarte Larrialdiko Udal  
Zerbitzua dago. Gipuzkoan, 2005eko uztailetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzaturiko gizarte la-  
rrialdietarako zerbitzua dago, eta horrek erantzuna ematen dio Gipuzkoako Lurralde Historikoan dagoen  
eskariari.

Gainerako udalerritariko batzuetan, gaua kalean igarotzen duen edo bertan modu nahiko egonkorrean bizi den pertsonaren bat aurkitzen denerako jarduketa protokoloak deribazioan oinarritzen dira, Udaltzaingoaren bidez; EAeko hiru hiriburuetarikoren batean dauden dispositiboetara eramaten dira. Egunero, Udaltzaingoak txostena eman eta hori udalerriko gizarte zerbitzuetara bidaltzen da; txosten horretan, ordutegitik kanpo lagundutako gizarte beharrezaneko egoerak azaltzen dira.

#### 5.14. KOADROA: LARRIALDIKO JARDUKETA PROTOKOLOAK ETXERIK GABE BIZI DIREN PERTSONENTZAT, BIZKAIAN ETA GIPUZKOAN 20.000 BIZTANLE BAINO GEHIAGO DITUZTEN UDALERRIETAN (hiriburuak izan ezik)<sup>(1)</sup>. 2005

UDALERRIA	LARRIALDIKO JARDUKETA PROTOKOLOA ETXERIK GABE BIZI DIREN PERTSONENTZAT
Barakaldo	- Udaltzaingoak etxerik gabeko pertsona bat aurkitu eta Bilboko ostatu baliabideetara bideratzen du.
Basauri	- Ez da jarduketa protokolorik etxerik gabeko pertsonekin; udalerria ez da igarotzeko zona eta pertsonaren bat kaleetan lotan aurkitzen denean, Elejabarriko aterpetxera (Bilbo) eramaten da.
Ermua	- Oinezkoei laguntzeko zerbitzua: Udaltzaingoak informazioa ematen die Euskadiko 3 hiriburuetan dauden baliabideei buruz, eta horietariko baterako autobus-txartela ematen zaie.
Galdakao	- Ez da jarduketa protokolorik etxerik gabeko pertsonekin; udalerria ez da igarotzeko zona eta pertsonaren bat kaleetan lotan aurkitzen denean, Elejabarriko aterpetxera (Bilbo) eramaten da.
Getxo	- Ez dago etxerik gabeko pertsonen laguntzeko protokolo berezirik. Kasu larrietan esku hartzeko protokoloaren barruan (egoera larria izanez gero) edo laguntza arrunteko protokoloaren barruan (egoera larria ez denean) ematen da laguntza.
Leioa	- Etxerik gabeko pertsonentzako baliabide berezirik edo gizarte larrialdiko zerbitzurik ez dagoenez, Elejabarriko aterpetxera (Bilbo) eramaten dira.
Portugalete	- Udalerriko larrialdi zerbitzuek (osasunekoak, polizia, Gurutze Gorria) telefonoz deitzen diote gizarte langileari; horrek hoteleko plaza bat aurkitu eta zerbitzuari jakinarazten zaio bertara eramateko. Gero, interesatuari gizarte zerbitzuetara joateko hitzordua jartzen zaio.
Santurtzi	- Etxerik gabeko pertsonentzako baliabide berezirik eta gizarte larrialdiko zerbitzurik ez dagoenez, diru-laguntza eskaini eta Bilboko larrialdiko ostatu baliabideetara bideratzen dira zuzen-zuzen.
Sestao	- Etxerik gabeko pertsonentzako baliabide berezirik eta gizarte larrialdiko zerbitzurik ez dagoenez, Bilboko larrialdiko ostatu baliabideetara bideratzen dira.
Arrasate	- Etxerik gabeko pertsonentzako baliabide berezirik eta gizarte larrialdiko zerbitzurik ez dagoenez, Donostiako larrialdiko ostatu baliabideei eta EAeko gainerako ostatu buruzko informazioa ematen zaie.
Eibar	- Etxerik gabeko pertsonentzako baliabide berezirik ez dagoenez, Gizarte Zerbitzuek Cáritasera edo Udaltzaingora bidaltzen dituzte; horiek EAeko baliabideei buruzko informazioa eman eta txartela ordaintzen zaie, EAeko edozein aterpetxetarako bidaia egiteko.
Errenteria	- Etxerik gabeko baliabide berezirik eta gizarte larrialdiko zerbitzurik ez dagoenez, Udaltzaingoak Donostiako aterpetxera bidaltzen ditu. - Etxerik gabeko zentro bat gaitzeko aukera aztertzen ari da.
Irun	- Etxerik gabeko pertsonekin jarduteko protokoloa dauka, eta plaza erabilgarriak daude pentsioetan, gehienez hiru eguneko egonaldirako, eta egonaldi hori luzatu egin daiteke salbuespeneko egoeretan. Diru-sarrerarik eduki ezean, Udalak mantenu gastuak ordaintzen ditu egonaldian. Gero, udalerriko gizarte zerbitzuekiko hitzordua eskatu eta horiek pertsonaren egoeraren diagnostikoa egiten dute. - Gau hotzetan jarduteko protokoloa dago, eta plaza hitzartuak daude pentsioetan. Kokapen lana egiten da, gaua kaleetan igarotzen ari diren pertsonen inguruko zerbitzuei buruzko informazioa emateko. Salbuespeneko kasuetan, eta kasuaren balorazioa egin ondoren, Estatuko geografiako leku jakinen baterako bidaia ordaintzeko aukera dago.
Zarautz	- Udaltzaingoaren bidezko jarduketa protokoloa dago; horrek janari eskabideari erantzun (ogitartekoak) eta Donostiako trenerako txartela ematen du. - Udalerrian erroldatu gabeko EGPak, Udaltzaingoak Donostiako udal aterpetxe batera eramaten ditu.

(1) Ez dira Bilbo eta Donostia aintzat hartu; horien larrialdiko eta egonaldi laburreko ostatu laguntza zehatzago aztertzen da diagnostikoan. Gainera, Araban, larrialdiko harerarako eskumenak dituen bakarra Gasteiz da.

Halako beharriaz erantzun egokia emateko larrialdiko harrera zentrorik edo protokolo estandarrik ez duten udal erakundeek diskurtsoaren arabera, alde batetik, euren udalerrietan ez dago “etxegabetasun” egoerarik, edo, halakorik egotekotan, oinarriko gizarte zerbitzuen ohiko ordutegian laguntzen dira; bestetik, bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak nahiago izaten dute hiri handietara joan.

Larrialdiko ostatuan eskumenak dituzten udalek aterpetxe motako egiturak sortu ez izanaren zergatiak, izan ere, zenbait elementuren konbinazioaren eraginezkoak dira:

- Alde batetik, larrialdiko harrerako udal eskumenak argi eta garbi zehaztuta egon arren, araudi horrekin batera ez da baliabide ekonomikoek zuzkidura egokia egin.
- Bestalde, udal sentsibilitatearen arabera, zerbitzu batzuei lehentasuna ematen zaie, beste zenbaiti dagokienez.

Gainera, EAEko hiriburuetan halako dispositiboak egotearen eraginez (lurreko mailan diharduten dispositiboak), beste udal batzuek pentsa dezakete beharriaz hori beteta dagoela. Horri dagokionez, hiriburuetan egoteak mendekotasunari loturiko jokabideen mantentzea ahalbidetzen du. Drogamenpekotasuna duten pertsonak hobeto bizi dira hirietan landa inguruan baino, eta, horren eraginez, horien arretarako baliabideak hiriburuak kokatzen dira. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da dinamika hori apurtzea eta gaueko nahiz eguneko laguntzako egiturak beste udalerritan batzuetan ere sortzea; horrela, gizarteratze prozesuak modu naturalagoan landuko dira, pertsona horiek euren familiei, gizarteari eta auzotarrei lotuta.

Bestalde, larrialdiko ostatu dispositiboak lurreko mailako baliabideetat dihardutela esaten denean, hori neurri batean baino ez da egia. Larrialdiko ostatuari dagokionez, udalerririk gehienetan etxerik gabeko pertsonentzako aterpetxeak daude, baina udal aterpetxeen egonaldi laburreko programa oinezkoentzako aterpetxetat zehaztuta dago, eta beste udalerritan batzuetan erroldaturiko pertsonak oinezkoak dira. Hala ere, etxerik gabeko pertsonaren profilak aldaketa handiak izan ditu, eta, gaur egun, handiagoa da “etxerik gabeko” egonkorra deritzenaren gailentasuna, hau da, hiri bereko kalean modu egonkorrean bizi den pertsonaren gailentasuna. Beste udalerritan batzuetan halako zerbitzurik ez dagoenez, horiek erabiltzen dituzten pertsonak hiriburuetan finkatzeko joera dute, eta horrela, urrundu egiten dira euren ohiko ingurutik; horrenbestez, galdu egiten dituzte gizarte laguntzako sareak.

Informazio hori osatzeko, I. eta II. eranskinetan jasotako bi taula landu ditugu; horietan, arlo honetan eskumenak dituzten udalerriek (hiriburuak izan ezik) garaturiko larrialdiko harrera neurriak aipatzen dira. I. eranskinetan, programari, baliabideei edo dispositiboari buruzko informazioa dago, eta gainera, plaza erabilgarrien kopurua, lagundutako pertsonaren profila eta zerbitzua emateko baldintzak ere aipatzen dira. II. eranskinetan, udalerriotan etxerik gabeko pertsonak aurkitzen direnean garatzen diren jarduketaren protokoloak azaltzen dira.

### *5.2.2.2. EGONALDI ERTAINEKO ETA LUZEKO GAUEKO BABESA*

Egonaldi ertaineko eta luzeko baliabideetan, orokorrean, eskakizun maila altuak eta zeharkako sarbidea egoten dira, profesional talde batek diagnostikoa eta deribazioa

egin ondoren. Nolanahi ere, baliabide horiek gizarteratze prozesuak hasi dituztenek erabiltzen dituzte, eta, bertan sartzeko eta gelditzeko, diseinaturiko ibilbideetan ezarritako helburuak bete behar izaten dira.

II. eranskinean informazioa osatzen da, egonaldi ertaineko eta luzeko direktorio batekin; bertan, hauxe jasotzen da: kokalekua, lagundutako pertsonaren profila, dispositiboa kudeatzen duen erakundea, zentroaren edo programaren izena, finantziaketa eta ezarritako erabilera hobezineko plaza kopurua.

## A) EZAUGARRIAK

Ostatu baliabideen %80,2<sup>72</sup> egonaldi ertainekoak eta luzekoak dira, eta horrek age-rian jartzen du ahaleginik handienak gizarteratzeko eta laneratzeko aukerarik gehien duten pertsonekin egiten ari direla.

Egonaldi ertaineko eta luzeko ostatu dispositiboek **gizarteratzeko egoitza baliabideen multzo nagusia** osatzen dute; dispositibo horien artean, aipagarriak dira:

- harrera zentroak;
- etxebizitza babestuak;
- beste tratamendu unitate bateko bizileku osagarriak;
- egoitzak;
- zubi-etxebizitzaren sarea;
- programa konbinatuak.

Baliabide hauen jasotzaileak honako hauek dira: etxerik gabeko pertsonak, pertsona toxikomanoak eta emantzipazio prozesuan dauden gazteak. Horrenbestez, ostatu baliabide hauetan erabiltzaileak **laguntza ekonomikoa** eman dezake baliabidea mantentzeko, bere aukeren arabera.

Egonaldi ertaineko baliabideen helburua sartzeko prozesuak erraztea da; egonaldi luzeko dispositiboak, berriz, ezaugarri jakineko pertsonen laguntzan espezializatzen dira (adibidez, toxikomanoak eta preso izandakoak), eta gizarteratze prozesuarekiko konpromiso handiagoa eskatzen dute.

Hala eta guztiz ere, oso ugariak izan ez arren, egonaldi luzeko ostatu programak daude, eta horien helburua kalteak murriztea da; halako programen helburua ez da laneratze prozesuak erraztea, bai desegituratze sozialeko eta pertsonaleko arazoak dituzten pertsonekin ari direlako, edo bai adineko profilekin edo elbarritasun fisikoa, psikikoa nahiz sentsoriala duten pertsonekin ari direlako, halakoek laneratzeko aukera oso gutxi baitute.

<sup>72</sup> Ikusi 5.8 koadroa: Ostatuko plaza kopurua eta gaueko zentroen kopurua etxerik gabe bizi diren pertsonentzat, baliabidearen egonaldia aintzat hartuta, lurralde historikoaren arabera. 2005.



Egonaldi ertaineko eta luzeko baliabideen arteko bereizketa terminologikoa egon arren, hori guztiz desberdina da kasuan kasuko lurralde historikoaren eta egonaldi hori zehazten duen erakundearen arabera. Gainera, praktikan **ez dago irizpide bateraturik**, egonaldiko gutxieneko eta gehieneko aldiei dagokienez, eta horrela, zaila da lurralde mailako konparazioak egitea.

Etxebizitza, elikadura eta oinarrizko prestazioak ez ezik, egonaldi ertaineko eta luzeko ostatu dispositiboetan beste **zerbitzu** orokor batzuk ere garatzen dira; esate baterako, laguntza psikologikorako zerbitzua, laguntza programak, aholkularitza juridikoari loturiko programak, konpentsazio heziketa, lanbide gaitasuna, okupazio tailerrak, aisialdiko jardueren garapena, laneratzea eta lan orientazioa.

Dispositibo horiek emandako laguntzari dagokionez, erabiltzaileekin garaturiko ekin-tzak, besteak beste, honako **prestazio** hauekin erlazionaturik egoten dira:

- orientazioa, informazioa, aholkularitza eta laguntza;
- dirulaguntzen eskabidea eta tramitazio administratiboa;
- alderdi pertsonalen garapena, adibidez, autoestimua, autokontzientzia, etab.;
- autonomiarako eta gizarte trebetasunetarako gaikuntza;
- gizarte eta bizikidetzat trebetasunen garapena;
- sendagaien kontrola;
- gizarte eta osasun zerbitzuen sarerako hurbilketa;
- baliabide ekonomikoekiko autonomia;
- oinarrizko beharrianak betetzea.

## B) ZENTROAK ETA BALIABIDEAK: PLAZA KOPURUA

Egonaldi ertaineko eta luzeko ostatu plaza guztien %45,5 Bizkaian daude, %31,3 Gipuzkoan eta %23,2 Araban. Horri dagokionez, ostatu plazen ehunekorik handiena egonaldi ertaineko eta luzeko dispositiboetara bideratzen dituen lurraldea Bizkaia da, hain zuzen ere, guztizkoaren %83,5<sup>73</sup>.

Egonaldi laburreko dispositiboen kasuan bezala, egonaldi ertaineko eta luzeko baliabideak **EAEko hiru hiriburuetan kokatzeko joera** dago. Araban plaza guztien %100 Gasteizen daude eta Bizkaian halako dispositibo oso gutxi daude Bilbotik kanpoko udalerrietan. Hona hemen 5.15 koadroa.

<sup>73</sup> Ikusi 5.8 koadroa: Ostatuko plaza kopurua eta gaueko zentroen kopurua etxerik gabe bizi diren pertsonentzat, baliabidearen egonaldia aintzat hartuta, lurralde historikoaren arabera. 2005.

**5.15. KOADROA: EGONALDI ERTAINEKO ETA LUZEKO OSTATU PLAZAK  
HIRIBURUJETA, LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. 2005**

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Hiriburua	211	100,0	370	89,4	176	61,7	757	83,2
Hiriburutik kanpo <sup>(1)</sup>	--	--	44	10,6	109	38,3	153	16,8
<b>GUZTIRA<sup>(2)</sup></b>	<b>211</b>	<b>23,2</b>	<b>414</b>	<b>45,5</b>	<b>285</b>	<b>31,3</b>	<b>910</b>	<b>100,0</b>

(1) Bizkaian halako dispositiboak dituzten udalerriak honako hauek dira: Barakaldo, Erandio eta Gamiz-Fika. Gipuzkoan: Andoain, Beasain, Errenteria, Irun, Lasarte, Pasaia, Tolosa eta Usurbil.

(2) Ehuneko horiek horizontalak dira, eta EAeko guztizkoan oinarrituz kalkulatzen dira.

ITURRIA: Geuk landuta, erakunde publikoetan nahiz pribatueta eta agiritan egindako kontsultetan oinarrituz.

Hala eta guztiz ere, Gipuzkoan halako dispositiboen presentzia gainerako lurraldeetan baino nahiko handiagoa da; bertako udalerrietan beharizan horren presentzia nahiko handia dago, udalerrien biztanle kopuruaren edo kokaleku geografikoaren eraginez. Halaber, etxebizitza oso garestia da Donostian, eta horrek eragina izan dezake halako baliabideak etxebizitza merkeagoak dituzten udalerrietan kokatzean. Hain zuzen ere, egonaldi ertaineko eta luzeko plaza guztien %38,3 Donostiatik kanpo daude.

Aipagarria da halako dispositiboek, Gipuzkoan, 20.000 biztanletik beherako udalerrietan duten presentzia, adibidez, Andoainen, Beasainen, Lasarte-Orian, Pasaian, Tolosan eta Usurbilen; horietan Donostiatik kanpo kokaturiko egonaldi ertaineko eta luzeko plaza guztien %72,9 biltzen dira, gutxi gorabehera<sup>74</sup>.

Agian, igarotze-udalerriak izatea eta, kasu batzuetan, “etxegabetasun” fenomenoaren eragin handia duten herri arrantzaleak izatea, baita herri txikiek integrazioarako gaitasun handiagoa edukitzea ere, lagungarria izan daiteke halako udalerrietan gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko lan egiten duten dispositiboak kokatzeko. Bestalde, gaur egun, Donostian etxebizitza oso garestia da, eta faktore horrek ere eragina izan dezake baliabideek probintziako udalerrietan duten dibertsifikazioan.

Aipagarria da toxikomaniaren laguntzara bideraturiko egonaldi ertaineko eta luzeko plazen presentzia, hain zuzen ere, EAeko plaza guztien %20, eta horrek agerian jartzen du toxikomaniak bazterkeria larriarekin duen lotura estua. Hona hemen 5.16 koadroa.

<sup>74</sup> Informazioa osatzeko, kontsultatu II. eranskineko koadro hau: “Egonaldi ertaineko eta luzeko ostatu zerbitzuak lurralde historikoen eta udalerrien arabera. 2005”.

**5.16. KOADROA: EGONALDI ERTAINEKO ETA LUZEKO OSTATU PLAZEN KOPURUA, LAGUNDUTAKO PERTSONAREN ARABERA, LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. 2005**

	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Toxikomania eta HIES	14	6,6	104	25,1	64	22,5	182	20,0
Inmigrazioa eta atzerriko familiak	46	21,8	39	9,4	67	23,5	152	16,7
EGP	89	42,2	271	65,5	136	47,7	496	54,5
Besta batzuk <sup>(1)</sup>	62	29,4	--	--	18	6,3	80	8,8
<b>GUZTIRA<sup>(2)</sup></b>	<b>211</b>	<b>23,2</b>	<b>414</b>	<b>45,5</b>	<b>285</b>	<b>31,3</b>	<b>910</b>	<b>100,0</b>

(1) Gipuzkoan presoentzako edo preso izandakoentzako egonaldi ertaineko dispositiboak sartu dira. Araban, espetxearen inguruko pertsonentzako dispositiboak ez ezik (27 plaza), udalerrian etxerik ez duten familiei zuzendutako baliabideak ere sartu dira (35 plaza).

(2) Ehuneko horiek horizontalak dira, eta EAeko guztizkoan oinarrituz kalkulatu dira.

ITURRIA: Geuk landuta, erakunde publikoetan nahiz pribatuetan egindako kontsultetan eta agirietan oinarrituz.

Horri dagokionez, egonaldi ertaineko eta luzeko plazen ehunekorik handiena etxerik gabeko pertsonen toxikomaniaren tratamendura bideratzen duen lurralde historikoa Bizkaia da (%25,1); ondoren Gipuzkoa dator eta horrek egonkortasunik handieneko plazen %22,5 bideratzen ditu horretara. Azkenik, Araban ez da bideratzen egonaldi ertaineko eta luzeko plazarik, toxikomaniaren bat duten eta gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden etxerik gabeko pertsonentzat. Kategoria honetan erregistratzen diren plazak Besarkada Etxea dispositibokoak dira; horiek HIESa prozesu nahiko aurreratuan duten pertsonentzat erabiltzen dira.

Bestalde, lehen esan dugunez, irizpide desberdinak daude dispositiboak zehazteko, horien helburuak finkatzeko eta egonaldia ezartzeko. Hori azaltzeko, EAeko hiru hiriburuetan etxerik gabeko pertsonentzat dauden aterpetxeetako egonaldi ertaineko programak aztertuko ditugu.

Gasteizko Gizarte Harrerako Udal Zentroa (CMAS) harrera zentro espezializatua da; etxerik ez duten edo aldi baterako etxea galdu duten pertsonen bideraturik dago, eta pertsona horiek, aldi berean, gizarteratze, higiene eta mantenu zailtasun handiak eduki ditzakete; tailerrei loturiko programak eta jarduerak egiten dira, eta horien helburua pertsona horiei laguntza ematea da, gaitasun pertsonalerako ohiturak hartzeko edo berreskuratzeko.

Ez dago plaza kopuru jakinik egonaldi ertaineko eta luzeko programetarako erreserbatuta; programa horretarako plazen erabilgarritasuna, izan ere, Oinarritzko Gizarte Zerbitzuko edo Gizarte Larrialdiko Udal Zerbitzuko profesional taldeak egindako diagnostikoaren eta balorazioaren ostean baliabidean sartzen diren pertsonen eskariaren nahiz beharrezkoen arabera da. Programa horrek egonaldi ertaina ezartzen du pertsonaren bat baliabidean bost egunetik urtebetera bitartean gelditzen denean. Dispositibo hori etxerik gabeko familiek jarraitu behar duten ibilbidearen barruan dago.

Bilboko Elejabarriko aterpetxeak, bestalde, egonaldi ertaineko programa proposatzen du eta horrek 25 plaza ditu; helburua, izatez ere, eskakizun mailarik txikienetan dauden pertsonak hasitako gizarteratze prozesuetan aurrerapausoak ematea da. Bitarteko baliabidea da eta erabiltzailearekiko esku-hartze plana proposatzen du; bertan, baliabideko egonaldian lortu beharreko helburuak eta xedeak ezartzen dira. Denbora muga hiru hilekoa da, salbuespenezko kasuetan izan ezik. Programarako sarbidea, berriz, Gizarte Larrialdiko Udal Zerbitzuaren diagnostikoaren eta balorazioaren ostean egiten da.

Aldiz, Donostiako Gizarte Harrerako Udal Zentroak ez dauka egonaldi ertaineko programarik; egonaldi bereziko programa dauka, 20 plaza ditu eta ez du baliabidean gelditzeko denbora mugarik ezartzen, baina kasurik gehienetan ez da hilabetetik gorako egonaldia egiten harrera zentroan. Horrenbestez, helburua aldi baterako laguntza ematea da, dena delakoagatik zentroan denbora luzeagoan gelditu behar duten pertsonentzat.

Zentroan hiru eguneko egonaldia gainditzeko aukera ematen duten egoerak honako hauek dira:

- Asilo politikoaren eskabidea tramitean onarturik duten pertsonak, eskabide horren ebazpena iritsi arte.
- Laguntza sareko beste baliabide baterako deribazioa tramitaturik duten pertsonak, baliabide horretan sartu ahal izan arte.
- Proyecto Hombre elkartean toxikazioaz gabetzeko prozesua hasiko duten pertsonak, komunitate terapeutikoan sartu ahal izan arte.
- Lana aurkitu duten pertsonak, harik eta lehenengo nomina kobratu eta, horrela, ostatu normalizatuagoren batera joan ahal izan arte.

Lehenengo kasuan, aldi baterako egonaldi programetarako sarrera zuzenean egiten da; gainerako hiru kasuetan, ostera, beharrezkoa da harrera zentroko gizarte laneko taldearen txostena, eta horrek egiaztagiri guztiak eskatuko digu, dena delako kasua justifikatu ahal izateko.

Bestalde, memorien azterketatik ondorioztatzen denez, okupazioa egonaldi ertaineko eta luzeko plazen %100 ingurukoa da. Halaber, gizarteratzeko egoitza baliabideak eskuratzeko dauden itzarote-zerrenda luzeen eraginez, aldi luzeak egin behar izaten dira itzaroten, eta aldi horiek batzuetan zenbait hiletakoak izaten dira.

## C) FINANTZIAZIOA

Indarreko legeriak eratzikitako eskumen horiei aurre egiteko, ohikoena haxe izaten da: halako zerbitzuak ematen dituzten erakundeetan garaturiko ostatu programak aldundiek finantzatzea, erakunde horien eta Foru Administrazioaren arteko lankidetzaz hitzarmenen bidez. Horri dagokionez, kontuan hartu behar da Udal Administrazioak larrialdiko harreraren eskumenak dituela, eta beraz, egonaldi ertaineko eta luzeko programen finantziazioan edo kudeaketan egiten duen ekarpena garrantzitsua da beti.

Gizarteratzeko egoitza baliabide horiek kudeatzen dituzten erakundeek egonaldi ertaineko eta luzeko ostatu plazak finantzatzeko erabiltzen dituzten formulak azertu ondoren, panorama oso desberdina ikusten da lurralde historiko bakoitzean.

### **FORU ADMINISTRAZIOA: FORU DIPUTAZIOAK<sup>75</sup>**

**Gipuzkoako Foru Aldundiak** parte hartzen du Lurralde Historikoan dauden egonaldi ertaineko eta luzeko plaza guztien %93aren finantziazioan<sup>76</sup>, dirulaguntzaren eta hitzarmenaren formula erabiliz. Programa horien finantziatorako erabiltzen den formula nagusia hitzarmena da; hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena dauka zortzi erakunderekin<sup>77</sup>, eta horren barruan Lurraldeko egonaldi ertaineko eta luzeko plaza guztien %74,3 sartzan dira. Aldundiak neurri batean finantzatzen dituen egonaldi ertaineko eta luzeko gainerako plazetan dirulaguntzaren formula erabiltzen da, eta horretan beste administrazio batzuek ere parte hartzen dute, batik bat Eusko Jaurlaritzak.

**Bizkaiko Foru Aldundiak** parte hartzen du egonaldi ertaineko eta luzeko plazen %67,9aren finantziazioan. Kasu honetan, hitzarmenaren formula egonaldi ertaineko eta luzeko programen finantziazioaren %100ean erabiltzen da, eta hori aldundiak egiten du lankidetzan hitzarmena sinaturik duten hamabost erakundeekin<sup>78</sup>. Gainerako %32,1 Eusko Jaurlaritzako sailen batekin eta Bilboko Udalarekin hitzarturiko hitzarmenen edo dirulaguntzen bidez finantzatzen dira, baita erakunde pribatuen ekarpenen eta halako programak kudeatzen dituzten erakundeen fondoek bidez ere.

**Arabako Foru Aldundiak** parte hartzen du Lurralde Historikoan dauden egonaldi ertaineko eta luzeko plaza guztien %20,9aren finantziazioan, kasurik gehienetan Gasteizko Udalarekin lankidetzan. Finantziazio formularik erabiliena lankidetzan hitzarmena da; hain zuzen ere, Aldundiak lankidetzan hitzarmena dauka bi erakunderekin<sup>79</sup>, eta, horrela, plaza guztien %19,4 finantzatzen ditu. Egonaldi ertaineko eta luzeko gainerako plazak Gasteizko Udalak finantzatzen ditu.

---

<sup>75</sup> Informazioa osatzeko, kontsultatu II. eranskineko koadro hau: "Egonaldi ertaineko eta luzeko ostatu zerbitzuak lurralde historikoen eta udalerrien arabera. 2005".

<sup>76</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiak egonaldi ertaineko eta luzeko plaza guztiak finantzatzen ditu Lurralde Historikoan, Donostiako Gizarte Harrerako Udal Zentroko egonaldi berezien programaren kasuan izan ezik.

<sup>77</sup> Gipuzkoako Foru Aldundiak honako erakunde hauekin hitzarmena dauka 2005ean: Acasgi, Abegi, Caritas, Gurutze Gorria, Meaux Fundazioa, Larratxo Fundazioa, Izan Fundazioa eta Loiola Etxea.

<sup>78</sup> Bizkaiko Foru Aldundiak honako erakunde hauekin hitzarmena dauka 2005ean: Agiantza, Askabide, Bidesari, Bizitegi, CEAR, Oblatas Kongregazioa, Siervas de Jesús de la Caridad Kongregazioa, Elkarabanduz, Meaux Fundazioa, Goiztiri, IFASen Bi Etxeak egoitza baliabide babestua, Itaka-Escolapios, Izangai, Lagun-Artean eta Zubietxe.

<sup>79</sup> Arabako Foru Aldundiak honako erakunde hauekin hitzarmena dauka 2005ean: Presoari laguntzeko elkarte (ADAP) eta Hiesaren aurkako batzordea.

## TOKI ADMINISTRAZIOA: UDALAK<sup>80</sup>

Arabako **Gasteizko Udalak** presentzia handia dauka Lurralde Historikoan dauden egonaldi ertaineko eta luzeko plaza ia guztien finantziazioan (hitzarmenen bidez) eta kudeaketa zuzenean nahiz zeharkakoan (administrazio kontratuen bitartez); finantziazioa, kasu batzuetan, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan egiten da.

Bizkaiaren kasuan, **Bilboko Udalak** ez dauka halako presentzia handirik egonaldi ertaineko eta luzeko plazen finantziazioan edo kudeaketan; hain zuzen ere, kudeaketa zuzena nahiz zeharkakoa dauka edo finantziazioan parte hartzen du, egonaldi ertaineko eta luzeko plaza guztien %34,1 en kasuan.

**Donostiako Udalak**, azkenik, Gizarte Harrerako Udal Zentroko egonaldi berezien programaren kudeaketan baino ez dauka presentzia. Gainera, Pasaiako eta Tolosako udalak (etxerik gabeko pertsonentzako egoitza baliabideak dituzten udalak) parte hartzen dute dispositibo horien finantziazioan, dirulaguntzen bitartez.

## D) ESPERIENTZIA AIPAGARRIAK: BERRIRO HASTEKO ETXEA

Egonaldi ertaineko eta luzeko babesaren barruan aipagarria da ostatura eskaintzen duten dispositibo berezi batzuen presentzia; horiek erreferentziako lekuak dira eta, bertan, erantzuna ematen zaie bakardadeari eta deserrotzeari loturiko beharrezan. Euren diseinuan, errotzeko aukera kontuan hartzen duten programa batzuk daude; adibidez, lurralde historiko bakoitzean dispositibo bat aipatuko dugu, eta bertan, bai diseinuan, bai garaturiko programetan edo bai elementuren batean, kontuan hartzen da aukera hori. Egonaldi ertaineko eta luzeko ostatu baliabideok honako hauek dira: Casa Abierta Gasteizen, Posada de los Abrazos Bilbon eta Loiola Etxea Donostian.

**Casa Abierta** deritzon zerbitzuak eremu fisikoa, oinarritzko laguntza (gizarteratze prozesuetan) eta harreman beroak nahiz ulerkorrak (eguneroko zailtasunetan) eskaintzen dizkie, dena delakoagatik gizartean parte hartzeko gaitasuna eta gogoa galdu duten pertsona guztiei, hau da, bazterkeria egoeran edo egoera ahulean dauden pertsona guztiei.

**Posada de los Abrazos** deritzona ostatura da, baina ohiko ostatuetatik bereizten dituen ezaugarriak ditu. Bilboko San Frantzisko auzoan kokaturiko bi bizileku dira; horietan hamabost gela daude eta, bertan, gutxi gorabehera, hogeita bost pertsona sartzen dira. Leku horretan, oinarritzko beharrezan betetzeaz gain, pertsonaren berreraikuntza lantzen da, hau da, "pasaia pertsonal berria sortzeko" ahalegina egiten da. Gainera, etxebizitza arazoaren inguruko gizarte kontzientzia sustatu eta gizarte sare berriak sortzeko laguntza ematen da, baita familia lotura berreskuratzeko laguntza ere. Ostaturako arduradunek laguntza ematen diete "maizterrei", euren burua

<sup>80</sup> Informazioa osatzeko, kontsultatu II. eranskineko koadro hau: "Egonaldi ertaineko eta luzeko ostatu zerbitzuak lurralde historikoen eta udalerrien arabera. 2005".

berriro aurkitzeko prozesuan eta sendotze pertsonalean, gizartean parte hartu ahal izateko, gizarte horretan euren lekua eskatzen ari baitira.

Orokorrean, bertan bizi diren pertsonak enplegua lortu dute edo gizarte laguntzen eraginezko baliabide ekonomikoak dituzte; horrenbestez, horiek ez ditugu sartu laguntzako babesaren azterketan. Hala eta guztiz ere, gure ustez komenigarria izan da herritarren ekimenetik sorturiko elkartasunezko eremuen adibidetzat aipatzea.

**Loiola Etxea** egonaldi ertaineko harrera eta laguntza zentroa da; gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonen orientaturik dago eta arreta berezia eskaintzen zaie Gipuzkoako preso izandakoen artean dauden harrera eta laguntza beharrazanei. Zentroaren helburuen artean, aipagarriak dira pertsonen euren errealitatea aurkitzeko erraztasuna ematea, euren ahalmenak nahiz gabeziak onartzea eta bizikidetzat lantzea, bertan dabilzan pertsonen helburu nagusia gizarte harreman normalizatuak edukitzea baita.

### 5.2.2.3. ETXEBIZITZA AUTONOMORAKO LAGUNTZA

Beste alde batetik, **etxebizitza autonomorako laguntza** programak eta baliabideak ere badaude; horien helburua, izan ere, lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten baina gizarte babesik behar ez duten pertsonen ostatu autonomia erraztea da. Horri dagokionez, halako laguntzak gaueko estalduraren barrukoak ez badira ere, guk barruan sartu ditugu, zailtasun bereziak dituzten pertsonentzako ostatu sistemak direlako.

Programa horietariko gehienetan sartzeko, baldintza batzuk bete behar dira, esate baterako, erroldatzearen antzinatasuna edo errenta maila jakinak; horrenbestez, profil horren barrukoak izan daitezkeen pertsona asko ezin dira programetan sartu.

Orokorrean, Administrazioak etxebizitza alokatzeko edo mantentzeko gastuak ordaintzeko ematen dituen prestazio ekonomikoetan oinarritzen dira. Laguntza horiek, batez ere, Gizarte Larrialdiko laguntzak dira, baina gizarte ekimen pribatutik egindako programak ere badaude. Horri dagokionez, aipagarriak dira etxebizitza babestuko eta udal etxebizitzako politikak. Halaber, aspaldion programa berriak garatu dira, esate baterako, alokairuetako bitartekaritza, bai **ekimen publikotik** eta bai pribatutik. Ekimen publikotik bi programa aipa daitezke:

- hutsik dagoen etxebizitza mugitzeko BIZIGUNE programa;
- gizarte etxebizitzaren alokairua kudeatzeko ALOKABIDE programa.

**Ekimen pribatuak** ere halako neurriak garatu ditu; adibidez, Barakaldoko Goiztiri Elkarteko higiezin bitartekaritza zerbitzua; zerbitzu horrek bitartekaritza lanak egiten ditu, zailtasun bereziak dituzten etorkinek etxebizitza errazago eskuratzeko. Gainera, erakunde batzuek dirulaguntza bereziak ematen dituzte, etxebizitza lortu ezinik dabilzan pertsonen horretarako laguntza eduki ahal izateko.

Halako laguntzak gizarte beharrazan eta zailtasun oso gogorrik ez duten pertsonen bi-deraturik daude; izan ere, euren beharrazan nagusia etxebizitzarik eta berori lortzeko

beharrezko baliabiderik ez edukitzea izaten da, eta beraz, ez ditugu gure azterketan kontuan hartuko. Hala eta guztiz ere, behintzat aipatu egin behar dira, ostatu babesaren ematen duten baliabideen sarea osatzen dutelako.

### 5.2.3. EGUNEKO BABESA

Eguneko laguntza babesaren, batik bat, etxerik gabeko pertsonen oinarrizko beharrezkoak betetzeko behar diren prestazioak eta zerbitzuak emateko programetan oinarritzen da; beharrezko horiek elikaduraren, jantziaren, higienaren eta gizarte loturak berrezartzearen arlokoak dira.

Sarritan, halako zerbitzuak ostatu zerbitzuen edo gaueko zentroen eremuaren barruan ematen dira. Hala ere, beharrezko horiek modu espezifikoan betetzeko dispositiboak daude.

Egunez oinarrizko beharrezkoak betetzeko dauden baliabideen eta dispositiboaren egitura errazago ulertzeko, zerbitzu horien ondoren adierazitakoaren arabera egituratu ditugu:

- elikadurari, jantziari eta dutxei loturiko oinarrizko prestazioak;
- gizarteratze zentroak (CIS);
- gizarte eta osasun zerbitzuak;
- hurbiltasun handieneko zerbitzuak.

Eguneko laguntzako egitura honen barruan, aldi berean, gizarte trebetasunak hartzea edo berreskuratzea eta alderdi pertsonalak zein harremanen lotutakoak lantzea orientaturiko hezkuntza programak eta zerbitzuak sartzen dira. Halaber, gizarteratze prozesuko goi mailan dauden pertsonentzat, lanbide aurreko **tailerrak** eta programa bereziak daude, errazago laneratu ahal izateko. Horri dagokionez, komenigarria da azterketan tailer eta programa horien jasotzea, estu lotuta baitaude pertsona batzuek (gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen eguneko babesaren emateko dispositiboetan lagundutako pertsonak) hasitako gizarteratze prozesuekin.

Larrialdiko ostatuarekin batera, halako zerbitzuak etxerik gabeko betiko laguntza dispositiboak osatzen dituzte. Estatistikako Nazio Erakundeak dioenez<sup>81</sup>, bizilekurik ez duten pertsonentzako zentro guztietako (Espainiako estatuko zentroak) %69,7k birgaitze zerbitzuak eskaintzen dituzte eta %43,8k jantziak eskaintzen dituzte, eta horrek agerian jartzen du eguneko laguntza sarearen sorospen izaera: segurutzin, *“baliabide ezaren eta gizarte laguntzaren ikuspegi jakinaren eraginezko”* izaera.

Hezkuntzari loturiko zerbitzuak eta gizarteratze prozesuetara bideratzen diren zerbitzuak, bestalde, zentro kopuru txikiagoak eskaintzen ditu. Horrela, Espainiako estatuan, lagun-

<sup>81</sup> Estatistikako Nazio Erakundea (INE). Etxerik gabeko pertsonen buruzko inkesta (zentroak). 2004ko maiatza. 14. or.



tza psikologikoa zentroyen %32,8k ematen du<sup>82</sup>, osasun laguntzak zentroyen %22,5ek ematen ditu eta paperen erregularizatzea zentroyen %23,2k; horrek agerian jartzen ditu "inmigrazioak geure gizartean duen garrantzi gero eta handiagoa eta etorkinen bizi baldintzen zailtasunak".

Lan merkatuan sartzeari loturiko beste prestazio batzuek presentzia urria dute gure sarean; esate baterako, okupazio tailerrek edo laneratze tailerrek, eta horiek presentzia txikia dute Espainiako estatuan etxerik gabe bizi diren pertsoneri laguntzeko zentroetan; iturri horren arabera, presentzia hori guztizkoaren %15,3koa da. Horrenbestez, sareak ez dauka ikuspegi integratzailerik eta gizarteratze ikuspegirik.

Eguneko laguntza sarearen beste ezaugarri bat, azkenik, halako baliabideetatik laguntzari ematen zaion banakako izaera da; hori agerian gelditzen da familiak edo bikoteak modu integralean laguntzeko zerbitzuak dituzten dispositiboen presentzia urrian.

Hala eta guztiz ere, azken urteotan halako zentro batzuetan bilakaera handia egon da integrazioa bideraturiko prestazioetarantz eta zerbitzuetarantz; gizarte esku-hartzean esfortzu handiagoa egin eta integrazio gaitasun handiagoko beste baliabide batzuetarako deribazioa egon da. Horrela, zerbitzurik gehienetan nahasi egiten dira oinarriko beharrianetan laguntzeko mailak eta gizarte nahiz hezkuntza lanak, baita gizarteratze prozesuetan laguntzeko lanak ere.

### *5.2.3.1. OINARRIZKO ZERBITZUAK ELIKADURAN, JANTZIETAN ETA DUTXETAN*

Etxerik gabeko pertsoneri beti eman zaizkien prestazioak eta zerbitzuak honako hauek izan dira: elikadura, ostatua, gaueko zentroak eta jantziak. Hasieran, gizarte jantokiak eta jantzien zerbitzua elkarte erlijiosoek kudeatzen zituzten, eta Administrazioak ia ez zuen presentziarik halako zerbitzuak emateko orduan.

#### **A) ELIKADURAKO ZERBITZUAK**

Bazterkeria egoeran dauden pertsoneri gehien erabiltzen dituzten zerbitzuetariko batzuk jantokiak dira; gainera, kasu askotan, oinarriko beharrianak betetzeko dispositibo sarean sartzeko ateak izaten dira, sartzeko erraztasuna eta eskakizun mailak aintzat hartuta; maila horiek, berriz, instalazioetan legez kanpoko substantziak hartzeko debekuan eta bizikidetzaren inguruko gutxieneko arauen errespetuan oinarritzen dira.

Kasurik gehienetan, **emandako laguntza** zehatza da eta janari beharrianak betetzera bideratzen da. Hala eta guztiz ere, baliabide horietan lanbide profil berriak sartzearekin batera, hezkuntza lana egiten hasi dira, aldaketa prozesuen hasiera bizkortzeko.

---

<sup>82</sup> Estatistikako Nazio Erakundea (INE). Aipaturiko lan. 15. or.

Jantokietarako **sarbidea** irekita dago eskatzen duten pertsona guztientzat, prestazioa dohainik jasotzeko aukera ematen duten txartelak banatzen dituen erakundearekin kontaktuan jarri ondoren. Gasteizen, jantokian sartzeko txartelak Udaleko gizarte zerbitzuek eurek banatzen dituzte, eta zerbitzuak prezio merkea ordainduta ere eskuratu ahal dira. Bilboren kasuan, txartel horiek Udalak berak banatzen ditu, hain zuzen ere, Gizarte Larrialdiko Udal Zerbitzuaren menpeko gizarte laneko talde batek banatzen ditu. Donostian, txartelak erakunde pribatu batek banatzen ditu, Cáritasek, eta txartelen bidez bazkariak eta afariak dohainik lortzen dira, jantokira iristeko ordena errespetatuz.

Janariak eskaintzeko dispositiboak ere EAEko hiriburuetan pilatuta daude, gainerako baliabide ia guztien kasuan gertatzen den bezala.

Hala eta guztiz ere, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrri batzuek<sup>83</sup> gehienetan hirugarren adineko egoitzetan kokaturik egoten diren jantokietara bideratzen dituzte halako beharrianak dituzten pertsonak, edo Oinarrizko Errenta jasotzen duten pertsonen orientaturiko jatetxe merkeetara. Udalerrri horietan guztietan, sarbide sistema txartelen banaketaren bidez arautzen da, udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuetako taldeek balorazio egokia egin ondoren.

Gaur egun, erakunde bakoitzak autonomia dauka funtzionamenduko barne araubidea, ordutegiak eta eskaintako prestazioak ezartzeko; horiek, batzuetan, erakundearen betiko arauen edo gizarte inguruko ohituren arabera izaten dira.

Oraingo eskarian oinarrituz, jantokiek zerbitzu hori emateko duten gaitasuna ez da nahikoa, eguneroko erabiltzaile kopuruaren batez bestekoak halako zerbitzuen erabateko asetzea jartzen baitu agerian. Horrenbestez, zerbitzurik gehienetan txanda-sistema ezarri da, baliabidea itota ez gelditzeko eta tentsioko edo biolentziako uneak murrizteko<sup>84</sup>; horren ondorioz, baliabide horietariko batzuetan prestazioa poliziaren presentziarekin egiten da beti.

Orokorrean, janari eta afari zerbitzuan bi txanda daude, eta horrela, egunero lagundutako pertsona kopurua zerbitzuaren gaitasuna baino askoz ere handiagoa da.

Gizarte jantokiak ez ezik, ostatu zentroetatik eta eguneko zentroetatik gosariak, janariak eta askariak ere eskaintzen dira; hala eta guztiz ere, prestazio hori ez dago irekita eskatzen duten pertsona guztientzat, eta zerbitzu hori zentroa erabiltzen duten pertsonen murriztuta dago. Hona hemen 5.17 koadroa.

---

<sup>83</sup> Bizkaian prestazio hau eskaintzen duten udalerrriak Portugalete eta Santurtzi dira. Gipuzkoan, Irun eta Eibar.

<sup>84</sup> Egoera hori Bilbon ikusten da batik bat.

5.17. KOADROA: ELIKADURA ZERBITZUAK<sup>(1)</sup> EAEko HIRIBURUETAN. 2005

JANTOKIA	ERAKUNDEA	ZERBITZUAK	FINANTZIAZIOA	EGUNEKO ZERBITZU KOPURUA
Apostólicas	Cáritas eta Damas Apostólicas kongregazioa	- Bazkariak	Bilboko Udalaren hitzarmena eta generoko ekarpen pribatuak	148
San Antonio de Iralbarri	Frantziskotarren kongregazioa	- Bazkariak eta afa-riak	Bilboko Udalaren hitzarmena eta generoko ekarpen pribatuak	163
Conde Aresti	Conde Aresti fundazioa	- Bazkariak eta afa-riak	Bilboko Udalaren hitzarmena eta generoko ekarpen pribatuak	67
Beata María Josefa	Siervas de Jesús kongregazioa	- Gosariak	Dirulaguntza pribatuak eta janariaren bankua	70
<b>BILBO GUZTIRA</b>				<b>448</b>
Aterpe	Cáritas	- Bazkariak eta afa-riak	GFaren dirulaguntza, dirulaguntza pribatuak eta dohainak	160
<b>DONOSTIA GUZTIRA</b>				<b>160</b>
Babesgabeen jantokia	Nuestra Madre de los Desamparados gizarte egintza	- Bazkariak eta afa-riak	Gasteizko Udalaren dirulaguntza eta parrokiaren dirulaguntzak	220
<b>GASTEIZ GUZTIRA</b>				<b>220</b>
<b>GUZTIRA</b>				<b>828</b>

(1) Ez daude jasota ostatu dispositiboen eta gizarteratze zentroen bidez emandako jantoki zerbitzuak.  
ITURRIA: Geuk landuta, jantokietan egindako kontsultetan oinarrituz.

Jantoki zerbitzuak erabiltzaileentzat duen zailtasunetariko bat **bazkarien ordutegiak aldi berean izatea** da; horietan guztietan, bazkariak 12:30etik 13:30era bitartean ematen dira, Gasteizko jantokiaren kasuan izan ezik, horrek 15:00etara arte luzatzen baitu bazkarien ordutegia, eta afa-riak 19:30ean izaten dira. Ordutegi hori oso zaila da gizarteratze ibilbideetan sartu diren eta eskakizun batzuk (adibidez, heziketa ikastaroetan parte hartzea) bete behar dituzten erabiltzaileentzat, gauza bietarako ordutegiak berberak izaten baitira. Asteburuetan eta jaiegunetan, txartela hartu ez bada, ezin daiteke janariaren prestazioa erabili.

Bestalde, gaur egun gizarte jantokietatik egiten den prestazioa **laguntzako** da, eta ez dauka loturarik laguntzako beste baliabide eta dispositibo batzuetatik garatzen den esku-hartze integralarekin. Horri dagokionez, beharrezkoa da janariak eskaintzeko ereduak dibertsifikatzea, gainerako gizarte politikekiko nolabaiteko koherentzia mantendu ahal izateko. Planteamendu teoriko batetik, kontsultaturiko pertsona batzuek diotenez, gizarte jantokiaren eredu 1989tik gutxienerako diru-sarrera programan oinarrituz mantentzea (oraingo Oinarrizko Errenta) ez da koherentea pobrezia-aren aurkako borrokarako Planarekin (oinarrizko beharrianak betetzeko prestazioa).

Nolanahi ere, agerikoa da zenbait faktorek zaildu egiten dutela baliabide ekonomikoen kudeaketa, eta beraz, segurutzat gizarte jantokiaren eredu hori mantendu egin beharko da, oinarrizko elikadura beharrianen aurre egiteko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten pertsonentzat.

## EREDUAREN DIBERTSIFIKAZIOA: BI AUKERA

Eredu hori dibertsifikatu egin daiteke, bai pertsona erabiltzailearen partaidetza ekonomikoaren edo bai jantokietan profil profesionalak sartzearen bitartez.

- a) **Jatetxe merkeen** antzeko ereduak: horrela, oinarrizko errenta jasotzen duten edo beste diru-sarreraren bat duten pertsonak parte hartuko dute baliabidearen mantenamenduan, duintasun pertsonala sustatzen den neurrian indarra kentzen baitzaio gizarte jantokia erabiltzeak sortzen duen estigmari.

Halako dispositibo bat erabiltzearen ondorioz sortzen den estigma ekiditeko beste aukera bat hori eredu normalizagarriagoren baten barruan sartzea izan daiteke, ahal den neurrian behintzat. Horrela, jatetxe merkeak irekita egon daitezke menu merkeren bat jan nahi duten pertsona guztientzat, gaur egun Gasteizen dagoen jantoki baten kasuan gertatzen den bezala.

- b) **Profesionalak sartzea, sareko lana eta koordinazioa**, dispositibo horietatik egindako esku-hartzea pertsona horiei laguntza ematen dieten beste baliabide batzuetatik egindakorekin lotzeko, eta horrela, laguntza hori eredu orokorragoan sartzeko. Profesionalak sartzek erraztu egingo luke sareko beste dispositibo batzuekiko koordinazioa, eta gainera, eskakizun mailarik baxuenetan dauden pertsonen jarraipena ahalbidetuko luke (kaleko edo gaueko zentroetako esku-hartzearen lehenengo etapetan); horrela, errazagoa izango litzateke gizarteratze prozesuak hastea.

Lehenengo eta behin, oinarrizko beharrianak betetzearen inguruko lana egin behar da, horretan adostasuna dago; baina ez da ahaztu behar esku-hartzearen helburua baliabide guztiak jartzea dela, pertsona batek aldaketa prozesuak hasi ahal izateko. Nabardurak, berriz, esku-hartze hori gauzatzeko moduetan sartzen dira, eta hortaz, horretarako lehentasuna izango duten eskakizun mailetan.

## FINANTZIAZIOA

Janariak eskaintzeko dispositibo horiek finantzatzeko formulei dagokienez, lurralde batetik besterako desberdintasun handiak daude. Horrela, Bilbon, 2004ra arte jantokiek Bizkaiko Foru Aldundiarekiko hitzarmena zuten. Hala eta guztiz ere, Bilboko Udalarekin gizarteratze politikei buruz lorturiko akordio baten ostean, eskumen hori Udalarari eskuordetu zitzaion oso-osorik, eta, 2005etik aurrera, horrexek finantzatzen du zerbitzua.

Donostian, dispositiboaren finantziazioa dirulaguntzaren formula erabiliz egiten da, eta bertan parte hartzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta erakunde pribatuak; gainera, bertako fondoak ere erabiltzen dira, eta norbanakoen dohainak ere bai.

Gasteizen, gizarte jantokiak udal finantziazioa dauka, baina hori bertako fondoekin osatzen da, finantziazio horrek baliabidearen gastu osoa betetzen ez duelako.

Nolanahi ere, horiek guztiak azalera handiek, supermerkatuek eta Elikagai Bankuak egindako janari ekarpenak dituzte.

20.000 biztanletik gorako gainerako udalerrietan, elikadura zerbitzuak toki erakundeek finantzatzen dituzte.

## B) JANTZIEN ARLOKO ZERBITZUAK

Orokorrean, jantzien arloko zerbitzuaren kudeaketa parrokiek egiten dute, prestazio hori eskaintzen duten udalerririk gehienetan, eta horretarako, batik bat norbanakoek ekarpenak erabiltzen dituzte.

Horri dagokionez, Gasteiz eta Bilbo desberdinak dira, zerbitzu horren antolaketaren eta prestazioaren aldetik. Gasteizen kasuan, zerbitzua Berjantzi izeneko laneratze programa baten barruan dago (Cáritasek kudeaturiko programa); horren barruan, beharrezana duten pertsonen jantziak banatu eta, gainera, bazterkeria egoeran dauden pertsonen heziketa eskaintzen zaie, horiek laneratu ahal izateko.

Bilbori dagokionez, zerbitzu hori Cáritasek kudeatu du orain arte. Hala eta guztiz ere, Bilboko Udalak zerbitzuaren kudeaketa zuzena bereganatu du 2005etik, baina ikerketa hau amaitzeko unean (2005eko iraila) oraindik ez da hasi zerbitzua ematen. Gaur egun, Bilboko Cáritasen harrera zerbitzuak txartelak banatzen ditu "Ekojantziak" deritzen dendetarako edo parroketan kokaturiko jantzi-zerbitzuetarako. Hala ere, zerbitzu hori emateko orduan distortsioak daude, pertsona berberak zerbitzua jasotzeko maiztasunaren gaineko kontrol urriaren eraginez.

## C) DUTXAK

EAEen dutxen dispositibo bakarra dago, Bilbon. Udalaren titularitatekoa da eta bertan bizi diren edo udalerritik igarotzen diren pertsona guztientzat irekita dago. 14 dutxa ditu gizonentzat eta 7 emakumeentzat; gainera, elbarritasuna duten pertsonen beharrezanez egokituriko zerbitzuak daude. Sarbidea doakoa da eta sei zentimo baino ez dira kobratzen xaboiarengatik. Arratsaldeetan dago irekita, 14:00etatik 19:00etara neguan eta 14:00etatik 20:00etara udan; asteburuetan eta jaiegunetan itxita egoten da.

Gizarteratze zentroek eskatzen duen edozein pertsonari ere eskaintzen diote zerbitzu hori, dispositiboaren erabiltzailea izan ez arren. Horri dagokionez, dispositibo eta programa guztiek zeharka lantzen duten arloetariko bat higiene pertsonala da; zentro batzuetan sartzeko baldintzetariko bat, izan ere, gutxieneko baldintza higienikoak betetzea izaten da.

### 5.2.3.2. GIZARTERATZE ZENTROAK

Gizarteratze zentroak (aurrerantzean, CIS) edo eguneko zentroak egoitzakoa ez den gizarteratzerako zentroak dira. Balio anitzeko eta eguneko zentroak dira, eta horietan laguntza intentsiboa eta luzea ematen da; gainera, lagundutako pertsona ez da bere ingurutik aldentzen, eta horrela, autonomia maila ahalik eta handiena lortu, komunitatearekin harremanak bultzatu eta gizarteratze prozesuan laguntza eskaintzen da, okupazio, hezkuntza, terapia eta gizarteratze nahiz laneratze mailako jardueren bidez.

Zentro horiek laurogeiko hamarkadan sortu ziren eta laurogeita hamarrek hamarkadaren lehenengo zatian orokorrean finkatzen joan ziren. Elkartze-mugimendutik sortutakoak dira eta, hasieran, drogamenpekotasun arazoak dituzten pertsoneri bideratu dira. Hala eta guztiz ere, denborarekin, laguntza ereduak eta profilak dibertsifikatzen joan dira, substantziei, kontsumitzaileei eta kontsumoa egiteko inguruari loturiko aldaketa garrantzitsuak egon baitira.

Gainera, kontsumitzaileak ez diren pertsonentzat ere irekita daude, pertsona horiek euren ezaugarriak eta beharrianak aintzat hartuta bazterkeria egoeran daudenean; horrenbestez, gaur egun egoera askotan dauden eta era anitzeko beharrianak dituzten pertsonen (laguntza maila desberdinak behar dituzten beharrianak) erabiltzen dituzte.

Ondoren, 5.18 koadroan CISen direktorioa agertzen da, honako honi buruzko informazioarekin: eskakizun maila, lagundutako pertsonaren profila, zentroa kudeatzen duen erakundea, eskaintako zerbitzuak, finantziario iturriak eta hiru lurralde historikoetan hobe zintzat ezarritako plaza kopurua.

#### 5.18. KOADROA: GIZARTERATZE ZENTROAK BILBON, DONOSTIAN ETA GASTEIZEN. 2005

ESKAKIZUN MAILA	PROFILA	ERAKUNDEA	PROGRAMA	ZERBITZUAK	FINANTZIAZIOA <sup>(1)</sup>	PLAZA KOP.
BAXUA		Bizitegi	"Onartu" eguneko zentroa	- Garbigailu-lehorgailua eta dutxa - Arlo soziokomunitarioa - Gizarte eta osasun arloa - Arlo psikologikoa - Okupazio arloa	E. Jaurlaritzaren eta Bilboko Udalaren dirulaguntza	15
		Toxikomania				
		Hiesaren aurkako batzordea	Gizarte eta osasun laguntzako nahiz larrialdiko zentroa	- Oinarrizko janariak hornitzeko zerbitzua - Garbiketa, higiena eta garbitegia - Gizarte eta hezkuntzako eskuhartzeak - Osasun laguntzako zerbitzua - Gizarte laguntzako zerbitzua	E. Jaurlaritzaren, BFAren eta Bilboko Udalaren dirulaguntza	20
		Agiantza	"Abegi Egoitza" eguneko zentroa	- Jantokia, dutxak eta garbitegia - Tailerrak - Informazioa, orientazioa eta aholkularitza - Gizarte eta osasuneko oinarrizko zerbitzuak	Hitzarmena BFArekin	25
		EGP	Lagun-Artean	"Julio Urkijo" eguneko zentroa	- Jantoki zerbitzua: gosariak, kafeak eta askariak - Garbiketa, garbitegia eta jantzitegia - Animazio soziokulturaleko zerbitzua - Gizarte eta osasun laguntzako zerbitzua - Gizarte laguntzako zerbitzua - Laguntza juridikoko zerbitzua	E. Jaurlaritzaren, Bilboko Udalaren eta erakunde pribatuen dirulaguntza
		Cáritas	"Apostólicas" eguneko zentroa	- Jantoki zerbitzua: txartelen bidezko janariak - Garbiketa zerbitzua eta garbitegia - Animazio soziokulturaleko zerbitzua	Hitzarmena BFArekin eta Bilboko Udalarekin. Dirulaguntza pribatuak	120 <sup>(3)</sup>

ESKAKI-ZUN MAILA	PROFILA	ERAKUNDEA	PROGRAMA	ZERBITZUAK	FINANTZIA-ZIOA <sup>(1)</sup>	PLAZA KOP.
ERTAINA-ALTUA	Toxikomania	Bizitegi	Toxikomania dutenei, kontsumitzaileak direnei eta toxikomanoak izan direnei zuzendutako eguneko zentroa	- Arlo soziokomunitarioa - Arlo juridikoa - Gizarte eta osasun arloa - Arlo psikologikoa - Heziketa arloa - Okupazioko eta lanbide aurrerko arloa - Espetxeetako esku-hartzeak - Laneratzeko tailerrak - Gaueko jarraipen zerbitzua	Hitzarmena BFArekin, E. Jaurlaritzaren dirulaguntzak	25
	EGP	Zubietxe	Eguneko zentroa: Hazkuntza	- Tutoretzak eta gizarte lana - Aholkularitza juridikoa - Laneko orientazioa - Sendagaien zerbitzua - Espetxeetako esku-hartzea - Jantokia, jantzitegia, dutsak eta garbitegia - Laguntzak	Hitzarmena BFArekin, E. Jaurlaritzaren, Bilboko Udalaren eta erakunde pribatuen dirulaguntza	35
		Izangai	Gizarteratzeko eguneko zentroa	- Gizarte eta komunitate laguntzako arloa - Arlo juridikoa - Gizarte eta osasun arloa - Arlo psikologikoa eta hezkuntzako arloa - Heziketa arloa - Okupazioko eta lanbide aurrerko arloa	Hitzarmena BFArekin	20
	Espetxea	ADSSIS	Eguneko zentroa: Bestalde	- Heziketa arloa: lanbide heziketa (heziketa aurreko tailerrak, lanbide heziketa, eskola laguntza) eta oinarritzko heziketa (eskola graduatua, kultura taldea eta okupazio tailerra) - Astialdiko arloa - Elkarrekiko laguntza taldeak	Hitzarmena BFArekin, 5 plazarako, eta BFAren eta E. Jaurlaritzaren dirulaguntza	15
	BAXUA-ERTAINA ETA ALTUA	Toxikomania	T4 Batzordea	T4 eguneko zentroa: kontsumitzaileak ez direnentzat	- Arlo soziokomunitarioa - Arlo juridikoa - Gizarte eta osasun arloa - Arlo psikologikoa - Heziketa arloa - Okupazioko eta lanbide aurrerko arloa - Arlo fisioterapeutikoa - Laneratzeko tailerrak - Gaueko jarraipen zerbitzua	E. Jaurlaritzaren, Bilboko Udalaren eta BFAren dirulaguntza <sup>(4)</sup>
<b>BILBO GUZTIRA</b>						<b>338</b>
BAXUA	EGP	Caritas	Eguneko aterpetxe	- Jantokia, dutsak, komuna eta jantzitegia - Erizaintza eta podologia zerbitzua	GFaren dirulaguntza eta bertako fondoak	48
		RAIS	Topaleku	- Tailerrak, egongela eta topalekua	Hitzarmena GFArekin, E. Jaurlaritzaren dirulaguntza eta bertako fondoak	20
	Toxikomania/EGP	Izan fundazioa	Eguneko zentroa: Uli-Enea	- Egongela eta topalekua - Harrera - Osasun laguntza - Laguntza psikologikoa	Hitzarmena GFArekin eta E. Jaurlaritzaren dirulaguntza	30
<b>DONOSTIA GUZTIRA</b>						<b>98</b>

ESKAKI-ZUN MAILA	PROFILA	ERAKUNDEA	PROGRAMA	ZERBITZUAK	FINANTZIA-ZIOA <sup>(1)</sup>	PLAZA KOP.
BAXUA	EGP	Hiesaren aurkako batzordea	Eguneko zentroa: Estrada	- Zona irekia: Topalekuak - Tailerren zona: Jarduera eta okupazio erdi produktiboak - Arlo psikologikoa: Laguntza emozionala eta hezkuntzakoa	Hitza emena AFArekin eta Gasteizko Udarekin	30
<b>GASTEIZ GUZTIRA</b>						<b>30</b>
<b>GUZTIRA</b>						<b>466</b>

- (1) AFA, BFA eta GFA Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak dira, hurrenez hurren.  
 (2) Lokal bera aldi berean erabiltzeko gutxi gorabeherako plaza kopurua.  
 (3) Ez da plaza kopuru hobezinik. Orokorrean, jantoki zerbitzuaren erabiltzaileen %80 eguneko zentroaren erabiltzaileak dira, eta hori instalazioetan bertan kokaturik dago.  
 (4) Hiesaren aurka Borrokatzeko T4 Batzordeak Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartu nahi du baliabide hori, 2006tik aurrera.  
 (5) Plaza ezegonkorrak, izan ere, tramite jakinak egitera doazen pertsonentzat erreserbatzen dira.

## A) TIPOLOGIA

Orokorrean, bazterkeria larrirako eguneko laguntza dispositiboak eskakizun mailetan egituratzen dira; horrela, **eskakizun baxuko** CISetan zerbitzuaren sarbidea eta eskaintza ez daude lotuta aldaketa prozesuen hasierarekin, eta ezartzen diren arauzko maila bakarrak, izan ere, baliabidearen funtzionamendu egokirako behar direnak izaten dira; horiek estu lotuta egoten dira lokalaren barruan mendekotasuna sortzen duten substantziak hartzeko debekuarekin eta bizikidetzako gutxieneko arauak errespetatzearekin.

**Eskakizun ertaineko eta altuko** CISen helburua hasitako gizarteratze prozesuetan aurrera egitea da. Halaber, eskakizun altuko CISetan heziketa eta lan arloko jarduerak eskaintzen dira, eta horiek gizarteratze prozesuaren azken mailak izaten dira.

## B) HELBURUAK

CISen helburu nagusia erabiltzaileak **gizarteratze ibilbideetarantz** orientatzea da. Hala eta guztiz ere, erabiltzaile guztiek ez dituzte ezaugarri berberak; pertsona batzuek, euren narriadura fisikoaren edo psikikoaren eraginez, edo euren bizitza-une bereziaren ondorioz, “egoteko” eta “eguna emateko” leku bat baino ez dute nahi, eta euren eskakizun mailak oso baxuak dira. Horrela, zentro horiek lagungarriak izan daitezke, oraindik ere aldaketa prozesurik hasi ez duten profil batzuk “atzemateko” edo oinarrizko beharrianak betetzeko nahiz kalteak murrizteko.

Eguneko laguntza, batik bat, CISetan oinarritzen da; horien helburua oinarrizko beharrianei erantzun egokia ematea da: gizarte edota osasuna, elikadura, higiena, informazioa, orientazio juridikoa eta garapen pertsonalera nahiz aisialdira bideraturiko beste jarduera batzuk.

Esku-hartze hori gauzatzeko tresna nagusia laguntza prozesua da<sup>85</sup>. Prozesu horren oinarrizko osagaien artean, honako hauek dira aipagarrienak:

<sup>85</sup> Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarteratze Zentroetako Praktika Onen Eskuliburua. 2003. 46-47. or.



- Aldaketa prozesu baten barruko laguntza erlazioa da.
- Tutoretza motako prozesu enpatikoa da, eta orientazio prozesuetan, sustapenean eta gizarteratze ibilbide pertsonalizatua lantzeari buruzko elkarriketan oinarritzen da.
- Erlazioaren eraikuntzarekin hasten da, harrera prozesuan oinarrituz.
- Ibilbide pertsonalizatua landu nahi du beti, eta gainera,aldi jakinean zeharreko ikuskapena eta mantenamendua eragiten du.
- Helburu bikoitza duten jardueren eta ekintzen diseinuan euskarritzen da:
  - arrakasta sentsazioa ematen duten jarduerak, pertsona erabilgarriak eta, beraz, “baliotsuak” direla ulertu ahal izateko;
  - inguruko baliabideen sarbidea errazteko zubi-jarduerak.
- Laguntzen duen pertsona, izan ere, errazteko tresna, euskarria eta oinarria da pertsonentzat, eta gainera, egoeren eta baliabideen arteko bitartekaria eta zubia da.
- Laguntza, izatez ere, taldean garatzen den prozesua da; horrek zentzua eta euskarria ematen dio prozesu osoari, eta egiten diren jarduketak guztiak koordinatzen ditu.

### C) ESKU-HARTZE ARDATZAK

CISetatik egindako esku-hartzea gizarte nahiz osasun eremuaren barruan sartu eta honako ardatz hauen inguruan dabil:

- Laguntza: hezkuntza mailako laguntza eta presentzia, eta hori apurka-apurka murriztu egiten da, pertsonen autonomia maila handiagoak lortzen dituztenean, garapen pertsonalak garatzen dituztenean, eskubideak lortzen dituztenean eta hiritartasun kontzeptuak dakartzan betebeharrak betetzen dituztenean.
- Malgutasuna: beharrezko erantzun jakinak ematen zaizkie, sartzeko prozesuak garatuz, batasunerako elementutzat jardunez eta baliabideak beharrezkoak diren nahiz eskarrietara egokituz.
- Zeharkakotasuna: sartzeko prozesuko etapa guztietan esku hartuz, eta errealitate horretan esku hartzen duten beste eragile batzuek garaturiko jarduketak biltzeko elementutzat jardunez.

### D) EZAUGARRIAK

Gaur egun, zentro horiek ezaugarri komun jakinak dituzte<sup>86</sup>:

- Esku-hartze programa zabalagoetan integratzen dira, adibidez, tailerretan edo bizilekuetan.
- Gizarte nahiz osasun sareko beste baliabide batzuekin (anbulatorioak, moduluak edo drogamenpekotasan zentroak) eta gizarte sareko baliabideekin (gizarte langileak edo epaitegiak) koordinazioan egiten dute euren esku-hartzea.
- Drogamenpekotasan arazorik ez duten eta bazterkeria egoeran dauden pertsonen profilak sartzeko joera.

<sup>86</sup> Bizkaiko Foru Aldundia. Aipaturiko lana. 21-22. or.

- Zentroak gizarte ekimeneko erakundeek kudeatzen dituzte, eta horiek erakunde publiko batzuen dirulaguntza jasotzen dute; ekarpenik handienak Eusko Jaurlaritzatik, foru aldundietatik eta udaletik iristen dira.
- Guztiak ere eremu komunitarioetan daude.
- Esku-hartzea profesional taldeek eta boluntarioek egiten dute.

Esperientziak erakutsitakoaren arabera, CISek **emaitza bikainak** eman dituzte, erreferentziako lekua eskaini baitute sarritan joaten diren pertsona guztientzat; hala eta guztiz ere, sarritan, egunez garaturiko lana ona izan arren, gaeuz ez dago beharrezko egonkortasunik eta babesik; izan ere, pertsona asko ostatu oso ezegonkorreko egoeran daude, eta aterpetxeetan, ostatueta edo kalean igarotzen dute gaua; horren ondorioz, prozesuak ez dira gauzatzen.

Eskakizun baxuko zentroek eskainitako zerbitzuen artean, erabiltzaileek gehien erabiltzen dituztenak higijene, garbiketa eta dutxa zerbitzuak dira, baita gizarte nahiz osasun zerbitzuak ere. Horri dagokionez, dutxa eta garbiketa zerbitzuak bazterkeria egoeran dagoen edozein pertsonarentzat irekita daude. Baliabide horiek jendez **gainezka** egoten dira, besteak beste, horiek erabiltzen dituzten pertsonen profilak etxerik gabe eta bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen profilekin bat ez datozelako. Bestalde, sarritan elikadura zerbitzuak ere eskaintzen dituzte (gosaria edo askaria) eta, batzuetan, zentroaren erabiltzaileak ez diren pertsonentzat irekita egoten dira.

Bestalde, pertsona kontsumitzaileentzako gizarte eta osasun laguntzako programarik gehien garatu duen Lurralde Historikoa Bizkaia da, eta horiek kalteak murrizteko politikaren barruan sartuta daude. Eskakizun baxuko dispositiboak dira eta, bertan, pertsonaren diagnostikoa eta erantzuna berehalakoak izaten dira.

Aipatu beharreko alderdi bat, izan ere, pertsona erabiltzaileek eguneko zentroen saretik duten mugikortasuna da; horrela, pertsona batzuk CIS desberdinetatik igarotzen dira denbora aldi laburrean, eta horrela, prozesuak etenda gelditzen dira. Egoera horren ondorioz, prozesuetan ezegonkortasun handia sortzen da eta, gainera, behin eta berriro hastearen sentazioa egoten da.

Kasu batzuetan, mugikortasun hori ezinbestekotzat hartzen da, zentroen erabiltzaileek eskakizun mailarik baxuenetan duten narriadura mailen eta ezaugarrien eraginez, eta prozesu bera baliabide berean luzaro egiteko zailtasunek ere eragina izaten dute horretan.

Ostatuko dispositiboekin eta gaueko zentroekin gertatzen den bezala, CISetara doazen pertsonen artean egoera irregularreko etorkinek presentzia handia dute. Halaber, drogamenpekotasunei eta patologia psikiatrikoei loturiko egoerak dituzten pertsonak ere badaude.

Arreta berezia merezi du gazte atzeritarraren profilak; ohiko zailtasunak dituzten gazteen babeserako zentrotik irten ondoren joaten dira eta, kontsultaturiko pertsonen arabera, intentsitate handiko biolentzia jarrerak eta, kasurik gehienetan, drogen erabilera arazotsuei loturiko jokabideak izaten dituzte.

Horri dagokionez, haurtzaroa babesteko eta laguntzeko sisteman kontraesana geratzen da; hain zuzen ere, Foru Administrazioak gazte horiei adin nagusikoak izan arte ematen dieten babesarekin erlazionaturik dago, une horretatik aurrera ez baitago profil guztietarako baliabiderik, eta, horrela, kasu batzuetan babesik gabe gelditzen dira. Hutsune handiak daude prozesuen prebentzioari, jarraipenari eta ebaluazioari loturiko alderdietan, eta, batik bat, emantzipatzeko edo gizarteratzeko diseinaturiko bideetan.

Bestalde, patologia bikoitza duten pertsonen profilak (hau da, buruko patologiarekin bat eta, gainera, kontsumo aktiboak dituzten pertsonak) gero eta presentzia handiagoa dauka gizarte bazterkeria larriko egoeren sarean.

## E) ZENTROAK ETA BALIABIDEAK: PLAZA KOPURUA

Hiru hiriburuetan, gutxi gorabehera, erabilera hobezineko 496 plaza eskaintzen dira (5.19 koadroa); horietatik %72 inguru eskakizun baxuko zentroetan eskaintzen dira. Zentro horietan arazo handiko eta narriadura fisiko nahiz psikiko nabariko pertsonak sartzen dira. Pertsona horiek oraindik ez dute tratamendurik hasi euren arazoak gainditzeko: alkoholismoa, toxikomaniak edo buruko gaixotasuna. Halaber, ez dute gizarteratze prozesurik ere hasi.

Hala eta guztiz ere, **CISen garapen** mailak lurralde historiko batetik besterako **desberdintasun nabariak** jartzen ditu agerian; horrela, eskaintako plaza guztien %74,2 Bizkaian daude, hain zuzen ere, Bilbon, eta bertan eguneko bederatzi zentro daude; Donostian hiru zentro daude eta Gasteizen bat. Hona hemen 5.19 koadroa.

5.19. KOADROA: GIZARTERATZE ZENTROETAKO PLAZAK, ESKAKIZUN MAILAREN ARABERA, LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. 2005

ESKAKIZUN MAILA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Baxua	30	100,0	228	62,0	98	100,0	356	71,8
Ertaina-altua	--	--	140	38,0	--	--	140	28,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>30</b>	<b>6,1</b>	<b>368</b>	<b>74,2</b>	<b>98</b>	<b>19,7</b>	<b>496</b>	<b>100,0</b>

ITURRIA: Geuk landuta, memorien azterketan eta erakundeei egindako kontsultetan oinarrituz.

CISek Bizkaian duten garapen handiago hori, izan ere, lurralde horretan toxikomaniarekin erlazionaturiko arazoaren gailentasun handiagoaren eraginezkoa izan daiteke; horren ondorioz, dirudienez, halako arazoei irtenbidea aurkitzeko elkartzemugimenduak sortu eta garatu dira.

CISek Bizkaian izandako garapen eta bilakaera handiagoaren eraginez, orain askoz ere handiagoak dira dispositibo horien bitartez emandako laguntzaren konplexutasuna eta bolumena, eta horrela, beharrezkoa izan da zentro horien barruko jarduketa irizpideak nahiz printzipioak arautzea, egituratzea eta bateratzea.

Esku-hartzea erregulatu behar izate hori, bestalde, **Praktika Onen Eskuliburuan** gauzatu da; hori **Bizkaiko Foru Aldundiak** egin du, halako programak sustatzen eta kudeatzen dituzten erakundeekin lankidetzan; gainera, Bilbo Handian diharduten gizarteratze zentroyen koordinaziorako mahaia ere sortu da.

Lehen esan dugunez, dispositibo horiek EAeko hiriburuetan pilatzeko joera dute, eta beste udallerri batzuetan presentzia txiki-txikia daukate. Horrela, EAeko hiriburuetatik kanpo, gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentro bakarra dago, Barakaldo udallerrian, eta hori Goiztiri elkarteak kudeatzen du.

Zentro hori laguntzako baliabide dinamikoak da eta laguntza integrala eskaintzen du, komunitateko baliabideekin koordinazioan; horren bidez, pertsonak ez dira euren ohiko ingurutik urruntzen. Bazterkeriako edo gizarte ahultasuneko egoeran dauden pertsonen bideraturik dago, eta bere helburua gizarteratze prozesu pertsonalak sustatzea da, pertsonen bizi kalitatea eta autonomia maila hobetzeko, bai maila fisikoan eta bai psikikoan nahiz sozialean. Alde batetik, harrera eta laguntza pertsonalizatuko lana egiten du, eta bestetik, informazio nahiz orientazio beharrianak betetzen dituzten zerbitzuak eta baliabideak eskaintzen ditu; halaber, baliabide normalizatuen sarera hurbiltzeko edo laguntzako egitura bereziagoetara bideratzeko lanak ere garatzen ditu. 30 pertsona eduki ditzake aldi berean, eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatzen du, hitzarmenaren formula erabiliz; gainera, Barakaldoko Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzak ere jasotzen ditu.

Kasu batzuetan, CISak egoera jakinetan laguntzeko espezializatzen dira, adibidez, toxikomanoak, espetxe inguruko pertsonak edo bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak, horiek era askotako arazoak eta beharrianak dituztenean. Horrela, EAeko eguneko zentroetan eskainitako **plaza** kopuru osoaren %22,8 toxikomania duten pertsonentzat erreserbatuak daude, %3 presoentzat edo preso izandakoentzat erreserbatuak daude eta gainerako %74,2 era askotako bazterkeria egoeran dauden pertsonen erreserbatzen zaizkie (arazo eta beharrian ugariako pertsonak). Hona hemen 5.20 koadroa.

**5.20. KOADROA: GIZARATERATZE ZENTROETAKO PLAZAK LAGUNDUTAKO PROFILAREN ARABERA, LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEAN. 2005**

	ARABA		BIZKAIA <sup>(1)</sup>		GIPUZKOA		EAE	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Toxikomania	--	--	83	22,6	30	30,6	113	22,8
Espetxea	--	--	15	4,0	--	--	15	3,0
EGP	30	100,0	270	73,4	68	69,4	368	74,2
<b>GUZTIRA<sup>(2)</sup></b>	<b>30</b>	<b>6,0</b>	<b>368</b>	<b>74,2</b>	<b>98</b>	<b>19,8</b>	<b>496</b>	<b>100,0</b>

(1) Bilboko CISak ez ezik, Goiztirik Barakaldon kudeaturiko eguneko zentroko plazak ere sartu ditugu.

(2) Ehuneko horiek horizontalak dira, hau da, EAeko plaza guztietan oinarrituz kalkulatuak dira.

ITURRIA: Geuk landuta, memorien azterketan eta erakundeetako egindako kontsultetan oinarrituz.

Orokorrean, zentroyen okupazio indizea eskainitako plaza kopurua baino askoz ere handiagoa izaten da, eta eguneko une batzuetan okupazioak ito egiten du zerbitzua. Erakundeek diotenez, beharrezkoa da CISetako plaza kopurua handitzea; hala eta

guztiz ere, eskakizun maila eta profil guztietako plaza kopurua handitu egin behar dela esaten den arren, lurralde historiko bakoitzean babesik gutxien duten beharrianetara bideratzen da laguntza.

Arabian, lan talde egonkorak esan duenez, eskakizun ertaineko eta altuko eguneko eremuen urritasuna dago, eta horiek gizarteratze prozesuak hasi dituzten pertsonen beharrianetara egokiturik egon behar dira eta trantsiziorako eremua eskaini behar dute.

Bizkaiko lan taldearen kasuan, eskakizun baxuko eguneko zentroetako plaza kopurua handitu beharra aipatu da, narriadura maila larria duten pertsonen babes emateko.

Gipuzkoan, aldiz, kontsultaturiko pertsonen kezka handiagoa erakutsi dute beharrian berezien laguntzarako eguneko zentro gutxi dagoelako (adibidez, kontsumo aktiboak dituzten pertsona toxikomanoentzako zentroak); izan ere, Izan Fundazioko (Proyecto Hombre) Uli-Enea eguneko zentroa baliabide bakarra da talde horren oinarritzko beharrianak betetzeko eta kalteak murrizteko.

## F) FINANTZIAZIOA

CISak Herri Administrazioaren fondoekin elikatzen dira: Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak. Erakunde pribatuak ere dirulaguntzak ematen dituzte. Horri dagokionez, plaza horiek hitzartzeko joera ikusi da, plazak finantzatzen dituen erakundea foru aldundietarikoren bat denean; hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiak parte hartzen du, hitzarmenaren formula erabiliz, eguneko sei zentroren finantziazioan, eta gainera, beste bi zentrorako dirulaguntza ematen du; horrela, parte hartzen du lurraldeko CISetako plaza guztien %76,1 en finantziazioan<sup>87</sup>. Bestalde, aipagarria da Bilboko Udalak hirian dauden halako dispositiboen finantziazioan duen partaidetza: udalerrri horretan dauden CISetako plazen %74,9 inguru finantzatzen ditu, batik bat dirulaguntzen bidez, Eusko Jaurlaritzarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin lankidetzan.

Gipuzkoako egoerak ez dauka zerikusirik Bizkaikoarekin. Kasu honetan, CISak Eusko Jaurlaritzako nahiz Gipuzkoako Foru Aldundiko dirulaguntzekin eta bertako fondoekin finantzatzen dira. Horri dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Lurraldeko 98 plazetako 50en finantziazioan hartzen du parte.

Azkenik, Gasteizen dagoen halako dispositibo bakarra Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin hitzarturik dago.

### 5.2.3.3. GIZARTE ETA OSASUN ZERBITZUAK

Zerbitzu horiek garrantzi handia hartzen dute etxerik gabeko pertsonen ematen zaien laguntzari buruz mintzatzen garenean; izan ere, gehienetan, horiek osasun fisikoari

---

<sup>87</sup> Honako erakunde hauek hitzarmena dute BFArekin: Goiztiri, ADSIS, Agjantza, Damas Apostólicas, Bizitegi, Zubietxe eta Izangai.

nahiz buruko osasunari loturiko gabeziak dituzte eta osasun inplikazioa beharrezkoa izaten da.

Horri dagokionez, zenbait autorek esan dutenez<sup>88</sup>, osasun fisikoari loturiko arazoak “etxegabetasun” egoerarekin erlazionaturik egon daitezke, behintzat hiru modu osagarritan:

- Etxerik gabeko pertsonak bizitzeko dituzten ohiturek eta moduek kalte egiten diote osasunari, dieta akastunaren, jokabide arriskutsuen (adibidez, gehiegi edatea eta erretzea), atsedena postura nahiz leku ezegokietan hartzearen, higiene akastuna izatearen eta gorabehera meteorologikoen nahiz kutsaduraren menpe egotearen ondorioz.
- Etxerik gabeko pertsonak euren bizitzan jasandako estres maila handiek, etxerik gabe gelditzearen gertaera traumatikoak, gizarte laguntzarik ez edukitzeak eta bakardadeak sustatu egin ditzakete faktore horiek guztiak.
- Gainera, etxerik ez duten pertsonak, baita osasun laguntza unibertsala eta doakoa duten herrietan ere, zailtasun handiagoak dituzte osasun sistemetan sartzeko, zenbait zergatiren eraginez:
  - Gaixotasunaren beraren eraginez, batzuetan pertsonak ez du laguntza eskatzeko gaitasunik izaten (buruko gaixotasun kronikoak, mendekotasunak, etab.).
  - Pobrezia egoera. Ikerketa batzuek diotenez, baliabide ekonomiko gutxien dutenek nekezago eskuratzen dituzte osasun zerbitzuak.
  - Osasun zerbitzuen sistema, zerbitzuok eskuratzeko baldintzak eta antolaketa.

Agerikoa da pertsona horien laguntzarako baliabideak kudeatzen dituzten erakundeek badakitela etxerik gabeko pertsonak osasun arazoak izaten dituztela; izan ere, eskaintako baliabideen sare osoan osasun zerbitzuak sartu dira zeharka; horiek, berriz, osasuneko nahiz erizaintzako zerbitzuak eta osasun baliabideen sarera hurbiltzeko zerbitzuak izan daitezke, baita ohitura osasungarrien hezkuntzara orientaturiko tailerrak ere.

Baliabide horietariko gehienek erizaintzako edo oinarrizko osasun laguntzako zerbitzua dute, sendaketak edo hasierako osasun diagnostikoa egin ahal izateko, eta horrela, pertsonak osasun laguntza espezializatuagoa behar ote duen jakiteko. Gainera, laguntzako baliabideek eta dispositiboek etxerik gabeko pertsonak modu sistematikoan bideratzen dituzte gizarte osoak erabiltzen dituen osasun baliabideen sarera: modulu psiko-sozialak, osasun zerbitzu orokorrak eta buruko osasun zerbitzuak.

Bestalde, erakunde eta elkarte batzuek, profil batzuetara orientaturik daudenez, euren esku-hartzean neurri handiagoan garatzen dituzte halako zerbitzuak. Horixe gertatzen da toxikomanoei edo prostitutei bideraturiko programen eta dispositiboen kasuan, talde horiek osasun fisikoan arriskuan jartzen duten faktore batzuen eraginpean baitaude.

<sup>88</sup> M. Muñoz, C. Vázquez, J.J. Vázquez. *Los límites de la exclusión: Estudio sobre los factores económicos, psicosociales y de salud que afectan a las personas "sin hogar" en Madrid*. *Témpora* edizioak. Madril 2003. 343-344. orr.

Horri dagokionez, aipagarriak dira aktiboan dauden pertsona toxikomanoen laguntzarako baliabideak, esate baterako, Bilboko Hontza zentroa, edo HIESa fase aurreratuan duten pertsonen laguntzarako dispositiboak, adibidez, Gasteizko Besarkada Etxea. Bi baliabide horiek osasun eta gizarte izaera nabaria dute.

Hala eta guztiz ere, gizarte eta osasun zentro bakarra, hori zentzu zorrotzean hartuta, alegia, hasiera-hasieratik finantziazio mistoa duen zentrotzat hartuta, Donostian dagoen Gurutze Gorriko antzinako ospitalea da, eta hori ez dago osasun sarearen barruan. Zentro horretan gaixoaren osasun beharrianak (batik bat, erizaintzari dagokionez) eta egoitza estaldura konbinatzen dira. Dispositibo hori Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskadiko osasun sistema publikoak osaturiko batzorde mistoak kudeatzen du. Zentroak 80 plaza ditu, eta gizarte edo familia babesik ez duten pertsona gaixoei orientaturik dago.

EAEko beste ospitale batzuetan<sup>89</sup>, laguntza eskaintzen zaie familia babesik ez duten pertsonen. Etxerik ez edukitzea ez da irizpide erabakigarria edo bereizgarria, halako zentroak erabiltzeko, eta aztertu beharreko beste faktore bat baino ez da. Nolanahi ere, kasu bakoitza Balorazioko Gizarte eta Osasun Batzorde batean aztertzen da; hori hilerok biltzen da eta egoera horretan dagoen gaixo bakoitzerako baliabiderik egokiena erabakitzen du.

Bestalde, diagnostikatu eta tratatu gabeko buruko gaixoaren gailentasun handia ikusten da, halako baliabideak erabiltzen dituzten pertsonen artean. Konpentsazio psikiatrikorik ez dutenez, halako pertsonekin ezin daiteke gizarte esku-hartzerik planteatu.

Gaur egun, lagundutako pertsonaren koadro psikiatrikoaren arabera, bi soluzio planteatzen dira: gizarte egoitza batera bideratzea edo zentro psikiatriko batean sartzea. Hala eta guztiz ere, ez dago lekurik gabezia anitzak eta ugariak dituzten pertsonentzat. Horrela, esate baterako, ez dago lekurik buruko gabezia, substantzien kontsumo altua eta delitu-jokabideak dituen pertsona baten beharrianak betetzeko.

Buruko patologia batzuei babesa eskaintzeko egoitzarik ez egotea da buruko osasunaren arloko zailtasun nagusienetarikoa, eta beraz, gizarte eremuko zailtasun nagusienetarikoa ere bada; izan ere, pertsona horietariko asko etxerik gabeko eta gizarte bazterkeria larriko pertsona bihurtuta gera daitezke, gizarte dinamikekiko duten ahultasun handiaren ondorioz.

#### *5.2.3.4. HURBILTASUNIK HANDIENAKO ZERBITZUAK*

Zerbitzu horiek eskaritik hurbilen dauden mailetan kokatzen dira, hau da, larrialdiko egoerei babesa eman eta ohiko dispositiboetatik baliabide sarean sartu ezin diren pertsonak aurkitzeko erabiltzen dira.

Dispositibo horien ulermena errazteko, hiru gai-bloketan bildu ditugu: inguru irekiko esku-hartzea, gizarte larrialdiko zerbitzuak eta harrera programak.

---

<sup>89</sup> Esate baterako: Gasteizko Leza ospitalea, Gorkizko ospitalea eta Santa Marina ospitalea (Bizkaia) eta Donostiako Amara ospitalea.

#### 5.2.3.4.1. INGURU IREKIKO ESKU-HARTZEA

Inguru irekiko esku-hartzea, edo kaleko taldeen lana, oinarrizko zerbitzua da etxerik gabe dauden eta gizarte laguntzarako baliabide sarean sartu ezin diren pertsonekin kontaktuan jartzeko. Horri dagokionez, kaleko lana garrantzi handikoa da halako egoerak aurkitzeko; hala ere, oraingoz, alderdi hori lantzen duten erakundeak eta profesionalak gutxi dira.

Kaleko taldeen esku-hartzeak “pertonetatik abiatuz” egin nahi du lana, euren ahalmenetan oinarrituta; gero, horien gabeziak gainditzeko moduan aurrerapausoak eman nahi dira. Izan ere, agerian gelditu da bazterkeria larrian dauden pertsona batzuek gizarte eta osasun baliabide jakinak erabiltzeko aukera dutela, baina sarritan ez dituzte halako baliabideak eskuratzen, bai horretarako zailtasunak dituztelako, bai trebetasun pertsonalik ez dutelako edo bai sistema nahiz baliabideak euren beharrianetara edota ezaugarrietara egokiturik ez daudelako.

#### A) HELBURUAK ETA ZERBITZUAK

Halako programak kaltea murriztearen eta arriskuen prebentzioaren filosofian sartzen dira, baita oinarrizko beharrianak betetzearen inguruko filosofian ere. Esku-hartze honetan, batik bat, hiru ikuspegi edo **helburu** bereizten dira<sup>90</sup>:

- Kaleko hezkuntza: inguru irekian garaturiko jardueren helburu nagusia oinarrizko gizarte nahiz hezkuntza esku-hartzea denean, aldaketa prozesu bati atea irekitzeko.
- Detekzioa eta deribazioa: talde horien eginkizun nagusia etxerik gabe dauden pertsonak aurkitzea eta euren beharrianetarako egokienak diren baliabideetara bideratzea denean.
- Oinarrizko beharrianak betetzea: gizarte eta hezkuntza esku-hartzea baztertu barik, esku-hartzeak oinarrizko zerbitzuak eskaintzera bideraturik daudenean, esate baterako, elikadura, material higienikoa edo etxerik gabeko pertsonen diotena kalean bertan entzutea.

Gehienetan, halako esku-hartzeak buruko osasun arazoak dituzten pertsonekin egiten dira, baita kontsumo aktiboak dituzten pertsonekin eta kaleko prostituzioan dabilzan pertsonekin ere (batez ere, emakumeak). Bestalde, esku-hartze hori prebentzio programetan ere tresnatzat erabiltzen da, eta halako programak, berriz, gizarte bazterkeria jasateko arriskua duten gazteei bideraturik daude.

Esku-hartze horien bidez, oinarrizko **zerbitzu** hauek eskaintzen dira:

- janarien nahiz material higienikoaren banaketa, adibidez, preserbatiboak edo xiringak;

<sup>90</sup> SIIS dokumentazio eta ikerketa zentroa. Etxerik gabeko pertsonentzako zerbitzuak eta zentroak. Donostia. 2004ko uztaila. 23. or.



- oinarrizko osasun sorospenak edo zaintzak eta hezkuntza jarduerak;
- administrazio tramiteen kudeaketarako laguntza;
- beharrianen hasierako diagnostikoa eta deribazioa;
- informazioa, orientazioa eta aholkularitza;
- kasuen jarraipena.

Esku-hartze hauetan ez da aurrekontu mailako inbertsio handirik behar; euren arrakasta, berriz, profesional taldeak pertsonekin konfiantza erlazioa sortzeko duen gaitasunaren araberakoa da. Beste alde batetik, taldea diziplina anitzekoa da eta hori funtsezko elementua da esku-hartzea egituratzeko orduan, era askotako beharrian eta egoera anitzei eskaini behar izaten baitzaie laguntza.

Sarritan, talde horiek era askotako beharrianak betetzen dituzten dispositiboetan edo zentroetan integraturik daude, esate baterako, gizarteratze zentroetan edo gizarte larrialdiko zerbitzuetan.

## B) ESKU-HARTZE ERAKUNDEAK ETA TALDEAK

**Gasteizko** Udalak, 2002tik hona, kaleko taldea dauka etxerik gabeko pertsonen laguntza eskaintzeko. Programa horren helburu nagusia etxerik gabeko pertsonak bertara hurbiltzea da, gizarte eta osasun zerbitzuen erabilera zuzena lortzeko eta horiek errazago eskuratzeko; izan ere, laguntzako dispositiboen eta pertsonen arteko “zubi-baliabidea” da.

Esku-hartze nagusienetariko bat, bestalde, beharrian jakinak betetzeko baliabideei eta prestazioei buruzko informazio zerbitzuarekin egiten da. Pertsona gizarte baliabideen sarean sartu ondoren, orientazio, informazio eta laguntza zerbitzua ematen da, ohi-turak hobetzeko. Halaber, diagnostikoa egiten da pertsona hori bere beharrianetara ondoen egokitzen den baliabidera bidaltzeko.

Gizarterako izeneko elkarteak informazioa, orientazioa eta aholkularitza eskaintzen die prostitutei, prostituituei<sup>91</sup> edota prostituta izandakoei, herritartzat eskuratu ahal dituzten gizarte zerbitzuei eta prestazioei buruz; gainera, kaleko laguntza zerbitzua dauka, eta horren barruan, errepideko klubetarako bisitaldiak egiten dira, emakume horiei elkarteak egiten dituen ekintzen berri emateko. Programa hori boluntarioek osatzen dute oso-osorik.

**Bilboko** Udalak inguru irekian esku hartzeko zerbitzua dauka eta hori Bizitegi elkarteak kudeatzen du; bertan, kaleko laguntza egiten da hirian, hezitzaile baten lankidetzarekin.

Hiesaren aurkako Batzordeak ere halako esku-hartzeak egiten ditu, xiringak trukatzeko programaren eta prostituzio programaren barruan; hori San Frantziskon garatzen da eta, bertan, gizarte bazterkeria larriko pertsonen hartzen dute parte.

---

<sup>91</sup> Prostituituak: Prostituzioan gogoz kontra dabiltzan emakumeak, era guztietako indarkeriaren edo xan-taiaren menpe daudenak.

Erakunde horrek kaleko esku-hartzea garatzen du, “Osasunaren Eragilea” deritzon pertsonaren bitartez. Eragile horiek, izatez ere, erakundeko dispositiboetarikoren baten erabiltzaileak dira, eta buruzagitzak eta erakarpen gaitasuna erakutsi dute. Euren lana inguru irekian garatzeko, hoguei ordu inguruko heziketa jasotzen dute, gizarte nahiz osasun baliabideei eta taldeko dinamikei buruz.

Esku-hartze taldeak, beste alde batetik, osasunaren eragileek eta erakundeko profesionalak osatzen dituzte, eta horiek laguntza lana egiten dute pertsona horiek egindako esku-hartzean. Euren eginkizunak, batik bat, informazioari, xiringak trukatzeari eta preserbatiboak banatzeari lotuta daude. Zerbitzuak toxikomano aktiboek eta prostituzioan dabilzanean zuzenduta daude, betiere esku-hartzea garatzeko zonaren barruan. Horri dagokionez, lana norabide bikoitzean egiten da: alde batetik, osasunaren eragilean buruzagitzak eta autoestimua trebetasunak indartzen dira, talde lana sustatuz, eta bestetik, informazio nahiz lotura lana egiten da, gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonekin.

Agiantza elkarteak unitate ibiltaria dauka, kalean bizi diren etxerik gabeko pertsonen zuzenduta; horiek, kasu askotan, ez dute baliabiderik edo borondaterik ostatu dispositiboak eskuratzeko ezinbestekoak diren pausoak emateko. Egokituriko furgoneta baten bidez egiten da, eta bertan, etxerik gabeko pertsonen iritzia entzuten da; horrela, beharizanak detektatu eta horiek betetzeko ahalegina egiten da, eta halakoak dituzten pertsonak laguntzako beste baliabide mota batera bideratzen dira. Halaber, beste gauza batzuk ere egiten dira, esate baterako, xiringak trukatu, preserbatiboak banatu, eta kafea, gailetak edo irabiaki energetikoak banatu.

Bilbon eta Gasteizen, kaleko esku-hartze hori udaletik osatzen da, gizarte larrialdiko udal zerbitzuek egindako lanarekin, eta horretarako jarduketara prozeduran larrialdiko zerbitzuak eta Udaltzaingoa erabiltzen dira.

**Donostian**, Arrats elkarteak kaleko lana egiten du egunero; hain zuzen ere, preso izandako pertsonak aurkitzen ditu, baldintzapeko askatasunean, epaiketaren zain edo gizarteratze prozesuan dauden pertsonak, eta baliabideei buruzko informazioa ematen die; gainera, laguntza lanak ere egiten ditu, kudeaketa eta tramite judizialetan, eta gizarteratzeko bidean orientazioa ematen die.

Rais elkarteak ere kaleko lana egiten du Donostian eta Donostialdean, profesional talde baten laguntzarekin. Helburua, izan ere, halako pertsonak aurkitzea eta euren oinarriko beharizanen laguntzarako dauden baliabideak eta dispositiboak eskaintzea da; bestalde, beharrezko konfiantza eta segurtasun baldintzak sortzen dira, aldaketa prozesuen hasierari “eragiteko palanka” izateko.

#### 5.2.3.4.2. GIZARTE LARRIALDIKO ZERBITZUA

##### A) EZAUGARRIAK

Gizarte larrialdiko zerbitzuak, sortu ere, gertaera “bereziren” baten eraginezko beharizanak betetzeko sortu dira, eta halako gertaerak berehalako esku-hartzea behar izaten

dute; izan ere, esku hartu ezean, egoera narriatu egiten da eta, horrela, inplikaturiko pertsonak kalteak jasaten dituzte.

Zerbitzu horren ezaugarri nagusia **eguneroko 24 orduko** funtzionamendua izatea da, **urteko egun guztietan**; zerbitzuok, batik bat, biztanle guztien gizarte laguntzako eta ostatuko beharrianak betetzeko sortu dira, gainerako dispositiboak edo baliabideak itxita daudenean edo eraginkorrak ez direnean.

Orokorrean, baliabide mistoak dira, eta laguntzako bi maila bereizten dira:

- Oinarrizko laguntza banakako eta familiako gizarte larrialdiko beharrianetarako.
- Laguntza berezia gizarte bazterkeriako egoeran dauden taldeentzat.

EAEen zerbitzu hori, arreta bereziko mailan, udal oinarriko zerbitzua da eta etxerik gabeko pertsonetik esku-hartzea egituratzen du; gainera, etxerik gabeko pertsonen emandako zerbitzuen multzoaren atea irekitzen du. Halaber, gizarte larrialdiko udal zerbitzuek beste ezaugarri batzuk ere badituzte:

- Gizarte beharrianak aurkitzea eta gizarte diagnostiko aurreratua egitea.
- Beharrian egoerak konpontzeko erabilgarritasuna edukitzea; horretarako, gizarte esku-hartzea berehalakoa izaten da eta, gero, pertsonak gizarte zerbitzu konbentzionalen sarera bideratzen dira.

Zerbitzuok kaleko esku-hartze taldeekin, larrialdiko zerbitzuekin eta Udaltzaingoarekin lankidetzan jarduten dute. Zerbitzu horiek, batik bat, eguneko 24 orduetan martxan dabilen telefono zenbakiaren bitartez eskuratzen dira.

Gehienetan, etxerik gabeko pertsonen laguntzarako udal baliabideetariko baten instalazioetan kokaturik egoten dira, eta horrek aditzera ematen du zerbitzuek egindako lana estu lotuta dagoela hemen aztertzen ari garen egoerarekin. Gainera, gizarte behatokiak eta gizarte beharrian berrien edo zaharren prebentzioko dispositiboak ere izaten dira.

Beharrian larriko egoeran dauden biztanle guztiei zuzendutako zerbitzuak direla esaten den arren, zerbitzu honen **pertsona jasotzaileen** lau talde edo profil identifikatzen dira:

- Ostaturik gabeko pertsonak, euren ohiko etxebizitza erabili ezin denean, hondamenen edo istripuen ondorioz, pertsona horiek familia baliabiderik ez dutenean edo erabili nahi ez dutenean.
- Familia gatazka larrien ondorioz ostaturik gabe gelditu diren pertsona gazteak.
- Bikotearen tratu txarrak jasan dituzten emakumeak, familia baliabiderik ez dutenean edo erabili nahi ez dutenean, kokapen konfidentzialeko ostaturik behar dutenean.
- Etxerik gabeko pertsonak eta udalerritik igarotzean ostaturik eskatzen duten oinezkoak, edo gaua kalean igarotzen ari direnak.

## B) GIZARTE LARRIALDIKO ZERBITZUAK LURRALDEKA

**Arabán,** Gasteizko Gizarte Larrialdiko Udál Zerbitzua Gizarteratze Zerbitzura atxikita dago, baina foru finantziarioa dauka; sei gizarte langileren taldea eta koordinatzaile bat dauka. 2004an 3.484 pertsonari eskaini zitzairen laguntza eta horien %73 oinezkoak ziren. Eguneroko esku-hartze kopurua 48tik gorakoa da eta zerbitzu horrek urrian egin zuen jarduketa kopururik handiena.

Oinarrizko laguntza mailan, Arabako Lurralde Historikoan gertatzen diren beharizan egoerei ematen zaie laguntza; zerbitzuaren funtzioen artean, gainera, herritarrek egingdako informazio eskariei erantzuna ematea dago. Laguntza espezifikokoaren mailan, honako funtzio hauek dira aipagarriak:

- Gasteizera doazen oinezkoei harrera egitea eta bertako baliabideak eskaintzea.
- Oinezkotzat harturiko pertsoneri gizarte laguntza ematea, horiek hirian lana aurkitzen badute.
- Pertsonen enplegua bilatzeko, ezarkuntzarako eta normalizaziorako bidea izatea, eremu psiko-fisiko batean.
- Hirian “borondatezko” deserrotzeari loturiko arazoren bat duten pertsoneri gizarte laguntza eskaintzea.
- Etxerik gabeko pertsoneri gizarte laguntza ematea.

**Bizkaian,** Bilboko Gizarte Larrialdiko Udál Zerbitzua Elejabarriko aterpetxean dago eta Etxerik Gabekoen Programa dauka; udal titularitateko bi bizileku ditu eta partekaturiko bizilekuetan nahiz ostatueta dauden etxerik gabeko pertsonen prozesuak kudeatzen ditu. Gainera, harrera zentroko egonaldi laburrean sartzeko atea da.

Laguntza espezifikokoaren mailan, jarduketa prozedura dauka 112 zenbakiarekin; zerbitzuak Larrialdi Zerbitzuko telefono horretatik egingdako deiak jasotzen ditu; halaber, kalean lo egiten ari diren eta gizarte esku-hartzea behar duten pertsonak egoteari buruzko informazioa ematen du. Ikerketa azkarra egin ondoren (oinarrizko informazioa jasotzeko), bertaratu eta egoeraren hasierako balorazioa egiten dute; gero, pertsonak oinarrizko beharizanetarako laguntza eta ostatua onartzen badu, bere beharizanetara ondoen egokitzen den baliabidera bideratzen da.

Bi zerbitzu horiek kasuan kasuko udal erakundeen menpe daude zuzenean, eta euren kudeaketa, berriz, sektoreko enpresekin egingdako zerbitzu kontratu pribatuaren bitartez egiten da.

Larrialdiko harreran eskumenak dituzten gainerako udalerrietan ez dago gizarte larrialdiko udal zerbitzurik. Kasu batzuetan, aukerako programak garatu dira, oinarrizko laguntzako udal zerbitzuen laguntza-orduetatik kanpoko gizarte eskariei erantzuna emateko, edo Udaltzaingoarekiko jarduketa protokoloak ezarri dira. Horien artean, gizarte larrialdietan laguntzeko lehenengo formula garatu duen udalerritariko bat Bizkaiko Portugalete da, eta horrek larrialdiko egoeretakoa gizarte laguntzako zerbitzua dauka; zerbitzu horren funtzioak honako hauek dira:

- Udalerrian larrialdiko zerbitzuen eskariei erantzuna ematea telefonoz, larrialdiko ostatu beharrianei dagokienez.
- Beharriana baloratzea, jasotako informazioan oinarrituz, eta baliabiderik egokiena aukeratzea.
- Ostatu plaza aurkitzea eta horren okupazioa hitzartzea, baliabidea behar duten pertsonak erabiltzeko.
- Lagundutako pertsonaren hitzordua hitzartzea, ohiko ordutegian, udalerriko gizarte zerbitzuekin, larrialdikoak ez ezik bestelako beharriak betetzeko beste gizarte zerbitzu batzuk ere eskaini ahal izateko.
- Kasuaren konplexutasunaren edo baliabiderik egokiena ezartzeko zailtasunaren eraginez beharrezkoa denean, gizarte langilea bere zerbitzuak eskatu dituen larrialdiko zerbitzuari laguntzera joango da.
- Egindako jarduketak erregistratzea, lagundutako pertsonaren espedientea hastea eta esleituriko erreferentziako gizarte langileari kasuari buruzko informazio guztia ematea.

Prozedura honen bitartez, Udaltzaingoak edo udalerriko larrialdiko osasun zerbitzuek ostaturik gabeko pertsonaren bat aurkitzen dutenean, telefonoz deitzen diote zaintzan dagoen gizarte langileari. Gizarte langileak egoera baloratu eta bere presentzia beharrezkoa den ala ez erabakitzen du. Nolanahi ere, ostatuko plazaren bat aurkitu eta ostaturik gabeko pertsonari laguntzen ari den zerbitzuari jakinarazten dio, pertsona hori bertara eramateko. Ondoren, gizarte langileak pertsona interesatuari hitzordua ematen dio, udalerriko gizarte zerbitzuetara ohiko ordutegian joateko.

Larrialdiko harreraren eskumenak dituzten udalerrietako Udaltzaingoaren jarduketa protokoloak dagokienez, akordioak egiten dira eta, horien bidez, Udaltzaingoak EAEko hiribururen batean dauden baliabideei buruzko informazioa ematen du; gainera, pertsona interesatuari horietarikoren batera joateko gonbita egiten dio.

**Gipuzkoako** hiriburuan ez dago udal titularitateko halako zerbitzurik, eta, horri dagokionez, EAEko Lurralde Historiko bakarra da. Hala eta guztiz ere, 2005eko ekainetik Gizarte Larrialdiko Foru Zerbitzua jarri da martxan; larrialdiko egoera berezietarako, indibidualetarako, familiarretarako edo sozialetarako baliabidea da, eta udalerriko gizarte zerbitzuen laguntza ordutegitik kanpo eskaintzen da.

Bizkaian eta Araban ez bezala, gizarte larrialdiko zerbitzua foru arlokoa da eta Lurralde Historiko osoan dagoen eskariari erantzuten dio. Beste ezaugarri bereizgarri bat ere badu; hain zuzen ere, gizarte larrialdiko foru zerbitzuek diziplina anitzeko taldea dute eta, bertan, sektoreko profesionalak ez ezik, psikologian eta kriminologian aditua den taldea ere badago.

Gizarte Larrialdiko Foru Zerbitzua erakunde pribatu batek kudeatzen du; zerbitzu horren helburua, izan ere, ezusteko gertaera baten eraginezko gizarte babesik ezari loturiko egoeretan laguntzea da, baita zergati naturalen edo artifizialen ondoriozko ezusteko gertaera baten eraginezko egoeretan laguntza ematea ere. Larrialdiko kasuen artean honako hauek sartzen dira:

- edozein pertsonari egindako eraso edo emandako tratu txarrak;

- familia laguntzarik edo baliabiderik ez duten pertsonak bertan behera uztea;
- salbuespenezko eta larrialdiko egoeraren ondoriozko ostatu arazoak;
- osasun arazoei lotutako gizarte babesik ezarekin erlazionaturiko egoerak;
- gizarte eta familia babesik ezari loturiko egoerak, lehenago beste larrialdi zerbitzu batzuek lagundutakoak eta berehalako gizarte erantzuna behar dutenak.

Zerbitzua oraintsu sortu denez, oraindik ez dago daturik gizarte larrialdien laguntzan duen benetako eragina jakin ahal izateko.

Gizarte Larrialdiko Foru Zerbitzuaren eginkizunen artean, honako hauek aipa daitezke:

- Pertsonaren diagnostikoa eta berehalako orientazioa egitea.
- Laguntza iraunkorra, bidezko baliabidera bideratzeko prozesuan.
- Baliabide publiko eta pribatu erabilgarriei buruzko informazioa ematea.
- Laguntzan esku hartu duten profesionalek txosten teknikoak egitea, esku hartu duten administrazioei.
- Laguntza sarea ofizialak ez diren beste hizkuntza batzuetan ere jakinarazteko eta horri buruzko informazioa emateko erraztasunak eskaintzea.
- Generoko biolentziaren edo sexu-delituen kasuan, pertsonari lekuan bertan laguntzea, baita ondorengo lekualdatzeetan ere, laguntzako tramiteetarako.
- Gizarte eskari edo beharrian berrien behatokia izatea.

#### 5.2.3.4.3. HARRERA PROGRAMAK

**Oinarrizko gizarte zerbitzuek** laguntzako oinarrizko sarea osatzen dute; gizarte dispositiboen eta prestazioen sarean sartzeko atea osatzen dute, eta gainera, hasierako harrera prozesua egiten duen sistema publikoa eratu dute. Biztanle guztiei zuzenduta daude, bai maila indibidualean eta bai taldekoan, eta laguntza integrala eskaintzen dute.

Horri dagokionez, dispositiboa zabala da: oinarrizko 210 unitate<sup>92</sup> daude, ondoren adierazitakoaren arabera banatuta:

- Arabak oinarrizko 55 unitate ditu eta horietariko 11 Gasteizen daude;
- Bizkaiak oinarrizko gizarte zerbitzuen 79 zentro ditu eta horietatik 11 Bilbon daude;
- Gipuzkoak 76 zentro ditu eta horietatik 8 Donostian daude.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen helburu nagusia herritar guztien ongizatea lortzen laguntzea da; horretarako, era guztietako baliabideak eta zerbitzuak eskaintzen dituzte, bai udal zerbitzuak eta bai beste erakunde edo sektore batzuek eskainitakoak.

Etxerik gabeko pertsonen laguntzan, **lurralde historikoen arteko desberdintasun nagusia** honako hau da: Bizkaiaren eta Gipuzkoaren kasuan, oinarrizko zerbitzuetan

<sup>92</sup> Arartekoa: Oinarrizko gizarte-zerbitzuen egoera EAEn, Gasteiz, 1999, 70. or.

ez da oinarrizko unitateen bitartez soilik sartzen, eta laguntza sareko edozein dispositiboren bidez ere sartzen da, esate baterako, erakunde pribatu batzuek garaturiko harrerera programen bidez, eta horrela, laguntza behar duen pertsonak bere beharizanen araberako baliabideak eta zerbitzuak eskuratzen ditu. Araban, aldiz, gizarte zerbitzuek zentralizatu egiten dute baliabide guztietarako sarbidea, eta leihatila bakarraren antzeko funtzionamendua dute.

Orokorrean, garatzen dituzten **funtzioak** antzekoak dira; honako hauek direla esan daiteke, laburbilduta:

- baliabide erabilgarriei buruzko informazioa ematea;
- eskariak aurkitzea eta esku-hartze programak garatzea;
- diagnostikoak egitea eta pertsonak gizarte arloko nahiz beste erakunde batzuetako zerbitzu espezializatuetera bideratzea;
- laguntzen tramitazioak kudeatzea.

Lehen esan dugunez, harrerako programarik gehienak eskaintza publikoaren barruan daude, baina ekimen pribatuak ere parte hartzen du, eta horrela sistema paraleloak sortu dira. Horri dagokionez, estaldura maila kontuan hartuta, aipagarria da Cárítasek garaturiko Harrera Programa; horrek 13 laguntza gune ditu Araban, 97 Bizkaian eta 147 Gipuzkoan. Harrera taldeen sareak informazioa, laguntza, dirulaguntzak eta orientazioa eskaintzen dizkie, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen, horiek laguntza behar baitute gizarteratze eta laneratze prozesuak hasteko.

Harrera zentroek oinarrizko beharizanak betetzen dituzte, hau da, ostatua, janaria eta jantziak, eta gero, jarduketa zabaldu egiten da beste beharizan batzuk bermatu arte, gizarte izaera handiagoko beharizanak, pertsonen gizarteratze prozesuak hasi ahal izateko. Programa horren funtzionamenduari dagokionez, lehenengo eta behin, pertsonaren diagnostikoa egiten da, horren beharizanik handienak jakiteko, eta gero, pertsonak erakundeko edo beste erakunde batzuetako programetara bideratzen dira; halaber, bidezko tramite guztiak kudeatzen dira, pertsonak osasun laguntzako sarean sartzeko eta bidezko prestazio guztiak eskuratu ahal izateko.

Horri dagokionez, Cárítasen harrera sarea laguntza handia da, gero eta handiago den eta oinarrizko gizarte zerbitzuek bete ezin duten eskariari aurre egiteko. Hala eta guztiz ere, erakunde horren dispositiboak ere txiki gelditu dira, oinarrizko gizarte zerbitzuen kasuan gertatu den bezala; hau da, biztanleria atzerritarren eskariak kontuan hartu dituzte. Izan ere, atzerritar horiek, euren administrazio egoera erregularizatu barik dutenez, oinarrizko laguntzako egitura publikoaren barruan ez dauden laguntzako dispositiboetara joaten dira, dispositibo horiek ez baitute eskatzen errolatuta egotea, eurak erabili ahal izateko. Cárítasen Harrera Programak laguntza eskaintzen die dispositibora doazen pertsona guztiei, hitzordua eskatuta edukiz gero; pertsona horiek euren egoerari eta baliabideei buruzko informazioa ematen dute.

Arlo horretan, Gasteizko Udalak inmigratziorako harrera programa berezia garatu du, Norabide izenekoa, eta bertan, zerbitzuak eskaintzen dira atzerritarrentzat, horiek gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan daudenean. Oinarrizko gizarte zerbitzuetara edo beste edozein erakundetara doazen etorkin guztiak, halako zerbitzuak erabiltzeko errola-

tze baldintzak bete ezean, Norabide zentrora bideratzen dira; bertan, euren beharrianik handienetara bideraturiko gizarte laguntza eskaintzen zaie, baita euren dokumentazioa tramitatu ahal izateko behar den laguntza juridikoa ere.

Bestalde, **Heldu programa** ere aipatu beharrekoa da. Euskal Autonomia Erkidegoko etorkineni bideraturiko laguntza juridikoko zerbitzua da, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Arazoetarako Sailaren eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako abokatu elkargoen arteko hitzarmenaren bitartez sortua. Zerbitzu horren helburua oinarrizko gizarte zerbitzuei laguntzea da; horrela, berme handiagoekin betetzen dira etorkinen beharrianak; izan ere, Espainiako estatuan bizitzeko administrazio baimenik eduki ezean, gizarte bazterkeriako arrisku larria dute edo gizarte ahultasuneko egoeran daude.

Zerbitzu horrek doako aholkularitza, informazioa eta tramitazioa eskaintzen ditu, etorkinek Erkidegoan bizitzeko eta lan egiteko tramitatzen dituzten eskabideei dagokienez, EAeko oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesionalak etorkin horiek zerbitzura bideratu ondoren. Halaber, oinarrizko gizarte zerbitzuetako profesional taldeei ere aholkua ematen die, batik bat zerbitzuak eskatzera doazen etorkinen administrazio egoeraren inguruko gai juridikoei buruz; horrela, pertsona autoktonoekiko berdintasun baldintzetan egiten dituzte gizarte laguntzako lanak.

#### *5.2.3.5. OKUPAZIOKO ETA LANERATU AURREKO TAILERRAK*

Aspaldion, etxerik gabeko pertsonen emandako laguntza dibertsifikatu egin da; horren barruan haxe sartzen da: gizarteratze nahiz laneratze ibilbideetan sartutako pertsonen gizarteratzeari loturiko alderdiak lantzen dituzten prestazioak zein zerbitzuak. Horrela, une honetan, esku-hartzea hezkuntza alderdien ingurukoa da, hori funtsezko osagaia baita pertsona horiei orain arte emandako laguntzan.

Horri dagokionez, etxerik gabeko pertsonen gizarteratzea nahiz laneratzea eta gizarte trebetasunen garapena funtsezkoa da, gizarte eragileek egindako esku-hartzean; izan ere, langabezia egoerarekin batera, gizarte, familia, kultura edo ekonomia mailako beharrianak ere badaude, eta, horien eraginez, bazterkeria maila oraindik ere larriagoa da, eta horrek zaildu egiten du gizarteratzea eta laneratzea.

Gaur egun garatzen ari den lan-lerroetariko bat ikastaroak eta tailerrak sortzea da, gizarteratzearekin nahiz harremanekin loturiko esperientziak eskaintzeko eta bizikidetzarako eremu komunak sortzeko; horrela, pertsonen autoestimu eta motibazio mailak hobetu egiten dira.

Etxerik gabeko pertsonen hezkuntzaren arloko esku-hartzearen aldetik laguntzeko ikuspegi horri esker, erakundeek (Administrazioarekin lankidetzan) heziketa, hezkuntza edo birgaitze mailako neurriak hartu dituzte, eta horiek lagungarriak izan dira gizarteratze prozesuan aurrerapausoak emateko. Helburu horretan oinarrituz, heziketa programak, tailerrak, ikastaroak eta laneratze programak garatu dira; horiek etxerik gabeko pertsonen zuzenduta daude, baina beste arazo batzuk dituzten pertsonen ere parte hartu ahal dute halakoetan.



Atal honen helburua ez da erakundeek garaturiko ikastaroak eta tailerrak sakon azaltzea, tailer horiek pertsonaren aldaketa prozesu osoan duten garrantzia adieraztea baizik. Zerbitzu horien esfortzuak pertsonaren alderdi pertsonalak eta harremanetakoak lantzerantz bideratu dira, eta harremanen arlora eta gizarte trebetasunak eskuratzearen arlora bideratzen diren tailerrak ere garatu dira.

Zaila da etxerik gabeko pertsonekin lanean dabilzan erakundeek garaturiko hezkuntza eskaintza osoa kapitulu bakarrean azaltzea; izan ere, astialdiko nahiz eskulaneko ikastaroak eta lanbidea ikasteko tailerrak daude. Orokorrean, tailer horien berezitasuna landutako edukien dibertsitatea eta aplikaturiko metodologia da; gainera, eremuak sortzen dituzte pertsonen euren sentimenduak adierazteko, kanpoko epaiketa jasotzen dutela sentitu barik.

Esperientziak kapitulu honetan aipaturikoak baino askoz ere ugariagoak dira, baina guk esperientzia jakinak aukeratu ditugu. Izan ere, lanean erabilitako metodologiaren, izaera berritzailearen eta talde jasotzailearen berezitasunaren eraginez, esperientzia horiek positiboak izan dira, eta gainera, egokitu egin daitezke bazterkeria larriko egoeran dauden beste pertsona batzuen beharrianetara.

## A) AZTERKETARAKO TIPOLOGIAK

Informazioa antolatzeke eta modu sistematikoan aurkezteke, azterketarako hiru kategoria erabili ditugu, eskaintako ikastaroek eta tailerrek landutako edukien dibertsitatean oinarrituz. Kategoria horiek ez dira isolatuak, tailer moten arteko mugak nahasiak dira eta, batzuetan, osatu edota gainjarri egiten dira. Horri dagokionez, informazioa egituratzeko sistema da eta horren helburua errealitatearen ikuspegi ahalik eta egiazkoena ematea da:

- **Hezkuntza** tailerrak edo **psikosozialak**: gizarteratze prozesuetan hasteko lekuak direla esan daitezke. Tailer horien helburua, izan ere, etxerik gabe eta bazterkeria arrisku larriaren dauden pertsonen galdu egin dituzten edo euren bizi osoan eskuratu ez dituzten gizarte ohiturak eta trebetasunak lantzea da. Bestalde, alderdi pertsonalak ere lantzen dira, esaterako, autoestimua eta motibazioaren hazkundera, edo gizarte loturak berrezartzearekin erlazio naturiko alderdiak.
- **Okupazio** tailerrak: kategoria honen barruan lanbide aurreko tailerrak sartzen dira eta horiek bi helburu nagusi dituzte:
  - Eskakizun baxuko tailerrak, kalteak murrizteko edo aisialdia lantzeko, narriadura fisiko edo buruko narriadura handia duten pertsonentzat.
  - Pertsonen enplegua lortzeko trebetasunak garatzeari eta ikasteari lotutako tailerrak, lan merkatutik kanpo luzaro egon diren pertsonentzat. Halako tailerren helburu nagusia, izatez ere, pertsona egiten ari den gizarteratze prozesuan lanaren dimentsioa eskaintzea da, eta lanbide baten ikaskuntzaren aurreko fasea osatzen dutela esan daitezke.
- **Laneratzeko tailerrak**: lan merkatuan sartzeko prozesuaren amaierako tailerrak dira. Halako programak erakunde askok edukitzen dituzte. Helburu nagusia

etxerik gabeko pertsonen ordaindutako lana lortzeko erraztasunak eta aukerak ematea da.

Batzuetan, etxerik gabeko pertsonen laguntzeko gizarte erakundeek garaturiko laneratze programen barruan hiru kategoria horiek sartzen dira, eta horien barruan, halaber, batzuetan enplegua bilatzeko aholkularitza ere sartzen da.

Praktikan zaila da okupazioko tailerrak laneratze tailerretatik eta hezkuntza tailerretatik nahiz psikosozialetatik bereiztea, lehen azaldutakoaren arabera. Horietan guztietan, modu batera edo bestera, zeharka lantzen da enplegua lortzeko gaitasuna, lanerako gaitasuna eta lan merkatuaren sarbidea.

## B) HEZKUNTZA TAILERRAK ETA PSIKOSOZIALAK

Hezkuntza tailerren eta psikosozialen helburuak, batez ere, etxerik gabeko pertsonen gaitasunak sustatzea, gabeziak arintzea (gehienbat gizarte mailako gabeziak) eta bizitza normalizatuan sartzeko behar diren gizarte trebetasunak erakustea dira.

Erakundeek garaturiko tailer eta ikastaro askoren helburu nagusia, izatez ere, eremu egokiak sortzea da, halako pertsonen gizarteratze prozesuak eta inguruarekin harremanak sortzeko prozesuak hasteko; horrela, apurka-apurka, hobetu egiten da gizarteratze prozesuak hasteko autoestimua eta motibazioa. Kasurik gehienetan, tailer horietan psikologiarekin erlazionaturiko lanbide profilak sartzen dira, eta horien eginkizun nagusia partaideei prozesu osoan laguntzea da. Orokorrean, euren edukia gizarte trebetasunen lorpenean oinarritzen da, eta horretarako garatzen diren jarduerak nagusiak honako hauek dira:

- astialdiko jarduerak;
- helduen alfabetatzea;
- eskulanean tailerrak edo artisautzakoak;
- enplegua eta etxebizitza bilatzeko tailerrak.

Tailer laburrak eta errazak dira. Horien helburua harreman pozgarriak bultzatzea eta autoestimua nahiz motibazioa sustatzea da, tailerretan parte hartzen duten pertsonen artean. Tailer horien arrakasta, berriz, pertsonak bere burua baliotsutzat ikustea sustatzen duten jarduerak egitean oinarritzen da. Gainera, jarduerak horiek inguru normalizatuetan integratzen diren neurrian, duintasun pertsonala sustatzen da eta indarra kentzen zaio etxerik gabeko egoeran egoteak sorturiko estigmari.

**Araban,** Gizarterako elkartearen zerbitzuak prostituzioan lan egiten duten pertsonengana (batik bat, emakumeak) orientatzen dira; heziketa eta sensibilizazio batzordea dauka, eta horrek trebetasun afektiboen nahiz gizarte trebetasunen lanketan oinarrituriko jarduerak garatzen ditu, konfiantzako eremua sortzeko, eta horrela, emakumeek euren beldurrak eta etorkizunerako itxaropenak adierazi ahal izateko. Gero, lan eskaintzei buruzko informaziora bideraturiko jarduerak egiten dira, eta enplegua bilatzeko teknikak lantzen dira, halako pertsonak laneratu ahal izateko.

**Bizkaian**, Zubietxe elkarteak arte-sormeneko tailer bat garatzen du, Europan eta Espainiako estatuan martxan jarri diren esperientzietan oinarrituz. Proiektu horren ekimenaren helburua egitura-askatasuneko eremuak sortzea da, pertsonak euren nahiak eta etsipenak adierazi ahal izateko, sormen prozesuen bitartez; horrela, horiek sentimendu eta ideia bihurtzeko aukera eskaintzen da. Tailerreko lana zuzendaritzakoak ez diren praktiketara oinarritzen da, eta horrek aukera ematen du pertsonak euren erritmoan bilakatu ahal izateko.

**Gipuzkoan**, Emaús fundazioak lanean ohitzeko arlo bat dauka; hori, berriz, euren bizitza normaltasunez garatzea ekiditen duten gabeziak eta beharrianak dituzten pertsonak zuzenduta dago; izan ere, halako pertsonak ez dute euren buruarekiko konfiantzarik, eta gizarteratzeko eta, gero, laneratzeko behar diren trebetasun afektiborik nahiz gizarte trebetasunik ere ez dute. Horretarako, bertako lan metodologia erabiltzaileen gaitasunetara eta jarreretara egokitzen da, lanarekiko erantzukizuna eta motibazioa sustatu ahal izateko.

### C) OKUPAZIO TAILERRAK ETA LANERATZE TAILERRAK

Eskakizun baxuko proiektuen barruko **okupazio tailerren** barruan, talde laneko jarduerak eta komunitatearekiko topaketak sustatzen dira; horien helburua, batez ere, pertsonak baliabidera lotzea da, eta gero, pertsonaren eskaria lortzeko bitartekaritza aktiboagoa egitea, baita kalteak murriztea ere, bizi-ohitura osasungarriak ez dituzten pertsonen astialdia betetzeko aukeratzat. Jarduera arruntak dira, lotura errazten dute eta aldaketa prozesuen hasiera sustatzeko gaitasuna dute.

Horri dagokionez, Donostiako Rais erakundeak “Topa Leku” izeneko bilgune bat dauka; horren helburua pertsonak mugiaraztea da, euren egoera hobetu egin daitekeela uler dezaten, eta gainera, prozesu osoan laguntza eskaintzen zaie. Proiektu hau bost ardatzetan oinarritzen da: sarbide askea, eskakizun baxua, malgutasuna, orokortasuna eta aldaketaren sustapena. Horrela, helburua betetzeko, informatika nahiz Internet tailerrak garatu eta Forum-bideoko jarduerak antolatzen dira.

Bestalde, erakundeek garatzen dituzten **okupazio eta laneratzeko tailer** batzuk INEMekin lankidetzan egiten dira. Heziketa programak dira, laneratzeko aukera ematen duten okupazioetan; hain zuzen ere, laneratzeko enpresetan edo hitzarturiko enpresetan laneratzeko aukera ematen dute, eta bertan, pertsonak praktika aldi jakina egiteko aukera izaten dute.

Ettxerik gabe eta bazterkeria larrian dauden pertsonak nekez sartzen dira halako programetan; izan ere, oraindik ere narriadura oso larria hasi ez duten pertsonak edo gizarteratze prozesua hasi duten eta horren azken fasean dauden pertsonak bideratuta daude; izatez horixe da halako pertsonak lan merkatuan eurenez sartzeko behar duten azken maila. Lorezaintza, igeltserotza, sarrailagintza eta halako ikastaroak daude, baita industria garbiketaren sektoreko lanbideen ikastaroak ere. Halaber, pertsonarekiko lan orientazioko jarduerak ere egiten dira, eta halako jardueretan enplegua bilatzeko mota guztietako teknikak lantzen dira.

Bizitegi elkarteak okupazio eta laneratzeko tailerrak garatzen ditu gizarte bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzat, batez ere toxikomania eta buruko gaixotasuna duten

pertsonentzat. Alde batetik, Otxarkoagako tailerra dago; bertan, toxikomaniarako tratamendua hasi duten eta laguntza iraunkorra behar duten pertsonak daude, baina gizarteratze prozesuko fase aurreratuagoetan dauden pertsonak ere, azken horiek eremu babestuak behar baitituzte laneratze prozesuetan hasi baino lehen. Halako tailerretan hezkuntza alderdiak lantzen dira, tailerreko jardueren bitartez; esate baterako, kartoia nahiz papera landu, bilerak zein elkarrizketak egin, pertsonak enplegua aurkitzeko gaitasuna garatzeko jarduera soziokulturalak sustatu, laneko ohiturak hartu eta astialdia nahiz oinarrizko beharrianak betetzeko lanak egiten dira.

Bestalde, Uribarri zentroko tailerra dago, gizarteratze prozesuko fase aurreratuagoetan dauden pertsonen zuzendutako. Tailer horretan ibilbide pertsonalizatuagoak egiten dira, gizarteratze nahiz laneratze normalizazioko prozesua ahalbidetu ahal izateko. Tailer horretan pertsonaren lan gaitasunak, ohiturak eta diziplina lantzen dira, kartoien, koadernaketaren eta larruaren teknikak irakatsiz eta praktikaturaz; jarduera guztiak, berriz, parte hartzen duten pertsonak enpresaren batean laneratzera bideraturik daude, pertsona horiek tratamenduarekiko lotura galdu barik.

Cáritasek Bilbon duen Ibaia lanbide aurreko hezkuntza tailerra eta Donostian duen Ikatz-Kale tailerra bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen zuzendutako dispositiboak dira; pertsona horiek gabezia sozialak nahiz pertsonalak dituzte, eta gabeziok eragin kaltegarria dute eurak laneratzeko orduan.

Tailer horietara doazen pertsonarik gehienak etxerik gabekoak dira, baina tailerrok profil gehiagora ere irekita daude, esate baterako, iraupen luzeko langabetuak, diru-laguntzadun diru-sarrerak dituzten pertsonak edo mendekotasun prozesuetan dauden pertsonak. Tailerrek 20-25 plaza dituzte eta emakumeei zuzenduta daude, baina bertara doazen pertsonarik gehienak gizonak dira. Tailerraren helburua motibazioa, alderdi pertsonalak eta lan nahiz gizarte ohiturak lantzea da, tailerreko jardueren bidez, prozesu pertsonalean eguneroko laguntza emanez edo pertsonaren banakako entrenamenduaren bitartez; horrela, prozesuko faseak amaitu ondoren, pertsonen ohiko lan merkatuan sartzeko aukera gehiago izaten dituzte.

Bi tailer horiek hiru fase dituzte, pertsonak bertan egindako denboraren eta prozesuan izandako lorpenen arabera, eta fase bakoitzean pertsonak asteroko diru-ordainketa jakina jasotzen du.

Tailerak ez ezik, zenbait sektoretan **laneratzeko enpresak** ere badaude, esate baterako, ehungintzan edo ostalaritzan; enpresa horiek enplegu aukera eskaintzen diete laneratzeko arazorik gehien duten taldeetako pertsonen. Produkzioko lana garatzeko eta normalizazio nahiz laneratze prozesuak burutzeko gauza direla frogatzea da helburua.

Erakunde batzuek kudeatzen dituzten laneratze tailerren eta enpresen artean, bazterkeria larriko egoeran edo arriskuan dauden etxerik gabeko pertsonen zuzendutakoak aipatu ditugu.

Cáritasek, laneratze programen bidez, Berohi kooperatiba jarri du martxan Bizkaian. Kooperatiba horrek arropa bildu, desinfektatu eta birziklatu egiten du; gero, Ekojan-

tzien dendetan banatzen du, erabilitako arropa saltzeko dendetan; horiek pertsona guztiei zuzenduta daude eta, bertan, jantzi-zerbitzuaren prestazioa egiten da, erakunde horren harrera programek emandako txartela dutenentzat.

Proiektu hori arropa-dohaina duintzeko sortu da, denden sorreraren bidez, aukera normalizatutzat eta sozializagarritzat; horrek bi helburu ditu: erabilitako arropa banatzea eta lanpostu egonkorrak sortzea, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonentzat.

Arabako Berjantzi programaren funtzionamendua ere antzekoa da; hori ehungintza sektorerara bideraturik dago eta, bertan, pertsonak parte hartzen du arroparen prozesu guztietan: bilketa, desinfekzioa eta birziklapena, baita jendearen arreta ere, salmentako leku guztietan.

Arabaren kasuan, pertsona oinarritzko gizarte zerbitzuen bidez sartzen da bertan, eta horiek pertsonak programaren barruan duen bilakaeraren etengabeko jarraipenak egiten dituzte. Programan egoteko aldirik luzeena lau hiletik urtebetera bitartekoa da. Etxerik gabeko pertsonen laguntzara bideraturiko dispositibo ia guztien kasuan bezala, programaren finantziazioa, neurri batean, Udalak eta Aldundiak egiten dute, eta erakundearen beraren baliabideak ere erabiltzen dira horretarako.

Emaús fundazioak gizarteratze eta laneratze programak garatu ditu Bizkaian eta Gipuzkoan, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonentzat, programen helburua pertsona horiek "enplegua lortzeko aukera duten pertsonak" izatea da, eta horretarako, banan-banako prozesu integrala erabiltzen da. Laneratze programa horiek ez ezik, Emaús fundazioak zenbait sektoretan laneratzeko enpresak ditu, adibidez, ehungintzan, eraikuntzan edo altzarien zaharberrikuntzan.

2005eko otsailean, Emaús fundazioak Aurrera programa jarri zuen martxan Bilbon. Lanbide aurreko tailer hori etxerik gabeko pertsonen zuzenduta dago, eta bertan, etxeko tresna elektrikoetako piezak desegiteaz gain, gizarte nahiz lan trebetasunak ere lantzen dira.

Tailerretara doazen pertsonak, batez ere, Elejabarriko aterpetxetik, Lurberri egoitzatik eta Cáritas Bizkaiko Giltza programatik<sup>93</sup> iritsitakoak dira; laneratze prozesuak hasi eta ohitura berriak eskuratzeko prest dauden pertsonak izaten dira. Horri dagokionez, euren bizitza-aldi laburrean emaitza onak lortu dituzte.

Arabian, Gasteizko Udalak Gizarteratu programaren kudeaketa zuzena egiten du; programa hori gizarte eta lan arloaren barruan dago eta, bertan, heziketa tailer batzuk eskaintzen dira; horiek nolabaiteko gaitasun pertsonala ematen diete pertsonen, horiek bizitza autonomoaren eta normalizatuaren garapenean aurrerapausoak eman ahal izateko.

---

<sup>93</sup> Erakundeak etxerik gabeko pertsonen programari emandako izena

#### 5.2.4. **ETXERIK GABEKO PERTSONEI EMANDAKO LAGUNTZA EAEN: IRISMENA ETA MUGAK**

Ondoren, EAEko etxerik gabeko pertsoneri laguntzeko sisteman egindako azterketa kuantitatiboan eta kualitatiboan ikusi diren ahultasun eta sendotasun nagusiak azalduko ditugu, ahultasunak gainditzeko eta laguntza hobetu ahal duten alderdi guztiak indartzeko.

##### 5.2.4.1. **AHULEZIAK**

Etxerik gabeko pertsoneri laguntzeko dispositibo sistema horri laguntza sarea esaten zaio, baina **ez** da benetako **sarea**. Jatorri desberdineko baliabide, elkarte eta erakunde multzoa da; gauzak “egiteko” eta errealitatea interpretatzeko modu oso desberdinak dituzte; baliabide material eta tekniko desberdinak dituzte, eta salbuesenez baino ez dute lan koordinaturik edo sare erakorrik garatzen.

Gainera, mugak ez daude argi berezita, batik bat esku hartzen duten eragile guztiek **etxerik gabeko pertsona** izateari buruz emandako **definizioa** estandarra eta adostua ez delako. Horren ondorioz, fenomenoari buruzko ikerketetan eta hurbiltzeetan, era askotako jarrera metodologikoak hartzen dira eta, horrela, ikerketaren helburua, izan ere, ikerketa taldeak harturiko ikuspegi araberakoa izaten da. Adibidez, tratu txarrak jaso dituzten emakumeentzako balio anitzeko bizilekuak etxerik gabeko pertsoneri gaueko babes ematen dieten baliabideak ote dira?, azterketaren barruko zentro edo komunitate terapeutikoak oinarrizko beharrezanetarako babes ematen ote dira? Kontuan hartu behar da kasu horietan guztietan oinarrizko beharrezanetarako ostaturia eta babes eskaintzen zaizkiela, modu iraunkorrean edo iragankorrean ostaturia egonkorrik ez duten pertsoneri.

Halaber, baliabideek eta dispositiboek gizarte zerbitzuetatik hartzeko bete beharreko baldintzei buruzko **irizpide zehatzik eta estandarrik ez** egotearen ondorioz<sup>94</sup>, epigrafe beraren barruan elkarrekin zerikusirik ez duten ekimenak abiatzen dira.

Bestalde, etxerik gabeko pertsonen laguntzan inplikaturiko **erakundeen aniztasun handia** dago; laguntzeko irizpide eta eredu oso desberdinak dituzten erakundeak dira, eta horrela, esku-hartzea ez da norabide bakarrekoa. Gizarte babes publikoa duten hiru sistema desberdin daude, eta horietariko bakoitza hiru foru aldundietariko batek zuzentzen du; gainera, Eusko Jaurlaritzaren eta udalen maila desberdinetako esku-hartzeak dituzte. Horren ondorioz sortzen den egoeran ez dago irizpide bateraturik, lurralde bakoitzaren gizarte errealitatera egokituriko irizpiderik eta, beraz, ez dago EAE osorako gizarte jarduketara bateraturik. Horren eraginez, “desberdintasun handiak” daude etxerik gabeko pertsonen laguntzan eskumenak eta funtzioak eratzizkoak dituen udalerririk bakoitzean emandako babesean.

<sup>94</sup> Gaur egun, indarrean dago martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua; horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuen baimena, erregistroa, homologazioa eta ikusapena arautzen da. Bertako 4. artikuluan ezartzen denez, gizarte zerbitzuen zentroek eta zerbitzuek zentro edo zerbitzu mota bakoitzerako ezarritako arauko baldintzak bete behar dituzte. Oraindik arautu barik daude etxerik gabeko pertsonentzako baliabideek eta zerbitzuek bete beharreko baldintzak.

Gainera, dispositibo horiek zailtasunekin eta beharrizanekin estu lotutako beste eremu sektorial batzuekin (besteak beste, etxebizitza, enplegua eta osasuna) duten **erlaziorik eza**, izan ere, detektaturiko ahultasun nagusienetakoa da, baldin eta sare horrek halako pertsonen beharrizanetarako laguntza integrala eman nahi badu eta laguntzako esku-hartze eredu tradizionalak gainditu nahi baditu, gizarteratze prozesuak ahalbidetu ahal izateko.

Bestalde, eremu publikoan etxerik gabeko pertsonen beharrizanen laguntzan egiten den esku-hartzea, kasu batzuetan, dispositibo horien finantziatziora murrizten da, eta presentzia eta kontrol urria dago esku hartzeko irizpideen diseinuan eta zehaztapenean; gainera, gizarte erakunde pribatu batzuek ez dute “laguntza kuotarik” galdu nahi eta, horrela, sektoreko **buruzagitza** eta antolaketa lanak guztiz zailtzen dira (erantzukizun publikoa duten lanak).

Horiexek dira, orokorrean, ikusi diren ahultasun nagusiak. Hala eta guztiz ere, ondoren maila eraginkorragoetan zehaztuko ditugu:

## 1. LARRIALDIKO HARRERA

Larrialdiko harreraren arloan eratzikitako eskumenei buruzko irakurketa murriztaileak egitearen eta kontrolako mekanismorik ez egotearen ondorioz, Herri Administraziozko erakunde batzuek ez diete kasurik egiten Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak<sup>95</sup> esleituriko funtzioei; horrek, kasu batzuetan, borondate eta implikazio politikorik eza adierazten du. Irakurketa murriztaile horren eraginez, gizarte bazterkeria larriko jarduketaren eta laguntzaren erantzukizuna hiriburuei eskuordetzen zaie. Horri dagokionez, gauza batzuk nabarmendu behar dira:

- Egoera horren ondorioz, **baliabideak** EAEko **hiru hiriburuetan pilatzen dira**, eta horrela, kasu batzuetan, pertsonen inguru hurbiletatik urruneko lekuetako esku-hartzeak planteatzen dira.
- Kontsultaturiko udalerririk gehienek, EAEko hiru hiriburuen kasuan izan ezik, **hoteletan plazak hitzartuta** egiten diete aurre, batez ere, larrialdiko harreraren dituzten eskumenei. Hala eta guztiz ere, hitzartze hori ez dago modu esplizituan ezarrita, eta beraz, egoera horien konponketa plazak egotearen eta halako negozioak zuzentzen dituzten borondatearen menpe gelditzen da.
- Udalerririk horiek, gainera, ez dute jarduketa protokolo estandarrik, gaua kalean igarotzen ari diren pertsonak aurkitzeko. Kasurik gehienetan, pertsona horiek EAEko hiru hiriburuetarikoren batean dauden baliabideetara eta dispositiboetara eramaten dira. Halaber, udalerririk horietariko gehienek<sup>96</sup> ez dute gizarte larrialdiko

<sup>95</sup> Gizarte Zerbitzuei buruzko 5/1996 Legea.

<sup>96</sup> Bilbon eta Gasteizen Gizarte Larrialdien Udal Zerbitzua dute. Gipuzkoan Gizarte Larrialdien Foru Zerbitzua dago. Portugaleten larrialdien telefono zerbitzua dago.

zerbitzurik, eta beraz, gizarte laguntza Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen ordutegien menpe dago erabat.

## 2. BALIABIDEEN PILAKETA ESKAKIZUN ERTAINEKO MAILETAN

Esfortzurik handienak gizarteratzeko arazorik gehien izan ditzaketen pertsonekin egiten ari dira. Horri dagokionez, eremuak ireki behar dira, narriadura egoeraren eraginez edo kasuan kasuko bizi-unearen ondorioz eskakizun ertaineko eta altuko mailetan sartu ezin diren pertsonak ere zerbitzuok erabili ahal izateko.

## 3. BATASUNIK EZA IRIZPIDEETAN

Laguntzako irizpideetan, egonaldietan edo eskakizun mailetan, baita beste arlo batzuetan ere, laguntza irizpideen lurralde batasunik eza ikusi da. Gizarte ekimenak kudeaturiko dispositiboan kasuan, erakunde bakoitza autonomoa da baliabidearen kudeaketan; eman beharreko zerbitzuen zehaztapena, arauen ezarkuntza eta sartzeko nahiz barne funtzionamenduko irizpideak, izan ere, esku-hartze ereduaren edo zonako ohituren nahiz erabileren arabera dira.

## 4. LAGUNTZAN INPLIKATURIKO ERAGILEEN ARTEKO KOORDINAZIO URRIA

Protokolo estandarrik ez egotearen ondorioz, koordinazioa inplikaturiko profesionalen borondata murrizten da. Horren eraginez, arretan bikoiztasunak egoten dira, baliabideak ez dira optimizatzen, kasuen jarraipen urria dago eta esku-hartze taldeek "behin eta berriro hastearen" sentsazioa edukitzen dute.

## 5. GIZARTE ETA OSASUN EREMUAREN GARAPENIK EZA

Baliabideen eta funtzio-banaketaren zehaztapen ezak zaildu egiten du horien behin betiko sustapena. Osasun eta gizarte eremuaren garapenik ezaren ondorioz, halako pertsonetara esku-hartzeak behar duen osasun laguntza kontuan hartuta, ez da euren beharrezko arabera erantzunik ematen, eta gainera, batzuetan, beharrezko horiek laguntzarik gabe gelditzen dira erabat. Hori guztia, berriz, honako alderdi hauetan zehazten da:

- Erakundeek ikerketa honetan behin eta berriro egin duten eskari nagusienetarikoa bat **gaixondo egiturak** sortu beharrezkin erlazionaturik egon da; egitura horietan laguntza eskainiko zaie gaixotasunen ostean sendotzeko lekurik ez duten pertsona guztiei.
- Agerikoa da oraingo egiturak ez direla egokiak gizarte dispositiboan laguntza egokia jaso ezin duten pertsonentzat (jokabide arazoak edo buruko gaixotasunen bat duten pertsonak). Horrela, **gizarte eta osasun egitura egokiak** sortu behar dira, laguntzan inplikaturiko eragile guztiek adosturiko baldintzekin eta parametroekin; gainera, zehaztu egin behar da eremu horretan parte hartu behar duen sail bakoitzaren esku-hartzea, adibidez, Osakidetza eta hiru foru aldundien esku-hartzea.



- Ez dago zentro berezirik **patologia duala** duten pertsonen laguntzarako.
- Osasunaren arlotik, egoitza **baliabideak dibertsifikatzeko** eskaria egin da; besteak beste, honako profil hauetarako:
  - Buruko gaixotasuna eta atzerapen kognitibo handiak dituzten pertsonak.
  - Adin nagusiko gaixoak, gizartearekiko kontaktua guztiz galdu dutenak, ospitale psikiatrikoan urte askotan egotearen ondorioz.
  - 40 urte inguruko pertsonak, euren familiakoak adinekoak direnean; izan ere, horiek ezin dute euren ardurarik hartu eta gizarte laguntza beharko dute bizitza normalizatuan hasi ahal izateko.
  - Alkohola edo drogak hartzearen eraginez jokabide arazoak dituzten gaixoak.

## 6. EREMU EZEGOKIAK

Kasu askotan, baliabideak dituzten eremuak guztiz ezegokiak izaten dira. Horri dagokionez, hausnarketa aldi bat ireki behar da, eremu nahiz egitura egokiagoak sortzeari eta halako instalazioen kalitateari buruz. Egoera hori, besteak beste, honako honen ondorioz sortzen da:

- Sarritan, halako pertsonen laguntzaren kasuan, beharrezana berehala betetzeko joera egoten da, eta horrek “edozein leku kalea baino hobea” izatearen sentsazioa sortzen du.
- Ez dago zentro mota hori arautzeko araudi berezirik, hirugarren adinerako ezarrita dagoenaren moduko araudirik.

## 7. EZ DA EGONKORTASUNIK BERMATZEN OINARRIZKO BEHARRIZANEN PROGRAMEN FINANTZIAZIOAN

Dirulaguntzen bidezko finantziazio formulek segurtasunik ezari loturiko sentsazioa sortzen dute halako baliabideak kudeatzen dituzten erakundeetan, eta horrek gainera, programen egonkortasunik eza eta erakundeak zorretan sartzea eragiten du. Eze-gonkortasun horren ondorioz, programetan barne arazoak sortzen dira, eta, zenbait kasutan, erakundeek kostuak murrizteko politikak aplikatu behar izaten dituzte; politika horiek, orokorrean, soldaten murriztapenean oinarritzen dira, eta horrek eragin zuzena dauka emandako zerbitzuaren kalitatean.

## 8. PREBENTZIO LANAREN PRESENTZIA URRIA

Praktika oneko beste esperientzia batzuetan, prebentzio lanak funtsezko garrantzia hartzen du arriskuko egoera batzuk eta bazterkeria larriko dinamikak ekiditeko. Horretarako, prebentzio lana egin behar da, etxerik gabeko egoera sortzen duten zergati arrunten inguruan:

- Kaleratze eta bahitze prozesuak, krisialdi ekonomikoekiko ahultasun handiko egoeren eraginez, eta hori estu lotuta egoten da erlazio afektiboak apurtzearekin.
- Erakunde itxietatik irteteko prozesuak; adibidez, espetxeetatik, buruko osasuneko zentroetatik edo adin txikikoen zentroetatik.

## 9. SENTSIBILIZAZIO ETA KONTZIENTZIAZIO LANIK EZA

Lehen esan dugunez, bazterkeria prozesuan bazterturiko pertsonak eta gizarte baztertzai-leak hartzen dute parte; horrenbestez, gizartearen sentsibilizazioak eta kontzientziazioak garrantzi handia dauka laguntzan; izan ere, prozesurik gehienek gizartea “aukera gehiago sortzeko” gauza ez delako egiten dute huts. Gizartea kontzientziatu egin behar da, eta pertsona horienganako hurbilketa egokia egin behar da, enpatian eta elkartzunean oinarrituz, fenomeno horri aurre egiteko eta erantzun integralak emateko.

## 10. ESKAINTZA FOKALIZATUA ETA BARREIATUA

Laguntzako baliabideak aztertetik ateratzen denez, ez dago sektorearen planifikazio estrategikorik eta benetako gizarte politikarik, halako beharrianei erantzun egokia eman ahal izateko. Horrenbestez, dispositiboaren egitura barreiatua eta koordinaziorik gabea da, eta zona jakinetan kokaturik dago (gehienetan, zonarik narriatuenetan).

Horri dagokionez, planifikazio “solidarioa” egin behar da, halako dispositiboak kokatzeko; izan ere, dimentsio txikiko baliabideak sortu behar dira, hiri osoan eta EAeko udalerrir guztietan banatuta. Horretarako, kontuan hartu behar da komunitateak halako dispositiboak barneratzeko duen gaitasuna, eta horiek ez dira zona jakinetan pilatu behar.

## 11. OSTATU BALIABIDEEN ASETZEA

Memorien azterketatik ondorioztaturikoaren arabera, gizonen plazen kasuan, okupazio indizea baliabide guztien %100ekoa da eskakizun maila guztietan, eta lagundu gabeko pertsonak gelditzen dira. Horri dagokionez, asetze maila horiekin erlazioaturiko hiru alderdi aipatu behar dira:

- **Gaueko zentroen** kasuan, asetzea baliabideen eta dispositiboaren jarduketaren lurralde izaeraren eraginezkoa da batik bat (hiru hiriburuetan kokatuta), baita etorkinek dispositibo horiek modu masiboan erabiltzearen eraginezkoa ere. Horri dagokionez, eskaria eskaintza baino askoz ere handiagoa da.
- Ez dago ostatuko plaza nahikorik ezin eskakizun mailatan; hala eta guztiz ere, kontsultaturiko pertsonen esandakoaren arabera, **eskakizun mailarik baxuenetan eskariaren gorakada** handia egon da; hori maila horietan beharri handiagoga egotearen, maila ertainetan plazarik ez egotearen edo harrerako dispositiboetatik egindako bideratzeak ondo ez planteatzearen ondoriozkoa izan daiteke.
- Horri dagokionez, aipagarria da eskakizun baxuko dispositibo horiek etxebizitza lortu ezin izateari eta oinarritzko beharriak betetzeari loturiko zailtasunak dituzten pertsonen erabiltzea; pertsona horiek laguntza behar dute **etxebizitza autonomoa** lortzeko, baina horretan ezarrita dauden baldintzen eraginez (errolatzearen antzinatasuna, errenta mailak, etab.) bazterkeria larriko laguntzaren zirkuituan sartzen dira, eta horrela, euren arazoa kroniko bihurtzeko eta estigmatizaturik gelditzeko arriskuan geratzen dira.

## 12. DISPOSITIBO BATETIK BESTERAKO IBILBIDEA

Sartzeko arauen eta egonaldiari loturiko arauen ondorioz (egonaldi laburreko ostatu baliabideetako eta dispositiboetako arauak), pertsona erabiltzaileak dispositibo batetik bestera ibiltzen dira. Gainera, egonaldiko eta sartzekoaldi horien eraginez, kasu askotan, “bultzatu” egiten dira kalean beste inolako aukerarik gabe dauden pertsonak. Horri dagokionez, berriro aztertu behar da egonaldi laburreko ostatuaren prestazioa, ibilbide txandakakoak eta kaotikoak ekiditeko eta baliabide egonkorragoak sortzeko.

## 13. GIZARTERATZEKO EGOITZA BALIABIDEETAN PROFIL SORBERRIEI LAGUNTZA EMATEKO DIBERTSIFIKAZIO URRIA

Kontsultaturiko erakundeek esandakoaren arabera, beharrezkoa da plazak dibertsifikatzea, profil berriei ere laguntza eman ahal izateko; izan ere, horiek orain ez dute laguntza egokirik edo laguntzako baliabideetatik kanpo kokatzen dira. Plazak gizarteratzeko egoitza baliabideetan dibertsifikatu behar izateari loturiko bi arlo aipa daitezke:

- Kasu bat, izan ere, halako dispositiboetan **diagnostikatu** edo tratatu **gabeko buruko gaixotasuna** duten pertsonen ematen ari zaien laguntza da, horiek kontsumo aktiboak dituztenean. Profil horrek behar duen laguntza espezializatuak gainditu egiten ditu baliabideen gaitasuna; izan ere, horien oraingo diseinuak eta baliabide materialen nahiz giza baliabideen zuzkidurak ez dute ahalbidetzen konpentsazio eza psikiatrikoa duten pertsonen gizarteratzea. Horri dagokionez, babesik ezari loturiko egoera berezia detektatu da, babesturiko egoitza baliabideak behar dituzten eta buruko gaixotasuna duten pertsonentzako plaza nahikorik ez egotearen ondorioz.
- **Drogamenpekotasuna duten pertsonentzako tratamenduetan laguntzeko egoitza baliabideen** kasuan ikusienez, ostatu nahiko egonkorra sortzeko zailtasun larriak distorsioak sortzen ditu baliabideen hasierako helburuari dagokionez. Egoera hori, batik bat, Bizkaian gertatzen da, lurralde horrexetan garatu baita halako dispositiborik gehien:
  - Alde batetik, sarritan nekez bereizten dira tratamendua hasi nahi duten pertsonak eta bizitzeko lekua lortu nahi dutenak.
  - Bestetik, “zubi-baliabideak” izatea, hau da, aldi baterako baliabideak izatea, arriskuan dago, gizarteratze prozesuko fase aurreratuetan dauden baina guztiz gizarteratu ezinik dabiltzan pertsonen “luzapen amaigabearen” ondorioz.

## 14. GIZARTERATZE ZENTROETAN GARATURIKO LANARI EMANDAKO EGONKORTASUN ETA JARRAIPIEN URRIA

Esperientziak erakutsitakoaren arabera, CISek emaitza bikainak eman dituzte, erreferentziako lekua eman baitute bertara sarritan joaten diren pertsona guztientzat. Hala eta guztiz ere, kasu askotan, egunez garaturiko lan onak gauez ez dauka egonkortasun eta babes egokirik; izan ere, pertsona asko ostatu egoera oso ezegonkorrean daude, eta konbinatu egiten dituzte ostatu etako, aterpetxe etako eta kaleko egonaldiak; horren eraginez, prozesuak ez dira gauzatzen. Horrela, lau alderdi kritiko aipa daitezke:

- Halako baliabideak hiriburuetan pilatuta egotea ez da beti modu negatiboan baloratzen; hala ere, komenigarriena beste udalerrri batzuetan ere halako egiturak sortzea izango litzateke, beharizana duten pertsonak errazago eskuratzeko eta erabiltzailea laguntzeko sare naturalekiko lotuta egotearen printzipioa bermatzeko. Bestalde, bazterkeria egoeran dauden pertsonak hiri handietara joateko joera dute, horrek aukera ematen baitie jokabide marjinalak eta biziraupen ekonomiako jokabideak mantentzeko. Horri dagokionez, kontsultaturiko pertsonak esan dutenez, **gainerako udalerriek ere baterako erantzukizuna** izan behar dute halako beharizanen laguntzan; horrenbestez, baliabide horiek EAEko hiru hiriburuetan geldituz gero, aukeratariko bat udalek halako baliabideen finantziazioan parte hartzea edo partaidetza hori sustatzea izan daiteke.
- Kontsultaturiko pertsonak eta erakundeek esan digutenez, halako baliabideen eta dispositiboen artean **buruko gaixotasuna duten pertsonen gailentasuna gero eta handiagoa** da; horrenbestez, oinarrizko beharizanak betetzeko lan itzela egin behar dute baliabide gutxirekin eta osasun sistema publikoaren laguntza oso urriarekin.
- CISek emandako babesaren **garapena** ez da modu bateratuan gertatzen hiru lurralde historikoetan. Horrela, Bizkaian eta, hain zuzen ere, Bilbon dispositibo horrek garapen handiagoa dauka. Beraz, lankidetzako talde egonkorrek beharizan desberdinak nabarmendu dituzte lurraldeen arabera:
- Bizkaia: eskakizun baxuko eguneko zentroetako plaza kopurua handitu egin behar da; izan ere, bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak gero eta narriatuago iristen dira baliabideetara, eta narriadura maila horien eraginez ezinezkoa da horiek eskakizun handiagoko zentroetan sartzea.
  - Gipuzkoa: laneko taldea kezkatuta dabil, beharizan bereziei aurre egiteko eguneko zentrorik ez dagoelako; esate baterako, kontsumo aktiboak dituzten pertsona toxikomanoen kasuan.
  - Araba: eskakizun ertaineko eta altuko eguneko zentro gutxi dago, gizarteratze prozesuak hasi dituzten pertsonen beharizanei erantzun egokia emateko; elementu horrek eragina dauka prozesu batzuen geraldian.
- Gainera, CISek **beste zailtasun batzuk** ere badituzte<sup>97</sup>, eta horien artean honako hauek aipa daitezke:
- Baliabide berean profil, egoera eta tratamendu mota desberdineko pertsonen laguntzea; horretarako, erantzunak malguagoak izan behar dira, adibidez, ibilbide pertsonalizatuak eta laguntza espezifikoak.
  - Zentroan dauden pertsonen motibazio eza, askatasuna kentzeko zigorraren alternatibatzat edo araubide irekia lortzeko baldintzat.
  - Zerbitzu horietan dauden profesionalen profilen eta funtzioen zehaztapena, baita boluntarioen edo praktikak egiten ari diren ikasleen funtzioaren zehaztapena ere.

<sup>97</sup> Bizkaiko Foru Aldundia. Aipat. lan.

- Administrazioaren inplikazio handiagoa.
- Komunitatearen partaidetza.
- Etorkin kopuruak, etxebizitza beharrizanak, gazteen arazoak eta abarrek gora egitearen eraginezko beharrizan berriei eman beharreko erantzuna, baliabide eta politika egokiak erabiliz.

## 15. GIZARTE JANTOKI MASIFIKATUAK

Jantokiek euren aukeren mugan daude: gutxi dira eta masifikaturik daude. Laguntzako ordutegiak ere zaildu egiten du horien erabilera. Gainera, beharrezkoa da oraingo laguntza eredia gaintzea eta janarien prestazioa dibertsifikatzea, aukera desberdinak erabiliz, esate baterako, jatetxe merkeak sustatzea edo halako zerbitzuen prestazioan profesional taldeak erabiltzea, hezkuntza esku-hartze soziala eta beste baliabide batzuetarako deribazioa kontuan hartzeko.

## 16. EZ DA EGUNEKO BABESIK BERMATZEN ASTEBURUETAN ETA JAIEGUNETAN

Emandako laguntzaren barruko hutsune nagusienetarikoa bat, izan ere, asteburuetan eta jaiegunetan eguneko zerbitzuen eta prestazioen babes bermerik ez egotea da, eta horrela, apurtze bat egoten da, aste osoan garaturiko lanari dagokionez. Sendagaiak hartzeko zerbitzuek eta oinarriko beharrizanak betetzeko eremuek jarraitasuna izan behar dute asteburuetan. Zentro batzuetan gutxieneko zerbitzuak bermatzen dira jaiegunetan eta horiek, zenbait kasutan, elkarreterako boluntarioen bidez betetzen dira, ez baitago horretarako profesionalik. Egoera horren bi adibide honako hauek dira:

- **CIS** asko itxita daude asteburuetan edo jaiegunetan, edo, kasurik onenean ere, gutxieneko baliabideekin dabilta.
- **Jantokiak** erabiltzeko, sarritan txartelak lortu behar izaten dira oinarriko gizarte zerbitzuetan edo harrera sistemetan. Txartelik eduki ezean ezin dira erabili elikadurako oinarriko prestazioak ematen dituzten baliabiderik gehienak.

## 17. EZ DAGO KONTSIGNA SISTEMARIK

Zentro batzuek zerbitzu hori eskaini arren, etxerik gabeko pertsonak euren gauzak gordetzeko aukerak oraindik ere urriak dira.

### 5.2.4.2. LAGUNTZA EGOKIRIK EZ DUTEN BEHARRIZANAK: GOGOETAK

Ikerketa honetan lankidetzaren egonkorra izan duten laneko taldeetan egindako hausnarketetan, lagundu gabeko beharrizanak ikusi dira, baita zenbait zergatiren eraginez laguntzako baliabideetatik (horien oraingo egituraren) kanpo gelditzen diren profilak ere. Horrenbestez, gure ustez aipamen bat egin behar da, ikuspegi kualitatiboagotik begiratuta, lanbidea gizarte bazterkeria larriaren laguntza zuzenaren eremuan garatzen duten pertsonak gehien kezkatzen dituzten alderdiei buruz.

## 1. PATOLOGIA DUALARI EMANDAKO ARRETA

Kontsultaturiko erakundeak oso kezkatuak daude patologia duala duen pertsona kopuruak izandako gorakadaren eraginez; izan ere, horiek bizikidetzaz arazo larriak sortzen dituzte, jokabide erasokorra nahiz bortitza dutelako, eta gainera, gizarte baliabideetan eta dispositiboetan ez dago horiek laguntzeko tresnarik, baliabide eta dispositibo horiek orain duten diseinua kontuan hartuta.

Horri dagokionez, halako profilen laguntzan hutsune handia dago; izan ere, jokabide eta bizikidetzaz arazo larriak dituztenez, kasu askotan kanporatu egiten dira gizarte dispositiboetatik eta aukera gutxi izaten dute etxerik gabeko pertsonen oinarrizko beharrezanetan laguntzeko baliabide sarean sartzeko.

## 2. BAKARRIK DAUDEN ADIN TXIKIKO ATZERRITARREN EMANTZIPAZIO PROZESUAK

Kontsultaturiko pertsonak esandakoaren arabera, profil horrekiko esku-hartzearen unerik kritikoenak "irteeretan" izaten dira, adin nagusitasuna bete ondoren; izan ere, aldi hori arriskuz beterik dago eta, horrela, egindako lan guztia hondatu egin daiteke, prozesuetan jarraipen edo laguntza egokia ez egitearen ondorioz.

Horrela, gizarteratze prozesuen azken faseetan esku-hartzea nabarmen hobetu behar da, gaztearen apurka-apurkako emantzipazioan nahiz gizarteratzean laguntzeko edo prozesua errazteko programak garatuz.

## 3. ERROLDATZEKO AUKERARIK GABEKO INMIGRAZIOA

Gizarte laguntzaren babesik kanpo dagoen profiletariko bat erroldatu ezin diren etorkinen taldea da. Erroldaturik egotea ezinbestekoa da udaletako zerbitzuak eta gizarte prestazioak nahiz laguntzak erabiltzeko, baita eskubideak edukitzeko ere, esate baterako, osasun laguntzarako eskubidea, udalerriko anbulatorioaren bitartez. Horren eraginez, etorkinak eskakizun baxuko zirkuituetan sartu behar izaten dira, horietan gaur egun ez baitago erroldarekin erlazioaturiko irizpide baztertzailerik. Erroldan inskribatzeko baldintza, izan ere, araudian jasotako identifikazio agiria eta bizilekua edukitzea da. Agiriari dagokionez, pasaportea edukitzea nahikoa da, ez baita beharrezkoa egoera erregularrean egotea; bizilekuari dagokionez, nahikoa da alokairu kontratua edukitzea, baita helbide horretan inskribaturiko beste pertsonaren baten baimena edo, titulurik eduki ezean eta bizileku horretan benetan bizi izatekotan, udalaren ziurtagiria edukitzea ere (hori egiaztatzen duen ziurtagiria).

Laneko taldeek aditza ematen dutenez, etorkinek zailtasunak dituzte erroldatzeko, batzuetan pasaporterik ere ez dutelako eta enbaxadetan hori tramitatzen ez dietelako edo euren jatorrizko herrian Espainiako enbaxadarik ez dagoelako. Bizilekuari dagokionez, beste talde batzuen kasuan bezala, jabearen edo etxebizitzan bizi diren beste maizter batzuen ezetzaren ondorioz, edo etxebizitzarik lortu ezin izatearen eraginez (prezioa garestia delako edo gizarte aurreiritziak daudelako), ezin izaten dute bizilekua dutela egiaztatzea, eta beraz, ezin izaten dute erroldatu.

Atzerriko etorkinak egoera irregularrean daudenean, erroldatzeko ezintasunak aurreitzi asko sortzen ditu; izan ere, ezin dituzte erabili euren eskubideak eta ezin dute egiaztatu udalerrian bizi direnik, eta baldintza hori oso garrantzitsua izaten da euren administrazio egoera erregularizatzeko eta eskubideak erabili ahal izateko.

Azkenik, inskribaturiko atzerriko pertsonen erroldako datuak polizia nazionalari emateko aukerak, atzeritartasunari buruzko legean 2003ko abenduan egindako berrikuntzaren ostean, erroldatzeko motibazioa kentzen du, poliziak datu horiek erabili ahal izateak beldurra sortzen duelako.

#### 4. ETXEBIZITZARIK GABEKO FAMILIEI EMANDAKO LAGUNTZA

Une honetan, familien larrialdiko harrera, besteak beste, udal harrerako zentroetan egiten ari da. Adin txikikoak dauden neurrian, baliabide horiek ez dira egokiak profil horren laguntzarako, eta bizikidetzak unitateak (partekaturiko bizilekuak eta etxebizitzak, besteak beste) neurri egokiagoak dira eta hobeto egokitzen dira euren beharrianetara.

Hala eta guztiz ere, arazo horren gailentasuna nahiko desberdina da. Horrela, Bizkaian eta Gipuzkoan ez da inolako dispositiborik martxan jarri profil horren laguntzarako. Araban, berriz, Ibiltari izeneko programa garatu dute familia errumaniar ibiltariaren profilari laguntza emateko (gehienbat, ijitoak), azken urteotan horien presentziak gorakada handia izan baitu.

Beste alde batetik, bikoteen intimitateari eta espazioari laguntza emateko baliabideak oso gutxi dira gaur egun. Orokorrean, ez da kontuan hartzen laguntzako baliabideak erabiltzen dituzten pertsonen sexualitatea.

#### 5. ETXEBIZITZARIK GABEKO EMAKUMEEN AUKERAK

Etxebizitzarik gabeko emakumeen taldea, gaur egun ere, presentzia urriko errealitatea da, gizarte bazterkeria larrian laguntzeko dispositiboetan. Hala eta guztiz ere, hori lotuago dago eurentzako aukera interesagarrien urritasunarekin, emakumeen arteko “etxegabetasuna” egotearekin baino.

Gaur egun, emakumeek erabili ezin dituzten baliabideak gutxi dira; aldiz, horien kasuan ekintza positiboak aplikatzen dira. Baliabideak erabiltzeko zailtasunak, agian, “gutxiengoan egoteko” sentimenduarekin erlazonaturik daude; hau da, ezeroso daude edo uste dute ez dela euren beharrianak betetzeko lekua, eta horrela, “beldurtuta” sentitzen dira.

Emakumearen baliabiderik gehienak bakarrik dauden eta familia erantzukizunak dituzten emakumeen beharrianetan laguntzeko diseinaturik daude, edo generoko biolentziako egoeran dauden emakumeen beharrianetan laguntzeko; “baliabide mistoak”<sup>98</sup>, izan ere, gizonentzat diseinaturiko eta “pentsaturiko” baliabideak dira eta emakumei ere horiek erabiltzeko aukera ematen zaie.

---

<sup>98</sup> Gizonen eta emakumeen laguntzarako baliabideak eta dispositiboak.

## 6. PRESOAK ETA PRESO IZANDAKOAK

Kontsultaturiko pertsonak esandakoaren arabera, espetxetik irteteko prozesuak bizi dituzten pertsonak gizarte ahultasun handiko egoeran eta bazterkeria larriko prozesuetan sartzeko arriskuan daude, baldin eta beharrezko laguntzak lortzen ez badituzte. Horri dagokionez, bi talde oso ahul identifikatzen dira: erregulatutako dokumentaziorik gabeko etorkinak eta emakumeak.

Administrazio egoera irregularreko etorkinen kasuan, horien egoera oso ahula estu lotuta dago espetxetik irtetearen dirulaguntzak kudeatu ezin izatearekin, dokumentazioa erregulatutako ez dutelako. Horrela, dokumentaziorik ez dutenez ezin dute espetxetik irteteko dirulaguntza tramitatu, espetxean lan jardueraren bat garatu dutenean.

Bestalde, esaten da sistemak bazterkeria estrukturala garatzen duela espetxean dauden emakumeen aurka; izan ere, horiek aukera gutxiago dute hirugarren graduako erregimenean, eta, gainera, drogamenpekotasunetan eta lanerako orientazioan nahiz lana bilatzean ere aukera gutxiago dute, ez baitago errealitate horretan laguntzeko baliabiderik edo dispositiborik, edo egotekotan ere horiek oso urriak baitira.

## 7. AISIALDI ETA ASTIALDI PROGRAMAK

Etixerik gabeko pertsonen laguntza garrantzi urria eman zaie aisialdiari eta astialdiari, halako pertsonen bizi-ibilbidean. Horri dagokionez, asteburuetako eta jaieguneko jardueretarako babesik eza, kontsultaturiko pertsonak diotenez, funtsezko hutsunea da halako pertsonekin egiten den lanean.

Horrela, jarduera horiek bi orientazio nagusirekin egitea proposatzen da:

- Kalteak murrizteko eta oinarrizko beharrezkoak betetzeko esku-hartze ereduaren barruko jarduerak, “kontsumo handiak” eta narriadura maila altuak dituzten pertsonen aisialdirako eta astialdirako aukerak emateko, eta, horrela, kalteak eta kontsumoko mailak murrizteko.
- Jarduera dibertsifikatuak eta biztanle guztiarekin partekaturiko lekuetan egingarriak; horiek, ahal den neurrian behintzat, jarduera normalizatuetan integratu dira.

## 8. BALIABIDEEN IRISGARRITASUNA

Etixerik gabeko pertsonen laguntzeko dispositiboaren kudeaketaren ardura duten erakundeak kezkatzen dituen beste gauzatariko bat dispositibo horien erabilgarritasuna da, hori bi ikuspegitik begiratuta:

- Erabilgarritasun fisikoa: gaur egun, mugikortasun urriko pertsonak ezin dituzte dispositiboak erabili.
- Babesaren erabilgarritasuna: lekuak malgutu eta eskakizun maila baxuko egiturak sortu behar dira, euren narriadura fisikoaren, psikikoaren edo burukoaren eraginez edo euren bizi-unearen ondorioz eskakizun maila altuak erabili ezin dituzten pertsonak oinarrizko beharrezko laguntzako baliabideetatik kanpo ez gelditze.



## 9. BAZTERKERIA MAILEN NAHASTEA

Gaur egun, laguntzako dispositiboetan maila edo egoera desberdinak nahasten dira: apurtze egoera jakinen ondoriozko gizarte ahultasunean daudenak eta ibilbide luzeko bazterkeria larriko prozesuetan daudenak.

Horri dagokionez, ez dago apurtze eta ahultasun egoeretarako benetako laguntzarik, eta ez dago laguntza maila egokirik edo erantzun egokirik; izan ere, kasurik gehienetan, dispositiborik gehienak berehalako beharizan beraren laguntzara bideratzen dira. Horrenbestez, sistemak ezin ditu lagundu une jakinean gertatzen diren ahultasun egoera guztiak, eta ostatu babes bera eskaintzen zaie ahultasuneko egoera jakinean dauden pertsonari eta egoera hori nahiko kroniko bihurtuta duten pertsonari; horrela, nahasi egiten dira bazterkeria maila desberdinak.

Hala eta guztiz ere, mailen arteko nahaste hori beti ez da modu negatiboan baloratzen; kontsultaturiko pertsona batzuek esan dutenez, zenbait kasutan bazterkeria mailen aniztasuna eta bizikidetzaren ona da narriadurarik txikiena duten pertsonak aldaketa prozesuan dauden beste pertsona batzuen erreferenteak izateko. Hori dagokionez, kontuan hartu behar da halako baliabideetara joaten direnen egonkortasun emozional handiagoa ona dela gizarte loturak eta halako dinamika sortzeko.

## 10. ERROTZEA ETA BIZITZA OSORAKO ERREFERENTEAK

Orokorrean, baliabideen diseinuan ez da “errotzeko” aukera aintzat hartzen; izan ere, pertsonen egoera ezegonkorra da eta, batzuetan, ezegonkortasun hori ez da egokitzen etxerik gabeko pertsonen profil batzuen beharizanetara. Horrela, esate baterako, kontsultaturiko pertsona batzuek esandakoaren arabera, beharrezkoa da egoitza egitura egonkorrak sortzea, “familia eratu” ahal izateko eta, horrela, baliabidea uzteko erabakia bizitza, familia edo leku hobea aukeratzearen eraginezkoa izateko.

Helburua ez da etsipenean sartzea eta egoera oso kronikoa duten pertsonak daudela pentsatzea, hau da, gizarteratzeko esku-hartzea planteatzeko aukerarik ematen ez duten pertsonak daudela pentsatzea. Helburua horiei bizitza osorako erreferentea eskaintzea da; izan ere, zenbait kasutan, pertsona batzuen autonomia ezak bizitza osorako erreferentziak eta laguntzak behar ditu. Hala eta guztiz ere, funtsezkoa da oreka bilatzea, prozesu luze horien instituzionalizazioa eragiteko; horri dagokionez, esku-hartzean autonomia nagusitu behar den arren, horrek ez du esan nahi inolako zaintza edo babesa egon behar ez denik.

## 11. HARREMAN BEHARRIZANETARAKO LAGUNTZA

Etxerik gabeko pertsonen laguntza, orain arte, beharizan materialak betetzean oinarritu da, eta arreta gutxi eskaini zaio harremanen arloko beharizanak betetzeari; beharizan horiek estu lotuta daude halako pertsonen bazterkeria larriko egoerarekin.

Sektoreko ahultasun bat, egon ere, harremanen arloko beharizanei eskaintako arreta urriarekin eta pertsona horiek euren egoera adierazteko lekurik ez edukitzearekin erlazionaturik dago. Harremanetarako lekuak sortu eta lan enpatikoa nahiz entzute-

lana garatu behar da. Profesionalarekiko lotura, zenbait kasutan, aldaketa prozesua hasteko “eragilea” izaten da.

Narriadura maila altuak dituzten pertsonen egoera ez da konpontzen oinarritzko beharrianak beteta; izan ere, lana autoestimua garatzean eta euren burua “baliozko pertsonatzat” ikustean oinarritu behar da, eta pertsonak euren trebetasunak gauzatzeko gauza direla sentitu behar dute.

### 5.2.4.3. INDARRAK: SENDOTU BEHARREKO ALDERDIAK

EAEen etxerik gabe eta gizarte bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen ematen zaien laguntzan, indar handiko elementuak daude, eta beraz, sendotu beharreko alderdiak aurkituko ditugu. Indar horiek barne azterketan identifikatu dira, hau da, kontsultaturiko pertsonekin sektoreko ahulezia eta indarrei buruz egin den azterketan<sup>99</sup>, eta horretarako, AMIA teknika erabili da. Horri dagokionez, honako hauek aipa daitezke:

#### 1. ADMINISTRAZIOAK SEKTOREA ZUZENTZEKO ETA EGITURATZEKO DUEN ALDEKO JARRERA

Egindako kontsultetatik ondorioztatzen denez, erakunde publikoak prest daude erregulazio funtzioa onartzeko eta sektorearen planifikazio estrategikorako prozesua hasteko, zerbitzua ematen duten erakundeen partaidetzarekin, horiek ere lan honetan laguntzeko prest baitaude.

Besteak beste, laneko taldeak sortu dira eta horietan laguntzan parte hartzen duten eragile guztiak daude ordezkaturak; taldeen helburua, izan ere, ibilbideen diseinuan nahiz zerbitzuak ematean koordinazioa bultzatzea eta diagnostikoak egitea da, laguntzako baliabideek EAEko lurralde historikoetan duten egoerari buruz.

#### 2. ZERBITZUAK EMATEN DITUZTEN ERAKUNDEEN SENTIKORTASUNA ETA SORMENA

Sektorearen sendotasun handi bat, izan ere, laguntzako baliabideak eta dispositiboak kudadzen dituzten erakundeen sentikortasuna eta hurbiltasuna da, ahultasun eta bazterkeria handieneko egoerei dagokienez. Horrela, etxerik gabeko egoeran dauden pertsonakiko lotura gaitasun handia ikusi da, eta horrek eragin zuzena izan du emandako zerbitzuaren kalitatean.

Beste alde batetik, erakundeek halako erakundeei emandako laguntzan erakutsitako malgutasun handiagorekin eta sormen gaitasun handiagorekin eraginez, erantzun berriak diseinatu dira eta hori lagungarria izan da sistemak integrazio handiagokoak diren ereduarentzat bilakaera izateko. Gainera, gaiarekiko sentikortasun handiagoa sortu da gizartean, eta horrela, etxerik gabeko pertsonen laguntzeko programak eta proiektuak abiatu dira, zuzkidura ekonomikoa izan duten programak eta proiektuak.

<sup>99</sup> Informazioa osatzeko, kontsultatu metodologiari buruzko 2. kapitulua.

### **3. INGURU IREKIKO ESKU-HARTZEA, LAGUNTZA SAREAREKIKO LOTURATZAT**

Inguru irekiko esku-hartze taldeak funtsezko baliabideak dira, zenbait arrazoiren eraginez gizarte laguntzarako baliabideen sarea eskuratu ezin duten pertsonekin harremanetan jartzeko. Halako esku-hartzeek ez dute aurrekontu handirik behar, eta euren arrakasta, izan ere, profesional taldeak pertsonetikiko konfiantza eta lotura erlazioa sortzeko duen gaitasunaren arabera da.

Halako esku-hartzeek emaitza bikainak eman dituzte, laguntzako sarean sartzeko edo horrekiko loturako atetzat, laguntzako baliabide guztietatik kanpo dauden pertsona guztientzat.

### **4. GIZARTERATZE ZENTROAK ERREFERENTZIA LEKUTZAT**

CISek emaitza bikainak eman dituzte, bertara sarritan joaten diren pertsonentzako erreferentzia lekutzat. Bestalde, halako zentroek aukerak eskaintzen dituzte, etxerik gabeko egoeran dauden pertsonen aisialdirako eta astialdirako, eta gainera, aldaketa prozesuak hasteko aukera ematen dute. Halaber, funtsezko baliabideak dira gizarteratze prozesuaren maila aurreratueta dauden pertsonentzat. Horri dagokionez, komenigarria da esku-hartze formula horiek sustatzea, eskakizun mailak ahalik eta gehien dibertsifikatuz, baliabideak pertsona guztien esku egon daitezen.

### **5. SEKTOREKO PROFESIONALIZATZE GERO ETA HANDIAGOA**

Sektorearen sendotasun garrantzitsu bat profesionalizatze gero eta handiagoa izan da, eta hezkuntzaren arloko lanbide profilak sartzea ere oso garrantzitsua izan da. Bestalde, egindako lanarekiko sentsibilizazioak eta lotura pertsonalak ere eragin zuzena izan dute emandako zerbitzuaren kalitatean.

### **6. GIZARTERATZEKO GILTZA: BOLUNTARIOAK**

Boluntarioek halako egoeren laguntzan egindako lana (profesionalen esku-hartzearen osagarritzat) funtsezko elementua da zerbitzuaren prestazioa indartzeko eta laguntzaren hurbiltasuna nahiz kalitatea handitzeko. Bestalde, boluntarioek egindako lana eta komunitatearen “normaltasunean” sarturiko jardueren diseinua elementu guztiz integratzaileak dira.

Hala eta guztiz ere, kontsultaturiko pertsona batzuek esan dutenez, beharrezkoa da laguntzaren egitura, antolaketa eta diseinua guztiz profesionalizaturik egotea eta boluntarioen lanak beste arlo batzuetan oinarritzea.

### **7. ERREALITATEAREN EZAGUPENA, PLANIFIKAZIOAREN ETA ESKU-HARTZEAREN AURRETIAZKO PAUSOTZAT**

Ikerketa honen garapenarekin batera, denborari dagokionez, administrazio arlo desberdinetatik garaturiko beste bi ekimen ere garatu dira:

- *“Etixerik gabeko pertsonak. Ostatu proposamenei buruzko irizpena”*. Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak egindakoa.
- *“Etixerik gabeko pertsonen buruzko inkesta”*. Estatistikaren Euskal Erakundea (EUSTAT).

Halaber, etxerik gabe eta gizarte bazterkeria larriko egoeran zeuden pertsonen buruzko lurralde edo udalerrri mailako diagnostikoak ere bazeuden:

- *“Bizkaian gizarte bazterkeriako egoeran dauden toxikomanoen taldearen arazoak eta beharriak”*. Bizkaiko Foru Aldundia. 2003ko maiatza.
- *“Bilboko etxerik gabekoekin jarduteko proposamena”*. Inter-Áreas taldea, bazterkeria larriko egoerarako. Bilboko Udala. 2004ko maiatza.
- *“Gipuzkoako etxerik gabekoekin laguntzarako zerbitzuak eta zentroak”*. Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa-SIIS. 2004ko uztaila.

Kontsultaturiko pertsonen ikerketa eta diagnostiko horiei buruzko balorazio positiboa egin dute; izan ere, agerian gelditu da sektorean esku-hartzen duten eragileek bilgunerako eremuak gaitzearen, koordinatzearen eta oraingo egoerari buruzko datuak aurkeztearen aldeko jarrera dutela. Hala eta guztiz ere, azterketa sakona egin behar da, ikuspegi eraginkorrako batetik begiraturik, eta gainera, azterketa guztietan ikusi diren ahultasunak gainditzeko ekintza zehatzak egin behar dira.

### 5.3. IDEIA NAGUSIEN LABURPENA

Ondoren, aztertutako atalen diagnostikoaren oinarriko ideiak nabarmenduko ditugu: etxerik gabe dauden pertsonen beharriak emandako erantzuna, EAEko laguntza sistemaren diagnostikoa.

#### 5.3.1. ETXERIK GABEKO PERTSONEN BEHARRIZANEI EMANDAKO ERANTZUNA

1. EAEn etxerik gabe dauden pertsonen laguntzak **dimentsio eta konplexutasun maila handia** lortu du, bai laguntzako zerbitzu kopuruaren eta bai lagundutako egoeren aniztasunaren aldetik.
2. Herri administrazioek (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, mankomunitateak eta udalak) eta zerbitzuak ematen dituzten erakundeek etxerik gabe eta bazterkeria larriko dauden pertsonen laguntzan izandako **partaidetza** beti ez da modu koordinatuan garatu.
3. **Etorkinen** presentzia handia detektatu da etxerik gabeko pertsonen laguntza emateko sarean, eta horiek, berez, ez daude muturreko bazterkeria mota honen barruan; izan ere, euren beharriak, batik bat, irregularitasun administratiboko egoerarekin eta etxebizitza lortzeko zailtasunekin lotuta daude.
4. Azken urteotan, herritarrek **ez dute nahi izan** biztanle jakinei (esate baterako, etxerik ez duten pertsonak) zuzendutako zentroak eta dispositiboak hiriguneetan eta egoitza zonetan kokatzerik.

### 5.3.2. LAGUNTZA SISTEMAREN DIAGNOSTIKOA

1. EAEko gizarte esku-hartzearen ezaugarri nagusia gizarte bazterkeriaren laguntzan parte hartzen duten **erakundeen eta administrazioen aniztasuna eta ugartasuna** da.
2. Dispositibo sarearen **eginkizuna** horien beharrianak betetzea da, horretarako eskubidea dutelako.
3. Une honetan, etxerik gabeko pertsonentzako **baliabideen eta dispositiboen** eskaintza, batez ere, EAEko hiru hiriburuetan piltaturik dago; EAE osorako 1.135 plaza daude, eta horietatik:
  - plazen %81,2 egonaldi ertainerako dira;
  - plazen %12,8 sarbide zuzenekoak dira (ez da baldintzarik bete behar).
4. Hamarretik bederatz **50.000 biztanletik gorako udalerrietan** kokaturik daude.
5. **Gaueko babesari** dagokionez:
  - Gaueko zentroak gaua igarotzeko lekuak dira; hala eta guztiz ere, ostatu dispositiboetako plazen urritasunaren eraginez, zerbitzu orokorra ematen da azpiegitura egokirik gabe.
  - Okupazio indizea %100ekoa da eta lagundu gabeko pertsonak gelditzen dira. Horri dagokionez, ostatu zerbitzuetan sarritan pertsona kopuru handiegiari ematen zaio laguntza, eta horrela, kasu batzuetan gainditu egiten dira zentroen mugak.
6. **Eskakizun baxuko baliabideei** dagokienez, bi jarrera identifikatu dira:
  - Alde batetik, eskakizun baxuak indartu egiten du pertsonaren mendekotasun egoera eta, horrela, zenbait kasutan gizarte bazterkeria “kroniko” bihurtzen da.
  - Beste alde batetik, eskakizun baxua hausnarketarako aukerak eskaintzen dituen eremutat hartzen da, pertsona erabiltzaileari dagokionez, baita behaketarako eta deribaziorako eremutat ere, profesional taldeari dagokionez.
7. **Egonaldi laburreko baliabideen asetzea**, hiriburuetan gertatzen dena, bi fenomeno nagusiren eraginezkoa da:
  - EAEko hiriburuetan kokaturiko baliabideek eskaria xurgatzea, 20.000 biztanletik gorako udalerrietan halako baliabiderik ez egotearen ondorioz.
  - Migrazio prozesuak bizi dituzten pertsonak (administrazio egoera erregulatzea eta oinarri-oinarizko beharrianak betetzea) gizarte bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laguntzeko zirkuituetan sartzea.
8. **Lagundu gabeko eskaria**, besteak beste, honako honek azaltzen du:

- Dispositibo batzuetan plaza kopurua oso urria da.
- Pertsona askok ez dituzte betetzen dispositiboan sartzeko baldintzak, baina ez dago beste baliabiderik.
- Pertsona batzuek ez dute joan nahi, dispositibo batzuetako ordutegiaren eta eza-eritako arauen ondorioz.
- Dispositibo batzuetan sartzeko formula, adibidez, zozketa edo txartel bilketa, ez da egokia pertsonak gizarte bazterkerian laguntzeko zirkuituan sartu ahal izateko.

9. **Eguneko babes**a, batik bat, beharrianik oinarrizkoenak betetzera bideraturiko programetan eta zerbitzuetan oinarritzen da (elikadura, jantziak, higiena eta gizarte loturen berrezarkuntza); laguntzako eta banakako izaera dauka. Eguneko babeseko dispositiboaren ezaugarri batzuk honako hauek dira:

- Etxerik gabeko pertsonak gehien erabiltzen dituzten dispositiboak jantziak dira; horietara zuzen-zuzen edo txartelen bidez joan daitezke; txartelok, berriz, udalek edo jantziak kudeatzen dituzten erakundeek ematen dituzte; gaur egun asetze egoeran daude;
- CISEk garapen oso desberdina dute, lurralde historikoaren arabera. Esate baterako, EAE osoko plaza guztien %80 inguru Bizkaian daude:
  - Zentro horietako plazak %70 eskakizun baxukoak dira eta gabezia oso bereziak eta narriadura fisiko nahiz psikiko handiak dituzten pertsonen bideraturik daude.
  - Okupazio indizea eskaintzako plaza kopuru hobezinaren indizea baino askoz ere handiagoa da.
- Inguru irekiko esku-hartzea oinarritzeko zerbitzua da laguntzako dispositiboetan sartu ezin diren pertsonen lehenengo kontaktua egiteko eta prebentzio programak ezartzeko; programa horiek, gizarte bazterkeriako arriskuan dauden gazteei zuzenduta daude.
- Gaur egun, hiru lurralde historikoetan gizarte larrialdiko zerbitzu ona dago. Gasteizen eta Bilboren kasuan, zerbitzua udalerriri mailakoa da, eta Gipuzkoan, berriz, foru titularitatekoa da.

10. Dispositiboaren erabiltzaileen artean **buruko gaixotasunaren** gailentasuna ikusten da. Halaber, eremu egokirik ez egotean, zailagoa da pertsona horien beharriari laguntza egokia ematea.

11. Laguntza sistema **ez da benetako sarea**, gauzak egiteko eta errealitatea "interpretatzeko" modu oso desberdinak dituzten baliabideen, erakundeen eta elkarten egitura baizik.

**ARRETA ALORREKO BESTE  
ESPERIENTZIA BATZUK:  
AIPAGARRIENETAN ZEHAR**





## 6. ARRETA ALORREKO BESTE ESPERIENTZIA BATZUK: AIPAGARRIENETAN ZEHAR

Aurreko kapituluko diagnostikoaren bitartez EAEn arretaren esperientzia zelakoa den jakin eta gero, interesgarri iruditu zaigu beste esperientzia batzuei ere kapitulu bat eskaintzea. Kapitulu honetan “esperientziak” kontzeptupean jarduketa mota desberdinak sartu ditugu:

→ **Arreta zuzeneko** jarduketak: hala nola, egitarauak, baliabideak eta zerbitzuak; batez ere estatu eta nazioarteko esparruetakoak, aurreko kapituluan gure Erkidegoko diagnostikoa izan baitugu hizpide. Helburua jakingarriak izan litezkeen adibideak aurkeztea da, baita, ahal balitz, zati batean zein osorik aplikagarriak izan litezkeen ere. Esperientzia hauek bi arrazoiengatik hautatu dira: batzuk galdetu diegun pertsonak praktika onen adibidetzat dituzten esperientziak dira; besteak halakotzat aitortu dira nazio edo nazioarteko sarietan. Esperientzia batean, planteamenduaz gain, aplikazio praktikoa eta benetako oihartzuna zein den ere interesgarria denez, dauzkagun datuetan oinarrituz egindako balorazio laburra ere erantsi dugu.

→ **Zeharkako arretako** jarduketak: informazio erregistroak, txostenak, ohitura onen eskuliburuak, elkarte sareak eta topaketa foroak, kasu honetan bai EAekoak, bai estatu eta nazioartekoak. Helburua pertsona horiekin zuzenean esku hartu ez arren haien alde lan egiten duten esperientziak ezagutu eta identifikatzea da. Arreta zuzenetik eskaintzen den erantzunari buruzko gogoeta egin, ezagutu eta antolatzeke beharrezkoak diren neurriak eta foroak dira.

Kapitulu honetan jasotako esperientziak daudenetako batzuk baino ez direla, eta esperientzia horien analisia alderdirik esanguratsuenetara soilik bideratzen dela jakin badakigunez, egoki iritzi diogu bibliografiaren kapituluan informazio iturriak aipatzeari, esperientzia horiei, zein kapitulu honetan sartu ez direnei buruz gehiago jakin nahi duten pertsonak nora jo izan dezaten.

Arreta zuzen zein zeharkako esperientzia eta adibide hauek aurkezten hasi baino lehen, aipatu behar dugu EAeko profesional batzuk bat datozela gai honetan erreferentzia diren esperientzietako asko gure Erkidegoan garatzen direnak direla. Horietako batzuk aitzindari eta beste Erkidego batzuetarako eredugarri modura aipatzen dira, hala nola, Bietxeak, Bilbon, VIHdun pertsonen arretarako beste zentro batzuentzat erreferentzia izan zena, edo Gasteizko arreta planteamendua, Udal horrek Arabako Foru Aldundiari begira lortu duen autonomia, gizarte sistema egokia diseinatu eta sortzeko garaian iriz-

pide tekniko eta politikoen egokitasuna eta gizarte zerbitzuen garapen maila bereziki baloratuz, horietako batzuk saturatuta daudela aipatu arren. Gasteizko jarduketa zehatzei dagokienez, Larrialdiko Arreta zerbitzua, Udal Atalaren esperientzia eta Udaltzaingoarekiko lankidetzeta estua nabarmentzen dira. Lurralde mailan, berriz, Arabako Foru Aldundiaren mendeko Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen arreta eredia aipatzen da: hirugarren sektoreko erakundeek kudeatzen duten finantzaketa eredu publikoa. Bilboko Gizarte Larrialdien Zerbitzua eta, Gipuzkoan, Donostian RAIS taldeak bideratzen duen kale arreta eta Traperos de Emausek garatzen dituen gizarterapen prozesuak ere azpimarratzen dira.

Jarraian kapitulu honetan hizpide nagusi diren arreta zuzen eta zeharkakoen esperientzia eta adibide desberdinak aurkeztuko ditugu.

## 6.1. EAETIK KANPOKO ARRETA ZUZENENKO ESPERIENTZIAK

Asko eta asko dira alderdi desberdinengatik, esaterako, ikuspegiarengatik, metodologia-rengatik, berritzaileak direlako, edo beren emaitzen oihartzunarengatik aipagarriak diren arreta esperientziak; alabaina, azpi-kapitulu honen mugak bi irizpide metodologikoren arabera murriztu ditugu:

- 1) Ikerketa hau egin dugunean **kontsultatu ditugun pertsonen** arretan erreferentziako modura **aipatu eta bereiztu** dizkiguten esperientziak. Kontsulta horrek erakutsi digu profesionalen artean oso gorabehera handiak daudela beren eguneroko jardun esparrutik kanpo garatzen diren arreta esperientzia eta ereduaren gainean dakitenari buruz.

Horien artean, eta **estatu mailan**, batez ere bi esperientzia, Valentzia eta Madrilekoa, aipatzen dituzte, eta horietatik garatuko ditugu kapitulu honetan:

- CAST egitaraua - Aterperik gabeko Pertsonen Arretarako Valentziako zentroa; hau da, ziurrenik, esperientziarik baloratu eta ezagunena.
- Etxerik gabeko Pertsonen Arretarako Madrilgo Udalaren egitaraua, non drogen mendeko pertsonen arreta zentroak sartzen diren (CAD).

Gutxiago aipatu diren eta hemen garatu ez ditugun esperientzia batzuk ere badira, hala nola, buruko gaixoen arretarako hainbat baliabide, Zaragozako udalaren jarduketa integralak eta estatuko elkarte desberdinen arreta egitarauak; bibliografiaren kapituluaren esperientzia horiei buruzko kontsulta erreferentziak sartu ditugu.

**Nazioartean** bi dira gehien ezagutu eta baloratzen diren arreta ereduak: britainiarra eta frantsesa. Biak bat datoz etxebizitza eskueran izatea giltzarria dela etxerik gabeko pertsonen arretan:

- Britainiarren kasuan, gizarte laguntzaileen autonomia eta zeregin erabakigarria bereziki baloratzen dira. Eskoziako eta, bereziki, Glasgoweko arreta politikak nabarmentzen dira.
- Frantsesen kasuan, osasun arreta nabarmentzen da, batez ere buruko gaixoen-tzako ospitaletako arreta, eta pertsonak gizarteratzeko prozesuan parte hartzen

duela, Iparraldeko herrialdeetan ere gertatzen den bezala. Era berean, Frantzian, Pedro Meca, Gaueko Lagunen lantaldearen burua nazioarteko erreferente modura ageri zaigu. Talde horrek arreta esperientzia ona garatu du “La Moquette” Pariseko auzo latinoan.

Holanda ere aipatzen da, gutxiago aipatu arren, espetxe eredu alternatiboengatik eta Amsterdam hiriarengatik, zehazki, heroina banatzeko eta ziztada seguruetarako egitarau sozio-sanitarioaren osagarri diren erdi-tutoretzapeko pisuen egiturarengatik. Bestalde, FEANTSA hiruhilabetekariak, 2004ko Udaberriko alean, Europakoak ez diren herrialdeetako arreta esperientzia desberdinak aurkeztu ditu: Australia, Kanada, Japonia eta Estatu Batuetakoak. Kapitulu honetan ez dira Holandako eta FEANTSAk argitaratutako esperientziak garatzen, baina kontsultarako erreferentziak bibliografiaren kapituluak jaso dira.

- 2) Foro desberdinetan<sup>100</sup> **eginbide on modura aintzatetsi eta saritutako esperientziak**, etxerik gabeko pertsonentzat beren beregi bideratuta egon zein ez, asko direlako halako pertsonengana xedatuta dauden arren, gai horri buruz berariazkoak ez diren foroetan saritzen dituzten esperientziak.

Nazioartean, jatorriz foro horietako bat Tokiko Aitzindaritzza eta Eginbide Onen Egitaraukoa den Nazio Batuen Habitaten II. lehiaketa da; Istanbulen 1996an Giza Asentamenduen gaineko Nazio Batuen Bigarren Konferentziaren –HABITAT II- baitan berariazko egitarau modura sortu zen. Herrialde desberdinetako Nazio Batzordeei Konferentziaren helburuei erantzuten zieten eginbideen adibideak biltzeko eskatu zitzaizen, hiri eta herrietako bizimodua hobetzeko, iraunkortasun irizpideetatik, eraginkorrak direla frogatu den hiri politika eta jarduketak identifikatu nahirik.

Herrialde horietako batek, Arabiar Emirerri Batuek, Aitzindaritzza eta Eginbide Onen Egitarauko Habitat II Konferentziak bultzatutako jarduketan parte den nazioarteko foro bat garatu dute, non Dubaiko udalak babesten duen esperientzia errealak saritzeko bi urtean behingo nazioarteko lehiaketa ere badagoen.

Estatuan, 2000n Fundación Telefónicak babestu eta OSAPS-Gizarte Egitasmoen Jarraipen eta Sostengurako Bulegoaren bidez, Madrilgo Comillaseko Unibertsitateko Pedro Cabrera irakaslearen eta bere laguntzaile taldearen laguntzarekin garatu zen “Un techo, un futuro” lehiaketa deitu zuten. Lehiaketa hartan, estatu mailan, etxerik gabeko pertsonentzat bideratutako esperientziak saritzen ziren; kontsultarako aipamenak bibliografiaren atalean dauzkazue.

Hona hemen kapitulu honetan garatzen diren esperientzia sarituak:

- Estatuko hiri desberdinetako gizarteratzen laguntzeko RAIS sarea.
- Bartzelonako Rauxa elkarteko kaletar kronikoarentzako arreta integraleko egitaraua.

<sup>100</sup> Bakoitzean ageri da zein urtetan saritu zuten.

- Erresuma Batuko esperientzia desberdinak: etxerik gabeko pertsonen aldizkaria, eta Londreseko erdialdean etxerik gabeko pertsonen laguntzeko ekimena.
- Etxerik gabekoentzako etxebizitzak, Finlandian.
- Arreta eredua eta etxebizitza eta etxerik gabekoen prebentziorako egitarau desberdinak Vienan (Austria).
- Etxerik gabeko familientzako egitaraua, Los Angeles – Kalifornian, Amerikako Estatu Batuetan.
- Komunitateen sostengurako laguntza ekimena, Quebec-en (Kanada).

Erreferente modura aipatutako eta eginbide on modura saritutako esperientziak aurkezteko, lurralde esparruaren arabera ordenatu ditugu: estatukoak eta nazioartekoak. Era berean, azpi-kapitulu honen amaieran, behin esperientzia guztiak aurkeztu ondoren, esperientzia bat eginbide on bihurtzen duten ezaugarriei buruzko atala sartu dugu. Horretarako, aurkeztutako esperientzietako elementu komunak eta ikerketa honetan lagundu diguten lantalde egonkorretan identifikatu direnak analizatu ditugu.

### 6.1.1. **ESPAINIAR ESTATUA**

#### 1. **VALENTZIAKO UDALA: ATERPERIK GABEKO PERTSONEN ARRETA-RAKO ZENTROAREN EGITARAUA - CAST**

Valentziako Udalaren Gizarte Ongizate eta Integrazio Zinegotziaren atalak garatu duen Aterperik Gabeko Pertsonen Arretarako Zentroaren Egitaraua 1995ean hasi zen, udal erantzun modura, identifikatzen ari ziren etxerik gabeko eta, zehazki, gizarte zerbitzuetara etortzen ez ziren, oso kronifikatuta zeuden, gizarteratzeko aukera gutxi zuten eta laguntzak jasotzeko uzkur ageri ziren pertsonen perfilak eta beharrak identifikatu zirelako.

Koordinaketa, partaidetza eta erantzukizun-kidetzako printzipioetan oinarritzen dituzte jarduerak, Udala eta erakundeak inplikatur. Izan ere, erakundeen artean irizpideak batzen dituen arreta koordinatu eta egonkorreko sarea izatea erabakigarria eta mesedegarria izan da CAST sortzeko, etxerik gabeko pertsonen arretarako beste zerbitzu batzuen osagarri. Osasun, lege eta gizarte alorretako erakunde publiko eta pribatuekin koordinatzen da, eta erakunde pribatuekin itunak egiten dira, profesionalak zerbitzu horretara sartzeko.

Zentro hau baliabideen sarera sartzeko leihatila bakar modura eratu da; hortxe hartu eta baloratzen dira pertsonak, hortxe proposatzen zaie bakoitzarekin esku hartzeko plana, eta hortik bideratzen dira dagokien baliabideetara. Zentroak zerbitzu, baliabide eta erabiltzaileei buruzko informazio guztia ere zentralizatzen du. Funtzionatzeko, beharrezkoa du administrazioaren sail desberdinen (gizarte, lege, osasun...), Udaltzaingoarean eta pertsona horiek itun eta dirulaguntzen bidez artatzen dituzten erakundeen arteko koordinaketa eraginkorra. Koordinaketa hori gauzatzeko, alderdien arteko komunikazio arina behar da eta, horretarako, hamabost egunean behin bilera

egiten dute, ekintza larroak eta jarduketa protokoloak erabakitzeko. Koordinaketaren helburua arreta orokor, oso eta eraginkorra eskaintzea da, baliabiderik, zerbitzurik bikoiztu barik, eta daudenak errentagarri bihurtuz.

Etixerik gabekoekin esku hartzean kaleko lana eta pertsona bakoitzaren beharren arabera arreta pertsonalizatu eta malgua sustatzen da, bakoitzarentzat bere beharrei osotasunean erantzun egiteko esku hartzeko egitasmoa diseinatu. Pertsonari berari dagokionez, baliabideen aprobetxamenduan duen erantzukizuna indartzen da, eta aldatzeko bere prozesuan inplikarazten zaio.

Pertsonaren arretaz gain, egitarauak errealitatea behatu eta aztertzea ere aurreikusten du, egunero-egunero datuak erregistratuz, hobetzeko behar diren proposamenak identifikatuko dituzten azterlan eta txostenak egiteko, eta informazio hori arretan inplikaturik dauden erakunde eta eragile guztiei emateko.

Hona hemen zer baliabide dituen zentroak:

- kaleko lanerako taldeak;
- CASTi laguntzeko zentroa, tuberkulosiaren tratamenduan;
- ospitaletako plazak, destoxikapenerako;
- aterpetxeak eta tutoretzapeko etxebizitzak.

Esperientzia honen interesa zein den eta kontsultatutako pertsonen zergatik aipatu duten argitzeko, esango dugu etxerik gabeko pertsonen arreta integralean positiboki baloratu diren faktore batzuk daudela: batez ere, leihatila bakarra daukala, kaleko lana sustatzen duela, beste baliabide eta esparru batzuekin elkarlanean aritzen dela, eta informazioa jasotzen duela, gainerakoekin partekatzeko. Egitarau honen benetako eragina eta izateko aplikazioa zein diren zuzenean jakin ez badakigu ere, esperientzia interesgarria iruditzen zaigu, planteamenduaren aldetik behinik behin.

## 2. MADRILGO UDALA: ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAKO ARRETA EGITARAU

Madrilek etxerik gabeko pertsonen arretan oso ibilbide luzea egin dauka eta, horregatik, Etixerik gabeko Pertsonen Arretarako Udal Egitarauan baliabide ugari sarea koordinatzen dute; egun, egitarau, baliabide eta zerbitzu desberdinak koordinatzen dira hor, eta hauek dira interesgarrienak:

- San Isidro Herrerako Udal Zentroa, egitarau desberdinekin; aipagarrienak buruko gaixoentzat, alkoholikoentzat eta drogaren mendekoentzat dira. Azkeneko horretan, nabarmenena Drogen Mendeko Pertsonen Arreta Zentroek (CAD) egiten duten lana da; zentro horietan jakintza arloko arteko arreta garatzen da, zentroan eta zentrotik kanpo, pertsonaren gizarte ingurunean esku hartzen dute. Arreta ikuspegi komunitariotik bideratzen dute, beste erakunde batzuekin lankidetzan, kasuen eta bideratutakoen jarraipenak eginez.
- Eskakizun txikiko zentroak, tuberkulosiaren prebentziorako arretarekin, Gobernu Autonomikoaren Osasun Publikoko Sailarekin elkarlanean.

→ Hotzaren kontrako udal kanpaina: Kanpaina honen alderdi positiboak hor dauden arren, FEANTSAREN<sup>101</sup> urteko txosten batek dio zenbait erakunde kritikoak direla kanpaina honen alderdi batzuekin, hala nola, Casa de Campoko aterpetxeetan pertsonak lurrian lo egitearekin, gauez pertsona horiek hiriaren erdigunetik aterpetxeetara eramaten dituzten autobusek goizez jatorrira ez itzultzearekin, eta 0°tik beherako tenperaturekin baino ez zabaltzearekin.

Gainera, 2004tik hona Samur Sozial, Etxerik gabeko Pertsona eta Gizarterapen Saila ere ari da, eta hiru baliabide biltzen ditu: kalean esku hartzeko taldeak, Samur Sozial Nagusia, larrialdi egoeretako esku hartzeetarako koordinatzaile eta kudeatzaile nagusi modura, eta Larrialdi egoeretarako esku hartzeak sostengatzeko baliabideak, hala nola, Behin Behineko Bizitokiko Atalak.

Esperientzia honen interesa, galdetutako pertsonen iritziz, Drogen Mendeko Pertsonen Arreta Zentroek (CAD) egiten duten lanean dago, jakintza arlo desberdinen arteko eta komuniteterako ikuspegiaz ari direlako.

### 3. MADRIL, VALENTZIA ETA EAE: GIZARTERATZEN LAGUNTZEKO SAREA-RAIS<sup>102</sup>

RAIS elkarteak 1998an sortu zen Madrilen, eta ondoren Valentzian eta EAEn ere finkatu zen. Hasierako helburua gizarte prentsa saltzeko egitasmoa burutzea zen, eta horri, urte beteren buruan, kaleko lanaren egitasmoarena gehitu zioten, izugarri desegituratuta daudenez baliabideetara iristen ez den jende asko dagoela ohartu zirenean.

Arreta psikiatrikoa daukan kaleko egitasmo hau sare komunitarioak sortuz indartzen da, ekintzak ez baitira etxerik gabeko pertsonen arretara soilik xedatzen, inguruko auzokide, dendari eta elkarteekin harremanetan ere jartzen dira, sostengu naturalen sareak sortzeko; izan ere, helburu hori iritsi izana da lorpenik esanguratsuenak.

Egindako ahaleginik handienetako bat gizarte prentsa irudia herritarren artean ez eze, arretaren alorreko profesionalen eta etxerik gabeko pertsonen beraien artean ere hobetzerak bideratu da. Irudi hori hondatuta zegoen irabazi asmodun erakundeek irabazi asmoz egindako jarduera jakin batzuekin. Horretarako, Kaleko Egunkariaren Nazioarteko Sarearen (International Network of Street Papers-INSP) ildoko jarduera estrategiak garatu dira, kalitatezko prentsa eskaintzeko, saltzaileak babestu eta hez-teko, eta beste erakunde eta profesional batzuekin koordinatzeko.

Jarduketa horiek guztiak burutu ahal izateko, funtsezkoa da INSP eta FEANTSAREN kideekin esperientziak trukatzetik, eta administrazio publikoekin koordinatu eta garga-penerako lankidetzan aritzetik abiatuta egindako lana. Era berean, kudeaketa egokia

<sup>101</sup> FEANTSA. "Situaciones de emergencia e intervención en periodos de crisis en las grandes ciudades del Estado Español". 2005eko urteko txostena.

<sup>102</sup> 2001 ean ekintza plana Eginbide On modura aintzatetsi zioten Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren Baitarapen Planean. GOOD saria Dubaiko 2002ko Lehiaketan.

bermatzeko, kalitatezko saila ere badaukate eta profesionalekin elkarlanean aritzen dira ebaluazioko adierazleak definitzen.

Esperientzia hau interesgarria da nazio mailan eta nazioartean duen aintzatespenarengatik; egitasmoari buruz izatezko kanpoko ebaluaziorik ez daukagun arren, aipagarria deritzogu, erakundearen ibilbidea ezagutzen dugulako eta sari horiek esperientziaren egokitasuna adieraz lezaketelako.

#### 4. BARTZELONA: RAUXA ELKARTEA ETA KALETAR KRONIKOAREN ARRETA INTEGRALA<sup>103</sup>

Rauxa elkarte etxerik gabeko pertsona kronikoen, nagusiki alkoholikoen arretara begira ari da; sari desberdinak jaso ditu eginbide onen esperientzia modura, Bartzelonan alkoholismoaren tratamendu integralerako bere egitasmoarengatik. Egitasmo hori udal, autonomia eta estatu mailetako administrazioek finantzatzen dute eta lau fase dauzka: motibazioa, tratamendua hastea, garatzea eta gizarteratzea.

Esperientzia interesgarria dela adierazten duten lortutako aintzatespenak eta arrakastak hor dauden arren, eguneroko lanean zailtasunak ere izaten ditu; aipagarrienak finantzaketa egokirik ez izatearekin, profesional eta administrazio eta osasun zereginetarako boluntario gutxi izatearekin eta esparruko erakunde publiko eta pribatuekin oso koordinaketa urria izatearekin lotuta daude.

#### 6.1.2. NAZIOARTEKO ESPARRUA

##### 1. ERRESUMA BATUA: ETXERIK GABEKO PERTSONEN ALDIZKARIA, “*THE BIG ISSUE*”<sup>104</sup>

Aldizkari hauetan aitzindaria “*The Big Issue*” britainiarra da; 1991n argitaratu zuten lehenengoz Londresen, Body Shop fundazioak finantzatuta; hasieran hilabetekaria zen eta 1993an astekari bihurtu zen.

Auto-laguntzaren filosofian oinarrituta, helburua etxerik gabeko pertsonen beren buruari duintasunez eta beren ahaleginez laguntzeko tresna eskaintzea zen. Saltzaileek editorialari “erosten” diote aldizkaria, eta jendeari “saldu”, prezioaren diferentzia mozkin modura irabaziz.

Aldizkariak errentagarritasuna edukien kalitatearekin eta profesionaltasunarekin konbinatzen du, jendeak aldizkaria edukien erakargarritasunarengatik eros dezan, eta ez saltzen duenari mesede egitearren. Filosofia horren haritik, ekimen gehiago sortu da Erresuma Batuan eta Europa, Hegoafrika eta Australiako hogeita hamar bat herrialdetan ere, kaleko aldizkarien Nazioarteko Sarearen sostengua eta aholkularitza

<sup>103</sup> Reina Sofia 2000ko Droga mendetasunen Sari Nazionala, eta Dubaiko Lehiaketako 2002ko GOOD saria.

<sup>104</sup> BEST saria, Dubaiko Lehiaketan, 1996an.

dituztela (International Network of Street Papers-INSP). Besteak beste, RAIS elkar-tearen "*También Contamos*" aldizkaria Sare horretako estatuko kidea da.

Esperientzia hau herrialde desberdinetara zabaldu izanak eta denboran zehar irau-teak interesagarria dela erakusten duten bi ezaugarri dira; esperientiaren garrantzia nazioarteko sari batek aintzatetsi du, gainera.

## 2. ERRESUMA BATUA: ATERPERIK GABEKO PERTSONEI LAGUNTZEKO EKIMENA, LONDRESEKO ERDIGUNEAN<sup>105</sup>

Gobernu britainiarraren ekimen hau 1990ean hasi zen, eta pertsonak kale gorrian lo egin behar izan dezaten saihestu nahi du. Horretarako arretaren planteamendu koordinatua hautatu da, etxebizitza, segurtasun, gizarte segurantzaz, osasun, enplegu eta barruko arazoetatik, begiratuta, baliabide publikoak (gobernu zentralarenak eta tokiko gobernuenak) eta pribatuak (boluntarioen elkarteak eta enpresak) konbinatuz. Erakunde publiko eta pribatu hauek guztiek partzuergo bat eratu dute, pertsona horien beharrak identifikatzen eta erantzuten saiatzen batera aritzeko. Gainera, ministerioen arteko talde bat ere sortu da, ofiziala, Etxebizitza Ministroaren zuzendaritzapean, aterperik gabeko pertsonengan ikusi diren kausa ugariak eta kasu desberdinak jorrazteko eta, horrela, erantzunik egokienak zein diren zehazteko.

Koordinaketa eta elkarlan horiek baliabideen erabiltzaileengana eta herritarrengana ere eramanez dira; erabiltzaileei zuzenean galdetzen zaie iritzia, eta herritarrei ere iritzia galdetu zaie eta pertsona horien arreta komunitate osoaren onerako dela adierazi zaie.

Baliabide eta zerbitzu desberdinak finantzatu eta garatu dira; hemen bi egitarau nabarmenduko ditugu: Neguko aterpearen urteko egitaraua, eta bizitoki iraunkorren egitaraua. Tokiko agintariekin, ingurumen sailarekin, boluntario elkarteekin eta eraikuntza sektoreko irabazi asmorik gabeko erakundeekin elkarlanean garatzen dira; orubeak eta lokalak, eta etxebizitzak bilatzen dituzte, bizitoki iraunkorretarako. Leku horiek tokiko agintarien aholkuei segituz atontzen dira, polizia lizentziak onartzen ditu eta eraikuntzako sektoreko erakundeek lokalak doan eman eta txukuntzen dituzte. Behin txukunduta daudenean, ingurumen sailak egonaldirako dirulaguntzak ematen ditu, tokiko dendek altzariak, etxeko tresnak eta arropak ematen dizkiete eta osasun sailak eta ongintzako erakundeak jendearen osasun beharretaz arduratzen dira.

Izatezko koordinaketak eta elkarlanak egitarauaren arrakasta ziurtatu dute, eta interesa bermatzen diote, egitarauak jasotako saria eman diotenen iritziz behintzat. Gobernu taldearen inplikazio garbia eta aitzindaritzaz daudela ere onartzen da, eta etxebizitza lortzen oso eragin handia izan duela. Zenbakietan oinarritutako ebaluazioa daukagu: ekimen hau abiarazi baino lehen 1.000 pertsonak egiten zuen lo kalean, 1995ean, berriz, aterperik gabeko 270 pertsona zentsatu ziren. Zenbaketa horiek bi urtean behin egin dituzte Etxerik gabeko Pertsonen sarea osatzen duten partzuergoko boluntarioen elkarteek.

<sup>105</sup> GOOD saria, Dubaiko Lehiaketan, 1996an.



### 3. ERRESUMA BATUA: ETXERIK GABEKO PERTSONEN ARRETARAKO POLITIKAK ESKOZIAN

Eskoziak zerbitzu eta baliabide desberdinak garatu ditu etxerik gabeko pertsonen arretan. Aipagarriena Eginbide Onaren Kode bat da, non arreta integrala eta inplikaturako eragile guztien koordinaketa aldarrikatzen diren, eta jarduketa desberdinak, batez ere etxebizitzaren alorrekoak, bideratzen diren, esaterako:

1. Kaleratzeen prebentzioa, etxebizitzaren alorrean: neurri desberdinekin, batzuetan zorra berriro negoziatuz, beste batzuetan bereiztu ondoren senar-emazteen etxebizitzatik alde egin behar duen ezkontideari gizarte alokairuko etxebizitza eskuratzeko lehentasuna emanez.
2. Aholkularitza eta informazioa etxebizitzaren eta prestazio ekonomikoen alorrean: aholkularitza zentroen bitartez, eta baliabideen gidak argitaratuz.
3. Baterako prestakuntza egitarauak: gizarte eta etxebizitza alorretako profesionalentzat, gizarteratzeko banakako planen diseinuan parte dezaten.
4. Erakunde desberdinen arteko lankidetzak egitasmoak: espetxetik irteten diren edo ospitaletan senda agiria ematen dieten etxerik gabeko pertsonen bizitokia bermatzeko.
5. Etxebizitzak zuzkitzea: Udaleri dagokie eta, horretarako, gizarte etxebizitzak dituzte.

Buruko Osasunaren Elkarte Eskoziarrak aterpetxe eta ostatueta eskaintzen dizkie bere zerbitzuak etxerik gabeko pertsonen, eta etxebizitzaren alorreko profesionalen batera aritzen dira pertsona horien arreta integrala emateko.

Glasgowen etxerik gabeko pertsonen arretarekin zerikusia daukaten gaiak udalaren eskumenekoak direnez, etxerik gabeko pertsonen eskubide berriek Udaleri eragiten diote:

1. Etxerik gabeko pertsona guztiek, egoera horren zergatia dena delarik (beren borondatez zein beraiek zuzenean eragin barik), hilabete batzuetarako alokairu-asegurua izateko eskubidea daukate, egoera hori gainditzeko laguntza eskaintzen zaien bitartean.
2. Etxerik gabeko egoerara ez itzultzeko laguntza jasotzeko eskubidea daukate.
3. Ez dute udalarekin duten lotura<sup>106</sup> frogatu behar, Glasgowen etxebizitza eskatzeko.

---

<sup>106</sup> Gure erroldatze kontzeptuekin parekagarria.

4. Beren beharrak lehenets daitezzen eskubidea eta, hartara, hirian ostatu iraunkorra izateko eskubidea daukate.

Etixerik gabeko Pertsonentzako Zerbitzu bat dago, tokiko agintaritzari dagozkion zerbitzuak zentro, bulego eta ostatu iragankorreko sare baten bidez kudeatzen dituen. Osasunaren eta Etixerik gabeko Pertsonen gaineko ekintza plana (2002-2005<sup>107</sup>) ere badago, Glasgoven etxerik gabeko pertsonen beharrak ekintza desberdinen bitartez asetzeko. Era berean, Glasgoweke udalak web orrialde<sup>108</sup> bat ere sortu du, etxerik gabeko pertsonen eta informazioa nahi duten guztiek beren beharrak asetzeko zerbitzu eta baliabide dagoen jakin ahal izan dezaten.

Nazioartean saritutako esperientzia honen interesa batez ere etxebizitza alorreko bere jardueretan dago, horretan ekimen pribatua ere inplikatzeko duela. Plano teorikoan adierazten denez, eragile guztiek eredu honetan koordinatuta egon behar duten arren, eguneroko errealitateak agerian uzten du osasun eta gizarte sistemen artean, etxebizitzaren alorra barne, elkarlanean aritzeko zailtasunak daudela, bereziki oinarrizko arretan, eta buruko osasunaren eremuan. Alabaina, Glasgoweke hiriko aterpetxeetan gizarte eta osasun esparruen arteko koordinaketa estrategiak garatu dira, hutsune hori gaitzera begira. Zenbait udalerritan erakunde publikoetatik koordinatzen dira osasun zerbitzuekin, ospitaletako senda agiriak emateko orduan ondorengo bizitokiaren egoera kontuan hartuko duten planak antolatzen.

#### 4. FINLANDIA: "ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAKO ETXEBIZITZAK", Y-FUNDAZIOARENAK<sup>109</sup>

Fundazio hau 1985ean sortu zuten Finlandiako tokiko agintarien elkarteak, bost hiririk handienek, Gurutze Gorriak, Buruko Osasunaren Elkarteak, eraikuntza alorreko patronalak eta sindikatuek eta alkoholen estatuko Monopolioak. Batez ere bi faktorengatik sortu zuten: batetik, hiri eremuetan, arrazoi desberdinak tarteko, adibidez, langabezia epe luzeak eta gizarte politiken erantzun urria, etxerik gabeko gero eta jende gehiago zegoelako eta, bestetik, NBEk 1987 urtea Etixerik gabeko Pertsonen Nazioarteko Urtea izendatu zuelako.

Gobernu zentralak, Finlandiako makina txanpon jaleen elkarteak eta tokiko agintaritzek finantzatzen dute; tokiko agintaritzak dira, beren eskumenengatik, etxebizitzak erosi eta kudeatzen dituztenak, toki berean pilotzea eta ghettoak sortzea ekidinez. Etxebizitzak Fundazioaren eskuera jartzen dira, eta Fundazioak hautatzen du nor biziko den bakoitzean, eta bakoitzari behar duen laguntza eskaintzen dio; pertsona horiek aktiboki parte hartzen dute gizarteratzeko beren prozesuan. Tokiko udalek alokatzen dituzte pisuak eta, horrela, finantzaketa, erosketa, kudeaketa eta sostengu zereginak askoren artean banatzen dira.

<sup>107</sup> Health and Homelessness Action Plan 2002-2005.

<sup>108</sup> Web orrialde honen aipamena bibliografiaren kapituluan dago.

<sup>109</sup> GOOD saria Dubaiko Lehiaketan, 1998.

Zergatik da interesgarria esperientzia hau? Diseinuarengatik, erakunde publiko eta pribatu desberdinak inplikaturik daudelako, baita eraikuntzaren alorrekoak ere, Londreseko esperientzian antzera. Zelako oihartzuna daukan ebaluatzen adierazlerik ez daukagu, baina nazioartean saritu dutenez, interesgarria irizten diogu.

## 5. AUSTRIA: ARRETA EREDUA VIENAN<sup>110</sup>

Vienako hiriak hainbat sari jaso ditu etxerik gabeko pertsonen arretako egitarau desberdinegatik; lehenengoa 1996koa izan zen, ordura arte pertsona horiek ematen zitzaizkien arretaren gabeziarik garrantzitsuenak, hots, arreta profesionalizaturik ez izatea eta baliabideek gizartean sortzen zuten ezespina, gainditzeko prestatu zen etxerik gabekoak gizarteratzeko Udal plana.

Planak etxebizitzari eta etxebizitza galtzearen prebentzioari heltzen die, bereziki; izan ere, 1996an bi neurri abiarazi ziren:

- Etxebizitzari buruzko Informazio Bulegoa sortu zen, etxebizitza bilatzen aholkuak emango zituen “leihatila bakarra” izan zedin helburuarekin. Horrez gain, urte bete geroago, Etxebizitzaren Burtsa eratu zen, gizartean behartsuenak ziren pertsonak eta, horien artean, etxerik gabeko pertsonak lehenetsiz.
- Kaleratzeko arriskuan zeuden maizterrentzako FAWOS<sup>111</sup> izeneko aholkularitza bulegoa funtzionatzen hasi zen, non kaleratzeko aginduen jakinarazpenak jaso eta pertsona horiekin hitz egiten duten, kasu zehatzaren gorabeherak ezagutzeko eta etorkizunerako irtenbideak planteatzeko. Bulego hori Vienan, laurogeigarren eta laurogeita hamargarren hamarkadetan alokairuak izugarri garestitu eta langabezia gehitu zenean, aterperik gabeko jendea ere nabarmen gehitu izanaren arazoari erantzuteko sortu zen. Horrela, jendearen aterpe beharrari lehenengo erantzuna emateko, aterpetxeen kopuruak ere gora egin zuen.

Zergatik da interesgarria esperientzia hau, zergatik merezi izan ditu eman zaizkion sariak? Emaitzetan izandako arrakastarengatik, ez bairik gabe<sup>112</sup>. Agerian utzi du etxerik gabeko jenderik izan dadin prebenitzea eraginkorragoa eta merkeagoa dela gizartearentzat, jendea gizarteratzea baino. Prebentzioa burutzeko, erakunde publiko eta pribatuen elkarlan erregularra eta konpromiso egonkorra behar dira.

## 6. FRANTZIA: GAUEKO LAGUNAK ETA PARISEKO “LA MOQUETTE” ZENTROA

Gaueko Lagunak gizarte esparruko profesionalen erakundea da; 1975ean sortu zen Pariseko auzo latinoko gauetan entzun eta egoteko asmoz. Kiderik ezagunenetakoa

<sup>110</sup> Etxerik gabeko pertsonak gizarteratzeko Udal Palan, GOOD sariduna Dubaiko lehiaketan, 1996an. Biztanleriako segmentu behartsuentzako etxebizitzari buruzko informazio sistema, BEST sariduna, 1998an. FAWOS: pobreziaaren prebentzioa, BEST sariduna, 1998an. FAWOS: alokairua babesteko zentroak, BEST sariduna, 2002an.

<sup>111</sup> Fachstelle für Wohnungssicherung-FAWOS (Etxeak babesteko adituen taldea).

<sup>112</sup> Sortu eta urte betera, kaleratzeak %63tik %24ra gutxitu ziren.

bat Pedro Meca da, Frantziako hiriburuan bizi den Domingotar nafarra, lan egiten duen auzo barruan eta kanpoan etxerik gabeko pertsonen arretan erreferente bihurtu dena.

90. hamarkadaren hasieran, erakunde honek Pariseko erdiguneko auzune batean La Moquette (Moketa) izeneko lokala ireki zuen; aurrekaria, hamabost urte lehenago, gizarte langileak tabernari aritzen zireneko lokala izan zen, auzokideen kexak tarteko, laurogeigarren hamarkadaren hasieran itxi behar izan zutena.

Zentro hau gaueko 9etatik goizaldeko 1etara egoten da zabalik, eta etxerik gabeko pertsonen zein etxedunei egoteko, elkartzeko, komunikatzeko eta atsedena hartzeko lekua eskaintzen die. Gauak egokiago dirudi topaketarako eta komunikaziorako. Ez ditu, beraz, behar fisiko edo materialak (ostatua, jatekoa, dirua) asetzen, baina bai behar afektiboak, sozialak eta harremanetakoak, topaketarako lekuaren bidez, eta tailerrak edo hitzaldiak bezalako jardueren bitartez; zentrora profesional, erabiltzaile zein boluntario modura joaten diren pertsonen jardueraren horietan beren ekarpenen, giza gaitasunen arabera parte hartzen dute. Horrela, pertsona bakoitzaren gaitasunak sustatzen dira, motibazioa eta auto-estimua garatzen dira, eta gizartean “eskale” dena “emaile” bihurtzen da.

Kapitulu honetan aipatu diren nazioarteko esperientzien artean galdetutako pertsonen aipatu digutenez, azpian igartzen den arreta kontzeptuarengatik interesa duen bakarra dugu: pertsonak jasotzeko ez eze, emateko ere aukera izan dezan topaketa eremua sortzen da.

## 7. AMERIKETAKO ESTATU BATUAK: ETXERIK GABEKO FAMILIENTZAKO EGITARAUA “ATERPE BAT BAINO GEHIXEAGO -BEYOND SHELTER”, LOS ANGELES-KALIFORNIA<sup>113</sup>

1998an sortu zen egitarau honek aurrerapen kualitatibo handia ekarri zuen etxerik gabeko pertsonen arretan, bizitoki iragankorra gainditu eta pertsona horiek egoitzazko auzuneetara eramaten baititu, alokatutako etxeetara, urte beterako laguntzarekin. Egitaraua ongintzako elkarteen, sektore pribatuaren eta administrazioaren lankidetzan eta komunitatean dauden baliabideei eta zerbitzuei ahalik eta etekinik handiena ateratzean oinarritzen da.

Zer berritasun dakar honek? Egoitzazko baliabideak hiri eremu normalizatuetan baitaraten dituela, duintasuna eta harremanetarako aukera emanez, eta kokapena ere baztergarri izan dadin ekidinez. Aterpea ematea lehenengo urratsa da, pertsona bakoitzarekin bere beharrak eta balizko erantzunak jorratuz, bere kabuz moldatzea lortzen duen arte, hezkuntza, osasun eta enplegu, eta beste behar ugari erantzuteko bideratuko den epe luzerako esku hartze planean. Horretarako, prozesua amaitu dutenean eta etxebizitza independente batera sartzera doazenean, alokairuko etxebizitza berri hori hautatzen lagunduko zaie, finantzaketa, kontratuak bilatzen, balizko gizarte bazterkerien aurrean babesa ematen, eta abar.

<sup>113</sup> BEST saria Dubaiko lehiaketan, 1996an.

Plana familiengana eta egitaraura elkarte komunitarioen, hala nola, aterpetxe, destoxikapen egitarau, gizarte zein erlijio zerbitzuen bidez iristen diren pertsona bakarrengana zuzendu ohi da.

Egitarauaren kanpoko ebaluaziorik ez daukagunez, aldez aurretik, jaso duen sariak eta egitarauaren filosofia eta estiloa herrialde osoan zeharreko beste egitarau publiko eta elkarteetara zabaldu izanak interesgarria dela adierazten dute, gure iritziz.

## 8. KANADA: KOMUNITATEENTZAKO BABESERAKO LANKIDETZA EKIMENA, QUEBECEN<sup>114</sup>

Esperientzia hau Komunitateak Babesten Laguntzeko Ekimen bat da (Supporting Communities Partnership Initiative-SPCI), Kanadako Gobernuko Etxe Gabezia Sailak garatua, laurogeita hamargarren hamarkadan, hiri inguruneetan gero eta etxerik gabeko jende gehiago zegoela, eta profilak ere ugartu zirela egiaztatu zuenean. Besteak beste, ekimen britainiar eta estatubatuarren “babes iraunkorren” kontzeptuan oinarritzen da, non komunitatearen garapenari mota desberdinetako laguntzak lotzen zaizkion (larrialdi zerbitzuak, aldi baterako etxebizitzak, eta abar), etxerik gabeko pertsonen beharrei erantzuteko.

Ekimenaren helburua ez da, beraz, zuzenean esku hartzea, komunitate bakoitzak, etxerik gabeko pertsonen eta herritar guztien inplikazioarekin, tresnak eta baliabideak jar ditzan, gizarteratzeko bere estrategiak gara ditzan, eta etxerik gabeko inguruko jendeari erantzun diezaion, toki bakoitzean lehendik dauden baliabideak eta zerbitzuak erabil daitezten lehenetsiz. Komunitate bakoitzak bere ekintza plana garatzen du; plan hori SCPIk ebaluatu, eta gobernu federalak, probintzialak, udal gobernuak eta erakunde pribatuek finantzatzen dute.

Komunitate bakoitzean baliabideak eta zerbitzuak hornitzen dituzten eragileak eta erakundeak beren lana aurrera eramateko finantzaketa lortzeko lehian aritzea eta horren ondorio okerrak saihesteko (oso komunikazio eta informazio truke urria), arazo hori erakunde horiek SCPIrekin lankidetza itunak sinatuz konpondu zen.

Esperientzia hau hainbat faktorerengatik da interesgarria: zerbitzuak ematen dituzten erakundeen arteko lehia gaintzeko lankidetza itunak garatzen direlako, eta eragile publiko eta pribatu asko inplikatzen direlako. Informazioa denen artean partekatzen dute, eta horrek lotura estrategikoak sortzen ditu inplikatutako alderdi guztien artean. Jarduketan diseinuaren prozesuak berak informazio, trebetasun eta esperientziak trukatzeko errazten du. Faktore lagungarri horiek hor dauden arren, egia ere bada ekimen horrek bere denbora eskatzen duela osorik garatzeko, eragile askoren inplikazioa eskatzen duelako eta herritarren babesa eta onarpena behar dituelako. Arreta ereduak malguak izan daitezten ere eskatzen du, komunitate bakoitzaren gorabeheretara egokitzeko, hori lortzea ez baita beti erraza izaten.

---

<sup>114</sup> BEST saria, Dubai Lehiaketan, 2002an.

### 6.1.3. **ESPERIENTZIATIK EGINBIDE ONETARA: ZEIN ELEMENTUK BEREIZTEN DITUZTE?**

**Eginbide Onen kontzeptua** definitzeko, Canada Mortgage and Housing Corporation-ek etxerik gabeko pertsonekin gizartetik esku hartzean Eginbide Onak Biltzeko Protokoloan erabiltzen duena hartuko dugu, “Manual de Buenas Prácticas de intervención social con personas sin hogar”<sup>115</sup> liburuan ere berbera baliatzen baitute:

*“Gobernuz kanpoko zein oinarriko erakundeek, edo sektore pribatuak hasitako ekintza, ekimen edo egitasmoak, eredugarri izan litezkeenak besteen ikasbide modura edo beren egoetara egokitzeke... ekimen ugari sar litezke definizio horretan, irismen handiko zein txikikoak, etxerik gabeko biztanleri multzo desberdinei zuzendutakoak, zerbitzu desberdinak hartuz... eta administrazioaren sail desberdinak. Eginbide onak ikuspegi berritzaileak izango dira, beste erakunde batzuetara transferitzeko modukoak, etxerik gabeko pertsonen bizitzetara hobekuntza zehatzak, neurgarriak eta, batez ere, iraunkorrak ekarriko dituztenak.”*

Kapitulu honetan aipatzen diren esperientzietan, bakoitzaren xehetasunez harantzago, beste esperientzia batzuetara extrapolatu eta etxerik gabeko pertsonen arretan eginbide onen erreferente bihur litezkeen hainbat **elementu edo faktore berdin** ageri dira. Ondoko hauek dira guk, esperientzia horietatik, atera ditugunak:

1. Lankidetzak: erakunde publiko edota pribatu desberdinen eta esparru desberdinetakoen artean: gizarte, osasun, etxebizitza, hezkuntza alorretakoak. Bakoitzaren inplikazioa ere desberdina izango da, zein beharizan ase behar den arabera.
2. Egitura egonkorra: erakundeen arteko lankidetzak errazten du; batzutan, gainera, garapenerako lankidetzarako egituren bidez inplikazio eta koordinaketa handiagoarekin aberatsagoa izaten da, zereginak eta ardurak bazkide desberdinen artean banatzen baitira: hirugarren sektoreko erakundeak, administrazio publikoa edota enpresa pribatua.
3. Baliabideen sarerako sarbide bakarra: hasierako arreta eskaini eta dagokion tokira bideratzen duena.
4. Etxebizitzaren esparruaren inplikazio aktiboa: etxerik gabeko arretaren esperientzietan aitzindari, batzuetan.
5. Esperientzien aitzindaritzak publikoa: burutzapena eta gestioa ere publikoak izango dira, edo erakunde pribatuak horretarako eskuordetuz egingo dira.
6. Etxerik gabekorik izatearen prebentzioa: neurri desberdinen bitartez; neurri asko etxea galtzea saihestearekin lotuta daude.

<sup>115</sup> Definizio hori Fundación Telefónica-ren “Manual de Buenas Prácticas de intervención social con personas sin hogar” (106. orr.) liburuan ere ageri da. Liburua Gizarte Egitasmoen Jarraipen eta Babeserako Bulegoak prestatu du, Comillaseko Unibertsitateko José Antonio Lópezen, Pedro Cabreraren eta Graciela Malgesiniren laguntzarekin.

7. Informazioa biltzea: artatutako pertsonen eta emandako zerbitzuaren gainean, arreta hobeto ezagutu eta baliabidea eta garatutako ekintzak ebaluatu ahal izateko.
8. Informazioa eragile desberdinen artean partekatzea: informazioaren isilekotasuna bermatuz.
9. Ikuspegi integral eta jakintza arlo askotakoa: etxerik gabeko pertsonen beharren arretan.
10. Finantzaketa egonkorra: zerbitzu eta baliabideen jarraitasuna bermatzeko.

Esperientzien analisiaren ondoriozko faktore hauetako batzuk ikerketan egin diren lan taldeetan parte hartu dutenek identifikatu eta adostu dituztenekin bat datoz. Zehazki, lankidetzat taldeetan ondoko hauek identifikatu dira:

1. Koordinaketa eta arreta integrala: sarrera dispositibo bakarraren bidez, “leihatila bakarreko” sistema baten modura, eskakizun maila guztiak aseko dituzten eta beharrian guztiei osoki erantzungo dieten baliabide eta zerbitzuen sare koordinatura bideratuz.
2. Partekatutako informazio sistema garatzea, arreta integrala erraztu eta arretan hutsuneak saihestuko dituena.
3. Etxebizitza politiken bidez inplikatzeko, esaterako, aldi baterako egonaldietarako etxebizitza egonkorren sarearen eta ostatu zerbitzuen bidez. Etxebizitzaren faktorea aipatzen den arren, ez dirudi galdetutako pertsonentzat, arestian aurkeztutako nazioarteko esperientzietan, aurretiaz eta paper gainean dirudien bezain garrantzitsua edo nabarmena denik.
4. Baliabideen egonkortasuna, arreta ematen duten erakundeek eta finantzatzen duten erakundeek arteko lankidetzat egonkorreko formulekin, emandako zerbitzuaren jarraitasuna bermatzeko.
5. Ebaluazioaren adierazleak ezartzea, garatutako ekintzen eta emandako zerbitzuaren eragina ezagutzeko.

**Bai esperientzietatik bai taldearen ekarpenetatik ateratzen diren elementu edo faktore berdinak** baliagarriak dira, gure ustez, esperientzia bat eginbide on modura identifikatzeko; hauek dira, zehazki: arretaren koordinazioa, erakunde pribatuen eta erakunde publikoen arteko lankidetzat, egitura egonkorren eta informazio partekatutako sistemen bidez, etxebizitzaren inplikazioa eta zerbitzu eta baliabideen jarraipen eta ebaluaziorako adierazleak ezartzea.

Eginbide onei dagokienez, goraiatu behar dugu Comillaseko Unibertsitateko Pedro Cabrera, Graciela Malgesini eta José Antonio Lópezek Fundación Telefónica-entzat egindako liburua<sup>116</sup>; liburua lanabes metodologiko modura sortu zen, etxerik gabeko

<sup>116</sup> Fundación Telefónica-ek Gizarte Egitasmoen Jarraipen eta Babeserako Bulegoa dauka -OSAPS.

pertsonen arretan egitasmo berritzaileak identifikatzeko 2000. urtean deitutako “Un techo, un futuro” lehiaketan.

Egitasmo berritzaile horiek hautatzeko hasierako asmotik abiatuta, *“Manual de Buenas Prácticas de Intervención Social con Personas sin Hogar”*<sup>117</sup> izeneko dokumentua prestatu da; eskuliburu horretan nazioartean nabarmendu diren egitasmoak aurkeztu ez eze, “eginbide ontzat” jotzen diren esperientzia arrakastatsuen elementu berdinak identifikatu eta pertsona horien arretaren kalitatearen gaiari ere heltzen zaio, eta sektoreko erakundeek eskaintako arretaren kalitatea hobetzeko gomendioak ematen dira.

## 6.2. ETXERIK GABEKO PERTSONEKIN ZEHARKA JARDUTEKO BESTE MODU BATZUK: ERREALITATEA ANALIZATU ETA BISTARATZEA

Zergatik dira garrantzitsuak eta beharrezkoak etxerik gabeko pertsonen arreta zuzena egiten ez duten jarduerak? Errealitatea aztertzeke aukera ematen dutelako, errealitatea kuantifikatuz eta zergatiak eta prozesuak azalduz, eta errealitatea bistaratzen digutelako, etxerik gabeko pertsonen egoera bide desberdinetatik ezagutaraziz.

### 6.2.1. *ESTATISTIKAK ETA TXOSTENAK: ERREALITATEA KUANTIFIKATZEN*

Gizartean baztertuentzako arreta ere nabari da, gai honi buruzko informazioa jasotzeko tresna estandarizatuen bitartez; gehienetan gaien eskudun diren erakundeek egindako txostenak eta inkestak baliatzen dira.

Jarduketa hauek, etxerik gabeko pertsonekin zuzenean esku hartzeko ez diren arren, horiengana ere bideratzen dira, etxerik gabeko pertsonen errealitatea kuantifikatu, analizatu eta bistaratzea egoera horren benetako dimentsioa ezagutu eta antzemateko lehenengo urratsa den heinean.

Tradizioz estatistika ofizialetatik kanpo ere utzi izan diren pertsona horien gaineko informazioa erregistratzea aurrerapen handia da, berriazko intereseko subjektutzat hartzea baitakar, eta zenbat eta gizarteko egoera eta behar horiek zelakoan diren hobeto jakin, hainbat eta errazago izango baitzaigu arreta egokia ematea.

**EAEren esparruan**, 2004an, EUSTAT Euskal Estatistika Erakundeak inkesta bat egin die etxerik gabeko pertsoneri, gure Erkidegoan aitzindaria dena.

**Estatuaren esparruan**, sobera ezagunak dira pertsona horiek eta artatzen dituzten zentroak identifikatu eta kuantifikatzeko egin ziren lehenengo ahaleginei buruzko bi

<sup>117</sup> Gure asmoa ez da liburuaren edukia hemen jasotzea, dagoela jakinaraztea baizik. Beraz, bibliografian dokumentuaren aipua daukazue, baita informazio hori begiratzeko moduan dakarren Fundación Telefónicaren webarena ere.



txostenak: “La acción social con personas sin hogar en España”, Pedro Cabrerak eginna, eta “Los límites de la exclusión”, Manuel Muñoz, Carmelo Vázquez eta José Juan Vázquezena.

INE Espainiako Estatistika Erakundeak, bere aldetik, kontsulta aitzindaria egin du, estatuko zentroek zenbat erabiltzaile dituzten eta zelakoak diren jakin nahirik; oraingoz, kontsulta urtero egiteko asmoa daukate, eta etxerik gabeko pertsonentzako inkesta batekin ere osatu nahi lukete. Inkesta egiteko asmo hau 2002ko martxoan Luxenburgoren Estatistiketan Adituen Taldeak egindako bileran parte hartu eta gero bururatu zitzaizen; Luxenburgokoaren ostean beste bilera bat ere egin zuten INEk eta Lan eta Gizarte Ministerioak, eta egiaztatu zuten erregistrorik ere ez zegoela. Inkestak zein erakunderi egin hautatzeko, eta etxerik gabeko pertsonen definizioan adostasunik ez zegoenez, ostatu, otordu zerbitzuak eta prestakuntza, hezkuntza eta laguntza motako beste batzuk eskaintzen zituzten zentroei egitea erabaki zen, erabiltzaileekin harreman zuzena izaten dutela-eta.

**Europaren esparruan**, interesaren lehenengo zantzuak Eurobarometroan laurogeita hamargarren hamarkadaren hasieran etxerik gabeko pertsonen buruz egindako galderetan igarri ziren. Egun, Europako Batasunaren Gizarteratzeko 2001-2005 tarterako Egitarauak gizarte politikaren helburuak iristeko, gizarte bazterkeriaren eta etxerik gabeko pertsonen gaineko estatistiken bitartez, behar den informazio estatistikoa bildu behar dela aipatzen da. Alde horretatik Eurostat-Europako Estatistika Erakundeak informazioa biltzeko zereginaren garapena sustatzen du, “La producción de datos sobre sinhogarismo y ausencia de hogar en la Unión Europea: encuesta y propuestas” (2004ko edizioa<sup>118</sup>) txostena bezalako argitalpenekin.

Europar herrialde batek baino gehiagok egiten ditu etxerik gabeko pertsonen buruzko inkestak<sup>119</sup>: Austria, Belgika, Errepublikak Txekiarra, Danimarka, Finlandia, Frantzia, Alemania, Hungaria, Irlanda, Italia, Luxenburgoko, Holanda, Polonia, Espainia, Suitza eta Erresuma Batua. Estatistika horietako zenbait etxerik gabeko pertsonen gaineko txostenetan<sup>120</sup> informazio iturri modura erabili izan dira, herrialde horietan.

Herrialde desberdinek egiten dituzten inkestak ez dira konparatzen errazak izaten. Informazio defizit hori gainditzeko, EUROSTAT agentziak Etxerik gabeko Pertsonen gaineko Estatistiketan Adituak diren Taldea sortu du, kontzeptuak, adierazleak eta metodologiak bateratzera begira. Ekimenak aldi berean adierazleak eta informazioa jaso eta erregistratzeko ikuskapen ugari eragin ditu, besteak beste, FEANTSAk<sup>121</sup> egindakoa.

<sup>118</sup> Txosten honetarako estatuko ordezkari modura ondoko hauengana jo da: Pedro Cabrera, Comillaseko Unibertsitate Pontifikalekoa, eta Pedro Ruiz Salvador, INE-Espainiako Estatistika Erakundekoa.

<sup>119</sup> Inkesta hauetako galdesortak eta azalpen labur bat Europako Batzordeko EUROSTATen “La producción de datos sobre sinhogarismo y ausencia de hogar en la Unión Europea: encuesta y propuestas” (2004ko edizioa) Txostenean daude ikusgai. Bibliografian aipatzen den Europako Batzordearen webean dago.

<sup>120</sup> Txosten desberdinak txosten honetako bibliografiaren kapituluari aipatzen den Europako Batzordeko EUROSTATen txosten horretan daude ikusgai.

<sup>121</sup> FEANTSA “Review of Statistics on Homelessness in Europe” 2003.

### 6.2.2. **SAREAK ETA TOPAKETA FOROAK: ESPERIENTZIAK PARTEKATZEN**

Arreta ez zuzeneko jardueren beste mota bat erakundeen sareak dira, pertsona horien arreta beren baitako erakundeen bidez bultzatu eta sustatzen duten, eta esperientziak trukatzeko eta argitalpenen eta web orrialdeen bidez bistaratzea ahalbidetzen duten heinean. Elkarte sarerik ezagunenak EAPN eta FEANTSA dira.

Mintegiak zein Kongresuak bezalako foroak topaketa guneak izaten dira, gizarteari oro har jakinarazten zaizkion esperientziak trukatzeko diren tokiak.

Sareei dagokionez, **EAPN** European Anti Poverty Network-en siglak dira. Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren kontrako Europako Sare hau 1989an sortu zen, Europako Batasunak bultzatuta, eta helburu bera, bazterkeriaren eta pobreziaren kontra borrokatzea, daukaten Europako hainbat erakundek osatzen dute. Estatuko sarea 1992an fundatu zen eta, gerora, talde berriak sortu ziren Autonomi Erkidego desberdinetan, besteak beste, EAEn.

Helburu komun hori erakundeen arteko lan koordinatuaren bidez lortzen da, bakoitza bere aldetik aritzea baino metodo eraginkorragoa baita, eta pobrezia desagerrarazteko politiken aldeko presio talde modura ageri da. Presionatzeko ekintzaren osagarri, ikerketa, sentsibilizazio eta gogoeta jarduerak ere egiten dira.

**FEANTSA**-Fédération Européenne d'Associations Nationales Travaillant avec les Sans-Abri, etxerik gabeko pertsonekin lan egiten duten Elkarte Nazionalen Europako Federazioa da. Europa mailan etxerik gabeko pertsonen soilik begira ari den sarerik handiena da. Esparru horretan zerbitzu desberdinak eskaintzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeek osatzen dute. Jarduerak Europako Batzordeak finantzatzen dizkio, eta Europako Batasuneko erakundeekin buruz buru lan egiten du. Kontsultarako erakunde estatusa dauka Europako Kontseiluan eta Nazio Batuetan.

**Ekintzak** politika eta gizarte alorretan aldaketak bultzatzera eta esperientziak nazioez harantzago elkartrukatzera bideratzen ditu; halako bideak baliatzen ditu:

1. Etxerik gabekorik egon ez dadin borrokatzeko neurri eraginkorrak garatu eta ezartzea.
2. Instantzia politikoak sentsibilizatzea: prebentzio neurriak hartzeko eta etxerik gabeko pertsonen beharrei erantzuteko premiaz.
3. Gizarteak sentsibilizatzea: etxerik gabekoen gaiaren konplexutasunaz eta dimentsio ugarietaz.
4. Elkartrukea sustatzea: informazioa, esperientziak eta eginbide onak trukatzeko sareko kideen artean, etxerik gabekoen errealitateari hurbiltzen laguntzeko.
5. Mintegiak eta konferentziak antolatzea: aldioro, erakundeak, ikerketaren profesionalak eta arduradun politikoak gonbidatuz.
6. Gogoeta eta ikerketa bultzatzea: lan taldeen bitartez.
7. Etxerik gabeko pertsonen errealitatea erakustea: dokumentu eta argitalpenen bidez.

**Nazioarteko beste sare bat SMES-Santé Mentale et Exclusion Sociale** (Buruko Osasun eta Gizarte Bazterkeriako Taldea) da, 1992an, etxerik gabeko pertsonak jasaten duten arretarik ezeko egoeraren gaineko Europako lehenengo mintegiaren ostean, fundatutako profesionalen taldea. Europako hainbat hiritako, besteak beste, Madrileko etxerik gabekoen errealitatea aztertzen aritzen da, etxerik gabeko pertsonentzako irtenbideak bilatu nahirik. Talde honen estatuko ordezkarietan Unibertsitate Konplutensea, psikiatria elkarteak eta GKEak daude.

Talde honek, 1992tik, topaketak antolatzen ditu, bi urtean behin, pertsona horien beharren prebentzio eta arretako esperientziak elkarri jakinarazi eta bistaratzeko. Izan ere, 2005eko urrian Berlinen **Etxerik gabeko Pertsonen Europako IX. Kongresua** egin zuten, 2004ko ekainean Pragan egindako VIII. Kongresuaren “Duintasuna eta Osasuna” lelo berarekin, Europako Batasuneko gizarterapen estrategien gaineko estrategia politikoetan eragiteko asmoz. Topaketa honetan partekatutako esperientzien artean, garrantzitsu eta zabalduenetako bat gizarte Samur izenekoak izan da, oso gertuko baliabide publikoa, gizarte larrialdietan kaleko lanetan aritzen diren profesional taldeek osatua.

EAEn **Gipuzkoako Gizarte Plataformaren esperientzia** nabarmentzen da. 2005eko uztailean hamasei gizarte erakundek abiarazi zuten Plataforma hau, kolektiborik behar-suenen interesak eta eskubideak defendatzeko, eta solaskide komuna eskainiz barruko gogoeta ahalbidetzeko.

ACASGI, AGIPAD, Argabe, Arrats, Gipuzkoako Cáritas, Gipuzkoako Gurutze Gorria, Elkartu, Emaús Fundación Social, Erroak-Sartu, Haurralde-Fundazioa, Hurkoa Fundazioa, Fundación Izan-Proyecto Hombre, Loiola Etxea, Rais Euskadi, Fundación Zeharo-Grupo Gureak eta Fundación Peñascal daude plataforma horretan. Helbururik behinenetako bat Gipuzkoan dauden baliabideen mapa egitea da, mapa horren bidez lurraldean dauden erakunde desberdinak, eskaintzen dituzten baliabide desberdinak eta zein kolektiborengana zuzentzen diren ezagutarazteko.

Ekimen honek, batetik, erakundeen artean datuak eta informazioa elkartrukatzeko aukera emango du, elkarren berri izan dezaten eta, bestetik, erakundeei lurralde ikuspegia ere emateko, bakoitza zuzentzen zaion berariazko kolektiboaren arretan hobearaziz. Formula honekin ekintzak modu koordinatuan proposatu, defendatu eta gauzatu nahi dira, bazterkeria larria pairatzen ari diren pertsonen arretan erantzun eraginkorragoa ematen laguntzeko, halako pertsonak ez baitute gizartean parte hartzeko ia bat ere aukerarik.

Esperientzia horiez gain, lurralde mailako lantaldeak ere badaude, non erakunde publiko eta pribatuetakoko ordezkariak parte hartzen duten, egoeraren diagnostikoak egiten eta etxerik gabeko pertsonen arretara koordinatu eta jarraipena egiteko mekanismoak ezartzen.



**ETXERIK GABEKO PERTSONAK:  
BIZITZA KONTAKIZUNAK**



## 7. ETXERIK GABEKO PERTSONAK: BIZITZA KONTAKIZUNAK

Etixerik gabeko pertsoneri emandako laguntzaren azterketa ez litzateke oso-osoa izango, pertsona horiei, ikerketa honetako protagonistei, zuzeneko kontsultarik egin ezean. Arlo desberdinetako profesionali egindako kontsulten bidez (ikerketa, politika, kudeaketa, zuzeneko laguntza), egoerari buruzko ikuspegi objektiboa eta analitikoa daukagu. Arlo horietariko edozeinetatik interpretazioak, irakurketak eta analisiak egiten dira, ibilbideak diseinatzen dira, integrazeko nahiz baztertzeko prozesuak ikertzen dira, eta pertsona horien beharrianak ezartzen dira; eta, beti egin ez arren, arlo horietatik onartu egiten da euren iritzia galdetzearen garrantzia. Bazterkeriaren ikuspegia da, egoera horretatik kanpo daudenen ikuspegia, zuzeneko laguntzako profesionalak egoera hori hurbiletik ezagutu arren.

Halaber, bazterkeriaren errealitatea bazterkerian dauden pertsonen ikuspegitik ere ezagutu behar da, etxetik kanpo bizitzeak sortzen duen sentimendutik eta subjektibotasunetik; etxerik gabeko pertsona izatea, baliabide batetik bestera ibiltzea, bakardatea sentitzea, beste porrot batekiko etsipena sentitzea, eta, zergatik ez?, hobetzeko gogoia eta etorkizun hobearen itxaropena sentitzea.

Pertsona horietariko bakoitzak bere kontakizuna dauka, beti bazterkeriaren barruan egon ez den bizitzaren kontakizun desberdinak. Zenbait etapa izan dituen bizitza: zergati desberdinen eraginezko bazterkeria etapak, intentsitate desberdinekin, eta integrazio etapak, geure bizitza bezalako ezaugarriekin: familia, enplegua eta gizarte sarea. Hausnarketa honen bidez, honako ideia hau jakinarazi nahi dugu: muturreneko bazterkerian daudenen bizi estiloak eta formak itxuraz oso desberdinak dira “gizarte normalizatuan” integraturik dauden pertsonen bizitzetatik, baina desberdintasunak, sakonean eta kasu batzuetan, ez dira hain handiak bizitzako etapa batzuetan. Pertsona horietariko batzuk ume-umetatik ere bazterkerian bizi izan dira, jatorrizko familia inguruan ere bai, baina beste zenbait pertsona gertaera tramutatikoren baten edo aurreko bizitzarekiko apurtereren baten ostean iritsi dira egoera horretara.

Etixerik gabeko bederatzi pertsonari egindako kontsultak<sup>122</sup> aukera eman du pertsona bakoitza egoera horretara eta “etxegabetasunera” iristeko moduaren ikuspegia eta azal-

---

<sup>122</sup> Bederatzi pertsona hauen profilak (sei gizon eta hiru emakume) metodologiaren kapituluaren azalduta daude.

pena jakiteko; halaber, beste gauza batzuk jakiteko aukera ere eman du: kasu bakoitzean bazterkeria egoerak mantentzearen zergatiak, bizitzako etapa horretan sortzen diren sentimenduak, egoera horretan bizitzearen zergatiak, pertsona bakoitzak bere buruz duen pertzepzioa, bere trebetasunei nahiz ahultasunei buruz duen pertzepzioa, gizarteak baztertearen sentsazioa (parke publikoan dagoenean edo enplegu eskabideren bat aurkezten duenean) edo etorkizun hurbilari aurre egiteko modua, besteak beste.

Sentimenduen eta sentsazioen jakinarazpen hori, izan ere, baliabide eta zerbitzu guztiek betetzen ez duten beharrezkoa da, baina gero eta gehiago onartzen da horren garrantzia; horri dagokionez, kontsultaturiko profesional batzuek onartzen duten ideia, izatez ere, entzuteko eremuak sortzearen garrantzia da, eta horrela, halaber, laguntzako taldeek entzutearen aldeko jarrerak garatu behar dituzte, pertsona horiekiko adiskidetasun eta gizarte loturak sortuz nahiz indartuz, euren sentimenduen jakinarazpena erraztuz eta euren gizarte sarearen sorrera sustatuz; ikerketa horretan horixe azpimarratu nahi izan dugu, halako sarerik ez egotea eta gizarte nahiz familia mailako deserrotzea funtsezko elementuak baitira etxerik gabeko pertsonen ezaugarriak jakiteko.

Pertsona hauek ez dituzte ezagutzen profesionalek erabilitako arlo teknikoak, esate baterako, eskakizun mailak, finantziario motak, sarean lan egitearen garrantzia edo gizarte eta osasun eremua. Hala eta guztiz ere, gai horiek alderdi praktikokoan eta errealitatean adierazten duten guztia ezagutzen eta jasotzen dute, eta, hain zuzen ere, kontsulta honetan jakin nahi izan dugun gauzetariko bat halako pertsonak jasotzen dutena izan da: nola bizi diren, zer iritzi duten baliabideei eta zerbitzuei buruz, ematen diegun laguntza nola jasotzen duten, zer behar duten eta euren ustez egokia zer den.

Etxerik gabeko pertsonak emandako informazioa aztertzean, baliabideei edo profesionalei buruz egiten dituzten balorazioetan, kontuan hartu ditugu pertzepzioan egon daitezkeen distorsioak, buruko gaixotasunaren edo elbarritasunaren eraginezkoak. Pertsona horien iritzia profesional taldeek emandakoarekin kontrastatuz, baliabide bereberien dagokienez, kasu batzuetan iritziok bat datoz, gabezia eta sendotasun berberak adierazten dituzte; beste kasu batzuetan, aldiz, etxerik gabeko pertsonak ikuspegi kritikoagoa dute erabilitako baliabideari edo zerbitzuari buruz.




Kapitulu honetan, egindako kontsulthen garrantzia adierazi nahi izan dugu, kontsultak aurkezteko moduan bertan oinarrituz. Pertsona bakoitzarekin izandako elkarrizketaren edukia zehatz aztertzeak interpretazio partziala eskaintzen du, eta beraz, beharrezkoa da ñabardura eta subjektibotasun guztiak hartzea, jasotako informazioa ulertzeko; hori dela eta, kontuan hatu dira beste zenbait alderdi, adibidez, elkarrizketaren testuingurua, kontsultaturiko pertsonaren jarrera, errealitatearen interpretazioan egon daitezkeen mugak (buruko gaixotasunaren edo elbarritasunaren eraginezkoak) eta elkarrizketagileak transmitituriko sentsazioa.

Gure ustez, kapitulu hau kontakizunetan eurretan oinarritu behar da; gure iritzian, kontakizun horiek eta lehen aipatu diren alderdiak aztertzea garrantzitsua da, eta elkarrizketa zatien presentziak, gainera, aukera ematen du euren bizitza kontakizunen intentsitatea etxerik gabeko pertsonak eurek transmititzeko, euren hitzak erabiliz. Euren identitatea konfidentziala dela segurtatzeko, ez da izenik edo lekurik eman, eta zati bakoitza kontakizun zenbaki batekin identifikatu da.



Kontakizun horien aurkezpena hiru gai bloketan egituratzen da, eta horiek bat datoz **euren bizitzako hiru etaparekin**: iragana, oraina eta geroa. Iraganak euren lehengo bizitza erakusten digu, bazterkerian sartzeko bideak, gizartearekin hausteko uneak eta faktore baztertzailen pilaketa. Orainak euren gaurko egoera ezagutzeko aukera ematen digu, prozesuko zein fasetan dauden, zer egiten duten, nola sentitzen diren edo zer baliabide erabiltzen duten. Geroak euren bizitzak izango duen norabidea adierazten du, hurrengo urteak nola ikusten diren.

### 7.1. GRAFIKOA: BIZITZA KONTAKIZUNEN GAI BLOKEAK



Oraingo bazterkeria egoera eta halako pertsonen orain dituzten egoeren nahiz uneen aurreko ibilbideak desberdinak direla kontuan hartuta, kontsultan Euskal Autonomia Erkidegoko etxerik gabeko pertsonen ohiko profilak jaso dira. Horietariko bakoitza identifikatzen duten ezaugarrietan oinarrituz, ezaugarriok laneko taldeekin adostu ondoren, bederatzi pertsona elkarrizketatu dira, guztiak 30 eta 44 urte bitartekoak, 60 urteko

pertsona baten eta 20 urteko gazte baten kasuan izan ezik. Pertsonen deskribapenak honako hauek dira<sup>123</sup>:

1. Profil tradizionala: etxerik gabeko egoeran ibilbide luzea egin duen gizona, narriadura fisiko handia duena, baina psikologia sendokoa. Metadona tratamenduan dago, HIESa dauka eta %75eko elbarritasuna du. Gizarteratze prozesua hasi du eta familia harremanak berreskuratzeko fasean dago.
2. Buruko gaixotasunaren profila: etxerik gabeko egoeran ibilbide luzea egin duen gizona, narriadura maila handia duena, kontsumo aktiboak ditu, eskizofrenia tratamenduan dago. Ez dauka interesik aldaketa prozesuak hasteko eta familiarekiko harremanak arazotsuak dira.
3. Elbarritasuna duen pertsona: kalean luzaro bizi izan den pertsona, narriadura maila handia duena. Opiazeoen kontsumo aktiboak ditu eta diagnostikatu gabeko patologia duala dauka. Aldaketa prozesua hasteko interesa dauka; ez dauka familia harremanik.
4. Adineko pertsonaren profila: kalean eta bizileku ezegonkorretan luzaro bizi izan den gizona, narriadura maila ertaina duena; ez dauka kontsumo aktiborik, buruko gaixotasunik, elbarritasunik edo osterantzeko arazorik. Ez dauka familia erreferenterik.
5. Gizarteratzeko prozesuan dagoen pertsonaren profila: etxerik gabeko pertsonatzat ibilbide luzea duen emakumea; narriadura maila handia dauka, metadona tratamenduan dago, ez dauka buruko gaixotasunik edo elbarritasunik, eta gizarteratze prozesua hasi du. Ez dauka familia erreferenterik.
6. Emakumearen profila: kalean luzaro bizi izan den eta narriadura maila ertaina duen pertsona; nortasunaren egokitzapen arazoa dauka. Esku-hartze prozesua diseinaturik dauka eta planteaturiko helburuak betetzen ari da. Familia harremanak berreskuratzeko fasean dago, harremanok orain arte arazotsuak izan baitira.
7. Pertsona etorkinaren profila: atzerriko gizona, kalean luzaro bizi izan dena; gela batean bizi da eta sukaldea erabiltzeko eskubidea dauka; narriadura maila ertaina dauka, alkoholaren kontsumitzaile aktiboa da, baina kontsumo hori uzteko fasean dago; onarturiko minusbaliotasuna dauka eta tratamendu psikiatrikoan dago. Prozesuaren hasieran dago, babesturiko enplegua lortzeko zain. Ez dauka familia erreferenterik.
8. Familiaren profila: emakumea elkarrizketatu da. Furgonetan bizi izan den etorkin familia; gero, aldizka, ostatu baliabideetan bizi izan da. Ez dauka narriadura mailarik eta gizarteratze prozesuaren amaieran dago. Harremanak ditu jatorrizko herrian bizi den familiarekin.

---

<sup>123</sup> Pertsona hauen hautapena eta hasierako profilen eta pertsonen benetako ezaugarrien arteko egokitzapena metodologiaren kapituluan azalduta daude.

9. Gaztearen profila: lagundu gabeko adin txikiko atzerritarra izan den gizona; ostatu baliabide desberdinetatik igaro da, eta ez da kalean inoiz bizi. Ez dauka narriadurarik, elbarritasunik edo buruko gaixotasunik, eta ez du drogen edo alkoholaren kontsumo aktiborik. Laneratze prozesuan dago eta enplegua modu aktiboan bilatzen ari da. Urtero jatorrizko herrira joaten da familiakoak ikustera, eta urtearen gainerako zatian telefonoz hitz egiten du eurekin.

## 7.1. IRAGANA: ETXEGABETASUNERAKO BIDE DESBERDINAK

Gizarte bazterkeria larriko egoerak eta etxerik eza ez dira aurretiazko jokabide baten ondoriozkoak, eta ez dira azaltzen kasu guztietan esperientzia berberak bizi izatearekin lotuta; gainera, ez dira identifikatzen pertsonaren profil berberarekin. Izan ere, bazterkeria ez da pertsonen berezko ezaugarria, faktore eta egoera multzoaren eraginezkoa delako, baita pertsona bakoitzak horri dagokionez erreaktionatzeko duen moduaren eraginezkoa ere; gainera, kontuan hartu behar dira pertsonak, egoera horien aurrean, laguntzako familia eta gizarte sarea erabiltzeko duen aukera.

Horrenbestez, bazterkeriako eta etxerik ez edukitzeko **uneak** eta bertan **sartzeko bideak** desberdinak dira pertsona bakoitzaren kasuan. Batzuek familia eta haurtzaro “normalizatu” eduki dute; hala eta guztiz ere, bizitzako gorabeheren eraginez (gaztetan erantzukizun gehiegi edukitzea edo drogak probatzeko gogoia, besteak beste), euren burua suntsitzeko bizi prozesua hasi dute, eta bazterkeriarako etengabeko “sartu-irtenak” egin dituzte, eta horiek beti ez dira intentsitate berberarekin egiten.

*“14 urterekin joan nintzen etxetik, gozogile hasi nintzelako; aldi batean, hara eta hona ibili nintzen; ez dakit zergatik egin nuen, agian haurren ohiko lelokeria izango zen, baina azkenean etxera itzuli nintzen. Gero, neskalaguna haurdun gelditu zen eta ezkondu egin ginen; harrezkero ez naiz etxera gehiago itzuli. Berak 15 urte zituen eta nik 16, eta gazteegiak ginen. Uste dut goizegi irten nintzela etxetik, baina familia eta posizioa mantendu beharra nuen. Emaztearen familiaren etxebizitza bat genuen, eta lehenengo sei urteetan bertan egon ginen, baina gero arazoak hasi ziren. Haurrak elkarren atze-atzean iritsi ziren, eta gu oso gazteak ginak; gainera, baliabide ekonomikoak oso urriak ziren, eta beraz, itsasora joan nintzen, itsas enpresa batekin eta gozogile egon nintzen. Dirutxoarekin itzuli nintzen eta negoziotxo muntatu nuen, baina ez zen ondo atera eta kalean noraezean hasi nintzen. Inoiz ere ez dut atsegin izan eskean ibiltzerik, eta dirua edozelan lortzen hasi nintzen, betiere inori kalterik egin gabe. Lapur ibili nintzen, baina zoritxarrez, poliziak nire aurpegia ezagutu eta zenbait aldiz atxilotu ninduen; azkenean, 8 urte inguru egon naiz espetxean. Hain gaztea izanik horrenbeste esperientzia, neskalagunarekin eta lagunekin parrandan joan ezin (beste ardura batzuk dituzulako)..., ezin genuen ezer egin, eta apur-apurka familiarengandik aldentzen hasi eta ihes egiteari ekin nion. Horren ondorioz, drogarekin hasi nintzen. Espetxean sartu baino lehen hasi nintzen drogak hartzen; lehenengo aldiz elkarrekin probatu genuen, gure bigarren semea jaio eta gutxira; heroina marratxo batzuk hartu genituen sudurretik. Garai hartan, 80ko hamarkadan edo, hori modan zegoen, eta gogoratzen dut emazteari kalte egin ziola; neuri, aldiz, plazer sentsazioa eman zidan, erlaxazio sentsazioa, eta horrexegatik gelditu nintzen bertara kateatuta. Emazteak ez zuen horretaz ezer gehiagorik jakin nahi izan, eta pozik nago horregatik, behintzat neu bakarrik hondatu nintzelako.” (1. kontakizuna)*

Beste kasu batzuetan, ordura arteko bizitza “normalizatua” izan ondoren, gertaera traumatikoren bat egon da, adibidez, familiakoren bat hiltzea edo familia apurtzea, eta, horren ondorioz, bazterkeria egoera sortu da, gertaera horri aurre egiteko moduaren eta inguruko gorabeheren eraginez. Pertsona batzuentzat, gertaera traumatiko hori bizitzako une jakinean iritsitako “zorte txarra” da.

*“Hau guztia dibortzio baten eraginezkoa da; 15 urtetan ezkontuta egon eta emaztea etxebizitzarekin gelditu zen. Kolpe gogorra izan zen niretzat, une horrexetan lanik gabe gelditu nintzelako, beste 21 lankiderekin batera, gure enpresa birmoldatzearen ondorioz. Maiatza zen eta ekainean oporrak hartzeko asmoa nuen; lagun batzuen etxera joateko asmoa genuen; emazteari bera joateko esan nion, ni geroago joango nintzela, bien bitartean paperak egin behar nituela langabezia kobratzeko, baina lana aurkitu eta hartu egin behar izan nuen. Emaztea oporretatik itzuli zenean, esan zidan banaketa eskatuko zuela, eta ez zidan beste azalpenik eman. Galduta sentitu nintzen; familiarekin hitz egitera joan eta esan zidaten gauzak horrelakoak direla; halakoetan, emakumeek dena dute euren alde, eta beraz, etxearekin gelditu zen; anaiarekin bizitzera joan nintzen, lanetik hurbil zegoelako, baina zoritxarrez anaia hil egin zen. Amarengana itzuli eta amaitu egin zitzaidan lantegiko kontratua. Eta berriro ere lanik gabe gelditu nintzen; hala ere, zorte ona izan nuen eta amaren etxe ondoan gazteentzako aterpetxea ireki zuten, eta hiru urte inguru egon nintzen bertan lanean; baina epe hori igaro ondoren kontratu finkoa egin behar zidaten, eta beraz, kanporatu egin ninduten; gero, ama hil egin zen. Ama oso gaixorik zegoen osaba bat zaintzen ari zen, elbarritasuna zuen osaba bat; orduan, ama hiltzean neu hasi nintzen osaba zaintzen. Geroago, egoitza batean sartzeko plaza eman zidaten, eta bizilekua lehengusu-lehengusina batzuen zenez, saldu eta kalera bota ninduten. Garai hartan, bi eskopeta nituen etxean, eta lagun batekin Guardia Zibilarengana joan nintzen horiek eramatera, zorakeriaren bat egin baino lehen, eskuartean ez badituzu ezin baituzu zorakeriarik egin. Beldur nintzen, egunen batean bi edo hiru trago hartuz gero gauza izugarriren bat egin nezakeelako. Unerik gogorrena izan zen, etxerik, amarik eta familiarik gabe gelditu nintzelako.” (4. kontakizuna)*

*“Ezkontuta nengoen, lana nuen eta nire bizitza arrunta zen. Sei urtetan egon nintzen emaztearekin, baina zortzi hilabetetan guztia hondatu genuen; oso gogorra izan zen, baina ez naiz kexatzen, ezkontza guztietan halako gauzak gertatzen direlako; gauzak ondo doazenean oso ondo, eta txarto doazenean hobe da bakarrik egon. Emaztearekin arazo gogorrak hasi zirenean, polizia hiritik bota ninduen, emazteak heriotza-mehatxuen eraginezko salaketak jarri zituelako nire aurka; ospa egin behar izan nuen, Udaletxean neukan lan ia finkoa utzita, eta orduan zentro honetara etorri nintzen, txarto nengoelako.” (7. kontakizuna)*

Pertsona batzuek onartu egiten dute euren oraingo egoera gabezia handiekien beteriko lehenagoko bizitzaren eraginezkoa dela; gabezia horiek familia barrukoak izan daitezke, edo bestela, pertsonak berak sortzen ditu; gainera, ondorengo egoera traumatikoak ere egoten dira eta horiek pilatu egiten dira bazterkeriako bizipen pertsonalean.

*“Nire ustez, gurasoen maitasunik ez edukitzeagatik amaitu dut kalean. Zona honetakoa naiz, baina hara eta hona ibili naiz. Gazte-gaztetarik senargaiarekin bizitzera joan nintzen; familia klan batekoa zen eta negozioak zituen (drogarekin loturiko negozioak, baina maila nahiko handian), baina hil egin zuten, drogekin erlazionaturiko gauzaren batengatik; horrela, kalean gelditu nintzen, senargaiaren familiak guztia kendu zidalako; izan ere, ezkontuta ez geundenez, ijitoen etnian pentsatzen da familiak ez zaituela zertan babestu; baina alaba bai, senargaiaren alaba zelako. Hortaz, bakarrik gelditu nintzen, kale gorrian, eta alaba senargaiaren amak hartu zuen; neure burua kalean ikusita, drogak hartzen eta*

*prostutuzioan hasi nintzen, behar nituen dosiak lortu ahal izateko; azkenean, toxikomanoei laguntzeko zentro batean sartzea erabaki nuen.” (5. kontakizuna)*

*“18 urterekin joan nintzen etxetik, senarra izango zenarekin maiteminduta nengoelako, eta bi seme izan genituen. Haurdun gelditu nintzen ama izan nahi nuelako eta senarra izandakoak inoiz ere maitasunik eman ez zidalako. Ezkontzan bi seme jaio ziren, bata orain hamasei urte ditu eta besteak hamalau. Gero, nire azken bikotearekin, alaba bat eduki dut eta horrek orain hiru urte ditu; lau hilabeterekin laga egin behar izan nuen, bere ardurarik hartu ezin nuelako. Bi semeak nire nebarekin daude eta ez daukat harremanik eurekin; bost urtetan ez dut hitzik egin familiarekin. Lehenengo senarrarengandik banandu nintzenean, nire ama haserretu egin zen; jendearen esanen beldur zen, eta, berak zioenez, senarrak egiten zituen gauza guztiak jasan beharra zegoen; nebak, aldiz, ulertu zuen ni banantzea. Banantzean semeak amarenera eraman nituen, eta eurekin irteten nintzen batzuetan. Ni ez nengoen ondo, agian ez zen depresioa izango, baina antzeko zerbait bai, eta beraz, semeak ikusteari utzi nion. Haurrek arazoak izan dituzte; badakizu haurrak batzuetan oso gaiztoak direla, eta ikastetxean hauxe esaten zieten: ez daukagu aitarik, ez daukazu amarik, baina familiak beti esan die ama hortxe dutela; arreba bat dutela ere badakite, baina oraindik ere hori onartzeko prozesuan ari dira. Etxeko egoera (gurasoen etxeko egoera) ez zen batere eroso; tentsio handia zegoen. Orduan, amari horrela ezin nuela jarraitu esan eta joateko asmoa nuela esan nion; berak hauxe esan zidan: ba joan, eta nigatik ez gehiago etorri. Joan egin nintzen eta esan nion ez nintzela itzuliko berak barkamena eskatu arte; lehengoan, deitu zidatenean (semeari idatzitako gutun baten ondorioz), amak telefonoa hartu eta barkamena eskatu zidan. Harriturik gelditu nintzen, ez bainuen uste amak inoiz ere barkamenik eskatuko zidanik. Agian denboraren eraginez, bost urte igaro baitira, bere harrokeria moteldu egin da.” (6. kontakizuna)*

Beste zenbait kasutan, gizarte eta familia testuinguru “normalizatuan” bizi ondoren, egoera batzuen eraginez (guztiak traumatikoak izan ez arren), faktore batzuk pilatu eta, horrela, inguru hurbilekiko lotura galtzen da, eta, horren ondorioz, etxerik gabeko pertsona izatera iristen da.

*“Okupa mugimenduari oso lotuta egon naiz beti, baina ez ideologiarengatik; arlo ideologikoa hortxe dago, baina ez da horregatik izan. Gurasoekin bizi nintzen eta bederatzirterekin okupatzaileengana joaten nintzen. Ez ziren gaztetxeak, jendea bizitzeko etxeak ziren. Garrantzitsuena jendea ezagutzea zen eta ni txinorria nintzen. Giro jatorra zegoen eta pentsatu nuen ideia ona zela bertan gelditzea. Gazte-gaztetarik hasi nintzen lanean eta gurasoekiko harremanak ez ziren onak; bost urterekin ere etxetik joan egin nintzen. Hamar eta hamabi urterekin lanean hasi nahi nuen, etxetik ospa egiteko, ez bainuen etxean gehiago egon nahi. Orain dela 15 urte lagun batzuk bildu ginen eta etxebizitzak okupatzen hasi ginen; auzotarrek kanporatzen gintuztenean beste batera joaten ginen. Lehen proiektu bat zegoen eta ahorik ahoko informazioa zegoen, etxe batetik bestera mugitzeko. Baina ez ginen ohiko punkiak. Hemen ez nengoenean eta lo egiteko lekurik ez nuenean, jendeari galdetzen nion ea etxe hutsik non zegoen, baina sarritan kalean lo egin behar izan dut, neguan gainera. Joan den neguan luzaro egon nintzen kalean, eta horretarako hilerik gogorrenak urria eta azaroa dira, euriak hasten direnean. Negu honetan etxe batean egon naiz, eta bertan gela bat egokitu dut, baina gero ikastetxea jarri eta ospa egin behar izan dut.” (3. kontakizuna)*

Batzuek, aterperik aurkitzen ez dutenean, etxerik gabeko pertsonentzako baliabideak erabiltzen dituzte; zenbait kasutan ez dute apurtze traumatikorik eduki, eta ez dute kontsumo aktiborik, gaixotasunik edo elbarritasunik. Kasurik gehienetan, etorkinak eta etorkin familiak izaten dira.

*“Familia eta ni atzerriko herri batetik etorri gara, bertan lanik ez genuelako. Lehenengo eta behin, senarra iritsi zen, gure seme nagusiarekin eta amarekin; furgoneta batean bizi ziren. Zazpi hilabete geroago, ni heldu nintzen, eta haurdun nengoan (hirugarren haurra). Gure herrian alaba bat utzi genuen. Heldu nintzenean beste furgoneta bat erosi genuen; horrela, amaginarreba furgoneta batean eta gu beste batean gelditu ginen.” (8. kontakizuna)*

*“Adin txikikoa nintzela, Espainiara iritsi nintzen, autobus baten behealdeari helduta. Hiri askotan egon naiz, baita atzerrian ere; azkenean Espainiara itzuli nintzen, baina ez nengoan pozik bizi nintzen lekuan. Lana nuen, baina baldintza txarrekoa, eta jendea oso arrazista zen. Ez dakit zergatik, baina pentsatu nuen iparraldean tratu hobea hartuko nuela, eta horrela izan da. Bidaia-txartela erosi eta bertora etorri nintzen. Hemen jendea ez dago neuri begira, “europarragoak” dira, bakoitza bere gauzetan sartzen da; ez dira neurekin horrenbeste sartzen eta tratu hobea ematen didate.” (9. kontakizuna)*

Beste kasu batzuetan, buruko gaixotasun baten sintomek arazoak sortzen dituzte etxean; horrela, batzuetan, familia ez da gauza izaten egoerari aurre egiteko, eta beraz, pertsona joan egin behar izaten da etxetik.

*“Ni bertokoa naiz, aitarekin lantegi batean egiten nuen lan, baina lanetik bota ninduten, egun batean “kolokatu egin nintzelako”: ez nintzen ondo sentitzen eta ez nintzen lanera joan. Orduan, gurasoek etxetik bota ninduten; esan zidaten lanik egin ezean ezin nuela etxean egon, ezer egin barik; horrenbestez, garai batean kalean bizi izan nintzen. Gauza txar asko egin ditudalako nago kalean; lapurretak egin ditut, amari berari, dendetan eta abar, eta poliziak harrapatu egi ninduen eta komisarian egon nintzen. Gainera, une bortitzak izan nituen, eta borrokan egiten nuen familiarekin eta neba-arrebekin; lana utzi eta ez nuen beste lanik bilatu nahi izan; agian, beste lanen bat aurkitu izan banu, nire oraingo egoera ez zen hau izango; lana banu, agian gurasoek berriro hartuko nindukete etxean, baina agian ez, batek daki. Eurak haserre daude; esaten dute alferra naizela eta bizimodu honetara egokitu naizela, horrexegatik ez dudala lanik egiten; egia esan arrazoia dute, egokitu egin naiz, oso ondo nago. Bila ibili eta auzoko gizarte langilearengana joan nintzen; hasieran, txartel batzuk eman zizkidan, hiriko gizarte jantokian jateko, eta gero, laguntza bat eman zidaten, ostatua ordaindu ahal izateko, baina 25 urte egin arte ezin zidaten diru guztia eman; beraz, eurek ordaintzen zuten ostatua, eta horrelaxe ibili naiz orain arte.” (2. kontakizuna)*

## 7.2. ORAINA: ETXERIK GABEKO BIZITZA

Iraganaren kasuan bezala, **oraingo egoerak** ere desberdinak dira, pertsona bakoitzaren bizi uneen, pilaturiko esperientzien, erabilitako baliabideen, jarrera nahiz motibazio desberdinen edo jasotako laguntzen eraginez, besteak beste. Kontsumo aktiboetan dauden pertsona batzuek kontsumo horiekin jarraitu nahi dute, toxikazioaz gabetzeko prozesuan dauden pertsonak daude, mendekotasunak gainditu ondoren bizitza berregiten ari diren pertsonak daude, enplegua bilatzea soilik behar duten pertsonak (etxerik gabeko pertsonentzako baliabideak uzteko), baita enplegua lortu eta integrazio prozesuaren azken faseetan dauden pertsonak ere (autonomiaren aurreko faseak).

*“Bi gautan egin dut lo zentroan, baina urte askotan etxeak okupatu ditut bizitzeko. 70eko hamarkadakoa naiz eta 17 urte nituenetik nago kalean; beraz, ia 20 urte eman ditut kalean bizitzen. Eta, gaur egun, oso txarto sentitzen naiz, bizitza alferrik galdu egin dut*

*erabat. Kontsumitzailea izan naiz eta kontsumitzen jarraitu nahi dut; uzten saiatu naiz baina ez du ezertarako balio, oso nekatuta nago.” (3. kontakizuna)*

*“44 urte ditut eta emaztea (azken bikotea) orain dela urte eta erdi hil da; drogan sartuta geunden... Berarekin batera hil nahi nuen eta era guztietako kontsumoetan hasi nintzen. 14 urte eman ditut kalean, era guztietako lanak izan ditugu aldizka. Oraingo bizitza oso gogorra da eta bizitza hori utzi egin nahi dut. (Toxikazioaz gabetzeko prozesuan dago, egonaldi ertaineko baliabide batean).” (1. kontakizuna)*

*“Orain ondo nago; bizilekua daukat, arazuko otorduak, garbitasuna, nolabaiteko segurtasuna, baina batez ere bizilekua. Kalean, zorionez, denbora laburrean egon nintzen, baina kalean egotea oso gogorra da, duintasuna galtzen duzu. Kalean bi gau baino ez ditut eman, baina ez dut lorik egin. Gau osoan hara eta hona ibiltzen nintzen; gogoan daukat euri-zaparrada handia bota zuela eta zubipean egon nintzela hara eta hona; nekatzen nintzenean, aulki batean esertzen nintzen. Kanpotik datozeneztat (etorkinak esan nahi du), ba tira, eurak ez ditu inork ezagutzen, baina ni bertan jaio naiz, bertan lan egin dut, eta zorte txarraren eraginez nago egoera honetan, inolako babesik gabe; hori oso gogorra da.” (4. kontakizuna)*

*“Orain ondo nago, aterpetxean nago, egonaldi ertaineko moduluan, eta mutil batekin nabil. Orain oso ondo gaude, baina ezin daiteke esan lehengora itzuliko ez naizenik; hala ere, ez itzultzeko helburua daukagu eta ez dakigu noraino iritsiko garen, baina motibazio handia daukagu. 38 urte ditut eta 20 urteko alaba bat daukat; ia ez dut ezagutzen, aitaren familiarekin baitago. Nire familiarekin ez daukat inolako harremanik; hala ere, badakit alaba ezkondu egin dela, baina ez nau ezkontzara gonbidatu. Nire alaba oso minduta dago aitari gertatu zitzaionarengatik; gainera ez nau onartzen, eta nire bizimodua ere ez du onartzen (nolabaiteko etsipenez esan du hori), eta aitaren familiakoek segurutik nire aurka jarri dute, baina tira, badakit egunen batean ulertuko nauela.” (5. kontakizuna)*

*“Egonaldi laburreko moduluan nago, orain ondo nago, lasai-lasai. Bi urte eta erdi eman ditut kalean.” (6. kontakizuna)*

*“Orain lehen baino apur bat hobeto nago, lehen kalean nengoelako eta arazo asko nitue-lako; paper arazoak, dibortzioa; lan arazoak, orain dela lau urtetik buruko gaixotasunera “sendagaiak” hartzen ari naizelako; arazo ekonomikoak, minusbaliotasunarengatik dagokidan pentsioa kobratzeko paperak ondo eduki behar ditudalako. Gela batean bizi naiz, eta sukaldea erabiltzeko eskubidea daukat; horri eta bi erakunderen laguntzari esker bizi naiz; apurka-apurka hobetzen joan behar dut. Udaleko ikastaroren baten zain nago, baina oraindik ez didate deitu, eta txarto pasatzen ari naiz, dirulaguntzarik ez dudalako, eta ezin dut gehiago. Zerbait egin behar dut nire arazo ekonomikoak konpontzeko; ezin diot familiari deitu, zer esango diet?, txarto nagoela?” (7. kontakizuna)*

*“Orain ondo nago, osasun ona daukat eta eskizofrenia baten eraginezko minusbaliotasuna kudeatuko didate, eta, kobratzen dudanean, agian lanean hasiko naiz, agian gogoia edukiko dut, eta berdin dit zertan lan egin, baina behintzat lan egin, dirua lortzeko, horixe baita lanak eskaintzen didan gauza bakarra.” (2. kontakizuna)*

*“Etxebizitza batean nago beste batzuekin batera, adiskideekin ondo moldatzen naiz, baina ez dira lagunak. Orain dela hiru egunetik hona ia ez dut lorik ere egin, ez daukat ezertarako gogorik, ez dago alaitasunik. Arratsaldeetan ez naiz irteten, ez daukat gogorik. Asteburuetan ez naiz irteten, ez nabil lagun bila, nire helburua lana aurkitzea baita. Dagoeneko ez dut barre egiteko lagunik nahi, lanik eduki ezean barrerik ere egin ezin delako. Mutil gaztea naiz, baina nire pentsaera, bizitza ikusteko modua, ez da nire adineko*

*mutil batena. Ezin dut nire adineko mutil baten moduan bizi, espainola ez naizelako, gurasoak hemen ez ditudalako, hemengo mutil gazte batek egiten dituen gauzak egiten ez ditudalako, bizimodua atera behar dudalako, janaria eta lana lortu; hau da, mutil gazte baten aitak hemen egiten duena egin behar dut neuk ere.” (9. kontakizuna)*

*“Hiru seme-alaba ditut, eta urtebetetik hona babesturiko etxebizitza honetan gaude. Senarra lanean dabil. Seme-alabak ikastetxera doaz eta nik ikastaroak egiten ditu. Ondo gaude.” (8. kontakizuna)*

Eta, bizitzaren une honetan, zertan ematen du denbora etxerik gabeko pertsona batek? **Nolakoa da zure bizitzako egun bat?** Egunaren okupazioa oso anitza da. Pertsona batzuek “denbora ematen” dute, eta beste zenbaitetik, adibidez, noizean behingo lanak dituzten gutxi batzuek, parte hartzen dute jardueretan eta lantegietan, edo legez kanpoko jarduerak egiten dituzte aparteko dirua lortzeko.

*“Zigarroa eskatu eta, aurpegi gogorra duzunez, jendeari gauzak eskatzen dizkiozu. Jaikitzen naizenean ez daukat ezer egiteko asmorik, baina zerbait egin behar dut; agian, zuretzat euro bat ez da ezer, baina niri euro batek goiz osorako bizitasuna ematen dit. Adibidez, terrazatxo batean kafea hartu eta eguzkitxoa hartzen dut; izan ere, ez da lelokeria hutsa, eta Eguzkiak gorputza berotzea ere atsegin dut. Batzuetan, munduko diru guztia duten atzerritarak agertzen dira; dirua gastatu eta bota nahi dute, haxixaren bila bidaltzen zaituzte, porro batzuk eman eta dirutxoa ateratzen duzu. Batzuetan billete bat ematen dizute. Hauxe da plana: eurak oso harroak dira eta zuk eskean ibili behar duzu. Gainera, halako pertsonak gauza guztietan sartzen dira, eta oso erraza da horiei edozer saltzea, eta horrela ere kolokatu egiten dira. Baina hautsarekin zerikusia duten nahasteetan ni ez naiz sartzen. Halako saltsetan ibiliz gero, neure etxea erosiko nuke, irabazitako diruarekin; baina bizi-estilo horri eusteko giro jakinetan egin behar da lan, ordutegi jakinekin, eta hara eta hona ibili behar da beti. Bazkaltzera, hona etortzen naiz, baina batzuetan ez dut jaten. Zenbait astetan ez dut ezer bazkaldu, eta noizean behin baino ez dut gosaltzen. Kanean egon arren zure ordutegiak dituzu, eta batzuetan ez da erraza horiek errespetatzea, batzuetan arratsalde oso ona delako eta ezin duzulako edozein unetan ospa egin jantokira joateko. Iluntzean elkartu egiten gara, kanean, geure artean hitz egiteko; neurekin dabilen jendea goizeko bederatzietatik arratsaldeko bostetara egoten da zentroan.” (3. kontakizuna)*

*“Nire bizitzako egun bat oso arrunta da; ohetik jaiki eta gosaldut egiten dut; lanen bat egin behar badut, egin egiten dut, baina goizeko 10:00etan zentrotik kanpo egon behar da, eta asteburuetan 10:30era arte egoteko aukera ematen digute. Hemendik irteten naizenean, informatika ikastaro batera joaten naiz orain, nahiko erraza delako eta esfortzu handirik eskatzen ez duelako, baina ez zait batere erraza egiten. Orokorrean, bakarrik ibiltzen naiz leku batetik bestera, baina batzuetan lagunekin ere ibiltzen naiz; hala eta guztiz ere, gauzak egin behar ditudanean nahiago dut bakarrik ibili, eta zereginik ez dudanean gurago izaten dut lagunekin egon. Ez daukat ez lagun asko eta ez gutxi, denen moduan; irteten garenean osteratxoa egiten dugu, garagardo bat hartu eta porro batzuk erretzen ditugu. Bazkaltzeko orduan zentrorra itzuli eta, siestaren ostean, berriro ere irten egin behar da; arratsaldean gauza bera egiten dut. Gauez hamaiketan sartu behar da, baina asteburuetan hamabietara arte ere egon daiteke kanean; nik neuk nahiago izaten dut lotara etorri, eta ez naiz inoiz ere irteten.” (2. kontakizuna)*

Etxerik gabeko eta bazterkeriako egoera ez da iraunkorra; pertsonak **“sartu eta irten”** egiten dira **bazterkeriatik**, egoera berriak sortu ahala; izan ere, egoera horien eraginez, etxegabetasun egoerara itzuli edo aldaketa prozesuetan sartzen dira. Horrenbestez, baliabide mota desberdinak erabili eta erakunde desberdinetara joaten dira.



"Drogak hartzen hasi ondoren, espetxean sartu ninduten, lapurretan harrapatu nindutela. 8 urtetan egon nintzen espetxean eta emazteak utzi egin ninduen, espetxean nengoenean; nik ulertu egin nuen hori, bera oso gaztea zen, baina lur jota gelditu nintzen, eta familiaren laguntza izan nuen, ama eta neba-arrebak ni ikustera etortzen baitziren. Espetxean lanean ibili nintzen, eta horrela, irten nintzenean, diru apur bat neukan. Irteetan beste neska batekin hasi nintzen, eta egonkortasun emozionala lortu nuen. Nire bizitza egiten nuen, bizitza arrunta, eta drogak hartzen nituen, baina lana neukan, etxea ere bai, eta emakume batekin nengoen. Espetxetik irten nintzenean drogak hartzen nituen, eta ez dut droga inoiz ere utzi, harik eta nire azken bikotea ezagutu arte. Biok ere drogak hartzen genituen, eta ni metadona tratamendua egitera joan nintzen, epaiketa bat neukalako eta epaileak zigorra toxikazioaz gabetzeko zentro batean betetzeko aukera eman zidalako. Ez nuen droga utzi nahi, baina derrigorrezkoa zen, zigorra saihesteko. Neskalgunari tratamendua elkarrekin egitea proposatu nion. Urtebete eta erdi eman nuen elkartean, eta bera toxikomanietarako etxebizitza batean sartu zen; bi urte egon ginen bananduta. Guztira, bost urte egon naiz drogarik hartu gabe. Baina aldi horretan ez nintzen kalean bizi, egonkortasun ekonomikoa nuen eta drogekin ere zerbait banuen, dirua lortzeko. Gainera, lan egiten nuen eta atzerrira joan nintzen lanera. Bi hilabete inguru egon nintzen etxetik kanpo, eta neskalaguna nire familiarekin gelditu zen, baina aspertu egiten zen, ez zuen lanik, eta bidaiatik bigarren ez itzuli nintzenean esan zidan gauza batzuk zituela buruan, berriro ere drogak hartzen hasi nahi zuela, eta gure arteko harremana apurtu nahi zuela, ez baitzuen ni mintzerik nahi. Nik hauxe esan nion: zu bazoaz, neu ere bai. Nik asko maite nuen eta berriro erori izan ez balitz lortu egingo zuen, dirutxo aurreztuta nuelako eta lan egonkorra nuelako, pladurra lan polita baita. Baina etapa gogorra iritsi zen, pilaketa prozesua izan zen; nire emaztea gaixotu egin zen eta nik ezin nuen zutik ere egon; beraz, lanari utzi egin behar izan nion. Garai batean, nire emazteak eta biok berriro ere kokaina asko hartzen genuen, egunero 100.000 pezeta gastatzen genuen, baina berdin-berdin. Ez naiz gogoratzen noiz izan zen behea jotzeko unea, baina biok ere gaixotu eta ospitalean egon ginen. Bertatik irten ginenean, zentro honetara etorri ginen laguntza eske, eta hiru hilabete inguru egon ginen egonaldi erdian. Etxebizitza batean geunden lehenengoz. Ahal genuen bezala bizi ginen; etxe hutsetan, aurkitzen genituen zuloetan, lonjetan, ostatuetan, edo autoreen baten barruan, egoera ekonomikoaren arabera, lehenengo eta behin drogaren gastuari egin behar baikenion aurre, eta ezer gelditzen bazen, ba ostatua ordaintzeko erabiltzen genuen. Hemen (zentroan) egon ginenean, nik pentsioa kobratzen nuen eta dirutxo aurreztu nuen; horrela, etxebizitza bat alokatu eta urte eta erdian egon ginen bertan. Baina berriro ere droga hartzen hasi ginen, eta berriro kalera. Hemendik ibili ginen; astebete edo 10 egun egoteko aukera ematen ziguten, narkogeletan ere egoten ginen, ospitalean, oso ahul geundelako. Eta horrelaxe bizi izan gara 14 urtetan. 14 urte horietan egun bakar batez ere ez dugu gozatu egunarekin." (1. kontakizuna)

"12 urte egon naiz bakarrik, bikotekidea hil ondoren jendeari gorroto handia hartu niolako; gauza guztiak bakarrik egiten nituen, eta drogak ere bakarrik hartzen nituen. Kalean igarotako urteak errutinakoak izan ziren; goiz osoa kalea egiten ematen nuen, dirua ateratzeko, ahalik eta gehien lortzeko eta beltz batengana joan eta dosia eskuratze-ko. Gero, parkera joaten nintzen sudurretik hartzera (ez nuen zainetik hartzen); parkeko hareatzen eseri eta beste dosi bat hartzeko gogoa eduki arte bertan egoten nintzen, eta gero berriro ere kalera, dirua lortzeko eta beste beltzen baten bila joateko, behar nuena erosi ahal izateko. Ondoren, goizaldeko hiruretan edo lauretan aulkiren bat edo bazterren bat bilatu eta betan egiten nuen lo; hasieran gizonen baten etxean gelditzen nintzen lo egitera (bezeroren bat), baina gero ez nuen halakorik nahi. Jendeari ihes egin diot beti, eta egun batean zeure buruari begiratu eta ez duzu onartzen ikusten duzuna, eta drogazalea zarela onartu eta laguntza eskatu behar duzu. Zentrora joatea erabaki nuen, oso txarto nengoelako, 30 kilo baino ez nituen; ispiluan begiratu eta ez nuen neure burua ezagutzen,

oso txarto ikusten nuen neure burua, eta laguntza nahi nuen. Zentro honetan ez dago niri laguntzeko moduko psikologorik edo psikiatrarik, baina bertan gelditzea erabaki nuen; izan ere, pentsatu nuen neurearen antzeko egoeran zeuden pertsonak laguntzeko zerbait egin nezakeela. Denborarekin, atzerrian irekiko zen zentro batean boluntario gisa lan egitea proposatu zidaten, baina ezetz esan nuen, uste bainuen ez nintzela gauza izango. Hiru urte eman nituen drogarik hartu gabe, baina eskaintza hori egin eta gutxira berriro hasi nintzen drogak hartzen, ez dakit zergatik. Bakarrik egon naiz beti, ez nuen inorekin egon nahi; niretzat droga dena zen, senarra bezalakoa zen, berarekin oheratu eta berarekin jaikitzen nintzen. Ez nuen ezertarako itxaropenik, aulki batean eserita eta heriotzaren zain banengo bezala sentitzen nintzen. Agian, emakumea gizona baino ahulagoa da, eta nik ez nekien beste giro batean bizitzen. Uste dut drogarengatik izan ez bazen bizitza arrunta izango nuela. 18 urterekin hasi nintzen drogak hartzen, alaba eduki ondoren. Orduko bikotekideak drogak hartzen zituen, tratu oso txarra ematen zidan, ez ninduen etxetik ateratzen eta ihes egiteko hasi nintzen drogak hartzen. Bera hil ondoren, kalean nengoenean, drogak hartzen jarraitu nuen.” (5. kontakizuna)

“Lehenengo eta behin, ostatu batean egon nintzen luzaro, baina bota egin ninduten, ostatua gizonentzat soilik zelako; baina niri hasieran ez zidan inork halakorik esan, eta beraz, aterpetxera etorri nintzen. Une horretan, aterpetxea zer zen ere ez nekien; bertara heltzeko, polizia bati galdetu behar izan nion, ez nekielako zer zen. Lehenengo egunean, sartu eta guztia begiratzen duzu. Aldi bat eman zidaten eta gero ostatu batera joan nintzen. Ostatua ordaintzeko dirurik ez nuenean, gaueko zentro batera joaten nintzen; hala ere, geroago, aterpetxean egonaldi ertaineko moduluan sartu ninduten, eta bertan ezagutu nuen nire bigarren bikotekidea; une horretan, aterpetxean gauzak okertzen hasi ziren. Alaba bat eduki genuen, eta hori harrera araubidean dago, nire bikotekide ohiaren familiarekin; aste batzuk barru epaiketa daukat, alaba ikusi ahal dudak jakiteko. Nire ustez ez da bidezkoa nire bikotekidea izandakoak nahi duenean ikustea eta nik ez; izan ere, berak arazoak ditu alkoholarekin eta inoiz ere ez dio kasurik egin alabari, haurdun gelditu nintzenetik; lehenengo eta behin, zalantzak izan zituen haurra berea izateari buruz, eta gero, esan zuen onena abortatzea zela. Haurdun gelditu nintzenean asko edaten hasi zen. Ezagutu nuenean ere edan egiten zuen, baina nik uste nuen hori normala zela; baina, gero, egoera jasanezina izan zen, eta alaba eduki nuenean bikotekidea utzi egin nuen, baina zentroko hezitzaileak esan zidan onena berarekin itzultzea zela, alaba zaintzeko, eta azken aukera ematea erabaki nuen; hauxe esan nion: “aukera hau emango dizut, baina azkena izango da”. Horrela, berriro saiatu ginen; dutxa eta sukaldea zuen gela bat hartu eta hasieran gauzak ondo joan ziren; berak ez zuen edaten eta hitz egiten genuen, ez nuen sinetsi ere egiten. Gure harreman osoan neuk bakarrik egin dut lan, haurdunaldi osoan lanean ibili nintzen, garbiketa enpresa batean. Bizitza osoan arazo hori behin eta berriro eduki dut, alkoholaren erruz banandu naiz nire bi bikotekideengandik; alkoholarekin oso bortitzak ziren, eta txarretik txarragora joan nintzen. Orain beste halako bikotekide bat aurkitzeko beldur naiz. Azkenik, harremana utzi eta beraren familiak bere alkoholismoaren errua leporatu zidan. Betikoa gertatzen da, hau da, konfiantza eman eta, horrela, dena hondatzen da. Azken batean, bi urte eta erdi eman ditut kalean lo egiten, gutxi gorabehera. Zaila egin zitzaidan laguntza eskatzea, agian harrokeriarengatik, uste bainuen lan egiteko eta dirua irabazteko gauza nintzela, baina egun batean etsi egin behar duzu. Gosaltzeko edo bazkaltzeko ezer ez nuenean, elizan eskatu eta tabakorako edo kafe bat hartzeko ateratzen nuen. Garai batean ez nuen ezer jaten, eta ez nintzen gose; uste dut gorputza ohitu egin zela ez jatera, hartzen nuen gauza bakarra kafesnea baitzen. Eta, jakina, argal-argal nengoen, eta tentsio handiarekin, horrenbeste kaferekin eta lo gutxirekin. Haurra eduki nuenean, Orfidal hartzen nuen erlaxatzeko (aditza ematen du buruko gaixotasunaren tratamendua utzi ondoren sendagaiak bere kontura hartzen dituela, lasai egoteko), eta, haurra eduki ostean, anbulantzia sartu nindutenean ez zidaten uzten lo egiten.” (6. kontakizuna)

*“Lehenengo zentrorra iritsi nintzenez, psikiatruk sendagaien errezetak eman zizkidan, baina nik ez nituen zentroko arauak bete, eta beste zentro batzuetara bidali ninduten. Baina horietan ere nik ez nituen arauak betetzen, eta gehienez ere bi egunetan gelditzen nintzen, alkohola sendagaiekin eta porroekin nahastean kontrola galtzen nuelako, eta orduan, lehergailu atomikoa nintzen; gainera, arazoak nituen poliziekin, arakatu eta tratu txarra ematen zidatelako; sakatu eta jo egiten ninduten. Kanean nengoenez ez nuen ezer behar, batzuetan jan ere ez nuen egiten, eta gainera, hemen ez du inor goseak hiltzen, jatekorik eskatuz gero edonork emango dizulako; gainera, doako jantokiak daude eta batzuetan bertara joaten nintzen jatera, baina goizetik gauera edaten nuenean galdu egiten zitzaidan gosea, gose nintzen baina ezin nuen jan, pozoia, porroak eta alkohola baino ez nituen nahi, eta batzuetan, sendagaiekin kontrola galtzen nuen. Egunean hamar pilula hartu behar izaten nituen eta hamalau Trankimazin hartzen nituen (lasagarriak). Orain, urtebete daramat lasai-lasai.” (7. kontakizuna)*

*“Urtebete eta erdi ego nintzen kanean lotan, eta gero, gainerako denbora zentro batean igaro nuen, harrerako etxe batean. Kanean egon nintzen denbora ez zen garairik txarre-na izan; ez nuen txarto pasatu, bizimodua ateratzeko eskean ibiltzen nintzen; amak ere batzuetan dirua bidaltzen zidan, eta, neguan lo egiteko, atariren bat aurkitzen nuen; udan nahiago izaten nuen parkean lo egin. Dutzarik hartzen ez nuenez eta zikin-zikin nembilenez, jendeak begiratu egiten zidan, baina nik hori ez nuen txarrean hartzen. Neure errua zen, leku batzuetan dutxa hartzeko aukera zegoelako, baina ez nuen gogorik, oso urrun zegoen, eta beraz, McDonald’s batean aurpegia garbitzen nuen, gel apur batekin, eta batzuetan, ilea ere hantxe bertan garbitzen nuen, eta tabernetan eskuak lehertzeko egoten den lehorgailuarekin lehortzen nuen. Baina garai hori ez zen oso txarra izan, ni oso ondo moldatzen naiz era guztietako egoeretara; gainera, osasun onekoa naiz eta inoiz ere ez dut katarrorik ere eduki. Niri kaleak on egin dit, ez dut aulkietan lorik egin eta ez dut inoiz lepoko minik eduki.” (2. kontakizuna)*

Beste kasu batzuetan, lo egiteko lekua soilik behar dutenei erantzuna emateko baliabide berezirik ez edukitzearen eraginez sartzen da jendea bazterkerian, eta pertsona horiek ez dute etxerik ez edukitzeari loturiko droga kontsumorik edo gaixotasunik izaten; egoera hori, batez ere, etorkinen artean gertatzen da.

*“Hogeitaka urtetan kotizatu dut Gizarte Segurantzaz; langabezian amaitu nuen eta, Oinarrizko Errenta kobratu ahal izateko, paper asko egin behar izan nituen. 52 urtetik gorakoentzat eskatu nuen INEMen, eta hilabete igaro baino lehen eman zidaten. Gero kalera joan nintzen, etxerik gabe gelditu nintzelako. Kale gorrian ez dut inoiz lorik egin. Etxerik gabe gelditu nintzenez, ekainean, azarora arte, aterpetxetik ostatura ibili naiz. Lehenengo eta behin, hona etorri nintzen, aterpetxera, eta hiru egun eman nituen bertan; gero, gizarte langile baten bidez, beste zentro batean sartu nintzen, eta bertan luzaroago egon nintzen, baina epe horretan oraindik ere kobratu barik nengoen. Hilaren bigarren hamabostaldian kobratu nuen, eta orduan, pentsatu nuen dirutxo hori garai txarretan erabiliko nuela. Baina kobratu egin nuen eta, behintzat, ospa egin nuen ostatutik; 460 euro nituen eta ostatuan egunero 20 euro kobratzen zizkidaten. Kontuak oso ondo eram behar nituen, ezin bainuen tabakorik ere erosi, eta jateko, gizarte jantokietara joaten nintzen. Dirua amaitu zitzaidanean, berriro ere aterpetxera, hari eta Oinarrizko Errenta berriro kobratu arte, eta horrela. Niretzat garrantzitsuena bizilekua zen, eta nahiago izaten nuen jan barik egon, kanean lo egin baino.” (4. kontakizuna)*

*“Arrazoi zehatzik gabe etorri nintzen hona; iparraldean lekuren bat bilatu nahi nuen, lehen bizi nintzen lekutik urrun. Bidaia-txartela ordaindu eta etorri egin nintzen; autobusetik jaistean, bertan zegoen gizon bati galdetu nion ea zentroa non zegoen, eta berak bertara*

*lagundu zidan. Hiru egun egon nintzen udal aterpetxean, eta gero joan egin behar izan nuen; bertan lo egin eta gosaria jaten nuen. Jendea atsegina zen, eta ez zen inorekin arazorik egon.” (9. kontakizuna)*

*“Furgoneta batean bizi ginen eta, gero, beste baliabide batzuetara igaro ginen; baliabide batzuk etorkinentzat ziren eta beste zenbait etxerik gabeko pertsonentzat.” (8. kontakizuna)*

Sartu-irtenetan, sarritan **gizarteratze prozesuak** hasten dira, aldaketa prozesuak; kasu batzuetan, prozesuak arrakastatsuak dira, eta beste zenbait kasutan, bertan behera uzten dira, era askotako zergatiren ondorioz; azkenik, pertsona batzuek une egokia eta beharrezko laguntzak aurkitzen dituzte, prozesu osoa garatzeko eta bizi-estilo berria lortzeko.

Gizarteratze **prozesu arrakastatsuak** garatzen ari diren pertsonak diotenez, funtsezko bi elementu daude, horietan mantentzeko eta arazoak gainditzeko: norbaiten alde borrokatzeko motibazioa edukitzea eta profesionalen laguntza izatea.

*“Droga bi aldiz utzi dut, bieran neuk bakarrik eta inoren laguntzarik gabe, eta ahaleginok alferrekoak izan dira; beraz, laguntzako pertsona hori eta profesional egokiak aurkitu nahi izan ditut, eta uste dut hirugarren ahalegin hau behin-betikoa izango dela. Pertsona bat zirkulu horretatik irteten ez bada, profesional bati laguntza eskatuz, jakin behar du ez dituela arazoak gaindituko. Gainera, irten ondoren ere ez dira arazoak amaitzen, irtetea ez da nahikoa, lehengo giroa utzi egin behar duzu. Jendeak galdetzen dit ea irten ahal den, eta nik baietz erantzuten dut, baina eurak bakarrik ezin izango dutela eta profesionalen laguntza beharko dutela.” (5. kontakizuna)*

Beste pertsona batzuen kasuan, etorkizun hobearen itxaropena mantentzeko laguntza ematen dien motibazioa fedea da, eta uste dute fede hori lagungarria izan dela euren bazterkeria maila ez handitzeko.

*“Jainkoa neurekin egon da beti. Laguntasun horri esker ez naiz bakarrik sentitzen, eta aurrerantzean ere lagundu egingo nauela sentitzen dut. Jainkoarengan sinesmenik ez banu, askoz ere txarrago izango litzateke.” (9. kontakizuna)*

Aldaketa prozesu hauetan, oso garrantzitsua da **konpromiso maila** jakina lortzea, eta batzuek uste dute eskakizun baxuko baliabideak berez agortzen direla, “gutxiegi eskatzen” dutela; beraz, beharrezkoa da konpromiso eta eskakizun maila handitzea, gizarteratze prozesua amaitu ahal izateko.

*“Kaleko urteetan, gaueko zentroak ere erabili ditut, hau da, narkogelak; bertan lo egiten utzi eta kontsumitzeko materiala ematen dizute, baina ni pare bat aldiz baino ez naiz joan, nik laguntza behar nuelako, eta ez kontsumitzeko gauzak; laguntza jasotzeko lekua behar nuen, aholkua behar nuen aurrera ateratzeko, eta ez hondatzen jarraitzeko.” (5. kontakizuna)*

Pertsona batzuek trebetasunak dituzte eta ez dute narriadura fisikorik edota psikikorik; horrela, gizarteratze prozesuan partaidetza aktiboa eta iraunkorra izan dezakete, oztopoak aurkitu arren, eta gainera, biztanle arruntentzako baliabideen erabiltzaileak ere izan daitezke.

*“Goizetan, jaiki eta curriculumak banatzen ditut lantegietan. Zentroan curriculumen kopiak egiten dizkidate; orri batean, bisitatu ditudan enpresak apuntatzen ditut, baita enpresa horietan egin dudana ere, eta horrela, eurek enplegua bilatzen ari naizela egiaztatzen dute. Halaber; Langaira noa eta, bertan, Internet erabiltzen dut; enplegu bulegora ere joaten naiz. Gaur, goiz osoan lantegiak bisitatu ibili naiz; agian, aste honetan bertan zortea izan eta lanen bat aurkituko dut; hobe hori egia bada. Baina ez da erraza, etorkina naizelako, eta nongoa naizen esaten dudanean esaten didate ez dagoela lanik. Beste zenbaitetan, ikasketa jakinak eskatzen dituzte. Espainiara iritsi nintzenean, nire helburua ikastea zen, baina gero ikusi dut ezin dudala, ez daukat dirurik, eta lan egin behar dut. Dirurik edukiz gero, hemengo gazteen moduan ikasi nahi nuke, ikastetxean, European gurasoekin bizi diren nire laguneren moduan.” (9. kontakizuna)*

*“Nire senarrak esandako guztia bete du, orain gauden lekura iristeko.” (2. kontakizuna)*

Gainerako pertsonentzat baliozkoa izateak ere motibazioari eragiten dio.

*“Niri berdin dit jendeak ondo ala txarto begiratzea, baina inori laguntzarik eman ahal badiot (nik bizi behar izan dudana ez bizitzeko), eman egingo diot. Boluntarioa izatean, gauzak beste modu batera ikusten dira; izan ere, bizitza honetako gauzarik txarrena bakarrik egotea eta zure gorputza zerbaiterako (droga lortzeko) saltzea da, horrek hil egiten zaituela jakin arren.” (5. kontakizuna)*

Hala eta guztiz ere, pertsona batzuek gizarteratze prozesuak gogotsu hasi baina ezin izaten dituzte amaitu, zenbait zergatiren ondorioz. Pertsona horietariko batzuen ikuspegitik begiratuta, **porrota** “nortasun ahula” edukitzearen eraginezkoa da.

*“Lortu ezin badut, horrek esan nahi du ahula naizela, eta onartu egiten dut hori; baina irabazi egin nahi dut eta, gauzak ondo ateratzen ez bazaizkit, zerbeit txarto egiten dudalako da, ahula naizelako. Beti esaten genuen: oraingoan bai!, baina ezin daiteke jakin, ez dago hori jakiteko aukera ematen duen hagatxo magikorik.” (1. kontakizuna)*

Beste pertsona batzuen ustez, zergatiek lotura estua dute motibaziorik ez edukitzerekin, familia erreferenterik nahiz bikotekiderik ez edukitzearekin edo gizarte nahiz adiskidetasun loturak ezartzeko zailtasunekin (gabezia pertsonalen ondorioz), eta horrela, pertsona horiek ez dute “borrokatzeko adorea ematen dien gauzarik edo pertsonarik”.

*“Oraingo bikotekidea ezagutzean, neuk nahi izan ez arren lagundu egiten ninduen jendea ezagutzean, ulertu nuen agian niretzat irtenbidea zegoela. Nolabait ere, minduta nengoen, droga lehenengoz utzi nuenean (hiru urte drogarik hartu gabe) berriro erori nintzelako, eta ahalegina alferrekoa izan zela sentitu nuelako. Halaber; klinika pribatu batean ere saiatu nintzen, baina ez nuen arrakastarik lortu. Bizitza beteta ez edukitzearen ondorioz, mundu horretara itzultzen zara; lanik ez edukitzea eta drogak hartzen dituzten lagunak edukitzea bultzagarria da drogak berriro hartzeko, eta beraz, inguru horretatik irten egin behar duzu. Hala ere, bertatik irteten nintzen bakoitzean iruzurra egiten nion neure buruari, ondo bainekien ez nuela lortuko; izan ere, familian ez nuen inolako laguntzarik eta inorenganako konfiantzarik ere ez nuen; orduan, zer egin?, ba berriro ere drogak hartu. Nire ustez, orain arte izandako porroten eragileak, izan ere, motibaziorik ez edukitzea eta borrokarako lagunik ez edukitzea izan dira. Orain motibaturik nago, bikotekideak eta biok elkar laguntzen dugulako; izan ere, bera aurkitu izan ez banu eta oraindik ere bakarrik banengo, seguruenik drogak hartzen jarraituko nuke. Garrantzitsuena zure bizitza berregin nahi izatea da, eta zuri laguntzeko prest dauden pertsonak edukitzea; egin-eginean ere, sarritan ahul sentitzen gara eta lehengora itzultzeko tentaldiak izaten ditugu, gauzak zail-*

*tzen direnean. Orain dela bi hilabete depresioa izan dut, aipatzen ari naizen tentaldiaren eraginez; oso gogorra egin zitzaidan eta dena bertan behera uzteko zorian egon nintzen, baina lehengo bizimodura itzuli barik. Arnasaldia behar nuen, eta errealista izan behar da, arnasaldi horiek hasierara eramaten zaituzte berriro.” (5. kontakizuna)*

Porroterako beste zergati batzuk ere badira: substantzia batzuekiko mendekotasuna gainditzeko zailtasuna (adibidez, alkohola edo drogak), batik bat inguru batzuetatik irteko aukerarik ez dagoelako, edo halako pertsonen beharrianetarako balio duten eta euren benetako aukerak kontuan hartzen dituzten ibilbide eta prozesu pertsonalizatuak ez daudelako. Profesionalek batzuetan aldatzeko aukeretan eta gaitasunetan izaten duten konfiantza ezak eragin kaltegarria izaten du halako pertsonengan. Funtzionamendua- ren zorrotzasuna eta jardueretikiko interesik eza ere aipatzen dira, programak uztearen zergatiak azaltzen direnean, baina uzte horiek batzuetan arrazoituak izaten direla ere esaten da: *“ez zen une egokia”*.

*“Zentro honetan egon ginenean, egonaldi ertainean (toxikazioaz gabetzeko tratamenduan), profesionalak jarritako tratamendua egin genuen, eta helburuak betetzen ari ziren. Azkenean, joan ginenean, pentsatzen genuen ondo egiten ari ginela, baina ez, aurpegia kolpetik apurtu genuen, zentrotik irteteko egunean bertan”. (1. kontakizuna)*

*“Halako egoera batean zaudenean, irteteko ahalegina egiten duzu, baina hori oso zaila da. Agian ez zen une egokia izango, baina orain uste dut unea iritsi dela; urteak aurrera doaz, eta ez alferrik, eta nire bizitza beste modu batera antolatzeko gogoia daukat. Eza- gutzen nauten hezitzaileei oso arraroa egiten zaie nik lantegietan parte hartu nahi izatea, sendagaiak hartzea eta gauza horiek guztiak; agian, eurek eskatuz gero ez nuke egingo, baina erabakia neurea da eta horrexegatik nator; beharbada, derrigorrezkoa balitz ez nintzateke etorriko.” (6. kontakizuna)*

*“Beste une batzuetan, bizimodu hau utzi eta bizimodu hobea lortzen saiatu naiz, baina porrot egin dut beti, berriro ere edaten hasi naizelako; etsipenaren ondorioz, edanari eman diot berriro, oso zaila baita hortik irtetea. Batzuetan laguntza handia eman didaten pertsonak aurkitu ditut, eta horiek bultzada eman didate hobetzen saiatzeko, baina porrot egin dut beti. Uste dut orain lortu egingo dudala, baina oso zaila da, eta guztiz nekatuta nago.” (7. kontakizuna)*

Bestalde, aldatzeko borondaterik ez dutela onartzen duten pertsonak daude; ez dituzte kontsumo aktiboak utzi nahi edo euren bizimodua aldatu nahi. Borondate eza horrekin batera, zenbait kasutan, euren bizitzan betiko instalaturik dagoen porrotarekiko etsipena dago, eta euren buruarekiko mesprezu jarrerak ere azaleratzen dira. Gainera, gizarteak gutariko bakoitzaren gain proiektatzen dituen itxaropenek eragin handia dute gure jokabidean, berez betetzen diren iragarpenak balira bezala.

*“Kontsumitzen jarraitu nahi dut, sarritan saiatu naiz uzten, baina ez du ezertarako balio izan eta oso nekatuta nago; atsedena hartzeko eta kolokatzeko leku bat nahi dut, nik dagoeneko erremediorik ez dudalako; drogazale madarikatu bat naiz eta horren arabera jarduten dut, horixe baita jendeak neugandik espero duena. Saiatu naiz neure bizitza aldatzen, baina zertarako? Ez du merezi halako esfortzu handia egitea, ez baitut inoiz ere lortuko.” (3. kontakizuna)*

Halako pertsonen oinarrizko beharrianen laguntza eta lehen aipaturiko gizarteratze prozesuak, bestalde, zenbait baliabidetan egiten dira. **Baliabideen eskuragarritasuna**

**sun**a aldagarria da kasu eta Lurralde bakoitzean: erabiltzaile batzuek oinarrizko gizarte zerbitzuak eskuratu dituzte, eta bertan, diagnostikoa egin ondoren, bidezko baliabidera bidali dituzte; beste kasu batzuetan, harrera eta deribazio sistemak dituzten erakundeen bidez eman da laguntza; azkenik, Udaltzainak aterpetxeetara edo gaueko zentroetara eramaten ditu pertsona batzuk, batik bat hotzik handieneko garaietan. Zerbitzu eta baliabide horietatik ibiltzearen eraginez eta bazterkeriaren eremuan sartzeak nahiz irte-teak egitearen ondorioz, halako baliabideak eta laguntza sistemaren funtzionamendua ezagunak dira etxerik gabeko pertsonen artean, horiek halako baliabideetan egonaldiak egiten baitituzte.

*“Bizimodua atera nahian, nire auzoko gizarte langilearengana joan nintzen; horrek, hasieran, txartel batzuk eman zizkidan gizarte jantokira joateko, eta gero, laguntza bat eman zidaten ostatua ordaindu ahal izateko.” (2. kontakizuna)*

*“Hilabete inguru egin dut zentroan, egonaldi ertainean, laguntza eskatzera etorri bainintzen. Hamar egunetan ospitalean egon nintzen, eta, bertatik irtetean, ez nuen ezer eta ezagun baten etxean egon nintzen; baina alokairuan zegoen eta bizilekua utzi egin behar izan zuen. Lagun horrekin hamabost egunetan egon nintzen, eta aldi horretan alde batetik bestera ibili nintzen, zerbait lortzeko. Orduan, zentrorra etorri nintzen; hasieran, hiru egun eman zizkidaten, baina gero egonaldia astebetara luzatu zidaten, nire egoera aintzat hartuta. Nonbaiten erroldatu beharra nuen, gezurretan bazen ere, laguntza eskatu ahal izateko, eta erroldatzea egin zidaten.” (1. kontakizuna)*

*“Aterpetxera etorri nintzen eta elkarrizketa bat izan nuen gizarte langilearekin. Asteburuetan sartzetik ez zegoenez, asteburua eskakizun baxuko gaueko zentro batean igaro nuen. Egoitzan sartzeko gogoia nuen, gaueko zentroan 11 egun egin nituelako eta irain-garria zelako: oherik ere ez dago, eta pertsona batzuek gainera soberan dute uzten zaien etzalekua ere. Mota guztietako jendea zegoen, eta kontuz ibili behar da; etorkin batzuen laguna naiz eta horiei laguntzeko prest nago, baina beste batzuei berehala emango nien nik pasaporte. Urteak bete nituen egunean esan zidaten onartu egiten nindutela egoitzan, eta beraz, gaueko zentroko lagun batzuk garagardoak hartzera gonbidatu nituen.” (4. kontakizuna)*

*“Zentroko zuzendariaren bidez iritsi naiz aterpetxera; izan ere, kalean lo egiten ari nintzen eta poliziak neguan baino irekitzen ez duten zentro batera eraman ninduen, gaua igarotzera, eta bertan gelditu naiz bost hilabetetan, modu egonkorrean joaten gineno lekua gordetzen zigutelako. Negua amaitu eta zentroa itxi zutenean, zentroko zuzendariak aterpetxera ekarri eta egonaldi ertaineko moduluan sartu nintzen.” (5. kontakizuna)*

**Jarduerak egitea** edo **lantegietan parte hartzea** oso ona da ekimena eta kezkek dituzten pertsona batzuen motibaziorako, horiek baliozkoak direla sentitu beharra baitute.

*“Egoitzan nagoenetik, gauza asko egiten ditut; altzariak zaharberritu, eskulanak egin, eta oso entreniturik nago. Ni ez naiz gauza egun osoa telebista ikusten, jaten eta halakoak egiten emateko. Zerbait egiten egon behar dut beti, zerbaiterako balio duen gauzaren bat egiten; horrenbestez, orain ordenagailuarena aurkitu didate (informatika lantegira doa), eta bertan, entrenitu egiten naiz eta orduak konturatu barik igarotzen dira. Arratsalde honetan ez daukat informatikarik, baina behintzat badakit ostegun goiza beteta dudala; bihar informatika daukat, badakit zerbait egin behar dudala. Atsegin dut egun guztiak okupaturik edukitzea, eta, arratsaldean astirik edukiz gero, gaueko zentroan dagoen jendea bisitatzera joaten naiz, eurekin hitz egin eta itzuli egiten naiz. Bakardadeak ez dit*

*beldurrik ematen. Gelan liburu bat daukat eta irakurtzera igotzen naiz; guztiz atsegin dut, Atahualpa Yupanquirena da. Esan didate liburutegian El regreso de Martín Fierro liburua dagoela, eta bertara joango naiz liburuaren bila. Biziki atsegin dut irakurtzea; liburua Argentinako gautxo baten bizimoduari buruzkoa da, eta atsegin dut, lekuak oso ondo deskribatzen dituelako; nik bidaia asko egin ditut eta atsegin dut bisitaturiko herriak ezagutzea.” (4. kontakizuna)*

Jarduera eta lantegi horiek beti ez dira pertsona guztien gogokoak izaten; izan ere, batzuek uste dute bertara joanda denbora alferrik galtzen dutela, eta derrigorrez joaten dira. Zenbait kasutan, egunez zentroan egoteko hartzen dute parte, eta pertsona batzuek, gainera, ez dute parterik hartu nahi izaten.

*“Nik ez dut beste baliabiderik erabiltzen nahi ez dudalako; ez ditut atsegin lantegiak eta halako gauzak. Ez ditut onartzen, ez ditudalako atsegin; aspertu egiten naiz bertan, eta gauza berriak proposatu arren (elkarrizketan bere neurrirako ikastaroa sortzeko proposamena egin zaio) ez nintzateke joango; ez zaizkit interesatzen; atsegin ez gero bai, baina ez dago atsegin dudun gauzarik. Gurasoek esaten didatenez, alfer hutsa naiz, eta lanik ere ez dut egin nahi, baina ni pozik nago horrela, eta ez dut besterik egin nahi; beraz, datozen hilabeteotan ez dut ezer giteko asmorik.” (2. kontakizuna)*

*“Baliabide honetan lantegi asko zegoen; esate baterako, gaztelaniako lantegia zegoen, eta batzuetan, eguraldi txarra zegoenean, gelditu egiten nintzen, bertakoei laguntzeko, irakasleak martxa finkoa zuelako. Lantegi batzuk ez daude ondo planteaturik; beste zenbait ez zeuden txarto. Orokorrean, guretzat ez ziren lantegi interesgarriak, baina arratsaldean zentroan egon ahal izateko derrigorrezkoak ziren. Nik goizeko zazpietatik arratsaldeko seieta egiten nuen lan, eta behin, lanetik itzuli ondoren, esan zidaten zentroan egoteko lantegia egin behar nuela; lehertuta iristen nintzen lanetik eta egin nahi nuen gauza bakarra zerbait jan eta etzatea zen. Baina esan zidaten, lantegietan parte hartu ezean, ezin izango nuela zentroan sartu arratsaldeko zortzietara arte.” (6. kontakizuna)*

*“Eguneko zentroak ere erabili ditut; lehen toxikazioaz gabetzeko zentrora joaten nintzen, baina bertan egiten nuen gauza bakarra lelokeriak eta ezertarako balio ez duten gauzak entzutea zen. Ez du ezertarako balio, jendea kolokaturik joaten da.” (3. kontakizuna)*

**Emakumeek** gizonek baino presentzia urriagoa dute baliabideetan, eta, batzuetan, gizon batzuek errespetu barik jarduten dute eurekin; izan ere, beldurra eta erasoak jasan behar izaten dituzte, zenbait kasutan.

*“Gaueko zentroan bost hilabete eman nituen, eta ez zegoen emakume asko; baina ohituta nago halako lekuetan emakume gutxi ikustera. Nire eguneko zentroan elektrikari ikastaroa egiten dut, eta bertan, emakume bakarra naiz; hala ere, berdin dit, gizona edo emakumea izan arren kalean ezin baitzara inorekin fidatu.” (5. kontakizuna)*

*“Gaueko zentroan sartu nintzen lehenengo aldian emakume bakarra nintzen zentro osoan, eta hezitzaileak ere hori ez zela nire lekua esaten zidan. Errespetua irabazi egin behar izan nuen. Gau batean esnatu egin nintzen, esku bat sentitu nuelako; gaueko zentroko segurtasun zaindaria zen; esan nion, “zu kalera joango zara”, eta berak esan zidan, “ezinezkoa”, “hemen nik agintzen dudalako”. Bere kide batekin hitz egin nuen eta lanetik bota zuten. Gero, kide batekin ere (zentroaren beste erabiltzaile bat) errespetua irabazi behar izan nuen. Esan nion: nirekin oker zabiltza. Lagundu egin zidan, baina trukean ez nion “hori” emango (sexu harremanak). Erabiltzaileek sarritan horixe eskatzen dizute, zerbaiten truke, baina zentroetan lan egiten dutenen artean ez da ohikoa.” (6. kontakizuna)*



**Baliabideak, orokorrean, modu positiboan baloratzen dira;** izan ere, gutxienez, kalean ibiltzea baino aukera hobetzat hartzen dira.

*“Gaueko zentroan garbitasun handia zegoen. Ni nagoen lekuan arau batzuk bete behar dira, baina hori ulergarria da, bestela negargarria izango litzatekeelako”. (4. kontakizuna)*

*“Erabili ditudan baliabide guztiei dagokienez, ez daukat kexarik, guztietan ere tratu nahiko atsegina jaso dudalako.” (5. kontakizuna)*

*“Gehienetan ez dut baliabiderik erabiltzen, baina hona sarritan etortzen naiz; izan ere, jaten eman eta ez didate ezer eskatzen. Hona etortzeko ohitura hartu dut, inork ezer esaten ez didalako, kontsumitu izanari edo kolokatuta etortzeari buruz”. (3. kontakizuna)*

*“Aterpetxean jendea atsegina zen, ez nuen inorekin arazorik izan. Goiz jaikitzen gara, goizeko zortzietan. Hori ondo dago, bizimodua ateratzeko horixe egin behar baita. Gutxien atsegin dudana lotara joateko ordua da; jendea nekatuta dago eta ezin daiteke ohera hamarretara arte joan; nekaturik zaude, baina bertan egon behar duzu, aulki batean, patioan edo gelan, eta ordu horretan nekaturik zaude eta ez duzu inorekin hitz egin nahi. Gainera, biharamunean zerbaiten bila joateko, atsedena hartu behar duzu. Horixe da aterpetxean aldatuko nukeen gauza bakarra, hau da, gelan sartzeko eta lo egiteko ordua. Orain bizi naizen etxebizitzan poz-pezik nago; gainera, lekua oso polita da, zona oso lasaia da, zuhaitz eta zona berde askorekin; guztiz atsegin dut, baina lanik egiten ez dudanez gogaitu egiten naiz.” (9. kontakizuna)*

*“Nire ustez, gizarte zerbitzuen antolaketak ez dauka aitzakiarik, behintzat neuk ez daukat horien kexarik; agian ez nuke gauza onik nabarmenduko, baina gauza txarrik ere ez; normal ikusten dut, poz-pezik nago, laguntza ona eman didate. Orain dela urte batzuk aterpetxean egon nintzen, ohiko hiru egunetan. Aterpetxean jan, lo eta kanpora, besterik ez duzu egiten. Orain erabiltzen ari naizen baliabidea bezalakoa da, baina handiagoa. Bertan ez nuen jendearekin harreman handirik izan, neure kontura ibiltzen naiz, eta berdin dit besteek egiten dutena; zoritxarrez, janaria nahiko txarra da. Ni nahiko pozik nago hemen, baliabide honek nire beharrian guztiak betetzen ditu; ondo jaten duzu, gauzak egiteko ordutegi ona daukazu eta laguntza ere baduzu, paperak egiteko; beraz, ondo dago eta ez nuke ezer aldatuko; hala ere, alfer hutsa naizenez, lanak egiteko arauak kenduko nituzke. bi urte eta erdi egin ditut Madrilen, SAMUR deritzon; aterpetxe antzeko bat dute, baina hemen baliabideak askoz ere hobeto daude; izan ere, han ez dago hau bezalakoa zentrorik, koilararekin eta sardexkarekin jaten emateko zentrorik, han ogitartekoa eta kafea ematen dizute, eta aterpetxeetan askoz ere jende gehiago dago. Gu leku onean egon ginen, baina aldi laburrean; izan ere, handik gutxira aterpetxera bidali gintuzten, baina oso txarto igaro genuen, pertsona asko zegoen, bizikidetzaz zaila zen, nik ez dut atsegin horrenbeste jende artean bizitzerik. Gero, etorkinen laguntzarako zentro batera igaro ginen, eta hori askoz ere hobeto zegoen; horren ostean, babesturiko etxebizitzara igaro ginen, eta bertan gaude orain.” (2. kontakizuna)*

Zentroen balorazioan, hobetu beharreko alderdi batzuk ikusi dira, eta alderdiok honako honi lotuta daude: instalazioen ezegokitasun fisikoa, masifikazioa nahiz bizikidetzaz arazoak, ordutegiak eta arauak. Azken alderdi horrexek sortzen ditu aurkako iritzirik gehien: jendeak esaten du arauak zorrotzegiak direla eta ez direla egokiak halako pertsonen beharrianetarako, batik bat ordutegiei dagokienez, eta gainera, ez dute malgutasunik zenbait gauzatan, esaterako, klimatologian, osasun beharrianetan edo egoera pertsonal batzuetan.

“Gauzarik txarrenak ordutegiak ziren, oso gogorrek ziren, batez ere kontuan hartuta haur txikiak genituela. Negu gorrian, goizean goiz irten behar izaten nintzen zentrotik, lau hileko haur batekin.” (8. kontakizuna)

“Baina oso garbiak ez ziren pertsonak onartzen zituzten, dutxatu ere egiten ez ziren pertsonak. Batzuk derrigorrez sartzen zituzten dutxan; izan ere, jakina, hogeita hamar pertsona geunden leku oso txikian lo egiten, baina ez dutxatzea ez zen nahikoa kanporatzeko, behintzat arau hori behin bakarrik urratuz gero. Higiene pertsonala guztiona da, eta profesionalek arreta handia jartzen diote alderdi horri. Izan ere, kide bat dutxara joan baina ez zen dutxatzen, eta hori kontrolpean zuten. Gauzarik txarrena arauen gogortasuna da, adibidez, ordutegiaren zorrotasuna: hamarrak eta minutu bat direnean ezin duzu sartu. Nire ustez, hori pertsona bakoitzaren araberakoa izan behar da; egin-eginean ere, mozkortuta iristen direnei sartzen ez uztea edo zentro barruan mozkortuta egon ezin izatea ulergarria da, baina autobusa galtzen duen pertsona bat, edo trafiko itoaldi baten eraginez berandu iristen denen bat, kalean gelditu ahal da, eta nik halako gauzak ez ditut ondo ikusten. Arauak pertsonari eta uneari egokiturik egon beharko lirateke; gainera, arauak denentzat izan behar dira, baita zentroko langileentzat ere; izan ere, horiek batzuetan ez dira orduan iristen lanera, eta horiei ere kalera joateko esan beharko litzaieke. Arauei dagokienez, adibide asko ditut: nire lagun bat lanean ari zen, gaueko zentroan geundenean, eta zentroko ordutegiekin ezin zuen atsedeenik hartu, ostalaritzan lan egiten zuelako eta oso berandu heltzen zelako; horrela, zentrotik oso goiz irten behar izaten zenez, ez zuen lo egiteko astirik, eta aukiren batera joaten zen atsedena hartzera, zentroak siestak egiteko aukerarik ematen ez ziotelako. Nik hori txarto ikusten dut, lanean dibilen eta kontratua duen pertsona delako, eta halako pertsona batek atsedeenik hartu ezin izatea ez dago ondo. Zentro honetan leku oso txikia dago, eta batzuetan besteren baten oinekin egiten duzu topo. Gauza desberdinen bat egin nahi baduzu, adibidez, partidaren bat ikusi edo afaldu, egun horretan baimena eskatu eta gaueko hamabietan heltzeko aukera duzu. Baina ondo egoten da, paperen bat bete behar duzunean orientazioa ere ematen dizutelako.” (4. kontakizuna)

“Denboraldi batean, gaua igarotzeko gaiturik zegoen leku batera joaten nintzen lo egitera, eta burukominarekin jaikitzen nintzen, eta oso haserre. Lurzoruak hotz ematen zidan eta hezitzaileari soilik uzten nion ni esnatzen (epaiketara lagunduko dion hezitzailea); gainerakoak ez ziren hurbildu ere egiten, edozer esaten nielako (barreka hasi da). Gainera, igandeetan goizeko zazpitan jaiki behar izaten genuen, zazpi eta erdietan joan ahal izateko, eta zeure buruari galdetzen zenion ea zer egiten zenuen igande goiz batean, goizeko zazpi eta erdietan, hara eta hona kalean. Beste zentro batzuetan goizeko bederatzietara arte lo egiteko aukera ematen dizute. Negu honetan, gaueko beste zentro batean egon naiz; bertan ohea gordetzen ziguten ohikoei, eta horrela, apur bat beranduago iristeko aukera zenuen. Ni oso ondo egon naiz gaueko zentro horretan, eta hezitzaileekin ere poz-pozik egon naiz. Zentro horretan aurkitu dudan gauzarik txarrena hauxe izan da: jaikitzen zinenean ez zenuen kafesnerik gosaritarako; hasieran bost eta erdietan ematen zuten, baina gero kendu egin zuten, askok aprobetxatzen zutelako. Haurdunaldian, garai batean gaueko zentro horretan egiten nuen lo, baina hozteko beldur nintzen; izan ere, garai hartan lurzoruan egiten genuen lo. Bestalde, haurrari kalte egiteko moduko ikararen bat hartzeko beldur nintzen. Goiz batean, pertsona bat aurkitu genuen hilda eta hori ikustean neuri ere ia bihotzekoak eman zidan.” (6. kontakizuna)

“Hemen goizeko zazpitan jaikitzen zaituzte eta kalera bidaltzen zaituzte egun osorako, eta hara eta hona hasten zara. Jendearekin egoten naiz, taldea daukat, baina goizetan gehienetan nire kontura ibiltzen naiz, eta arratsaldeetan neskalagunarekin ibiltzen naiz, hori goizetan eguneko zentro batera joaten baita. Bazkaltzeko, hona etortzen naiz, baina batzuetan ez dut bazkaltzen. Zenbait astetan ez dut bazkaldu, eta noizean behin baino

*ez dut gosaltzen. Kanean egon arren ordutegiak daude eta zaila da horiek mantentzea, batzuetan arratsaldean ondo zabiltzalako eta jantokiko ordutegia hasi arren joan ezin duzulako. Zentroan ordutegi oso eskasak dituzte, eta laguntzarik gehienak bertako langileengana bideratzen dira batik bat, beharrezana dugun pertsonengana baino gehiago. Laguntzaileek kobratu egiten dute (hori ez da egia, zentroa boluntarioek kudeatzen baitute, ia oso-osorik); horien %100 eta hona etortzen diren gehienak egun osoa ematen dute kafe batekin. Batzuek ez dute zenbait egunetan jaten, edo ez dute egun osoan jan, eta baliabidearen ohiko erabiltzaileak dira. Gauza bat dago ona, hau da, telebista; hiru urte eman ditut telebistarik ikusi barik, eta pozarren nago horrekin.” (3. kontakizuna)*

Pertsona batzuek onartu egiten dute zentroetako arauak une jakinetan betetzeko duten zailtasuna, eta, horri dagokionez, kaleko bizitzak ematen duen askatasuna aukeratzen dute.

*“Askoz ere egoera txarragoan nengoenean, etxerik gabeko pertsonentzako baliabide batzuk erabili behar izaten nituen, esate baterako, aterpetxea, baina ez nuen atsegin, arau eta ordutegi asko bete behar izaten zirelako, eta nik garai hartan asko edaten nuen eta beti istiluetan sartuta nengibilen. Oso urduri jartzen nintzen, alkoholak oso urduri jartzen nau. Baina mozkorturik nengoenean nahiago izaten nuen kanean lo egin, nire kontura ibili, jateko edo lo egiteko ordutegi barik; egun osoa edaten eman nezakeen eta horixe egin nahi nuen nik orduan.” (7. kontakizuna)*

*“Gero, baliabide honetan sartu nintzen, baina berriro ere joan egin nintzen, hemengo elkarte batek duen partekaturiko etxebizitza batera. Baina nik nahiago dut ostatuan bizi, lasaiago nagoelako eta asti gehiago dudalako nahi dudana egiteko; ez dago araurik eta nahi dudanean sartu eta irteten naiz. Hala ere, esan behar dut baliabide horretan arau gehiegi dagoela; jateko ordubete baino ez duzu, sartzeko eta irteteko ordutegiak, eta orain dudan ardura bakarra etxeko lanak egitea da, neuri dagozkidanak.” (2. kontakizuna)*

*“Baina, ahal izanez gero, gure kontura ibiltzea atsegin genuen, zentroetara ez joatea, bertan kontrol handia eta arau asko daudelako. Halako baliabideetan kontsumoa debekaturik dago, oso zaila da kolokatzea, baina jendeak beste baliabide batzuk bilatzen ditu horretarako. Egundua oso estresarekin ematen duzu, horrek zaindu egiten nauela, hori niri begira dagoela, eta kokainak, gainera, paranoia handia sortzen du. Azkenean “erotu” egiten zara, beti bizkarra babestuta eduki nahian, beti hormen bila atzean inor ez edukitzeko. Horrek guztiak segurtasun eza handia sortzen du (gaua kanean igarotzea, zentroetan igarotzea), eta ezin zara inorekin fidatu, ez gizarte langileekin eta ez kideekin. Horixe da txarrena, ondoan lotan duzun pertsonarekin fidatu ezin izatea bizarra bakarrik moztu ezin eta bizarginarekin ez fidatzea bezalakoa baita.” (1. kontakizuna)*

Hala eta guztiz ere, batzuetan, gaitasun kritikoa honako honen eraginpean dago: zerbitzua jasotzen dutenez **ez dute kexatzeko eskubiderik**, eta pertsonen eurek ere onartu egiten dute hori.

*“Zerbitzua ematen dizutenez, nola kexatuko zara? Jantokiei dagokienez, badakizu batzuk hamabi eta erdietan hasten direla, eta joateko astirik ez baduzu badakizu beste batzuk beranduago hasten direla, baina jantokien gauzarik onena berandu iritsi arren jaten ematen dizutela da. Ordutegiekin kexaka dabiltzanak aulkian garagardoak edaten dabiltzanak dira, eta jendea erdi kolokaturik joaten da.” (4. kontakizuna)*

Eta, euren eskerronaren barruan, ondo ulertzen dute baliabidearen erantzuna beti ez dela hobezina, sarritan arau batzuk bete behar izaten direlako.

*“Asko lagundu didate, batzuetan ahal izan duten guztia. Ezin dituzu behartu, arauak goitik datozelako, eta itxaron egin behar dut; baina, behintzat, orain bizilekua daukat eta hor lehen baino hobeto nago.” (7. kontakizuna)*

**Profesionalei buruzko balorazioa** oso positiboa da; horien lana eskertzearen aldeko sentimendu orokorra dago, baina batzuetan profesionalak halako pertsonari dagokienez duten itxaropenik eza ere nabaritzen da. Lotura ezartzearen, harremanak sortzearen eta erreferentziak bilatzearen garrantzia funtsezkoa da, aldaketa prozesuetan aurrera-pausoak emateko.

*“Poz-pozik nago zentro honetako jendearekin, laguntza handia ematen baitidate. Egunez toxikomaniatarako eguneko zentro batera joaten naiz, moduluko psikologoarekin eta gizarte langileekin hitz egiteko. Erabili ditudan baliabideetan beti dago gauza txarren bat, gauza guztiak dira hobetzeko modukoak; esaterako, gizarte langileek gogo handiagoa edukitzea, batzuetan gogo barik ikusten baitit. Gurekin oso eszeptikoak dira, ez dute konfiantzarik, ez zaituzte ematen nahi duzun konfiantza; izatez ere pertsonak gara eta niri halako gauzek min ematen didate. Baina zentro honetan motibazioa ematen didaten profesionalak aurkitu ditut (adibidez, zentroko zuzendaria edo moduluko psikologoa), eta baliabideak aldatzeko aukera eskaini didate, baina ezetz esan diet; pertsona horiengan konfiantza daukat eta hurbil eduki nahi ditut.” (1. kontakizuna)*

*“Uneren batean arazorik edukiz gero, zentroko zuzendariarengana joaten naiz; badakit lagundu egingo didala, mesfidantza handiko pertsona naizelako eta nire bizitza edonori kontatu ezin diodalako. Ondo ezagutzen nauenari kontatzen diot, esaterako, zentroko zuzendariari, eta nik konfiantza handia daukat horrengan. Konfiantzako pertsonaren bat hurbil edukitzeak motibatu egiten zaitu; buruari eta gauzei bira asko ematen dizkiot, eta berarengana joaten naiz beti, laguntza eskatzeko edo kezkatzen nauena kontatzeko.” (5. kontakizuna)*

*“Nire ustez, erreferenteko hezitzailea edukitzea ere lagungarria izan da niretzat, horrek laguntza handia eman baitit (aterpetxean nola nagoen jakiteko deitu dit); laguntzak eskatzeko paper guztiak egiten lagundu dit, niri dagozkidan laguntzak eskatzea asko kostatu baitzait. Baina ondo administratzen naiz, daukadan bizio bakarra tabakoa baita.” (6. kontakizuna)*

*“Hiriko baliabideetatik eta zerbitzuetatik ibilbide luzea egin dut, eta niretzat oso garrantzitsuak izan diren pertsonak ezagutu ditut; asko lagundu didate, baina denetarikoa dago, jende ona eta jende txarra, eta jende txarra tokatzen zaizunean... eutsi egin behar.” (7. kontakizuna)*

*“Baliabideetatik egin dudan ibilbide osoan, profesional guztiekin sentitu naiz ondo, guzti-guztiek; inor ez da nabarmendu, ez onera eta ez txarrera, niretzat guztiak izan dira normalak (jarrera arduragabearekin dio), ez da inor nabarmentzen ezergatik.” (2. kontakizuna)*

**Laguntzaren gabeziak**, arlo desberdinen arteko koordinazio ezaren eraginezkoak (gizartea, osasuna, etxebizitza), edo erroldatzeari loturiko zailtasunak, besteak beste, erakunde pribatueta eta erakunde publikoetako profesionalak aipatzen dituztenak, elkarrizketaturiko pertsonak ere aipatzen dituzte, adibideak emanez, eta horietan profesionalen balorazio kritikoa dago bizipen pertsonaletan.

*“Nik laguntza behar dut, etxebizitza behar dut, etxebizitza duina lortu behar dut; hilean 420 euro inguru ematen dizkidate eta horrekin ezin dut ezer egin. Lanerako ezgaitasuna daukat, lanerako %75eko ezgaitasuna daukat. Etxebizitza bat eman ahal didate, jasotzen*

dudan diruarekin ordaintzeko modukoa, baina gutxieneko diru-sarrera edukiz gero ez daukat gizarte alokairuko etxebizitzarako eskubiderik. Baina zenbateko hori ematen badi-date honexegatik da: zenbateko horrekin bizi egin ahal naizela pentsatzen dutelako. Baina gero baremo oso altuak jartzen dituzte eta hori kontraesan handia da. Ez dauka zentzurik; izan ere, esaten didate babes ofizialeko etxebizitzak daudela ni bezalako pertsonentzat, egoteko lekurik ez duten pertsonentzat, eta gobernuak horiek eskuratzeko erraztasunak ematen dituela esaten didate, baina laguntza eskatzera noanean etxebizitza eduki behar dut, erroldaturik egon ahal izateko, baina ez daukat erroldatzeko aukerarik. Ez dago koherentziarik eta oso ilun ikusten dut; baina emango dizkidaten atzerapen horiekin agian etxebizitza bat lortuko dut, dirurik gabe ez baitago etxebizitzarik.” (1. kontakizuna)

“Babes barik gelditzen den jendeak behar du gehien, hain zuzen ere, babes hori; ni idealizatuta edo naukate, behar dudana esaten dudalako. Lehenengo eta behin, marokoarrak edo hegoamerikarrak laguntzen dituzte, eta ez dakit hori zergatik den. Baina hemengo jendeak laguntza lortzea gizarte langilearen araberakoa da. EAEko beste lurralderen batetako bazara, ez daukazu jatekorik, baina etorkina izanez gero ez dute galderarik egiten. Baliabide honetara datozen gehienak “oso jota” daude, eta ez dago halako pertsonak hartzeko zentro psikiatrikorik. Nik, behintzat, minusbaliotasunaren eraginez apur bat gehiago kobratzeko aukera daukat, eta erroldatzea lortu dut.” (3. kontakizuna)

Gizarte eta osasun egitura koordinaturik eta partekaturik ez egoteak, praktikan, ondorio jakinak izaten ditu; esate baterako, beharrezko osasun tratamenduak beti ez dira ondo jasotzen eta beti ez da horien jarraipen egokirik egiten.

“Diagnostikaturiko buruko patologia daukat: nortasunaren arazo egokigarria. Txarto nagoenean edo norbaitek min ematen didanean, berari min egin beharrea neure buruari egiten diot. Norbaitek gauza txarren bat egiteak sortzen didan mina nire buruaren aurka orientatzen dut, ohiko jokabidea izan beharrea, hau da, pertsona horri mina itzultzea. Kaleak sortzen duen gauzetariko bat utzikeria da, utzi egiten diozu zeure buruari, jateari eta zaintzeari. Eta, jakina, depresioaren pilulak hartzeari utzi egin nion, kalean nengoelako eta edonon lotan gelditzen nintzelako. Behin aterpetxean erori egin nintzen, tentsioaren beherakada izan nuen, tentsiorako pilula bat ere hartzen baitut.” (6. kontakizuna)

Kalean egoteak sortzen duen **gizarte erantzuna** era askotakoa da. Gizartearen onarpena eta bizikidetzat lortu egin daitezke.

“Baina, orokorrean, hiri honetako jendea harrera onekoa da. Hemen oso ondo sentitzen gara, gainerako familien moduko jokabidea dugulako. Auzoko batzuek seme-alabentzat behar ez dituzten jantziak edo zapatak ematen dizkigute, nire seme-alabentzat.” (8. kontakizuna)

Baina **gizartearen ukapena** ere agerikoa da.

“Jendearen ukapena sentitu dut kaletik joatean. Jendea beste espaloiara joaten da ikusten zaituenean, eta hori mingarria da. Orain garbi noa, baina inoiz putzu batean ere egin dut lo, ez daukazu jantzi egokirik, begiak irten egiten zaizkizu lekutik, eta begirada bortitza daukazu, jarrera ozpindua, eta haserre zaude mundu guztiarekin.” (1. kontakizuna)

“Ez dut inoiz jendearen ukapenik sentitu, horretan pentsatu ez dudalako; nolana ere, ahalik eta txukunen joateko ahalegina egin dut beti, eta leku publikoetan gutxi sartu naiz.” (5. kontakizuna)

*“Baina kaleak hil egiten du, begiratu nola nagoen! Izan ere, kaleak eta bertako pertsonak ez ezik, jende “arruntak” ere hil egiten du, begiratzeko modua... zu han egoteak eta bizirik egoteak kalte egingo balu bezala. Batzuetan, eguzkia dagoenean, irten eta hiriaren erdi-erdian dagoen kale batean esertzen naiz garagardo batekin, inori kasurik egin gabe, nire gauzetan pentsatzen, baina poliziak ez zaitu bertan egoten uzten, jendeak hiriko “kaka” ikustea atsegin ez duelako; nik eurei begiratu eta hauxe pentsatzen dut: neuk ere eurak bezalakoa izan nahi dut!, neuk ere garagardotxoa hartu nahi dut hondartzan. Baina badakizu ezinezkoa dela, kondenaturik zaudela.” (3. kontakizuna)*

*“Kafetegi batean kafea hartzera sartu eta zazpi edo zortzi pertsona ikusten dituzu zeuri begira; txarto sentitzen zara eta ez duzu gehiago sartu nahi; zertarako? Baina ez dizu ardura jendeak nola tratatzen zaituen edo zeuri buruz zer pentsatzen duten: jendea ez da “ezer” niretzat, ez naute ezagutzen, ez dakite zer gertatu den.” (9. kontakizuna)*

*“Batzuetan tratu txarra jasan dugu atzeritarrak izateagatik.” (8. kontakizuna)*

Kalean babesa aurkitu behar duzu; izan ere, gizartearen ukapena eta arriskuko edo erasoko egoerak kontuan hartuta, ezinbestekoa da. Hala eta guztiz ere, **mesfidantza** orokorra da.

*“Lo ere ez nuke esango (kalean), begiak itxi eta berehala irekitzen nituelako, kalean ezin zarelako inorekin fidatu.” (6. kontakizuna)*

*“Kalean lagunak behar dituzu, ezin duzu bakarrik ibili, arriskutsuegia delako. Baina ezin zara fidatu kalean egindako lagunekin; zeure miseria berberak dituzte eta edozer gauzaren truke salduko zenituzke. Nik droga lapurtu diet lagunei, batzuetan eurek ez hartzeko eta beste zenbaitetan etsipenaren eraginez.” (3. kontakizuna)*

*“Kalean nengoenean nahiago izaten nuen taldearekin egon, seguruagoa zelako, baina taldearekin batzuetan oso txarto egoten nintzen. Hippyekin esertzen nintzenean ez zegoen inoiz arazorik, baina nire kideekin esertzen nintzenean beti zeuden arazoak, zerbait lapurtzen zidatelako beti, zorroa, sendagaiak.” (7. kontakizuna)*

**Emakumeek** oraindik ere zailtasun eta arrisku gehiago dute, babes handiagoa behar dutelako; horrela, batzuetan, gizonen baten laguntza bilatzen dute seguruago sentitzeko.

*“Kalean igarotako aldi horretan (bi urte), niretzat laguna zen pertsona batekin egon nintzen; baina gero ikusi nuen ez zela nire laguna, nire laguntasunaz aprobetxatzen saiatu zelako, eta gainera, esan zidaten bere ama ere jo egin zuela. Egia esan, ni lehenago ere jo ninduen. Egun batean esan nion berritri eginez gero polizian salaketa jarriko nuela, baina berak erantzun zidan poliziak ez ziola ezer egingo, elbarria zelako. Ni ez nintzen fidatzen kalean berarekin egoten, ez nintzen berarekin fidatzen. Kalea oso gogorra da, egoera oso zailak bizi izan ditut; gainera, emakumea izanez gero, askoz ere beldur handiagoa igaro behar izaten duzu. Ni ez naiz arrazista, baina ez naiz batere fidatzen kanpoko jendearekin, batik bat emakumeen gaiari dagokionez, emakumeei buruz beste modu batera pentsatzen dutelako; nik agur egiten diet, baina ez naiz inoiz ere marokoar batekin nahastu, bikotekide bezala, ez naizelako eurekin fidatzen. Kalean babesa bilatu behar duzu, eta beraz, ez naiz inoiz ere bakarrik egon, beti egon naiz gizonen batekin. Lagun hori baztertu nuenean (gero ikusi zen ez zela lagun ona), beste talde batean sartu nintzen, eta bertan, aspaldidanik ezagutzen dudan lagun bat zegoen. Pertsona horrekin hitz egiteko aukera nuen, eta laguntzat asko maite eta errespetatzen nau, eta kalean errespetu gutxi dago, batez ere emakumeekin. Emakume gutxi gara eta zubipean lotan ikusten ditudanean, kalean lo egiten nuen garaia datorkit burura.” (6. kontakizuna)*

Etixerik gabeko pertsonen artean ezarritako gizarte harremani dagokienez ikusten denaren arabera, kaleko bizitzak eta baliabideetako egonaldiek **istiluak** eta bizikidetzaz arazoak sortzen dituzte, baina baita etxerik gabeko pertsonen profil desberdinen arteko **elkartasunak** ere.

*“Egoera bortitz asko bizi izan ditut eta pertsona bortitzei aurre egin behar izan diet. Argi utzi behar izan dut niri ez didala inork barrerik egiten, baina egoera horiek kaleari lotuta daude; zentroetan jendeak eginda dauka bere eremua eta ni hemen lasai nabil, ez dut inor zapaltzen eta inork ez nau ni zapaltzen, baina beti adi zaude, beti inguruari begira. Kalean taldeak egiten dituzu, hau da, alkoholikoak alkoholikoekin doaz, toxikomanoak toxikomanoekin, eta gero, toxikomanoen eta alkoholikoen arteko taldeak daude. Taldeak eta azpitaldeak daude, horixe da gure funtzionamendua; baina, taldeen barruan, indibidualismo handia dago, inor ez da inorekin fidatzen eta guztiak ere elkarren beldur dira. Bakoitzak sortu duen ingurua da, eta denak batera egotean lasaiago eta seguruago sentitzen zara, sor daitekeen edozein arazotarako, esate baterako, beste talderen bat istiluak sortzera datorrenarako. Talde mailako arrazakeria dago, beti dago taldearen babesa bilatzen duenen bat. Talde bortitz bat dagoela esan daiteke: gazte marokoar heldu berrien taldea, fitxarik gabea, eta ezin dira harrapatu. Nahiko bortitzak dira eta gazteak direnez sendo daude; nik ez dut arazorik izan ez eurekin eta ez beste inorekin. Inori arazorik ez ematen saiatzen naiz, baina gauza horiek berez gertatzen dira. Entzun dut zentro batzuetan talde oso bortitzak daudela, marokoarrak edo aljeriarrak; nire ustez, kanpotik datozenak geu baino arrazistagoak dira eta gure bizitza nola antolatu behar dugun esaten digute.” (1. kontakizuna)*

*“Garrantzitsuena jendea errespetatzea da; lagunak egin ditut eta batzuetan garagardo batera gonbidatzen ditut, baina norbaitek zure fede ona aprobetxatu nahi izaten du beti. Azken batean, zeure buruarekin baino ezin zara fidatu, kalean ezin zara zeure itzalarekin ere fidatu. Eta badakizu nortzuk diren; behin batean, pertsona bat ezagutu eta esan nion armaren bat lortuz gero..., baina ez dago zertan horretara heldu. Batzuekin inoiz ere ez duzu tratirik, taldetxo asko dago eta taldetxo bakoitza bere kontura doa, eta gero euren kontura dabiltzan pertsonak ere badira. Baina talde batzuk oso txarrak dira; nik ez daukat ezer marokoarren aurka, baina oso txarrak dira. Marokoar batzuk oso ondo dakite gaztelaniaz, baina ez dute egin nahi, zuk eurek zer dioten ez ulertzeko. Aldiz, beste nazionalitate batzuetako beste pertsona batzuekin ez dago arazorik. Gaueko zentroan nengoenean oso ondo moldatzen nintzen errusiarrekin edo aljeriarrekin, eta horiek lan bila ibiltzen dira.” (4. kontakizuna)*

*“Gaueko zentroan ondo egoten zen, baina lotara iritsitako batzuk mozkorturik heltzen ziren eta jo egiten zituzten zaindaria. Zorionez, neuri ez didate inoiz ezer egin. Zentroaren barruan ezin daiteke kontsumitu, baina pertsona batzuek kontsumitu egiten zuten, eta zaindarien komunitetan beti harrapatzen zuten baten bat kontsumitzen, heroina hartzen; hartu eta zentrotik kanpora botatzen zituzten, eta orduantxe hasten ziren istiluak. Batzuk atzerritarrak ziren, itsasgarria sudurretik hartu eta zaindarekin borroka egiten zuten. Bakoitzak bere lagun taldea dauka, toxikomanoak toxikomanoekin, alkoholikoak alkoholikoekin. Bakarrik egon naiz kalean lagunik ez dagoelako.” (5. kontakizuna)*

*“Egon naizen baliabideetan, erabiltzaileen arrazakeria bizi izan dut; sarritan entzun dut: ez daukagu lekurik, leku guztiak mairuei ematen dizkietelako. Baliabideetan, batzuetan, egoera bortitzak gertatzen dira eta neu ere inoiz nahasi egin naiz halako batean, mozkorturik nengoelako eta urduri jartzen nintzelako, eta gehienetan, arazoak sortzen dituzten pertsonak bota egiten dituzte baliabideetatik. (7. kontakizuna)*

*“Aterpetxean arazoak sortzen dituzten pertsonak daude, elkarrekin borrokan ibiltzen dira, denetarikoa dago; baina halako egoerak beste leku batzuetan ere egoten dira.*

*Hala eta guztiz ere, esan behar da betikoak direla kolokatu eta urduri dabiltzanak, eta orduan, zerbait atsegin ez dutenean, haserretu egiten dira. Neuri, halako egoerak ikusten ditudanean, egia esan, berdin-berdin dit. Baliabideetan egoera bortitz horiek gertatzen direnean, parte bat egiten da, eta, gertaturikoaren larritasunaren arabera, erantzuleak aldi baterako edo betiko kanporatzen dituzte, edo batzuetan ez dituzte kanporatzen. Hala ere, gehienetan kanporatu egiten dituzte, baliabideen barruko biolentzia urratze larria delako, eta baliabidetik kanpo egiten badute ez da ezer gertatzen. Ni ez naiz inoiz ere halako arazoetan sartu, beti esan didate jokabide onekoa naizela, ez bakarrik nire lagunek, baita gizarte langileek ere. Baina, orokorrean, tratu ona eman digute. Ez dugu inoiz inorekin arazorik izan.” (2. kontakizuna)*

*“Dirua uzten diogu elkarri, baten bati iristen ez zaionean.” (9. kontakizuna)*

Egoeraren eta baliabideen balorazioak pertsona horiei aukera ematen die **eskariak** planteatzeko, errespetuari, zentroetako araudiari, prestazio ekonomikei eta enplegua nahiz etxebizitza lortzeari buruz.

*“Agintariei pazientzia eta sentsibilitate apur bat eskatu nahi diet, geu bezalako pertsonen dagokienez; izan ere, ez gara hondakinak edo gorozkiak, zirkulaziotik horrela baztertzeko. Zerbaiterako baliozkoak garela frogatzeko aukera daukagu, eta nik bakarrik nahi dut aukera hori, eta bakoitzak frogatu beharko du zertarako gauza den. Baina motibazioa eta lekua behar dira; izan ere, ez daukazu ezer eta bakarrik zaude guztiaren aurka, gauza guztiak zure etsaiak dira. gainera, etxebizitza ez edukitzean egoera oraindik ere txarragoa da; nola irauan daiteke bizirik ezer kobratu barik, atea irekitzen dizun giltza izan barik, hozkailua jakiekin beteta eduki gabe, etzateko oherik gabe, garbitzeko dutxarrik eduki gabe?.” (1. kontakizuna)*

*“Politikoak ohartu egin beharko lirateke lehenengo eta behin norberaren etxea konpondu behar dela, besteena konpontzen hasi baino lehen. Hona zonako jendea dator eta handik hiru egunera kalera doa; aldiz, kanpotarren bat datorrenean, edonondik etorrira ere, hanka txarto duela edo halako zerbait esanez gero, hilabete gelditzen da, eta gainera korrika ematen dute egun osoa, hanka txarto eduki arren, nik ikusi egin baitut hori, baina gelditu egiten dira. Maltzurkeria handia dago, eta halako pertsonak, gainera, hilabete asko egoten dira lanik bilatu barik, eta gezurra esaten dizute lana bilatzen ari direla esatean. Eta baliabidea benetan behar duen pertsona, berriz, hiru egun bertan eta kalera. Beste sistema bat egon beharko luke; pertsona bat ondo ez badago ezin daiteke kanpora bota, hori hilketa hutsa da. Baina haritza baino sendoago dagoen jendea kalera joan beharko litzateke. Pastela beste modu batera zatitu behar da. Hemen 14 urtetan egon den kide bat daukat, eta orain aterpetxean dago egonaldi ertainean, eta ez du inoiz lanik egin, oraindik paperak prestatzen ari dela esaten du. Beste gaueko zentro batean kide marokarra nuen; horrek esaten zuen bere herrian ez zuela inoiz lanik egin eta hemen ere ez zuela inoiz egingo.” (4. kontakizuna)*

*“Une honetan etxebizitza baten beharra nabaritzen da, eta mundu guztiari gertatzen zaio gauza bera; etxebizitza bat edukitzea guztizkoaren %90 da, gauzak bertan uzteko, lasaitasuna edukitzeko eta edozertarako.” (3. kontakizuna)*

*“Orain lana behar dut, eta paper guztiak konpondu, lasai-lasai bizi ahal izateko; halaber, emakume bat ere behar dut, horrela kontrolatuago egongo naizelako. Emakumea eta familia duzunean, arauak bete behar dituzu, lana aurkitu, eta gainera, ez zara hain txorigaldua izaten. Une honetan behar dudana Aldundiaren dirulaguntza da, eta astia emateko gauzaren bat; izan ere, horrenbeste astirekin eta etsipen honekin, oso erraza da berriro ere edaten hastea eta horrek apur bat kezkatu egiten nau.” (7. kontakizuna)*



*“Ez dut gauza berezirik bilatzen, eta mundu guztiak nahi duena baino ez dut nahi: lan egin, emakume bat eduki, etxea lortu eta bizi. Hori guztia aurkitzen dudan lekuan geldituko naiz.” (9. kontakizuna)*

*“Politikoak aurrean banitu, esango nieke txarto ikusten dudala partekaturiko gelak alokatzeko dirulaguntzarik ez ematea (gizarte langileari ere esan omen dio). Ostatu asko bikoitzak dira eta, gainera, merkeago ateratzen zaizu eta aukera gehiago daukazu, aukeratzeko leku gehiago duzu. Arau hori ez dut atsegin, uste dut lelokeria hutsa dela, eta neuri, lagunak izanez gero, ez dit ardura gela partekatzea. Bestela dena ikusten dut ondo; hala ere, ez dut atsegin ikastaroetan edo lantegietan parte hartu behar izatea, lasai bizitzea atsegin dudalako eta egin nahi dudana aukeratzea gogoko dudalako.” (2. kontakizuna)*

### 7.3. GEROA: ITXAROPENA ETA ETSIPENA

Egoera zailak bizi izan arren, bazterkeriaren munduan “sartu-irten” asko egin arren eta gizarteratze prozesuetan zailtasun pertsonalak nahiz sozialak aurkitu arren, pertsona batzuek euren oraingo mugak gainditu eta **itxaropenarekin** begiratzen diote epe laburreko **geroari**, baina intentsitate maila desberdinekin, egoera bakoitzaren arabera.

*“8 hileko zigorra daukat betetzeko, eta elkartean ekintzak eginez betetzen ari naiz, eta betetzen jarraituko dut amaitu ondoren ere, egiten ari naizena atsegin dudalako. Pertsonatzat ondo sentitzen naiz eta gizartera moldatzeko ahalegina egiten ari naiz; izan ere, beste aldean egonez gero, mundua bera egokitu behar izaten da zeurrera. Egonaldi ertainean nagoenetik, helburu batzuk jarri dizkiot neure buruari, eta egunero bete egiten dut helburu horietarikoren bat. Morala nahiko altu daukat; lasai nago eta ez daukat estresik, bestela dagoeneko galduta edukiko nituzke nerbioak. Baina oso motibaturik nago; neure buruari jarri dizkiotan helburu guztiak berriro ere etsipenean ez erortzeko dira. Helburu horiek betetzera, berriz, %50ean nire esku dago eta beste %50ean munduaren esku, hau da, munduak jartzen dizkidan traben arabera beteko ditut helburuok. Bizitza osoan oztopoak aurkitu ditut, baina eskatuko nuke gauzak apur bat erraztea, egunero ere gauzak nahiko zailak baitira niretzat. Orain neu ere ahalegindu egiten naiz, eta hemen “mesedeak” eskatzea gogorra da, kalean hazi den pertsona batentzat.” (1. kontakizuna)*

*“Oraintsu arte, inoiz ez dut ezer eskatu; mundu guztiarekin haserre ibili nahiz, mutil-laguna hil zenean ukatu egin zizkidatelako eskaturiko laguntza guztiak, alaba txikia eduki arren. Baina zuzendariak esan zidan niretzat beharrezkoak zirela eta orain paperak egiten ari naiz (oraingo bikotekidearekin), zerbait kobratu ahal izateko. Elkarrekin joaten gara eguneko zentro batera, eta bertan, elektrizitate ikastaroa egiten ari naiz, eta goizetan informatikako beste batera joaten naiz. Egia esan, nahiko ondo daramat, orain dela sei hilabete droga utzi egin dudalako. Drogarik ez hartzearena ondo daramat, drogaz gogoratu ere ez bainaiz egiten, baina pare bat aldiz depresio batekin hasi nintzen, paperak egitearen inguruko presioaren eraginez (mutil-lagunaren legezko egoera konpontzea eta hori guztia): ezin nuen gehiago jasan. Mutil-laguna orain iturgintza ikasten dabil, gero lan egin ahal izateko; izan ere, hemendik irteteko eta etxebizitza bat alokatzeko asmoa daukagu. Egia esan, aterpetxean laguntza handia ematen digute.” (5. kontakizuna)*

*“Oraintxe bertan, gehien kezkatzen nauen gaia alaba txikia ikusi ahal izateko dudan epaiketa da; hori lorpen itzela izango litzateke. Kalean egon naiz eta bitan moztu dut tratamendua, eta beraz, uste dute berriro ere erori egin naitekeela. Lan egonkorra nahiko nuke. Curriculum asko bidali ditut, baina lana oso txarto dago. Gizarte langileak esan dit agian lanerako prestatuta ez nagoela, baina egin beharra daukat, prestaturik*

*ote nagoen jakiteko, eta hori, gainera, lagungarria izango litzateke dirua aurrezteko eta etxebizitzaren bat lortzeko, ezta? Izan ere, nire nahirik handiena etxebizitza bat lortzea da.” (6. kontakizuna)*

*“Bi hilabete barru, ostatu batera joango naiz bizitzera, eskabidea eginda daukat, eta psikiatraren eta auzitegiko sendagilearen azterketa baino ez dut gainditu behar; gero, eskizofreniaren eraginezko prestazioa kobratuko dut.” (2. kontakizuna)*

Beste pertsona batzuentzat, etorkizun hurbila **etsipenez** beteta dago, porroaren sentazioz beteta, eta horrek amorrua nahiz etsipena sortu eta lortutako guztia bertan behera uzteko gogoia ematen du.

*“Oraingo, atsedena hartu eta indarberritu egin nahi dut, dagoeneko gehiago ezin dudalako; oso nekatuta nago, lantegi batera joaten hasiko nahiz, astia apur bat okupaturik edukitzeko eta kaleetan gutxiago ibiltzeko; horrela, ez naiz arazoetan sartuko. Hala ere, ez dut miraririk espero, badakit aukera handirik ez dudala eta ez daukadala zereginik.” (3. kontakizuna)*

Pertsona batzuek, etorkizun hurbilari begiratzen diotenean, iragana baloratu ondoren, bi sentimenduen konbinazioa izaten dute.

*“Gertatu den guztia gertatuta ere, berriro etorriko nintzateke, eta lana bilatzeko geldituko naiz, familiari dirua bidaltzeko; baina neba-arrebei ez nieke hona etortzeko esango. Nire herrian bizi den jendeak ez du arrazista hitza ezagutzen eta ez dute uste Espainian arrazistak direnik; izan ere, atzerritar bat bertara joaten denean, harrera oso ona egiten zaio. Beraz, ez dut nahi hauek hona etortzerik, ez baitakite hemen egoera hau aurkituko dutela.” (9. kontakizuna)*

Etorkizun horren ikuspegian, funtsezkoa da pertsona bakoitzak duen **gizarte eta familia laguntzaren maila**, hau da, familia loturak edukitzea edo halako pertsonen bizi-estiloaren eraginez galdutako harremanak berreskuratzeko aukera edukitzea. Horientzat garrantzitsua da aldaketa prozesua mantentzeko eta prozesu hori amaitzeko arazoiren bat edukitzea.

*“Familiarekiko harremanak berreskuratzen ari naiz. Eurekin nago eta hartu egiten naute, bisitan joaten naizenean. Gaur gonbidaturik nago amaren eta neba-arreben etxean bazkaltzeko, eta seme eta anaia eredugarria izan nahi dut; egunero garbitzen naiz eta jantziak sarritan aldatzeko ahalegina egiten dut, arropa askorik eduki ez arren; baina pertsona arruntaren irudia ematen saiatzen naiz. Atsegin dut ispiluan begiratzea eta nire gorputz argala haragiz betetzen ari naizela ikustea, eta, apurka-apurka, gero eta pozago nago neure buruarekin. Nire ibilbidean ez dut inoiz ere erabat galdu familiarekiko erlazioa, baina nahiko urrun egon gara elkarrengandik. Eurek (seme-alabak eta ilobak) motibatu egin naute, neure buruaren alde egiteko. Hemen nagoenetik sei kilo hartu ditut, eta egunetik egunera hobeto sentitzen naiz.” (1. kontakizuna)*

*“Baina aurtan sendoago sentitu naiz, eta haurrari (semea) gutuna idatzi diot urtebetetzean, eta sakelako telefonoa jarri nion; ez nuen uste deituko zidatenik, baina deitu egin zidaten (harriturik dio). Horrek pozez bete nau.” (6. kontakizuna)*

*“Familia garrantzi handikoa da niretzat, ama oso garrantzitsua, berarekin hitz egiten dudana bakoitzean ondo baitaki nola nagoen; ondo ezagutzen nau, neure ama baita. Eta*

*badaki, ondo banago, bera ere ondo dagoela. Ama bati musua eman behar zaio oinetan. Ardura zaizkidan pertsona bakarrak ama eta neba-arrebak dira.” (9. kontakizuna)*

Eta, epe ertainerako data jarrita, pertsona hauek **nola ikusten dute euren burua bost urte barru?** Erantzunak, euren bizitzak bezala, oso anitzak dira; izan ere, erabateko ezkotasunetik itxaropenez beteriko baikortasunera bitarteko erantzunak eman dituzte; batzuek porrot multzotzat interpretatzen dute euren bizitza eta “toaila botatzea” erabaki dute, aldatzeko dituzten mugak onartzen dituztelako; beste zenbaitek Jainkoarenganako konfiantza dute; beste batzuek ez dute inolako lotura afektiborik; zenbaitek ez dute aldaketarik ikusten, eta euren burua lanarekin, etxebizitzarekin eta bikotekidearekin ikusten dutenak ere badira.

*“5 urte barru hilda egongo naiz, ezin baitut horrela luzaro jarraitu, eta argi dago hauxe dela tokatu zaidan bizitza. Horrenbestez, ez du merezi burua horren inguruan nekatzen ibiltzerik; “Sex pistol” taldeko kanta horren modukoa da guztia: “No Future”. Horixe da neure bizitza, eta beraz, uste dut martirio hau laster amaituko dela, baina ez dut kalean hil nahi.” (3. kontakizuna)*

*“Nire geroan pentsatzen dudanean, bost urte barruko geroan, ez dakit bizitzak nora eramango nauen; agian orain baino txarrago egongo naiz, ala orain baino hobeto; nire bizitzako azken urte hauetan oso txarto egon naiz, osasuna eta denetarikoa galdu dut. Orain, etorkizunari begira, bizitzak zortea ekarriko didala uste dut, eta Jainkoarengan konfiantza daukat, beti egon delako nire ondoan eta beti lagundu nauelako.” (9. kontakizuna)*

*“Bost urte barru berdin-berdin ikusten dut neure burua, zaharragoa izango naiz baina bizitza berbera edukiko dut. Gainera, berdin-berdin dit.” (2. kontakizuna)*

*“Bost urte barru oraingo moduan egongo naiz, lasai-lasai. Ez dut atzera egin nahi, ez dut pentsatu nahi gauzak txarto irtengo direnik; ezin dut pentsatu: 62 urte ditut, nora noa? Ezin dut horretan pentsatu, bestela zer, tiroa jo behar diot neure buruari? Beraz, pertsiana jaitsi eta beste alde batera begiratzen dut; hori lehen ere igaro da, nire bizitzako garai beltza izan da. Baina lasai nago, eta, behintzat, inguruan dudana ikusita, pentsatzen dut tabakoaren bizioa baino ez dudala, hemen jendea oso txarto baitago.” (4. kontakizuna)*

*“Bost urte barru berdin ikusten dut neure burua, baina askoz ere hobeto. Berton lanean ikusten dut neure burua, Jainkoak nahi badu eta bertan gelditzen bagara; bizitza hobea eduki nahi dut, hurrekin.” (8. kontakizuna)*

*“Bost urte barru, orain arteko moduan jarraituz gero, negozio txikia izango dut eta familiarengandik hurbil biziko naiz, baina ez eurekin. Nire lekua behar dut, ez baitut inorentzat zama izan nahi, eta inoren ardurarik ere ez dut nahi izan. Oso ondo ikusten dut neure burua.” (1. kontakizuna)*

*“Bost urte barru bikotekidearekin bizitzen ikusten dut neure burua; bertan bizi izandakoa inoiz ere ahaztuko ez dudan esperientzia izango da; izan ere, beti pentsatzen duzu non egon zaren, eta gainera, garrantzitsua da halako gauzak ez ahaztea, berriro ere lehengora ez itzultzeko. Gainera, pertsona lagundu nahi diet, neu ere horrela egon naizela esanez, eta horrela, eurek ere irten egin ahal izango dira; horrek zentzua emango dio esperientzia honi. Hemendik irteteko gogoia daukat (aterpetxeko egonaldi ertaineko modulutik), nire ametsa etxebizitza edukitzea eta ohiko bizitza egitea delako, baina pazientzia daukat, 12 urtetan droga hartzen egon ondoren pazientzia hartzen duzulako. Toxikomano batzuek ni ikusi eta ea nola egin dugun galdetzen didate, eurek ez baitute sinesten; esaten dute*

*eurek ez luketela lortuko, baina nik baietz esaten diet, profesional baten laguntza behar dutela. Niri eguneko zentroan laguntza handia eman didate, eta esaten didate irteteko borondate handia izan dugula.” (5. kontakizuna)*

*“Bost urte barru alabarekin ikusten dut neure burua, etxebizitza batean eta bikotekide jator batekin. Ez dut bakardadea atsegin, lehen horrexen bila ibili arren; baina orain ez dut balio bakarrik egoteko. Bikotekidearenak ematen dit beldurrik handiena, hauxe pentsatzen dudalako: “orain artekoen modukoa izango da”. Dagoeneko ez naiz fidatzen, baina hasieran neure buruari botatzen nion harremanak txarto irtetearen errua.” (6. kontakizuna)*

*“5 urte barru emakume batekin ikusten dut neure burua, neure etxebizitzan, eta familia (jatorriko herrian) eta emakumea mantentzeko aukera ematen didan lan batekin. Hori guztia zaila izan arren, itxaropentsu nago eta uste dut lortuko dudala, baldin eta nire “printzesa” aurkitzen badut.” (7. kontakizuna)*

#### 7.4. IDEIA NAGUSIEN LABURPENA

1. Elkarrizketaturiko etxerik gabeko pertsonen profilak oso anitzak dira eta ezaugarri desberdinak dituzte: ohiko oinezkoa, buruko gaixotasuna duen pertsona, elbarritasuna duen pertsona, adineko pertsona, gizarteratze prozesuan dagoen pertsona, etorkina, familia eta gaztea.
2. Pertsona horien iraganak ere desberdinak dira eta bakoitza bazterkerian sartzea azaltzen duten zergatiak era askotakoak dira:
  - Bazterkeriatik edo maitasun, familia nahiz ekonomia gabezia handiko egoeretatik iritsitako pertsonak; horretara bideraturik egon dira eta euren bizitzan jatorrizko familian bizi izandakoen antzeko jarraibideak errepikatu dituzte.
  - Bizitza “normalizatua” izan ondoren, gertaera traumatikoren bat jasan dutenak. Horri aurre egiteko moduaren eta inguruko gorabeheren eraginez, pertsona bazterkerian sartu da; adibidez, bikotekidearengandik banantzea edo buruko gaixotasuna edukitzea.
  - Bizitza normalizatua eduki arren bazterkeria faktoreak pilatu dituztenak; esaterako, drogak hartzea edo etxetik behin eta berriro alde egitea.
  - Beste herri batzuetatik bizitza hobea eta babesia lortzeko iritsi direnak; etxerik gabeko pertsonen ostatu baliabideak erabili behar izaten dituzte. Une jakineko beharrizana da, ez dute beste beharrizanik, eta ez dago faktore baztertzailerik.
3. Pertsona bakoitzak bere eran egiten dio aurre “etxegabetasun” egoerari, bere trebetasunen eta une jakinaren arabera. Pilaturiko porroten kontakizunak eta arrakasten kontakizunak daude:
  - Behin eta berriro porrot egin ondoren euren ahultasunak eta aldatzeko zailtasunak onartzen dituzten pertsonak; kontsumo aktiboetan jarraitzen dute, euren bizi-estiloa aldatu ezin dutelako edo aldatu nahi ez dutelako.
  - Lehenago porrotak izan arren etorkizuna baikortasunez ikusten duten pertsonak, gizarteratze prozesua arrakastaz amaitzen ari direnak.

- Prozesuko etapa guztiak arrakastaz gainditu eta bizitza autonomoa lortzeko zorian dauden pertsonak.
  - Laneratzea soilik behar duten pertsonak, bestelako faktore baztertzailerik eta beharizanik ez dutenak.
  - Batere lotura afektiborik ez duten pertsonak, bizitza erabateko arduragabekeriaz ikusten dutenak.
  - Etsipena duten pertsonak, baina etorkizun hobearen itzaropena dutenak.
4. Bazterkeria ez da gauza egonkorra; pertsona horietariko asko “sartu eta irten” egin dira bertatik, eta intentsitate desberdineko etapak konbinatu dituzte. Pertsona horiek, egoera materialen eta pertsonalen arabera, euren kontsumo aktiboak utzi edo berriro erortzen dira horietan; ostatu baliabideak erabili edo etxebizitza daukate, bakarrik daude edo familian bizi dira.
5. Aldaketa lortzeko aukera ematen duten baldintza batzuk daude:
- pertsonari dagokionez, garrantzitsua da aldatzeko “unea” eta eragilea edukitzea: familia, seme-alabak, bikotekidea;
  - inguruari dagokionez, batik bat kontsumo aktiboak daudenean, bertatik irten beharra dago, berriro ez erortzeko;
  - baliabideari dagokionez, erreferentziako profesionalak behar dira, horiekin loturaren bat sortzeko.
6. Gizarteratze prozesuan lorturiko maila zenbat eta handiagoa izan, aurrera jarraitzeko motibazioa ere hainbat eta handiagoa izaten da.
7. Hala eta guztiz ere, batik bat eskakizun baxuko baliabidetan eta gizarteratze prozesuan ez daudenen artean, behin eta berriro izandako porroten eraginezko etsipen sentimenduak daude, edo bestela, erabateko arduragabekeria jarrerak ikusten dira, bizitzarekiko eta pertsonetikiko ardurarik ez edukitzeari dagokionez.
8. Baliabideen erabilera anitza da, baina pertsona horietariko asko baliabiderik gehienetatik eta erakunde askotatik igaro dira. Euren balorazio orokorra positiboa da, batez ere profesionalengandik jasotako laguntzari dagokionez.
9. Baliabideak eta zerbitzuak hobetzeko aukerei dagokienez, arauak eta funtzionamendua aipatzen dira: ordutegiak, bizikidetzaren nahiz pilaketa arazoak, barne segurtasuna eta janaria. Zorroztasunaren eraginez, batzuetan pertsonak baliabideetatik joan egiten dira eta utzi egiten dute ordura arteko ibilbidea.
10. Proposatutako jarduerak beti ez dira euren interesen arabekoak, eta batzuetan, egunez zentroan gelditzeko soilik hartzen dute parte jardueretan. Zenbait kasutan, joan beharra sentitzen dute eta “denbora alferrik galtzearen” sentsazioa izaten dute.
11. Kaleko eta baliabideetako bizitzak mesfidantza sentsazio orokorra sortzen du, gainerako pertsonen dagokienez.

12. Etxerik gabeko pertsonen artean ere bazterketa dago, batik bat pertsona autoktonoek marokoar gazteekiko, horien jokabidea batzuetan bortitza izaten baita.
13. Halaber, elkartasuna ere sortzen da, batik bat zenbait talde osatzen dituzten kideen artean: toxikomanoak, alkoholikoak edo etorkinak, besteak beste. Berdinen arteko elkartzeko horiek, gainera, taldeak kalean bizitzeko eta ibiltzeko ematen duen segurtasunaren eraginez ere izaten dira.
14. Emakumeek aparteko arazoak dituzte generoaren ondorioz: eurentzako baliabide espezifikoki gutxi dago eta ahulagoak dira, gizonen erasoak jasateko arriskua dutelako, bai kalean eta bai baliabide batzuetan.
15. Gizartearen erantzunean, elkartasunezko eta onarpeneko jarrerak ukapenekin konbinatzen ditu; ukapenei dagokienez, aipagarriak dira mesprezuzko begiradak eta eraso fisikoak.
16. Etorkizunari ikuspegi desberdinetatik begiratzen zaio, hasi erabateko ezkortasunetik nahiz hiltzeko gogotik eta bizitzak hobera egingo duela pentsatzera, eta etorkizunarekiko erabateko arduragabekeria jarrerak ere badira.

# GOMENDIOAK





## 8. GOMENDIOAK

### ARAUTZEARI, PLANGINTZARI, GIDARITZARI ETA KOORDINAZIO-ARI BURUZ

#### 1. ESKUMENEN BANAKETA ETA ADMINISTRAZIO ESKUDUNEK BETE BEHAR DITUZTEN FUNTZIOAK ARGITZEA

Gaur egungo arautegiak administrazioek egin behar dituzten funtzioak zehazten ditu, eta, arautegi horrekin, hainbat irakurketa egin daitezke etxerik gabeko pertsonentzako arretan eskumena duen administrazioari buruz. Orain arte, irizpide orokorregatik esku hartu izan da -herritarren babes-premiei erantzuten dieten udaletako gizarte zerbitzuek- edo zerbitzu espezializatuek esku hartu dute (aldundiek) -umeak, inoren laguntza behar duten adinekoak, bazterkeria-arriskuan edo ahultasun-egoeran dauden pertsonak, esaterako, etxerik gabeko pertsonak-. Horrek, batzuetan, arreten bikoiztasuna sortzen du. Gainera, 20.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrri guztiek eskumena dute larrialdietarako ostatueta, baina, hala ere, hiriburuak dira larrialdietarako ostatuak aterpetxe eran garatu dituzten ia udalerrri bakarrak.

Egindako ahalegina handia izan bada ere (funtzioak determinatzeko 155/2001 Dekretuan zehaztu zen), gehiago argitu behar da zein eskumen dituzten udalek eta aldundiek larrialdietarako ostatuari buruz eta etxerik gabeko pertsonekin esku hartzeari buruz. Hau da, “larrialdietarako harreraren” eta “gizarteratzeko prozesuen” edukia definitu beharko litzateke, baita eskumen horietako bakoitzari aurre egiteko beharrezkoak diren baliabideak ere.

20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, pentsio edo ostatueta lekuak hitzartzea aurreikusten du arautegiak, etxebizitza-arazo urgentek egonez gero. Baina bazterkeria-arrisku larriari dauden pertsonen zailtasunei dagokienez, beste baliabide batzuk behar dira, pertsona horiei modu osoan arreta emango dietenak.

Etxerik gabeko pertsonak hiriburueta batzen dira, hantxe dituztelako larrialdietarako ostatuak. Pertsona horiek beste udalerrri batzuetatik datozenean, haien ohiko inguruetik urrun dauden zentroetan sartuz gero, hurbileko inguruetik banatzen dira. Banaketa horrek larriagoa egiten du haien egoera, gizarteratzeko oinarriko ardatzekin lotura galtzen dutelako erabat: ekoizpenaren arloa, merkatuarekin eta gizarte eta komunitate-sareekin duten lotura. Beharrezkoa da gizarte larrialdietarako zerbitzuen kopurua

handitzea, eta zerbitzu horiek hiriburuetan ez metatzea, larrialdietarako ostatu-premiei aurre egingo dieten leku gehiago egoten daitezten. Lurralde-lotura oinarrizkoa da gizarteratzeko prozesuak hasteko.

20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan larrialdietarako ostatuak egon daitezten aurreikustea exijitzen du arautegiak, baina ez du ostatu-mota zehazten. Eman diren erantzunek, esate baterako, pentsioetan pertsonentzako lekuak hitzartzea, ez dituzte betetzen etxerik gabeko pertsonak dituzten premia espezifikoak. Dena dela, erantzun hori baliagarria da behar den gauza bakarra ostatu bat berehala edukitzea denean. Askotan, esku-hartze soziala ere eskaintzen duten espazioak behar dituzte etxerik gabeko pertsonak. Leku horiek biztanleak kontuan hartuta banatu behar dira lurraldean, denak hiriburuetan pilatzea saihesteko, eta formulak ezarri behar dira udal mugakideen arteko lankidetzak ekonomikorako; horrela zamak modu egokian banatuko baitira.

Pertsona bat bazterkeria larriko egoeran noiz dagoen ere ez du definitzen arautegiak. Gainera, definitzeko daude premia asko eta askotarikoak dituzten pertsonen arreta emateko eskumena zehazteko irizpideak (etxerik gabe dagoen emakume toxikomano eta prostituta bati arreta eman behar zaio larrialdiko egoera batean dagoelako, emakumea delako, toxikomania kentzeko prozesu batean dagoelako?). Lehentasuneko jotzen den premiaren arabera, administrazio batek edo besteak izango du eskumena. Horiek definituta ez egoteak administrazio eskudunek erantzukizunak beren gain ez hartzea ekarri dezake edo arretarik jasoko ez duten pertsonak sor ditzake edo beren arazoarentzat egokia ez den baliabide batean jaso dezakete arreta.

Azken batean, argitu egin beharko litzateke zein erantzukizun eta betebeharrak dituzten pertsona horien arretan eskumena duten administrazioek -aldundiek eta udalek-; hau da, eskumen bakoitza zertan gauzatzen den, noiz den beharrezkoa etxerik gabeko pertsonentzat gizarteratzeko prozesu espezifikoak hastea eta zein premiari erantzuteak izan behar duen lehentasuna.

## **2. ETXERIK GABEKO PERTSONEI ARRETA EMATEKO EREDUA FINKATZEA**

Etxerik gabeko pertsonen ematen zaien arretan irizpide oso askotarikoak daude, esate baterako, baliabideetan egin behar duten denborari edo exijentzia-mailei buruz. Hala, gizarte ekimenak kudeatzen dituen baliabideetan, erakunde bakoitza autonomia da baliabidearen kudeaketan, eman beharreko zerbitzua zehazterakoan, baita arauak, sartzeko irizpideak edo barne funtzionamendua ezartzerakoan ere. Aipatutako guztia erakunde horiek duten esku-hartze ereduaren edo lurralde-administrazioaren ereduaren edo inguruko ohituren edo usadio sozialen arabera egiten da. Ereduaren arabera, baliabide batzuk beste batzuk baino gehiago garatu dira. Esate baterako, gizarteratzeko zentroek ematen duten laguntza-maila ezberdina da lurralde historikoaren arabera; adibidez, lurralde batean exijentzia gutxiko baliabide gehiago garatu daitezke exijentzia handi edo ertainekoak baino, eta alderantziz.

Etxerik gabeko pertsonentzako arretan esku hartzen duten eragileek arreta-eredu bat nahikoa adosten badute, eta eredu hori aplikatzen bada, esku-hartzea eta baliabide gehiago abian jartzea bultzatuko da. Oinarrizko premiei erantzungo zaiela bermatu

beharko du eredu horrek, arriskuak eta kalteak gutxitzen lagundu behar du, eta babeseko eta esku-hartzeko neurri ekonomikoak eta sozialak elkartzen ere. Gainera, zama burokratiko gehiegi egotea saihestuko da.

Irizpide askotarikoak daudenez eta, lehenago aipatu dugunez, eskumenen banaketa argi ez dagoenez, honako auziak instituzioen eta erakunde pribatuen interpretazioaren menpe geratzen dira: zein administrazioak (Aldundia, Udala, Osasun Saila...) emango dio arreta hainbat premia sanitario, sozial... dituen etxerik gabeko pertsona bati?, zein dira bete beharreko oinarrizko premiak?, nork bete behar ditu?, non hasten da gizarteratzeko prozesu bat?, zenbat irauten du?, zein dira gizarteratze baterako beharrezkoak diren baliabideak?

### **3. ETXERIK GABEKO PERTSONEKIN EGITEN DEN ESKU-HARTZE SOZIALARI BURUZKO ARAUTEGI BATERATUA GARATZEA GIZARTE ZERBITZUEN, GIZARTE AZPIEGITUREN ETA BIZIKIDETZA-ORDENANTZEN ARLOAN**

Gizarte politikak gizarte eskubideen ezaugarri berberak dituzte, biak baitira anbiguoak eta biek dituztelako konpromisoak mugatu gabe. Exijitzen denaren maila ezberdinei dagokienez ere. Hortaz, beharrezkoa da anbiguotasun hori zehaztuko duen arautegi bat. Bestalde, garrantzitsua da bizikidetzaren ordenantzetan esku-hartze soziala bermatzea.

#### **3.1. GIZARTE ZERBITZUEN ARLOAN ARAUTEGI BATERATUA GARATZEA**

Gizarte zerbitzuak gero eta gehiago garatu dira azken urteetan eta, horren ondorioz, eragile publiko eta pribatu gehiago daude orain, irizpide, iritzi eta erantzun-maila ezberdinak dituztenak.

Gizarte arazoak aldatu egiten dira: familiaren egitura aldatzea, biztanleria zahartzea, hainbat jatorri kultural dituzten pertsona gehiago egotea... Kohesioa, berdintasuna eta integrazioa arriskuan jartzen dituzten egoerei erantzuten jarraitzeko bermea da gizarte zerbitzuak sendotzea.

Udaletako oinarrizko gizarte zerbitzuak dira gizarte zerbitzuen sisteman arreta emateko lehen mailako sarea. Garrantzi handia dute, haien bitartez laguntza ekonomikoak tramitatzen direlako eta gizarteratze-hitzarmenak ezartzen direlako. Horiek dira bazterkeriaren aurka borrokatzeko oinarrizko dispositiboak. Gainera, oinarrizko gizarte zerbitzuei gero eta eskaera gehiago egiten zaie komunitate-interbentziorako eta gizarte babeserako.

Azken urteetan ez dute garapen bera izan udalerrri guztietan; horren ondorioz, une honetan, desberdintasun handia dago arretaren aldetik eta eskura dauden ekipamendu, zerbitzu edo profesionalen aldetik.

Erakunde honek EAeko oinarrizko gizarte zerbitzuen egoerari buruz egindako ezohiko txostena 1999ko abenduan aurkeztu zen Legebiltzarrean. Txosten horretan, orain errepikatuko ditugun gomendioak egin ziren: zerbitzu horientzako arautegi espezifikoak egitea, arretan desberdintasunak saihesteko irizpide bateratuen beharra, gizarte zerbitzuen, taldeen eta langileen helburu eta funtzioak zehazteko beharra, lan egiteko moduak

berriro bideratzea, baliabideen administrazio eta kudeaketara ez mugatzeko eta gizarte lanean gehiago aritu ahal izateko, lan komunitarioaren garrantzia, etab.

Gaur egun, garatzeke dago gizarte zerbitzuak behin betiko indartzearengan eta haien eraginkortasunarengan eragina duen arautegi hori. Premiazkoa da herritarrek gizarte zerbitzuak eskuratzeko duten eskubidea definitzea, oinarrizko prestazioen katalogoa egitea eta horren edukia zehaztea, EAEn gizarte zerbitzuen mapa sortzeko ezinbestekoak diren baliabideak ezarrita, baita ekipamendu sozialen eta profesionalen ekipamenduen sarea ere, eskubide horren erabilera herritar guztien esku jarriko dutenak, bizi diren lekua zeinahi izanik ere. Udaleko gutxieneko taldeen definizioan aurrera egin beharko litzateke, tartean dauden profil profesionaleri lotutako lanak zehaztuta.

Oro har, lurraldeen zein udalen arteko ezberdintasunak daude gizarte zerbitzuak garatzerakoan, eta horrek desberdintasunak sor ditzake zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen arretan. Desberdintasun horiek daude irizpide ezberdinak erabiltzen direlako edo udalek baliabide gehiago edo gutxiago bideratzen dituztelako gizarte zerbitzuentzat. Horrek desberdintasunak sortzen ditu zerbitzuetan, lurraldearen arabera, eta hori ez da positiboa. Hortaz, irizpideak bateratu eta finantziario-formulak adostu beharko lirateke, udalen arteko solidaritatea eta antzeko zerbitzua ahalbidetzeko.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak du arautegi hori egiteko eskumena. Komeni da eperik laburrenean arlo hori erregulatuko duen arautegi bat egon ahal izatea, talde horri eman beharreko arreta hobetzeko funtsezkoa baita.

### 3.2. GIZARTE AZPIEGITUREN ARLOAN ARAUTEGI BATERATUA GARATZEA

Dagoeneko esan dugunez, sektore honen ezaugarria da ez dagoela mugatuta eta araututa; beraz, ez daude irizpide bateratuak ez esku-hartze sozialerako, ezta dauden dispositibo edo baliabideetarako ere. Horrenbestez, galdera hauek ez dute erantzunik edo erantzun asko dituzte: zer da etxerik gabeko pertsonentzako eguneko zentro bat?, azpiegiturako eta barne antolakuntzako zein ezaugarri izan behar ditu?, edo, zenbat pertsonarentzako lekua izan behar du metro koadroko?, egokituta egon behar da ezgaitasunen bat duten pertsonak erabili dezaketela aurreikusten delako?...

Martxoaren 10eko 40/1998 Dekretua oraindik ez da garatu. Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte zerbitzuak baimentzea, erregistratzea, homologatzea eta ikuskatzea arautzen du dekretu horrek, eta 4. artikuluan ezartzen du gizarte zerbitzuen zerbitzu eta zentroek bete egin beharko dituztela zerbitzu edo zentro mota bakoitzarentzat arauz ezarriko diren betekizunak. Saiakera batzuk hutsune hori betetzen eta mugapenean aurrera egiten ahalegindu dira, adostasunaren bitartez (esate baterako, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailak egin duena ekimen pribatuko gizarte erakundeekin batera, gizarteratzearen esparruan foru-erantzukizuneko zerbitzuak definitzeko prozesuaren barruan).

Azken buruan, eragile asko eta baliabide askotarikoak edukitzea da sektorearen ezaugarria. Beharrezkoa da aurrera egitea honakoak definitzen: zerbitzuak (egoitzetakoak, egoitzetakoak ez diren gizarteratze-zerbitzuak...), arreta-ereduak edo zentroen erabilera-ereduak (laguntza- edo exijentzia-mailaren arabera), pertsonentzako leku kopurua, ekipamenduak, eraikuntza-irizpideak, ingurumen-baldintzak, kokapena... Horrez gain,

arautegia egin behar da, zerbitzu edo zentro mota bakoitzerako betekizunak era egokian erregulatzeko. Arautegi hori egiteko eskumena ere Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak du.

### 3.3. ESKU-HARTZE SOZIALA BERMATZEA UDALETAKO BIZIKIDETZA-ORDENANTZETAN

Abenduaren 16ko 57/2003 Legea tokiko agintaritzaren modernizatzeko neurri buruzkoa da, eta, Lege horren ondorioz, tokiko erakundeek erregulatu egin dute herritarren bizikidetzaren defentsari buruzko arautegia interes lokala duten auzietan eta haren zerbitzuen, ekipamenduen, azpiegituren, instalazioen eta espazio publikoen erabilerarekin lotutakoetan, baita erregimen soziosanitarioa ezartzea ere. Zenbait udalek, esate baterako, Donostiakoak, etxerik gabeko pertsonen buruzko jarduerak aurreikusten dituzten ordenantzak onartu dituzte, udalek egin beharrekoak.

Ordenantza horiek espazio publikoaren erabileraren gaineko eragina dute. Etxerik gabeko pertsonak espazio publikoan bizi dira, ez dute bizitzeko espazio pribaturik. Horregatik, ordenantzek errealitate hori izan behar dute kontuan, eta haien beharrei egokitutako gizarte arreta eta beste baliabide batzuetara igorriko dituztela bermatu behar dute, batez ere gizarte larrialdiko kasuetan.

## 4. SEGIMENDU ETA KONTROLERAKO SISTEMAK EZARTZEA GIZARTE ESKUBIDEAK ZEIN NEURRITAN BETETZEN DIREN IKUSTEKO

Gizarte politikak gizarte eskubideak betetzeko dira, eta, batez ere, aurrekontua behar duten betebeharrak dituzte. Gizarte gastura bideratzen diren baliabideak finkatu eta gastu hori betebeharra dela dioen gizarte kontzientzia handitu behar da, eta, horrekin batera, hori zein mailatan betetzen den neurtuko duten kontrol sistemak ezarri beharko dira, eta gizartearen parte-hartzea bermatuta egon beharko da. Horrez gain, erakunde pribatuekin egiten diren hitzarmenetan konpromisoak agertu behar dira modu xehatuan, baita kontrol-sistema egokiak ere.

Kontrol-sistema horietan jasota egon behar da gastuaren segimendua eta kontrolatzen diren sistemen balioztatzea. Kalitate-irizpideak gizarte zerbitzuen kudeaketan txertatzea izango litzateke helburua. Alde horretatik, jardueren plangintza edo balioztatzeke adierazle sistemak dira kudeaketa hobetzen lagundu dezaketen tresnetako batzuk.

Gizarte eskubideei buruzko neurrien plangintzari dagokionez, esate baterako etxebizitza, osasun edo hezkuntzarako eskubideari dagokionez, garrantzitsua da identifikatzea arlo horietan gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzera zuzendutako neurriak (aurrekontua, organo eskudunak eta balioztatzeke adierazleak zehaztu).

Bestalde, balioztatzean adierazle-sistema bat egon behar da, ezarritako helburuen aldirikako segimendua eta balioespena egitea ahalbidetuko duena, eta gizarte eragileen parte-hartzea aurreikusiko duena.

Bazterkeriaren aurkako borrokan egin den ahalegina balioetsi ahal izan beharko zen, eta haren eraginkortasuna balioztatu, neurriak premietara egokitu ahal izateko. Horre-

tarako, komeniko litzateke administrazioek irizpide bateratuak erabiltzea, bai Espainian zein Europako Erkidegoko gainerako estatuetan, beste ekimen batzuekin alderaketak egin ahal izateko, Europar Batasunak proposatzen duenez.

## **5. LARRIALDIETAKO ESKU-HARTZE SOZIALERAKO JARDUERA-PROTOKOLOAK**

Txostenak erakusten duenez, udalerrri gehienetan ez dago pertsona horientzako jarduera-protokolorik, eta horrek zaildu egiten du arreta. Ez dago pertsona bat udalerrrian lotan aurkitzen denean egin beharreko jardueren ildorik, ezta mugakide diren udalerrrien arteko koordinaziorik ere, ez eta larrialdietarako telefonorik ere udalerrri gehienetan. Beraz, udalerrri askotan, oinarrizko gizarte zerbitzuen ordutegiaren arabera da. Pertsona horiek Bilbo, Gasteiz edo Donostiara igortzen dituzte, pertsona aurkitu duten lekuaren arabera, etxerik gabeko pertsonentzako larrialdietarako jarduera-protokolorik ez dagoelako, ezta pertsona horientzako baliabide espezifikorik edo gizarte larrialdietarako zerbitzurik ere.

Bestalde, udalerrri batzuetan, premia horiei erantzuten dieten ekimen pribatuko erakundeak daude.

Etxerik gabeko pertsonen espazio publikoa erabiltzen dute. Haien egoeratik edo neguko klimagatik, agian berehalako osasun- edo gizarte laguntza beharko dute. Jarduera-protokoloak egongo balira, udaltzaingoak edo beste funtzionario batzuek zelan jardun jakingo lukete edo udalerrrian aurkitzen dituzten eta berehalako laguntza behar duten pertsonak nora igorri jakingo lukete. Pertsona horiek aurkitzeko, kalean daudela aprobeixatu beharko litzateke klimatologia txarra dagoen gauean, hau da, tenperatura txikiak, euria, etab. dagoenean, edo gau horiek erabili daitezke osasun arazoak, dituztenak, drogazaleak... identifikatzeko. Kostu handirik ez duten bideak daude horretarako, esate baterako, guardiako gizarte langile batekin telefono bidez hitz egiteko aukera edukitzea, larrialdiko egoeretan pertsona hori baliabiderik egokienera igorri ahal izateko edo pentsio edo ostatueta lekuak hitzartzeko. Udalerrri gutxi batzuetan formula horiek erabiltzen dira dagoeneko.

Hortaz, beharrezkoa izango litzateke kalean lan egiten duten udaleko hainbat arlo edo zerbitzu inplikatuak dituzten jarduera-protokoloak egitea (hirigintza-plangintza, lanak, garbiketa eta argiak, desinfekzioa, dutxa publikoak, etab.) eta, batez ere, gizarte zerbitzuak eta udaltzaingoa inplikatuak dituenak. Udala koordinatu egin beharko litzateke mugakide dituen udalekin, kolektibo horrekin lan egiten duten erakunde pribatuekin eta beste instituzio batzuekin, esate baterako, Herrizaingo Saila (Ertzaintza) edo Osasun Saila (Osakidetza), berehalako gizarte arreta behar duen etxerik gabeko pertsona bat udalean aurkitzen denean jarduteko moduari buruzko ezagutza partekatua egon dadin.

## **6. SEKTOREAREN PLANGINTZA EGITEKO BEHARRA: GIZARTEA KONTRA DUTEN BALIABIDEAK SORTZEKO ETA DEFENDATZEKO GIDARITZA POLITIKOA**

Gizarte zerbitzuen sektorearen ezaugarria da baliabide eta eragile oso askotarikoak daudela. Batzuetan, gizarte baliabide berriak zabaltzearen eta haien kokapenaren kontra

egon da, eta, horren ondorioz, kontuan hartu beharreko alderdi bihurtu da, eta alderdi erabakigarri ere, baliabide berriren bat irekitzeko erabakia hartzerakoan.

Ararteko erakundeak esku hartu behar izan du zerbitzuak sortzearekin zerikusia duten auzietan, edo ahultasun bereziko egoeran dauden gure gizarteko talde jakin batzuei espezifikoki zuzendutako programak abian jartzeari buruzkoetan, esate baterako, etxerik gabeko pertsonentzako programei lotutakoetan. Hori dela-eta, erakunde honek izaera orokorreko gomendio bat egin zuen: *“Erakundeen buruzagitza, ahultasun handiko taldeentzat zerbitzuak sortu behar direnean”* (2001eko txostena). Gomendio horretan, plangintza publiko baten garrantzia adierazi zen. Horren bitartez, baliabide jakin bat eremu batean jartzeko beharra defendatuko zen eremu zehatz bateko bizilagunen ordezkarien aurrean, antzeko beste baliabide batzuk beste eremu batzuetan jarrita dauden moduan -edo jarrita egongo diren moduan, plangintzaren arabera-. Azken batean, plangintza “solidarioa” egiten saiatu beharko lirateke horrelako dispositiboak jartzeko. Hain zuzen ere, dimentsio txikiko baliabideak sortzea sustatuko lukete, eta baliabide horiek hiri osoan eta EAeko udalerrri guztietan banatuta egongo lirateke. Horretarako, kontuan hartu behar da horrelako dispositiboak hartzeko komunitateak duen gaitasuna, eta guztiak zona jakin batzuetan metatzea saihestuko da.

Aipatutako izaera orokorreko gomendioan, Ararteko erakundearen iritzia izan zen administrazio eskudunek jarrera aktiboa eta buruzagitzakoa hartu behar dutela kasu guztietan, honako helburuak eskuratzeko:

- Gizartearen sensibilizazioa sustatu behar da, biztanle zehatz batzuek baztertuak izateko arriskua dutenean eta horientzat zerbitzuak sortu nahi direnean. Zerbitzu horiek beharrezkoak eta onak dira, eta gizartea horretaz jabetu behar da. Horretarako, nahitaezkoa da, gutxienez, informazio sistematiko eta argia eskaintzea, bazterkeriaren aurkako politika eta apustuei buruz, bai eta bazterkeria horren aurkako gizarte erantzunari buruz ere.
- Laguntza-beharrizanak zehatz-mehatz aztertu behar dira eta, horren ondorioz, erantzunak eta horien lurralde-banaketa planifikatu behar dira. Ahal den neurrian, saihestu behar da gehiegizko kontzentrazioak izatea, horrek ghettoak sortzeko arriskua baitakar.
- Gizarteari parte hartzeko mekanismoak eskaini behar zaizkie, eta mekanismo horiek izan eta zabal daitezen erraztu behar da. Halako mekanismoen bitartez, argibideak eta proposamenak trukatu ahal izango dira, eta, horrekin batera, proiektuaren fase guztietan, presentzia aktiboa izango dute, bai antolatutako gizarte agenteek (elkarteek...), bai eta zuzenean ukitutako auzotarrek ere.
- Ukitutako administrazio edo sail desberdinen artean (tokikoak, lurraldekoak nahiz erkidegokoak), koordinazioa izan behar da, eta administrazio edo sail horiek jarrera bateratuak izan behar dituzte.
- Zerbitzuaren jardunbidea zuzena izan dadin, beharrezkoak diren bermeak eskaini behar dira. Konparazio baterako, egitarauari edo profesionalen laguntza, kontrola, ebaluazioa, jarraipena... eta gainerakoak bermatu behar zaizkie, batik bat, bali-

bidearen kudeaketa beste erakunde baten esku uzten denean edo baliabide hori gizarte ekimenetik sortzen denean. Bermeak eskaini behar zaizkie, gainera, dela zerbitzuaren erabiltzaileei, dela toki horretako auzotarrei.

- Ahal den neurrian, istiluak saihestu behar dira; eta, istiluak sortzekotan, lan egin behar da, horiek azkar konpon daitezen.
- Egitarauen gaineko jarraipena egin behar da; jarraipen horri esker, beharrezkoak diren aldaketak egingo dira eta, modu berean, eginera onak zabalduko dira.

Azken batean, plangintza egiteaz gain, erakundeen gidaritzak honako helburuak ere bilatu behar ditu: gizartea sentsibilizatzea, herritarrek parte hartzea, administrazioen artean koordinatzea, gizarte ekimen solidarioei babesa agertzea, baztertuta dauden pertsonen defentsan konprometituen dauden gizarte eragileekin lankidetzan aritzea eta zerbitzuek egoki funtzionatuko dutela bermatzea. Txosten honetako beste gomendio batzutan ere auzi horiek aipatzen dira berriro.

Gizarte zerbitzuen arloan, ekimen publikoa izan behar da burua, bazterkeriaren aurka borrokatzeko baliabide nagusiak kudeatzen dituelako (oinarrizko errenta, gizarte larrialdiko laguntzak eta gizarteratzeko hitzarmenak) eta, neurri handi batean, irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen programak finantzatzen dituelako.

Ekimen pribatuko erakundeen kopuru handiak babesten ditu Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak. Izan ere, lege horretan honako alderdiak aurreikusten dira: “gizarte boluntariora eta irabazi asmorik gabeko erakundeak sustatzea” baita “gizarte zerbitzuak ematerakoan ekimen pribatuak parte hartzeko aukera, bere esku-hartzea araututa” ere. Horrez gain, gizarte zerbitzuen arloan udalei eman zaizkien eskumenak ere jasotzen ditu, herriak duen biztanle-kopurua kontuan hartu gabe, “deszentralizazio, malgutasun eta herritarrenganako hurbilpeneko irizpideei jarraituz”. Beraz, haien eginkizuna funtsezkoa da. Hala ere, gizarte babeseko beharrak betetzeko orduan, administrazioak du erantzukizun publikoa, eta gidaria izan behar da argi eta garbi sektorea antolatzerakoan.

## **7. ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA HOBETZEA, ETA ADMINISTRAZIO HORIEN ETA ERAKUNDE PRIBATUEN ARTEKOA ERE, BAITA ANTZEKO ARRETA-MAILA BERMATZEA ERE**

Administrazioen eta etxerik gabeko pertsonen premiei erantzuten dieten erakunde pribatuen arteko koordinazioa funtsezkoa da osoko arreta lortzeko eta defizitak eta bikoiztasunak saihesteko. Administrazio eskudun asko eta askotarikoak daudenez, esan dugun bezala, esku hartzeko eredu ezberdinak daude eta, txarragoa dena, arreta-maila oso ezberdinak daude lekuaren arabera.

Gizarte bazterkeriaren aurka borrokatzea Europar Batasunaren helburuetako bat bihurtu da. Batasuneko estatuek jarduteko estrategiak aurkeztuta parte hartzen dute. Autonomia Erkidegoek parte hartuko dutela aurreikusita dago -“gizarteratzeko jardueraren plan nazionalen segimendua eta balioztatzea egiteko batzorde berezia”-ren bitartez-, baina haien parte-hartzea txikia da, autonomia erkidegoak diren arren, paradoxikoa bada



ere, bazterkeriaren aurka borrokatzeko jarduerak lehentasunez garatzen ari direnak. Beraz, beharrezkoa da koordinazioa hobetzea, informazioaren trukea errazteko eta EAEk Europako estrategiak betetzen parte hartu dezan ahalbidetzeko, organo horren edo etorkizunean sor daitezkeen beste batzuen bitartez.

Barne mailan, koordinazioa zaila da, EAEn gizarte gaietan eskumena duten erakundeen egitura konplexua delako. Alde batetik, Eusko Jaurlaritz, foru aldundiak eta udalak daude eta, bestetik, Eusko Jaurlaritz eta Gipuzkoako Foru Aldundia, arlo horretan eskumenak dituzten sail bi baitituzte. Gainera, guztiek dituzte ogasun sailak. Hala ere, funtsezkoa da administrazioak koordinatzeko ahaleginak egiten jarraitzea, plangintzaren zein finantziazioaren arloan.

Koordinaziorik ez egotea eta antzeko arreten eta tramite burokratikoaren bikoiztasuna edo aniztasuna egotea oztopo bat da, eta baliabideak ahalik eta hoberen erabiltzea zailtzen du. Elkarriketak eta diagnostikoak errepikatzea saihestuko litzateke koordinatzeko sistema formalak, esaterako Gasteizkoa, edo informalak egongo balira, eta beste programa batzuetarako erabili daitezkeen baliabideak galtzea ekidindo litzateke.

Horretarako, hainbat formula daude: parte hartzeko organo formalak sortu eta garatzea, eragile guztien artean lankidetzan aritzeko bideak garatzea, topalekuak sortzea, teknologia berrien bidez eta legezko berme guztiak betez informazioa partekatzea... Hainbat eragilek partekatutako jarduera-protokoloak eta esku-hartze sozialeko eredu bat egoteak ere koordinazioa erraztuko luke.

## 8. ZERBITZU SOZIOSANITARIOAK ABIAN JARTZEA

Beharrezkoa da eremu soziosanitarioa garatzea. Plangintza estrategikoak egin eta ereduak eta helburuak zehaztetik ekimenak eta zerbitzuak abian jartzera pasatu behar gara. Ekimen eta zerbitzu horiek nahitaez izan beharko dituzte osasun- eta gizarte baliabideak.

EAEn arreta soziosanitarioa garatzeko plan estrategikoa duela gutxi onartu da, eta funtsezko tresna da. Hauxe da haren eginkizuna: "osasun-arazoak, muga funtzionalak eta/edo gizarte bazterkeriako arriskua edukitzeagatik edo bestelako arrazoi larriren bategatik aldi bereko osasun- eta gizarte arreta koordinatua eta egonkorra behar duten pertsonen arreta ematea". Plan horretan ekimen oso garrantzitsuak daude aurreikusita, esate baterako, zerbitzu soziosanitarioen garapena sustatzea, orain arte osasunaren esparrukoak baino ez ziren zerbitzuak esparru soziosanitarioan jarrita; sektore pribatua hobeto ezagutzea; premia soziosanitarioak dituzten pertsonen arreta emateko zerbitzuak garatzea, planifikazio bateratuaren bitartez eta zerbitzuen eskaintzan lurraldeen arteko oreka bilatuz; gizarte zerbitzuekin dagoen komunikazioa hobetzea; antzekorik ez duten balioespen sistemak erabiltzea, baita pertsonak baliabideetara igortzeko sistemak ere...

Beraz, aurreikuspen horiek abian jarri, eta zerbitzu soziosanitarioak eskura eduki nahi dira, baliabide espezifikoak bideratuta eta beharrezkoak diren planeko neurriak garatuta, osasun arazoak dituzten etxerik gabeko pertsonen eta/edo muga funtzionalak dituztenek arreta jaso ahal izateko.

## 9. GIZARTERATZEKO ETA SAREAN LAN EGITEKO IBILBIDEAK GARATZEA

Bazterkeria-arriskuan edo muturreko bazterkeriako egoeran dauden pertsonekin esku hartzeko, beharrezkoa da instituzioetako eragileak inplikatzera, esku-hartze sozialean lan egiten dutenak zein beste arlo batzuetan aritzen direnak. Udal eta aldundietako zerbitzuez gain, beste zerbitzu batzuk daude, esaterako, Eusko Jaurlaritzaren Gazte Justiziaren Zerbitzua, edo Kartzeletako gizarte zerbitzuak, muturreko bazterkeria-egoeran dauden pertsonak identifikatu eta esku-hartze sozialeko lana egiten baitute. Onuragarria izan daiteke egoerak eta esku hartu duten profesional guztiak kontuan hartuko dituen gizarteratzeko ibilbide bat egotea, behin eta berriro prozesu gehiago hastea ekiditeko.

Beste arlo batzuen parte-hartzea ere garrantzitsua da: hezkuntza, kultura, lanean hasten laguntzeko esparrua... Beste esparru batzuetan bezala, honetan ere zeharkako lanak osoko arreta bultzatzen du. Arlo horiek zuzeneko eragina izan dezakete etxerik gabeko pertsonak eduki ohi dituzten beste gabezia batzuegan, esaterako, kulturaren arlokoak, harremanetakoak, trebakuntzakoak... Hori dela-eta, jardueren plangintza egiterakoan, komeni da muturreko bazterkeriako egoeran dauden pertsonen beste premia horiei erantzutera zuzendutako neurri eta jarduerak kontuan hartzea beste arlo batzuek -eta ez soilik gizarte zerbitzuen arloak-.

## 10. ETXERIK GABEKO PERTSONENGAN HELDUKO DEN ETXEBIZITZA-POLITIKA EGITEA

Txosten honetan, etxerik gabe dauden pertsonen ematen zaizkien erantzunak aztertu dira, baita EAEn pertsona horientzat dauden baliabideak ere. Pertsona horiek guztiak ez dute profil bera, ezta premia eta bazterkeria-maila bera ere, baina guztiak dute etxebizitzaren premia, lo egiteko etxe baten beharra.

Etxebizitza egokirik ez izateak bazterkeria-egoera larriagotzen du eta osasuna oso azkar hondatzen du. Norberaren garapena galarazten du, bai eta lanpostu bat, trebakuntza-ikastaro bat edo harremanetarako gainerako gizarte esparruak eskuratzeko beharrezkoak diren gizarteko estandarrak lortzea ere.

Etxebizitza galtzeko arriskua duten egoeren aurreko jarduerak garrantzi berezia dute, prebentzio-neurri gisa (kaleratze edo bahituren aurrean). Egoera horiek aurreikusiko dituzten neurriak ezarri behar dira, esate baterako, interes txikian gizarte kredituak jasotzeko aukera edo etxebizitzaren kostuaren zati bat finantzatzera bereziki zuzendutako gizarte laguntzen formula berriak; adibidez, alokairuko errenta edo, halakorik edukiz gero, hipotekaren ordainketa.

Konstituzioan eta nazioarteko beste testu arau-emaila batzuetan onartu egiten da ostatu egokirako eskubidea, baina politika publikoek oraindik ez dute lortu eskubide hori guztien esku egotea. Horregatik, instituzioek ahalgin handiagoak egin behar dituzte alokairuko etxebizitzak eskura jartzeko -horretarako programa eta neurri orokorrak sustatuta, gaur egun baino gehiago, gizarte alokairuko eskaintza handitzeko- edo egoitza-baliabideak, tutoretzapeko pisuak, harrera-zentroak, udal aterpetxeak, etab. eskura jartzeko -hiriburu ez diren udalerrietan ere-. Horrez gain, ezinbestekoa da diskriminazioaren kontrako

neurriak abian jartzea. Neurri horiek etxebizitzak alokatzeko orduan sektore pribatuan dagoen diskriminazioaren kontra borrokatu beharko dira eta etxebizitzaren arazoarekin gizarateak duen sentsibilizazioa handitu beharko dute.

Eragotzi egin behar da bizitzeko leku bat ez izateak muturreko bazterkeria-prozesuak ekartzea edo berreskuratzeko edo gizarteratzeko prozesuak arriskuan jartzea. Etxebizitza aldi batez ez edukitzeak muturreko bazterkeria-prozesu larria ekarri dezake, eta hori konpontzeko kostu handiagoko esku-hartzeak edo zailagoak behar izango dira. Batzuetan, programa bati erantzun dioten pertsonak ez dute jarraikotasunik izan leku egoki batean, eta, hortaz, egindako ahaleginak edo erabilitako baliabideak alferrikakoak izan dira. Egoera hori ohikoa da desintoxikazioko tratamenduen kasuetan, edo askatasuna kentzen duten neurriak betetzean, etab. Gizarteratzeko prozesuak hasteko edo prozesu horiekin jarraitzeko laguntza ahalbidetuko duten egoitza-baliabideak behar dira, prozesuak bertan behera geratzea ekiditeko. Horretarako, komeniko litzateke gizarte bazterkeriako egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dauden pertsonentzako arretan eskumena duten administrazioak -udalak eta foru aldundiak- etxebizitza-ondare nahikoaz hornitzea, premia horiei aurre egiteko. Hori lortzeko, besteak beste, Eusko Jaurlaritzak sustatutako etxebizitzak lehentasunez eskuratuko lirarteke, bide hori eskaintzen baitu babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurari buruzko 2002ko ekainaren 14ko Aginduko 5. artikulua -oraindik ez da erabili bide hori eta helburu horretarako baino ez da-. Eskuratu ostean, gizarte premia bereziak dituzten pertsonen alokairu-erregimenean edo prekarioan lagatzera zuzenduko dira etxebizitza horiek.

Bestalde, hirietan honako arazoak dituzten auzoak egotea da gizarte bazterkeriaren arloko arazorik handienetako bat: baztertutako pertsonen batez besteko handia, errenta-maila txikiak, pertsonen metaketa, bizikidetzara-azazoak, hirigintza hondatuta egotea, droga-trafikoak... ezaugarri nagusiztat itxaropen eza duten pertsonak. Erakundeek urteetan ahazten dituztenean sortzen dira auzo horiek. Garrantzitsua da hirigintzaren hondatzea geratzea eta infraetxebizitzak, hondatutako etxebizitzak saihesteko esku hartzea, eta pertsonak beste etxe batzuetan ostatu hartu dezaten kudeatzea.

Azken batean, hartzaile-talde nagusien artean, bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen eman beharko lieke arreta etxebizitza publikoei buruzko politikak. Izan ere, higiezin merkatu pribatuak eragotzi egiten du pertsona horiek etxea edukitzeko aukera izatea, etxebizitzek duten prezioagatik. Gizakiek etxebizitza egokia edukitzeko duten eskubidea betetzeko, honakoak dira sustatu daitezkeen tresnetako batzuk: diskriminazioaren kontrako neurriez eta gizarte sentsibilizatzeko neurriez gain, babes ofizialeko etxebizitzak gordetzea, Bizigune programa edo antzekoak garatzea, administrazioen arteko lankidetzak (udalen, aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean, eta izaera sozialeko egoitza-baliabideak kudeatzen dituzten gizarte zerbitzuetako erakundeekin...).

## **11. BAZTERKERIA-EGOERAN DAUDEN PERTSONENGANA HELDUKO DEN POLITIKA GARATZEA LANEAN TXERTATZEKO: BITARTEKO BALIABIDEAK SORTZEKO BEHARRA**

Etixerik gabeko pertsonen zailtasun larriak dituzte lan-merkatuan sartzeko. Gizarteratzea eratzeko helburuarekin, hainbat baliabide sortu dira (Auzolan programa, gizarteratze-

enpresak, kontratazioari laguntzak...). Lanean hasteko zailtasunak dituzten pertsonak dira baliabide horien hartzaileak. Etxerik gabeko pertsonen profilak baliabide espezializatuagoak eskatzen ditu. Zaila da pertsona horiek baliabide arruntetan parte hartzea, besteak beste, kaleko bizitzarengatik, buruko osasun-arazoak dituztelako; larriak ez izan arren, lanean hasteko beharrezkoa den jokabidea aldatzen dutelako. Baliabide espezializatuagoak behar dira, bitarteko izaera izango dutenak, lanean hasi baino lehenagokoak, oinarrizko gaitasunak emateko. Baliabide horiek sare normalizatuan egon beharko dira, eta pertsona horiek enpleguetan sartzea sustatzen duten gizarte zerbitzuek koordinatu beharko dituzte. Beraz, beharrezkoa da gaur egun dauden neurri edo programa horiek benetan duten eragina aztertzea eta balioztatzea, bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen enplegu aukeretan, beharrezkoa izanez gero, baliabide horiek egokitzeko edo beste baliabide espezializatu batzuk sortzeko, muturreko bazterkeriaren barruan dauden pertsonen profil berriei arreta emateko gaitasuna izango dutenak.

## **12. HERRITARREN PARTE-HARTZEARI BULTZADA**

Gizarte zerbitzuen esparruan, funtsezkoa da herritarren parte-hartzea, baita gizarte zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonena ere. Jarduera egokia bermatzeko, kontuan hartu behar dira gizartearen iritziak. Herritarren parte-hartzea da Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legeak ezartzen duen printzipioetako bat.

Gizarte ongizateko batzorde batzuk sortu diren arren, kontsulta-organo horiek ez dira asko garatu, eta gizarte erakundeen eta herritarren parte-hartzea zailtzen duten gabeziak aurkitu dira.

Komenigarri ikusten da gaur egungo batzordeen balioespena egitea, gizarte bazterkeriarengan eragina duten politika sozialetan benetan parte hartuta eta parte hartzeko formula berriak sortuta, gizarte zerbitzuen planifikazioa eta funtzionamendua erraztuko dutenak. Jarduteko sinergiak bultzatu beharko lirake. Sinergia horiek alderdi guztiak inplikaturako lituzkete (eragileak eta erabiltzaileak) gizarte zerbitzuen antolakuntzan eta alderdi guztien parte-hartze egonkor eta iraunkorra ekarriko lukete.

## **PREMIA GUZTIEI ERANTZUTEKO GAITASUNA DUTEN BALIABI-DEAK**

Etxerik gabeko pertsonak premia oso askotarikoak dituzte. Oinarrizko premiez gain, hau da, ostaturako, janzteko eta etxebizitzarako beharraz gain, osasunari lotutako premiak, gizarte arretakoak, psikologiakoak, lan-trebakuntzakoak, enpleguaren sustapenekoak... daude. Oro har, baliabideek ez dituzte premia guztiak aurreikusten eta ez diete guztiei erantzuten, hainbat arrazoi direla-eta. Batzuetan, ordutegiak oso zorrotzak dira, salbuespenik ez da baimentzen, eta horrek baliabide horiek erabiltzea zaila egiten du. Baliabide batzuek asteburuetan edo oporretan ixten dute eta, beraz, gizarteratze-prozesuak geratzen dituzte. Gainera, ezgaitasunen bat duten pertsonak ezin dituzte erabili eta, sarritan, etxerik gabeko pertsonen gaur egungo profilekin bat ez datozen profilentzat daude pentsatuta. Horregatik, zerbitzu espezifikokoak sortzea gomendatzen

da, profil guztiei arreta emango dietenak eta gizarteratzeko prozesuen faseak kontuan hartuko dituztenak. Kolektibo, arreta nahikoa jasotzen ez duten sektore edo premia batzuetan zehaztu daiteke premia edo joera orokor hori, txosten honen azterketaren arabera. Horixe egingo dugu hurrengo gomendioetan.

### **13. BURUKO GAIXOTASUNARI ETA PATOLOGIA DUALARI ARRETA EMATEA**

Etixerik gabeko pertsona batzuek buruko gaixotasunak eta/edo atzerapen kognitibo handiak dituzte, eta arreta espezifiko eta segimendua behar dute. Baliabide eta dispositibo sozialez gain, buruko gaixotasunen tratamenduari egokitutako osasun-baliabideak behar dira. Izan ere, buruko gaixotasunen arretak segimendu pertsonalizatua eta jarraitua eskatzen du, esate baterako, alkohola edo beste substantzia batzuk kontsumitzen direnean hartu ezin diren farmakoak dituzten tratamenduen kasuan, arazo oso larriak sor ditzaketelako.

EAEen arreta soziosanitarioa garatzeko plan estrategikoak berariaz aurreikusten du pertsona horientzako arreta; beraz, horretarako baliabide soziosanitarioak jarri beharko lirateke abian.

Patologia dualaren prebalentziak gora egin du etxerik gabeko pertsonen artean, eta horren ondorioz, gaixotasunen tratamendua ezagutzen duten profesionalak dituzten egoitza-baliabideak behar dira, izaera oldarkor eta bortitzagatik batzuetan sortzen diren gatazka larriak saihesteko. Pertsona horien arretak gaur egungo aukera, baliabide eta dispositibo sozialak gainditzen ditu alde handiz. Trebakuntzako baliabide gehiago beharko dira, eta osasun-sistemarentzako laguntza. Alde horretatik, hutsune handia dago profil horiek dituzten pertsonen arretan; izan ere, jokabide- eta bizikidetzaz arazo handiak dituztenez, askotan dispositibo sozialetatik kaleratzen dituzte eta aukera gutxiarekin geratzen dira etxerik gabeko pertsonen oinarritzako premiei erantzuten dieten baliabideen sarean sartzeko.

### **14. DROGA MENPEKOTASUNAREN ETA DESINTOXIKAZIOAREN ARLOAN ARRISKUAK GUTXITZEKO PROGRAMAK**

Irauteko baliabideak eta laguntza behar dituzte drogamenpekotasunaren eta desintoxikazioaren arloan arriskuak gutxitzeko tratamenduek. Batzuetan, programen emaitzek harreman handia izango dute laguntza-baliabideekin, ostatu egokiarekin, laguntza ekonomiko eta psikologikoarekin, trebakuntza-ikastaroak egitearekin, lan-orientabidearekin, etab., egindako lanarekin jarraitzeko aukera emango baitiete horrelakoek arreta jasotzen duten pertsoneri.

### **15. SUSPERRALDIAN ARRETA EMATEN DUTEN BALIABIDEAK**

Egindako azterketaren arabera, beharrezkoa da zerbitzuak sortzea, ospitalean alta hartu ostean susperraldian dauden pertsoneri arreta emateko. Saihestu egin behar da ahultasun egoeran dauden eta suspertzeko lekuri ez duten pertsona horiek kalean geratzea joateko lekuri ez dutelako. Jarraitutasuna bermatu beharko litzateke zaintza soziosanitarioetan, ospitaleetako alten kasuetan.

## 16. ETXERIK GABEKO PERTSONEN PROFIL GUZTIEI ERANTZUNGO DIETEN BALIABIDE BERRIAN BEHARRA

Etixerik gabeko pertsonen oinarritzko premiei erantzuten dieten baliabideak eta zerbitzuak gizonentzat daude antolatuta. Haien familiako erantzukizunengatik edo tratu txarrak jasateagatik arreta emateko antolatzen dira **emakumeentzako** baliabide espezifikoak. Ez dago etxerik gabeko emakumeei arreta emateko zehazki antolatutako baliabiderik. Baliabide mistoak emakumeei erabiltzea uzten zaien gizonentzako baliabideak dira benetan. Emakumeek ez dituzte gizonen premia eta inplikazio emozional berberak. Horregatik, beharrezkoa da emakumeen premiekin bat datozen baliabideak eta estrategiak garatzea.

Gora egiten ari den beste profil bat **etxerik gabeko familia** da. Oro har, etxerik gabeko pertsoneri arreta emateko baliabideak ez daude prestatuta familia osoei arreta emateko. Beraz, beste baliabide edo neurri batzuk behar dira. Horren bitartez, saihestu egingo da pertsona horiek, ia beti ume adingabeak dituztenak, aterpetxeetan sartzea eta adingabeen hezkuntza-premientzat egokiak ez diren pertsonekin eta egoerekin bizitzea.

2006ko urtarrilean EUSTATEk argitaratutako etxerik gabeko pertsoneri buruzko inkestak erakusten duenez, pertsona atzerritarren profilak gora egin du etxerik gabeko pertsonen artean, eta orain etxerik gabeko pertsonen kolektiboaren ia % 50 osatzen du profil horrek. Bazterkeria larriko prozesuetan sartzea eragin dezaketen baldintzaile batzuk ditu kolektibo horrek. Pertsona horietako zenbaitek dituzten berezitasunei erantzungo dieten neurri espezifikoak behar dira, muturreko bazterkeriako egoeretan amaitzea saihesteko.

**Lagunduta ez dauden adingabe atzerritarren kasuetan**, adin nagusitasuna bete dutenean eta babeserako zentroek haiei arreta gehiagorik ematen ez dietenean, beren egoera ahultasun handiagokoa da, adinaren ondorioz. Une oso kritikoak dira, eta babeserako zentroetan egindako lana ezerezean utzi dezakete, irteeran segimendurik ez zaielako egin edo ez zaielako lagun egin, bakarrik dauden adingabeei buruz duela gutxi egin genuen ezohiko txostenean adierazi genuenez.

Bazterkeria larriko egoerei erantzuteko antolatu diren baliabideetara jotzen dute legez kanpoko egoera juridikoan dauden atzerriko pertsonak, ezin direlako beste baliabide batzuetara joan. Pertsona horiek ez dute lan egiteko baimena emango dien dokumentaziorik; beraz, ez dute baliabide ekonomikorik, eta etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzte. Haien migrazio-proiektua lan egitea da, baina ezin dira lan-merkatuan integratu, horretarako behar den administrazioaren baimenik ez dutelako. Segurtasuneko sare nagusia familia eta/edo jatorrizko komunitatea izan ohi da eta, familiak eta komunitateak ematen dituzten baliabide horiek ez badituzte, oinarritzko gizarte zerbitzuetara edo laguntzako gizarte erakundeetara joan ohi dira. Laguntza ezak luze irauten badu, bazterkeria larriko prozesuak hasi daitezke batzuetan. Eusko Jaurlaritzaren Immigrazio Zuzendaritzak Abokatuen Elkargoarekin duen programaren –HELDU- helburuetako bat dokumentazio ezak sortutako bazterkeria-prozesuak ekiditea da hain zuzen. Lan egiteko baimenik ez edukitzea bazterkeria bultzatzen duen faktorea da. Beraz, oso beharrezkoa da atzerritarrei buruzko legeriaren gaineko orientabide juridikoa ematea, lan egiteko behar duten baimena lortzea ahalbidetuko diena.

Bestalde, biztanle **etorkinek** bazterkeria larriko egoeran daudenei zuzendutako baliabide eta dispositiboak erabiltzen badituzte, baliabide horiek bete egiten dira eta, larriagoa dena, baliabidera doan etorkina zailtasun horiekin identifikatu daiteke azkenean. Komeniko litzateke etxerik gabeko pertsonentzat edo muturreko bazterkeriako egoeran daudenezat aurreikusitako baliabideak erabili ditzaten saihestea, haien zailtasun bakarra ostatu egoki bat ez edukitzea denean. Horretarako, beharrezkoa da pertsona horien premientzako baliabideak eta arreta dibertsifikatzea, ostaturik ez izatea faktore nagusietakoa baita bazterkeriako prozesu larriak hasteko.

Eusko Jaurlaritzak eta zenbait udalek hainbat neurri jarri dituzte abian (Immigrazioaren Euskal Plana, immigrazioaren tokiko planak...). Neurri horiek hainbat helburu dituzte, besteak beste, pertsona atzerritarrei etxebizitza, gizarte baliabideak eskuratzen eta lanean hasten laguntzea. Premia berri batzuek hainbat sektoretako jarduerak behar dute, eta horren adibidea da pertsona etorkinentzako arreta: etxebizitzaren esparruan, lanean, kulturaren... Oraindik denbora gutxi pasa da horren irismenaren balioespina egiteko, baina kopuruan gorantz egiten ari diren biztanle batzuen bazterkeria prebenitu behar duten neurriak dira. Estresa eragiten duten egoerak eta zailtasunak metatzen dira, eta, horren ondorioz, gaixotasun espezifikoak sortzen ari dira, esaterako, Ulisesen sindromea.

Beraz, neurri eta baliabide egokiak behar dira, bazterkeria larriko prozesuetan ez dauden atzerritarrek ostatu hartzeko dituzten zailtasunei erantzuteko. Neurri horiek baliabideak betetzea galaraziko dute, baita pertsona horiek egoera eta profil horiekin identifikatzea ere.

## **17. GIZARTE ZERBITZUETARA HURBILTZEN EZ DIREN ETXERIK GABEKO PERTSONEI OSOKO ARRETA EMATEA ETA HAIKIN HARREMANETAN JARTZEA AHALBIDETZEN DUTEN BALIABIDEAK**

Etxerik gabeko pertsonen arretak beste zerbitzu batzuk behar ditu, esaterako, arreta psikologikoa eta emozionala, norberaren aldaketen motore izateko. Gizartearekin distantzia handia dute, batez ere, kalean luzaroan bizi izan badira. Horrek norbera egokitze ahalegina eskatzen du, eta zaila da hori laguntzarik gabe egitea; ez bakarrik laguntza materiala, baizik eta beste alderdi batzuk ere kontuan hartzen dituen, esate baterako, trebetasun sozialak edo lanean hasi baino lehenagoko ahaleziak. Argi dago eguneko zentroetan egiten diren mintegi eta ikastaroak ez direla nahikoa. Beharrezkoa da zerbitzu berriak edukitzea eta dauden jardueren kopurua handitzea.

Hainbat arrazoi direla-eta, pertsona batzuk ez dira gizarte zerbitzuetara edo gizarte erakundeetara hurbiltzen. Batzuetan, aurretik esperientziak izan dituztenez, zerbitzuak inolako laguntzarik emango ez diela pentsatzen dute aurrez. Pertsona horiek arreta jaso ahal izateko, beste zerbitzu batzuk behar dira, esaterako, kaleko taldeak. Pertsona horiekin harremanetan jartzeko gaitasuna izan beharko dute taldeek, eta haien premiei egokitutako segimendua eta baliabideen sarea eskaini ahal izan beharko dute.

## **18. BAZTERKERIA LARRIKO EGOERAK PREBENITZEN DITUZTEN BALIABIDEAK**

Txostenaren ondorioetako bat da pertsona baten bizitzan gertaera traumatikoak metatzeak etxerik gabe egotera eramaten duela pertsona hori. Horregatik, prebentzioko

jarduerak emaitza oso onak izan ditzakete, bazterkeria-prozesua gelditu dezaketelako gertatu baino lehen eta, horrela, geroagoko esku-hartzea eragotzi dezaketelako, zailagoa baita beti, batez ere osasun-arazoak dituztenean. Lehenago aipatu ditugun baliabide soziosanitarioak, edo gizarte eta hezkuntzakoak, gizarte eta lanekoak, edota soziojudizialak ere, egokiak dira esku hartzeko premiak ikusteko eta koordinatzeko eta, horren bitartez, bazterkeria arriskuko egoerak muturreko bazterkeriako egoera bihurtzea eragozteko. Baliabide horiek esku-hartze soziala ahalbidetu behar dute honakoei lotutako krisi pertsonaletan: familiaren banantzeak, ludopatologiak, eskola-porrotak, etxetik kaleratzeak eta bahiturak ekarri ditzaketen krisi ekonomikoak, delituzko auzi txikiengatik egiten diren pertsonen atxiloketak, etab.

Instituzio itxietatik irteteen, esaterako kartzelatik, edo arauak hautsi dituzten adingabeak zigorrak betetzeko zentroetatik irteteen ere arrisku-uneak daude. Beharrezkoa da baliabideen arteko koordinazioa eta jarraipen praktikoa hobetzea, bazterkeria-egoera larriago bihurtzea saihesteko. Izan ere, horrek berriro delituzko jarduerak egitea eta muturreko bazterkeriako egoera sartzea ekarri ditzake. Irteten direnak egoera juridiko irregularrean dauden atzerritarrak badira, haien egoera are txarragoa da, ez dutelako jasotzen kartzelatik irteteen ematen den diru-laguntzarik edo bestelako laguntzarik.

Azken batean, muturreko bazterkeriako egoerak prebenitzeko, beharrezkoa da beste gizarte esparru batzuetan jardutea, esaterako: osasunaren esparruan, hezkuntzan, lanekoan... eta, bereziki, espetxeetatik edo gazteak zuzentzeko zentroetatik irteterakoan. Gainera, sarean egindako lana ere eskatzen du, babes faltako egoerak aurkitu ahal izateko.

## **19. EZGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONEN PREMIA ESPEZIFIKOEI ERANTZUNGO DIETEN BALIABIDEAK**

Kolektibo horretako pertsona batzuek mugikortasun murriztua dute, eta, horregatik, zaila egiten zaie baliabideetara sartzea, egokituta ez badaude edo sartzea eragozten duten oztopoak badaude. Hori dela-eta, beharrezkoa da irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legeak ezartzen duena kontuan hartzea, muga funtzionalak dituzten pertsonen egoitza-baliabideetarako, eguneko zentroetarako... irisgarritasuna bermatzeko.

## **20. GIZARTERATZEKO PROZESUAK DITUEN EGOERA GUZTIEI ERANTZUNGO DIETEN BALIABIDEEN BEHARRA**

Ettxerik gabeko pertsonak ez dira talde homogeenoa; egoera eta prozesu oso ezberdinetan dauden pertsonak dira. Arreta egokia emateko, egoera horiek guztiak hartu behar dira kontuan. Hainbat erantzun eman dira: exijentzia gutxiko baliabideak sortu dira, baita exijentzia handikoak ere. Gehiago hausnartu behar da batzuk edo besteak komeni izateari buruz edo haien egokitzapenari buruz.

Exijentzia gutxiko zentroein egiten zaizkien kritikek diote gizarteratzeko ibilbide aldizkakoak eta kaotikoak sortzen dituztela. Bestalde, beharrezkoak dira, oinarriko premiei eta gizarte zerbitzuetatik kanpo dauden pertsonen profiei erantzuten dietelako; hau da, hainbat arrazoi direla-eta, oraingoz beste baliabide batzuetara erregulartasunez joango ez diren pertsonen. Esku-hartze sozialeko lanarekin jarraitzea eta pertsonak beharrezko



baliabideetara igortzea (exijentzia ertain edo handikoak) ahalbidetuko luke sarean egindako lan baten aukerak, pertsonaren bilakaeraren arabera.

Oro har, egindako azterlanak dioenez, exigentzia txiki, ertain edo handiko baliabide gehiago behar dira hiru lurralde historikoetan, gauez zein egunez. Bizkaian deigarria da zein hondatuta heldzen diren baliabideetara bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonak. Hondatze-maila horien ondorioz, ezin dira sartu exigentzia handiagoko mailak dituzten zentroetara. Beraz, komeniko litzateke exigentzia gutxiko zentroetako plaza-kopuruak handitzea hasieran. Badirudi Araban exigentzia ertain eta handiko eguneko espazio gutxi daudela, gizarteratzeko prozesuak hasi dituzten pertsonen premia espezifikotara egokitutakoak, Gipuzkoan exigentzia txikiko zein ertain eta handiko baliabide gutxi daudela ikusi da...

## HOBEKUNTZA KUALITATIBOAK

### 21. INFORMAZIO-SISTEMA GARATZEA

Gizarte zerbitzuak era konplexuan daude antolatuta, eta horrek beharrezkoa egiten du informazio-sistema on bat, bikoiztasunak saihesteko, informazioa partekatzeko eta jardueren jarraipen ona egin ahal izateko.

Gaur egungo sistemak ez du daturik ematen bazterkeria larriko egoeran dauden pertsonen egoera, ezaugarri eta premiei buruz. Informazio hori estimazioen edo azterlan monografikoen bitartez baino ez da lortzen, esate baterako, EUSTATEk duela gutxi egin duen etxerik gabeko pertsonen buruzko inkestaren edo txosten honen bidez; baina aldi baterako balioa dute, eta erlatiboa.

Eusko Jaurlaritzari dagokio EAeko informazioaren arloko erantzukizuna. Gizarte Zerbitzuak, Erakundeak eta Zentroak laneko estatistikak eta gizarte zerbitzuetan egiten den gastu publikoa, bai eta Gizarte Ongizateko Euskal Batzordearen txostenak ez dira nahikoa gizarte zerbitzuen egoera eta etxerik gabeko pertsonen premiak zein diren jakiteko. Komeni da jarduteko ildo hauek garatzea, informazioa hobetzeko:

- Udalek eta aldundiek duten informazio estatistikoa eta administratiboa aztertzea, alde batetik, hobeto erabiltzeko, eta, bestetik, informazio hori bateratzeko neurriak proposatzeko, ikuspegi globala lortzeko.
- Gizarte zerbitzuak ematen dituzten eta informazioa aztertzen duten erakunde publiko guztien koordinazioa eta lankidetzaren sustatzea.
- Europar erabiltzen direnekin bateragarriak diren adierazleen sistema operatiboa diseinatzea. Horren bidez, bazterkeriaren kontrako borrokan egindako ahaleginen eraginkortasuna balioztatzea ahal izango da eta informazioa edukiko da pertsona erabiltzaileei, premiei, gizarteratzeko ibilbideei, zerbitzuen kostuari, laguntzen zenbatekoari, etab. buruz. Garrantzitsua litzateke adierazleen diseinua eta sorrera Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioarekin eta Estatistikako Institutu Nazionalarekin (INE) koordinatzea.

## 22. GIZARTE ZERBITZUEN FUNTZIOEI LOTUTAKO HOBEKUNTZA KUALITATIBOAK

Gaur egungo gizarte zerbitzuek erabiltzaileek dituzten premiei erantzuten diete batez ere. Komeniko litzateke segimendu-lan handiagoa egin ahal izatea, baita prebentziozko funtzioak eta gizarte lan komunitarioa ere. Krisiak edo etxebizitza galtzera eraman dezaketen egoera pertsonalak eta muturreko gizarte bazterkeriako egoerak aurkitzera bideratuko lirakeke lan horiek. Gizarte zerbitzuek ahalegin oso handia egin dute bazterkeriako prozesuen kontrolean. Gaur egungo eredia gaintzeko, garrantzitsua da gizarte langileen eginkizunarengan berriro pentsatzea, erabakiak hartzerakoan duten autonomia-tarteari buruz, hiru erakundek parte-hartzeak dakartzan tramite burokratikoak deusezteari buruz, tramitazioa bizkortzeari buruz... Horregatik errepikatzen da behin eta berriro beharrezkoa dela gizarte zerbitzuak sendotzea, definitzen dituen arautegi baten bidez, haien eginkizuna zehaztuko duena eta baliabideak eskuratzerakoan gutxieneko homogeneotasuna bermatuko duena.

Muturreko bazterkeriaren aurka borrokatzeko lana hiriburuetan egiten da batez ere; beraz, barruti edo zona batzuetan lan-zama handiegia dago. Talde profesionalak sendotu behar dira eremu horietan, gizarte zerbitzuak betetzea saihesteko. Oinarrizko gizarte zerbitzuetako arreta emateko zentroak hobeto banatu behar dira hirietan, eta jatorrizko udalerriek arreta gehiago eman behar dute, hiriburuetako gizarte zerbitzu batzuk betetzea ekiditeko.

Etterik gabeko pertsonen arreta emateko eredia edukitzea tresna oso garrantzitsua izan daiteke gizarte langileentzat. Izan ere, askoz lehenago hasitako prozesu batean dauden pertsonen lanean txertatzen laguntzeko erantzukizuna dute langile horiek, eta horrelako egoerekin solidarioa ez den lan-merkatuari egin behar diote aurre. Horretarako, horrelako kasuetan esku hartzeko jarraibideek enfasi handiagoa egin beharko lukete gizarteratzeko neurri sozialagoetan edo harremanei buruzkoetan, epe labur, ertain eta luzeko helburuekin. Horrela, pertsona horien erantzukizuna arindu ahal izango litzateke eta prozesu amaiezinen frustrazioa saihestu. Lehenago aipatu ditugun lanean hasi aurreko baliabideak laguntza izan daitezke pertsona horiek lanean hastea lortzeko.

Denbora gutxian aldatu egin da etterik gabeko pertsonen arreta emateko era. Eredua aldatu da: hasieran, prestazio mugatu batzuk edo ostatua eta janaria ematen ziren, trebakuntza teknikorik gabeko langileen profesionalizaziorik gabe; orain, berriz, programak dibertsifikatuagoak daude, finantziario publiko gehiago dago eta erakunde pribatu edo publikoen arteko koordinazio handiagoa dago. Hala eta guztiz ere, gizarteratzeko ibilbideak hobetu behar dira, etterik gabeko pertsonen profil berriak daudelako eta gaur egungo baliabideek horiei arreta emateko zailtasun handiak dituztelako: jokabide bortitza duten pertsonak, buruko arazoak fase aktiboan dituzten pertsonak, oztopo arkitektonikoak gaintu ezin dituzten ezgaitasun larriak dituzten pertsonak... Horretarako espezializazio handiagoa behar da, eta gizarte zerbitzuek profil, egoera eta tratamendu-mota guztiei erantzun ahal izatea, eta horrek, norbanakoari emandako erantzunen eta antolatutako ibilbideen malgutasun handiagoa eskatzen du.

Pertsona batzuk ez dira gizarteratzeko programetan sartzen fisikoki hondatuta daudelako eta ez daudelako motibatuta. Exijentzia gutxiko zentroak erantzun bat izan daitezke une

batez, gutxienez pertsona horiek hurbiltzen dituztelako haien bizitzak duintzeko. Behar-bada hasieran euskarri-lana egitearekin eta oinarrizko premiei erantzutearekin nahikoa izango da. Geroago, beharrezkoa da segimendua egitea, gutxika-gutxika prestazioak eta arreta eskaintzeko. Horrek normalizatzeko aukera emango dio harremanetarako gizarte trebezien aldetik, baliabide kulturalen ezagutzaren aldetik, hezkuntzaren, lanbidea ikastearen aldetik... Urrats horiek epe luzeetan egin daitezke, pertsonaren egoeraren arabera, eta kasu batzuetan onartu egin behar da zaila izango dela eusteko neurrietatik haratago joatea, pertsonak duen beharraren arabera.

Egoera larriagotu egin daiteke, gizarte zerbitzuak beteta badaude eta, batzuetan, ez-egonkorrak diren pertsonekin hitzorduak atzeratzen badira. Beharrezkoa da ratioak handitzea edo gizarte larrialdiko kasuetarako arreta bereziak aurreikustea.

Azken batean, gizarte zerbitzuek etxerik gabeko pertsonen ematen dieten arretak honakoak behar ditu: gizarte zerbitzuen funtzioak zehaztea, eremu batzuetan taldeak sendotzea, esku hartzeko ibilbideak pertsonen profilen eta gizarteratzeko prozesuko uneei arabera izango dituen arreta-eredu bat edukitzea eta, amaitzeko, oinarrizko gizarte zerbitzuen ohiko ordutegietan edo hitzorduen ohiko sistemarekin (atzeratu egiten direlako) erantzun ezin daitezkeen premia urgenteei erantzuteko formulak aurreikustea.

Premiak konplexuak dira eta arreta eskatzen duten gizarte egoera gero eta gehiago daude. Horrenbestez, baliabide gehiago sortzea komeni da, baina esku hartzeko modu gehiago ere, eta jarduteko eta hitzarmenak egiteko irizpideak bateratzea eta ekimen pribatuarekin hitzarmenak egitea, profil guztiei arreta eman ahal izateko gizarteratzeko prozesu guztietan.

### **23. INSTITUZIOEN LAGUNTZARIK JASOTZEN EZ DUTEN ETA GIZARTERATZEKO PROZESUAK HASTEN EZ DITUZTEN ETXERIK GABEKO PERTSONEI BURUZ GEHIAGO JAKITEKO AUKERA EMANGO DUTEN AZTERKETEN ETA DIAGNOSTIKOEN BEHARRA**

Pertsona batzuek ez dute inolako laguntza ekonomikorik jasotzen eta eskeketasunean bizi dira edo bizirik irauteko beste modu marjinal batzuk dituzte. Beste pertsona batzuek ez dute gizarteratzeko prozesurik hasten egoitza-zentro batean laguntza ekonomikoak jasotzen dituztelako, eta, zentro batean sartuz gero, laguntza ekonomikoak jasotzeari utzi beharko ziotelako eta ez dutelako diru-sarreraren beste iturririk.

Bestalde, familian egon diren aldatetek, banantzeen gorakadak eta etxebizitzako gastuen garrantziak komenigarria egiten dute laguntzen ereduari buruzko hausnarketa: oinarrizko errenta norbanakoaren eskubidetzat hartzea, etxebizitzako gastuaren garrantzia, gastu sozial berri gisa arreta ematea edo horren zenbatekoa oinarrizko errentan sartzea, larrialdiko laguntzak berehalako premien izaerarekin zerikusi handiagoa duten gastuetara bideratzea... Ereduaren ganean hausnartu beharko litzateke, eta gaur egungo premiei eta testuinguru sozialari egokitu.

Azken buruan, hainbat arrazoi direla-eta laguntzarik jasotzen ez duten eta gizarteratzeko prozesuak hasten ez dituzten pertsonak daude. Komeniko litzateke arrazoiak zein diren jakitea, babesik gabeko egoeran egon ez daitezen, inolako arretarik gabe, eta bazterkeria-

prozesuetan sartzea ekiditeko. Beharbada laguntza espezifikoa beharko dira honako arrazoiengatik oinarrizko errentarik jasotzen ez duten etxerik gabeko pertsonentzat: erroldatze ziurtagiria ezin dutelako aurkeztu edo, familia banandu denez, etxebizitza utzi behar izan dutelako. Edo zati bat haien gastu pertsonaletarako gorde ahal izatea, laguntzen jasotzaile direnean eta egoitza-zentro batean gizarteratzeko prozesu bat hasi nahi dutenean.

Instituzioen inolako arretarik jasotzen ari ez diren pertsonak egoteko arrazoiak askotarikoak dira. Horregatik, garrantzitsua da arrazoi horiek ezagutzea eta ereduaren gainean hausnartzea eta, egoki ikusten bada, eredia berrikustea, erakundeen laguntzak bazterkeria larriko egoeran dauden pertsona guztietara heltzeko.

## **24. ARRETA HOBETZEA: BALIABIDE-KOPURUA HANDITZEA, ESATERAKO, JANTOKI SOZIALAK, ZAINDEGI-ZERBITZUAK EDO ARROPA GARBITZEKO ZERBITZUAK, BAI ETA ARRETA EMATEKO ORDUTEGIA ERE**

Zerbitzu batzuk oso beharrezkoak dira, esaterako, jantokiak, arropa garbitzeko zerbitzuak, dutxak edo zaindegi-zerbitzuak, baina gutxi daude kolektiboaren beharrei aurre egiteko. Bestalde, zerbitzu horien ordutegiak mugatuak izan ohi dira; hortaz, pertsona batzuei ez zaie sartzen uzten edo gizarteratzeko prozesuak geratu egiten dira.

Txostenak nabarmentzen duenez, jantoki sozialak beren aukeren mugan daude, gutxi dira eta masifikatuta daude; beraz, ezinbestekoa dirudi jantoki horien kopurua handitzea. Gainera, ez dute modu koordinatuan lan egiten gainerako baliabideekin eta, batzuetan, sartzeko baldintzak hain zorrotzak dira eta beste baliabideek dituztenetatik hain urrun daude, zaila dela erabiltzea eta beste baliabide batzuen ordutegiekin bateragarri egitea.

Alde batetik, beharrezkoa ikusten da gaur egungo laguntza-eredua gaintzea eta janaria emateko bideak dibertsifikatzea, horretarako hainbat alternatiba emanda, esate baterako, jantoki ekonomikoak; baliabidea erabiltzen duten pertsonen era ekonomikoan parte hartu ahal izango dute jantoki horietan. Bestetik, ordutegiak edo sartzeko betekizunak malgutu behar dira, batzuetan oso zorrotzak baitira, eta beste jarduera batzuekin bateragarriak diren ordutegiak aurreikusi behar dira, esaterako, gizarteratzeko zentroetan antolatzen diren jarduerekin (tailerrak, ikastaroak...) bateragarri direnak. Horrez gain, garrantzitsua da langile-kopurua handitzea eta langile horiek beste batzuekin sarean lan egitea, eta esku-hartze sozialeko lan bat egin ahal izatea, laguntzeko esku-hartzeaz gain, gizarteratzeko prozesuak sustatzeko.

Oso beteta dagoen beste zerbitzu bat arropa garbitzekoa eta dutxena da. Baliabide-kopurua handitu behar da, zerbitzuak erabiltzen dituzten pertsonen higiene pertsonala bermatzeko. Zerbitzu horiek gizarteratzeko zentroetan edo eguneko zentroetan egon ohi dira, edo, Bilbon, dutxatzeko zerbitzu espezifikoa dago, baina gutxiegi daude. Etxerik gabeko pertsonen duten arropa eta/edo zapaten beharrari erantzungo dion erakunde edo baliabide espezifikorik ere ez dago.

Horrez gain, eguneko zerbitzuak eta prestazioak ematea ere beharrezkoa da, asteburuetan eta jaiegun eta oporretan. Batzuetan, zerbitzuak ixtearen ondorioz, prozesuak

apurtzen dira, eta erabiltzaileek ez dute baliabide edo jarduera alternatiborik izaten horren ordez. Baliabide batzuek astegunetan duten ordutegiagatik eta asteburuetan ixten dutelako gertatzen da hori. Horren ondorioz, astean zehar egindako lanarekin apurtzen da. Oporretan ere gutxieneko zerbitzuak ematen dira eta, beraz, prozesuak geratu edo atzeratu egiten dira.

Zentro batzuen ordutegiei dagokienez, ez dira malguak klimatologiari, osasun-premiei edo muturreko zailtasun-egoera pertsonalei dagokienez. Sartzeko baldintzak oso zorrotzak dira, baliabidera sartzeko txartel bat behar baita, eta ez dago salbuespenik. Horrek arrazoizkoa dirudi baliabidea kudeatzeko, baina larrialdiko egoera batzuetan oztopoa da salbuespeneko egoerei erantzuteko. Epe ertain edo luzeko egonaldietarako zentroetan sartzeko itxaron behar diren epe luzeen ondorioz ere, beste baliabide batzuetan hasitako prozesuak zapuzten dira. Horrenbestez, luzarago arreta ematea ahalbidetuko duten baliabide gehiago behar dira (leku gehiago, langile gehiago, ikastaro gehiago...), eta prozesuak geratzea eragotziko dutenak. Izan ere, prozesuak geratzen badira, gizareratzeko prozesuak hasten egon behar dira behin eta berriro.

Beharrezko ikusten den beste zerbitzu bat zaindegirako armairu-multzoa edukitzea da, norberaren gauzak uzteko eta gordetzeko. Ostatu egonkorak ez dituztenez, pertsona horiek ez dute beren gauzak uzteko lekurik eta, horren ondorioz, beren ondasun guztiekin egon behar dira uneoro. Bestalde, EUSTATEk duela gutxi etxerik gabeko pertsonen buruz egindako inkestaren arabera, pertsona horietako askori zerbitzu lapurtu diete noizbait. Zentro batzuek zaindegi-zerbitzu hori ematen duten arren, etxerik gabeko pertsonen aukera gutxi dituzte beren gauzak gordetzeko.

## 25. ERROLDATZEA ERRAZTEA

Etxebizitarik ez edukitzeak erroldatzea zailtzen du. Udalerri batean erroldatuta egotean bizilagun izaera eskuratzen da eta horrek eskubide sozialak (osasun-laguntza anbulatorioa, udal zerbitzuak, gizarte laguntzak eskuratzeko aukera) zein politikoak (herritarren parte-hartzea eta hauteskunde orokorretan, autonomikoetan edo lokaletan parte hartzea) erabiltzeko aukera ematen du. Pertsona horiek bazterkeria-egoeran dauden arren, askok ez dute laguntzako babes-sistemen prestazioetako bat ere jasotzen. Txostenean etxerik gabeko pertsonen profil aldaketa azpimarratzen da. Ez dira alde batetik bestera dabilzan pertsonak, baizik eta, oro har, leku berean geratzen dira. Leku hori agian ez da jatorrizkoa izango, baizik eta, sarriago, hiriren baten erdigunea izango da.

Erroldatzeko arautegiak ez du eskatzen etxebizitza bat edukitzea, ezta etxebizitza bat betetzeko titulua edukitzea ere; ezartzen duen irizpidea da pertsona udalerrian bizi behar dela.

Gizarte zerbitzuen inplikazioa funtsezkoa da erroldatzeko helbidea edukitzeko. 1997ko uztailaren 4ko ebazpena elkarrekin egin zuten Estatistikako Institutu Nazionalako presidentek eta Lurralde Kooperazioko zuzendari nagusiak. Ebazpen horrek udal erroldak eguneratzeari buruzko jarraibide teknikoak ematen dizkie udalei, eta honakoa dio: *“...udalerriko bizilagun bakoitza benetan bizi den lekua agertu behar da erroldan. Errealitate hori sortzen den bakoitzean erroldan jaso beharko da. Eta erroldako inskripzioa etxebizitzaren titulartasunari buruzko gatazka juridiko-pribatuez erabat independentea da,*

*baina baita etxebizitzari eragiten dioten zirkunstantzia fisiko, higieniko-sanitario edo bestelakoez ere. Horrenbestez, infraetxebizitzak (txabolak, karabanak, kobak etab. edota inolako teilaturik ez edukitzea ere) baliozko etxebizitza gisa jasota egon daitezke eta egon behar dira erroldan, errealitatea batzuetan horrelakoa baita.*

*Egoera muturrekoenak zalantza sortu dezakete udal erroldan jasotzeko egokitasunari buruz. Erroldatutako pertsonaren inskripzioan agertzen den helbidera hari jakinarazpen bat igortzeko aukerak edo aukera ezak zehazten du erabaki hori hartzeko irizpidea. Jakinarazpen hori jasotzailearengana helduko dela espero izatea arrazoizkoa denean, helbide horretan erroldatu behar zaio.*

*Irizpide hori modu egokian aplikatzeak zehazten du, alde batetik, herritarrak bizi diren edozein helbide bizileku gisa onartu behar izatea eta, bestetik, teilaturik ez duen pertsona bat normalean udalerrian bizi denean eta gizarte zerbitzuek ezagutzen dutenean gezurrezko helbide batera jo ahal izatea eta jo behar izatea.*

*Horrelako erroldatzeetarako bete beharko liratekeen baldintzak honakoak dira: Gizarte zerbitzuak administrazio publikoren baten egitura organikoan integratuta egotea.*

*Zerbitzu horien arduradunek erroldatu nahi den herritarra normalean udalerrian bizi den ala ez adieraztea.*

*Gizarte zerbitzuek erroldaren inskripzioan agertu behar den helbidea adieraztea, eta, helbide horretan administrazio publikoren batetik datorren jakinarazpenen bat jasotzen denean, herritar horri jakinarazten saiatzeko konpromisoa hartzea.*

*Baldintza horiek betetzen badira, erroldatzeko helbidea gizarte zerbitzuek adieraziko dutena izango da: zerbitzuaren helbidea, udal aterpetxearena, herritar horrek lo egin ohi duen puntu geografiko zehatzarena, etab.*

*Bistan denez, horrelako inskripzio bat egiteko ez da bermatu behar jakinarazpena hartzailearengana helduko dela, baizik eta soilik arrazoizko epe batean jakinarazpen hori helarazi ahal izango zaiola espero izatea.*

*Adibide moduan, Hauteskunde Erroldako Bulego batek igorritako jakinarazpen baten kasua imajina dezakegu. Etxerik ez izateak ezin dio kendu pertsona bati bozkatzeko eskubidea, eta horretarako ezinbesteko betekizuna da udal erroldan erregistratuta egotea. Udalerriko gizarte zerbitzuen iritziz arrazoizkoa bada pertsonari hauteskunde-txartela helaraztea, herritar hori erroldan inskribatu behar dute, berak jakinarazpena zuzenean jasotzea espero den helbidean edo gizarte zerbitzuek jasoko duten helbidean, erroldatutakoari helarazten saiatzeko. Eta, noski, gizarte zerbitzuei buruz egin diren aipamen guztiak lan bera egin dezaketen bestelako edozein udal zerbitzuri aplikatu ahal zaizkie.”*

Une honetan, erroldatzea ezinbesteko betekizun bihurtu da eskubideak erabili ahal izateko. Gizarte zerbitzuen erabiltzaile izatea edo ez izatea dakar eta, azken batean, gizarte politiken hartzaile izatea edo ez izatea (esate baterako, ikasteko diru-laguntzak, osasun-laguntzako txartela, laguntza ekonomikoak... eskatzeko betekizuna da). Udal batzuk izaera murriztailearekin interpretatzen ari dira eskubide hori, eta bizi diren udalerrian erroldatzeko pertsona guztiek duten betebeharra ere. Etxerik ez izateak zaila egiten du erroldatzea eta, horren ondorioz, etxebizitzarik ez edukitzeaz gain, pertsona horiek ez dute herritarrei dagokien eskubiderik. Erroldatzeak egonkortasuna bermatzen du pertsonaren arretan eta, beraz, gizarteratzeko prozesuak erraztu ditzake. Atzerritarren kasuan, etxebizitzarik ez edukitzeaz gain, identifikatzeko agiririk ez izateak (esaterako, pasaporte), batzuetan, are zailago egiten die erroldan erregistratzea.

Udalek gaitasuna dute pertsona bat udalerrian bizi den ala ez egiaztatzeko, eta erroldan erregistratu dezakete edo erroldatik kendu dezakete. Pertsonak etxerik ez badu eta gizarte zerbitzuekin harremanetan badago, jakinarazpenak jasotzeko helbide bat eman ahal diote. Formulak behar dira udalerrian bizi diren pertsonak erroldatuta daudela bermatzeko eta, horrela, legeak aurreikusten duena betetzeko. Formula horien barruan egon daiteke gizarteratzeko zentroekin edo bestelako gizarte erakundeekin lankidetzan aritzea gizarteratzeko prozesuen segimenduan, edo pertsonak gizarte zerbitzuen artean banatzea zerbitzu horietako batzuk betetzea saihesteko eta lurraldeen arteko banaketa hobe ahalbidetzeko, etab.

## **26. ETXERIK GABE EDO MUTURREKO BAZTERKERIA-EGOERAN DAUDEN PERTSONEI ARRETA EMATEN DIETEN LANGILEEN LAN-TRESNEN ETA LAN-BALDINTZEN HOBEKUNTZARI BURUZ**

Etxerik gabeko pertsonekin egiten den esku-hartze sozialak etengabe trebatzen ari diren profesionalak behar ditu. Pertsona horiek dituzten zailtasunak eta beharrak aldakorrak dira. Era berean, Europar Batasunak sustatzen dituen neurriak eta programak, eta, oro har, gizarte bazterkeriaren eta diskriminazioaren aurkako neurriak, edo gizarte babesekoak, asko dira eta etengabe aldatzen dira. Arlo honetan lan egiten duten pertsonen prestakuntza-baliabide eta lan-tresna egokiak behar dituzte, erabateko muturreko bazterkeria-egoeran dauden pertsonen egoeren eta beharren aniztasunari erantzuteko. Arauak eta finantza-formulak sarritan aldatzen dira, eta beharrezkoa da langileek formula horiek ondo ezagutzea, beren lana modu egokian egin ahal izateko. Horregatik, beharrezkoa da langileak trebatzea, errealitate horiek ezagutu ditzaten, eta beren lana egiteko tresnak eta benetako laguntzak edukitzea. Halaber, informazioak eta praktikak trukatzeko guneak eta lan-taldeak behar dira, baita laguntza pertsonala ere; izan ere, hain egoera desegituratuan daudenei arreta emateak zama emozionala eragiten du. Lan egiteko baldintza txarrek langileen ohiko gorabeherak eragiten dituzte.

Esparru honetan aritzen diren langileak ezinbestekoak dira interbentzioa eraginkorra izan dadin. Giza baliabideak gizarte zerbitzuetako lanaren oinarri dira. Profesional horiek erreferentziatzeko pertsonak dira, zaindutako pertsonaren laguntza eta jarraipena egiten dutenak. Lan espezializatua da, eta etengabe egiten zaizkio hobekuntzak. Sektore hau duela gutxi profesionalizatu zen, eta oraindik zerbitzu hauetako langileen trebakuntza egokia, profilak eta funtzioak (baita boluntarioen eta praktikan dauden langileen funtzioak ere) egituratuko dituen arautzearen zain dago.

Gainera, lana arreta eta kalitate egokian egin ahal izateko, komenigarria da lan baldintzak arautzea, hobetzea edo errespetatzea, funtzioen zehaztapen handiagoa egotea, boluntarioei dagokienez ere, eta lan-arrikuak aintzat hartuko dituzten planak eta neurriak egitea. Lan-baldintzak, soldata, atsedanak, oporrak... hobetzeak erabateko lehentasuna dauka interbentzio eraginkorra bermatzeko. Gizarte lanerako lan-hitzarmen espezifikoetan -dagoeneko hainbat urrats egin dira- gai hauek eta beste batzuk agertu daitezke.

## **27. GIZARTEA SENTSIBILIZATZEA**

Gure herrietan etxerik gabeko pertsonak egoteak alarma soziala sortzen du eta, batzuetan, herritarrek ordena publikoko gaitzat hartzen dute. Beharrezkoa da administrazioek

kontzientziazioa sustatzea, gizarte sentsibilizazio eta informazio kanpaina edo programen bidez. Programa horiek, etxerik gabeko pertsonen kausak, jatorria, zailtasunak argituko dituzte eta herriko biztanleei haien egoera ulertzen laguntzen diete. Gizarte bazterkeriak bazterkeria pertsonala dakar. Gizartearen ulermenak kolektibo horiek in egiten den interbentzioa hobetzen lagundu dezake. Garrantzitsua da jakinaraztea etxerik gabekoen egoeraren arrazoiak ez direla soilik indibidualak, sozialak ere badira-eta; hortaz, elkartasun handiagoa beharrezkoa da.

Gizartearen elkarreraginak pertsona horienganako erantzun solidarioak eragin ahal ditu herritarrengan, erantzun publikoekin alderatuta ezberdinak, eta oso positiboak izan daitezkeenak. Horrek ere, sare soziala bere onera ekarri dezake eta aldeko efektu asko izan ditzake; izan ere, txostenean agertzen den moduan, pertsona horien gabezi handienetako bat bakardadeari aurre egin behar izatea da.

Gizarte kontzientziazioa areagotzen bada, gero eta ugariagoak diren kontrako jarrerak murriztu daitezke, eta gizarte ahultasuneko egoeran daudenentzako baliabideak zabaldu. Gomendioetako batean aipatu da hori; izan ere, gertakari sozial oso kezagarria da, eta administrazioek aintzat hartu behar dute.

## **28. FINANTZIAZIOARI ETA BALIABIDEEN KOPURUA HANDITZEARI BURUZ**

Txostenak argi erakusten du baliabide gehiago behar direla etxerik gabeko pertsonen artean emateko, batez ere, handitzen ari den gertakari bat delako. Exijentzi maila handiko, ertaineko eta txikiko baliabideak behar dira pertsona horien premiei erantzun ahal izateko. Exijentzi gutxiko baliabideei esker, egoitzen, jantzien eta janariaren premiak bete, eta gizartearen integratzeko bideak hasi daitezke. Exijentzi maila handiko eta ertainekoak egokiagoak dira gizarteratzeko ibilbidea hasi duten pertsonentzat. Etxerik gabeko pertsonen premiak ezberdinak dira bakoitzaren egoeraren arabera. Emaitzak lortu ahal izateko, etxerik gabeko pertsonen egoeren ezaugarri eta faseetara egokitu behar dira baliabideak. Helburua da, alde batetik, kalean baldintza lazarrietan bizi den pertsonarik ez egotea eta, bestetik, gizartearen integratzeko prozesuek jarraipena izango dutela bermatzea, etenik gabe. Beharrezkoa da, beraz, exigentzi maila handiko, ertaineko eta txikiko baliabide gehiago egotea.

Gaur egungo egoitza-baliabide asko finantzaketa-formulei esker bermatzen dira. Formula horiek, batez ere urteroko diru-laguntzak dira, eta, horren ondorioz, ezin da epe ertain eta luzerako plangintzarik egin. Programa batzuk ez dira egonkorrak eta, horregatik, ezin dira sendotu. Gainera, egoitza-baliabideak oso garestiak dira eta finantziazioa egonkorra ez izateak kalte handiak eragiten dizkie. Finantziazioaren atzerapenek eta zalantzek jarraipena duten proiektuak gauzatzeko zailtasunak eragiten dituzte. Langileen lan-baldintza txarrekin, askotan, gorabehera handiak sortzen dituzte, nahiz eta oso garrantzitsua den erreferentzia-zko langileak izatea. Azken buruan, baliabide gehiago behar dira, eta finantza-egonkortasuna handitzea, baita urteroko diru-laguntzen sistema alde batera utzi eta epe luzerako hitzarmen edo eskaintzen sistemara pasatzea ere, erakunde honek hainbestetan eskatu duen moduan (cfr., esaterako, 2005eko ohiko txosteneko gomendio nagusia).



## 29. ERABILTZAILEEK PARTE HARTZEN DUTEN BANAKAKO PLANAK

Kasu honetan, beste hainbestetan bezala, ezin da kolektibo homogeneo bati buruz hitz egin, baizik eta antzeko kanpo-zailtasunak dituzten baina gizartean integratzeko bide pertsonalizatuak behar dituzten pertsoneri buruz. Ezinbestekoa da ibilbide pertsonalizatu horretan pertsonak berak parte hartzea. Arreta egokia eman ahal izateko, beharrezkoa da premia bakoitzerako baliabide espezializatuak izatea eta gizarteratzeko prozesuaren fasei arreta emateko zerbitzuak dibertsifikatzea. Baina, aldi berean, nabarmentzekoa da lagun egitearen eta erreferentziatzko pertsonaren garrantzia: pertsona beti berbera izatea, prozesuak errepikatu ez daitezen. Banakako arreta-plana izateko eta plana egiteko prozesuan parte hartzeko eskubidea ezartzen du gizarte zerbitzuetako erabiltzaile eta profesionalen Eskubide eta Betebeharren Gutunak, (64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa) erabiltzaileen eskubideak (duintasuna, pribatutasuna eta konfidentzialtasuna, autonomia, informazioa...) ezartzean gain.

Aldarrikatu zenetik denbora asko pasatu den arren, ez dirudi araudiaren aplikazioan eta hedapenean aurrerapen handirik egin denik. Hala ere, elkarrenganako errespetuan eta zerbitzuaren kalitatean aurrera egiten lagunduko duten eskubideak eta betebeharrak jasotzen ditu, horregatik da oso garrantzitsua gutun hori betetzea.

## 30 SEGURTASUN-ARLOKO BERMEAK EZARTZEA: SEGURTASUNeko LANGILEAK KONTRATATZEKO PROFIL EGOKIAK, FUNTZIOAK ZEHATZEA...

Zerbitzu askotan segurtasuneko langileak sartu izan dira. Profil berrien ondorioz, segurtasuneko langileak zerbitzuetan etengabe egotea orokortuz joan da, batez ere, gaixotasunak dituzten pertsonen kopurua handitu delako, jarrera aldaketak eragiten dituen patologia duala, esaterako. Segurtasuneko langile horiek, bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzako baliabideetan aritzen direnez, trebakuntza egokia behar dute beren funtzioak betetzeko, gizarte hezitzaileen edo gizarte langileen lana oztopatu gabe. Komenigarria da honakoa ezartzea, kontratatze baldintzei dagokienez: etxerik gabeko pertsonentzako baliabideetan segurtasunaren arloan lan egingo duten pertsonen gizarte laneko trebakuntzaren bat izatea eta beren funtzioak zehaztuta egotea. Modu berean, beharrezkoa da jakitea uneoro nor den segurtasunaren arloko jardunei buruzko erabakiak hartzearen arduraduna, erabaki horiek hartu behar direnean. Gainera, jardun horiek araututa egon behar dute gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen eskubideak bermatzeko: zein kasutan esku hartu ahal den, esku hartzea nork erabakitzen duen, nola esku hartu; eta hori guztia zentroak garatzen duen gizarteratze-programarekin koherentea izanda egin behar da.

Bestalde, zentro guztiek alde aurretik ezarri behar dituzte pertsona bat egozteko arazoak, egotzitako pertsonak izango duen egoera aurreikusi behar dute eta defendatzeko aukera eman behar diote. Horretarako, kontuan hartuko da pertsona horrek ez daukala ebazpena jakinarazteko helbiderik, erreklamazioa egin ahal izateko.

Azkenik, baliteke udaleko gizarte zerbitzuetako segurtasuneko funtzioak udaltzaingoak bere gain hartzea. Kasu horretan ere, komeniko litzateke udaltzainek gizarte laneko prestakuntza izatea, beren jardunak zerbitzuaren gizarte helburuekin koordinatuta egoteko.



# **BIBLIOGRAFIA**



## 9. BIBLIOGRAFIA

### 1. TXOSTENAK ETA LAN AGIRIAK

ABRAMOVICH, Víctor eta COURTIS, Christian (2002): *Los derechos sociales como derechos exigibles*. Trotta. Madril.

ADELANTADO, José eta NOGUERA, José Antonio (1999): Reflexionando sobre las relaciones entre política social y estructura social [on line]. *Papers: Revista de Sociología*, 59. zk. Hemen eskura daiteke: <http://www.bib.uab.es/pub/papers/02102862n59.htm>.

ALBERDI, J.; DE LA PEÑA, A.; IBARRA, P.: Una reflexión sobre la acción colectiva Nimby: El caso Hontza. *Inguruak*, 33. zk. (2002ko iraila), 59-80 orr.

ALEMÁN BRACHO, M<sup>a</sup> del Carmen eta GARCÉS FERRER, Jorge (1996): *Administración social: servicios de bienestar social*. Siglo Veintiuno Editores. Madril.

Alternative Approaches to Homelessness (2004): Looking Beyond Europe. In *Homeless in Europe* (2004ko udaberria). Hemen eskura daiteke: [www.feantsa.org](http://www.feantsa.org).

AÑÓN ROIG, María José (2004). *La universalidad de los derechos sociales: el reto de la inmigración*. PUV eta Tirant Lo Blanch. Valentzia.

AÑÓN ROIG, María José eta GARCÍA AÑÓN, José (2004): *Lecciones de derechos sociales*. Tirant Lo Blanch. Valentzia.

ARRIBA, Ana (2001): Procesos de implantación de políticas mínimas de inserción en España. *Zerbitzuan*, 39. zk.

ARRIBA, A. (2002): *El concepto de la exclusión en política social* [on line]. In *Documento de Trabajo*, 02-01 zk. Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusiaren Politika Konparatuen Atala. Hemen eskura daiteke: <http://www.iesam.csic.es/doctrab2/dt-0201.pdf>.

ASOCIACIÓN MADRILEÑA DE SALUD MENTAL. *Propuesta de intervención coordinada en personas sin hogar con trastornos mentales* [on line]. Hemen eskura daiteke: [www.sie.es/amsm](http://www.sie.es/amsm).

- BILBOKO Udala; DATLAN, S.L. (2003): *Bazterketa handiari buruzko Plan Estrategikoa eta Eraginkorra* (azterlan diagnostikoa). Bilboko Udalaren Gizartekintza Arloa.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (2003): *Gizarteratzeko zentroetarako jardunbide egokien eskuliburua*. Bilbo.
- BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (2003): *Bizkaian gizarte bazterkeriako egoeran dauden toxikomanoen taldearen arazoak eta beharrianak*. Bilbo.
- CABRERA, P.J. (1998): *Huespedes del aire: sociología de las personas sin hogar en Madrid*. Políticas, Trabajo y Servicios Sociales bilduma (7. zk.). Universidad Pontificia de Comillas. Madril.
- CABRERA, P.J. (2000): *La acción social con personas sin hogar en España*. Cáritas Española. Madril.
- CABRERA, P.J. (2000): *Mujeres sin hogar en España*. Feantsarako txosten nazionala (1999). Universidad Pontificia Comillas. Madril.
- CABRERA, P.J.; MALGESINI, G.; LOPEZ, J.A. (2002): *Un techo y un futuro: Manual de buenas prácticas de intervención social de personas sin hogar*. Fundación Telefónica. Madril.
- CASTEL, R. (1997): *La metamorfosis de la cuestión social*. Estado y Sociedad bilduma. Paidós. Bartzelona.
- ESPAINIAko Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (2004): *Diagnóstico sobre la situación de la exclusión en España*. Madril.
- ESPAINIAko Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa (2005): *III Plan Nacional de Acción para la Inclusión Social 2005-2006*. Madril.
- ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA (2004): *Encuesta sobre las personas sin hogar-Centros* [on line]. Madril. Hemen eskura daiteke: [www.ine.es](http://www.ine.es).
- ESTIVILL, Jordi (1993): Los prolegómenos de las rentas mínimas en España y en Euskadi. In *Intercambio social y desarrollo del bienestar*. CSIC. Madril.
- EUROPAR BATASUNA - EUROSTAT; Europako Batzordea (2004). *The production of data on homelessness and housing deprivation in the European Union: survey and proposals* [on line]. Azterlanak eta lan dokumentuak. Hemen eskura daiteke: [http://epp.eurostat.cec.eu.int/cache/ITY\\_OFFPUB/KS-CC-04-008/EN/KS-CC-04-008-EN.PDF](http://epp.eurostat.cec.eu.int/cache/ITY_OFFPUB/KS-CC-04-008/EN/KS-CC-04-008-EN.PDF).
- EUSKADI - Ararteko erakundea (1999): *Oinarrizko gizarte zerbitzuen egoera EAEn: Arartekoaren Eusko Legebiltzarrarentzako ezohizko txostena*. Ararteko erakundea. Vitoria-Gasteiz.

- EUSKADI - Ararteko erakundea (2000): Bilboko San Frantzisko auzoan poliziak atzerritarrekin izandako zenbait jokaera direla-eta Arartekoak egindako gomendioen jarraipena. In *Eusko Legebiltzararentzako 1999ko txostena* (ezohizko txostenak eta jarraipenerako jarduerak). Ararteko erakundea. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKADI - Ararteko erakundea (2002): Gomendio orokorrak: Erakundeen buruzagitza, ahultasun handiko taldeentzat zerbitzuak sortu behar direnean. In *Eusko Legebiltzararentzako 2001eko txostena*. Ararteko erakundea. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKADI - Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (2004): *Etxerik gabeko pertsonak. Ostatu proposamenei buruzko irizpena*.
- EUSKADI - Eustat (2006): *Gizarte Zerbitzuen 2003ko Estatistika: Eraitzen Analisia*. Vitoria- Gasteiz [on line]. Hemen eskura daiteke: [www.eustat.es](http://www.eustat.es).
- Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (2005): *Pobreziari eta giza desberdintasunei buruzko 2004ko inkesta*. Laburpena eta ondorioak. Aurrrerapena (2005eko urtarrila). Vitoria-Gasteiz. Hemen eskura daiteke: [www.juslan.ejgv.euskadi.net](http://www.juslan.ejgv.euskadi.net).
- EUSKO JAURLARITZA (1993): *Euskadiko pobreziaren aurkako borrokaren plan integrala (1990-1991ko balantzea)*. Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZAren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren Gizarte Ongizateko Zuzendaritza (1993): *Euskadiko pobreziaren aurkako borrokaren etorkizunari buruzko txostena*. Eusko Jaurlaritza - Gizarte Ongizateko Zuzendaritza. Vitoria-Gasteiz.
- EUSTAT (2006): *Etxerik gabeko pertsonen buruzko 2005eko inkesta* [on line]. Vitoria-Gasteiz. Hemen eskura daiteke: [www.eustat.es](http://www.eustat.es).
- FEANTSA (2001). *La promoción de la inclusión social a través del acceso al alojamiento*. Feantsa. Brusela.
- Fundació La Caixa (2004): *Pobreza y exclusión social. Un análisis de la realidad española y europea*. Fundación La Caixa. Bartzelona. Hemen eskura daiteke: [http://www.pdf.lacaixa.comunicacions.com/es/esp/es16\\_esp.pdf](http://www.pdf.lacaixa.comunicacions.com/es/esp/es16_esp.pdf).
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (2003): *Gipuzkoako Gizarteratze Plana*. Foru Aldundia. Donostia-San Sebastián.
- Gizarte eskubideak eta Espainiako Konstituzioa. *Documentación social*, 114 zk. (1999).
- GLASGOWko Udala: *Strategy for the prevention and alleviation of homelessness in Glasgow 2003-2006* [on line]. Hemen eskura daiteke: [www.Glasgow.gov.uk](http://www.Glasgow.gov.uk).
- GONZÁLEZ RABANAL, Concepción (2001): La necesidad de repensar el Estado de Bienestar. *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 31. zk. Hemen eskura daiteke: <http://www.mtas.es/publica/revista/numeros/31/INecesidad.pdf>.

- GONZALO, A. (2003): Personas sin hogar: con la dignidad a costas [on line]. In ONG Social, 13. zk. Agencia de Información Solidaria (AIS). Hemen eskura daiteke: <http://www.fundacionluisvives.org/BBDD/publicaciones/documentacion/Luisvives13.pdf>.
- GUILLÉN, Ana María (1997): Regímenes de bienestar y roles familiares: Un análisis del caso español. *Papers*, 53. zk. Hemen eskura daiteke: <http://www.bib.uab.es/pub/papers/02102862n53p45.pdf>.
- INTER-ÁREAS LAN TALDEA (2003): *Bilbo udalerrian bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen zuzendutako zerbitzu eta programei buruzko egoera txostena*. Bilboko Udalaren Gizartekintza Arloa. Bilbo. Argitaratu gabe.
- INTER-ÁREAS LAN TALDEA (2004): *Bilbo udalerrian etxerik ez duten pertsonekin esku hartzeko proposamena*. Bilboko Udalaren Gizartekintza Arloa. Bilbo.
- LAPARRA, M. (1996): Peculiaridades de la exclusión en España: Propuesta metodológica y principales hipótesis a partir del caso de Aragón. Pobreza, necesidad y discriminación. In *II Simposio sobre Igualdad y distribución de la renta y riqueza*. Fundación Argenteria eta Visor. Igualdad bilduma. Madril.
- Legislative Change Affecting Housing and Homelessness in Europe (2004). In *Homeless in Europe* (2004ko udazkena). Hemen eskura daiteke: [www.feantsa.org](http://www.feantsa.org).
- LINARES, E. (2001): Personas sin hogar: de la exclusión a la inclusión. *Revista de Trabajo Social Hoy* (2001eko 2. seihilekoa), 53.-62. orr.
- MARPSAT, M; FIRDION, J. M. (1998): Las personas sin hogar en París: encuesta a una muestra representativa de usuarios de servicios para personas sin hogar. *Intervención psicosocial*, 7. alea, 1. zk.
- MARTÍNEZ DE PISÓN, José (2003): La efectividad de los derechos sociales: de las necesidades básicas al desarrollo humano. In MARTÍNEZ DE PISÓN, José eta GARCÍA INDA, Andrés: *Derechos fundamentales, Movimientos sociales y participación: Aportaciones al debate sobre la ciudadanía*. Dykinson. Madril/ Lege-soziologiako Nazioarteko Erakundea. Oñati.
- MARTÍNEZ DE PISÓN, José eta GARCÍA INDA, Andrés (2003): *Derechos fundamentales, Movimientos sociales y participación: Aportaciones al debate sobre la ciudadanía*. Dykinson. Madril/ Lege-soziologiako Nazioarteko Erakundea. Oñati.
- MORENO, Luis: La vía media española del régimen de bienestar mediterráneo [on line]. In *Documento de Trabajo*, 99-05 zk. Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusiaren Politika Konparatuen Atala. Hemen eskura daiteke: [www.iesam.csic.es/doctrab1/dt-9905.htm](http://www.iesam.csic.es/doctrab1/dt-9905.htm).
- MORENO, Luis (2003): Ciudadanía, desigualdad social y Estado de Bienestar [on line]. In *Documento de Trabajo*, 03-08. zk. Ikerketa Zientifikoen Kontseilu Nagusiaren



Politika Konparatuen Atala. Hemen eskura daiteke: <http://www.iesam.csic.es/doc-trab2/dt-0308.pdf>.

MORENO, Luis. Reforma y reestructuración del estado de Bienestar en la Unión Europea. In *Documento de Trabajo, 04-09* zk. Politika Konparatuen Atala (CSIC). Hemen eskura daiteke: <http://www.iesam.csic.es/doc-trab2/dt-0409.pdf>.

MORENO MÁRQUEZ, Gorka (2003): *Trabajo y ciudadanía. Un debate abierto*. Ararteko erakundea. Vitoria-Gasteiz.

MUÑOZ DE BUSTILLO LLORENTE, Rafael (2000): *El estado de bienestar en el cambio de siglo. Una perspectiva comparada*. Alianza Editorial. Madril.

MUÑOZ, M; VÁZQUEZ, C. (1998): Las personas sin hogar: Aspectos psicosociales de la situación española. *Intervención psicosocial*, 7. alea, 1. zk.

MUÑOZ, M; VÁZQUEZ, C; VÁZQUEZ, J.J. (2003): Los límites de la exclusión. Estudio sobre los factores económicos, psicosociales y de salud que afectan a las personas sin hogar en Madrid. *Témpora*. Madril.

NOGUERA, José Antonio (2001-2002): Renta básica y crisis del Estado de Bienestar [on line]. *El vuelo de Ícaro*, 2-3. zk. Hemen eskura daiteke: <http://www.nodo50.org/redrentabasica/descargas/RBcrisisEB.pdf>.

PÉREZ, D. (1999): Aspectos técnicos y organizacionales para el diseño de estrategias de atención a personas sin hogar. In *Congreso Nacional sobre Personas Sin Techo*. Valentzia.

Pobreziaren aurkako borroak (2005): *Políticas sociales en Europa*, 18 zk.

Prevention Strategies and the Fight Against Homelessness. In *Homeless in Europe* (2004ko negua). Hemen eskura daiteke: [www.feantsa.org](http://www.feantsa.org).

RAVENTÓS PAÑELLA, Daniel (2001): La renta básica: Introito [on line]. *Cuadernos electrónicos de Filosofía del Derecho*, 4. zk. Hemen eskura daiteke: <http://www.uv.es/CEFD/4/raventos.html>.

RAYA, E. (2002): Estudio de la Exclusión social desde una perspectiva subjetiva. *Ingu-ruak*, 32. zk. (2002ko apirila), 107.-120. orr.

SÁNCHEZ MORALES, M .R.; TEZANOS VÁZQUEZ, S.: Los inmigrantes “sin hogar” en España: un caso extremo de exclusión social. *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, 55. zk., 49. or.

SÁNCHEZ MORALES, M.R. (2001): La población sin techo en España: un caso extremo de exclusión social. In *Tendencias en desigualdad y exclusión Social: Tercer Foro sobre tendencias sociales*. Sistema. Madril.

SANZO, Luis (2001): La política de lucha contra la pobreza en Euskadi. In *Pobreza y Exclusión: La "malla" de seguridad en España*. CSIC. Madrid.

SIS – Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa (2004): *Etixerik gabeko pertsonentzako zerbitzuak eta arreta zentroak*. Donostia-San Sebastián.

Situaciones de emergencia e intervención en periodos de crisis en las grandes ciudades del Estado Español. *Urteko Txostena (2005)*.

SUSÍN BELTRÁN, Raúl (2000): La regulación de la pobreza. El tratamiento jurídico-político de la pobreza: Los ingresos mínimos de inserción. Errioxako Unibertsitatea. Logroño.

TEZANOS, J. F. (2001): Tendencias en desigualdad y exclusión social. In *Tercer Foro sobre Tendencias Sociales*. Sistema, Politeia. Madrid.

The Future of Services Provision in Europe (2005): The Homelessness Sector and the Draft Services Directive. In *Homeless in Europe* (2005eko udaberria). Hemen eskura daiteke: [www.feantsa.org](http://www.feantsa.org).

ZUBERO, Imanol (2003): Trabajo, participación y derechos. In MARTÍNEZ DE PISÓN, José eta GARCÍA INDA, Andrés: *Derechos fundamentales, Movimientos sociales y participación: Aportaciones al debate sobre la ciudadanía*. Dykinson. Madrid/Lege-soziologiako Nazioarteko Erakundea. Oñati.

ZUBERO, I. (2003): *Bizkaian gizarte bazterkeriako egoeran dauden toxikomanoen taldearen arazoak eta beharrizanak*. Foru Aldundia. Bilbo.

## 2. HITZALDIAK

ESTOMBA, I. (2003): "El sistema de los servicios sociales ante el reto de la incorporación social". Sartu Federazioak "Gizarteratzearen erronka"ri buruz antolatutako Jardunaldiak (2003ko abendua). Gizarte bazterketa eta gizarteratze Prozesuen Behatokia. Bilbo.

ZUBERO, I. (2003): "La incorporación social desde una perspectiva global". Sartu Federazioak "Gizarteratzearen erronka"ri buruz antolatutako Jardunaldiak (2003ko abenduaren 4a). Gizarte bazterketa eta gizarteratze Prozesuen Behatokia. Bilbo.

ZUBERO, I; PINEDA, S. (2005): "Eje trayectorias de incorporación social: 3. 2005eko txostena". Sartu Federazioak "Gizarteratzea partaidetza gisa. Gogoeta estrategikoa"ri buruz antolatutako Jardunaldiak (2005eko urtarrila). Gizarte bazterketa eta gizarteratze Prozesuen Behatokia. Bilbo.

### 3. MEMORIAK

ADSIS-BESTALDE FUNDAZIOA. *2004KO MEMORIA OROKORRA.*

AGIANTZA ELKARTEA. *2004ko memoria.*

AMETZAGAÑA FUNDAZIOA. *2004ko ebaluazioa.*

ARRATS ELKARTEA. *2004ko memoria.*

ASKABIDE ELKARTEA. *2004ko memoria.*

ASOCIACIÓN CIUDADANA ANTI-SIDA DE GIPUZKOA/GIPUZKOAKO HIES KONTRAKO ELKARTE HIRITARRA. *2004ko memoria.*

ATERPE ZENTROA. *Aterpe gaueko zentroari buruzko esparru teorikoa.* Vitoria-Gasteizko Udalaren Gizartegintza Saila (2004).

BIZKAIKO CÁRITAS. *2003 eta 2004ko urteko txostena.*

COMISIÓN CIUDADANA ANTI-SIDA DE ÁLAVA/ARABAKO HIESAREN KONTRAKO BATZORDEA. *2004ko urteko memoria.*

ELKARBANATUZ-ONDOAN ELKARTEA. *2004ko memoria orokorra.*

EMAÚS FUNDAZIOA. *2003ko urteko memoria.*

EMAÚS FUNDAZIOA-BITARTEAN PROGRAMA. *2004ko memoria.*

GIPUZKOAKO CÁRITAS. *Aterpe, 2004ko urteko memoria.*

GIPUZKOAKO CÁRITAS. *2004ko urteko memoria.*

GIPUZKOAKO GURUTZE GORRIA. *Etorkinentzako lehenengo harrerari buruzko memoria* (2004).

GIZARTERAKO ELKARTEA. *2004ko urteko memoria.*

GIZARTERATZEKO LOIOLAETXEA ELKARTEA. *2004ko urteko memoria.*

HIESAREN AURKAKO BIZKAIKO HERRITARREN BATZORDEA. *2004ko memoria.*

HIESAREN AURKAKO BORROKARAKO ELKARTEA T4. *2004ko memoria.*

IZANGAI ELKARTEA. *2003ko memoria.*

LARRATXO FUNDAZIOA. *2004ko arreta eta jardueren memoria.*

LAGUN ARTEAN-HARRERA ZENTROA. *2003ko jardueren memoria.*

LAGUN ARTEAN-ZENTRO IRAUNKORRA. *2004ko proiektua eta memoria.*

MADRILGO Udala. *Gizarte zerbitzuen gerentziaren 2004ko memoria* [on line]. 2004. Hemen eskura daiteke: [www.munimadrid.es/principal/ayuntamiento/serv-Muni.asp](http://www.munimadrid.es/principal/ayuntamiento/serv-Muni.asp).

RAIS ELKARTEA. *2004ko memoria orokorra.*

VITORIA-GASTEIZko Udalaren Gizartegintza Saila. “*2004ko urteko memoria*”.

ZUBIETXE ELKARTEA. *2004ko memoria.*

#### 4. ESTADISTIKAK

EIN-ESTADISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALA -INE- (2004): *Encuesta sobre las personas sin hogar-Centros* (2004ko maiatza). Madril. Hemen eskura daiteke: [www.ine.es](http://www.ine.es).

EUSTAT-EUSKAL ESTADISTIKA ERAKUNDEA (2005): *Etixerik gabeko pertsonen buruzko inkesta*. 2005eko urtarrileko txostena.

MARPSAT, M; FIRDION, J.M. (1998): “Las personas sin hogar en París: Encuesta a una muestra representativa de usuarios de servicios para personas sin hogar”. *Intervención psicosocial*, 7. alea, 1. zk.

#### 5. ALDIZKARIAK ETA EGUNKARIAK

FEANTSA (Etixerik gabeko pertsonentzat lan egiten duten Elkarte Nazionalen Europako Federazioa Feder). Hemen eskura daitezke: [www.feantsa.org](http://www.feantsa.org).

1. “Homeless in Europe” aldizkaria:
  - Alternative Approaches to Homelessness: Looking Beyond Europe (2004ko udaberria).
  - Legislative Change Affecting Housing and Homelessness in Europe (2004ko udazkena).
  - Prevention Strategies and the Fight Against Homelessness (2004ko negua).
  - The Future of Services Provision in Europe: The Homelessness Sector and the Draft Services Directive (2005eko udaberria).
2. EDGAR, B; DOHERTY, J; MEERT, H. (2003): “Review of Statistics on Homelessness in Europe”.
3. “Situaciones de emergencia e intervención en periodos de crisis en las grandes ciudades del Estado Español”. 2005eko urteko txostena.

FUNDACIÓN LUIS VIVES (2003): "Personas sin hogar: con la dignidad a cuestas", *Revista Orng social*, 13. zk. (2003ko urtarrila-otsaila), 14.-19. orr. Hemen eskura daiteke: [www.fundacionluisvives.org/BBDD/publicaciones/documentacion/Luisvives13.pdf](http://www.fundacionluisvives.org/BBDD/publicaciones/documentacion/Luisvives13.pdf).

HILERO EGUNERATUZ (2005): *Gizarteratzeari buruzko Dokumentazio Aldizkaria*. 52., 54. eta 55. zk.

TEZANOS, J.F. (2003): "La libertad de los iguales". Sistema aldizkaria, 173. zk.

## 6. WEBGUNEAK

EDUKIA	WEBGUNEAREN HELBIDEA
<b>AUSTRIA</b>	
Alokairua Babesteko Zentroa (Viena)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/02/bp450.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/02/bp450.html</a>
Etixerik gabeko pertsonak gizarteratzeko udal plana (Viena)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp012.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp012.html</a>
Pobrezari aurre hartzeko zerbitzua (Viena)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/98/bp375.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/98/bp375.html</a>
<b>KANADA</b>	
Etxebizitza eta Hipoteka-kredituetarako Kanadako Korporazioa	<a href="http://www.cmhc-schl.gc.ca/cmhc.html">www.cmhc-schl.gc.ca/cmhc.html</a>
Komunitateei laguntzeko laguntza-ekimena (Quebec)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/02/bp410.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/02/bp410.html</a>
<b>ESPAINIA</b>	
Arrels Fundació	<a href="http://www.arrelsfundacio.org">www.arrelsfundacio.org</a>
Bartzelonako Udala	<a href="http://www.bcn.es">www.bcn.es</a>
Garapenerako solidarioak	<a href="http://www.solidarios.org.es">www.solidarios.org.es</a>
Gizarte bazterkeriaren aurkako borroka (Zaragoza)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/bpes/onu98/bp451.html">http://habitat.aq.upm.es/bpes/onu98/bp451.html</a>
Madrilgo Udala - Gizarte zerbitzuak	<a href="http://www.munimadrid.es/principal/ayuntamiento/servMuni.asp">www.munimadrid.es/principal/ayuntamiento/servMuni.asp</a> <a href="http://www.madrid.org/servicios-sociales">www.madrid.org/servicios-sociales</a>
Pasadizoko pertsona kronikoentzako arreta osoa (Rauxa elkarte-Bartzelona)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/bpes/onu02/bp211.html">http://habitat.aq.upm.es/bpes/onu02/bp211.html</a>
Rauxa elkarte	<a href="http://ewebs.comb.es/rauxa">http://ewebs.comb.es/rauxa</a>
Telefónica Fundazioa	<a href="http://www.risolidaria.org">www.risolidaria.org</a>
Valentiako Udala - CAST programa	<a href="http://www.ayto-valencia.es/ayuntamiento2/ndayunt.nsf?opendatabase">www.ayto-valencia.es/ayuntamiento2/ndayunt.nsf?opendatabase</a>

EDUKIA	WEBGUNEAREN HELBIDEA
<b>AMERIKETAKO ESTATU BATUAK</b>	
Alkateen Batzarraren etxerik gabeko pertsonen buruzko txostena	<a href="http://www.usmayors.org/uscm">www.usmayors.org/uscm</a>
Etxebizitzetako hobekuntzen programa (Denver-Colorado)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp338.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp338.html</a>
Etxegabetasunaren iragaitze-prozesurako laguntza-programak - PATH	<a href="http://nch.ari.net/pathfacts.html">http://nch.ari.net/pathfacts.html</a>
Etxerik gabeko familientzako programa (Los Angeles-Kalifornia)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp349.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp349.html</a>
Etxerik gabeko pertsonentzako etxeak - Homes for the Homeless (Nueva York)	<a href="http://www.homesforthehomeless.com">www.homesforthehomeless.com</a>
Etxerik gabeko pertsonentzako Koalizio Nazionala -National Coalition for the Homeless	
Hirigintza eta Etxebizitza Saileko programak -HUD	<a href="http://www.hud.gov/homeless/index.es.cfm">www.hud.gov/homeless/index.es.cfm</a>
Osasun eta Gizarte zerbitzuen Saileko programak -HHS	<a href="http://aspe.hhs.gov/homeless/index.shtml">http://aspe.hhs.gov/homeless/index.shtml</a>
Pobrezia eta Etxerik gabeko pertsonen buruzko Legeen Zentro Nazionala	<a href="http://www.nlchp.org">www.nlchp.org</a>
<b>FINLANDIA</b>	
Y Fundazioa: Etxerik gabeko pertsonentzako etxebizitzak	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/98/bp994.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/98/bp994.html</a>
<b>FRANTZIA</b>	
Etxebizitzarako eskubidea-DAL	<a href="http://perso.club-internet.fr/b_adam/">http://perso.club-internet.fr/b_adam/</a> <a href="http://asso.francenet.fr/cdsl/">http://asso.francenet.fr/cdsl/</a>
Garapen Sozialari buruzko Informazio Sarea-RIDS	<a href="http://www.odas-rids.net/presentation.htm">www.odas-rids.net/presentation.htm</a>
Gaueko lagunak-La Moqueta - Les Compagnons de la Nuit-La Moquette	<a href="http://www.cfpj.com/spe_cfj_2001/articles/exclusion/5nuit.html">www.cfpj.com/spe_cfj_2001/articles/exclusion/5nuit.html</a> <a href="http://www.paris-france.org/fr/solidarites/personnes_en_difficulte/vivpe_au_quotidien/compagnons_nui_la_moquette/default.asp">www.paris-france.org/fr/solidarites/personnes_en_difficulte/vivpe_au_quotidien/compagnons_nui_la_moquette/default.asp</a>
Harrera egin eta Gizarteratzeko Elkarrekin Federazio Nazionala-FNARS	<a href="http://www.ardeva.org/html/membres/fnars.htm">www.ardeva.org/html/membres/fnars.htm</a>
<b>ITALIA</b>	
Centrepoint	<a href="http://www.centrepoint.org.uk">www.centrepoint.org.uk</a>
Etxerik gabeko pertsonentzako Erakunde Italiako Federazioa-FIO.psd	<a href="http://www.fiopsd.org">www.fiopsd.org</a>
Kaleko lagunak. Comunità di Sant'Egidio	<a href="http://www.santegido.org/it/solidarieta/senzadimora/index.htm">www.santegido.org/it/solidarieta/senzadimora/index.htm</a>
San Marcellino elkartea	<a href="http://www.sanmarcellino.ge.it/">www.sanmarcellino.ge.it/</a>

EDUKIA	WEBGUNEAREN HELBIDEA
<b>HERBEHEREAK</b>	
Aterpeen elkarte (Rotterdam)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp288.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp288.html</a>
<b>ERRESUMA BATUA</b>	
Crisis	<a href="http://www.crisis.org.uk">www.crisis.org.uk</a>
Etterik gabeko pertsonen laguntzeko ekimena (Londres)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp334.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp334.html</a>
Etterik gabeko pertsonen webgunea (Glasgow)	<a href="http://www.hipinglasgow.com">www.hipinglasgow.com</a>
Shelter	<a href="http://www.shelter.org.uk">www.shelter.org.uk</a>
“The Big Issue” etterik gabeko pertsonen egunkaria	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp328.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/96/bp328.html</a>
“The Big Issue” Foundation	<a href="http://www.bigissue.co.uk">www.bigissue.co.uk</a>
<b>ERRUMANIA</b>	
Bizitza hobeko laguntza (Aiud)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/98/bp475.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/98/bp475.html</a>
Gaueko aterpea (Targovise)	<a href="http://habitat.aq.upm.es/dubai/98/bp277.html">http://habitat.aq.upm.es/dubai/98/bp277.html</a>
<b>NAZIOARTEKO ESPERIENTZIAK, SAREAK ETA FOROAK</b>	
Buru-osasun eta gizarte bazterkeriaren Europako taldea-SMES	<a href="http://www.smes-europa.org">www.smes-europa.org</a>
Dubai (Arabiar Emirerri Batuak)-Jardunbide egokien lehiaketa	<a href="http://www.bestpractises.org">www.bestpractises.org</a>
Etterik gabeko pertsonentzat lan egiten duten erakundearen Europako Federazioa-FEANTSA	<a href="http://www.feantsa.org">www.feantsa.org</a>
Gizarte aldaketaren kudeaketa programa-MOST (UNESCO)	<a href="http://www.unesco.org/most">www.unesco.org/most</a>
Kaleko egunkariaren nazioarteko sarea-INSP	<a href="http://www.street-papers.org">www.street-papers.org</a>
NBE-Jardunbide egokien lehiaketa	<a href="http://www.habitat.aq.upm.es/aghah">www.habitat.aq.upm.es/aghah</a>
Pobrezia eta gizarte bazterkeriaren aurkako Europako sarea-EAPN	<a href="http://www.eapn-es.org">www.eapn-es.org</a>
<b>EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA</b>	
Arrasateko Udala	<a href="http://www.arrasate-mondragon.net">www.arrasate-mondragon.net</a>
Barakaldoko Udala	<a href="http://www.barakaldo.org">www.barakaldo.org</a>
Bilboko Udala	<a href="http://www.bilbao.net">www.bilbao.net</a>
Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua	<a href="http://www.icasv-bilbao.com/htm/guiarecursos.doc">www.icasv-bilbao.com/htm/guiarecursos.doc</a>
Donostia-San Sebastiánko Udala	<a href="http://www.donostia.org">www.donostia.org</a>
Eibarko Udala	<a href="http://www.eibar.net">www.eibar.net</a>
Errenteriako Udala	<a href="http://www.errenteria.net">www.errenteria.net</a>
Getxoko Udala	<a href="http://www.getxo.net">www.getxo.net</a>

EDUKIA	WEBGUNEAREN HELBIDEA
Irungo Udala	<a href="http://www.irun.org">www.irun.org</a>
La Posada de los abrazos	<a href="http://www.elpais.es/buscadores/articulo/20040923elpues_12/tes/elpepiautopus/-20k">www.elpais.es/buscadores/articulo/20040923elpues_12/tes/elpepiautopus/-20k</a> <a href="http://comunidades.kzgunez.net/izaera/es/noticias/default.htm?anio=2004&amp;mes=01-20k">http://comunidades.kzgunez.net/izaera/es/noticias/default.htm?anio=2004&amp;mes=01-20k</a>
Portugaleteko Udala	<a href="http://www.portugalete.org">www.portugalete.org</a>
Santurtziko Udala	<a href="http://www.ayuntamiento-santurtzi.es">www.ayuntamiento-santurtzi.es</a>
Sestaoko Udala	<a href="http://www.sestao.net">www.sestao.net</a>
Vitoria-Gasteizko Udala	<a href="http://www.vitoria-gasteiz.org">www.vitoria-gasteiz.org</a>
Zarauzko Udala	<a href="http://www.zarautz.org">www.zarautz.org</a>




**ERANSKINAK**



**I. ERANSKINA: EUSKADIN GIZARTE BAZTERKERIA JASATEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONAK GIZARATERATZEKO DAUDEN BALIABIDEAK AZALTZEN DITUEN KOADROA. (EAEko GIZARATERATZE-PLANA 2003-2005. JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA)**

**OINARRIZKO ERRENTEN ETA GLL-en ESKATZAILEAK (BIZTANLERIA POTENTZIALA)**

GIZARATERATZE SISTEMARAKO SARRERA: OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK



Gizarte bazterkeria edo arriskua

**GIZARATERATZE PROZESUA**

- Integrala eta sistematikoa
- Dinamikoa
- Parte-hartzekoa

**GIZARATERATZEA**

## II. ERANSKINA: LURRALDE HISTORIKO ETA HERRI BAKOITZEKO EGONALDI LABURREKO ETA LUZEKO OSTATU ZERBITZUAK

HERRIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/PROGRAMA	FINANTZAKETA <sup>(1)</sup>	PLAZA KOP.
Bilbo	EGP	San Vicente de Paul konfederazioa	Ozanan aterpetxea: Gaueko harrera egoitza.	Bilboko Udaleko dirulaguntza eta fondo propioak	10
		Bilboko Udala	Elejabarriko aterpetxea: Egonaldi ertaineko egoitza programa.	Bilboko Udala: zuzeneko kudeaketa.	25
		Bilboko Udala: GLUZ	Tutoretzapeko 2 etxebizitza.	Bilboko Udala: azpikontratua.	12
		Lagun Artean	Aire Onak baserria	Fondo propioak	10
			Iruña etxebizitza	BFA Hitzarmena	7
			Ramon y Cajal etxebizitza	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza	3
			"Luzarra Egoitza" harrera eta diagnosi zentroa.	BFA Hitzarmena	9
			Giltza programa: 2 etxebizitza (Atxuri eta San Franziskon)	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta fondo propioak	11
		Caritas	Apostolutzakoak: "Abegia" gizarte egoitza	Fondo propioak eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza	26
			Lurberri Etxea egoitza	Bilboko Udalarekin Hitzarmena eta fondo propioak	38
		Bizitegi	Programa dibertsifikatua: tutoretzapeko 14 etxebizitza eta egoitza txiki bat	Osasun Sailarekin eta BFA-rekin hitzarmena. Bilboko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza. Fondo propioak.	52
		GLFE (IFAS)	Bi Etxeak: tutoretzapeko etxebizitza baliabidea.	BFA Hitzarmena	11
		Itaka-Eskolapioak	Tutoretzapeko 2 etxebizitza	BFA Hitzarmena	8
		Oblatas erlijio kongregazioa	"Lehio Zabalik" harrera etxebizitzak	BFA Hitzarmena	5
		Izangai	Gizareratze programa: bi etxebizitza	BFA Hitzarmena	17

HERRIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/PROGRAMA	FINANTZAKETA <sup>(1)</sup>	PLAZA KOP.	
Bilbo	Toxikomania	Karitateko Jesusen zerbitzarien kongregazioa	M <sup>a</sup> Josefa dohatsuaren zentroa	BFA Hitzarmena	13	
		Elizbarrutiko Caritas	Tratamenduetan laguntzeko 3 etxebizitza	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta fondo propioak	18	
		Agiantza	Tratamenduetan laguntzeko 2 etxebizitza	BFA Hitzarmena	12	
		Zubietxe	Berrisar gizarteratze etxebizitza	BFA Hitzarmena, Eusko Jaurlaritzaren, Bilboko Udalaren dirulaguntza eta diru pribatua	4	
			Babestutako etxebizitza: Arri-gorriaga	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza	3	
		Bidesari	Aldatzen programa: gizarteratze etxe 1	BFA Hitzarmena	6	
		Askabide	Tutoretzapeko etxebizitza 1	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta fondo propioak	6	
			Askarri programa: tutoretzapeko etxebizitza	BFA Hitzarmena	6	
		Bizitegi	Langaran Etxebizitza	BFA Hitzarmena	6	
			Peñascal Etxebizitza	BFA Hitzarmena	6	
		Lagun Artean	Mendigane Baserria: tratamenduak	BFA Hitzarmena	10	
			Miramar Etxebizitza	BFA Hitzarmena	5	
			Blas de Otero Etxebizitza	BFA Hitzarmena	6	
		Inmigrazioa	CEAR	Aldi baterako harrera programa: harrerarako 3 etxebizitza.	IMSERSO eta BFA Hitzarmenak, eta fondo propioak	4
			Zubietxe	Hiritar programa: etxebizitza 1	Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta diru pribatua	6
Gazte etorkinak	Lagun Artean	"Hegaz" Programa	BFA Hitzarmena eta fondo propioak	4		
	Elkarbanatuz	Ondoan proiektua: tutoretzapeko etxe 1	BFA Hitzarmena	7		
		Bidean proiektua: erdi tutoretzapeko etxe 1	BFA Hitzarmena	4		
Erandio	EGP	Izangai	Gizarteratze programa: etxebizitza 1	BFA Hitzarmena	4	
		Izangai	Gizarteratze programa: etxebizitza 1	BFA Hitzarmena	4	
Barakaldo	Toxikomania/EGP	Zubietxe	Harrera etxebizitza 1	Fondo propioak	3	
	Gazte etorkinak	Goiztiri	Emantzipaturiko gazteen-tzako etxebizitzak: 3 etxebizitza	BFA Hitzarmena	14	
Gamiz-Fika	EGP	Emaus	Bitartean programa: 45 eta 65 urte bitarteko helduen gizarteratzea.	BFA Hitzarmena. Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta fondo propioak	19	

HERRIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/PROGRAMA	FINANTZAKETA <sup>(1)</sup>	PLAZA KOP.
Donostia	EGP	Emaus	Denbora gehien daramate- nentzat 2 etxebizitza	GFA Hitzarmena. Eusko Jaur- laritzaren diru-laguntza eta fondo propioak	8
		Larratxo F.	Aterpetxea	GFA Hitzarmena	11
		Emaus	ISLA programa: Gizarteratze zentroa	GFA Hitzarmena eta Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza	24
		Donostiako Uda- la	Gizarte harrerarako udal zen- troa: egonaldi berezietarako programa	Donostiako Udala: zuzeneko kudeaketa	20 <sup>(2)</sup>
	Inmigrazioa	Caritas	Larrialdietarako 5 etxebi- zitza	GFA diru-laguntza eta fondo propioak	25
	EGP(Gazteak)	Gurutze Gorria	Emantzipaziorako 3 etxe- bizitza	GFA Hitzarmena eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza	18
	Toxikomania	Izan F.	Urigain programa	GFA Hitzarmena	18 <sup>(3)</sup>
	HIESA	Acasgi	Harrera etxebizitza 1	GFA Hitzarmena	10
	Preso ohiak	Loiola Etxea	Loiola Etxea	GFA Hitzarmena	12
			Trantsiziorako 2 etxebizitza	GFA Hitzarmena	6
Pasaia	EGP	Caritas	Trintxer aterpetxea	GFA diru-laguntzak eta fondo propioak	25
			Trintxer etxebizitza	GFA diru-laguntzak eta fondo propioak	3
			Emeki (emakumeentzat)	GFA diru-laguntzak eta fondo propioak	4
Tolosa	EGP	Abegi	Goizaldi etxebizitza	GFA Hitzarmena / Tolosako Udala	3
Irun, La- sarte, Do- nostia eta Beasain	Inmigrazioa eta atzerriko familiak	Gurutze Gorria	Larrialdietarako 7 etxebi- zitza	GFA Hitzarmena	42 <sup>(4)</sup>
Errenteria	EGP (emaku- meak)	Caritas	2 etxebizitza	GFA dirulaguntzak eta fondo propioak	6
Andoain	Gazteak	Caritas	Sorabilla	GFA dirulaguntzak eta fondo propioak	14
Usurbil	Toxikomania	Izan F.	Gizarteratze programa	GFA Hitzarmena eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza	30
Usurbil	Toxikomania	Izan F.	M.A.I.S	GFA Hitzarmena	6
<b>GUZTIRA GIPUZKOAN</b>					<b>285</b>

HERRIA	PROFILA	ERAKUNDEA	ZENTROA/PROGRAMA	FINANTZAKETA <sup>(1)</sup>	PLAZA KOP.
Vitoria-Gasteiz	Familiak	Vitoria-Gasteizko Udala	Gizarte larrialdietarako 7 etxebizitza	Vitoria-Gasteizko Udala: kudeaketa zuzena	35
	Atzerriko familiak	Egoiliar afroamerikarrak	“Casa Vitoria” programa	Vitoria-Gasteizko Udalaren Hitzarmena	18
		Elkarbanatu	Ibiltaria programa	Vitoria-Gasteizko Udalaren Hitzarmena	10 <sup>(5)</sup>
	Inmigrazioa eta atzerriko familiak	Egoiliar afroamerikarrak	Tutoretzapeko 2 etxebizitza	Vitoria-Gasteizko Udalaren Hitzarmena	12
		Elkarbanatu	Tutoretzapeko etxebizitza 1	Vitoria-Gasteizko Udalaren Hitzarmena	6
	EGP	Vitoria-Gasteizko Udala	Gizarte Harrerarako Udal Zentroa (CMAS): egonaldi ertain-luzeko programa	Vitoria-Gasteizko Udala: Enpresa pribatu bati azpikontrataturik.	35 <sup>(6)</sup>
		Hiesaren aurkako batzordea	Etxe irekia	Vitoria-Gasteizko Udalaren Hitzarmena	16 <sup>(7)</sup>
			Tutoretzapeko 5 etxebizitza	Vitoria-Gasteizko Udalaren Hitzarmena	30
		Ostatu	Tutoretzapeko etxebizitza 1	Vitoria-Gasteizko Udalaren Hitzarmena	5
	EGP (Gazteak)	IRSE/EBI	Laguntza etxebizitza 1	AFA Dirulaguntzak eta Vitoria-Gasteizko Udala	3
	HIESA	Hiesaren aurkako batzordea	Besarkada Etxea	AFA Hitzarmena eta Vitoria-Gasteizko Udala	14
	Gizarte sarrerik gabeko presoak	Hiesaren aurkako batzordea	Harrera etxebizitza	AFA Hitzarmena eta Vitoria-Gasteizko Udala	12
	Baldintzapeko presoak	Hiesaren aurkako batzordea	Gizarteratzeko etxebizitza	AFA Hitzarmena eta Vitoria-Gasteizko Udala	6
Emakume presoak	Presoari laguntzeko elkartea (ADAP)	Laguntza etxea	AFA Hitzarmena eta Vitoria-Gasteizko Udala	9	
<b>GUZTIRA ARABAN</b>					<b>211</b>
<b>GUZTIRA EAEN</b>					<b>910</b>

(1) AFA, BFA eta GFA, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak dira, hurrenez hurren.

(2) Egonaldi ertaineko programa hau, egoera bereziak ematen diren kasuetan erabiltzen da bakarrik. Ez da denbora mugarik jartzen, baina ohikoena hilabeteko egonaldia izaten da.

(3) 14 leku gizonekoentzat eta 4 emakumezkoentzat.

(4) 6 lekuko etxebizitza 1 dago hauetako herri bakoitzean: Irun, Lasarte-Oria eta Beasainen, eta 6 lekuko 4 etxebizitza Donostian.

(5) 10 familia unitateri egiten dio erreferentzia.

(6) Programa ez denez banatzen egonaldi motz, ertain edo luzeko sailkapenaren bidez, 2005eko ekainaren 15ean jasotako datuen arabera lekuen arabera banaketa egin dugu.

(7) Ateak zabaltzeko egunean 8 besaulki gehiago dituzte.

ESKAERA MAILA	PROFILA	ERA-KUNDEA	PROGRAMA	ZERBITZUAK	FINAN-TZAKETA <sup>(1)</sup>	PLAZA OPT. KOP. <sup>(2)</sup>
BAXUA, ERTAINA ETA ALTUA	Toxikomania	T4 Batzordea	T4 Eguneke Zentroa: kontsumitzaileak ez diren pertsonen zuzendua.	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eremu soziokomunitarioa</li> <li>- Eremu juridikoa</li> <li>- Eremu soziosanitarioa</li> <li>- Eremu psikologikoa</li> <li>- Prestakuntza eremua</li> <li>- Lan eta lanaren aurretiko esparrua</li> <li>- Eremu fisioterapeutikoa</li> <li>- Lan munduratzeko tailerrak</li> <li>- Jarraipenerako gaueko zerbitzua</li> </ul>	Eusko Jaurlaritzaren, Bilboko Udalaren eta BFAren dirulaguntza <sup>(4)</sup>	15 egonkor eta 8 iragaitzaz <sup>(5)</sup>
<b>GUZTIRA BILBON</b>						<b>338</b>
BAXUA	EGP	Caritas	Eguneke Aterpea	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jangela, dutxa, bainugela eta arropategi zerbitzuak</li> <li>- Erizaintza eta podologia zerbitzuak</li> </ul>	GFAren dirulaguntzak eta fondo propioak	48
		RAIS	Topaleku	- Tailerrak, egongelak eta topalekuak	GFArekin Hitzarmena, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza eta fondo propioak	20
	Toxikomania/EGP	Izan F.	Uli-Enea Eguneke Zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Egongelak eta topalekuak</li> <li>- Harrera</li> <li>- Laguntza sanitarioa</li> <li>- Laguntza psikologikoa</li> </ul>	GFArekin Hitzarmena eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza	30
<b>GUZTIRA DONOSTIAN</b>						<b>98</b>
BAXUA	EGP	Hiesaren aurkako Batzordea	Estrada eguneke zentroa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eremu irekia: topalekuak</li> <li>- Tailer eremuak: lan jarduerak eta erdi-produkziozkoak.</li> <li>- Psikologia eremua: laguntza emozionala eta hezkuntza laguntza.</li> </ul>	GFArekin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin	30
<b>GUZTIRA VITORIA-GASTEIZEN</b>						<b>30</b>
<b>GUZTIRA</b>						<b>466</b>

(1) AFA, BFA eta GFA, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiak dira, hurrenez hurren.

(2) Lokal berean eta une berean erabil daitezkeen lekuen gutxi gorabeherako zenbakia.

(3) Ez dago leku hobe bezala ezarritako zenbakirik. Normalean, jangela erabiltzen duten pertsonen % 80a, instalazio berdinean kokatzen den eguneke zentroaren erabiltzaileak dira.

(4) Hiesaren aurkako T4 Batzordeak baliabide hori Bizkaiko Foru Aldundiarekin adosteko asmoa du 2006. urtetik aurrera.

(5) Leku iragaitzak izapide zehatzak egitera joan ohi diren pertsonen laguntzeko gordetzen direnak dira.



### III. ERANSKINA: EAEN ETXEBIZITZARIK GABEKO ETA GIZARTE BAZTERKERIA EGOERA LARRIAN DAUDEN PERTSONEI LAGUNTZA EMATEN DIETEN ERAKUNDE PRIBATUEN DIREKTORIOA. 2005

ARABAKO ERAKUNDEAK				
IZENA	HELBIDEA	TELEFONOA	WEB ORRIA	POSTA ELEKTRO- NIKOA
Presoari laguntzeko elkarte (ADAP)	Navarro Villoslada kalea, 23A-2.A. 01012 Vitoria-Gasteiz	945.120.318	-	adap@euskalnet.net
Beta Elkartea	Zerkabarren kalea 18, 1.a 01001 Vitoria-Gasteiz	945.264.926	-	-
Compartir Elkartea	Villarrealgo atea, 52-barrualdea. 01002 Vitoria-Gasteiz	945.283.162	-	acompartir@wanadoo.es
Gizarterako Elkartea	Aiztogile kalea 94, lokala. 01001 Vitoria-Gasteiz	945.269.012	-	-
Gasteizko Afroamerikarren Elkartea	Mendizabala kalea, 120. 01007 Vitoria-Gasteiz	945.162.623	-	afroamericana@hotmail.com
Servirecord Elkartea	Alaba jeneralaren kalea 7, 1.a. 19. bulegoa. 01005 Vitoria-Gasteiz	945.141.506	www.servirecord.com	-
Ostata Elkartea	Errota kalea 19, behe-eskuina 01006 Vitoria-Gasteiz	945.140.464	-	-
Arabako Hiesaren Aurkako Hiritar Batzordea (SIDALAVA)	San Frantzisko 2, 1.a 01001 Vitoria-Gasteiz	945.257.766	www.sidalava.org	sidalava@sidalava.org
Gurutze Gorria	Gaztelako atea, 52 B. 01007 Vitoria-Gasteiz	945.132.630	www.cruzroja.es	alava@cruzroja.es
Babesgabetsuen Andree Mariaren Gizarte Ekintza	Kutaisi kalea z/g. 01004 Vitoria-Gasteiz	945.252.545	-	-
BIZKAIKO ERAKUNDEAK				
Agiantza Elkartea	Maiatzaren 2ko kalea 20, 1.a eskuina. 48003 Bilbo	944.157.978	www.agiantza.org	agiantza@agiantza.org
Askabide Elkartea	Gorte kalea 4, 2. lokala eskuina. 48003 Bilbo	944.164.828	-	askabide@euskalnet.net
Elkarbanatuz ongintza eta laguntza elkarte	Madariaga etorbidea, 67. 48014 Bilbo	944.750.138	www.elkarbanatuz.org	elkarbanatuz@elkarbanatuz.org
Bilboko Espetxeetako Pastoralgintzako Bidesari Elkartea	Iturriza kalea, 2 3.a. 48003 Bilbo	944.100.214	-	direccion@bidesari.org
Bizitegi Elkartea	Irumineta 28, behea. 48004 Bilbo	944.126.576	www.bizitegi.org	bizitegi@planalfa.es
Barakaldoko Goiztiri Erakundea	Probidentzia kalea, 19. 48901 Barakaldo	944.478.541 944.180.312	goiztiri@goiztiri.org	www.goiztiri.org
Izangai Elkartea	Garcia Salazar kalea 16, ezkerreko lokala. 48003 Bilbo	944.701.223	-	izangai@teleline.es

Asociacion T4 Batordea	Autonomia 56, 5. eskuintza. 48012 Bilbo	944.438.436	www.asociaciont4.org	-
Zubietxe Elkartea	Abenduaren 22ko kalea, 1 eta 2 etxabeak. Ollargan auzoa. 48003 Bilbo	944.161.854	-	zubietxe@yahoo.es
Caritas	Erribera kalea 8, behea. 48005 Bilbo	944.020.099	www.caritas.org	caritasbi@caritas.org
Bizkaiko Hiesaren Aurkako Hiritar Batordea	Maiatzaren 2ko kalea 6.1. eskuina. 48003 Bilbo	944.160.055	www.antisidabizkaia.org	bizkaisida@euskalnet.net
Errefuxiatuak laguntzeko Espainiako Batordea (CEAR)	Uribarri kalea, 1. 48007 Bilbo	944.248.844	www.cear.es	estudioseuskadi@cear.es
Dama Apostolikoen kongregazioa	Manuel Allende kalea, 10. 48010 Bilbo	944.210.738	-	-
Frantziskotarren kongregazioa	C/Irala n°8. 48012 Bilbo	944.439.683	-	-
Bilboko Komunitateko Erredentzioko oblatuen kongregazioa	Luis Iruarizaga kalea, 1.A - 3.C. 48003 Bilbo	944.157.157	-	-
Emaus gizarte fundazioa	Rekalde Baserria. Elogien auzoa. 48113 Gamiz-Fika	946.153.527	www.emaus.com	-
Karitateko Jesusen Zerbitzarien kongregazioa	Hernani kalea 4. 48003 Bilbo	944.165.615	-	-
Adsis Fundazioa	Fika kalea 70, 1. eskuina. 48004 Bilbo	944.240.801	www.adsis.org	bizkaia@fundacion.adsis.org
Itaka-Eskolapioak fundazioa	Ajuriaguerrako Juan kalea, 15. 48009 Bilbo	944.244.954	www.epvasconia.com	-
Caridad-Condere Aresti Bizkaiko fundazioa	Zabala kalea, 22. 48003 Bilbo	944.156.092	-	-
Lagun Artean	Julio Urquijo kalea, 9 atzealdea. 48014 Bilbo	944.472.487	www.lagun-arteana.org	lagun-arteana@lagun-arteana.org
La Posada de los Abrazos	San Francisco 34, 1.a 48003 Bilbo	944.153.948	-	-
Gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko sarea (RAIS)	Zuberoa etorbidea, 16. 48012 Bilbo	946.023.077	-	-
San Vicente de Paul elkartea. Bilboko Kontseilu Zehatza.	Ibañez de Bilbao kalea, 11 2. ezk. 48009 Bilbo	944.231.421	-	-

GIPUZKOAKO ERAKUNDEAK				
Abegi Elkartea	Abegi. Pasadizokoen etxea. Agintari kalea 7 behea. 20400 Tolosa	943.672.551	-	-
Gipuzkoako Hiesaren Aurkako Batzorde Hiritarra. (ACASGI)	Secundino Esnaola kalea, 8-1.D. 20001 Donostia	943.290.722 943.290.830	-	acasgi@euskalnet.net
Arrats Elkartea	Blas de Lezo kalea, 21 behea. 20110 Pasai Antxo	943.512.989	-	-
Loiolaetxea Elkartea	Ategorrietako galtzara zaharra, 34. 20013 Donostia	943.285.676	-	loiolaetxea@sjloyola.org
Caritas	Salamanka Pasealekua, 2 tarteko solairua. 20003 Donostia	943.440.744	www.caritasgi.org	idazkari@caritasgi.org
Gurutze Gorria	Ategorrieta etorbidea, 10. 20013 Donostia	943.222.222	www.cruzroja.es	-
Emaus Gizarte Fundazioa	Uba bidea, 37. 20014 Donostia	943.454.573	www.emaus.com	fundacion@emaus.com
Ametzagaña Fundazioa	Uba bidea, 61. 112. postakutxatila 20080 Donostia	943.456.399 943.459.092	-	-
Izan Fundazioa	Ategorrietako galtzara zaharra, 87. 20013 Donostia	943.273.900	-	-
Larratxo Fundazioa	Larratxo auzunea, 17 behea. 20017 Donostia	943.396.294	-	-
Gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko sarea (RAIS)	San Bartolomé kalea, 27. 20007 Donostia	943.467.967	-	-

## IV. ERANSKINA: ELKARRIZKETAREN GIDOIA

### 1. Teoria-legegintza esparrua

#### 1.1. Filosofia:

Laguntza/ikerketa paradigma bateratuagoa  
Beste paradigma batzuk

#### 1.2. Legedia eta eskumenak: Europa, Estatu eta Autonomia mailak

Arautzen gaituzten legeak, eta horien artetik indar gehien dutenak  
Zein alderdik arautzen gaituzte eta zeintzuk arautu beharko gintuzkete  
Eskumen banaketa: Eusko Jaurlaritza, Aldundiak, Udalak, Osakidetza  
Baliabide, zerbitzu eta programen finantzaketa

#### 1.3. Saiakuntzak eta praktika onak: Lurralde bakoitzaren eta EAEren barruan eta kanpoan

Zeintzuk ezagutzen dituen  
Zeintzuk aplikatu daitezke beste jarduerara esparru batean  
Nabarmenak diren herriak

### 2. Laguntza baliabideak

Zer baliabide kudeatzen dituen – zer motatako taldeetara zuzentzen den  
Zer baliabide dagoen bere inguruan eta zer behar asetzen dituzten: baliabideen arteko loturak, laguntzan eman daitezkeen gabezi/desorekak, baliabideen saturazioa  
Laguntza ematen lehenak diren erakundeak  
Laguntzan aurki daitezkeen efektu gaiztoak: estigmatizazioa, egoerak/arazoak kronikoak bihurtzea  
Baliabide batzuek duten geroz eta segurtasun eza eta agresibitate handiagoa, eta horri nola egin aurre  
Sektore pribatuko balizko itzalak eta laguntzan duten eragina  
Exijentzia mailek laguntzan eragiten dituzten aldaketak, eta baliabide eta laguntza zerbitzuak arautzen dituzten legediak  
Esparru soziosanitarioa: egungo egoera, koordinazio beharra  
Laguntza eta zerbitzu baliabideen aurrean hiritarrek ematen duten erantzuna

### 3. Etxebizitarik ez duten pertsonak

Definizioa eta tipologia  
Behar zehatzak dituzten taldeak: pertsona ezgaituak, gaixo mentalak... nola laguntzen zaie?  
Agertzen ari diren profil berriak: emakumezkoak, gazteak, familiak... zer elementu berri sartzen dira laguntzan?

### 4. Sektorearen AMIA

Zer ahultasun eta sendotasun dira laguntza sektorearen ezaugarri?  
Zer oztopo eta aukera ematen ditu inguruak?

### 5. Hobekuntza proposamenak

Laguntza okerra eskaini zaien, edo laguntzarik eskaini ez zaien pertsonak eta beharrak identifikatzea  
Nola arautu liteke sektorea eraginkortasuna lortzeko?  
Laguntzarik gabeko pertsona eta beharrak asetzeko beharrezkoak diren baliabide/zerbitzu/programak identifikatu eta deskribatu

Estandura eta laguntza hobetu eta zabaltzeko behar diren elementu zuzentzaileak eta aldakuntzak identifikatzea

Heldu beharreko bide zuzenak eta zirkuituak identifikatzea

Laguntza eredu, bide eta fluxu idealak eraikitzea gizarte bazterkeria kasu larriei estaldura emateko: sarrera lantaldea, jardunbide protokoloa, beharrezko desbideratzeak, eskumenen mugaketa, irizpideak, erabiltzaileen araberako exijentzia mailen definizioa

Laguntza baloratzeko adierazleak: zenbatera gaude eredu idealetik?

## V. ERANSKINA: BIZITZA KONTAKIZUN BATEN GIDOIA

### 1. Zein da pertsona horien egoera eta nola iritsi ziren horra

Zein da pertsona horien egoera? Nola sentiarazten die? (balorazio emozionalak)  
 Zer ikuspegi dute jarraitu duten prozesuaren inguruan? Nola iritsi dira bizitzen ari diren egoerara?  
 Gertaera lazgarri bat izan zen beharrezkoa edo pilaketa hutsez  
 Bizitzen ari diren egoerari atxikitzen dizkioten arrazoiak  
 Zer diote dituzten beharren eta horien garrantziaren inguruan: bizileku bat, oinarrizko beharrak, bizirauteko ekonomia, mantentzen dituzten gizarte harremanak, gizarte bazterkeria...?  
 Zein da pertsona horien lehentasun handieneko beharren eskema?

### 2. Erabiltzen ari diren baliabidearen inguruan egiten duten balorazioa

Erabiltzen duten baliabidearen gauzarik onena eta txarra  
 Pertsona horien beharretara egokitzen al da? Asetzen al ditu? Zer botatzen dute faltan? Beharren bat geratzen al da asetzeko?  
 Nola baloratzen dute baliabide horren funtzionamendua? Profesionalen taldea?  
 Ezagutzen dituzten beste baliabide batzuekin egiten duten alderaketa

### 3. Erabilitako baliabideen sarea eta aurreikuspenak

Ze baliabide erabiltzen ditu? Nola erabiltzen ditu? (Erabilpenaren sekuentzia, esate baterako: lehenik eta behin jangela, gero aterpetxea...) Beti modu berean erabiltzen al ditu? Sekuentzia hori aldatzen badu arrazoiak ezagutu, nahi izan duelako den, baliabideen arauk ezarri diotelako, eta abar  
 Bide motak identifikatu  
 Zeintzuk erabiltzen ditu une honetan?  
 Nola aurreikusten dute baliabide horiek erabiltzea hurrengo hilabeteetan?

### 4. Baliabideetan aurkitzen diren gutxiespenak, laguntzak eta indarkeria

Erabiltzen dituen baliabideetan ematen al dira indarkeria egoerak? Nork eragiten ditu? Nola konpontzen dira? Nola sentiarazten die?  
 Hiritarrek gutxien al dituzte pertsona hauek eta hauei eskainitako baliabideak? Nola sentiarazten die horrek?  
 Baliabideak erabiltzen dituzten pertsonen artean sortzen al dira lotura eta laguntzak? Eta sortzen al dira gutxiespen egoerak? Noren artean?

### 5. Gizarteratze prozesuak eta etorkizuna

Hasi al du gizarteratze programarik edo horietako batean al dago? Zergatik pentsatu zuen aukera horretan? (gertaera erabakigarriaren bat, profesionalen batekin duen harremana, helburua lortu duten beste batzuen itzala...)  
 Horietako prozesuren batek egin al du kale? Porrotaren unea eta horri egotzitako arrazoiak identifikatu  
 Zer motatako baliabide/prozesu/ibilbide diseinatuko lituzkete beraiek? Zer da eskatzen dutena?  
 Nola ikusten dute beren etorkizuna? Nola ikusten dira hemendik 5 edo 10 urtera?

**VI. ERANSKINA: DELPHI GALDEKETAREN GIDOI ETA EMAITZAK**

**1. ETXEBIZITZARIK GABEKO PERTSONAK ETA HIRITAR-ESKUBIDEA**

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
1.1. Etxebizitzarik gabeko pertsonen ezaugarria izan ohi den gizarte haustura eta bazterkeria egoera larriak izaera boluntarista dute, hau da, ilusio faltagatik edo pertsonaren beraren nekearen ondorioz eratorritako erantzun edo erreakzioa da.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
1.1.1. Gizartearekiko haustura, arrazoi ezberdinak direla-eta (osasuna, atxikimenduak, bakardadea,...) emaniko hondatze eta deserrotze prozesu luze baten emaitza da gehiago, eta ez horrenbeste pertsonak askatasun osoz aukeratutako bidea, nahiz pertsona horietako batzuk horixe adierazi duintasuna mantendu nahian.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
1.1.2. Gizartearekiko haustura prozesuan bai pertsona bakoitzaren ahalmenek, bai pertsona bakoitzak bere biziaren gain duen erantzukizunak hartzen dute parte.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
1.2. Etxebizitzarik gabeko eta gizarte bazterkeria egoera larriak dauden pertsona hauen ezaugarria den gizartean parterik ez hartzea, gizartearekiko loturak eratzeke ezintasun pertsonalarekin lotzen da.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
1.2.1. Gizartean parte ez hartzea, pertsonak gizarte loturak eratu eta mantentzeko duten ezintasunarekin lotzen da; ezintasun hori kanpoko faktore ezberdinek (gizarte ingurunea) edo bizipenek (galera traumatikoak, desoreka psikologikoak, eta abar) eragindakoa da.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
1.3. Etxebizitzarik gabeko eta gizarte bazterkeria egoera larrian bizi diren pertsonen laguntzeko sarearen helburua, pertsona horien oinarritzko beharrei aurre egitea da, beren eskubide bat den heinean.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

## 2. GIZARTEAREN ERANTZUNA

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
2.1. Etxebizitzarik gabeko pertsona hauei laguntzeko baliabideen koka-penarekiko gizarateak egiten duen gaitzespena gero eta handiagoa da baliabide horiek herrien kanpoaldeko etxebizitza edo eremuetan kokatzen ez direnean.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
2.2. Erakunde publikoek laguntza zuzeneko baliabideetan –normalean erakunde pribatuek kudeatzen dituzte– ia parterik ez hartzeak, gizarateak horiekiko duen gaitzespena areagotzea ekartzen du, ez baita antzematen interes orokorreko edo erabilera publikoko baliabideak direnik.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
2.2.1. Gizarateak laguntza zuzeneko baliabideekiko erakusten duen gaitzespena zenbait faktoreen menpe dago: baliabide mota, zonalde batean baliabide mota horren saturazio maila, zonalde bateko auzotarrek aurretik egiten den lana, auzotarren mugimenduen indarra, baliabide bat edo beste babestearen atzean dauden interes politikoak eta komunikabideek baliabide horiei ematen dien tratamendua.	1	2	3	4	5	6	7	8,5	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
2.3. Etxebizitzarik gabeko pertsonak laguntzerakoan, komunitatea/gizaratearekin ere lan egin behar da kontzientziario eta sentsibilizazio neurriak hartuz, pertsona horien onartze eta gizarteratzearen alde egiteko.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
2.3.1. Etxebizitzarik gabeko pertsonen gizarteratzeak, gizaratearen kontzientziario eta sentsibilizazio neurriez gain, normaldutako baliabideak ahalik eta gehien erabiltzen dituzten proiektuak behar ditu.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_



Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
2.4. Kontzientziazio eta sentsibilizazio neurri horiek bai erakunde publikoetatik eta baita erakunde pribatuetatik ere sustatu behar dira, bi esparruetako erantzukizuna baita.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
2.4.1. Kontzientziazio eta sentsibilizazio neurriak esparru publikoan eta pribatuan hartu behar dira, erakunde publikoetatik hartzen direnak gailenduz.	1	2	3	4	5	6	7	8,5	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

### 3. ARAUDIA ETA PLANGINTZA

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
3.1. Etxebizitarik gabeko pertsonen laguntzarako baliabideak diseinatu eta arautzerakoan, beharrezkoa da laguntza horretan kalitatea bermatuko duten elementu eta irizpideak sartzea (azpiegituren eta emandako zerbitzuen gutxieneko baldintzak, eta abar), pertsona guztiek laguntza duina jasotzeko duten eskubidearen alde eginez.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
3.1.1. Jasotzen den laguntza kalitatezkoa eta duina izatea etxerik gabeko pertsonen eskubidea denez, beharrezkoa da gai hori arautzea eta behar bezala betetzen dela bermatzeko beharrezkoak diren kontrolerako neurriak eta baliabideak jartzea.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
3.2. Osasun eta gizarte sistemaren artean dagoen koordinazio falta, bi esparruetan elkarlanean jarduteko dagoen politika nahimen ezaren ondorio da.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10



Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
3.5. Etxebizitza eta Gizarte Gaiien Saila bere nagusitasunaz baliatu beharko litzateke beste erakunde publiko batzuk eta erakunde pribatuak etxebizitzarik gabeko pertsoneri emandako laguntza planifikatu, bideratu eta kontrolatzeko.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

**4. ETXEBIZITZARIK GABEKO PERTSONEI EMATEN ZAIEN LAGUNTZA ZUZENA**

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
4.1. Etxebizitzarik gabeko pertsonen familia edo etxea ez izatea –eta hortik erator daitezkeen ondorioak osasun tratamendu baten ondoren– ez da osasun esparruak erantzun eman beharreko beharra, gizarte esparruak baita horren erantzule.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
4.1.1. Gaixo bakoitzaren egoera soziofamiliarra, eta zehazki, etxebizitzarik gabeko pertsonena, kontuan izan beharko litzateke pertsoneri ematen zaien laguntza integrala egokiagoa izan dadin, eta osasun irizpideetara bakarrik mugatu ez dadin (alta ematea, tratamenduak jarraitzea...).	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
4.2. Egonaldiertain eta luzeko osasun baliabide berriak beharrezkoak izango lirateke, pertsona hauei etxebizitza ez izateak behar bezala osatzea zailtzen baitie.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
4.3. Etxebizitzarik gabeko pertsonen etxe duina eta ordaintzeko modukoa lortuko dutela bermatzeko, etxebizitza sistemak parte gehiago hartu beharko luke diskriminazio positiboko neurriak hartuz.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
4.4. Etxebizitzarik gabeko eta gizarte bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen ez dute laguntza sare orokorra erabiltzen, batzuetan, horretarako ahalmen pertsonala falta dutelako, eta beste batzuetan ez dutelako nahi.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

<b>Balorazioa emateko birformatutako gaia</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.4.1. Laguntza sare orokorra ez erabiltzea bi norabideko faktore ugariaren elkargunearen ondorioa da, bai pertsonaren ikuspuntuarekin zerkusia duten faktoreak (nahimen eza, gizarte ahalmen eza,...), bai baliabideetatik eratorritako faktoreak (arrenta estandarizatu eta ez norbanakoarena...).	1	2	3	4	5	6	7,5	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

<b>Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.5. Etxebizitzarik gabeko eta gizarte bazterkeria egoera larrian dauden pertsonak ez dute laguntza sare orokorra erabiltzen baliabide eta sistema horiek ez direlako beren behar eta ezaugarrietara moldatzen.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

<b>Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.6. Gizarteratzeko prozesuak hasi beharra ezin izan daiteke ezinbesteko baldintza etxebizitzarik gabeko pertsonen ostatu iraunkorra emateko.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

<b>Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.7. Etxebizitzarik gabeko pertsonen ematen zaien laguntzak, prebentzio lana jaso behar du gizarte bazterkeria egoera larrian dauden zerrenda areagotzeko aukera gehien dituzten pertsonentzako.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

<b>Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.8. Laguntza zuzena emateko erakunde ugari daude; hala eta guztiz ere, ez dira beharrezkoak diren koordinazio egiturak sortu ezkutaketak, bikoizketak eta laguntza hutsuneak ekiditeko.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

<b>Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.9. Laguntza zuzenean ematen den atomizazio hori zaila da gainditzen erakundeek ez dituztelako "laguntza kuotak" edo "bezeroak" galdu nahi.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
4.9.1. Erakunde batzuk "laguntza kuotak" mantentzeko duten joera, sistemaren antolaketak berak azaltzen du neurri batean, esate baterako, erakunde horiek administrazioetik jasotzen duten finantzaketa publikoa edo beren egitura propioa mantentzeko beharra dute.	1	2	3	4	5	6	7,5	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
4.10. Baliabide publiko eta pribatu nahikoak daude laguntza emateko; arazoa, sektorearen egituraketan, ordenamenduan eta koordinazio faltan dago.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
4.10.1. Beharrezkoa litzateke baliabideen funtzionamendu arauak, erabiltzaileen behar eta ahalmenetara egokitzea.	1	2	3	4	5	6	7	8,5	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
4.10.2. Ostatu baliabide kopurua areagotzea –pribatua nahiz publikoa– beharrezkoa litzateke, epe ertain eta luzerako laguntza motan, etxebizitzarik gabeko pertsonen eskaerari erantzun ahal izateko.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
4.11. Etxebizitzarik gabeko eta bazterkeria egoera larrian dauden pertsonen ematen zaien laguntza sare orokorrean sartu behar da, eta baliabide unibertsal edo orokorren bidez eman behar da.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
4.11.1. Etxebizitzarik gabeko pertsonen ematen zaien laguntza, sare orokorreko baliabide orokorrak erabiltzera zuzendu beharko litzateke, beti ere ahaztu gabe pertsona hauen ezaugarri zehatzei moldatutako baliabide espezializatuak jasotzen dituen laguntza zehatza eta egokitu beharrezkoa dela (deserrotze arazoak, nonbaiteko kide izatea ez sentitzea...)	1	2	3	4	5	6	7	8,5	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

<b>Balorazioa emateko birformatutako gaia</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.11.2. Etxebizitarik gabeko pertsoneri ematen zaien laguntza bi esku-hartze mailatan egituratu behar da; bata, laguntza zuzeneko zerbitzua, oinarritzkoen eta premia handieneko beharrak asetzera zuzendurik; bestea, laguntza espezializatua, gizarteratzeari eta arazo zehatzak gaingitzeari zuzenduriko zeharkako zerbitzua.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

<b>Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.12. Baliabideek duten exijentzi baxuko mailak erabiltzaileen mendekotasun ohiturak sendotzen laguntzen du eta bazterkeria egoerak areagotzen ditu.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

<b>Balorazioa emateko birformatutako gaia</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.12.1. Exijentzia baxuko maila izateak ez du bazterkeria sendotu edo areagotzen, izan ere, maila horretan topatzen diren baliabideak, gizarteratze prozesuei hasiera ematen laguntzen dutenak dira.	1	2	3	4	5	6	7	8,5	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

<b>Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.13. Exijentzia maila baxuko baliabideak egotea beharrezkoa da pertsona batzuk –exijentzia maila altuetara ezin iristeagatik– oinarritzko beharretarako laguntzarik gabe geratzea ekiditeko.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

<b>Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.14. Emakumeen presentzia etxebizitarik gabeko pertsonen artean gizonezkoena baino baxuagoa da, eta horrek azalpen soziokulturala du: gizaratean emakumeek zaintzaile rola betetzen dute, eta familiaren ardura bere gain hartu ohi dutenez, familia lotura horiek ez apurtzeko joera dute.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

<b>Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko</b>	<b>Adostasun maila</b>									
4.15. Etxebizitarik gabeko emakumeen hondamena handiagoa da gizonena baino, bi arrazoi direla-eta: kaleko bizitzari aurre egiteko erresistentzia fisiko txikiagoa dute, eta denbora gehiago uzten dute pasatzen laguntza eskatu gabe, beren beharretara egokitzen diren baliabideak ez dituztelako topatzen.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Balorazioa emateko birformulatutako gaia	Adostasun maila									
4.15.1. Emakumeen hondamena erresistentzia fisikoarekin baino, bestelako faktore batzuekin lotura handiagoa du, esate baterako, sustantzi batzuekiko atxikimendua, gaixotasun mental kasu gehiago, egoera larri gehiago bizitzea, eta gizarte estigmatizazio eta bazterkeria handiagoa.	1	2	3	4	5	6,5	7	8	9	10

Ekarpenak: \_\_\_\_\_

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
4.16. Gizarteratze prozesuetan indarra jarri behar da pertsonetikiko loturretan, ondorenean motibazioa lantzeko hezkuntza bide edo proiektua azaldu aurretik.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
4.17. Etxebizitarik gabeko pertsonak bere gizarteratze prozesuan parte hartu behar du, eta horren diseinuan eta ebaluaketan sartu behar da.	1	2	3	4	5	6	7	8	9,5	10

Delphi 1ean galdetutako gaia, zure puntuazioa mantentzeko (X) edo aldatzeko	Adostasun maila									
4.18. Beharrezkoa da iraupen luzeko edo bizialdi osorako laguntza neurriak sartzeari, etxebizitarik gabeko pertsona batzuren profila kontuan hartzea.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

Behin bigarren galdeketa hau erantzunda, galderen osotasunari ekarpenik gehitu nahi al diozu?

---



---



---



---